

John Dos Passos

Manhattan Transfer

**euskaratzaileak: Iñaxio Lopez de Arana,
Martzelo Lopez de Arana**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Iñaxio Lopez de Arana,
Martzelo Lopez de Arana.

Euskarazko edizioa: Literatura unibertsala, 1999

Jatorrizkoaren data: 1925

John Dos Passos euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=229>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=1592>

AITZINSOLASA

Desilusia, sormenaren pizgarri

John Dos Passos (1896-1970) eleberrigilea Chicagon jaio zen, Illinois estatuan. Portugaldar jatorriko abokatu aberats baten sasiko semea izanik, bere amarekin atzerrian eman zuen haurtzaroaren eta nerabezaroaren zati handi bat. EEBBetara itzulita Harvard Unibertsitatean graduatu zen 1916an. Geroago, Lehenengo Mundu Gerran, anbulantzia-gidari ibili zen Italian eta Frantzian. Orduko bizipenak oinarritzat hartuta, *Three Soldiers* (1921) eleberri bakezale garrantza plazaratu zuen, errealitate haren ankerkeriaren topo egiteak sortarazi zion asalduraren adierazle.

Lehenengo Mundu Gerraren ondoren errealtatea ez zitzaion batere asebetegarri; iritzi berekoak ziren «Belaunaldi Galdua» idazle-taldeko gainerako kideak ere. Hain zuzen ere, horixe zuten ezaugarri behinena, errealitateak ernarazten zien desilusio handia, alegia.

Manhattan Transfer (1925) eleberriari esker, ospe handia lortu zuen. New York hirian kokaturiko kontakizun luze honetan berrikuntza estilistikoak egiteko aukera izan zuen John Dos Passos-ek, USA trilogian erruz baliatuko zituen berrikuntzak.

New Playwrights Theatre-rekin zuen harremanaren ondorioz, *The New Masses* egunkari ezkertiarrean idazten hasi zen. USA trilogia argitaratzearekin batera, Dos Passos langileen idazlea zelako ustea areago sendotu zen.

Nicola Sacco eta Bartolomeo Vanzetti anarkistak 1927an exekutatu izanak berebiziko eragina izan zuen idazle estatubatuar honengan eta bien barkamena lortzeko alferrikako ahalegine-tan gogotik aritu zen. Harrezkero Estatu Batuen baitan «bi nazio» bereizi zituen: batetik, aberats eta pribilegiatuena eta bestetik, pobre eta babesgabeena. USA trilogiak (*The 42nd Parallel*, 1919 eta *The Big Money*) ederki islatu zuen bita-sun hori. *The 42nd Parallel* (1930) eleberrian, 1900etik Lehenengo Mundu Gerrara bitarteko aldia izan zuen gai nagusia. 1919 (1932), berriz, gerraz eta Versaillesko ituna sinatu zen urteaz

ari da. Hurrengo hamar-hamabost urteez, ordea, *The Big Money* (1936) liburuak dihardu, hain zuzen ere, 20ko hamarkadako bat-bateko hazkuntza ekonomikotik hasita 30ko hamarkadako porrotera arte. Dos Passosek halako egiazkotasun-kutsu batez hornitzen ditu bere kontakizunak, alegiazko bere pertsonaiak indartu nahirik. Esaterako, benetako egunkari-tituluak eta garai-ko kanta egokiro nahasita, «newsreels» izeneko koktel informatiboak sortzen ditu. Aldian behin sistemaren ordezkari ezagunen biografiak ere erabiltzen ditu trilogian, hala nola, Henry Ford autoegile, Thomas Edison asmatzaile, Woodrow Wilson presidente eta J. P. Morgan finantzariarena. Gainera, «beste nazio» horretako kideak ere agertzen dira, besteak beste, Eugene V. Debs sozialistak, Thorstein Veblen ekonomilariak eta Lehen Mundu Gerrako Soldadu Ezezagunak. «Kameraren begia» izeneko prozeduraren bidez gertakarien beste neurri bat eskainiko zaigu, ikuspuntu hurbila, poetikoa eta egilearen bizitzaren zipriztinez hornitua.

USA izeneko lan mardularen ondoren *District of Columbia (Adventures of a Young Man, 1939;*

Number One, 1943; *The Grand Design*, 1949) trilogia apalagoa argitaratu zen; bertan John Dos Passosek argi eta garbi agertu zuen langileen mugimenduak, komunismoak eta New Deal ize-neko erreforma ekonomiko-sozialak gero eta lilura gutxiago pizten ziotela. Bere sormenaren gainbehera eta bere ikuspegi politikoa —gero eta kontserbadoreagoa— ederki asko islatu zituen bere ondorengo lanetan.

***Manhattan Transfer*: hiri handi baten taupada mingarria**

New York jatorri anitzeko gizon-emakume aldren bilgune gisa ageri zaigu, zenbaitzuek hizkuntza-arazoak ere badituztela. Guztiek ingelesa dute lokarritzat, mintzatzen hasi orduko euren jatorriaren zantzua agerian uzten badute ere. Alemaniarrak, frantziarrak, hiritik kanpoko eskolatu gabeak, juduak eta New Yorkeko jargoia darabilten hiztunak ditugu, besteak beste, *Manhattan Transfer* liburuko pertsonaietako batzuk, zein bere mintzaera eta bereizgarri fonetikoekin. Ugaritasun horrek hamaika buruhauste eta eragozpen sortarazi dizkigu liburu hau euskaratu

dugunoi. Hartara, batzuetan asmamenaz baliatu beharra izan dugu eta besteetan ezinaren aurrean makurtzea besterik ez dugu izan, itzulpena taxuz egitekotan.

Kontakizunak bat-batean eta zirraragarriro egiten du jauzi pertsonaia batetik bestera eta leku batetik bestera, gidoi zinematografiko bat bailitzan. Era berean, sentimenei buruzko hainbeste xehetasun ematen zaigu, ezen baitirudi kaleak isuritako urrinei nahiz kiratsei antzema-tea badugula, baita ilunabarraren isla gorriez gozatzea eta hiriko trafikoaren ardailan murgiltzea ere. Hori dela eta, pertsonaien sentsazioak eta sentimenduak gertu-gertutik sumatzen ditugu, euren larrupean biziko bagina bezala, ia-ia geure egiteraino. Dos Passosek deskripzioetan darabilen zolitasunak zuzen-zuzenean zementuzko hiri-oihanera garamatza, oihan bizi-bizi, koloretsu eta kalapitatsura.

Inguruabar bortitz horretan gertatzen da bizi-bidea ateratzeko eguneroko borroka, batzuen mesedegarri eta besteen galgarri dena. Borroka hori askorentzat bizirik irauteko bide bat baino ez da; banaka batzuek, aldiz, lan-munduan arra-

kasta lortzeko tresna kasik obsesiboa dute. Hala, pertsonaiek bizimodu konplexua dute: guztiek amets bana dute golkoan, horren ordainetan euren egunez egunekoa garraztasunez mukuru beterik badago ere. Arrakastaren eta porrotaren arteko muga ez dago guztiz zehazturik; garaile ustekoak alproja zikin batzuk besterik ez dira eta itxuraz galtzaile direnak edota bizitza gordinari hagina sartu ezinik dabiltzanak izaten dira zintzoenak eta sentiberenak. Hiria pertsonaien bozkarioen eta bihozminen lekukoa da, haien gazi-gozoak bertatik bertara ikusten ditu, alegia, hiriaren presentzia hain da nabarmena, beste pertsonaia baten gisara jokatzeko baitu: jaikitzen da, lo egiten du, hitz batean, bizi-bizirik dago... Aldi oro kaleren bat aipatzen da (berrogeita hamar kale inguru ageri dira liburuan), baita parkeren bat, plazaren bat edo eraikinen bat ere. Datu horiek guztiak kontuan hartuta, hiriaren garai hartako planoa erraz asko irudika dezakegu geure gogoan. Hudson ibaiari buruzko aipamenak ere sarri egiten ditu Dos Passosek: beti langar eta ketan; denetariko itsasontzien desfile amaigabeen agerlekua; gerratik datozenek, jus-

tiziatik ihesi dabiltzanek, langileek, deportatuek, trafikatzaleek eta abarrek igaro beharreko atea. Kontakizuna ferry batean hasten da eta ferry horrexek bukaeraraino eramango gaitu. Laburbilduz, ibaia funtsezkoa da narrazioaren egituran.

Kontraste mingarriz beteriko mundu honetan, New York bezalako hiri handiak gizarte-bidegabekerien adierazle argiak dira. *Manhattan Transfer* eleberriak desoreka hori gordinki islatzen du. Ezinbestez gaur egungo hiri handi bat gogora dakarkigun giza gunek batera garraiatzen gaitu. Txiroen minaren eta itzalik ezaren aurrean, aberatsek soraioa eta are destaina beste erantzunik ez dute. Zoritxarrez, gaur egun ohiko bihurtu da kontraste samingarri hori.

Azken batean, XX. mende hasierako New York hiriaren gizarte-mailei buruzko halako azterlan bat da *Manhattan Transfer* eta, gure iritziz, nagusiki adierazi nahi du ondasun-banaketa bidegabeak idazlearen baitan eragiten duen nahigabe larria. Pertsonaiak gaizki kokatuta daude bizitzaren argazkian, lekuz kanpo: dirua edo boterea edukiagatik maitasuna falta dute

edo maitasuna eskuratzen dutenean diruak edo botereak ihes egiten die. Beti zerbaiten husmina sentitzen dute. Prestuak izanez gero, dohaka-beak izaten dira; liburu honetako jende zitalak, ordea, errazago du bere xedeak iristea.

Bestalde, garai hartako gertakariei buruzko aipamenak ere ugariak dira, hala nola, gertakari politikoak (Lehenengo Mundu Gerra, «boltxe-biken mehatxua» etab.), gertakari kulturalak («Follies» izeneko ikuskizunak, kontakizunean eta pertsonaien gogoetetan txertatutako kanta etab.). Horrek guztiak garai hartako gizartearen bihotzean kokatzen gaitu, mezua zirraragarriago, sinesgarriago eta zuzenago eginez.

Beraz, *Manhattan Transfer* eleberriak New Yorken XX. mende hasieran gertatu zen kultur arragoa erakutsi nahi du, gizarte-maila guztiak islatuz, suhiltzaileen adar-hotsekin batera taupada eginez eta hiri handi bat bisitatu ondoren bidaiari guztien ahoan sortu ohi den gezamina irakurleei erantsiz.

Marcelo López de Arana Arrieta
Iñaxio López de Arana Arrieta

LEHENENGO ZATIA

Lehenengo atala

Ontziralekua

Hiru kaio jira-biraka zebiltzan; behean, hesiaren ohol ezpalduen artean flotatzen, kutxa hautsiak, laranja-azalak eta aza ustelak zituzten. Uhin berdeak apar bihurtzen ziren ferryaren branka biribilaren azpian. Ur-azala arrailatzen zuen ferryak laprast egiten zuen eta, mareak bere altzoan eramanez, astiro-astiro iristen zen ontziralekura. Biraderak aurrera eta atzera kateen txilin-hotsa eginez, ateak gorantz, hankak lehorrera salto eginez. Gizonak eta emakumeak bultzaka sartzen ziren egurrezko tunel kirastuan, elkar estutuz eta zanpatuz, anteparatik dolarera erortzen diren sagarrak bailiran.

Erizainak gela handi, bero eta lehor bateko atea ireki zuenean, besoa luze-luze, saski bat zeraman, txizontzi baten modura erabiliz. Hango airean alkohola eta iodoformoa antzeman zitezkeen, eta horma berdexketan zehar kokatutako beste saski batzuetatik zetozen garrasi etengabeek indarge gora egiten zuten kiribilean. Saskia bere lekuan uzterakoan, ezpainak estu, begiratu bat egin zion erizainak. Jaioberria kotoien artean emeki-emeki iraulkatu zen, zizare-pilo baten gisan.

Ferryan, gizon zahar bat biolina jotzen ari zen. Haren tximino-aurpegiaren alde bat erabat zimurtua eta okertua zegoen, eta txarolezko zapata arrakalatu baten puntaz zeraman konpasa. Bud Korpenning, hari begira, barandan bermatuta eta ibaiari bizkarra emanaz zegoen. Brisak kapelaren ertz estutuaren inguruko ilea harrotu eta lokietako izerdia lehortzen zion. Oinak babaz beteta zeuzkan eta leher eginda zegoen, baina ferrya ontziralekutik ibaiaren ur

izurtuaren gainean zamalkatzen aldentzean, halako inurridura bero bat sentitu zuen zainetan.

— Aizu, ferrya porturatuko den lekutik hiria urrun al dago? —galdetu zion marra zuri-urdineko korbata eta lastozko kapela zeramatzan ondoko gizagazte bati.

Gazteak goitik behera begiratu zion Budi, ibilaldi luzeak desitxuratutako zapatetatik eskumutur gorrietaraino, jakaren mahuka higatuen azpitik ageri baitziren; Buden indioilar-lepo mehea zeharkatu zuen gero; eta azkenik, begirada hura haren begi ausartetan iltzatu zen lotsarik gabe, bisera apurtu baten itzalpean zeuden begietan.

— Joan nahi duzun lekuaren arabera.

— Nondik joan behar dut Broadwayra iristeko?... Gauza guztien muinera joan joan nahi dut.

— Joan sortalderantz, eta etxe-bloke bat atzean utzi ondoren, jarraitu Broadwayn zehar, eta gauza guztien muinera iritsiko zara, dezente ibiliz gero behintzat.

— Eskerrik asko. Horixe egingo dut.

Biolinjolea, haizeak ile urdinezko xerlo batzuk soilune higatuan inarrosten zizkion bitartean, kapela luzatuz, jendetzaren artean zebilen

eskean. Budek antzeman zion begitarte bihurtzen zuela bera zegoen lekura; haren bi begi beltz zanpatuak, orratz-buruak ziruditenak, begira zeuzkan, adi-adi.

— Ezer ez —esan zuen zakar.

Eta burua jiratu zuen, ibaiaren handitasunari so egiteko, ibaia aitzo-ahoz beterik zegoela baitzirudien, hain ere zen distiratsu. Ontziralekua-ren oholak gerturatu ziren, karraska egin zuten ferryarekin talka egiterakoan. Kateek kirrinka egin zuten, eta jendetzaren zurrunbiloak Budkaian barrena eramane zuten. Ikatzak garraiatzen zuten bi bagoiren artean, hautsez betetako kale batera irten zen, nondik tranbia horiak igarotzen baitziren. Belaunak dardara batean hasi zitzaizkion. Eskuak poltsikoetan sartu zituen, barruraino.

Kale-kantoirak iritsi aurretik, eat hitza irakur zitekeen otorduak ematen zituen bagoi baten gainean. Aulki birakari batean akiturik eseri eta prezio-zerrenda arreta handiz aztertzeari ekin zion.

— Arrautza frijituak eta kafea.

— Gorringoa gora alabehera? —galdetu zuen gizon ilegorri batek barraren atzealdetik, oreztaz beteriko beso lodiak amantalaz garbitzen ari zela.

— Zer? —Bud Korpenning zutitu zen asaldatuta.

— Arrautzak, ea gorringoa gora ala behera dutela nahi dituzun.

— A bai, gorringoa behera.

Bud, burua esku artean, gogorik gabe bertatu zen berriro barra gainean.

— Aizu, leher eginda ematen duzu —esan zuen tabernariak, zartagineko koipe kirrinkarira arrautzak botatzen ari zen bitartean.

— Oinez nator estatuko iparraldetik. Gaur goizean hamabost milia egin ditut.

Barrako gizonak txistu-antzeko hots bat jaulki zuen letaginen artetik.

— Lan bila etorri zara hirira, ezta?

Budek baietz egin zuen buruaz. Tabernariak arrautza karraskatzaile eta xigortuak plater batera bota zituen. Gero, platera Bud zegoen lekurantz bultzatu zuen, ertzean ogi apur bat eta gurina ezarri ondoan.

— Aizu, dohainik aterako zaizun aholku txiki bat emango dizut. Lan bila hasi baino lehen, bizarra egin, ilea moztu, jantzia eskuilatu eta kendu baldar-itxura hori. Horrela aukera gehiago izango duzu ezer aurkitzeko. Itxura da hiri hone-tan balio duen gauza bakarra.

— Nik ondotxo dakit zer den lan egitea. Langile ona naiz —marmar egin zuen Budek, ahoa beteta zeukala.

— Horixe da guztia. Esan dizut, bada —esan zuen ilegorriak eta su txikira itzuli zen.

Erietxeko atondo handiko marmolezko eskaileretan gora, Ed Thatcher dardarka zihoan. Sendagaien usaina eztarrian itsatsita geratzen zitzaion. Emakume aurpegi zorrotz batek so egiten zion idazmahai baten gainetik. Ed lasai hitz egiten saiatu zen.

— Esango didazu nola dagoen Mrs. Thatcher?

— Zu zeu igo zaitezke ikustera.

— Esadazu mesedez, andereño, dena ondo doa?

— Solairuko erizainak emango dizkizu nahi dituzun argibide guztiak. Ezkerreko eskailera, hirugarren solairua, ama berrien atala.

Ed Thatcherrek lore-sorta bat zeraman paper ezkoztatu berde batean bilduta. Estropozoka igo zen; hori zela eta, bazirudien eskailera handia kulunka zebilela, zuntzezko alfonbrari eusten zioten letoizko arrabolekin oin-puntez behaztopa egiten baitzuen Thatcherrek. Ate bat ixtearekin, txilio ito bat etenda gertatu zen. Edek erizain bat geldiarazi zuen.

— Mrs. Thatcher ikusi nahi nuke, mesedez.

— Tira, segi aurrera, non den baldin badakizu, behintzat.

— Beste leku batera eraman dute baina.

— Bulegoan galdetu beharko duzu orduan, galeriaren amaieran.

Edek ezpain hotzei haginka egin zien. Ema-kume aurpegi gorrixka batek irribarretsu behatu zion galeriaren amaieratik.

— Dena ondo atera da. Neskato sendo baten aita dohatsua zara.

— Begira, gure lehenengo umea da, eta Susie ez da oso gogorra... —esan zuen hitz etenez, begiak itxi-irekika zituela.

— A bai, ulertzen dut, zu kezkatuta zeunden, jakina... Barrura sartu eta esnatzen denean zure emaztearekin hitz egin dezakezu. Bi ordu dira neskatoa jaio dela. Saiatu ez nekarazten.

Ed Thatcherrek, bibotetxo horaila eta begi kolorgeko gizon txikiak, irribarre egiterakoan bere hortz horiak eta gorabeheratsuak erakutsiz, erizainari eskua hartu eta astindu egin zion.

— Lehenengoa da, badakizu...

— Zorionak —esan zuen erizainak.

Gas-lanparen argi zakarraren azpiko ohe-ilarak, izarak behin eta berriro astintzearen ondorioz sortutako usain okaztagarriak, aurpegi lodiak, zargalduak, horiak, zuriak. Hortxe dago. Ile horailak, txirikorda batean bildurik, Susieri bisaia txiki eta zuria zedarritzen zion; une hartan oker eta makala zirudien bisaia hark. Arrosak askatu eta gau-mahai gainean ezarri zituen. Leihotik begiratzea eta uraren hondora begiratzea bat ziren. Plazako zuhaitzak, amaraun urdinen gisan, elkarri lotuta zeuden. Farolak etorbi-

dean gaindi izekitzen ari ziren eta isla berdeak jaurtikitzen zituzten etxe-bloke moreen gainean. Tximinien eta ur-deposituen soslaia nabarmenkiro ikus zitekeen haragia bezain gorrixka zen zeru hartan. Azkenik, betazal urdinxkak altxatu egin ziren.

— Zu al zara, Ed?... Ene, *Jack*-ak dira eta! Sekula halakorik!

— Ezin izan diot tentazioari eutsi, laztana. Banekien gustuko zenituela.

Erizain bat ohearen oinaldearen inguruan zebilen.

— Aizu, utziko al diguzu umea ikusten?

Erizainak baietza eman zuen. Emakume hark aurpegi zimel eta zurbila zeukan, eta ezpain bilduak.

— Gorroto dut —marmar egin zuen Susiek—: neure onetik ateratzen nau. Neskazahar zital horietako bat da, besterik ez.

— Ez egin kasurik, maitea. Hau egun bateko edo bi eguneko kontua baino ez da.

Susiek begiak itxi zituen.

— Oraindik Ellen deitu nahi al diozu?

Erizaina saski bat eskuan zuela itzuli zen; ohe gainean paratu zuen, Susieren ondoan.

— Ai ene, ze polita den! —esan zuen Edek—. Begira, arnasa hartzen ari da... Eta igurtzialdi bat eman diote.

Edek bere emazteari lagundu zion ohean ukondo baten gainean agoten. Susieren txirikor-
da horaila berez askatu zelarik, Eden besoa eta eskua estalita geratu ziren.

— Nola bereizten dituzu, erizain?

— Batzuetan ezin ditugu bereizi —esan zuen erizainak, ahoa urratuz irribarre egin nahian.

Susie, harro eta fidagaitz, aurpegi ñimiño morexkari begira zegoen.

— Seguru al zaude hau dela nirea?

— Jakina.

— Ez dauka etiketarik baina.

— Oraintxe jarriko diot.

— Nirea, ordea, beltzarana zen.

Susie, arnasestuka, burukoaren gainean etzan zen.

— Zure ilearen kolore bereko bilotxo argia dauka.

Besoak buruaren gainetik luzatuta, Susiek deiadar egin zuen:

— Ez da nirea, ez da nirea!... Eraman ezazue hemendik... Emakume honek alaba lapurtu dit!

— Maitea, Jainkoarren! Maitea, Jainkoarren!
—erregutu zuen senarrak, emaztea estalkiaz ondo tapatzen saiatzen ari zen bitartean.

— Jesus! —esan zuen lasai erizainak, saskia biltzen ari zela—; lasaigarri bat eman beharko dizut.

Susie, zurrun, ohe gainean eseri zen.

— Eraman ezazue hemendik! —oihu eginda, atzerantz erori zen nerbio-atake batek jota, auhen indargeak etengabe eginez.

— Ene Jainkoa! —oihu egin zuen Ed Thatcherrek, eskuak batuta.

— Hobe duzu alde egitea... Zuk alde egin bezain laster lasaitu egingo da. Arrosak uretan ipintzera noa.

Eskaileraren azken aldean, astiro jaisten ari zen gizon lodikote baten parean jarri zen Ed. Eskuak igurtziz zihoan gizon hura. Bien begiek topo egin zuten elkarrekin.

— Dena ondo doa, jauna? —galdetu zuen gizon lodikoteak.

— Bai, baietz uste dut —esan zuen Thatcherrek indarge.

Lodikotea bere ahots zakarrari poza zeriola harengana jiratu zen:

— Emaskidasu sorionak! Emaskidasu sorionak! Nire emasteak mutil *pat* isan du!

Thatcherrek haren esku txiki eta lodia estutu zuen.

— Nirea neska da —aitortu zuen ahalkez.

— Nik *post* urrtetan *post* alapa, eta orain, pentsa, mutil *pat*!

— Bai —esan zuen Thatcherrek espaloira iris-terakoan—, gaurkoa oso egun berezia da.

— Tragoxka *pat* harritu nahi al dusu nirekin, hau dena ospatzeko?

— Atsegin handiz.

Hirugarren Etorbideko kale-kantoian taberna bateko ate erdi saretadunak aurrera-atzera higitzen ari ziren. Oinak kontu handiz igurtzi ondoan, barnealdeko salara joan ziren.

— *Ach!* —esan zuen alemaniarrek, pitzaturik zegoen mahai marroi batean esertzen ziren

bitartean—; familiak hamaika arrdura ematen ditu.

— Hala da, jauna; hauxe da nire lehenengo umea.

— Garagarrdoa nahi al dusu?

— Bai, edozein gauza.

— *Pi potila Culmbacher inporrtatu*, gure haurren osasunera edateko.

Botilen tapoiek salto egin zuten, eta sepia-koloreko bitsak gorantz egin zuen edontzietan.

— Topa desagun gure etorrkisunaren alde!... *Prosit!* —esan zuen alemaniarrak edontzia gorantz zeramala; gero, biboteko bitsa kendu eta bere ukabil arrosaz kolpe bat jo zuen mahaian—: *Peharrpada* gehiegi galdetzea da Miiisterr...

— Thatcher dut izena.

— Mrr. Thatcherr, gehiegi galdetzea da ea sein lanpide dusun?

— Kontularia naiz, eta zinpeko kontularia izatea espero dut.

— Ni inprimatzailea nais, eta Zucher dut isena, Marcus Antonius Zucher.

— Pozten naiz zu ezagutzeaz, Mr. Zucher.

Eskua eman zioten elkarri mahaiaren alde batetik bestera, botilen artetik.

— Sinpeko kontulari *patek* diru asko irapasten du —esan zuen Mr. Zuckerrek.

— Diru asko da nik behar dudana nire neska-toarentzat.

— Oi seme-alapak! Dirua xahutu *pesterik* es dute egiten —jarraitu zuen Mr. Zuckerrek ahots sakonaz.

— Utziko didazu botila batera gonbidatzen? —esan zuen Thatcherrek, poltsikoan zenbat diru zeukan kalkulatzeko zuen bitartean—. Susie koi-taduari ez litzaioke gustatuko ni edaten ikustea hau bezalako taberna batean; baina, behingoa-gatik... eta, gainera, aita izateko arteari buruzko eskolak hartzen ari naiz.

— Senpat eta gehiago, orrduan eta hopeto... —esan zuen Zuckerrek—, baina seme-alapek diru asko jaten dute... jan eta arropa apurrtu *pesterik* es dute egiten. Askenean, negosioa susentzea lorrtzen dugu eta... *Ach!* Orain... es da patere errasa hipotekekin eta maileguak lorrtze-ko sailtasunekin, eta soldatak gorantz etengape,

gainera, hemengo sindikatuetakoa sozialistekin eta nahastaile soro horiekin...

— Tira, zure osasunera, Mr. Zucher.

Mr. Zucherrek esku banako hatz lodiaz eta erakusleaz zanpatu zuen bibotean zeukan bitsa.

— Egunero es dugu semerik mundura ekarrizten, Mrr. Thatcherr.

— Edo alabarik, Mr. Zucher.

Tabernariak beste botila batzuk ekarri zituen, mahaia garbitu zuen, eta zapia esku gorrixken artean dindilizka zeukala entzuten geratu zen.

— Eta nik esperantza bat daukat *pihotzean*: nire semeak xanpaina edango duela, *pere* semearen osasunerako topa egiteko orrdua iristen saionean. *Ach!* Horrelakoak dira hiri handi honetako gausak.

— Alaba etxekoia eta lasaia izatea gustatuko litzaidake, ez oraingoak bezalakoa, girgileriak, farfailak eta gerritxoak besterik ez dute eta. Ni ordurako erretiratuta egongo naiz, eta finka txiki bat izango dut Hudson ibaiaren ertzean. Arratsaldez lorategian egingo dut lan... Tipo bat baino gehiago ezagutzen dut, urtean hiru mila dolarreko erretiro-pentsioa jasotzen duena.

Dirua aurrezteak horretara iristeko modua ematen du.

— Dirua aurrezteak ez du ezertarako balio — esan zuen tabernariak—. Nik hamar urte eman nituen dirua aurrezten, eta banketxeak porrot egin eta dena galdu nuen, taloitegi bat izan ezik, oroigarri gisa. Sistema bakarra dago: isilpeko informazioa jaso eta norbera arriskatzea.

— Hori diruarekin jokatzeta da, besterik ez — eten zuen Thatcherrek.

— Bai jauna, diru-jokoa da hori —esan zuen tabernariak.

Eta, hutsik zeuden bi botilari aurrera-atzera eragiten zielarik, barrara itzuli zen.

— Diru-jokoa. Es dago erapat okerr. Diru-jokoa —esan zuen Mr. Zucherrek, garagardoan begirada distiratsu eta pentsakor bat iltzatuz—. Handinahia duen gisonak arriskatu egin *peharr* du. Handinahiak ekarri ninduen Frankfurrtetik, hamapi urrte nituela, eta orain seme *patentzat* egin *pehar* dut lan. Wilhelm isango du isena, kaiserrak *pesala*.

— Nire alabatxoak Ellen izango du izena, nire amak bezala.

Ed Thatcherri begiak malkoz bete zitzaizkion. Mr. Zucher altxatu egin zen.

— *Peno, adio, Mr. Thatcherr.* Oso atsegina izan da su esagutzea. Etxera noa nire alapatxoekin egotera.

Thatcherrek berriro hartu zion esku txiki eta lodia, eta amatasunari, aitatasunari, urtebete-tzeetako tartei eta eguberriei buruzko gogoeta gozoetan erabat murgilduta zegoela, Mr. Zucher ikusi zuen sepia-koloreko laino apartsu batean, ahate-ibilkeraz, ate birakarietatik irteten. Apur batean horrela egon eta besoak luzatu zituen. «Tira, Susie koitaduari ez litzaiokek gustatuko ni hemen ikustea... Guztia harengatik eta alabatxo xarmangarriarengatik».

— Aizu, ez duzu ordaindu behar ala? —galdetu zuen ozenki tabernariak, Ed Thatcher atean zegoela.

— Ez al du bestiak ordaindu?

— Bai zera!

— Hark gon... gonbidatu nau, ordea!

Tabernaria barreka hasi zen, dirua hartzen zuen bitartean.

— Lodikotea bai dela aurrezkizalea! Izango ez da ba!

Allen Street-en gora, onddo-kapelarekiko gizontxo bizardun eta hankoker bat zihoan. Kale hark eguzki-printzek marratutako tunel bat zirudien, eta hainbat koloretako ohe-estalkiak ikus zitezkeen zintzilik bertan: batzuk, zeru-urdinak; beste batzuk, izokin-kolorekoak; eta beste batzuk, berriz, hori ilunak. Halaber, bigarren eskuko hamaika altzari zeuden pilaturik, ogi beltz kolorekoak. Gizontxoak eskuak longainaren hegalean gurutzatuta zeuzkan, hotz; aurrera zegien enbalaje-kutxen artetik, baita alde bate-tik bestera korrika zebiltzan umeen artetik ere. Ezpainei kosk egiten zien etengabe, eta ezin zion atzamarrak elkarri lotu eta askatzeari utzi. Aurrera zihoan, umeteriaren oihuak entzun gabe eta goialdetik igarotzen ziren trenen dardara txundigarria aditu gabe. Era berean, ez zion erreparatzen jendez gainezka zeuden etxebizitz-en usain mindu eta gazi-gezari.

Canal Street-eko kantoian gelditu zen, horiz margotuta zegoen drogeria baten aurrean; han, erne baino erneago, atzealde berdea zuen iragarki batean pintatutako aurpegiari begira geratu zen: bizarra kendu berria zirudien, dotorea zen; bekain kakotuak zeuzkan eta ondo apaindutako bibotetzarra. Banketxean dirua daukan gizon baten aurpegia zen, arrakastaren ispilu ezin hobe, gorbata handi beltz batek estututako tximeleta-lepo baten gainean ezin ederkiago kokatua. Behealdean, letra argiz idatzirik, king c. gillette sinadura irakur zitekeen. Buruaren gainean lema zetzan: *no stropping no honing*. Gizontxo bizardunak onddo-kapela atzerantz eramane, eta bere bekoki izerditsua erakutsiz, luzaz geratu zen king c. gilletteren begiei so, dolarrak eman ohi duen harrotasunez mukuru beteriko begiak. Gero, ukabilak estuturik, paparra atera eta drogerian sartu zen.

Haren emaztea eta alabak ordurako alde eginak ziren etxetik. Ur-ontzi bat berotu zuen gaslabeskaren gainean. Horren ondoren, apal batean aurkitu zituen artaziez bizarraren kizkur luzeak ebaki zituen. Berehalaxe hasi zen kontu

handiz bizarra mozten nikelezko aitzur berriaz. Zutik zegoen, dardarka, ispilu lausotuaren aurrean, atzamarrak masaila zuri eta leunetan zehar zerabiltzala, eta bibotea apaintzeari ekin zion. Une hartantxe ahots bat entzun zuen bere atzean. Burua jiratuta, dolarrak eman ohi duen harrotasunaz irribarre egiten duen aurpegia erakutsi zuen, king c. gilletterena bezain laua. Bi neskatoek begiak zabal-zabalik zeuzkaten.

— Amatxo..., aitatxo da eta! —hots egin zuen handienak.

Haren emaztea, arropa-zaku bat bailitzan, indarge eta astunki eseri zen kulunkaulkian; han, burua amantalaz estali zuen.

— Ene! Ene! Ene! —auhen egin zuen, aurre-ra-atzera kulunkatzen ari zen bitartean.

— Zer duzu baina? Ez zaizu gustatzen ala?

Gizona, aitzur distiratsua eskuetan, alde batetik bestera zebilen, eta noizean behin kokots laua igurtzitzen zuen.

Bigarren atala

Metropolia

Babilonia eta Ninive adreiluzkoak ziren. Atenas osoan gaindi nagusitzen ziren marmolezko urre-koloreko zutabeak. Erroma harrizko arku zabaletan eraiki zuten. Sekulako kandelak bailiran, dirdai egiten zuten Konstantinoplako minareteek Urrezko Adarraren inguruan... Altzairua, beira, baldosak eta hormigoia izango dira etxe-orratzen materialak. Uharte mehar batean pilaturik, mila leihoko eraikinak tente ageriko dira, distiratsu, piramide bat bestearen gainean, ekaitza behean uzten duten hodei zuriak bailiran.

Kezka asaldagarriez gainezka, Ed Thatcher bakar-bakarrik sentitu zen, gelako atea bere atzean itxi zenean. Susie han izan balitz, Edek esango zion zenbat diru irabaziko zuen; aurrezki-

kutxan asteen hamar dolar sartuko zituela ere aipatuko zion, eta diru hori Ellen txikiari emango ziola, eta ez beste inori. Horrela, bostehun eta hogeit hamar dolar batuko zituen urtebetean... Hamar urtean, korrituak kontuan hartu gabe, bost mila dolar baino gehiago. Bostehun eta hogeit dola- rren korritu konposatua kalkulatu behar dut, ehuneko lauan ezarriz gero. Ed, oso aztoratuta, gelan atzera eta aurrera zebilen. Gas-lanparak, katuen antzera, patxadan egiten zuen urruma. Eden begiak egunkari bateko titulu baten gai- nean pausatu ziren. Izan ere, Susie erietxera eramateko kotxe baten bila abiatu zenean, egunkari hura lurrera bota zuen, ikatz-ontziaren ondora.

MORTONEK NEW YORK-EKO
ZABALGUNERAKO PROIEKTUA SINATU DU.

NEW YORK MUNDUKO BIGARREN METROPOLI
BIHURTUKO DUEN DEKRETUA ONARTU DU.

Arnasa sakon harturik, egunkaria tolestu eta mahai gainean utzi zuen. «Munduko bigarren

metropolia... Eta aitak ni Onteora-ko bere denda zaharrean geratzea besterik ez zian nahi! Eta beharbada hantxe geratuko ninduan, Susieren-gatik izan ez balitz...». Jaunok, zuen enpresan partaidetza bat izateko ohore handia egin dida-zuen gau honetan, neska maitagarri hau aurkez-tu nahi dizuet, nire emaztea. Berari zor diot den-dena.

Tximiniari erreberentzia egiterakoan, liburu-tegiaren ondoko kontsolarekin estropozo egin, eta irudi txiki bat bota zuen lurrera. Irudia jaso-tzera makurtzean, mihia hortzen kontra joz hots txiki bat egin zuen. Portzelanazko holandar nes-kato urdinaren burua soinetik bereizita zegoen. «Eta Susie koitadua, bibelotak hain maite iza-nik... Tira, hobe nitek ohera joatea».

Leihoa ireki eta begira hasi zen. Tren batek goialdetik igarotzean burrunba egiten zuen kale-muturrean. Ikatz-kealdi bat sudurrera etorri zitzaion. Gorputz erdia leihotik kanpo zeukalarik, luzaz geratu zen kalera begira, ezker-eskuin. Munduko bigarren metropolia. Adreiluzko etxeak, farolen argi lausotua, aurrealdeko etxe-ko eskaileretan noiz olgetan noiz borrokan zebi-

len deabrutxo-talde baten garrasiak, polizia baten ibilera sendoa eta gorabeherarik gabea, zeinak soldaduen martxa baitzirudien; horiek guztiek halako mugimendu-sentsazioa sortarazi zioten Thatcherri, Hudson ibaian gora doazen baporeek eragiten dutena bezalakoa, edo hauteskunde-desfile batek kale luzeetan barrena, handios, zuri, luxuzko dendez betea eta handientsua den zerbaiterantz doala pizten duenaren modukoa. Metropolia.

Bat-batean, korrikaldiak kalean zehar. Norbaitek «sua» hitza jaulki zuen arnasestuka.

— Non?

Neska-mutilak aurrealdeko ataritik desagertu ziren. Thatcher bere gelara itzuli zen. Beroa itogarria zen. Kanpora irteteko irrikaz zegoen. «Hobe nitek oheratu». Kanean zaldi-apoen hotsa entzuten zen, baita suhiltzaileen ibilgailuaren adar asaldagarria ere. «Begiratu bat, besterik ez». Kapela eskuetan, eskaileretan behera abiatu zen.

— Non da, gutxi gorabehera?

— Hortxe bertan, hurrengo etxe-blokean.

— Alokatzeko pisuak eskaintzen dituen etxe batean.

Sei pisuko eraikina zen, leiho estuekikoa. Suhiltzaileek eskailerak berriki ezarriak zituzten. Behereneko leihoetatik txinpartez zipriztindutako ke iluna atera zen bortitz. Jendetza eskaileren kontra eta aurrealdeko etxeko barandaren kontra bultzatuz, hiru polizia euren porrak astintzen ari ziren. Kale erdian, hutsik zegoen lekuan, suhiltzaileen ibilgailuaren eta tutu malgua zera-man bagoi gorriaren letoizko piezek biziki egiten zuten diz-diz. Jendea isil-isilik zegoen goialdeko leihoetara beha, handik, aldizkako dirdaien artean, itzalak igarotzen baitziren. Bengala baten antzera, sugar mehe bat dirdai egiten hasi zen etxearen gainean.

— Aireztapen-patioa —xuxurlatu zion gizon batek Thatcherri belarrira.

Haize-bolada batek kez eta trapu errean usainez bete zuen kalea. Thatcher bat-batean ondoezik sentitu zen. Kea desagertu zenean, jende-sail bat ikusi zuen leiho baten koskatik zintzilik, hankei batera eta bestera eragiten ziela. Beste aldean, suhiltzaileek emakumeei lagundu zieten

eskailera batetik jaisten. Etxe erdian zegoen sugarra biziagotu egin zen. Leiho batetik erorita, zerbait beltza zetzan lurrean, garrasika. Polizia jendeari bultzaka ari zitzaion etxe-blokeen amaierarantz. Suhiltzaileen kamioi gehiago iristen ari ziren.

— Bost alarma dituzte hor —esan zuen gizon batek—. Zer uste duzu zuk horretaz? Goiko bi pisuetako alarmak blokeatuta daude. Sute hau norbaitek nahita piztu du. Zerriren batek.

Espaloi-ertzean eserita, mutil gazte bat uzkurtuta zegoen farol baten ondoan. Thatcher, jendetzaren bultzaden meneko, haren aurrean suertatu zen.

— Italiarra da.

— Emaztea eraikin horren barruan du.

— Poliziak ez dio hara hurbiltzen uzten.

— Bere emaztea haurdun dago. Gizonak ez daki ingelesez eta ezin die ezer galdetu poliziei.

Italiarrak tirante urdinak zeuzkan, bizkarrean soka-mutur batez lotuak. Halako dardarizo batek hartua zion bizkarra eta, noiz edo behin, inork ulertzen ez zuen auhen pila botatzen zuen bata bestearen ondoan.

Thatcherrek aurrera egin zuen jendetzaren artean. Kale-kantoian, gizon bat sute-alarmaren kutxa aztertzen ari zen. Haren ondo-ondotik igarotzean, Thatcher ohartu zen haren arropen petrolio-usaina zeriela. Gizonak irribarretsu begiratu zion. Masaila gantzatsu eta eroriak zeuzkan eta begi irten eta distiratsuak. Bat-batean Thatcherri eskuak eta oinak hoztu zitzaizkion. Supiz-tailea zen. «Egunkariak diotenez, gisa horretara ibiltzen dituk, inguruan kuskusean, sua ikusteko». Arineketan joan zen etxera, eskailerak atoan igo eta atea giltzaz itxi zuen. Gela hutsik zegoen; lasaitasuna nagusi zen bertan. Thatcherrek ahaztua zuen Susie ez zela han izango bere zain. Erantzten hasi zen. Ezin zuen burutik kendu gizon haren arropari zerion petrolio-usaina.

Mr. Perry lapabelar-hostoak astintzen ari zen bere makilaz. Higiezinaren agente batek ahots kantariz argudiatu zuen:

— Benetan diotsut, Mr. Perry, aukera hau ezin duzu alferrik galdu. Badakizu esaera zahar hori... txoria behin baino ez datorkio eskura gaz-

teari. Jakizu sei hilabete barru orube hauen balioa bikoiztu egingo dela; neuk hala ziurtatzen dizut. Gaur egun, jauna, New York bigarrena dugu munduko hirietan eta gu horren zati bat gara. Ez duzu, bada, ahaztu behar... Berandu baino lehen, eta ni erabat sinetsita nago horretaz, East River ibaiaren gainean eraikitako hamaika zubiri esker, zuk eta biok Long Island eta Manhattan bat eginik ikusiko ditugu. Egun horretan, Borough of Queens, gaur egungo Astor Place bezala, metropoli handiaren bihotza eta muina izango da.

— Badakit, badakit, baina ni inolako arriskurik gabeko zerbaiten bila nabil. Gainera, eraiki egin nahi dut. Azken urteotan emaztea ez da osasunez ondo ibili.

— Baina ba al da ezer nire proposamena baino seguruagorik? Ez al zara konturatzen, Mr. Perry, etxeen salerosketen eremuan egun dagoen negozioirik handienetako batean parte hartze-ko aukera eskaini dizudala, hori nire kalterako izanik ere? Segurtasuna ezezik, erosotasuna eta luxua ere jarri nahi ditut zure eskura. Mr. Perry, guk nahi izanda zein nahi gabe, hedapenaren

eta aurrerapenaren zurrumbilo handi batean murgilduta gaude. Datozen urteotan garrantzi handiko gertaerak ezagutuko ditugu. Asmakari mekaniko horiek guztiak —telefonoa, elektrizitatea, altzairuzko zubiak, zaldigabeko ibilgailuak— ez dira alferrikakoak izango. Gure esku dago aurrerabidearen lehenengo lerroan joatea... Ene Jainkoa! Ezin dizut esan horrek guztiak zer ekarriko duen... Orbela eta lapabelar-hostoak arakatzuz Mr. Perryk zerbait topatu zuen bere makilaz. Makurtu eta adar okerreko garezur triangeluar bat jaso zuen.

— Arranopola! —esan zuen—. Aharia galanta izango zen!

Leloturik, ileapaindegiko giro itogarri hartan bitsaren, lozioen eta ile-punta erreen usaina nabaria baitzen, Bud lokaikuka eseri zen bere eskutzar gorrixkak belaunen artean dindilizka zeuzkala. Oraindik ere, guraizeen jardute hura gorabehera, oraindik ere belarrietan iraun bazi-rauen bere oinek Nyack-tiko bide luzean zehar egindako hotsak.

— Hurrengo!

— Zer?... A bai! Nik bizarra egitea eta ilea moztea besterik ez dut nahi.

Bizarginaren esku lodiak haren ilajea gaindi higitzen ziren, guraizek burrunba egiten zuten liztortzar bat belarri atzean baleuka bezala. Begiak erdi itxita zeuzkan eta senperrenak egiten ari zen haiek ireki nahirik, logaleari eusteko. Ile gorrixkaz josita zegoen zapi marradunaz haraindi, zapatak garbitzen ari zitzaion mutil beltzaren burua ikus zezakeen, gora eta behera lanean.

— Bai, jauna —marmar egin zuen ahots sako-neko gizon batek—, bada garaia Alderdi Demokratikoak norbait indartsua izendatzeko...

— Lepondoko ilea ere moztuko dizut?

Bizarginaren ilargi-itxurako aurpegi koipe-tsua harenari hurbildu zitzaion. Budek keinu batez baietz adierazi zuen.

— Xanpurik?

— Ez.

Bud hankaz gora dagoen dortokaren gisara saiatu zen lepoa luzatzen, bizarginak aulkia atze-ra eraman zuelarik bizarra erosoago kentzeko.

Bitsa emeki-emeki zabaltzen ari zitzaion masailetan, sudurrean kili-kiliak eraginez; belarrietatik ere sartzen ari zitzaion. Bitsezko olatu urdin-beltzetan itotzen ari zen, labanaren distira urrunak ebakiriko olatuetan. Distira hura aitzurrarena zen, bits urdin-beltzezko hodeien artetik ikusia. Gizon zaharra patata-soro batean etzanda zegoen, bizarra bitsa bezain zuria zeukan, eta odolez betea. Galtzerdiak ere odolez beteak zeuzkan, orpoetako baben ondorioz. Hotzak eta maskurrez beteak, eskuak elkarri tinko helduak zituen; hildako baten eskuak ziruditen. «Utzidazu altxatzen...». Begiak ireki zituen. Atzamar bigun batzuk kokotsa ferekatzen ari zitzaizkion. Sabaira begira jarri zen non lau euli zortziak egiten ari baitziren krepe-paperezko kanpai gorri baten inguruan. Ahoan mihia larru-puska bat bezain lehor sumatu zuen. Bizarginak berriro zuzendu zuen aulkia. Budek ezker-eskuin begiratu zuen begiak kliskatuz.

— Berrogeita hamar zentabo eta nickel bat zapatak garbitzeagatik.

«BERE AMA ELBARRIA HIL ZUELA AITORTU DU...»

— Ba al dut hemen esertzea egunkaria irakurtzeko?

Bere ahots geldoak talka egin zion belarrietan.

— Nola ez ba!

«PARKERREN LAGUNEK BABESTU DUTE...»

Letra beltzak dantzan zebilzkion begien aurrean.

«ERRUSIARRAK...»

«JENDETZAK HARRIKATU DU...». (Mezu berezia Herald-erako)

Trenton, N.J.

«Nathan Sibbettsek, hamalau urteko mutilak, gaur aitortu dio poliziari berak hil zuela Hannah Sibbetts, bere ama (adinekoa eta elbarria), delitu hori behin eta berriro ukatzen bi aste eman eta gero. Mutilaren esanetan, etxean, hots, Jacob's Creek hiritik sei miliara iparraldera, bera-ren eta amaren artean piztutako liskar baten ondorioz gertatu zen ezbeharra. Gaur gauean atxilotu dute Epaimahai Gorenak zer erabakiko zain.»

«PORT ARTHUR ASKATU, ETSAIARI AURRE EGINEZ»...

«Mrs. Rixek bere senarraren errautsak galdu ditu».

«Maiatzaren 24an, asteartea, zortzi eta erdiak aldera, etxera itzuli nintzen martimuilan gau osoa lotan egin ondoren, eta igo nintzen apur bat gehiago lo egiteko. Begiak itxi orduko ama ere igo zen eta jaikitzeke esan zidan, beste-la eskaileretan behera botako ninduela. Amak heldu egin zidan eskaileretan behera bota nahirik. Neuk lehenago bota nuen eta beheraino erori zen. Gero, neu jaitsi nintzen eta burua bihurrituta aurkitu nuen. Orduan konturatu nintzen hilda zegoela. Lepoa zuzendu eta neure oheko estalkia erabili nuen gorpua estaltzeko.»

Budek kontu handiz egunkaria tolestu, aulki gainean utzi eta alde egin zuen ileapaindegitik. Kanpoaldean, jendetzaren usaina nabaria zen giroan eta airea zarataz eta eguzkiz beterik zegoen. «Orratz bat besterik ez nauk, lastategi batean galduta... eta hogeita bost urte ditiat», murmurikatu zuen goraki. «Eta hamalau urteko

mutil bat...». Bud azkarrago zebilen zoladura zalapartatsuan gaindi, non eguzki-izpiek, tren jasoaren burdinazko egitura atzean utzita, hori bero koloreko marra zabalak sortzen zituzten kale urdinean. «Orratz bat besterik ez naiz, las-tategi bateko orratza».

Ed Thatcher, pianoaren teklen aldera makur-turik, *Eltxoaren hegaldia* jotzen saiatu zen. Igan-de arratsalde hartako eguzki-izpiak leihoko far-failezko gortina astunen zirrikituetatik sartu eta alfonbrako arrosa gorrien gainean iraulkatzen ziren bulego nahaspilatua itzalez eta argiunez betez. Leiho ondoan eserita, Susie Thatcherrek abaildurik so egiten zion bere senarrari, bisaia zurbil hartarako begi urdinegiz so egin ere. Bien artean kokaturik, alfonbrako zelai eguzkitsuan zeuden arrosen artetik arduraz oinak finkatuz, Ellen txikia dantzan ari zen. Bi eskutxo soineko arrosa tolesduna altxaturik zeukan eta aldian behin ahots fin eta nabarmen batek esaten zuen: «Amatxo, begira nola egiten dudan dan-tza».

— Begira iezaiozu haurrari une batez —esan zuen Thatcherrek pianoa jotzeari utzi gabe—: dantzari bikaina da.

Igandeko egunkariaren zenbait orri eroriak ziren mahaitik; Ellen haien gainean hasi zen dantzan, orriok bere oin arin ñimiñoez urratuz.

— Ez egin hori, Ellen maitea —kexatu zen Susie felpazko aulki arrosatik.

— Baina amatxo, hori erraz asko egin dezaket dantzan ari naizen bitartean.

— Hori ez egiteko esan dizu amak.

Edek Barkarola izeneko musika-pieza jotzeari ekin zion. Ellen doinu hori dantzatzen ari zen, besoak kulunkatuz eta bere oin arinez egunkaria urratuz.

— Ed, Jainkoarren, kendu hemendik ume hau: egunkaria puskatzen ari da.

Edek atzamarrak pausatu zituen akorde luze batean.

— Laztana, ez egin hori, aitatzok oraindik ez du osorik irakurri.

Ellenek berean jarraitu zuen. Halako batean, Thatcher aulkitik altxatu eta neskatoari oldartu

zitzaion bere belaunetan eseraraziz. Neskatoa barrez lehertzen ari zen.

— Ellen, amak esandakoa egin behar duzu beti, eta ez apurtu ezer, maitea. Egunkari hori egitea ez da dohainezkoa, jende askok parte hartzen du lan horretan, eta aitatxo joan da erostera eta oraindik ez du osorik irakurri. Elliek orain ulertzen du, ezta? Mundu honetan gauzak egin egin behar ditugu eta ez desegin.

Gero, Ed Barkarolari lotu zitzaion berriro eta Ellenek dantzan segitu zuen, alfonbrako zelai eguzkitsuan zeuden arrosen artean oinak ardu-raz ezarriz.

Kapela buruaren atzealdean ezarririk, sei gizon azkar jaten ari ziren jantokiko mahaian.

— Arraioa! —oihu egin zuen mahaiaren mutur batetik egunkariari esku batekin eta kafe kiharari bestearekin eusten zion gazte batek—. Sekula entzun al duzue halakorik?

— Zer? —purrust egin zuen zotz bat ahoaren ertz batean zeukan gizon aurpegi luze batek.

— Suge handi bat agertu da Bosgarren Etorbidean... Gaur, goizeko hamaika eta erdietan, suge handi bat ur-deposituaren arrail batetik irten ondoren Bosgarren Etorbidearen eta Berrogeita Bigarren Kalearen arteko kale-kantoiko espaloia zeharkatzeari ekin dio. Zenbait emakumeak sugea ikusita garrasi batean lasterka hasi dira alde guztietarantz...

— Adarjotzaileraren bat.

— Hori ez da ezer —esan zuen gizon zahar batek—; mutikotan Brooklynen gu jendeari harrika ematera joaten ginen.

— Jainkoarren! Bederatziak eta laurden! —murmurikatu zuen gazteak, egunkaria tolestuz.

Arineketan abiatu zen Hudson Street-erantz, zein jendez gainezka baitzegoen; gizon-emakumeak azkar zebiltzan goiz hartako argi gorrixkaren pean. Hango zarata burrunbatsua zen, bai elikagaiz beteriko kamioien gurgilak eragindako kirrinkagatik, bai zaldien apo iletsuen ferrek sortutako karraskagatik. Aireak hautsez beterik zegoen. M. Sullivan Co., Altzaritegia eta Biltegia zeritzoneko atearen aurrean neska bat zeukan zain, buruan loredun kapela eta kokots ahalke-

gabearen azpian malba-koloreko begizta handi bat erakusten zituen. Mutila burbuilatsu sentitu zen gaseosa botila ireki berriaren gisara.

— Epa, Emily!... Aizu, soldata igo didate.

— Ia-ia berandu heldu zinen.

— Benetan ari naiz ordea, bi dolar gehiago irabaziko ditut hemendik aurrera.

Neskak kokotsa alde batera okertu zuen, eta gero, bestera.

— Niri bost.

— Gogoan duzu zer agindu zenidan mailaz igotzen baninduten.

Neskak begietan iltzatu zion soa, irribarretsu.

— Eta hau hasiera besterik ez da.

— Eta zer egin daiteke astean hamabost dolar irabazita?

— Hilean hirurogei dolar dira eta, bide batez, inportazioko merkataritza ere ikasten ari naiz.

— Berandu iritsiko zara, ergel hori.

Bat-batean jiratu eta lasterka igo zen eskaile-ra lohietan gora. Gona, tolesduna eta kanpai tan-kerakoa, aldenik alde kulunkatzen zitzaion.

— Jainkoarren! Neska hau gorroto dut, gorroto dudanez!

Eta malkoak xukatu zituen begiak kiskaltzen baitzizkioten. Bizkor zihoan Hudson Streeten behera Indiako inportatzaileak ziren Winkle&Gulick-en bulegoraino.

Aurreko dibidietaren ondoko bizkarraldea bero zegoen eta ur gaziz bustita. Bata bestearen ondoan zetzan, biak ere praka bakero koipe-tsuak jantzita, erdi lo elkarri zerbait xuxurlatzen ziotelarik. Brankak Golkoko Korronteko olatu berdexkak bortizki ebakitzen zituen; beraren kontra joz pitzatutako uraren aparraren hotsa ez zen artean isildu haien belarrietan.

— *J'te dis mon vieux, moi j'fou l'camp à New York...* Amarratu orduko, lehorrera salto egin eta bertan geldituko nauk. Bizimodu zikin honetaz nazka-nazka eginda nagok.

Itsasmutilak ile horia zeukan eta arrosa eta krema-koloreko aurpegi obalatu. Hizketan ari zela, itzalitako zigarrokin bat erori zitzaion ezpai-netatik.

— *Merde!*

Zigarrokina berreskuratzen saiatu zen, ordu-rako bizkarrean gaindi biraka hasita bazegoen ere. Eskuetatik ihes egin zion kainozuloan desagertuz.

— Utzi hori, nahi adina zaukaat nik —esan zuen besteak, zein, ahozpez etzanda, oin zikinak eguzkiaren argi hitsean astintzen ari baitzen—. Seguruenik kontsulak berriro ontziratuko hau.

— Ez naik harrapatuko.

— Eta soldadutza?

— Pikutara soldadutza. Eta Frantzia ere bai.

— Hik estatubatuar hiritartasuna lortu nahi al duk?

— Zergatik ez? Denok zaukaagu geure aberria aukeratzeko eskubidea.

Besteak, pentsakor, arnasa botatzeaz batera, txistu luze bat jaulki zuen, sudurra ukabilaz igurtzi ondoren.

— Emile, hi ez haiz batere tontoa, ez horixe —esan zuen.

— Baina Congo, zergatik ez hator hi ere? Bizitza osoa zaborra biltzen eman nahi al duk itsasontzi zikin bateko sukaldean?

Congo biratu eta hankak gurutzaturik eseri zen, adats kizkur beltzean hazka eginez.

— Aizak, zenbat balio du emakume batek New York-en?

— Ez zakiat, garestia izango duk seguru asko... Ni ez nauk lehorrera joango parrandarik egitera, lan on bat lortzera eta lan egitera baizik. Emakumeak besterik ez duk buruan ala?

— Eta zer? Txarra al da hori? —esan zuen Congok eta berriro etzan zen bizkarrean, luze bezain zabal, kedarrez belztutako aurpegia bere beso gurutzatueta pulunpatzen ari zela.

— Norbait izan nahi diat mundu honetan, horixe duk esan nahi dudana. Europa ustelduta zagok, kiratsa zariok. Ameriketan bazagok aurre-ra egitea. Gutxienekoa duk non jaio haizen edo zein heziketa duan. Aurrera egitea, horixe duk guztia.

— Eta orain hementxe, bizkarrean, emakume gartsu polit bat balego, ez al huke berarekin larrua jo nahiko?

— Aberatsak garenean denetarik izango diagu, denetarik eta nahi adina.

— Eta hemen ez al dute soldadutzarik?

— Zertarako? Hauek sosa besterik ez ditek nahi. Lagun hurkoarekin borrokatu baino negoziatu nahiago ditek.

Congok ez zuen erantzunik eman.

Ahoz gora etzanda, Emile hodeiei begira zegoen. Eraikin erraldoien modura pilaturik, hodeiok mendebalderantz flotatzen ari ziren eta haien artetik, eztainu-papera bailitzan, eguzkieren argi zuri eta distiratsua igarotzen. Itsasmutila eraikin handiez inguratutako kale luze zurietan zehar zebilen eta bere lebita eta lepo handi zuria harrokeriaz erakutsiz eztainuzko eskailera distiratsu zabaletan gora igotzen ari zen. Atari urdinetatik, marmol zaintsuz apainduriko halletan sartu zen: han dirua barra-barra zebilen eztainu-paperezko mahai handien gainean txin-txin eginez. Bileteak, zilarra, urrea.

— Merde v'là l'heure.

Talaiatiko kanpaikada pareak nekez iritsi ziren haien belarrietara.

— Ez ahaztu, Congo, lehorrera joaten garen lehenengo gauean... —ezpainez zarata txiki bat egin zuen—. Agur betiko itsasoari.

— Lotan nengoa. Neska ilehori batekin amestetan nenbilean. Heuk esnatu ez baninduk, lortuko nian.

Emile purrustaka altxatu zen eta zutik, une batez, mendealdeari begira geratu zen, han olatuak nikelezko zerua ebakitzen zuen lerro gorabeheratsu batean amaitzen baitziren. Gero, Emilek Congori lepotik helduta lurrerantz bultzatu eta poparantz abiatu zen arineketan. Ibiltzerakoan egurrezko eskalapoiez berebiziko zalaparta sortzen zuen.

Kanpoaldean, ekaineko larunbat beroak bere gorputzadarrak arrastaka zeramatzan 110. Kalean behera. Susie Thatcherrek, ohean deseroso etzanda, esku urdin eta hezurtsuak ohazal gainean ezarri zituen; tabike mehearen beste aldetiko ahotsak entzuten ziren. Neska gazte batek oihu egin zuen ahots sudurkariz:

— Ama, senarra utzi egin nahi dut.

Gero, errietan hasi zitzaion emakume judu zahar eta serio baten ahotsa:

— Baina Rosie, ezkon bizitzan dena ez da parrandan ibiltzea eta ondo pasatzea. Emazteak bere senarraren esanak bete ejin behar ditu eta haren alde lan ejin.

— Ez dut nahi. Ezin dut. Ez dut zerri zikin horrekin berriro bizi nahi.

Susie ohean eseri zen, baina ezin izan zuen entzun emakume zaharrak ondoren esan zuena.

— Baina ni orain ez naiz judua —garrasi egin zuen neskak halako batean—. Hau ez da Errusia; New Yorken gaude. Hemen emakumeek ere euren eskubideak dituzte.

Gero, ate-danbateko bat entzun zen eta lasaitasuna berriro nagusitu zen.

Susie Thatcher jira eta bira hasi zen ohean, suminduta. «Jendaila honek ez nain behin ere bakean uzten». Behealdetik *Alarguntsa alaia* ize-neko baltsea jotzen ari zen pianola baten notak zetozen. «Ene Jainkoa! Zergatik ez ote da Ed etxera itzuli? Ez diton bihotzik, ezin dun bakarrik utzi gaixorik dagoen emakume bat, kasu hone-tan bezala. Bereko hutsa dun». Ahoa okertu eta negarrez hasi zen. Gero gelditu egin zen berriro, begiak sabaian finko zeuzkala, lanpararen ingu-

ruan burrunba egiten ari ziren euli gogaikarriei so. Zaldi-kotxe bat zalapartaka kalean behera. Susiek entzun zituen haurren garrasiak. Mutiko bat handik igaro zen «extra» bat deiadarka iragarritz. «Agian, sute bat izango dun, ene! Chica-goko antzoki batean gertatutako sute izugarri hura. Erotu egingo naun azkenean!». Etengabe batera eta bestera higitzen ari zen ohe barruan, azkazal zorrotzak esku-azpietan sartuz. «Beste pilula bat hartuko dinat. Ea loak hartzen nauen». Ukondoaren gainean agondu eta latorrizko kutxa txiki batetik azken tableta atera zuen. Tableta herrestan eraman zuen ur-zurrupeak eztarria gozatu zion. Begiak itxita, lasai-lasai geratu zen.

Ikaratuta itzarri zen. Ellen korrika zebilen alde batetik bestera gelan zehar, kapela berdea atzerantz erorita eta kobre-koloreko ile kiribilak harro-harro eginda.

— Amatxo, nik mutila izan nahi dut.

— Egon lasai. Ama ez dago batere ondo.

— Nik mutila izan nahi dut.

— Baina zer egin diozu neskatoari, Ed? Nerbioak airean dago.

— Antzezpenak hunkitu egin gaitu, besterik ez, Susie. Zuri asko gustatuko zitzaizun, oso poetikoa izan da eta hori dena. Eta Maude Adams bikain aritu da. Elliek primeran pasa du.

— Ed, esana dizut tontakeria hutsa dela honelako ume bat eramatea...

— Aitatxo, mutila izan nahi dut.

— Den bezalakoa gustatzen zait nire alabaxoa. Zurekin itzuliko gara beste batean, Susie.

— Ondotxo dakizu, Ed, ez naizela sekula sentituko hara joateko behar bezain ondo.

Bat-batean agendu zen, zurrin. Ile lisoa eta horiska dindilizka zeukan bizkarretik behera.

— Hil egin nahi nuke... hil egin nahi nuke, aurrerantzean ni zuentzat oztopoa ez izateko. Biok gorroto nauzue. Gorroto ez baninduzue, ez nindukezue honela utziko, bakarrik.

Eta negarrari ekin zion aurpegia eskuez estalita.

— Hil egin nahi nuke, hil egin nahi nuke — negar-zotinka esan zuen, ahotsa atzamarren artetik jaulkiz.

— Tira, Susie, Jainkoaren izenean, ez duzu horrelakorik esan behar.

Beso batez inguratu zion soina eta ohe gainean eseri zen haren ondoan. Isilpean negarrez, Susiek bere senarraren sorbaldaren gainean pausatu zuen burua. Ellen, zutik, so geratu zitzaien bere begi gris handiez. Gero, saltoka hasi zen, gora eta behera, bere artean kantari: «Ellie mutila izango da. Ellie mutila izango da».

Astiro baina urrats luzeez zihoan Bud Broadwayn behera; apur bat herrenka egiten zuen oinak babaz josita zeuzkalako. Orube hutsen aurretik igaro zen non sastraken eta belarren artean latorrizko poteen distira ikusten baitzen. Sastrakak zumakeenak eta zorne-belarrenak ziren. Karteldegi-ilaren eta Bull Durham-en iragarkien artetik aurrera egin zuen; etxolen eta bertan behera utzitako txabolen artetik igaro zen, zaborrez eta gurpilez mukuru beteta zeuden hondakindegia atzean utzita, non iraulkiak errautsak eta zaborra deskargatzen ari baitziren; lurrin-zulagailuak atergabe zulatzen eta karraskatzen ari ziren haitz gris izugarrien aurretik igaro zen, baita indusketen aurretik ere. Indus-

ketetatik txintxorrez eta buztinez beteriko bago-netak, malda gogorra gairidituta, nekez heltzen ziren kalera. Ibiliaren ibiliaz, espalo berrien eremu batera heldu zen, adreilu horizko eraikin-ilara baten parera. Budek denda eta saltoki askotako erakusleihoetan pausatu zuen begirada: janaridendak, ikuztegi txinatarrak, jatetxeak, loradendak, barazkidendak, jostundegiak, gozotegiak. Eraikin berri baten aldamioen azpitik pasatzean ohartu zen olio-lanparak konpontzen espaloien ertzean eserita zegoen gizon zahar bat begira zeukala. Bud haren ondoan gelditu zen prakak altxatuz. Ondoren, eztarria garbitu zuen:

— Aizu, esango al didazu leku on bat niri lana emateko?

— Gazte, ez dago lana ematen duen leku onik... Tira, lana egon badago, baina... Hilabete eta lau egun barru hirurogeita bost urte beteko ditut, eta bost urte nituenetik lan egiten ibili naiz eta ez dut oraindik lan onik aurkitu.

— Nik edozein lan hartuko nuke pozik.

— Ba al daukazu sindikatuko karnetik?

— Nik ez daukat ezer.

— Karnetik gabe ez dago lanik eraikuntzaren eremuan —esan zuen gizon zaharrak.

Kokotseko ile grisak eskugainaz igurtzi eta bere lanparei ekin zien berriro. Bud eraikin berriaren burdinazko habe zurien piloari begira geratu zen harik eta onddo-kapela zeukan gizon bat zaindariaren etxolako leihotik berari so ikusi zuen arte. Aurrera egin zuen hankak arrastaka. Gauzen muinera gehiago hurbiltzerik banu...

Hurrengo kale-kantoian, jendetza automobil zuri altu baten inguruan pilaturik zegoen. Ke-laino handiak irteten ari ziren haren atzealdetik. Polizia bat ume bati heltzen ari zitzaion galtzar-beetatik. Automobiletik, mortsaren patila zuriak zeuzkan gizon musugorri bat suminduta ari zen hizketan:

— Polizia, nik diotsut berak harri bat bota duela... Honelako gauzak amaitu egin behar dira. Polizia batek gizatxarren eta bazter-nahas-leen aurrean amore ematea ere...

Ilea buruaren atzealdean motots tente batean bilduta zeukan emakume bat oihuka ari zen, kotxeko gizonari ukabilaz mehatxuzko kei-nuak eginez.

— Polizia, ia-ia harrapatu ninduen, ia-ia harrapatu ninduen.

Bud harakin-amantala eta beisbol-kapela atzerantz zeuzkan mutil batengana hurreratu zen.

— Zer gertatu da?

— Zer dakit ba nik! Kotxeen aurkako protesta horietako bat, nik uste. Zuk ez al duzu egunkaria irakurtzen? Ondo egiten dute, ez al duzu uste? Zer eskubide dute kotxe madarikatu horiek halako ziztuan ibiltzeko, emakumeak eta haurrak harrapatzen?

— Ene, baina horrelakorik egiten al dute ba?

— Baietz ba.

— Aizu, zera... esango al didazu leku on bat lana aurkitzeko?

Harakin gazteak algaraz burua atzerantz eramanean zuen.

— Hara, nik uste nuen zuk limosna eskatu behar zenuela! Zu ez zara New Yorkekoa, ezta? Neuk esango dizut zer egin behar duzun... Zuzenean jarraitu Broadwayn behera udaletxeraino...

— Hori al da gauza guztien erdigunea?

— Bai, hala da... Eta gero, goiko pisura igo... Galdetu alkateari... «Esadazu, ba al da lanpostu hutsik udalbatzan?»

— Izango ez da ba! —purrustaka esan zuen Budek handik azkar urruntzen ari zela.

— Bira egin, maiteak... bira egin, bira, putakumeak.

— Horrelaxe hitz egin behar zaiek, Slats.

— Zazpi, zazpi, zazpi.

Slatsek dadoak bota zituen erpurua beste atzamar izerditsuen kontra klaskatuz.

— Arraioa!

— Hik ederki botatzen dituk dadoak, benetan, Slats.

Esku zikinek beste nickel bat ipini zuten belaun adabatuez osaturiko biribilaren erdian zut agertzen zen piloaren gainean. Bost mutilak euren orpoen gainean zeuden eserita, South Street-en, farol baten argitan.

— Aurrera dadotxoak, zuen zain gaudek... Bira egin, putakumetxoak, bira egin, madarika-tuak.

— Goazen mutilok! Hortik zatorrek Leonard kankailu hori bere lagunekin.

— Gustura txikituko nitek...

Mutiletako lau portuan barrena korrika zihoa-zen, nor bere alderantz eta atzerantz begiratu gabe. Txikiena, moko-itxurako aurpegi kokotsik gabea zuena, atzean geratu zen, lasai-lasai txanponak jasotze aldera. Gero, lasterka hasi zen hormari pega-pega eginda, eta bi etxeren arteko pasabide ilunean desagertu zen. Han zain gelditu zen, tximinia baten atzean kizkurturik. Bere lagunak ahots lausoak bat-batean sartu ziren pasabidean; gero, kalean behera aienatu ziren. Mutila zenbatzen hasi zen eskuan zeuzkan nickelak. Hamar. «Hara, berrogeita hamar zentabo... Esango diet Leonard kankailuak eraman dituela sos guztiak». Poltsikoak zulatuta zeuzkanez, alkandoraren hegala batean lotu zituen nickelak.

Mahai obalatu zuri distiratsuan, xanpaina eta Rhin-eko ardoa edateko kopak txandakatzen ziren, toki guztietan bata bestearen ondoan. Zortzi plater zuri distiratsuetan kabiak-kanape bana; platerok limoi-zatiez inguratuta eta tipulaz eta zuringoz ondutako jakiez bustita zeuden. Hori

zela eta, perla beltzen biribilak ziruditen uraza-orrien gainean.

— *Beaucoup de soing*, eta ez ahaztu —esan zuen zerbitzari zaharrak, kozkorrez beteriko bekokia zimurtuz.

Hura gizon txikia zen, ahate baten modura zebilen eta ile beltz bakan batzuk zeuzkan, garezur gangatuari irmo atxikiak.

— Ondo dago —Emilek buruz baiezkoko keinu bat egin zuen, serio-serio.

Lepoa estuegi zeukan. Azken botila xanpainari zerbitzu-mahaiaren gainean zegoen nikelezko izotz-ontzi batean eragiten ari zitzaion.

— *Beacoup de soing, sporca madonna...* Morroi horrek dirua konfetia bailitzan botatzen du, ulertzen?... Eskupekoak ematen ditu, ulertzen?... Oso aberatsa da. Berdin zaio zenbat diru xahutzen duen.

Emilek mahai-zapia eskuztatu zuen zimur bat kendu nahirik.

— *Fais pais, como, ça...* Eskuak zikin dauzka-zu. Agian, aztarna utziko duzu.

Lehenengo, hanka baten gainean atsedean hartuz, gero, bestearen gainean, zapia eskuetan

zeuden zain. Beheko jantokitik, janariaren gurin-
usainaren eta aiztoek, sardexkek eta platerek
eragindako txilin-hotsen artean, baltse baten
doinu kiribila igotzen zen.

Zerbitzari zaharra agur eginez atean makur-
tuta ikustean, Emilek begirunezko irribarre bat
egin zuen ezpainak estututa. Neska ilehori hortz
luze bat, izokin-koloreko beroki batean bildurik,
gizon baten eskutik helduta sartu zen. Gizon
haren aurpegia ilargiaren itxurakoa zen; bere
kapela garaiak kolpeleungailua zirudien, bularra-
ren aurrean baitzeraman. Hortzak erakutsiz
barre egiten zuen neska ile kizkur txiki bat, urdi-
nez jantzia, haien atzetik heldu zen; bertan ema-
kume lodi bat ere bazen, diadema bat buruan
eta belus beltzezko zinta bat lepoaren inguruan
zeuzkana; sudur luze bat; puru-koloreko aurpegi
luze bat; paparrak; eskuak gorbata zuriak zuzen-
tzen; isla beltzak kapela garaietan eta txarolez-
ko zapatetan. Erbinude-itxurako gizon bat ere
bazen han, bere urrezko hortzekin. Bele-ahotsa
zeukan eta etengabe eragiten zien besoei,
ezker-eskuin jende guztiari agur eginez. Alkan-
doraren aurrealdean nickel baten neurriko dia-

mante bat zeukan. Arropazaindegiko neska ilegorria berokiak biltzen ari zen. Zerbitzari zaharrak ukondokada bat eman zion Emileri:

— Horixe da, horixe da nagusia —marmar egin zuen agur gisa makurtuz.

Emile hormari pega-pega eginda geratu zen, haiek, oinak herrestan erabiltzeak sortutako karrasken artean, gelarantz abiatu zirenean. Arnastutako patxuli-bolada batek ilearen sus-traiak ere berotu zizkion.

— Baina non dago Fifi Waters? —oihu egin zuen diamantezko botoia zeukan gizonak.

— Esan du ordu erdi barru hemen izango dela eta ez lehenago. Bere jarraitzaileek ez diote utziko artisten atetik irteten, nik uste.

— Sentitzen dut, ezin dugu gehiago itxaron, bere urtebetetzea izan arren. Ni ez naiz inoiz inoren zain egon.

Unetxo batez zutik geratu zen mahai inguruan zeuden emakumeak aztertzen. Gero, frakaren mahuken eskumuturrak apur bat atera zituen kanpoalderantz eta braust eseri zen. Kabiarra begien itxi-ireki batean desagertu zen.

— Aizu, zerbitzari, eta Rhineko ardo hori? —
purrust egin zuen ahots zakarrez.

— *De suite monsieur...*

Arnasari eutsiz eta masailak estutuz, Emile platerak jasotzen ari zen. Kopak lurrinez estali ziren zerbitzari zaharrak ardoa kristal landuzko pitxer batetik zerbitzatzean, non menda-orriak, izotz-puskak, limoi-azalak eta pepino-zerrenda luzeak igerian baitzebiltzan.

— Arranopola! Ederki, ederki!

Diamantezko botoia zeukan gizonak bere edontzitik edan ondoren, ezpainez hots txiki bat egin zuen. Gero, ondoko emakumeari zeharka begira, edontzia lehengo lekuan utzi zuen. Emakumea ogi-puska txiki bat gurinez igurtzitzen ari zen eta, ahoan sartu zuelarik, xuxurlatu zuen:

— Nik mokadu txikiak besterik ezin ditut jan, mokadu txikiak besterik ez.

— Horrek, ordea, ez dizu edatea eragozten, ezta Mary?

Emakumeak oilo baten modura egin zuen barre eta sorbaldan kolpetxo bat eman zion hai-zemaile itxiaz.

— Ene, zu bai zarela ikaragarria!

— *Allume moi ça, sporca madonna!* —demanda egin zion belarrira zerbitzari zaharrak Emileri.

Zerbitzu-mahaiko bi plater-berogailuak piztean, jerez beroaren, kremaren eta otarrainaren usaina hedatu zen jantokian zehar. Airearen bero zegoen, txilinez, perfumez eta kez galkaturik. Newburg erara prestaturiko otarraina mahaietara eramanez eta edontziak berriro bete ondoren, Emile horman bermatu zen ile hezea eskuztatuz. Begiak ondoko emakumearen sorbalda gurietan behera limurtu zituen, bizkar hautseztatuan gaindi, firfail-pilo baten azpian zegoen krisket ñimiño batera iritsi arte. Emakumeak bere aldameneko gizon burusoilari hanka bat estekatua zion bere hanken artean. Emakumea gaztea zen, Emileren adinekoa, eta ezpainak busti eta erdi irekirik, begirada irmoki finkatuta zeukan gizonaren bisaian. Horrek zorabioa eragin zion Emileri, baina ezin zuen beste inora begiratu.

— Baina zer gertatu ote zaio Fifi politari? —purrust egin zuen diamantezko botoia zeukan gizonak, ahoa otarrainez beterik—. Gaur gauean arrakasta handia lortuko zuen saioaren batean

eta gure jaitxo hau ez zaitzaion erakargarria irudituko.

— Hori nahikoa da edozein neskaren burua asaldatzeko.

— Tira, bere bizitza laburreko ustekaberik handiena hartuko du bere zain izango ginela uste bazuen. Kar, kar, kar! —algara egin zuen diamantezko botoidun gizonak—. Ni ez naiz sekula inoren zain egon eta hau ez da lehenengo aldia izango.

Mahaiaren beste muturrean, ilargi-aurpegidun gizonak bere platera kendua zuen eta bere aldameneko emakumearen eskumuturrekoarekin jolasean ziharduen.

— Gaur gauean zu zara Gibson neska onena, Olga.

— Nire erretraturako posatzen ari naiz —esan zuen emakumeak bere kopa kontrargitan altxatuz.

— Gibsonentzat?

— Ez, benetako margolari batentzat.

— Jainkoak daki erosi egingo dudala.

— Zuk beharbada ez duzu horretarako aukerarik izango.

Olgak bere Pompadour orrazkera gizona zegoen lekurantz makurtu zuen.

— Zu demasako harpajolea zara, Olga.

Emakumeak irribarre egin zuen ezpainak bere hortz luzeen kontra estutuz. Gizon bat diamantezko botoidun gizonaren alderantz makurtzen ari zen, mahaian kolpetxo txiki batzuk atzamar txiki batez ematen ziharduela.

— Inola ere ez. Finken negozioaren aldetik, 23. Kaleak porrot egin du... Jende guztiak daki... Baina egunen batean, inor aurrean ez dagoela, Mr. Godalming, zera galdetu nahi nizuke... Non-dik atera ote dira New York-eko dirutza handiak? Astor, Vanderbilt, Fish... Etxeen salerosketatik, noski. Gure esku dago sortuko diren etekinetan parte hartzea... Egun hori gainean dago... Erosi 40an...

Diamantezko botoidunak bekain bat kakotu eta burua inarrosi zuen.

— «Edertasunaren altzoan gau bat eman nahi izanez gero, ahantz ditzagun geure kezka guztiak», edo horrelako zerbait... Aizu, zerbitzari, zer dela eta behar duzu horrenbeste denbora xanpaina ekartzeko?

Zutik jarri eta esku batean eztula egin zuen.
Gero, ahots pitzatuaz hasi zen kantari:

*Atlantikoa beterik balego xanpainaz,
olatu distiratsuetan dabilen xanpainaz.*

Guzti-guztiek jo zuten txalo. Zerbitzari zaha-
rrak Alaska erre bat zatikatu berria zuen eta,
aurpegia erremolatxa bezain gorri, xanpaina
botila bat larri-larri irekitzen hasi zen. Kortxoaren
dunbotsarekin batera, diademadun emakumeak
txilio bat jaulki zuen. Diamantezko botoia zuen
gizonaren alde egin zuten topa:

Mutil bikaina da eta...

— Tira, nola deitzen diozue zuek plater honi?
—galdetu zion sudur luzeak ondoko neskari,
haren lekurantz makurtuz. Emakume ile beltz
hark artesia buru erdian zeukan eta mahuka
zabalekiko jantzi berde argi bat soinean.

Begi-keinu bat egin zuen ezari-ezarian eta
soa tinko finkatu zuen haren begi beltzetan.

— Hau da inoiz jan dudan gisaturik gozoena... Ba al dakizu, andereño? Ni ez naiz sarri etortzen hiri honetara... —kopa hustu zuen—. Eta etortzen naizenetan nazka-nazka eginda alde egiten dut... Xanpainaren ondorioz, begirada distiratsua eta gartsua zeukan. Lepoaren eta sorbalden ingurumariak aztertzen ari zitzaion eta begiak emakumearen beso biluzian zehar lerratu zitzaizkion. Baina oraingoan nik uste...

— Prospekzio-egileen bizimoduak bikaina izan behar du —eten egin zion emakumeak ahalkeztu.

— Garai batean, bai, bizimodua bikaina zen, gogorra, baina gizonen bizimodua... Pozten naiz orduko aukeraz baliatu izanaz... Gaur egun ez nuke orduan beste zortetik izango.

Neska gizonari begira geratu zitzaion.

— Zu bai apala! Horri zortea deitzea ere!

Emile zutik zegoen gela pribatuko atearen aurrean. Ez zegoen gehiagorik mahaietara eramateko. Arropazaindegiko neska ilegorria handik igaro zen farfildun kapa handi bat besoan zera-mala. Emilek irribarre egin zuen haren arreta erakarri nahiz. Neskak sudurra zimurtu eta ina-

rrosi zuen airean. «Ez zidak begiratu nahi zerbitzaria naizelako. Diru asko irabazten dudanean ikusiko ditek».

— Aizu, eskatu bi botila *Moet&Chandon* Charlie-ri, *gout américain* —esan zion belarrira zerbitzari zaharrak ahots txistukariz.

Ilargi aurpegiduna zutik zegoen.

— Jaun-andreok...

— Ixo txerri-kortan... —eskatu zuen norbaitek halako batean.

— Urde handiak hitz egin nahi du —esan zuen Olgak ahapeka.

— Jaun-andreok, zoritxarrez, gure artean Belengo izarra eta lehenengo aktorea ez dag...

— Gilly, ez zakarkeriarik bota —esan zuen diademadun emakumeak.

— Jaun-andreok, ez dut ohiturarik...

— Gilly, mozkortuta zaude.

— ...Baldin marea... esan nahi dut, baldin urak gure alde edo gure kontra badaude...

Batek fraketik tira egin zion eta ilargi-aurpegiduna braust eseri zen bere aulkian.

— Ikaragarria da... —esan zion diademadun emakumeak mahaiburuko gizon aurpegi luze

tabako-kolorekoari—, ikaragarria da, koronel, zer-nolako zakarkeriak esaten dituen Gillyk moz-kortuta dagoenean.

Koronela puru baten eztainu-paperezko estalkia kontu handiz zabaltzen ari zen.

— Egia al da, laztana? —esan zuen hitzak astiro ahoskatuz.

Bibote gris laztu baten gainean, bere aurpegiak ez zuen ezer adierazten.

— Istorio ikaragarri bat dago Atkins izeneko gizajo horri buruz, Elliot Atkins, Mansfield-ekin lan egiten zuena...

— Benetan? —esan zuen hoztasunez koronelak, puruaren punta nakarrezko kirtena zeukan labana txiki batez ebakitzen zuen bitartean.

— Aizu, Chester, entzun al duzu Mabie Evans arrakasta handia lortzen ari dela?

— Egia esan, Olga, ez dakit nola egiten duen. Gorpuzkeraz ez da hain polita...

— Kansas-en gelditu zen gau batean, bertan ari baitzen lanean. Hitzaldi bat bota zuen mozkor-mozkor eginda...

— Neskak ez daki kantatzen ordea...

— Gizajoak sekula ez zuen gauza handirik egin eszenatoki gaineen...

— Gorpuzkera ez du batere polita, ez horixe!

— Eta hitzaldia Bob Ingersollek ematen dituenen modukoa izan zen...

— Hura bai gizon jatorra!... Ai, nik harreman estua izan nuen berarekin Chicagon, aspaldiko garaietan...

— Benetan?

Koronelak kontu handiz hurbildu zuen poxpolu piztu bat puruaren puntara...

— Eta orduan, tximista baten dirdai izugarria nagusitu zen eta suzko bola bat leiho batetik sartu eta bestetik atera zen.

— Eta zera... hil al zen?

Koronelak ahokada bat ke, urdina, sabairantz bota zuen.

— Zer esan duzu zuk? Tximista batek hil duela Bob Ingersoll? —oihu egin zuen Olgak—. Ondo merezita zeukan ateo nazkagarri horrek.

— Ez, hori ere ez da; gertakari horrek eragin zion beldurrak ikusiarazi zion zer den garrantzitsua bizitzan eta gaur egun Eliza Metodistan sartuta dago.

— Bitxia da zenbat aktore sartzen diren apaiz.

— Ezin da entzulerik lortu bestela —purrust egin zuen diamantezko botoidunak.

Atearen beste aldetik, bi zerbitzariak barruko zalapartari adi zeuden.

— *Tas de sacrés cochons, sporca madonna!* —esan zuen zerbitzari zaharrak ahots txistukariz eta Emilek sorbalda jaso zuen—. Neska beltzarran horrek gau osoa zuri begira eman du —erantsi zuen, Emileri begi-keinu bat egiten ziola—. Beharbada gaur gauean zerbait harrapatuko duzu.

— Nik ez dut ezer nahi ez neska horiekin ez euren gaixotasun zikinekin.

Zerbitzari zaharrak zaplada bat eman zuen bere izterraren kontra.

— Gaur egun ez dago gizonik... Gaztetan neska batek ere ez zidan ihes egiten niri.

— Begiratu ere ez dute egiten neska horiek —esan zuen Emilek hortzak estutuz—. Maniki bizidunak: horixe besterik ez gara eurentzat.

— Itxaron pixka bat, denborarekin ikasiko duzu.

Atea ireki egin zen. Biak begirune handiz makurtu ziren diamantezko botoia zeukanaren aurrean. Norbaitek bi emakume-hanka margo-tuak zizkion alkandoraren aurrealdean. Masailak gorri-gorri zeuzkan. Begi baten behealdeko ertz eroriak itxura xelebrea ematen zion bere erbinu-de-aurpegiari.

— Zer arraio, Marco, zer arraio! —marmar egin zuen—. Ez dugu ezer edateko... Ekarri Ozzeano Atlantikoa eta bi litro gehiago.

— *De suite monsieur...*

Zerbitzaria makurtu egin zen.

— Emile, esaiozu Augustori, oraintxe bertan et bien frappe.

Korridorean behera, Emilek kantari entzun zien:

*Atlantikoa beterik balego xanpainaz,
olatu distiratsu...*

Ilargi-aurpegiduna eta sudur luzea komunetik eskutik oraturik zetozen, halleko palmondoen artetik zabuka.

— Alproja hauek tripako mina sortarazten didate.

— Bai, jauna! Aspaldiko garaietan San Frisko-
n antolatzen ziren afariak oso bestelakoak ziren.

— Haiek ziren garaiak, haiek!

— Horretazz ari garela —ilargi-aurpegiduna
horman bermatu zen—, Holyoke, nire lagun mai-
tea, gaur goizzeko egunkarietan ikusi al duzzu
gomaren merkataritzari buruz idatzi dudan arti-
kulu polita?... Akzziodunak sagutxoen modura
eroriko dira.

— Zer dakizu zuk gomari buruz?... Material
hori oso txarra da.

— Itxaron eta ikusi, Holyoke, nire lagun mai-
tea, aukera paregabe bat galdu nahi ezz baduz-
zu... Mozzkortuta ala ezz, diruaren usaina...
airean hartzen dut nik.

— Zergatik ez duzu, ba, txakur txikirik ere?

Sudur luzeari aurpegi gorria more jarri
zitzaion. Soina aurrera eta atzera zerabilen,
barrez itota.

— Nik dakidana beti lagunei esaten diedala-
ko —esan zuen besteak, gehiegi edanaren eragi-

na inondik inora ageri ez zuelarik—. Aizu, mutil,
non dago jangela pribatua?

— *Par ici, monseieur...*

Zurrunbilo baten antzera, akordeoi-izurrekiko
soineko gorri bat igaro zen haien aurretik: aurpe-
gi obalatu txiki bat, ile kiribil marroiak mugatu-
rik, nakarrezkoak ziruditen hortzak aho irribarre-
tsu ireki batean.

— Fifi Waters! —deiadar egin zuten denek—.
A, Fifitxo, laztana, etorri hona, besarkatu nahi
zaitut.

Aulki batera igo zuten eta emakumea zabuka
hasi zen noiz hanka batean, noiz bestean. Xan-
paina kopa okertu batetik tantaka ari zen.

— Eguberri on!

— Urte berri on!

— Eta urte askoan ospa dezagula egun hau...

Emakumearen ondoren iritsi zen mutil ilehori
bat, oso modu aldrebesean, bilin-balan zebilen
mahaiaren inguruan, kantari:

*Animalien feriara joan ginen
eta han txoriak eta piztiak zeuzkaten,
eta babuino handia ilargiaren argitan*

bere ile gorrixka orrazten eta orrazten.

— Iufala! —oihu egin zuen Fifi Watersek, diamantezko botoidunari ilea nahasiz—. Iufala!

Jauzi eginez jaitsi eta alaiki saltoka hasi zen hankei gora eta behera etengabe eraginez eta, aldi berean, gona belaunetaraino altxatuz.

— *Oh la la!* Bai ostikolari ona neska frantses hau!

— Erne ibili Pony balletarekin.

Hanka lerdenen, zeta beltzezko galtzerdi distiratsuen eta borladun zapatatxo gorrien dirdaia gizonen aurpegietan islatzen zen.

— Hau bai emakume eroa! —oihu egin zuen diademadun emakumeak.

«Iufala». Holyoke balantzaka zebilen atean eta kapela garaia sudur-punta distiratsurantz okertua zuen. Fifik garrasi egin eta ostiko bat eman zion kapelan.

— Gol! —oihu egin zuten denek batera.

— Jainkoarren, ostikoa eman didazu begian!

Emakumeak unetxo batez zur eta lur begiratu zion eta negar batean hasi zen diamantezko botoidun jaunaren paparrera bilduta.

- Nik ez dut honelako irainik merezi.
- Igurtzi beste begia.
- Norbaitek benda bat ekar dezala...
- Demontre! Ia-ia begi bat atera zion!
- Eskatu taxi bat.
- Non dago mediku bat?
- Ez da batere erraza izango, laguntxo.

Malkoz eta odolez beteriko musuzapi bat begian ipinita alde egin zuen sudur luzeak, estropezuka. Gizonak eta emakumeak haren atzetik atera ziren. Mutil ilehoria azkena izan zen irtenen, zabuka eta kantuka irten ere:

*Babuino handia ilargiaren argitan
bere ile gorrixka orrazten eta orrazten.*

Burua mahai gainean, Fifi Waters negar zotinka ari zen.

— Ez egin negar, Fifi —esan zuen koronelak, zeinak arratsalde osoa emana baitzuen leku beretik mugitu gabe—. Hau ondo etorriko zaizu, nik uste.

Eta mahaian zehar kopa bat xanpaina helarazi zion.

Malkoak xukatu eta zurrutada txikitan hasi zen edaten.

— Epa Rogers, zer moduz, adiskidea?

— Ondo antzean, eskerrik asko... Apur bat aspertuta, ez duzu uste? Gau bat horrelako alprojeekin!...

— Gose naiz.

— Antza, ez dago ezer jateko.

— Hemen zeundela jakin izan banu, lehenago etorriko nintzen, benetan diotsut.

— Bai?... Oso atseгина zara.

Errauts-puska luze bat erori zen koronelaren purutik. Altxatu egin zen.

— Aizu, Fifi, orain zaldi-kotxe bat hartu eta buelta bat ematera joango gara parkean zehar.

Emakumeak xanpaina zurrutada batez amaitu zuen eta pozarren onetsi zuen eskaintza.

— Ene Jainkoa! Laurak dira! Beroki txukunen bat izango duzu, ezta?

Emakumeak baietz adierazi zuen buruaz.

— Ederki, Fifi... sasoian zaude, nik uste.

Koronelaren tabako-koloreko aurpegia irribarretan urtzen ari zen.

— Tira, goazen.

Fifi bere ingurura begira jarri zen, zorabiatuta bailegoen.

— Ez da inor nirekin etorri ala?

— Hori ez zen inola ere beharrezkoa!

Hallean mutil ilehoria suteetarako ontzi batean patxadaz oka egiten topatu zuten, palmondo artifizial baten azpian.

— O! Bakean utziko dugu —esan zuen emakumeak sudurra zimurtuz.

— Hori ez zen inola ere beharrezkoa —esan zuen koronelak.

Emilek berokiak eraman zizkien. Ordurako neska ilegorria etxera joana zen.

— Aizu, mutil —koronelak makila astindu zuen—, eskatu zalgurdi bat, mesedez... Saiatu zaldia otzana izan dadila eta zaldizaina ez dadila mozkortuta egon.

— *De suite, monsieur.*

Teilatuez eta tximiniez haraindi, zeru urdina ikus zitekeen, zafiro-kolorekoa. Koronelak goiztirikoa airea hiruzpalau aldiz indarrez arnastu eta purua estoldara bota zuen.

— Zer deritzozu Cleremont-en gosari txiki bat egiteari? Gau osoan ez dut ezer ganorazkorik jan.

— Puagg, xanpaina hau gozoegia da! A ze nazka!

Fifik lelo baten modura egin zuen barre. Koronelak zaldiari apoak aztertu ondoren, burua laztandu zion eta kotxean sartu ziren bi-biak. Bere beso azpian, koronelak kontu handiz oratu zion Fifiri, haren soina uzkuratuz, eta alde egin zuten handik. Instant batez, Emile jatetxeko atean gelditu zen bost dolarreko bilete bati zimurrak kentzen. Nekatuta zegoen eta mina zeukan oinbularretan.

Emile jatetxearen atzeko atetik ateratzean, Congorekin egin zuen topo, itxaroten baitzeukan, sarrerako eskailera-maila batean eserita. Jaka higatuaren lepo jasoaren azpian, Congoren azalak berdexka zirudien, hotza sortarazteko moduko berdexka.

— Hau nire laguna duk —esan zion Emilek Marcori—. Ontzi berean etorri gintuan.

— Aizak, ba al daukak botila bat *fine* jakan? *Sapristi*, neskatxa gozo batzuk hemendik irteten ikusi ditiat eta ez zituan batere zatarrak.

— Zer duk baina?

— Lanetik bota naitek, horixe duk dena... Ez diat ezer nahi morroi horrekin. Goazemak kafe bana hartzera.

Kafea eta erroskilla batzuk eskatu zituzten orube huts bateko otordu-bagoi batean.

— Eta zera, gogoko al duk herri zikin hau? — galdetu zuen Marcok.

— Bai, zergatik ez? Ni edozein lekutan nagok gustura. Dena duk berdina. Frantzian gaizki ordaintzen diate eta ondo bizi haiz; hemen, ordea, ondo ordaintzen diate eta gaizki bizi haiz.

— *Questo paese e completamente soto sopra.*

— Uste diat itsasora itzuliko naizela.

— E aizue, *aprenditu* gure hizkuntza, ostia! — esan zuen gizon azalore-aurpegi batek, hiru kafe-katilu barra gainean bortizki jarritz.

— Zuen hizkuntzaz hitz egiten badugu — erantzun zuen zorrotz Marcok—, beharbada zuri ez gustatuko guk esaten duguna.

— Zer dela eta bota haute?

— *Merde!* Ez zakiat. Liskar bat izan nian den-dako nagusiarekin, gamelu zahar hori... Zalditegiaren ondoko atean bizi zuan. Gurdiak ezezik bere etxeko zorua ere garbitu behar izaten nian... Bere emazteak honelako aurpegia zeuka.

Congok ezpainak milikatu eta begiak okertzen saiatu zen.

Marcok barre egin zuen:

— *Santissima Maria putana!* Nola moldatzen hintzen haiekin hitz egiteko?

— Gauzak hatzaz seinalatzen zitizten; orduan, nik, baietz adierazteko, buruaz keinu bat egin eta *Awright* esaten nian. Zortzietatik seieta-ra egiten nian lan, eta egunetik egunera gero eta lan zikin gehiago agintzen zidatean... Bart esan zidatean komun-ontzia garbitzeko. Nik ezetz esan nian buruaz... Hori emakumeen lana duk. Nagusiaren emaztea oso-oso haserre garrasika hasi zuan. Orduan, ni ingelesa ikasten hasi ninduan. *Go awright to'ell* esan nioan nik... Orduan, agurea zigorra eskuetan zeukala azaldu eta kalera bota nindian aste hura ez zidala ordaindu-

ko esanez... Borrokan ari ginen bitartean polizia bat agertu zuan. Orduan, ni saiatu ninduan poliziari esaten agureak hamar dolar zor zizkidala astebeteko lanagatik. Eta berak esan zidaan: «Utikan zorritsu italiar hori! Eta porraz jo nindian kaskoan... *Merde alors...*»

Marco gorri zegoen haserrearen haserrez.

— Zorritsu italiarra deitu al zian?

Congok, ahoa erroskillez beterik, baiezko keinu bat egin zuen.

— Eta bera irlandar harroputz bat besterik ez zuan —marmarrean esan zuen Marcok ingelesez—. Nazka-nazka eginda nagok hiri zikin hone-taz...

— Mundu guztian berdin-berdin gertatzen duk, poliziak jipoitu egiten gaitik, aberatsek esplotatu egiten gaitiztek euren soldata kaskarrekin, eta nor da erruduna?... *Dio cane!* Heu, neu, Emile...

— Guk ez diagu mundua egin... Haiek dituk mundua egin dutenak edo Jainkoa, beharbada.

— Jainkoa euren alde zagok, polizia baten modura... Jainkoa hiltzeko ordua iritsiko duk... Ni anarkista nauk.

Congok ahapeka abestu zuen: «*Les bourgeois à la lanterne, nom de Dieu!*»

— Hi gutarra al haiz?

Congok soina goratu zuen.

— Ni ez nauk ez katolikoa ez protestantea.

Nik ez zaukaat ez dirurik ez lanik. Ikusi hau.

— Begira.

Hatz zikin batez Congok tarratada luze bat seinalatu zuen bere praken belaunean.

— Hau duk anarkismoa... Arraioa! Senegale-ra joan eta beltz bihurtuko nauk.

— Horren itxura baduk behintzat —barre egin zuen Emilek.

— Horrexegatik deitzen zidatek Congo.

— Baina horiek txorakeriak dituk —jarraitu zuen Emilek—. Gizaki guztiak berdinak dituk. Baina batzuek aurrerantz egiten ditek eta beste batzuek ez... Horrexegatik etorri ninduan ni New Yorkera.

— *Dio cane*, nik ere horixe uste nian duela hogeita bost urte... Ni bezain zaharra haizenean ikusiko duk. Ez al dik inoiz lotsarik ematen? Hemen... —bere hazkozkorrez kolpetxo batzuk eman zituen bere papar zurrunaren gainean—

zerbait sumatu diat, erretzen, itotzen nauen zerbait, hemen... Orduan, neure artean esan diat: «*Courage*, iritsiko duk gure eguna, iritsiko duk gure egun odoltsua».

— Eta nik esaten zioat neure buruari —eten zuen Emilek—: «Dirua daukaanean, motel...»

— Entzun, Turin-dik alde egin aurretik, *mamma* ikustera joan nintzenean, burkideen mitin batean izan ninduan. Capua-ko bat altxatu zuan hitz egiteko... mutil eder bat, garaia, argaia... Esan zian indarra iraultzaren ondoren desgertuko zela, inor inoren lanaren kontura bizi izango ez zenean. Polizia, gobernuak, armadak, presidenteak, erregeak... hori dena duk indarra. Indarra ez duk benetakoa, irudimenaren fruitua baizik. Langileek sortu ditek hori guztia, horretan sinesten dutelako. Diruan eta ondasunetan sinesteari uzten diogun egunean, amets bat bezalakoa izango duk esnatzen garenean. Ez diagu ez lehergailurik ez barrikadarik beharko... Erljioa, politika, demokrazia eta hori dena gu lo edukitzeko beste ezertarako ez duk... denok herriari esan behar zioagu: «Esnatu».

— Kalera protesta egitera hoanean, ondoan izango nauk —esan zuen Congok.

— Ba al dakizue zein den lehenago aipatu dizuedan gizona?... Gizon hori, Enrico Matalesta, Italiako gizonik handiena duk Garibaldi-ren ondoren... Bizitza osoa kartzelan eta erbestean eman dik, Egipton, Ingalaterran, Hegoamerikan, leku guztietan... Ni bere modukoa banintz, berdin litzaidakek zer egingo lidaketen: urkatu, tirokatu... berdin-berdin... zoriontsua izango nindukek.

— Horrelako morroi batek zoratuta egon behar dik —esan zuen Emilek poliki-poliki—. Zoratuta egon behar dik.

Marcok zurrutada batez kafea amaitu zuen.

— Egon pixka bat. Hi gazteegia haiz. Denborarekin ulertuko duk... Haien lanari esker, banan-banan ulertzen ari gaituk. Eta ez ahaztu zer esan dudana... Agian, zaharregia izango nauk, agian hilda egongo nauk, baina egunen batean langileak euren morrontzatik askatuko dituk... Kalera irtengo zarete eta polizia korrika hasiko duk, banketxe batean sartuko zarete eta han dirua lurrean sakabanaturik egongo duk eta zuek ez

zarete gelditu ere egingo bilete bat bera ere jasotzeko... diruak ez baitu ezertarako balio izango. Mundu osoan prestatzen ari gaituk. Txinan ere burkideak zaudek... Frantziako zuen komuna hasiera izan zuan... Sozialismoak porrot egin zian. Anarkistek jo behar ditek hurrengo kolpea... Guk porrot egiten badugu, beste batzuk etorriko dituk...

Congok aharrausi egin zuen.

— Ezin zioat logaleari eutsi.

Kanpoaldean, limoi-koloreko goiztiriak kale hutsak blaitu zituen, erlaitzetatik, sute-eskaile-
ren eskudeletatik eta zakarrontzien ertzetatik tantak isuriz, eraikinen arteko itzalezko blokeak birrinduz.

Kaleko argiak itzalita zeuden. Kale-kantoi batetik Broadwayrantz begiratu zuten; handik kale meharra eta idorra ematen zuen, suak barrenak atera izan balizkio bezala.

— Egunsentia ikustean —esan zuen Marcok, bere ahotsak eztarrian karranka eginez— beti esaten zioat neure buruari: «Beharbada... beharbada gaur».

Eztarria garbitu eta farol baten oinera txistua bota zuen; gero, bere ahate-ibilkeraz urrundu zen haiengandik, indarrez aire freskoa sudurraz hartuz.

— Egia al da, Congo, berriro ontziratzeko asmoa duala?

— Zergatik ez? Munduan zehar ibili beharra zagok...

— Hire falta nabarituko diat... beste gela bat aurkitu beharko diat.

— Lagunen bat aurkituko duk gela partekatzeke.

— Baina hori egiten baduk, marinela izango haiz bizitza osoan.

— Eta? Aberatsa eta ezkondua haizenean, hiri bisita egitera etorriko nauk.

Seigarren Etorbidean behera zihoazen. Haien buru gainean, tren jaso batek orro egin zuen, trabesen artean motelduz zihoan triki-traka burrunbatsu bat atzean utziz.

— Zergatik ez duk beste lan bat bilatzen hemen apur bat geratzeko?

Congok bi zigarro oker atera zituen jakaren aurrealdeko poltsikotik, Emileri bat luzatu zion,

eta praken atzealdean poxpolu bat piztuta kea emaro-emaro bota zuen sudurretik.

— Honetaz nazkatuta nagok, esaten diat ba — esku zapala zintzur-sagarrera eraman zuen —, honaino... Beharbada etxera itzuliko nauk eta Bordeleko neskatxei bisita egin... Haiek, behintzat, ez zaudek soilik bale-bizarrez eginda... Boluntario sartuko nauk itsas armadan eta borla gorriko txapel bat jantziko diat... Neskei gustatzen zaiek. Ez zagok bizimodu hoberik... Mozkortzea, soldata kobratzeko egunean sekulako iskanbila sortzea eta Ekialde Urruna ikustea.

— Eta sifiliak jota hiltzea hogeita hamar urterekin...

— Eta?... Zazpi urte behar dituk gorputza berritzeko.

Euren ostatuko eskailerek barazkien eta garagardo garratzen usaina zuten. Estropezuka igo ziren, aharrausika.

— Zerbitzarion lana kaka zaharra duk... Oso nekagarria duk... Min handia eragiten dik oinazpietan... Begira, gaurko eguna polita izango duk. Dagoeneko eguzkiak aurreko ur-depositoan jotzen dik.

Congok zapatak, galtzerdiak eta prakak eran-tzi eta katu baten modura kizkurtu zen bere ohean.

— Pertsiana malapartatu hauekin argi guztia barrura sartzen duk —xuxurlatu zuen Emilek, ohearen kanpoaldeko ertzean soina luzatuz.

Izara zimurtsuen artean aztoraturik mugitzen zen, ezeroso. Bere ondoan, Congo lasai eta erre-gularki hartzen zuen arnasa. «Horrelakoa banintz», pentsatu zuen Emilek berekiko «inoiz ezertaz kezkatuko ez banintz... Baina hori ez duk munduan aurrera egiteko bidea... Ene Jainkoa! Hori bai ergelkeria... Marco txolintzen hasita zagok».

Eta etzanda geratu zen, sabaiko orban lizu-nezkoei begira, eta tren jasoaren orroak gelan burrunba egiten zuen bakoitzean ikaratu egiten zen. «Jainkoaren izenean, dirua aurreztu behar diat». Bira egiten zuenetan, ohearen kozkor batek kirrinka egiten zuen eta orduan gogora etortzen zitzaion Marcoen ahots zakar eta txis-tukaria: «Egunsentia ikustean beti esaten zioat neure buruari: beharbada gaur...»

— Barkatu, Mr. Olafson, une bat besterik ez da izango —esan zuen etxeen salerosketetarako agenteak—, zuk eta zure andreak pisuari buruz erabakia hartzen duzuen bitartean...

Haiek elkarren ondoan geratu ziren gela hutsean. Leihotik Hudson ibai arbel-kolorekoari begira zeuden, baita gerraontzi ainguratu batzuei eta ibaian gora bira egiten ari zen goleta bati ere.

Bat-batean emakumea, begiak distiratsu, bere gizonarenganantz jiratu zen:

— O Billy, pentsatu horretaz unetxo batez.

Gizonak sorbaldetatik helduta berarenganantz erakarri zuen emaztea apurka-apurka.

— Ia-ia honaino iristen da itsasoaren usaina.

— Billy, hona bizitzera etorriko garela pentsatzea ere... Riverside Drive-ra. Egun bat ezarri behar dut bisitak hartzeko. William C. Olafson-en andrea, 218 Riverside Drive... Ez dakit egokia izango ote den gure bisita-txartelean helbidea ipintzea.

Emakumeak eskutik hartu eta bere atzetik gidatu zuen erratzaz ondo garbitutako gela

hutsetan barna, non ordura arte ez baitzen inor-
txo ere bizi izan. Gizona handia eta astuna zen;
begi urdin lausoak zeuzkan, haur baten buru
zurian hondoratuak.

— Diru asko da, Bertha.

— Orain ordain dezakegu, bai noski. Gure
diru-sarreraren arabera bizi behar dugu... Zure
posizioak hala eskatzen du... Eta pentsa zein
zorientsuak izango garen.

Agentea korridoretik zetorren eskuak igur-
tziz.

— Ondo, ondo, ondo... Ikusten dudanez,
baietz erabaki duzue... Oso argiak zarete, gaine-
ra. Ez dago leku hoberik New Yorken eta hilabe-
te batzuk barru hemen ezin izango duzue ezer
aurkitu, ez ezaupideez ez diruaz baliatuta.

— Bai, hilabeteko lehenengo egunetik hartu-
ko dugu.

— Oso ondo... Ez zaizu damutuko hartutako
erabakia, Mr. Olafson.

— Bihar goizean txeke bat bidaliko dizut.

— Zuk nahi bezala... Eta zein da zuen orain-
go helbidea, mesedez...

Agenteak koaderno bat atera eta arkatzen baten punta mihiaz busti zuen.

Emakumea bere senarraren aurrean jarri zen.

— Ipinia Astor Hotela.

— Momentuz gauzak altzari-biltegi batean ditugu.

Mr. Olafson gorritu egin zen.

— Eta... zera... mesedez, bi pertsonaren izenak nahiko genituzke erreferentzia izateko, New Yorken.

— Ni Keating eta Bradley osasun-ingeniariekin nago, Park Avenue 43...

— Zuzendariorde orokor izendatu berri dute —erantsi zuen Mrs. Olafsonek.

Riverside Drive-ra irten ziren eta han oso haize zakarra zebilen. Orduan, emakumeak oihu egin zuen:

— Oso-oso zoriontsua naiz, maitea... Orain bai merezi izango duela bizitzak.

— Baina zergatik esan diozu Astorren bizi garela?

— Ezin nion esan Bronx-en bizi garela. Juduak ginela pentsatuko zuen eta ez zigun pisua alokatuko.

— Baina zuk badakizu ez ditudala honelako gauzak gogoko.

— Tira, Astorrera aldatu besterik ez dugu egin behar aste honetan geratzen diren egunetarako, horrek horrenbeste kezkatzen baizaitu... Ni ez naiz sekula egon erdialdeko hotel handi batean.

— O Bertha, printzipioak dira... Nik ez dut atsegin zu horrelakoa izatea.

Emakumea jiratu eta begira geratu zitzaion sudurzuloak etengabe itxi-irekika.

— Hain zara ahula, Billy... Nahiago nuke benetako gizon batekin ezkondu izan banintz.

Senarrak besotik oratu zion.

— Goazen hemendik —esan zuen zakar, beste aldera begira.

Kale-buru batean gora egin zuten, bi orube-
ren artean. Kale-kantoi batean oraindik egurrez-
ko baserri baten erdi korrokoila nabarmen ageri-
zen. Gela erdi bat ikus zitekeen zut, eta bertako
hormetan loreez apaindutako paper urdina zego-

en, orban marroiek jana. Orobat, kez belztutako sutondo bat bazen bertan, baita txiki-txiki egin-da zegoen horma-armairu bat eta burdinazko ohe bat ere, bi zatitan tolestatua.

Platerak behin eta berriro igarotzen ziren Buden atzamar koipetsuen artetik. Jaki-hondarren eta xaboi-bits beroaren usaina. Platerok bi aldiz mostratxa txiki batez igurtzi, uretan sartu, xaboia kendu eta xukaderan utzi, mutil judu sudur luzeak lehortu ditzan. Belaunak zipriztinez bustiak, koipea besoetan gora, ukondoak sorgorturik.

— Kontxo, hau ez da zuri batentzako lana.

— Niri berdin zait, kontua jatea da —esan zuen mutil juduak, plateren abarrotsari eta sute-giko zalapartari zein borborrhari bere ahotsa gailenaraziz. Han hiru sukaldari izerditsu arrautzak, urdaiazpikoa, hanburgesak, patatak eta latako behiki xehatua frijitzen ari ziren.

— Bai, nik ondo jaten dut —esan zuen Budek, mihia hortzetatik igaroaraziz, handik haragi gazi

apur bat erauzi baitzuen, mihiaz ahosabaiaren kontra zanpatu zuena.

Platerok bi aldiz moxtratxa txiki batez igurtzi, uretan sartu, xaboia kendu eta xukaderan utzi, mutil judu sudur luzeak lehortu ditzan. Su-etena egin zen. Mutil juduak zigarro bat luzatu zion Budi. Zutik zeuden, harraskan bermatuta.

— Platerak garbituz ez da diru askorik irabazten.

Judua hizketan ari zelarik, zigarroa gorabeheraka zerabilen bere ezpainen artean.

— Dena den, lan hau ez da zuri batentzat — esan zuen Budek—. Hobe da zerbitzari lan egi-tea, eskupekoak ematen dituzte.

Jantokitik etorrita, onddo-kapela marroiko gizon bat ate birakaritik sartu zen. Masailezur irtena zeukan, zerri-begiak eta puru bat, tente-tente, aho erdian. Budek gizon hura ikustiaz batera dartada hotz bat sentitu zuen erraiak bihurritzen zizkiola.

— Nor da hori? —xuxurlatu zuen.

— Ez dakit... bezero bat, nik uste.

— Ez al duzu uste detektibe-aurpegia dauka-la?

— Nola arraio nahi duzu nik jakitea? Ez naiz sekula kartzelan egon.

Mutil judua gorritu eta masailezurra nabarmen atera zuen.

Zerbitzariaren laguntzaileak beste plater zikin pila bat ekarri zuen. Bi aldiz mostratxa txiki batez igurtzi, uretan sartu, xaboia kendu eta xukaderan utzi. Onddo-kapela marroiko gizona sukaldetik berriro igaro zenean, Budek haren esku gorri koipetsuetan iltzatu zituen begiak. «Eta zer arraio, detektibea bada ere?». Budek bere lana amaitu zuenean, aterantz abiatu zen eskuak lehortzen zituen bitartean. Jaka eta kape-la esekitokitik hartu eta zerbitzu-atetik alde egin zuen kalera, zabor-ontzi batzuk atzean utzita. «Zein ergela, bi orduko soldata alferrik galtzea ere!». Optikari baten erakusleihoko erlojuan ordu biak eta hogeita bost ziren. Broadwayn behera egin, Lincoln Square-tik igaro eta Columbus Circle zeharkatu zuen, beti erdialderantz, dena zegoen lekurantz.

Neskatoa etzanda zegoen, belaunak kokotse-raino tolestaturik, eta kamisoia, gorputzari atxekia, oin azpitik sartuta zeukan.

— Orain, zuzen jarri eta lo egin, laztana... Agindu amari lo geratuko zarela.

— Aitatxo ez al da etorriko niri ondo lo egin esatera eta musu ematera?

— Bai, etxera itzultzen denean. Bulegora joan behar izan du berriro eta ama Mrs. Spingarn-en etxera joango da *euchre*-n jokatzera.

— Noiz itzuliko da aita?

— Ellie, esan dizut lo egiteko... Argia piztuta utziko dizut.

— Ez, amatxo, itzalak egiten ditu... Noiz itzuliko da aita?

— Gogoak ematen dionean.

Gas-lanpara itzali zuen. Itzalak zokoetatik atera ziren, euren hegala batu eta azkar alde egin zuten.

— Ondo lo egin, Ellen.

Atearen argizko marra meharty egin zen ama irtetean, ezari-ezarian meharty zen hari baten modukoa izan arte. Heldulekuak kurrinka egin zuen; oin-hotsak hallen barrena urrundu ziren;

kaleko atea danbatekoa eginez itxi zen. Erloju batek nonbait tiki-taka egin zuen gela isilean; pisuaren kanpoaldean, etxearen kanpoaldean, gurpilak, apoen arrapalada, aienatzen ziren ahotzak. Zalaparta areagotuz zihoan. Den-dena beltza zen, argizko bi hari izan ezik. Atearen izkinan, hari horiek behekoz gora jarritako L bat osatzen zuten.

Elliek hankak luzatu nahi izango zituen, baina beldurra ematen zion. Ez zen ausartzen begiak atearen izkinako L behekoz gorakotik kentzen. Begiak ixten bazituen, argia joan egingo zen. Ohearen atzetik, leihoko gortinen artetik, armairuaren barrutik eta mahai azpitik itzalak pixkanaka-pixkanaka hurbiltzen ari zitzaizkion. Ellie uzkurtuta zegoen, kokotsa belaunen kontra estututa. Burukoa itzalez galkaturik zegoen, itzal kuxkuxeroak ohe barrura lerratu zitzaizkion. Begiak ixten bazituen, argia joan egingo zen.

Kaletik azantz isil batek gora egin zuen kiribilka eta hormak zeharkatu zituen, itzal estekatuak taupadaka jarritz. Haren mihiak erlojuaren tikitakaren moduko hotsa egin zuen hortzen kontra jotzean. Besoak eta hankak zurrin zeuzkan;

lepoa ere bai; oihu egitera zihoan. Oihu egin kaleko azantzak ito arte, oihu egin aitatxok entzun ziezaion, aitatxo etxera itzul zedin. Arna-sa hartu eta berriro garrasi egin zuen. Aitatxo etxera itzul zedin. Itzal zaratatsuak dantzan ari ziren zabuka. Itzalak jira-biraka zebiltzan. Orduan negarrez hasi zen. Malko bero eta lasai-garriez bete zitzaizkion begiak eta masailetatik belarrietara pirritan irristatzen zitzaizkion. Buel-ta eman eta, oraindik ere negarrez, burua buru-koan pulunpatu zuen.

Hotzaren hotzez moretutako kaleetan gas-lanparek dar-dar egin zuten une batez, gero egunsenti hitsean itzali ziren. Gus McNiel, artean begiak logurez lekedaturik, bere gurdiaren ondoan zebilen, esne botilez beteriko alanbrezko saski bat eskuan balantzaka zerabilela. Ateetan gelditu zen, botila hutsak jaso, eskailera izoztue-tan gora egin zuen, krema- eta gazur-pintak utzi zituen, A eta B kalitatekoak. Bitartean, zerua erlaitzen, ur-deposituen, teilatu-gailurren eta txi-minien atzean arrosaz eta horiz tindatu zen.

Antzigarrak eskailera-mailetan eta espaloietan dirdaitzen zuen. Zaldia, burua kulunka aldenik alde eramanez, atez ate zebilen. Oinatzak gero eta ilunagoak ziren zoladura izoztuan zehar. Garagardo-kamioi batek burrunba egin zuen beherago, kale berean.

— Zer moduz, Moike? Goiz-giro freskoa, ezta?
—oihu egin zion Gus McNielek Zortzigarren Etorbideko kale-kantoian besoak igurtzitzen ari zen polizia bati.

— Zer moduz Gus, behiek oraindik esnea ematen al dute?

Egun argia zen eta, azkenean, Gusek bere zaldi irenduaren ipurdi higituaren kontra bridez jota, esnetegira bidean zen berriro ere, bueltan. Atzean, botila huts batzuk batera eta bestera saltoka zeramatzan. Bederatzigarren Etorbidean tren bat goialdetik igaro zen, ziztuan, erdialderantz, tren-makina txiki berde bat aurrean zeukala. Burbuila zuriak botatzen zituen tren-makinak, kotoia bezain trinkoak, aire gordinean eta leiho beltzeko etxe zurrunetan deuseztuko zirenak. Lehenengo eguzki-izpiek urre-koloreko errotulu hau nabarmendu zuten:

Hamargarren Etorbidearen kale-
kantoian.Gus McNielen mihia lehor zegoen eta
goiztiriak zapore gazia utzi zion ahoan. Lata bat
garagardo oso suspergarri ona izango zen hura
bezalako goiz batean. Bridak zigorraren ingu-
ruan bildu eta gurpilaren gaineko aldetik jauzi
egin zuen. Oinak hotz-hotzak zeuzkan eta, zola-
duraren kontra jotzean, azkura eragiten zioten.
Odola behatzetara itzul zekion oinkatuz, ate
birakaritik sartu zen.

— Deabruak eraman nazala hori esnezalea ez
bada eta pinta bat krema ez badakar gure kafe-
rako.

Gusek txistua bota zuen barra ondoko lis-
tuontzi garbitu berri batera.

— Hau duk egarria!

— Berriro ere esne gehiegi edan duk, Gus,
hori ziur baino ziurrago zakiat —orro egin zuen
tabernako jabeak, xerra karratu-itxurako aurpe-
gia zuenak.

Tabernan distira-emailearen eta zerrauts freskoaren usaina zegoen. Leiho ireki batetik, eguzki-izpi gorri batek emakume biluzi baten ipurmasailak ferekatzen zituen. Emakumea erdi etzanda zegoen, gozo-gozo, arrautza egosi bat espinaka-platerkada batean bezala. Bazirudien marko urreztatudun koadro bateko irudi bat zela, barraren atzean kokaturik.

— Tira, Gus, zer nahi duk hau bezalako goiz hotz batean?

— Garagardoa, Mac.

Bitsak gorantz egin zuen, dardarka, eta gero, edontzitik gainezka egin zuen. Jabeak egurrezko pala batez ertzak berdindu zituen. Bitsa unetxo batez jalkitzen utzi zuen. Gero, berriro kanila itxi samartuaren azpian ipini zuen edontzia. Gusek orpoak patxadan ezarri zituen letoizko barraren kontra.

— Eta zer moduz lana?

Gusek bere edontzi garagardoa irentsi eta eskua, ahoa garbitzeko erabili aurretik, bekoki-raino jaso zuen.

— Honaino nagok, kokoteraino... Oraintxe esango diat zer egingo dudan, Mendebaldera

joango nauk, Ipar Dakotara, lur-sail hutsen bat hartzera edo inguru horretako beste edozein lekutara, bertan garia ereiteko... Ni ondotxo mol-datzen nauk landetxe batean... Hirian bizitzea ez duk batere ona.

— Nola hartuko du Nelliek?

— Hasieran ez ziok grazia handirik egingo, bere ohiturak eta etxearen erosotasuna gustatzen zaizkiok, baina nik uste diat hara iritsi bezain laster gustura egongo dela... Hau ez duk bizimodua, ez berarentzat, ez niretzat.

— Arrazoi duk. Hiri honek hondoak jo dik... Egunen batean, emazteak eta biok hau salduko diagu, laster nik uste. Jatetxe txukunen bat erostea bagenu edo errepideko ostaturen bat... horixe duk guk nahi duguna! Bronxville-tik hurbileko finka txiki bat begiz jota zaukaat; kotxez ez zagok urrun —gogoetatsu, mazo moduko ukabila kokotseraino jaso zuen—. Nazkatuta nagok mozkorti madarikatu horiekin gauero zartadaka ibili behar izateaz. Zer arraio, nik ez nian ringa utzi borrokan jarraitzeko! Urrunago joan gabe, bertan bi morroi elkarren kontra hasi zituan borrokan eta nik erdian sartu behar izan nian

taberna husteko. Nazkatuta nagok Hamargarren Etorbideko mozkorti guztien kontra borroka egi-teaz... Nahi al duk beste trago bat tabernaren kontura?

— Beldur nauk ea Nelliek ez ote didan usaina antzemango.

— Ba! Ez kezkatu horregatik... Nelliek ohituta egon behar dik jendeak apur bat edatera. Bere aita ere zalea duk.

— Mac, benetan esaten diat, ez diat aitzurrik harrapatu nire ezkontza-egunetik.

— Hori hire kontua duk. Nellie emakume xar-mangarria duk, benetan. Bere ile kizkurra edo-zein txoratzeko modukoa duk.

Bigarren garagardoak bitsezko uholde garratz bat hatz-punteetara eramán zion. Gusek, barreka, zaplada txiki bat eman zuen bere izte-rraren kontra.

— Emakume bikaina duk, bai horixe, Gus, hain duk fina eta hori guztia.

— Zera... oraintxe noak bere bila.

— Hi bai zorionekoa, azeri zahar hori, etxera hoa emaztearekin oheratzera, eta gu, berriz, denok lanera.

Gusen aurpegi gorria are gehiago gorritu zen. Belarriak taupadaka zeuzkan.

— Batzuetan, dagoeneko ordu honetarako ohean egoten duk... Ikusi arte, Mac.

Gus kalera irten zen berriro. Ordurako, goiza hitza zen. Berunezko hainbat hodei hiriaren gainetik kokatuak ziren.

— Arre, hezur pila hori! —oihu egin zuen Gusek, bridgetatik tira eginez.

Hamaikagarren Etorbidea izoztutako hautsez beteta zegoen. Zarata izugarria zen: gurpilek kirrinka egiten zuten eta apoek karrask, galtzadarrien gainean. Trenbidetik tren-makina baten kanpaiaren txilin-hotsa zetorren, baita merkantzi tren batek maniobrak egiterakoan sortutako abarrotsa ere. Ohean, Gus gozo-gozo hitz egiten ari zitzaion bere emazteari: «Begira, Nellie, zer irudituko litzaizuke Mendebaldera aldatuko bagina, ondo ezta? Eskari-orri bat bete dut Ipar Dakotako lur-sail bat eskuratzeko; lur beltza da eta han diru pila irabaz dezakegu gariarekin. Morroi batzuek bost uzta on izan eta aberastu egin dira... Umeentzat ere osasungarriagoa da...»

— Epa, Moike.

Gusek bere artean: «Oraindik ere Moike giza-joa lanean ari duk. Hotz honekin, lan txarra duk poliziarena. Hobe duk nekazaria izatea, garia ereitea eta landetxe on bat izatea, aletegiekin, txerriekin, zaldiekin, behiekin, oiloekin... Eta Nellie, eder-ederra bere ile kizkurrarekin, sukaldeko atean oiloei jaten ematen...»

— Aizu! —oihu egin zion gizon batek Gusi espaloitik—. Kontuz trenarekin!

Bisera baten azpian aho bat oihuka, bandera berde bat dantzan.

— Ene Jainkoa! Trenbidean nagok!

Zaldiari burua jirarazi zion, lepotik indarrez tiratuta. Topekada batek gurdia suntsitu zuen. Bagoiak, zaldi irendua, bandera berdea, etxe gorria, den-dena jira-biraka hasi eta ilunpetan murgildu zen.

Hirugarren atala

Dolarrak

*Aurpegiak eurrez barandetan zehar;
aurpegiak itsasontziko argizulo guz-
tietan. Kaian ainguratzen ari zen
bapore handikote baten kiratsa zeto-
rren haizebetik; berrogeialdia adie-
razten zuen bandera horia ikus zite-
keen alde batera apur bat okerturik
zegoen bapore haren masta nagu-
sian.*

*— Milioi bat dolar emango nituzke
nik —esan zuen gizon zahar batek
bere arraunetan atsedean hartuz—
horiek zertara etorri diren jakitea-
rrer.*

*— Horixe da arrazoia, aita —esan
zuen popan eserita zegoen mutil
gazte batek. Hau ez al da aukeren
lurraldea?*

*— Gauza bat dakit nik —adierazi
zuen gizon zaharrak—. Txikitan, uda-*

*berrian, irlandar basatiak etortzen
ziren hona, lehenengo kolaka-sarda-
rekin batera... Gaur egun, ordea, ez
dago kolakarik, eta jende hori Jain-
koak daki nondik datorren.
— Hau aukeren lurraldea da.*

Oinak kaobazko idazmahai berriaren gainean, mutil gazte musuestu bat bere aulki birakarian etzanda zegoen. Altzairuzko begiak, sudur fin okerra eta oliba-koloreko larruazala zeuzkan eta bere ezpainei halako muzin-kutsu arin bat zerien. Aulki birakarian higitzen ari zen, zapatez mahaiaren berniz-geruzan egiten zituen urrakada finei so. «Kaka zaharra, bost axola zaidak dena!». Gero, aulkiari kirrinka ateraz, bat-batean altxatu eta ukabilkada bat jo zuen bere belaun gainean. «Emaitzak», oihu egin zuen. «Hiru hilabete zaramatzaat prakak aulki honetan igurtzitzen... Zertarako joan Zuzenbide Fakultatera eta abokatu-ikasketak aurrera atera, defendatzeko auzirik ez badago?». Bekokia ilundu zuen, urre-koloreko kartela beira esmerilatueki-ko atean ikustean.

NIWDLAB EGROEG AUTAKOBA

Niwdlab, galestarra. Jauzi eginez zutitu zen. «Hiru hilabete zaramatzaat kartel malapartatu hau egunero-egunero irakurtzen. Erotu egingo nauk. Bazkaritara noak».

Txalekoa txukundu eta zapaten zenbait hauts-izpi musuzapiaz kendu ondoan aurpegia estutu zuen, kezka biziaren adierazgarri; bere bulegotik ziztuan irten, saltoka eskailerak jaitsi eta Maiden Lane-ra atera zen. Jatetxe aurrean egunkari baten argitalpen berezi bateko titulu nagusia ikusi zuen.

JAPONIARRAK MUKDEN-ETIK EGOTZI DITUZTE.

Mutilak egunkaria erosi, beso azpian tolestatu eta ate birakaria bultzatu zuen. Mahai bat hartu eta menua arretaz irakurri zuen. «Menua oraingoz ezin duk oso ugaria izan».

— Zerbitzari, ekarri mesedez New England erako egoski bat, sagar-tarta puska bat eta kafea.

Zerbitzari sudurluzeak paper-mutur batean eskaria idatzi eta, bekokia zimurtuta, arreta handiz irakurri zuen... «Hauxe duk lanik gabeko abokatu baten bazkaria». Eztarria garbitu eta egunkaria zabaldu zuen... Horrela Errusiarekiko harremanak apur bat suspertuko dira. Beteranonek presidentea bisitatu dute...

BESTE ISTRIPU BAT HAMAIKAGARREN
ETORBIDEKO TRENBIDEAN
Esnezale bat larri zauriturik.

«Kontxo, hemendik kalte-ordain polita atera litekek», esan zuen bere artean.

«Augustus McNiel, Laugarren Kaleko 253 W.-ko bizilaguna, gaur goizean larri zauritua gertatu da, New York Central-eko trenbidean atzeraka zetorren merkantzi tren batek harrapatuta...»

«Gizonak tren-konpainia auzitara eraman behar likek. Arraioa! Gizon hori harrapatu eta kalte-ordaina eskatzeko konbentzituko banu!... Oraindik ez zuan bere onera etorriko... Beharba-da, honezkero hil egin duk. Orduan, bere emazteak arrazoi handiagoz eraman zitzakek auzitara... Gaur arratsaldean bertan joango nauk ospitalera... Auzizale guztiei hartu behar zieat aurea». Di-da ausikita ogiari puska bat kendu eta indarrez murtxikatzeari ekin zion. «Ez horixe; bere etxera joango nauk, emazterik, amarik edo dena delakorik ote dagoen ikustera». Barkatu, Mrs. McNiel, samin handiko une honetan zurekin gogaikarria banaiz, baina zera ikertzen ari naiz... Bai, garrantzi handiko gaiak ditut esku artean... Kafea amaituta kontua ordaindu zuen.

«Laugarren Kaleko 253 W.» behin eta berriro bere artean errepikatzen ari zela, Broadwayn gora egiten zuen tranbia batera igo zen. Beti mendebalderantz zihoan, Laugarren Kalean zehar, Washington Square alde batera utzita. Zuhaitzek euren adar more argiak hedatzen zituzten zeru grisaxkarantz. Aurreko etxe leiho handidunek dardai arrosa bizi bat jaulkitzen

zuten, dotoreziaz. «Bizileku ezin hobea izan zitekean bezero ugari eta leialak zeuzkan abokatu batentzat. Garaian garaikoak, hori nire kontu». Seigarren Etorbidea zeharkatu eta kale horretatik aurrera jarraitu zuen, West Side zikinerantz. Bertan ukuilu-kiratsa nagusi zen eta zaborrez beteriko espaloien gainean umeak katuka zebiltzan. «Pentsa zer izan daitekeen hemen bizitzea behe mailako irlandarrekin eta atzerritarrekin, unibertsoko zaborrarekin». 253. zenbakian izenik gabeko zenbait txirrin zeuden. Odolki-itxurako beso batzuen gainetik kotoizko mahukak jasota zeuzkan emakume batek burua leihotik agertu zuen, txima grisez betea.

— Esango al didazu Augustus McNiel hemen bizi al den?

— Ospitalean dagoen hori? Bai, hemen da.

— Ederki. Bakarrik bizi al da?

— Eta zuk zertarako jakin nahi duzu hori?

— Negozioak.

— Igo azken pisura eta hantxe aurkituko duzu bere emaztea, baina seguru asko ez du zurekin hitz egiteko gogorik izango... Gajoak burua oso nahasita dauka bere senarraren kontu

horrekin, eta hamazortzi hilabete ere ez dira ezkondu zirela.

Eskaileretan lokatz-aztarnak eta errauts-kuboen zipriztinak ikusten ziren. Goialdean, berde ilun koloreko ate margotu berri bat aurkitu eta deitu egin zuen.

— Nor da? —galdetu zuen barrutik neska-ahots batek, abokatuari dartada handia eraginez. Oso gaztea izan behar zuen.

— Mrs. McNiel etxean ba al dago?

— Bai —erantzun zuen ahots kantari hark—. Zer nahi duzu?

— Mr. McNielen istripuarekin lotuta dago.

— Istripuarekin diozu?

Atea ezari-ezarian ireki zen, ardura handiz. Bisaia polita zeukan eta sudurra eta kokotsa zuri perla-kolorekoak. Ile gorrixkaren mataza izurtu batek kiribil lisoiez zedarritzen zion kopeta luze eta estua. Bi begi gris, bizi eta mesfidati finkatu zitzaizkion aurpegian.

— Nahi al duzu nirekin apur bat hitz egin Mr. McNielen istripuari buruz? Nire uste apalean, zenbait kontu legal jakinarazi behar dizkizut... A,

horretaz ari garela, espero dut zure senarra hobeto egotea.

— A, bai, konortea berreskuratu du.

— Utziko al didazu pasatzen? Kontua pitin bat luzea da azaltzeko.

— Bai, zergatik ez?

Ezpainen muzina irribarre bortxatu bilakatu zitzaion.

— Zuk ez nauzu jango, ezta?

— Ez, lasai, hitz ematen dizut.

Eztarritik barre eginez, emakumeari segitu zion gelatxo ilun bateraino.

— Ez dut gortinarik jasoko zuk ez ikusteko hau zein nahasita dagoen.

— Lehenengo eta behin, neure burua aurkeztuko dut, Mrs. McNiel... George Baldwin, 88 Maiden Lane... Ni hau bezalako kasuetan espezializatuta nago... Lau hitzetan esanda... Zure senarra tren batek harrapatu eta ia-ia hil zuen, New York Central tren-konpainiako langileen zabarkeriaren erruz. Eta litekeena da hori krimena izatea. Nahi adina arrazoi daude konpainia auzitara eramateko. Uste dut, hala ere, Excelsior Esnete-

giak epaitegira joko duela galdutako ondasunen-
gatik, zaldiarengatik, gurdiarengatik eta abar.

— Zer esan nahi duzu, Gusek kalte-ordain bat
ere lor dezakeela?

— Horixe bera.

— Zuk zenbat uste duzu atera dezakeela?

— Zenbait gauza hartu behar dira kontuan:
bere egoeraren larritasuna, auzitegien jarrera
eta akaso abokatuaren trebetasuna... Nire ustez,
behetik jota hamar mila dolar.

— Eta zuk ez duzu alde zuretzat ezer eska-
tzen?

— Auzia amaitu zuretzat oso gutxitan ordain-
tzen zaio abokatuari.

— Eta zu abokatua zara, benetan? Oso gaz-
tea ematen duzu abokatua izateko.

Gizonarengan iltzaturik, begi grisek dir-dir
egiten ziharduten. Barreka hasi ziren bi-biak.
Baldwinek bero-sentsazio adieraztezin bat senti-
tu zuen gorputz osoan zehar.

— Hala ere, abokatua naiz. Honelako kasue-
tan espezializatu naiz. Esaterako, joan den
asteartean sei mila dolar irabazi nituen bezero
batentzat, zaldi baten ostikada hartu baitzuen.

Oraintxe bertan asaldura da nagusi Hamaikagarrren Etorbideko burdinbidearen esleipenaren kontra. Hauxe da momenturik egokiena, nik uste.

— Aizu, zuk beti hitz egiten duzu horrela ala bakarrik negozioren bat tartean denean?

Burua atzerantz eraman eta barreka hasi zen.

— Gus gizajoa, beti esan dut zorte txarra zeukala.

Haur baten auhena indarge iritsi zen tabikearren beste aldetik.

— Zer izan da hori?

— Haurra... Mukizuak egun osoa ematen du negar batean.

— Beraz, zuk haurrak dauzkazu, ezta Mrs. McNiel?

Gogoeta hark abokatuaren grina nolabait apaldu zuen.

— Bat bakarrik... Zer espero zenuen ba?

— Zure senarra Emergency Hospital izenekoan al dago?

— Bai, nik uste dut zuri utziko dizutela bera ikusten, bisitaren arrazoia kontuan hartuta. Bere arrengurak ikaragarriak dira.

— Baina nik lekukoren batzuk lortuko banitu...

— Mike Dohenyk dena ikusi zuen. Polizia da. Gusen lagun ona.

— Auzia irabazita daukagu... Ez da auzitegira jo beharrik ere izango... Ospitalera noa zuzen-zuzenean.

Ondoko gelatik zetozen auhenak entzun ziren berriro.

— O, mukizu hori... —xuxurlatu zuen emakumeak suminduta—. Argi dago dirua zertan gastatuko genukeen, Mr. Baldwin...

— Tira, alde egin beharra daukat —kapela hartu zuen—. Eta, noski, auzi honetan ahal dudan guztia egingo dut. Ondo iruditzen zaizu ni noizean behin etortzen banaiz zu jakinaren gainean jartzera?

— Bai, hala espero dut.

Atean, elkarri agur egiterakoan, abokatuak ez zion eskua askatzen. Emakumea lotsatu egin zen.

— Tira, agur eta eskerrik asko bisitarengatik
—esan zuen lehor emakumeak.

Baldwinek eskailerak zabuka jaitsi zituen, zorabioak jota. Odola buruan metatuta zeukan. «Inoiz ikusi dudan neskari politena». Kanpoaldean elurra hasi zuen. Elur-malutak fereka hotzak eta isilak ziren bere masaila berotsuetan.

Parkearen goialdean, zerua hodei luzanga txikiz pikardaturik ageri zen, oilo zuriz zipriztindutako belazearen antzera.

— Aizu, Alice, goazen bidetxo horretan behera.

— Baina Ellen, aitatxok esan dit eskolatik etxera zuzenean joateko.

— Beldurti hori!

— Baina Ellen, bahitzaile horiek...

— Esan dizut, Ellen, niri gehiago ez deitze-ko...

— Ondo da, orduan, Elaine; Elaine, Astaloteko lilia.

Ellenek jantzi berri eskoziar bat zeukan, Goardia Beltzekoa. Alicek, berriz, betaurrekoak eta hanka meheak, urkilen antzeko.

— Kakati hori!

— Gizon batzuk daude banku hartan eserita. Goazen etxera, Elaine, polita, goazen.

— Niri ez didate beldurrik ematen. Nahi iza-nez gero, nik Peter Panek bezala egin nezake hegaz.

— Aurrera ba!

— Orain ez daukat gogorik.

Alice negar-zotinka hasi zen.

— O, Ellen, ez izan gaiztoa... Goazen etxera, Elaine.

— Ez, nik paseo bat egin nahi dut parkean zehar.

Ellenek eskailerak jaitsi zituen. Goiko eskaile-ra-mailan, Alice une batez kulunkan geratu zen, noiz hanka batean, noiz bestean.

— Kakati, kakati, kaka eginda zaude! —oihu egin zuen Ellenek.

Alicek korrika alde egin zuen, negar batean.

— Zure amari esango diot!

Ellenek, aireari ostikoka, asfaltozko bidexkan behera egin zuen, zuhaixken artetik.

Amatxok Hearn's-en erositako jantzi eskoziar berria, Goardia Beltzekoa, soinean zeukala, asfaltozko bidexkan behera egin zuen, aireari ostikoka. Amatxok Hearn's-en erositako jantzi eskoziarraren sorbaldakoan brotze moduko zilarezko kardu bat erakusten zuen. Lammermoorko Elaine ezkontzera zihoan. Emaztegaia. Uangaan, nainainai, gaiten hotsa zekaleen artetik. Bankuko gizonak partxe bat zeukan begi batean. Partxe beltz hura ez zen egiazkoa. Partxe beltz hura ez zen egiazkoa. Goardia Beltzeko bahitzailea; zuhaixka xuxurlarien artean, bahitzaileek erne segitzen zuten, euren partxe beltzen babesean. Halako batean, Ellenek utzi zion aireari ostikadak emateari. Ellenek Goardia Beltzeko bahitzaileari beldur izugarria zion, Goardia Beltzeko gizon handikote kirastu begian partxea zeukanari. Korrika hasteko beldurrak zegoen. Bidexkan behera korrika egiten saiatu zenean, ordea, oin astunak asfaltoan ia itsatsita geratu zitzaizkion. Burua jiratzeko beldurrak zegoen. Goardia Beltzeko bahitzailea atze-atzean zeu-

kan. «Farolera iristen naizenean, erizaina eta haurra dauden lekuraino joango naun korrika, erizaina eta haurra dauden lekuraino iristen naizenean zuhaitz handiraino joango naun korrika, zuhaitz handira iristen naizean... Ene, zeinen nekatuta nagoen!... Central Park West-eraino joango naun korrika, kolean behera egingo dinat etxeraino...». Burua jiratzeko beldurrak zegoen. Korrika ari zen bitartean min-ziztadak sentitzen zituen saihetsetan. Korrika egin zuen, ahoan zapore garratza sortu zitzaion arte.

— Zergatik egiten duzu korrika, Ellie? —galdetu zuen Gloria Draytonek sokasaltoan Norelandarren etxearen aurrean.

— Nahi dudalako egiten dut korrika —erantzun zuen Ellenek arnasestuka.

Ardo-koloreko dirdaiak muselinazko gortinak tindatu eta gelaren argitzal urdinera iragazi zen. Mahaiaren alde banatan zutik zeuden. Oraindik zetazko paperean bildutako nartziso-ontzi batek gainezka eginez, izar-itxurako lore batzuek dir-dir egiten zuten fosforeszentzia argiz, lur bus-

tiaren usaina zeriela, lurrin ilaun eta zorrotz batekin nahastuta.

— Oso atsegina zara, Mr. Baldwin, lore hauek ekartzeagatik. Gusi eramango dizkiot bihar goizean ospitalera.

— Jainkoarren, horrela ez deitu niri.

— Baina, niri ez zait gustatzen George izena.

— Berdin dio, niri zure izena gustatzen zait, Nellie.

Emakumeari beha geratu zen. Bazirudien besoen inguruan lurrinezko eraztun pisutsu batzuk kiribilduta zeuzkala. Eskuak dindilizka zeuzkan eskularru hutsen modura. Emakumeak begi beltzak zeuzkan, dilatatuak, eta loreen gainetik, bere ezpain irtenek gizonarenganantz jo zuten. Eskuez aurpegia estali zuen. Gizonak beso batez haren sorbalda txikiak inguratu zituen.

— Baina Georgy, benetan diotsut, zuhur jakatu behar dugu. Ez duzu hona horren sarri etorri behar. Nik ez diet etxe honetako atso nonzerberri guztiei zeresanik eman nahi.

— Ez kezkatu... Ez dugu ezertaz kezkatu behar.

— Zoratuta banengo bezala jokatu dut azken aste honetan... Honek amaitu egin behar du.

— Zuk ez duzu pentsatuko egoera hau niretzat ohikoa denik, ezta? Jainkoari zin egiten diot lehenengo aldia dela. Ni ez naiz gizon horietakoa...

Barre-bulkada batean, emakumeak bere hortz gorabeherarik gabeak erakutsi zituen.

— O, sekula ezin da aurrez jakin gizonek nola jokatu behar duten.

— Ulertuko duzunez, hau zerbait apartekoa, ezohikoa, izango ez balitz, ni ez nintzen zure atzetik ibiliko, orain nabilen bezala, ez al da egia? Orain arte ez naiz sekula maiteminduta egon, Nellie.

— Sekula halakorik!

— Egia da baina... Ni ez naiz sekula ibili horrelako gauza baten bila. Lan asko egin behar izan nuen Zuzenbidea gainditzeko, eta ez nuen astirik izan neskatan ibiltzeko.

— Eta galdutako denbora orain berreskuratu egin nahi duzu.

— O, Nellie, ez esan horrelakorik!

— Ez, baina benetan diotsut, Georgy, egoera honi amaiera jarri behar diot. Zer egingo dugu Gus ospitaletik irteten denean? Azken egunotan, ez dut behar bezala zaindu ez haurra, ez ezer.

— Jainkoarren, berdin zait zer gertatuko den... O, Nellie.

Abokatuak burua jirarazi zion. Kordokan elkar besarkatu zuten, euren ahoak grinatsu uztartuz.

— Kontuz, ia-ia lanpara lurrera bota genuen.

— Jainkoarren, zoragarria zara, Nellie.

Nelliek burua abokatuaren paparraren gainean kokatu zuen poliki-poliki, eta Baldwinek haren ile nahasiaren lurrinari antzeman ahal izan zion, bere baitan barneratzen ari zela. Gaua zen. Farolen argi berdeek haien inguruan sigi-saga egiten zuten, sugeen gisa. Nelliek bere begi beltzez serio-serio egin zion so.

— Nellie, goazen beste gelara —esan zuen abokatuak ahots dardaratiz, ahapeka.

— Hortxe dago umea.

Eskuak hotz, elkarrengandik aldendu ziren, elkarri begira segitu bazuten ere.

— Etorri eta lagundu. Sehaska hona ekarri nahi dut... Kontuz, esnatzen badugu, zintzurra

lehertu arte oihu egingo du eta —esan zuen Nelliek ahots urratuaz.

Umea lo zegoen, gomazko bere aurpegi txikia zimur-zimur eginda eta bere ukabiltxo arrosak izara-ertzaren kontra estututa.

— Oso gustura dagoela ematen du —esan zuen abokatuak irribarre behartu txiki batez.

— Isildu, mesedez... Tira, kendu zapatak... Nahiko zarata egin dugu... Georgy, nik ez nuke hau egin behar, baina ez naiz gauza...

Abokatua ilunpetan itsumustuka ibili zen Nellieren bila.

— Laztana...

Emakumea baldarki besarkatu zuen, oso azkar eta sakon arnastuz.

— Oinzapal, hik ziria sartu nahi diguk...

— Ez, benetan, amaren hilobiagatik zin egiten diat egia hutsa... Latitudea hau duk: hogeita hamazazpi Hegoalderantz eta hamabi Ekialderantz... Bertara joan eta ikusi besterik ez duzue behar... Elliot P. Simkins-a hondoratuta, bigarren ofizialaren txalupan iritsi gintuan uharte hartara.

Bertan lau ar eta berrogeita zazpi eme zeudean, emakumeak eta haurrak kontuan hartuta. Neuk dena kontatu nioan kazetari hari, eta gero, igandeko egunkari guztietan eman zuan horren berri, ez al da egia?

— Baina Oinzapal, nola arraio atera hinduten handik?

— Kamaina batean, eta hori gezurra bada, oraintxe bertan lurrak irents nazala betiko. Ni ere brankaren aldetik beherantza nindoaan, Elliot itsasontzi zaharraren modura. Gezurra bada, putakume ustela izan nadila.

Burua atzera eramanda, barre-algara handiak egin zituzten, edontziek zirkuluz beteriko mahai biribilean elkarren kontra jo zuten, eskuak izterren gainera erori eta ukondoak saihetsetan pulunpatu ziren.

— Eta zenbat morroi zeundeten txalupan?

— Sei, Mr. Dorkins ere kontuan hartuta, bigarren ofiziala.

— Zazpi gehi lau berdin hamabi... Bai... Lau eta hiru hamaiken bakoitzeko... A zer uhartea!

— Noiz irtengo da hurrengo ferrya?

— Beste zerbait edango diagu horren alde! E, Charlie, tira, bete berriro edontziak!

Emilek ukondotik tira egin zion Congori.

— Irten apur batean. *J'ai que'quechose a te dire.*

Congok begiak bustita zeuzkan. Zabu txikiak eginez, Emileren atzetik joan zen barraraino.

— O! *Le p'tit mystérieux!*

— Begira, alde egin beharra zaukaat, neska bat dut zain.

— O! Hori al zen arduratzen hinduena? Betidanik esan diat hi ez haizela batere tontoa, Emile.

— Begira, hemen daukak nire helbidea, paper-mutur honetan, ahazten bazaik ere: 945 West, 22nd. Nahi baduk, lo egitera etor haiteke, oso mozkortuta ez bahago, eta ez ekarri ez lagunik, ez emakumerik, ez ezer. Ugazabandrearekin ondo moldatzen nauk eta ez diat nahi dena antzarak ferratzera bidali... *Tu comprends?*

— Nik, ba, hirekin kriston jai batera joateko asmoa nian... *Faut faire un peu la noce, nom de Dieu!...*

— Bihar goizean goiz lanera joan beharra zaukaat.

— Tira! Zortzi hileko soldata zaukaat poltsikotan...

— Dena den, bihar joan etxera seiak aldera. Zain izango nauk.

— *Tu m'emmerdes tu sais avec tes manières.*
Congok tabernaren zokoan zegoen listuontzira ttu egin eta, kopetilun, barruko gelara itzuli zen berriro.

— Aizak, Congo, eseri! Barney-k *The Bastard King of England* kantatu behar dik.

Emile tranbiara igo zen, hiriaren kanpoalde-rantz egin nahian. Hemezortzigarren Kalean tranbiatik jaitsi eta mendebalderantz abiatu zen, Zortzigarren Etorbiderantz. Kale-kantoitik bi ate haruntzago denda txiki bat zegoen. Leiho batean CONFISERIE irakur zitekeen eta bestean, aldiz, DELICATESSEN. Kristalezko atearen erdian, esmalte zuriz idatzitako hitz batzuk: EMILE RIGAUD, GOZOKI HAUTATUAK. Emile barrura sartu zen. Ateko txilina entzun zen. Emakume mardul beltzaran bat, ile beltz batzuk ezpainen ertzetan zeuzkana, erdi lo

zegoen salmahairen atzean. Emilek kapela kendu zuen.

— *Bonsoir, madame Rigaud.*

Izaturik, emakumeak burua altxatu zuen, eta gero, irribarre bat azaldu zitzaion aurpegira alde-nik alde, bi elutxa marraztuz.

— *Tieng, c'est comme ça qu'ong oublie ses ami-es* —esan zuen Bordeleko doinu gogorraz—. Aste osoa daramat neure buruari esaten: monsieur Loustec-ek ez ditu lagunak gogoan.

— Ez daukat ezertarako astirik.

— Lan asko, lan asko, *heing?*

Barre egitean, sorbaldak eta bular handiak dardarka hasi zitzaizkion emakumeari, gerruntze urdin estu baten azpian.

Emilek begi-keinu bat egin zuen.

— Okerrago izan zitekeen... Baina asper-asper eginda nago zerbitzaria izateaz... Oso lan nekagarria da; inork ez ditu zerbitzariak aintzat hartzen.

— Argi dago handinahia duzula, monsieur Loustec.

— *Que voulez vous?*

Gorri-gorri esan zuen herabe:

— Emile dut izena.

Madame Rigaudek sabairantz jaso zituen begiak.

— Izen horixe zuen nire senar zenak. Izen horretara ohituta nago.

Sakonki egin zuen hasperen.

— Eta zer moduz negozioak?

— *Comma-ci, comma-ça...* Urdaiazpikoa berriro igo da.

— Chicagoko zirkuluak du horren errua. Txerrikiaren monopolioa, hori dirua irabazteko bide paregabea da.

Emilie ohartu zen Mme. Rigauden begi irten beltzak bereak aztertzen ari zirela.

— Lehengoan kantatu zenuena asko gustatu zitzaidan... Askotan etorri zait gogora... Musikak on handia egiten du, ezta?

Barre egitean, Mme. Rigauden elutxak luzatu eta luzatu egiten ziren.

— Nire senar gizajoak oso belarri txarra zeukan. Horrek pena handia ematen zidan.

— Gaur gauean ez al duzu ezer abestuko?

— Zuk hala nahi baduzu, Emile... Baina denda ez da inor geratuko bezeroez arduratzeko.

— Ondo iruditzen bazaizu, txirrina entzunez gero, neu aterako naiz berehalaxe.

— Ederki... Kanta amerikar berri bat ikasi dut... *C'est chic vous savez.*

Gerrikotik zintzilik zeukan sortako giltza batez, Mme. Rigaudek kutxa erregistratzailea itxi eta kristalezko atetik denda-ostean sartu zen. Kapela eskuetan, Emilek emakumeari segitu zion.

— Emaidazu kapela, Emile.

— O, ez arduratu.

Denda-ostean gela txiki bat zegoen, lore hori-ko paperaz eta izokin-koloreko gortinez apainduta. Gas-lanparatik kristalezko bola batzuk dindilizka ageri ziren, eta horren guztiaren azpian, piano bat zegoen, argazkiez galkatua. Mme. Rigaud piano ondoan esertzeaz batera, aulkiak kraska egin zuen. Atzamarrak tekletan zehar erabili zituen. Emile kontu handiz eseri zen aulkiaren ertz-ertzean, pianoaren ondoan. Kapela belaunen artean ezarrita, lepoa luzatu zuen eta, horrela, emakumea jotzen ari zen bitartean, Emile zeharretik ikusi ahal izango zuen. Madame Rigaud kantuan hasi zen:

*Txogia ugezko kaiola batean
benetan da ikusgagia,
zogion-itxuga du beti aldean
musuan beti igia
baina bestegik du bagnean.*

Dendako txirrina zalaparta handiz entzun zen.

— *Permettez* —oihu eginda Emile lasterka joan zen.

— Libra erdi bat soltxitxoi, xerretan ebakia —
esan zuen txirikordadun neskato batek. Emilek
aiztoa ahurretik pasatu eta saltxitxoia kontu
handiz ebaki zuen. Behatz-puntetan gela txikira
itzuli eta dirua pianoaren ertzean utzi zuen.
Oraindik Madame Rigaud kantuan ari zen:

*Bizitza alfegik galtzea, hogi bai tgistea,
uge gogiz zuen egosi
aguge batek edegtasuna
logtu nahigik zogiontasuna,
ogain neskatxa dugu ugezko kaiolako
txogi.*

Broadwayren eta Franklin Street-en arteko kale-kantoian geldirik, Bud poltsa bateko kakahueteak jaten ari zen. Eguerdia zen eta ez zeukan dirurik batere.

Tren jasoaren burrunba entzun zen haren buruaren gainetik. Hauts-izpiak dantzan zebil-tzan haren begi aurrean trenbide-trabesek marratan ebakitako eguzki-argitan. Norantz jo erabaki ezinik, kaleen izenak hirugarren aldiz ahoskatu zituen kontu handiz. Hanka distiratsu-dun bi zaldi beltzek tiratutako kotxe beltz distira-tsu bat aurre-aurrean paratu zitzaion, eta ziz-tuan kale-kantoirira iritsita desbideratu egin zen beste kale batean barrena. Ziplo galgatu eta gurpil gorri distiratsuek karranka egin zuten harri-kozkorren gainean. Gidariaren ondoko eserlekuan larru horizko kaxa bat zegoen. Kotxean, onddo-kapela marroiko gizon bat gora-ki mintzatzen ari zitzaion luma grisezko lepokoa eta ostruka-luma grisezko kapela zeuzkan ema-kume bati. Gizonak errebolber bat destatu zuen bere ahoaren kontra. Zaldiak, brau, zutitu eta jendetzarengana oldartu ziren. Poliziek ukondo-

ka aurrera egin zuten. Ahotik odola zeriola, espalaira eraman zuten gizona, laukiekiko txalekotik burua zintzilika. Haren ondoan, emakumea idunekoa bihurritzen ari zen eta bere kapelaren lumak kulunkan ari ziren tren jasoaren trabesek marratan ebakitako eguzki-argitan.

— Bere emazteak bera Europara eramateko asmoa zuen... Deutschland itsasontzia hamabietan abiatuko da. Nik agur esan nion betiko... Deutschland itsasontzian joatekoa zen hamabietan. Berak agur esan zidan betiko.

— Tira, alde hemendik!

Polizia batek ukondokada bat eman zion Budi urdailean. Belaunak dardarka zituen. Jendetza-rengandik irtenda alde egin zuen dardarka. Kakahuete bat mekanikoki zuritu eta ahoan sartu zuen. Hobe gainerakoak gauerako uztea. Poltsa tolestu eta poltsikoan sartu zuen.

Berdez inguratutako argi arrosa eta morea ematen zuen arku elektriko baten azpian, laukiekiko jantzia zeukan gizona bi neskarekin gurtzatu zen. Hurbilen zeukanaren ezpain haragi-

tsuak, aurpegi obalatu; haren begiradek laban-
kadak ziruditen. Urrats batzuk eginda jiratu eta
haien atzetik hasi zen, satenezko bere gorbata
berria eskuztatzen ari zela. Bere orratza, dia-
mantezko ferra bat, bere lekutik ez zela higitu
egiaztatu nahi zuen. Berriro ere gurutzatu zen
haiekin. Batak burua jiratu zuen. Bera zen behar-
bada... Ez, ezin zuen ziur esan. Zorionez, berro-
geita hamar dolar zituen poltsikoan. Banku
batean eseri eta pasatzen utzi zien. Ederra litza-
teke atxilotua izatea orain hanka sartzeagatik.
Neskak ez ziren ohartu bera han zegoenik ere.
Parkearen kanpoalderaino segitu zien. Bihotza
oso azkar ari zitzaion taupadaka. «Milioi bat
dolar emango nizkikek...». «Barkatu, zu al zara
Miss Anderson?». Nesken ibilera bizkortu egin
zen. Columbus Circle-tik igarotzean, begien bis-
tatik alde egin zioten, jendetzaren artean. Broad-
wayn behera egin zuen, etxadiz etxadi. Ezpain
haragitsuak, labankaden moduko begiradak.
Ezker-eskuin begira zihoan, nesken aurpegiei so.
«Non sartu ote da?». Arin jarraitu zuen Broad-
wayn behera.

Ellen bere aitaren ondoan eserita zegoen, Battery-ko banku batean, bere bota marroi berriei begira. Eguzki-izpi batek bota-puntekin eta botoi txiki guztiekin jolas egiten zuen, Ellenek oina jantziaren babesetik atera orduko.

— Pentsa zeinen zoragarria izango zen — esan zuen Ed Thatcherrek— transatlantiko handi horietako batean bidaiatzea. Pentsa, Atlantikoa zazpi egunetan zeharkatzea.

— Baina aitatxo, jendeak zer egiten du ontzian dagoen bitartean?

— Ez dakit... bizkarrean zehar paseoan ibili, kartetan jokatu, irakurri eta horrelako gauzak, nik uste. Gainera, dantzaldiak ere badaude.

— Dantzaldiak itsasontzi batean! Izugarri mugituak izango dira —egin zuen barre Ellenek.

— Bapore moderno handietan antolatzen dituzte horrelako gauzak.

— Aitatxo, eta zergatik ez goaz gu ere?

— Agian, egunen batean joango gara, behar adina diru aurrezteko lortzen badut.

— O, aitatxo, azkar ibili eta diru asko aurretut. Alice Vaughan-en gurasoak udaro joaten dira

White Mountains-era, baina datorren udan atzerri joango dira.

Ed Thatcher badiari begira zegoen, batzuetan dardai urdinetan, bestetan laino arreetan Narrows-eraino luzatzen baitzen. Askatasunaren estatua sonanbulu baten modura ageri zen zut, atoiontzien ke-laino kiribilduaren, goleten masten eta adreiluz eta hareaz mukuru beteta zeuden gabarra ikaragarrien artetik. Hor eta han, eguzkiak gogor jotzen zuen, distiratsu, belaontzi zuri baten edo bapore baten gainegituraren kontra. Ferry guztiak harat-honat zebiltzan, gelditu gabe.

— Aitatxo, gu zergatik ez gara aberatsak?

— Jende asko da gu baino pobreagoa, Ellie... Zuk ez zenuke aitatxo gehiago maitatuko aberatsa balitz, ezta?

— O bai, gehiago maitatuko zintuzket, aitatxo.

Thatcherrek barreari eman zion.

— Tira, batek daki, beharbada egunen batean... Zer iruditzen zaizu Edward C. Thatcher&Co. Zinpeko Kontulariak?

Ellen jauzi eginez altxatu zen.

— Hara, begira zein itsasontzi handia... Itsasontzi horretan egon nahi nuke nik.

— Hori Harabic-a da —karraka egin zuen marinel-ahots batek haien ondoan.

— A bai? —esan zuen Thatcherrek.

— Bai, jauna; ez *dao* ontzi *hobeik* itxaso zaba-lean, benetan diotxut, jauna —azaldu zuen gri-natsu haien ondoan eserita zegoen gizon zarpail eta ahots kraskatu batek. Txarolezko bisera apurtu bat, whisky-usain arina isurtzen zuen musu estu baten goialdean ezarria—. Bai jauna, Harabic-a da.

— Ontzi handia ematen du, bai.

— Denik eta handienetako bat, jauna. Behin baino *gehiotan nabiatu* dut bertan, eta Majestic-en eta Teutonic-en ere bai, jauna; ontzi biak onak dira, itxasoan apur bat *kaskainak* izan arren, nolabait esanda. Azken *hoeita* hamar urteak Hinman-en eta White Star Lines-en eman ditut itxasmutil-lanetan, eta *oain zarra* naizenez, bota *ein* naute.

— Denok ditugu bolada txarrak.

— Batzuon kasuan, bolada txar *hoiek* bizitza osoa irauten *due*, jauna. Ni zoriontxua izango

nintzake, neue herria itzultzea izango banu. Hemen ez *dao lekuik zarrentzat*, eta bai, ordea, gazteentzat eta indartxuentzat —hezueriak bihurritutako esku bat atera eta estatua seinالاتu zuen—. *Beira, Ingalaterraa beira dao*, horra!

— Goazen aitatxo. Gizon hori ez zait gustatzen —xuxurlatu zion belarrira Ellenek bere aitari ahots dardaratiz.

— Ederki, itsas txakurrei begiratu bat egitera joango gara... Agur eta ondo izan.

— Aizu, diru apurren bat emango *diazu* kafe bat *eateko*. Porru *einda nao*.

Thatcherrek hamar zentaboko txanpon bat ipini zuen esku hezurtsu-zikin hartan.

— Baina aitatxo, amaxok dio ez zaiola jaramonik egin behar hitz egitera datorren kaleko jendeari, eta horrelakoetan poliziari deitu behar zaiola eta ahalik eta azkarren egin behar dela korrika, bahitzaile gaizto horiengatik.

— Ez dago ni bahitzeko arriskurik, Ellen. Hori neskatoen kontua baino ez da.

— Handia naizenean nik ere kaleko jendeari horrela hitz egin ahal izango diot?

— Ez, laztana, ez horixe.

— Eta mutila banintz bai?

— Baietz uste dut.

Unetxo bat eman zuten Akuarioaren aurrean, badiari begira. Haien aurrean transatlantiko bat zegoen eta, hari bultzaka, brankaren alde bakoitzean, ke zurizko bafadak botatzen zituen atoiontzi bana; transatlantikoa gailentzen zen portuko ontzi guztien artetik. Antxetak jira-biraka eta txilioka zebiltzan airean. Eguzkiaren krema-koloreko argiak bizkarretan eta estalki beltzeko tximinia hori handian distira egiten zuen. Masta nagusitik, bandera txikiz beteriko soka batek flotatzen zuen airoski arbel-koloreko zeruaren kontra.

— Eta atzeritik jende asko dator ontzi horretan, ezta aitatzoxo?

— Begira! Ikusten?... Bizkarrak jendez belztuta daude.

East River-etik etorrita, Berrogeita Hamahirugarren Kaleko espaloierdian, Bud Korpenning-ek ikatz pila batekin egin zuen topo. Pilaren beste aldetik, emakume ilezuri bat zeukan begira; far-

faildun blusa bat jantzirik zegoen emakume hura, golko joriaren goiko bihurguneari oratutako kameu handi batez apaindurik. Bizarra egin gabeko kokotsari eta jakaren mahuka listuetatik irteten ziren eskumutur zimelei erreparatu zien emakumeak. Budek bere hitzak entzun zituen, arrotz batek esanak bailiran:

— Nahi baduzu, andrea, neuk sartuko dizut ikatz hau barrura.

Budek bere soinaren pisua oin batetik bestera aldatu zuen.

— Bai, horixe da, hain zuzen ere, zeuk egin dezakezuna —esan zuen emakumeak ahots kraskatuaz—. Ikazkin malapartatuak gaur goizean utzi eta esan du itzuliko zela ikatza barrura sartzeko. Guztiak bezala, bera ere mozkortuta egongo da seguru asko. Baina ez dakit zutaz fio naitekeen nire etxean sartzen uzteko moduan.

— Estatuaren iparraldekoa naiz, andrea —zezeldu zuen Budek.

— Nongoa?

— Cooperstown-ekoa.

— Ba... ni Buffalo-koa naiz. Hiri honetan mundu guztia bertakoa ez beste edozein lekuta-

koa da. Seguru asko zu lapurren baten gaizkidea zara, baina ez dut beste biderik ikusten, ikatz hori barrura sartu beharra daukat... Sartu, sartu, gizona, pala eta saskia utziko dizkizut, eta ez baduzu ezer botatzen ez korridorean, ez sukaldeko zoruan, neskameak oraintxe bertan alde egin du-eta... ikatzak, noski, dena garbitu baino lehenago iritsi behar zuen... dolar bat emango dizut.

Lehenengo ikatz-zama sartu zuenean, emakumea harat-honat zebilen sukaldean zehar. Bud sabel hutsik eta erdi zorabiatu zegoen, baina zoriontsu sentitzen zen, lanean zebilelako, eta ez noraezean, kalerik kale eta kamioiei, gurdiei eta tranbiei itzuriz.

— Nolatan zaude zu, ba, lanik gabe? —galdetu zuen emakumeak, Bud saski hutsa eskuan arnasestuka itzultzen ari zela.

— Beharbada, oraindik ez diot hiriari neurria hartu. Ni landetxe batean jaio eta hezi nintzen.

— Eta zertara etorri zinen hiri nazkagarri honetara?

— Ezin nuen denbora gehiago eman landetxean.

— Herri honen etorkizuna oso ilun ikusten dut, morrosko langile guztiak landetxea utzi eta hirira etortzen badira.

— Zamaketari-lana egin nezakeela uste nuen, andrea, baina ontziralekuak jendez josita daude. Agian marinel has naiteke ontziren batean, baina inork ez du aprendizik nahi. Bi egun daramatzat ezer jan gabe.

— Ene, hori bai izugarria!... Baina zergatik ez zara joan, gizajoa, babesetxeren batera edo?

Budek azken ikatz-zama sartzeaz batera, eltzeko hotzaren platerkada bat aurkitu zuen sukaldeko mahaiaren gainean, baita ogi zahar biribil erdi bat eta edontzi bat esne apur bat garratz ere. Arin jan zuen, ia-ia murtxikatu gabe, eta ogi zaharraren hondarrak poltsikoan sartu zituen.

— Zer, gustatu al zaizu otordu txiki hau?

— Eskerrik asko, andrea —esan zuen ahoa beterik.

— Tira, zuk orain alde egin dezakezu eta eskerrik asko.

Emakumeak *quarter* bat ipini zion eskuan. Budek begiak kliskatu zituen txanpona ahurrean ikustean.

— Baina andrea, zuk esan didazu dolar bat emango zenidala.

— Nik ez dut halakorik esan. Hori pentsatzea ere... Oraintxe bertan alde egiten ez baduzu, senarrari deituko diot. Edo, hobeto, poliziar...

Hitz bakar bat bera ere esan gabe, Budek quarterra poltsikoratu eta alde egin zuen hankak arrastaka.

— Hau da hau esker gaiztoko gizona! —esan zuen purrustaka emakumeak, Bud atea ixten ari zela.

Karranpa batek urdaila uzkuritu zion. Berriro ekialderantz hartu zuen, ibaia zegoen lekurantz, saihetsak ukabilez estutuz. Une batetik bestera oka egitea espero zuen. «Hau botatzeak ez zidak batere onik egingo». Kalearen bukaerara iritsita, nasaren ondoko zabor-txirrista grisaren gainean etzan zen. Bere atzeko garagardotegi burrundaritik lupulu egosiaren usain gozoa zetorren. Ilunabarraren argiak Long Island aldeko lantegia- ren leihoak garretan jarri, atoiointzien ataketan

dirdaitu, marra kiribil hori-laranjen itxura hartuta ur-korrante berde-marroiaren gainean atsedena hartu eta ezari-ezarian Hell Gate-ra gora egiten ari zen goleta baten bela puztuetan dir-dir egiten zuen. Barruko ondoeza arintzen ari zitzaion. Bere barneko zerbaitek sua hartu eta dir-dir egiten zuen, ilunabarrak bere baitaren muga zeharkatzea lortu balu bezala. Eseri egin zen. «Jainko-ari eskerrak ez diat ezer botako».

Bizkar gainean goiztiriko hotza eta hezetasuna nabariak ziren. Eskudela ukitu orduko, begien bistakoa zen bustita zegoela. Portuko ur arre konketa-usainekoak baporea gozo-gozo astintzen ari ziren. Marinelek sotoko eskotilak irekitzen ziharduten. Kateen hotsa eta tornu baten zalaparta entzuten ziren; tornuan lan-jantzi urdineko gizon batek palanka bat zerabilen, aurpegia toaila busti baten modura inguratzen zion lurrinezko hodei baten erdian.

— Amatxo, egia al da gaur Uztailaren Laua dela?

Bere amak indarrez heldu zion eskutik eta jangelaraino eraman zuen herrestan. Itsasmutiak ekipajea metatzen ari ziren eskaileren behealdean.

— Amatxo, egia al da gaur Uztailaren Laua dela?

— Bai maitea, zoritxarrez horrela da... Jai-egunak ikaragarri txarrak dira hona etortzeko. Hala ere, nik uste dut han behean haiek denak gure zain izango direla.

Emakumeak artile urdinezko soinekoa eta belo luze marroia jantzirik zeuzkan. Lepoaren inguruan, benetako hortzak zituen animalia marroi txiki begi gorri bat zeraman. Naftalina-usaina zuen, baita kaxa huts eta zetazko papezrez beteriko armairuena ere. Bero zen jangelan, makinak bigunkiro negar-zotinka ari ziren trenkadaren atzean. Mutilaren burua katilukada bat esne beroaren gainera makurtu zen. Esnea kafeak doi-doi koloreztaturik zegoen. Hiru kanpaikada. Burua, brau, jaso zuen izuturik. Platerek hots egiten zuten eta kafea isurtzen hasi zen, itsasontziak eragindako dardararen ondorioz. Gero, zarata isil bat, ainguraren kateen karranka

eta, pixkanaka-pixkanaka isiltasuna. Ama zutitu egin zen argizulotik begiratzeko.

— Azkenean gaur eguraldi ona egingo du. Nik uste dut eguzkiak lainoa menderatuko duela... Konturatu al zara, maitea, azkenean etxean gaudela? Hementxe jaio zinen zu.

— Eta gaur Uztailaren Laua da!

— Bai zorte txarra!... Orain, Jimmy, agindu behar didazu kontu handiz ibiliko zarela bizkarretik atera gabe. Amak maletak egiten amaitu behar du. Agindu behar didazu ez duzula bihurrikeriarik egingo.

— Bai, agintzen dizut.

Erretzaileen gelatik irtetean mutilak atearen behealdeko letoizko arrabolarekin behaztopa egin eta hankak zabal-zabalik erori zen. Belaun bat igurtzika altxatu zen eguzkia txokolate-koloreko hodeietatik ateratzen ikusteko une egokian. Momentu horretantxe eguzkiak argi-parrastada gorri bat masila-koloreko uretara isuri zuen. «Billy belarri pekatsudunaren gurasoak Roosevelt-en aldekoak dituk eta ez Parker-en aldekoak ama bezala eta mukizapi baten neurriko bande-

ra bat inarosten ari duk atoiontzi hori-zuriko gizonek ikus dezaten».

— Ikusi al duzu eguzkia irteten? —galdetu zuen Billyk, eguzkia berea bailitzan.

— Bai, noski, nire argizulotik —esan zuen Jimmyk urruntzen ari zen bitartean, zetazko banderatxoari luzaz begiratu ondoan.

Beste aldetik, lurra hurren ikusten zen. Hurrenago, itsasbazter berdea, zuhaitzez eta etxe handi zuri teilatu grisdunez betea.

— Zer, gaztetxo, pozik zaude berriro etxean? —galdetu zuen artile nahasizko jantzia eta bibote eroria zituen jaun batek.

— New York alde hartan al dago?

Jimmyk hatzez seinalatu zuen eguzkipean zabaltzen ari zen ur barea.

— Bai, jaun gaztea, laino horren atzean Manhattan dago.

— Mesedez, jauna, zer da hori?

— Hori New York da... Badakizu, New York Manhattan uhartean dago.

— Bai benetan? Uharte batean dago?

— Hau da hau! Mutil honek ez daki bere jaio-terria uharte batean dagoenik ere.

Artile nahasizko jantzia zuen gizonaren urrezko hortzek dir-dir egiten zuten barre-algarak egiten zituenean. Jimmy bueltaka zebilen bizkarrean zehar, orpo-joka, zeharo asaldaturik. «New York uharte batean zagok».

— Badirudi sano pozik zaudela etxera itzuli zarelako, txiki —esan zuen hegoaldeko emakume batek.

— Bai, hala da, oraintxe bertan belaunikatu eta lurrari muin emango nioke gustura.

— Zeuk bai maite duzula zeure herria!... Poz handia ematen didazu hori esanda.

Jimmy egonezinik zegoen. «Lurrari muin eman, lurrari muin eman...» hitzon oihartzuna txistu baten modura zebilkion buru barruan. Beste buelta bat bizkarrean zehar.

— Bandera horia daukan hori berrogeialdian dagoen ontzia da.

Atzamarrak eraztunez beteak zituen gizon sendo bat, judua bera, artile nahasizko jantziarekiko gizonari mintzatzen ari zitzaion.

— A, berriro jarri da martxan... Laster iritsiko gara, ezta?

— Gosarirako bertan izango gara, gosari amerikar bat, gosari on bat, hemen betidanik prestatu izan direnen modukoa.

Amatxo bizkarrera itzuli zen, belo arin arrea haizeak astintzen ziola.

— Hemen dago zure berokia, Jimmy, zeuk eraman behar duzu.

— Amatxo, utziko didazu bandera ateratzen?

— Zein bandera?

— Zetazko bandera amerikarra.

— Ez, maitea, dena gordeta dago.

— Arren, utzidazu bandera ateratzen, gaur Uztailaren Laua da-eta...

— Tira, Jimmy, kopla gutxiago. Amak ezetz esaten badu, ezetz esan nahi du eta kitto.

Malkoek eragindako azkura. Mutilak listua irentsi eta amari begiratu zion.

— Jimmy, xalarekin batera gordeta dago, eta ama oso-oso nekatuta dago ditxosozko maleta horiekin aurrera-atzera ibiltzeaz.

— Baina Billy Jonesek bat dauka.

— Maitea, begira zer ari zaren galtzen... Hor-
txe dago Askatasunaren estatua.

Txabusina jantzia zuen emakume berde handi bat, uharte batean zut, esku bat jasota zeukala.

— Zer dauka eskuan?

— Zuzi bat, maitea... Askatasuna munduaren argiztagarri... Eta hortxe dago Governors Island, beste aldean. Hor, zuhaitzak dauden lekuan... Eta begira, horixe da Brooklyngo zubia... Ikuspegi polita, ezta? Eta begiratu nasa guztiei... Hori Battery da... eta mastak eta ontziak... eta Trinity Churchen orratza eta Pulitzer izeneko eraikina...

Baporeen adar-hotsen orroa, ferry gorriak, ahateen modura zebiltzanak ur zuriari eraginez, merkantzi tren bat atoiotzi batek bultzatutako txalupilo baten barnean. Atoiotziak, arnasestuka, kotoi itxurako kezko bafadak botatzen zituen, guztiak ere neurri berekoak. Jimmyk eskuak hotz zituen eta bera ere arnasestuka ari zen oraindik.

— Zaude lasai, maitea. Jaitsi ea amak ezer utzi duen ahaztuta gelan.

Itsasoan tarte bat zegoen, ezpal, kaxoi, laranja-azal eta aza-orrizko geruza batez estalia, ontziaren eta nasaren artetik igarotzean estu-

estu egin zena. Musika-banda batek dir-dir egi-
ten zuen eguzkitan, txapel zuriak, aurpegi gorri
izerditsuak, *Yankee Doole* jotzen.

— Hau dena enbaxadorearengatik da, gelatik
inoiz ateratzen ez zen gizon handi hura, gogoan
daukazu?

«Pasagunean behera, kontuz, ez egin behaz-
toparik.» *Yankee Doodle went to town...* Aurpegi
beltz distiratsu bat, esmalte zuri koloreko
begiak, esmalte zuri koloreko hortzak. «Bai
andrea, bai andrea». *Stucka feather in his hat
an'called it macaroni...* «Hau portu frankoa da.»
Burua ia lurreraino makurtzean, urdinez jantzita-
ko mugazain batek soilunea erakutsi zuen...
*Tunte BUM BUM BUM BUM BUM... cakes and sugar
candy...*

— Hemen izeba Emilia dago eta beste guz-
tiak... Maitea, zu bai zarela jatorra, gure bila
etortzea ere...

— Maitea, seietatik nago hemen.

— Ene, nola kozkortu den!

Jantzi argiak; brotheen dirdaia; Jimmy aurpe-
giz inguratua; arrosen lurrina eta osabaren
puruaren usaina nahasita.

— Hara! Oso kozkortuta dago, gizon bat ematen du. Etorri hona, mutiko, zu ikusi nahi zaitugu eta.

— Tira ba, agur Mrs. Herf. Egunen batean gure etxetik hurbil bazabiltza... Jimmy, gaztetxo, ez zaitut ikusi lurrari muin ematen...

— O, gatz handia du mutil horrek... Eskola zaharrekoa da oso, benetan.

Taxiak hezetasun-usaina zuen. Kulunka zihonan etorbide zabal batean gora, hauts zurrunbilo baten erdian, oihuka ari ziren haur narratsez beteriko adreiluzko kale kirastuetan zehar, eta kaxek atergabe kirrinka eta salto egiten zuten kotxearen goialdean.

— Amatxo, ez duzu uste sabaia zulatuko dutela?

— Ez, maitea.

Emakumeak barreari eman zion burua alde batera eramanez. Masaila gorrixkak zeuzkan eta begiek dir-dir egiten zuten belo marroiaren azpian.

— O, amatxo... —altxatu eta musu eman zion kokotsean—. Hau da jendetza, amatxo!

— Uztailaren Laua delako.

— Zertan ari da gizon hori?

— Mozkortuta egongo da, maitea.

Banderez apaindutako harmaila batetik patila zuridun gizon bat, alkandoraren mahuketan liga gorri txikiak zeuzkana, hitzaldi bat ematen ari zen.

— Hori Uztailaren Lauko hizlari bat da. Independentziaren Aldarrikapena irakurtzen ari da.

— Zer dela eta?

— Gaur Uztailaren Laua delako.

Danba!... Petardo baten eztanda.

— Ume deabru horrek zaldiak izutu ditu... Uztailaren Lauan, maitea, Independentziaren Aldarrikapena sinatu zen, 1776an, Iraultzaren Gerra zen bitartean. Nire berraitona Harland hil zen gerra hartan.

Makina berde bat aurretik zeukan tren txiki xeble baten burrunba entzuten zen haien buruaren gainetik.

— Hori tren jaso da... eta begira, hori Hogeita Hamahirugarren Kalea da... eta Flatiron izeneko eraikina.

Halako batean, brast, kotxea eguzkiak ederki argizatutako plaza distiratsu batean sartu zen;

han, asfaltoak eta jendetzak sortutako usaina zen nagusi; ate handi baten aurrean gelditu zen, nondik letoizko botoiekiko zerbitzari beltzak abiatzen baitziren haren bila.

— Iritsi gara ba, Bosgarren Etorbideko hotele-
ra.

Izozkia osaba Jeffen etxean. Zapore hotz bat, gozoa, mertxikena bezalakoa, ahosabaiari itsatsia. Bitxia zen ontzitik jaitsi eta gero ere horren kulunka sumatzea. Urrutiko kaleetan goiztiriaren argi-izpi urdinak urtzen ari ziren. Goiztiri urdinean suzirien txinparta distiratsuak. Koloretako izarrak erortzen ari ziren lurrera. Bengalak. Etxeko atearen aurreko zuhaitz batean osaba Jeffek haize-errotatxo batzuk iltzatu eta bere puruaz irazekitzen zituen. Bengalei eutsi egin behar zitzaien. «Adi egon eta beste aldera begiratu, txiki». Hots isil batek eztanda egin zuen esku artean. Arrautza itxurako puxika gorriak, horiak, berdeak aireratzen ziren; bolbora-usaina eta paper erreskaldatua. Kale marmarti distiratsuan kanpai baten hotsa entzuten zen, gero eta hurbi-lago, gero eta azkarrago. Azorriatutako zaldien apoek txinpartak eragiten zituzten. Suhiltzaileen

kamioi bat kale-kantoira iritsi eta orroka desbideratu zen, gorri eta dirdaitsu, kea zeriola. «Broadwayn izan behar du». Atzealdean, eskailera-furgoia eta suhiltzaileburuaren zaldi azkarrak. Gero, anbulantzia baten txilin-hotsa. «Norbait arazotan dago».

«Kutxa hutsik zagok. Hauts xehea eta zerrautsa azkazaletan barna sartzen dituk eskuztatuz gero. Hutsik zagok. Ez, oraindik egurrezko suhiltzaile-kamioi batzuk zaudek. Benetako suhiltzaile-kamioiak.»

— Martxan jarri behar ditugu, osaba Jeff. O, hauexek dira onenak.

«Petardoak zauzkatek barruan eta ziztu bizian ateratzen dituk asfalto leunean zehar, txinparten gandor distiratsuek bultzatuta, eta kea atzetik botatzen ditek egiazko suhiltzaile-kamioiak bailiran.»

Ohean tapaturik, gela arrotz batean, begiak sutan eta hankak minetan.

— Hazteak mina ematen du, maitea —esan zuen amaxok, zetazko jantzi distiratsu bat soinean, haurra estalkiaz tapatzen ari zela, hura zegoen lekurantz makurturik.

— Amatxo, zer da aurpegian duzun orin beltz txiki hori?

— Hau? —esan zuen bere idunekoak hots txiki bat eginez—. Hau amak politagoa emateko da.

Mutikoa ohean zegoen, armairu garaiez eta apaintze-mahaiez inguraturik. Kanpotiko gurrpil-hotsak eta ardaila entzuten ziren, baita aldian-aldian musika-banda bat ere, urrun. Hainbeste-rainokoa zuen hanketako mina, une batetik bestera eroriko zitzaizkiola ematen baitzuen, eta, begiak ixteaz bat, bere burua ziztuan ikusi zuen ilunpe distiratsuan gaindi, atzealdetik sua, txinpartak eta koloretako bolak jaurtikitzen zituen suhiltzaile-kamioi gorri baten barruan.

Uztaileko eguzkiak bulegoko leihoetako persiana higatuen zuloak urratzen zituen. Maku-luak belaun artean, Gus McNiel besaulki batean eserita zegoen. Aurpegia zurbil zeukan eta hantaturik, ospitalean hainbeste hilabete eman ondoan. Mitxeleta gorriez apaindutako lastozko

kapela bat buruan, Nellie kulunka ari zen idaz-mahaiko aulki birakariaren gainean.

— Hobe zenuke nire ondoan esertzea, Nellie. Seguru asko abokatu horri ez litzaioke gustatuko zu bere mahaian topatzea.

Emakumeak sudurra zimurtu eta zutitu egin zen.

— Gus, zu beldurrak airean zaude, benetan diotsut.

— Zu berdin egongo zinateke, konpainiako sendagilearekin hitz egin bazenu. Espetxeko elementuren bat bazina bezala begiratuko lizuke. Gainera, abokatuak hartu duen sendagile judua-rekin ere egon naiz. Ni guztiz ez-gai-tu-a naizela esan du. Ene, leher eginda nago! Dena den, nire ustez, gezurretan ari zen.

— Gus, zuk egin nik esaten dizudana. Ezpainak lotu eta besteei utzi hitz egiten.

— Txintik ere ez dut esango.

Bere aulkiaren atzean zutik, Nellie ile latza ferekatzen hasi zitzaion, eskuei haren bekokitik atzerantz eraginez.

— Nahiago nuke orain berriro etxean banengo, Nellie, zure platerekin eta hori dena.

Gus McNielek beso batez gerria inguratu zion berarengana erakarriz.

— Auskalo, beharbada ez dut janaririk bat ere izango prestatzeko.

— Hori bai buruhauste itzela... Ene, diru hori irabazten ez badugu, ez dakit nola egingo dugun aurrera.

— O, aitatzok lagunduko digu. Ez da lehenengo aldia.

— Espero dut bizitza osoa gaixorik ez ematea.

George Baldwinek danbateko bat eginez itxi zuen kristalezko atea. Eskuak poltsikoan, unetxo bat eman zuen Gusi eta haren emazteari begira. Gero, irribarreka esan zuen lasai-lasai:

— Tira ba, kontua eginda dago. Geroko erreklamazioei uko egiteko agiria izenpetu bezain laster, konpainiako abokatuek hamabi mila eta bostehun dolarreko txeke bat eskuratuko didate. Horixe da azkenean hitzartu genuena.

— Hamabi mila dolar! —esan zuen arnasestuka Gusek—. Hamabi mila eta bostehun. Aizu, egon apur bat... Eutsi makuluei kalera noa-eta ea inork berriro harrapatzen nauen... Ikusiko

duzue nolako aurpegia jartzen duen McGillycuddy honen berri ematen diodanean. Gizajoak lehenengo merkantzi trenaren azpira botako du bere burua... Tira, Mr. Baldwin... —Gus zutitu egin zen—. Zu benetan gizon aparta zara, ezta Nellie?

— Bai, hala da.

Baldwin ahaleginetan ari zen emakumearen begiekin topo ez egiteko. Bulkada menderaezina sentitzen zituen bere baitan, bere barneko asalduraren adierazgarri; hartara, hankak dardarka hasi zitzaizkion ahuleziaren ahuleziaz.

— Oraintxe esango dizut zer egingo dugun —esan zuen Gusek—. Kotxe bat hartu eta McGillycuddyrenera joango gara tabernako barruko gelan zerbait edatera, eztarria bustitzeko... Nik ordainduko dut. Trago bat edan behar dut indarrak berritzeko. Goazen Nellie.

— Atseginez joango nintzateke —esan zuen Baldwinek—, baina, zoritxarrez, ezin dut. Egun hauetan oso lanpetuta nago. Baina alde egin aurretik sinatu egin behar duzu eta bihar bidaliko dizut txekoa... Sinatu hemen... eta hemen.

McNiel herrenka idazmahaira hurbildu eta paperen gainean bermatu zen. Baldwin ohartu zen Nelliek keinu bat egin nahi ziola. Begirada beherantz mantendu zuen, tinko. Haiek lekutu ondoren, mahairen ertzean Nelliek ahaztutako diru-zorroari erreparatu zion, atzealdean grabatu bat ageri zuen larruzko zorro txikiari. Kristalezko atean kask-kask jo zuten. Abokatuak ireki zuen.

— Zergatik ez didazu begiratu nahi izan? — galdetu zuen emakumeak ahapeka eta aztoratuta.

— Bera hemen egonda?

Baldwinek diru-zorroa luzatu zion. Emakumeak lepoa inguratu eta indarrez musu eman zion ahoan.

— Zer egingo dugu? Etorriko al naiz arratsaldean? Gusek gaixotu arte edango du, orain ospitaleetik atera denez gero.

— Ez, Nellie, ezin dut... Negozioak... negozioak... Oso-oso lanpetuta nago.

— Bai, bai, noski... Ederki, egizu nahi duzuna. Danbateko bat eginez itxi zuen atea.

Bere idazmahaian eserita, Baldwin hazkozko-
rrei haginka ari zitzaien, aurpegi aurrean zeukan
paper piloa ikusi gabe. «Honi akabua ipini behar
zaio» goraki esanda zutitu egin zen. Alde batetik
bestera zebilen bulego meharrean zehar, ingu-
ruan zeukanari so: apalategi batzuetan, Zuzenbi-
deko liburu batzuk; telefonoren goialdean, neska
batzuk erakusten zituen Gibson egutegi bat;
leiho ondoan, eguzkiaren argiak osatutako
karratu hautsezko bat. Erlojuari begiratu zion.
Bazkalordua. Artega, ahurraz bekokia ukitu eta
telefonora joan zen.

«Rector 1237... Mr. Sandbourne hor al
dago?... Aizak, Phil, zer iruditzen zaik hire bila
banoa elkarrekin bazkaltzera joateko?... Orain-
txe bertan irten nahi duk?... Noski... Esnezalea-
rentzako kalte-ordaina lortu diat, Phil. Pozez
zorutzen nagok. Taxuzko bazkari batera gonbi-
datuko haut hau ospatzeko... Laster arte.»

Telefonotik irribarretsu urrundu zen, eta
gero, kakotik kapela hartu eta, esekigailuko ispi-
lu txikiaren aurrean, kontu handiz ipini zuen
buruan. Azkenik, ziztuan abiatu zen handik,
eskaileretan behera.

Azken zatian Mr. Emery topatu zuen, Emery&Emery-koa, bulegoak lehenengo pisuan baitzeuzkaten.

— Epa, Mr. Baldwin, zer moduz?

Emery&Emery-ko Mr. Emeryk aurpegi zapala zeukan eta ile eta bekain grisak. Bere masailezurak ziri baten modura egiten zuen aurrera.

— Oso ondo, jauna, oso ondo.

— Esan didate gauzak ondo doazkizula... Zer-bait New York Central trenbide-konpainiari buruz.

— O, Simsbury eta biok auzitegira jo gabe konpondu dugu kontua.

— O —esan zuen Mr. Emeryk, Emery&Emery-koak.

Kalean elkarrengandik bereizi-hurren zeudela, Mr. Emeryk esan zuen bat-batean:

— Nahi al zenuke hauetako egunen batean emaztea eta biokin afaldu?

— Ba... bai... atsegin handiz.

— Gogoko dut nire lanbidekide gazteagoak nola aritzen diren ikustea, ulertzen didazu, ezta?... Tira, idatziz jakinaraziko dizut... Datorren

asteko gauren batean... Horrek aukera emango digu hitz-aspertu polit bat egiteko.

Zain urdinez beteriko esku bat estutu zuen, alkandoraren eskumutur gogor distiratsu batean bildua, eta Maiden Lane-n behera egin zuen, bere ibilera biziak egunsentiko jendetzaren artean aurrera eginez. Pearl Street-en, kafe xigortuaren usaina zuten eskailera beltz batzuen tarte aldapatsu batetik igo eta kristal esmerileztatuzko ate batean jo zuen.

— Aurrera! —oihu egin zuen baxu-ahots batek.

Alkandoraren mahukak jasota zeuzkan gizon beltzaran luzanga bat urrats luzez irten zitzaion bidera.

— Epa George, uste nian honezkero ez hintzela etorriko. Goseak amorratzen nagok.

— Phil, gaur gonbidatuko haut inoiz egin duan bazkaririk gozoenera.

— Ondo zagok, ez nian gutxiagorik espero.

Phil Sandbourne jakarri jantzi, bere pipa marrazketa-mahaiaren ertzean astindu eta barruko bulego ilun baterantz oihu egin zuen:

— Bazkaritara noa, Mr. Specker.

— Ondo, joan lasai —erantzun zuen ahuntz-ahots batek bulegoaren barrualdetik.

— Zer moduz agurea? —galdetu zuen Baldwinek irtetean.

— Mr. Specker? Hanka bat hobian dik dagoneko... Baina gizajoak urte piloa zeramak horrela. Benetan esaten diat, George, izugarrizko nahigabea hartuko nitek ezer gertatuko balitzaio Specker gizajoari. Bera duk New Yorkeko gizon zintzo bakarra. Gainera, burua bere lekuan zaukak.

— Orain arte horrek ez zioz ba ezertarako balio izan —esan zuen Baldwinek.

— Baina batek zakik geroan... Baina batek zakik geroan... Ikusi beharko hituzke altzairu hutsezko eraikinei buruz dituen planak. Etorkizuneko etxeorratza eraikitzeke altzairua eta kristala baino ez dela behar uste dik berak. Arestian zeramikazko baldosekin esperimendu diagu... Jainkoarren! Bere proiektuetako batzuek ahozabalik utziko hindukete. Oso gogoko dik Erroma adreiluz eginda aurkitu eta marmolez berreginda utzi zuen Erromako enperadore bati buruzko esaera bikain bat. Tira, berak zioz New York

adreiluz eginda aurkitu zuela eta altzairuz berreginda utziko duela... altzairuz eta kristalez. Hiria zaharberritzeko egin duen proiektua erakutsi behar diat. Milaka dorre eta gaztelu egiten ditik, bere gogoan baino ez, ordea.

Haragi errearen usaina zegoen jatetxe baten zoko batean, banku kuxindunetan eseri ziren. Sandbournek hankak mahai azpian luzatu zituen.

— Hau duk luxua, motel! —esan zuen.

— Phil, har dezagun koktel bana —esan zuen Baldwinek kartaren atzealdetik—. Esaten diat ba, Phil, aurreneko bost urteak dituk gogorrenak.

— Ez duk zertan kezkatu, George, hi aurrera egiten dutenetako horietakoa haiz... Ni ez aurrera ez atzera nagok.

— Ez zakiat zergatik, hik beti har dezakek delineatzaile-lanposturen bat.

— Hori bai etorkizun ederra! Zioat nik neurekiko. Marrazketa-mahai baten ertza sabelean sartuta duala bizitza osoa ematea ere! Jainkoarren, motel!

— Batek zakik. Bazitekek hauetako egunen batean Specker&Sandbourne enpresak arrakastat handia lortzea.

— Ordurako jendea hegaz egiteko makinetan ibiliko duk, eta gu biok harrentzako mokadugoxoak besterik ez gaituk izango.

— Tira, topa dagigun hire alde.

— Hire alde eta hire arkatzen alde, George. Martiniak edanda ostrak jaten hasi ziren.

— Ez zakiat egia izango ote den ostrak larru bihurtzen direla sabelean, alkohola edanez gero.

— Entzun... Aizak, horretaz ari garela, zer moduz, oraindik lehengo neska takigrafo txiki harekin al habil?

— Motel, hik ez dakik zenbat janari, edari eta antzerki-sarrera ordaindu behar izan ditudan berarekin hasi nintzenetik... Eta hasieran bezala nagok... Benetan esaten diat. Hik ondo egiten duk, George, gonetatik urrun egonda.

— Bazitekek —esan zuen Baldwinek eta ahotik oliba-hezur bat bota zuen bere ukabil hertsira.

Entzun zuten lehenengo gauza bagoi txiki baten txistu dardarati bat izan zen, ferryaren sarrera-gunearen pareko espaloi-ertzetik zeto-rena. Ontziralekuan gaindi, etorkin-talde bat noraezean zebilen; halako batean, mutil bat talde-rik aldendu eta bagoi txikirantz jo zuen laster-ka.

— Lurrin-makina baten modukoa da eta torlo-joz eta azkoinez beteta dago —oihu egin zuen, bueltan arineketan zetorrela.

— Padraic, etorri hona.

— Eta hauxe da South Ferry tren jasoaren geltokia —jarraitu zuen Tim Halloran-ek, haien bila joana baitzen—. Hor goian Battery Park dago eta Bowling Green eta Wall Street eta finantzen barrutia... Tira goazen, Padraic, osaba Timothyk Bederatzigarren Etorbideko trenbide jasoan era-mango zaitu eta.

Ontziralekuan hiru lagun bakarrik geratu ziren: buruan zapi urdin bat zeukan emakume zahar bat eta xal gorrimin bat zeukan neska gazte bat. Biak ere zutik zeuden, letoizko tatxe-tez jositako kaxa handi baten alde banatan. Horiekin batera, gizon zahar bat ere bazen. Hark

zenbait egunetako bizar berdexka zeukan, eta aurpegia zimur-zimur eginda eta haritz ihar baten sustraiak bezain okertua. Emakume zaharra zinkurinatzen ari zen begiak malkotan: «*Dove andiamo, Madonna mia, Madonna mia!*». Neska gaztea gutuna zabaldu eta idazkera ikusgarriaren aurrean kliskatzen hasi zen. Bat-batean, gizon zaharrari hurreratu zitzaion: «*Non posso leggere*», eta gutuna luzatu zion. Gizon zaharrak eskuak ezintasunez igurtzi, buruari atzetik aurrera eragin eta zerbait errepikatu zuen behin eta berriro, neskari guztiz ulertezina gertatu zitzaiona. Neskak sorbalda jaso, irribarre egin eta bere kaxa zegoen lekura itzuli zen. Siziliako gizon patiladun bat emakume zaharrari mintzatzen ari zitzaion. Kaxari sokatik heldu eta arrastaka eraman zuen aurreko espaloian geldirik zegoen zaldi zuri batek tiraturiko gurdi batera. Bi emakumeek kaxari segitu zioten. Siziliako gizonak eskua eskaini zion neska gazteari. Emakume zaharra, artean ere marmarka eta negar zotinka, nekez igo zen gurdiaren atzealdera, inoren laguntzarik gabe. Siziliako gizona gutuna irakurtzeko makurtu zenean, neska gaztea sorbal-

daz doi-doi ukitu zuen. Neska urduritu egin zen. «*Awright*», esan zuen siziliarrak. Gero, zaldiaren bizkarra bridez jo, emakume zaharrarengana jiratu eta esan zuen oihu eginez: «*Cinque le due... Awright*».

Laugarren atala

Errailak

Triki-trakak bakandu egin ziren, urritu; tope guztiek elkar jo zuten, tren osoan zehar ikaragarritzko zalaparta hedatuz. Burdinazko barretatik askatu ondoan, gizonak jauzi egin zuen lurrera. Zurrun-zurrun zegoen, higitu ezinik. Iluntasuna erabatekoa zen. Poliki-poliki herrestatu eta belaunikatu egin zen; gero, jada zutik, merkantzi bagoian bermatu zen arnasestuka. Ez zuen soina sentitzen; bere giharrek ezpal hautsiak ziruditen, bere hezurrek biela bihurrituak. Linterna baten argiak begiak erre zizkion.

— Azkar, alde hemendik. Konpainia-ko detektibeak inguru hauek miazten ari dira.

— Aizu, lagun, hau al da New York?

— Bai, noski. Etorri nire linternaren atzetik, ibaiaren aldetik ihes egin dezakezu eta.

Bere oinek nekez egin zezaketen aurrera, errailen lerro gurutzatuekin eta ube distiratsuekin behaztopatuz. Brau, estropezu egin eta seinaleak egiteko barra-pilo baten gainera erori zen. Azkenean, nasa baten ertzean eseri zen, burua eskuen artean zeukala. Urak hots lasaigarri bat sortzen zuen piloteen kontra jotzean, hain zuzen ere, txakurrek lamikatzean egin ohi dutenaren modukoa. Poltsikotik egunkari bat atera eta barrukoa erakutsi zuen: ogi-puska bat eta hala-holako oke-lazko xerra bat. Ezer edan gabe jan zuen dena, murtxika eta murtxika, listua eztarrira berriro zetorkiola antzeman arte. Gero, orekari nekez eutsirik, zutitu egin zen, belaunen gaineko ogi-papurrak eskuaz kendu eta bere ingurura begiratu zuen.

*Hegoalderantz, errailez haraindi,
zeru goibela dirdai laranjaz blai
zegoen.*

*— The Gay White Way —esan zuen
goraki bele-ahotsaz—. The Gay
White Way.*

Euriak marratutako leihotik Jimmy Herf kaleko aterkiei begira zegoen, Broadwayn gora zebilen jende-samalda motelaren eskuetan dantzan ari baitziren. Atean jo zuten.

— Aurrera —esan zuen Jimmyk eta leihorantz buelta eman zuen, sartu berria zen zerbitzaria Pat ez zela ohartuta.

Zerbitzariak argia piztu zuen. Jimmyk zerbitzaria ikusi zuen leihoko kristalean islatuta: ile latzeko gizon argal bat zen. Afariaren erretilua jasota zeraman esku batean, eta zilarrezko erretilu-estalkia kupulua bailitzan ageri zen zut. Sakonki arnastuz, zerbitzaria gelan sartu zen, libre zeukan eskuaz gurditxo tolesgarri bat herrestan zeramala. Di-da ireki zuen, erretilua bertan ezarri nahian eta mahai borobilaren gainean zama bat zabaldu zuen. Jakitoki-usain koi-

petsua zerion. Jimmy zain egon zen harik eta zerbitzariak alde egin zuen arte, burua jiratzeko. Orduan, mahaia itzuli osoa egin zion, zilarrezko erretilu-estalkia jasotzen zuen bitartean. Zopa gauzatxo berde batzuekin, bildots errea, patata-purea, arbi-purea, espinakak, ezer ez postrera-ko.

— Amatxo!

— Bai, maitea?

Ahotsa indarge entzun zen bi orriko atearen beste aldetik.

— Bazkaria prest dago, amatxo maitea.

— Hasi jaten, laztana, ni oraintxe noa...

— Zu gabe ez naiz hasiko, ama.

Mutilak aiztoak eta sardexkak zuzen jarri zituen, mahaia beste itzuli bat egiten zion bitartean. Gero, ezpain-zapi bat besotik dindilizka ipini zuen. Delmonico jatetxeko zerbitzariburua mahaia atontzen ari zen Graustark-entzat eta Bohemiako Errege Itsuarentzat eta Enrike Printze Nabigatzailearentzat eta...

— Ama, nor izan nahi duzu zuk: Eskoziako Maria Erregina edo Lady Jane Grey?

— Baina, laztana, bie! lepoa moztu zieten eta... Nik ez dut nahi inork niri lepoa moztetik...

Amak izokin-koloreko soineko bat zeukan jantzirik. Ate tolesgarria irekitzeaz batera, koloniak eta sendagaiak isuritako usain fin batek ihes egin zuen logelatik, farfildun mahuka orlatu luzeei erantsirik. Aurpegia irineztatuegi zeukan. Baina ilea, gaztaina-koloreko bere ile zoragarria, ederki orraztuta zeukan. Aurrez aurre eseri ziren. Zain urdinekiko bere esku finez, amak zopa-platerkada bat ipini zuen mutilaren aurrean. Mutilak zopa edan zuen, zopa urtsua eta ez behar bezain beroa.

— Ene, ogi-pusketa xigortuak ahaztu ditut, laztana.

— Amatxo, zergatik ez duzu zopa hartzen?

— Gaur gauean ez dut zoparik nahi. Buruko mina neukan eta ez nekien zer eskatu ere. Berdin dio.

— Nahiago al zenuke Cleopatra izan? Cleopatra jatun bikaina izan zen eta, neskato onen modura, aurrean zeukan guztia jaten zuen.

— Bai, baita perlak ere... Perla bat ozpinetan sartu eta irentsi egin zuen.

Amak ahotsa dardarka zeukan. Mahaiaren alde batetik bestera, eskua eskaini zion bere semeari. Mutilak di-da laztandu zion, irribarre-tsu.

— Zu eta biok bakarrik, Jimmy... Zuk beti maitatuko duzu ama, ezta laztana?

— Zer duzu, amatxo?

— O, ezer ez; ez dakit zer dudan gaur gauean... Nazkatuta nago sekula erabat ondo ez egoteaz.

— Baina zuri ebakuntza egin ondoren...

— A bai, niri ebakuntza egin ondoren... Laztana, bainugelako leihoaren ertzean gurin freskoa duen paper bat dago... Ekarriko bazenu, nik pitin bat jarriko nuke arbi hauen gainean. Zoritxarrez, berriro kexatu beharko dut janaria dela eta. Bildots hau ez dago egon beharko lukeen bezala. Espero dut kalterik ez egitea.

Jimmy korrika irten, ate tolesgarriak atzean utzi, bere amaren gelatik igaro eta korridore txiki batera heldu zen; bertan naftalina- eta zeta-usaina nabarmena zen, aulki batean botatako arropari zeriona. Bainugelako atea irekitzean dutxa baten gomazko tutu gorri batek aurpegiaren

kontra jo zion. Sendagaien usainak ondoeza eragin zion, saihetsetan uzkurdurak eraginez. Bainuontziaren ertzean zegoen leihoko pertsiana jaso zuen. Erlaitza hautsez beterik zegoen: lumak bezain arinak, kedar-izpiek gurinaren gaineko platera estaltzen zuten. Unetxo bat eman zuen barruko patiorantz makurtuta, ahotik arnastuz, galdarek gorantz isurtzen zituzten ikatz-jarioen usaina ez hartzeko. Behean, leiho batera azaldurik, kapela zuriko neskame bat galdaren arduradunetako bati mintzatzen ari zitzaion. Besoak biluzik eta paparrean gurutzaturik zeuzkala, gizon hura gorantz begira zegoen. Jimmyk entzumena zolitu zuen esaten ari zirena aditzeko; lohi egotea eta egun osoa ikatz artean ematea, ilea koipez beterik izatea, baita gorputzeko zoko-mokorik txikiena ere.

— Jimmy!

— Banoa, ama.

Gorri-gorri, leihoko pertsiana jaitsi eta egongelara itzuli zen, astiro-astiro, ahalkeari aurpegi-tik aienatzeko beta emate aldera.

— Ametsetan berriro, Jimmy, nire ameslari txiki hori?

Gurina bere amaren plateraren ondoan ipinita eseri egin zen.

— Jan azkar bildotsa, hoztu baino lehen. Zergatik ez diozu ziape pitin bat botatzen? Horrela gehiago gustatuko zaizu.

Ziapeak mihia erre eta begiak malkotan ipini zizkion.

— Minegia al dago? — galdetu zuen amak barreka—. Janari minetara ohitu egin behar duzu... Berak oso gogoko zituen janari minak.

— Nork, ama?

— Nik oso maite nuen batek.

Isildu egin ziren. Jimmyk bere murtxikapena entzun zezakeen. Kotxeen eta tranbien hotsa tarteka sartzen zen leiho itxietatik. Erradiadoreak joka eta txistuka ari ziren. Behean, barruko patioan, koipea galtzarbeetaraino zeukalarik, galdarako gizonak hitzak botatzen zizkion kape-la zurrunko neskameari. Hitz gordinak. Ziapearen kolorea zera da...

— Penny bat buruan zer duzun jakiteagatik.

— Ez dut ezer buruan.

— Geuk ez genuke sekreturik izan beharko, maitea. Gogoan izan zeu zarela zure amak mundu honetan duen poz bakarra.

— Ez dakit nik zer-nolako bizimodua izango nukeen itsas txakurra banintz, portuko itsas txakur txikia.

— Oso hotza, nik uste.

— Baina hotza ez nuke sentitu ere egingo. Itsas txakurrek koipezko geruza baten babesa dutenez, beti daude bero, iceberg baten gainean eserita egonez gero ere. Gainera, oso-oso dibertigarria izan behar du gogoak ematen dizunean itsasoan barrena igeri egiteak. Itsas txakurrek ehundaka milia egiten dituzte inon gelditu gabe.

— Baina amak ehundaka miliatako bidaiak egin ditu inon gelditu gabe, eta zuk ere bai.

— Noiz?

— Atzerrira joan izan garenetan.

Emakumeak barreari eman zion, haurrari begi distiratsuez so eginda.

— A, itsasontziz baina!

— Eta *Mary Stuart*-en itsas bidaiak egiten genituenean.

— O, kontaidazu hori, amatxo!

Atean jo zuten.

— Aurrera.

Ile latzeko zerbitzariak burua atetik agertu zuen.

— Hau batuko dut, andrea?

— Bai, eta ekarri mazedonia bat, eta ikusi fruta moztu berria ote den. Gaur gauean dena oso eskasa izan da.

Gogogabeturik arnasotsa ateraz, zerbitzaria platerak pilatzen hasi zen erretilu batean.

— Sentitzen dut, andrea —esan zuen zerbitzariak purrustaka.

— Ondo da, badakit zu ez zarela erruduna, zerbitzari... Zuk zer behar duzu, Jimmy?

— Utziko al didazu merenge *glacé* bat hartzen, amatxo?

— Bai, baina zintzoa izan behar duzu.

— Iufala! —ulu egin zuen Jimmyk, pozik.

— Bihotza, mahaian ez egin horrelako oihurik.

— Baina berdin zaigu, biok bakarrik gaude... Gora merenge *glacé*-a!

— James, gizon prestu batek berdin jokatzen du etxean zein Afrikako oihanetan.

— Arranopola, nahi nuke nik ba orain Afrika-ko oihanetan egon!

— Ni zeharo ikaratuta nengoke, maitea.

— Nik horrelako garrasiak egingo nituzke, lehoiak eta tigreak uxatzeko. Garrasirik ez nuen, bada, egingo...

Zerbitzaria erretiluan bi plater ekarriz itzuli zen.

— Sentitzen dut, andrea, baina merenge *glacé*-a amaitu egin da... Horren orde, txokolatezko izozki bat ekarri dut jaun txikiarentzat.

— O, ama!

— Berdin dio, bihotza... Nolanahi ere, gozogia izango zen... Zuk jan hori eta afaldu ondoren irteten utziko dizut bonboiak erosteko.

— Iufala! Zeinen ondo!

— Polikiago jan izozkia, kalte egingo dizu bestela.

— Amaitu dut.

— Irentsi egin duzu, alproja txiki horrek... Jantzi traskoak, laztana.

— Ez du euririk egiten baina!

— Egin amak esaten dizuna, maitea... eta, mesedez, etorri lehenbailehen. Agindu behar

didazu segituan etorriko zarela. Gaur gauean ama ez dago ondo eta urduritu egiten da kanpoan zauden bitartean. Arrisku asko daude...

Jimmy eseri egin zen traskoak janzteko. Oinetan ondo egokitzen ari zen bitartean, ama hurre-ratu zitzaion, eskuan dolar bateko biletea zeukala. Sorbalda inguratu zion bere mahuka zetazkoaz.

— O, ene maitea!

Emakumea negarrez ari zen.

— Ama, ez egin negar.

Ama indarrez besarkatu zuen, kortsearen zintei bere besoen kontra antzemanetz.

— Minutu bat barru hemen izango naiz berriro, minututxo bat besterik ez.

Eskaileretan, non letoizko hagatxoek alfombra gorri mateari maila bakoitzaren kontra eusten baitzioten, Jimmyk traskoak kendu eta kapusaiko poltsikoetan sartu zituen. Burua gorantz, arineketan igo zen harrera-mahaiaren ondoko jarleku batean eserita zeuden mandatu-mutilen begi luzeen sarea urratuz. «Buelta bat ematera?» —galdetu zion mandataririk txikienak, ile-hori batek. Jimmyk, dudarik egin gabe, baietz

adierazi zuen buruaz. Atezainaren botoi deigarrien aurretik arin igaro eta Broadwayra aterazen. Han, zalaparta eta oin-hotsak nagusi ziren; aurpegi ugarik ere itzalezko mozorroak janzten zituzten, erakusleihoek eta arkuek sortutako argi-orbanetatik ateratzean. Azkar zebilen. Ansonia-ren aurretik igaro zen. Sarreran gizon bekain beltz bat nagikerian zegoen, puru bat ahoan zeukala. «Bahitzaile bat apika. Baina Ansonia-n etxe oneko jendea bizi duk, gu bizi garen lekuan bezala». Harantzago, telegrafo-bulego bat, kinkiladenda bat, tindategi bat eta erre-usain misterioetsua zerion ikuztegi txinatar bat. Jimmyk ibilera bizkortu zuen. «Txinatarrak bahitzaile izugarriak dituk. Bidelapurrak». Haren aurretik igarotzean, petrolio-lata bat eskuetan zeukan gizon batek doi-doi ukitu zuen, mahuka koipetsu batek sorbalda doi-doi ukitu zion. Izerdiak eta petrolioak isuritako usaina. «Eman dezagun supiztaile bat dela». Supiztaileari buruzko gogoeta horrek oilo-ipurdia eragin zion. Sua. Sua.

Huyler's. Atean, lurrin atsegin melenga zegoen, marmol ondo garbituaren eta nikelaren usainarekin nahasirik. Txokolate egosiaren usaina

leihen azpiko burdinsareetatik gora igotzen zen, kiribilka. Paperezko xingola kizkur beltzak eta laranja Halloween egunerako. Barrura zihoran, baina Mirror gozotegia zetorkion gogora, bi etxe-bloke harantzago baitzegoen; bueltekin batera ematen zituzten zilarreztatutako tren makina eta automobil txiki haiek. «Azkar ibiliko nauk. Patinekin denbora gutxiago beharko nitek. Patinekin errazagoa lukek gaizkileengandik, itotzaileengandik eta lapurrengandik ihes egitea, sorbaldaren gainetik karabina automatiko batez tiro eginez: danba... Bat lurrera! Horixe zuan okerrena. Danba... Beste bat! Patinak magikoak dituk, iufala... etxeen adreiluzko hormetatik gora igotzen dituk, teilatuetan zehar zabiltzak, tximiniaz tximinia jauzi egiten ditek, Flatiron eraikina-ren gainetik, Brooklyngo zubiaren kableen arte-tik. Mirror-eko bonboiak».

Oraingoan ez bat ez bi sartu zen. Unetxo bat eman zuen zain salmahaiaren aurrean, harik eta norbaitek kasu egin zion arte.

— Libra bat txokolatezko bonboi, mesedez, librak hirurogei zentaboko prezioa duena —esan zuen arrapaladan, pentsatu gabe.

Neska ilehori bat, apur bat betokerra, mali-
ziatsu hasi zitzaion begira, erantzun gabe.

— Axola ez bazaizu, presaka nabil, mesedez.

— Ondo da, bakoitzak bere txanda iritsi arte
itxaron dezala.

Mutilak begiak itxi-irekika begietsi zuen
neska, masailak sutan. Neskak fardel bildu bat
eskuratu zion, tiket bat gainean zeukana.

— Ordaindu kutxan.

«Ez diat negarrik egingo». Kutxako emaku-
mea txikia eta ilezuria zen. Emakumeak ate txiki
batetik hartu zuen dolarra, hots, Ugaztunen
Etxetxoko animalia txikiek sartu eta irteteko era-
biltzen dituzten atetxoan moduko ate txiki bate-
tik. Kutxa erregistratzaileak alaitasunezko hots
bat egin zuen, dirua jasotzeak poz handia eman
balio bezala. «Quarter bat, *dime* bat, nickel bat
eta *cup* txiki bat, guztira berrogei zentabo al
dira? Baina cup txiki bat besterik ez, tren-maki-
na baten edo automobil baten ordeztu». Dirua
hartu, cup txikia utzi eta arineketan irten zen
kutxa besapean zuela. «Amak esango dik asko
luzatu naizela». Etxera zihoan bueltan, aurrera

begira, andre ilehoriaren doilorkeriak erretxinduta.

— Zeeer, orain arte bonboiak erosten ala? — galdetu zuen mandatu-mutil ilehoriak.

— Gero igotzen bazara, batzuk emango dizkizut —xuxurlatu zuen Jimmyk mandatu-mutilaren aurretik pasatzean.

Eskailerak lasterka igotzen ari zen bitartean, letoizko hagatxoek hots egin zuten, oin-puntez jotzean. Zuriz esmalteztatutako 503 zenbakia zeukan ate txokolate-koloreko baten aurrean zegoela, traskoak etorri zitzaizkion gogora. Bonboiak lurrian utzi eta zapata bustien gainean jantzi zituen. Zorionez, ama ez zeukan zain ez baitzion atea irekita utzi. Agian amak ikusia zuen leihotik.

— Ama.

Ama ez zegoen egongelan. Mutila guztiz ikararuta zegoen. Ama joana zen, alde egina.

— Ama.

— Etorri hona, laztana.

Bere ahotsa logelatik zetorren, indarge. Jimmyk kapela eta kapusaia erantzi eta barrura sartu zen azkar.

— Ama, zer duzu?

— Ezer ez, laztana... Buruko mina daukat, hori da dena, buruko min izugarria... Musuzapi bat koloniaz busti ondoren, kontu handiz ipiniezadazu buruan eta, ez ahaztu, tantarik ez bota begietara, aurrekoan bezala.

Ohean etzanda zegoen, kotoizko txabusina zeru-urdin bat jantzirik. Aurpegia zurbil-zurbil zeukan. Izokin-koloreko jantzi zetazkoa bizigabe zetzan aulki gainean. Lurrean bere gerruntzea ikus zitekeen, zinta arrosen korapilo batean bilaturik. Jimmyk kontu handiz ipini zion musuzapi bustia bekokiaren gainean. Koloniaren usain gogorak azkura eragiten zion sudurzuloetan, ama zegoen alderantz makurtzean.

— Zeinen ondo! —esan zuen indarge—. Maittea, deitu telefonoz izeba Emilyri, Riverside 2466, eta galdetu ea etor daitekeen hona gaur gauean. Harekin hitz egin behar dut... Ene, burua leher egiteko zorian daukat!

Bihotza asaldaturik eta begietatik malko ugari zeriola, mutila telefonora joan zen. Izeba Emilyren ahotsa uste baino lehenago azaldu zen.

— Izeba Emily, ama ez dago ondo... Zu hona etortzea nahi du... Segituan dator, ama maitea! —oihu egin zuen mutikoak—. Primeran, ezta? Segituan dator.

Bere amaren logelara oin-puntetan itzuli, gerruntzea eta jantzia jaso eta armairuan eseki zituen.

— Laztana —esan zuen amak ahots apalaz—, ken iezazkidazu urkilak iletik, buruan mina ematen didate eta... Ene, semetxo maitea, burua leher egiteko zorian banu bezala sentitzen naiz!

Urkilak ilearen artetik erauzi zizkion amari. Gaztaina-koloreko ile hura zetazko jantzia baino xuabeagoa zen.

— Ai, mina ematen didazu!

— Ama, nahi gabe izan da.

Izeba Emily argala zen eta kapusai urdin bat bere gau-jantziaren gainean zeukalarik azkar sartu zen gelan. Bere aho fina begikotasun-keinu batean bildu zen. Ahizpa ikusi zuen ohe gainean minez iraulkatzen eta praka laburreko mutil argal zurbila zutik zegoen bere ondoan, eskuak urkilez beterik.

— Zer duzu, Lil? —galdetu zuen lasai.

— Ez nago batere ondo, maitea —esan zuen Lily Herfek nekez xuxurlatuz.

— James —esan zuen izeba Emilyk zorrotz— ohera joan beharra daukazu... Amak erabateko atsedena behar du.

— Ondo lo egin, amatxo maitea —esan zuen. Izeba Emilyk zaplada batzuk eman zizkion bizkarrean.

— Ez estutu, James, utzi dena nire kontu. Izeba telefonora joan, zenbaki bat markatu eta ahapeka eta doitasunez hasi zen hizketan.

Bonboi-kutxa halleko mahaiaren gainean zegoen. Jimmy errudun sentitu zen kutxa besapean ipini zuenean. Liburuen apalen ondotik igarotzean, Entziklopedia Amerikarraren liburuki bat hartu eta beste besoaren azpian sartu zuen. Izeba ez zen ohartu Jimmy alde egina zela. Ziegako ateak ireki egin ziren. Kanpoaldean, hazitarako zaldi arabiar bat eta bi morroi leial daude zain, berari muga zeharkatzen laguntzeko prest; eta beste aldean askatasuna baino ez. Hiru ate harantzago dauka gela. Iluntasun trinkoa eta isila danagusi. Argia otzan-otzan piztu da Mary

Stuart goletaren kabina argiztatuz. Ondo kapi-
tain, jaso aingura eta jo dezagun Haizebeko irle-
tarantz eta bakean utz nazazue egusentira arte.
Paper garrantzitsuak aztertu behar ditut. Arropa
di-da erantzi eta ohearen ondoan belaunikatu
zen pijama jantzita. Oheratzekorduan. Jauna-
renzaindunirearima. Esnatuaurretikhiltzenba-
naizJaunakeramandezalanirearima. Gero, bon-
boi-kutxa ireki eta burukoak bata bestearen gai-
nean ezarri zituen ohearen oinaldean, argiaren
pean. Txokolatea zatikatu eta mami gozoan
sartu zituen hortzak. «Ikus dezagun...»

A: lehenengo bokala da, alfabeto guztietako
lehenengo letra; amhareran edo abisinieran,
berriz, hamahirugarren letra da, eta errunikoan
hamargarrena...

— Arraioa! Bai bitxia!...

AA, Aachen (ikus Aix-la-Chapelle)
Aardvark...

— A ze itxura xelebrea!

(orycteropus capensis), animalia plantigrado ugaztuna, edentatuen taldekoa, jaioterriz afrikarra.

Abd,

Abd-el-halim, Egiptoko printzea, Mehmet Ali-ren eta emakume esklabo baten semea.

Masailak gorritu zitzaizkion ondokoa irakurtzean:

Esklabo zurien erregina.

Abdomena (lat. etimologia zehaztugabea)... gorputzaren behealdea, diafragmaren eta pelbisaren artekoa...

Abelardo... Irakaslearen eta ikaslearen arteko harremanek ez zuten luzaro iraun. Estimua baino gartsuagoa zen sentimendu batez gainezka zeuden haien bihotzak eta elkarrekin egoteko aukera ugariak, Abelardoren adinaz (40 urte betehurren zen) eta egoeraz erabat sinetsita zegoen kalonjeak emanak, bien barneko bakearen suntsigarri gertatu ziren. Heloise-ren egoera euren intimitatea agerian uzteko zorian zegoen... Orduan, Fulbert-ek ezin izan zion eutsi mehatxua hartzeko zuen gogo basatiari... Oldarka sartu

zen Abelardoren gelan gaizkile(talde batekin eta bere mehatxua bete zuen, hari mutilazio ikaragarri bat eginez...

Abelites... sexu-harremanak salatu zituzten errito satanikoak zirelakoan.

Abimelech I.a Gideon-en eta ohaide semita baten semea zen. Bere burua errege izendatu zuen bere hirurogeita hamar erlijioakideak asasi-natu ondoren, Jothan izan ezik, hura Tebas-ko dorrea setiatzen ari zela hil baitzen...

Abortua...

Ez; eskuak izoztuta zeuzkan eta pitin bat ondoezik sentitu zen hainbeste bonboi irentsita.

Abrakadabra.

Abydos...

Edontzi bat ur edateko altxatu zen «Abisinia» hitzera heldu baino lehen. Grabatuak ere ikus zitezkeen, bai basamortuko mendi batzuenak, bai britainiarrek Magdala-n eragindako sutearena.

Begiak erresumindurik zeuzkan. Zurrun eta logaleturik zegoen. Bere Ingersolli begiratu zion. Hamaikak. Halako batean izua nagusitu zen bere

baitan. «Ama orain hilda balego...». Burua burukoan hondoratu zuen. Ama ondoan zeukan, zutik, dantzarako jantzi zuri bat soinean, farfaildun dandar bat herrestan, eta bere eskuen usain leun gozoak eztiki leuntzen zion masaila. Negarrek itolarria eragin zioten. Jira-biraka hasi zen ohe barruan, burua ederki finkaturik zeukala buruko latzaren gainean. Luzaz egon zen negarjarioa eten ezinda.

Esnatzeaz batera, mutila atsekabeturik ohar-tu zen argia artean piztuta zegoela gela bero eta gaizki egurastutako hartan. Liburua lurrian zetzan. Bonboiak txiki-txiki eginda azaldu ziren mutilaren azpian: likatsu ateratzen ziren kutxatik, tirriki-tarraka. Erlojua 1:45etan geldirik zegoen. Leihoa ireki eta txokolateak komodako kaxoi batean sartu zituen eta argia itzaltzera zihoala zerbait etorri zitzaion burura. Beldurrak airean, dardarka, txabusina eta zapatilak jantzi zituen, eta behatz-puntetan aurrera egin zuen korridore ilunean zehar, poliki-poliki. Atearen beste aldekoa entzuten jarri zen. Baten batzuk ahapeka ari ziren hitz egiten. Makal kax-kax jo zuen hazkoz-korrez eta heldulekuari eragin zion. Esku batek

brau atea ireki zuen eta Jimmyk bere burua kliska egiten kausitu zuen urrezko betaurrekiko gizon garai bizarra moztu berri baten aurrean. Ate tolesgarriak hertsirik zeuden; euren aurrean erizain aurpegi zorrotz bat zegoen.

— James, laztana, itzuli ohera eta ez arduratu ezertaz —esan zuen izeba Emilyk ahots nekatuaz—. Zure ama oso gaixorik dago eta erabateko atsedena behar du, baina dagoeneko ez dago arriskurik.

— Oraingoz ez behintzat, Mrs. Merivale —esan zuen doktoreak betaurrekoei putz eginez.

— Haur gizajoa! —xuxurlatu zuen erizainak ahots lasaigarriaz—. Oso arduratuta eman du gaua, baina ez gaitu behin ere molestatu.

— Ohera lagunduko dizut ondo tapatzeko —esan zuen izeba Emilyk—. Nire Jamesi betidanik gustatu izan zaio hori.

— Utziko didazu ama apur batean ikusten? Ondo dagoela egiaztatzeko besterik ez da.

Jimmyk herabeki begiratu zuen gorantz, betaurrekodun aurpegi zabala zegoen lekurantz, hain zuzen ere.

Doktoreak baiezko keinua egin zuen.

— Tira, joan beharra daukat... Bostetatik seietara azalduko naiz hona, gauzak nola doazen ikusteko... Gau on, Mrs. Merivale. Gau on, Miss Billings. Gau on, txiki...

— Hemendik da...

Erizainak eskua sorbalda gainean ipini zion Jimmyri, bere lana ondotxo ezagutzen zuela erakutsiz. Halako batean, mutila makurtu eta erizainaren eskua gainetik kentzea lortu zuen. Gero, haren atzetik joan zen.

Bere amaren gelan argi bat zegoen. Pantaila baten gisara, orratzez lotutako toaila bat ipinia zioten. Ohetik arnasa entzun zen, mutilari arrotz egin zitzaiona. Amak bere aurpegi zimurtua mutila zegoen aldera zuzenduta zeukan, more koloreko betazalak hertsirik eta ahoa alde batera okerturik.

Minutu erdi bat eman zuen emakumeari begira, tinko.

— Tira, orain berriro ohera noa —murmurikatu zion erizainari.

Odolak bor-bor egiten zion burrunbatsu. Izebari eta erizainari begiratu gabe, aterantz jo zuen, burua zut. Izebak zerbait esan zuen. Arine-

ketan hasi zen korridoretik bere gelaraino; hara iritsita, danbatekoa eginez atea itxi eta kisketari eragin zion. Gelaren erdian zurrin, hotz, geratu zen, ukabilak itxita. «Gorrotagarriak dira, gorrotagarriak dira», oihu egin zuen mutilak. Gero, zinkurin sakon bat itoarazi ondoan, argia itzali eta ohean sartu zen. Izarak izotzezkoak iruditu zitzaizkion.

— Dendak ematen dizun lana ikusita —esan zuen Emilek ahots kantariaz—, nire ustez, zuk laguntzaileren baten beharra duzu.

— Badakit... lanez itota nabilela; badakit jakin —agertu zuen zizpuruka Madame Rigaudek kutzako aulkitik.

Emile luzaz isilik egon zen, Westfaliako urdaiazpiko bati begira, zeharka moztuta eta marmolezko lauza baten gainean ezarrita baitzegoen, bere ukondotik hur. Orduan esan zuen Emilek herabeki:

— Zu bezalako emakume eder bati ez zaio sekula lagunik faltako, Madame Rigaud.

— A... neure garaian hamaika ikustea egokitu zait... Konfiantza osoa galdu dut... Gizonak astopotro hutsak dira, eta emakumeak... O, sekula ezin izan naiz ondo konpondu emakumeekin!

— Historia eta literatura... —hasi zen esaten Emile.

Ateko txilinak atearen goialdetik jo zuen. Gizon bat eta emakume bat sartu ziren dendan. Emakumearen ile horiaren gainean kapela bat ikus zitekeen, lorontzi bat bezalako kapela bat.

— Tira, Billy, ez izan barregarria —esan zuen emakumeak.

— Baina Norah, zerbait jan behar dugu... Larunbaterako izango dut berriro dirua.

— Ez duzu sosik izango, lasterketako apostuak alde batera uzten ez dituzun bitartean.

— Utzi bakean... *liverwurst* apur bat jango dugu... Indioilar-bularki hotz horrek itxura ona du...

— Tripontzi —esan zuen urrumaka emakume ile horiak.

— Kendu, mesedez, pentsatzen ari naiz.

— Bai jauna, indioilaga oso gozoa da... Oilo begoak ege badauzkagu ogaindik... *Emile, mon ami, cherchez-moi un de ces petits poulets dans la cuisine.*

Madame Rigaud orakulu baten modura ari zen hitz egiten, bere aulkitik higitu gabe. Gizona bere buruari haizea ematen ari zitzaion laukieki-ko zinta bat zeukan lastozko kapela baten hegaldura sendoaz.

— A ze gau begoa! —esan zuen Madame Rigaudak.

— Bai, hala da... Norah, honezkero Island-en izan beharko genuke, hirian batetik bestera noraezean ibili ordez.

— Billy, zuk ondotxo dakizu zergatik ez ginen joan.

— Ez izan gogaikarria. Ez al dizut esan larunbatean nahi adina sos izango dugula?

— Historia eta literatura —jarraitu zuen Emilek, bezeroek euren oilaskoarekin alde egin eta Madame Rigaudi kutxan gordetzeko zilarrezko dolar erdia eman ondoan—, historiak eta literaturak irakatsi digute adiskidetasuna eta maitasun fidagarria izan badirela...

— Historia eta literatura! —esan zuen purrus-taka Madame Rigaudek bere artean barreka—. Eta guri zer axola zaigu hori?

— Baina zu ez al zara inoiz bakarrik sentitu hau bezalako atzerriko hiri handi batean...? Hain da zaila guztia... Emakumeek inoren poltsikoa hartzen dute kontuan, eta ez bihotza... Ezin dut gehiago jasan.

Barre egitean, bizkar zabala eta bular handiak dardarka hasi zitzaizkion Madame Rigaudi. Bere kortseak krak egin zuen aulkitik jaitsi zenean, artean ere barreka.

— Emile, zu mutil ederra zara, zuhurra, eta arrakasta izango duzu bizitzan... Baina ni ez naiz berriro gizon baten menpean jarriko... Gehiegi sufritu dut... Ez, bost mila dolar eman nahi baze-nizkit ere.

— Ene, zu bai emakume errukigabea!
Madame Rigaudek berriro eman zion barrea-ri.

— Etorri, lagundu ixten.

Igande isil eta eguzkitsuaren zama hiri gainean sumatzen zen. Alkandoraren mahukak jasota, Baldwin Zuzenbideari buruzko liburu bat irakurtzen ari zen, bere idazmahaian eserita. Aldian behin ohar bat idazten zuen blok batean, letra handiz eta erregularrez. Telefonoaren hots ozenak isiltasun beroa hautsi zuen. Irakurtzen ari zen paragrafoa amaitu eta altxatu egin zen telefonoa hartzeko.

— Bai, bakarrik nago; etorri, nahi baduzu. Telefonoa eseki zuen.

— Arraioa! Hau besterik ez genuen behar! — murmurikatu zuen hortzak estututa.

Atean jo gabe barrura sartu zen Nellie, eta abokatua leiho aurrean harat-honat zebilela kausitu zuen.

— Epa Nellie —esan zuen begirik jaso gabe.

Emakumea zutik geratu zen Baldwini tinko begira.

— Begira, Georgy, honek amaitu egin behar du.

— Zer dela eta?

— Nazka-nazka eginda nago beti itxurak egiten eta gezurrak esaten ibiltzeaz.

— Inork ez daki ezer, ezta?

— O, ez noski!

Nellie hurbildu zitzaion eta gorbata arteztu zion. Georgek eztiki musua eman zion ahoan. Emakumeak muselinazko jantzi farfildun bat zeukan, more kolorekoa, eta eskuan, aldiz, itzal-kin urdin bat.

— Zer moduz zure gauzak, Georgy?

— Primeran. Ba al dakizu zortea eman dida-zuela? Une honetan, kasu on batzuk dauzkat esku artean eta oso kontaktu garrantzitsuak lortu ditut.

— Niri, ordea, ez dit bat ere zorterik ekarri. Oraindik ez naiz ausartu konfesatzera joaten. Apaizak uste izango du ateo bihurtu naizela.

— Eta Gus zer moduz?

— Ehundaka asmo ditu... Badirudi berak irabazi duela diru hori, harro-harro eginda dabil eta.

— Aizu, Nellie, zer gertatuko litzateke Gus utzi eta nirekin bizitzera etorriko bazina? Dibortzioa lortuta elkarrekin ezkon gintezke. Horrela, dena konponduko litzateke.

— Bai, bai, konpondu... Zu txantxetan ari zara.

— Baina gure artekoari aukera bat eman behar zaio, Nellie, benetan diotsut.

Abokatuak besarkatu eta ezpainetan musua eman zion, ezpain gogor-geldietan. Emakumea askatu egin zen gizonaren besoetatik.

— Nolanahi ere, ni ez naiz berriro hona etorriko... Ene, garai batean zein pozik igotzen nituen nik eskailerak zu ikustearren! Dagoeneko kobratu duzu. Kito, beraz.

Abokatua jabetu zen Nelliek bekokiko kizkurtxoak nahasirik zeuzkala. Ile-xerlo bat dindilizka zeukan bekain baten gainean.

— Nellie, ez dugu horrela banandu behar.

— Zergatik ez? Esadazu.

— Biok oso maite izan dugulako elkar.

— Ez dut negarrik egingo.

Nelliek kolpetxo batzuk jo zituen bere sudurraren kontra musuzapi tolestu txiki batez.

— George, beti gorrotatuko zaitut... Adio.

Atea danbatekoa eginez itxi zen emakumearen atzealdean.

Baldwin, idazmahaian eserita, arkatz baten puntari ausikitzen ari zen. Nellieren ilearen lurrin arinak ez zion alde egin sudurretik. Hunkiturik,

listurik irentsi ezinda zegoen. Eztul egin zuen. Arkatza ahotik jausi zitzaion. Listua musuzapiaz garbitu eta bere besaulkian patxadaz eseri zen. Zuzenbide-liburuko paragrafo joriak, hasieran lausoak, gero argitu egin ziren. Orri idatzia kendu eta agiri pila baten gainean ezarri zuen. Orri berrian idazten hasi zen: New York estatuko Auzitegi Gorenaren Erabakia... Bat-batean bere aulkian zuzen jarri eta berriro hasi zen arkatza-ren puntari ausikika. Kanpoaldetik, kakahuete-gurdi baten txistu amaigabea etorri zen. «O, tira, eginari aurre eman», esan zuen ozenki. Letra handiz eta erregularrez jarraitu zuen idazten: Patterson New Yorkeko estatuaren kontrako auzia... Auzitegi Gorenaren Erabakia...

Bud, Marinelen Elkarteko leiho baten ondoan eserita, astiro eta arreta handiz irakurtzen ari zen egunkari bat. Bere ondoan artilekizko jantzi urdina eta lepo zuria zeuzkaten bi gizon zeuden; xake-jokoan ari ziren, gogoetatsu. Euren masaila bizarra egin berriek bi xerra gordin ematen zuten. Bi gizonetako bat pipa erretzen ari zen

eta ahoratzen zuenero hots txiki bat ateratzen
zuen. Kanpoan, euria atergabe ari zuen plaza
zabal argi batean.

*«Banzaiak mila urtez bizi izaten dira, oihu
egin zuten zulatzaile japoniarren laugarren pelo-
toiko gizontxo grisek, Yalu ibaiaren gaineko
zubia konpontzera zihoazela... New York Herald
egunkariko berriemaile berezia...»*

— Mate —esan zuen pipadun gizonak—. Goa-
zemak trago bat jotzera, zer arraio! Gaur gauean
mozkortu egingo gaituk, ez gaituk hemen eseri-
ta geratuko.

— Atsoari agindu zioat...

— Kopla gutxiago, Jess. Ondotxo ezagutzen
ditiat nik hire agintzak.

Ile horiez betetako esku handi gorri batek
xake-piezak kutxa batean sartu zituen.

— Esaiok atsoari kopa bat edan behar izan
duala hotza kentzeko.

— Dena den, hori ez lukek gezurra izango.

Leihoaren aurretik igaro zirenean, Budek, euriaren azpian makurtuta, euren itzalak ikusi zituen.

— Zure izena?

Bud tupustean jiratu zen, ahots kirrinkari eta zorrotz batek izututa. Azal beilegiko gizon kaskamotz baten begi urdinei so geratu zen. Gizon hark apo-aurpegia zeukan, aho handia, begi irten xamarak eta ile beltz sendo laburra.

Bere onera itzulita Budek esan zuen:

— Smith. Zer moduz?

Gizontxoak esku karratu babatsu bat luzatu zuen.

— Ondo eta zu? Ni Matty naiz.

Budek gogoz kontra eman zion bostekoa, eta gizontxoak eskua mintzeraino estutu zion.

— Matty eta zer gehiago? —galdetu zuen.

— Matty eta kito... Matty laponiarra... Etorri trago bat...

— Sabel hutsik nagok... —esan zuen Budek—. Ez zaukaat zentaborik bat ere.

— Nik ordaindu... Asko dirua daukat, tori...

Mattyk eskuak bere jantzi laukiduneko poltsikoetan sartu eta biletez beteriko bere bi ukabilez kolpetxo bat jo zion Budi paparrean.

— Aizak, gorde diru hori... baina bai, zerbait edatera joango nauk hirekin.

Pearl Street-en izkinako tabernara heldu zirenerako, Budek ukondoak eta belaunak blai egin da zeuzkan. Euri hotza tantaka jausten zitzaion lepoan behera. Barrara hurbildu eta Matty laponiarrek bost dolarreko bilete bat atera zuen.

— Nik jende guztia gonbidatu... gaur gauean oso pozik.

Budek dohainezko otorduari aurre egin zion.

— Urteak dituk ezer jan ez dudala —azaldu zuen, barrara bere edaria hartzera itzuli zenean.

Whiskyak zintzurra erre zion, arropa bustiak lehortu zizkion eta mutikotan bezala sentiarazi zuen, hain justu ere, beisbol-partiduak ikustera joaten zen txikitako larunbat arratsaldeetan bezala.

— Ederki, Lap —oihu egin zuen gizontxoaren bizkar zabalean zaplada bat emanez—. Hemen-dik aurrera hi eta biok lagunak izango gaituk.

— Aizu, marinel hori, bihar biok elkarrekin ontzian. Zer iruditzen?

— Baietz gizona!

— Orain Bowery Street-era neskatxak ikustera. Nik ordaindu.

— Ezz dago zzuri kasurik egingo dizzun neskatxarik Bowery Street-en, Yap —oihu egin zuen tabernatik irtetean ate birakari haien artetik sartu zen bibote beltz eroria zuen mozkorti handi batek.

— Ez, ezta? —esan zuen Lapek buelta osoa emanaz.

Mailu itxurako bere ukabiletako batez gako azkar bat jo zuen mozkortiaren masailezurraren kontra. Gizonak, hankak airean, bizkarraz ate birakariei bultza egin eta barrurantz erori zen. Ateak haren atzetik itxi ziren. Garrasi bat entzun zen tabernaren barrualdetik.

— Jesus, Maria eta Jose, Lappy! Hau duk hau! —orro egin zuen Budek eta berriro zaplada batzuk eman zizkion bizkarrean.

Besotik oratuta zihoazen Pearl Street-en gora, euri-jasaren azpian. Kale bustien izkinetan, tabernen ateak zabaltzen ari ziren, biei ere

harrera distiratsua eginez. Emakume biluz batzuen gorputz arrosak inguratzen zituzten marko urreztatuen, ispiluen eta letoizko barren argi beilegia whisky edontzietan nahasita barneratzen zitzaien kolpez edanda. Behin argi beilegi horrek odolarekin bat eginez gero, borborka belarrietara eta begietara iristen zen, eta handik, zorrotadaka, atzamar-puntetatik beherantz egiten zuen, txinpartaka. Etxeak, euriak belztuak, bi aldeetan ageri ziren zut; kaleko farolak kulunka zebiltzan, desfile bateko argien gisara. Azkenean, Budek aurpegiz gainezka zegoen barneko gela batean kausitu zuen bere burua, magalean emakume bat eserita zeukalarik. Matty laponiarra bi neskari oratuta zegoen, indarrez tira eginda alkandora tarratatu zuen, paparrean tatuaturik zeukan irudi gorri eta berde bat erakutsi nahian. Bertan, gizon bat eta emakume bat biluzik ageri ziren, itsas suge batek indarrez estekaturik. Paparra puztu eta azalari eskuez eraginda, tatuajeko gizona eta emakumea higirazi zituen. Hori ikusita, aurpegi pilatu guztiak barreka hasi ziren.

Phineas R. Blackhead-ek bulegoko leiho zabaleko pertsiana igo zuen. Arbel eta mikazko portuari begira geratu zen, ibilgailuek, ahotsek eta eraikuntza-lanek sortutako zarata burrunbatsuak gortuta. Zalaparta hura hiriaren erdi aldeko kaleetatik zetorren, puztuz eta kiribilduz, Hudson ibaian jotzen zuen iparmendebaldeko haize indartsuan gaindi hegaz zebilen kearen pare.

— Aizu, Schmidt, ekarri prismetikoak —esan zuen sorbaldaren gainetik—. Begira...

Begiz jo zuen prismetikoez Governors Island-en parean zegoen bapore zuri lodi bat, tximinia hori kedartua zeukana.

— Orain sartzen ari den hori ez al da Anonda?

Schmidt gizon lodia zen eta uzkurthurik zebilen. Azala zintzilika zeukan masaila bigunetatik. Prismetikoetatik begiratu zuen.

— Bai, hala da.

Pertsiana jaitsi egin zuen. Lehengo zalaparta urritu egin zen, itsas maskor baten soinua beزالako marmar isila bilakatzeraino.

— Arranopola, azkar ibili dira gero! Ordu erdi barru atrakatuko dute... Alde egizu hemendik lehenbailehen eta joan Mulligan inspektoreak zer egiten duen ikustera. Sobornatu egin dugu... baina ez kendu begirik gizon horri. Matanzas zaharra atzetik dabilkigu gure kontrako bahitura-agindua lortu nahirik. Bihar gauerako azken manganeso-koilarakada ere lehorreraturik ez badago, komisio erdia baino ez dizut ordainduko... Argi dago?

Barre egitean, Schmidten masaila bigunek dar-dar egiten zuten.

— Ez dago arriskurik, jauna... Honezkero eza-gutu beharko nindukezu.

— Bai, noski, ezagutzen zaitut... Zu oso gizon jatorra zara, Schimdt. Txantxetan ari nintzen, besterik ez.

Phineas P. Blackhead gizon luzanga zen, zilar-koloreko ilea zeukan eta belatz-aurpegi gorrixka. Idazmahaiko kaobazko besaulkian erdi etzanda txirrin elektriko bat jo zuen.

— Ondo dago, Charlie, barrura sar daitezela —purrustaka esan zion atera azaldu zen mandatarari ilegorriari.

Bere idazmahairen atzetik soina zurrun-zurrun altxatu zen. Gero, esku bat luzatu zuen:

— Zer moduz, Mr. Storrow?... Zer moduz, Mr. Gold?... Eseri hemen... Hori da... Oraintxe ikusiko dugu grebaren kontu hori. Nik tren-konpainia eta portua ordezkatzan ditut eta euren jokabidea guztiz garbia eta zintzoa da, zeuek ondo daki-zuenez. Erabat sinetsita nago, ez dut inolako dudarik auzi hau geuk adeitasunez eta lagun arteko giroan konpon dezakegula... Baina, jakina, erdibidea topatu beharko genuke. Badakit funtsean denok interes berberak ditugula, hiri handi honen interesak, portu handi honen interesak...

Mr. Goldek kapela buruaren atzealderantz eramane eta halako zaunka moduko bat eginez garbitu zuen eztarria:

— Jaunok, aurretik bi bide ditugu...

Eguzkitan, leihoaren ertzean, euli bat hegala atzeko hankeaz igurtzitzen ari zen. Goitik behera garbitzen ari zen bere burua, aurreko hankak bihurrituz eta arteztuz, moko itxurako

buruaren gaina kontu handiz igurtziz, norbait eskuak xabotzen ari denean bezala. Ilea apaintzen ari zen. Jimmyk eskua eulia zegoen lekura hurbildu eta harrapatu egin zuen. Euliak burrun-da egiten zuen eta kili-kiliak eragiten zizkion ahurrean. Jimmy itsumustuka hasi zen euliaren bila bi atzamarrez, eta behin harrapatu zuenean, erpuaren eta erakuslearen artean zanpatu zuen, nahaski gris bihurtzeraino. Leihoaren ertzean garbitu zituen atzamarrak. Ondoez gartsu bat nagusitu zen bere baitan. «Euli gizajoa, gainera, bere burua hain ondo txukundu eta gero!». Hautsez beteriko kristaletatik begira geratu zen, luzaro, eguzkiak dirdira ahul bat eragiten baitzuen hautsaren gainean. Aldian behin, alkandoraren mahukak jasota zeuzkan gizon batek beheko patioa zeharkatzen zuen platerez beteriko erretilu bat eskuetan zeramala. Eskariak ozenki errepikatzen zituen, eta baxeraren hotsak sukaldeetatik gora egiten zuen indarge.

Adi-adi zegoen, kristalen hautsaren dirdira ahularen beste aldera begira. Amak atake bat izan du eta ni datorren astean eskolara itzuliko naiz.

— Aizak, Herfy, oraindik ez duk borrokan ikasi?

— Herfy eta Kid euli pisuko txapelketa lortzeko lehian arituko dituk.

— Nik ez diat nahi baina!

— Kidek, ordea, nahi dik!... Hara non datoren! Hementxe antolatu ringa, mutilok.

— Ez dudala nahi baina!

— Kaka zaharra! Nahitaez borrokatu behar duk, bestela bion artean txiki-txiki eginda utziko haugu.

— Aizak, Freddy, nickel bateko isuna biraoak esateagatik.

— Ahaztu egin zaidak.

— Tira ba, aurrera... Berotu morroi horri ondo saihetsak.

— Hirea duk, Herfy... Hire alde egingo diat apostua.

— Horixe! Emaiok astinaldi eder bat!

Kiden aurpegi zuri okertua aurrean zeukan saltoka, globo baten modura; bere ukabil bat Jimmyren ahora iritsi zen; odolaren gatz-zaporea ebakitako ezpainetik. Jimmy haren kontra oldartu eta ohearen gainera bota zuen, belauna sabe-

lean iltzatuz. Mutilek Jimmy Kiden gainetik kendu eta hormaren kontra bultzatu zuten.

— Aupa Kid!

— Aupa Herfy!

Odolaren usaina nabari zezakeen sudurrean eta biriketan. Arnasak harraskatu egiten zion eztarrian. Zangotrabatuta lurrera erori zen.

— Aski duk, Herfyk galdu dik.

— Maritxu... Maritxu.

— Baina, arraioa, Freddy, Kid azpian izan dik eta!

— Ixo, ez egin hainbesteko zalapartarik... Hoppy zaharra igoko duk eta.

— Tira, hau lagunarteko borrokaldi txiki bat besterik ez duk izan, ezta Herfy?

— Den-denak alde nire logelatik! —oihu egin zuen Jimmyk, negar—malkoez itsuturik, besoez kanporantz bultza egiten zien bitartean.

— Mainontzi... mainontzi.

Danbateko bat eginez atea haien atzean itxi zuen, idazmahaia haren kontra bultzatu eta ohean sartu zen dardarka. Ahozpez jarri zen, lotsaz amorratuta eta burukoari ausikika.

Jimmy adi-adi zegoen, kristalen hautsaren dirdira ahularen beste aldera begira.

Maitea,

Zure ama gajoa oso zorigaitzeko sentitu zen zu trenean utzi eta hoteleko gela hutsera itzuli zenean. Maitea, zu gabe bakar-bakarrik sentitzen naiz. Ba al dakizu zer egin nuen? Zure soldadu guztiak, Port Arthur-eko setioan erabiltzen genituenak, di-da atera eta batailoika ezarri nituen apalategi baten gainean. A ze tontakeria, ezta? Berdin dio, maitea, Gabonak gainean ditugu eta nire mutikoa berriro ikusiko dut...

Aurpegi bat burukoaren gainean, zimur-zimur eginda; «amak atake bat izan dik eta ni datorren astean itzuliko nauk eskolara». Azal ilun puska bat zintzilik dauka begien azpitik. Emeki-emeki grisak haren ilean gora egiten zuen, gaztainakolorea ordezkatzuz. «Amak ez dik sekula barre egiten». Atakea.

Bat-batean bere gelara itzuli eta ohean etzan zen, eskuan larruzko liburu mehe bat zeukala. Olatuak zalapartaka lehertzen ziren arrezifeko

hesiaren kontra. Ez zuen irakurri behar. Jack azkar ari zen igerian aintzirako ur urdin bareetan zehar; gero, eguzkitan, hondartza horian kresal-tantak gainetik kentzen ari zen soina astinduz; sudurzuloak zabal-zabal zeuzkan su bakartiaren ondoan kiskaltzen ari zen ogi-arbolaren fruitua-ren usaina hartzeko. Lumaje distiratsuko txori batzuk txilioka eta txorrotxioka ari ziren kokon-doan goialdean. Loak hartzeko moduko beroa egiten zuen gelan. Jimmy lo geratu zen. Marrubiak, limoiak eta ananak isuritako usaina nabari zen itsasontziko bizkarrean, eta ama hantxe zegoen, bere soineko zuria jantzirik, baita mari-nel-txapela zeukan gizon beltzaran bat ere, eta eguzkiaren argia kiribilka zebilen bela handi zuri-zurien inguruan. Amaren barre gozoa algara bilakatu zen. Kar, kar, kar! Ferry baten neurriko euli bat haienganantz zihoan igerian karramarro-aren haginaren moduko bere hanka koskadunak luzatuz. «Salto egin, Jimmy, salto egin; bi salto eginda iritsiko zara», oihu egin zion gizon beltza-ranak belarrira. «Baina, mesedez, nik ez dut nahi!... ez dut nahi!...», ulu egin zuen Jimmyk.

Gizon beltzarana mutila jotzen ari zen: «Salto egin, salto egin, salto...»

— Bai, egon apur batean. Nor da?

Izeba Emily atean zegoen.

— Zergatik ixten duzu atea giltzaz, Jimmy?...

Nik ez diot sekula utzi Jamesi bere atea giltzaz ixten.

— Nik hala nahiago dut, giltzapean itxita, izeba Emily.

— Ene, mutil bat arratsaldeko ordu hauetan lo egotea ere!

— *The Coral Island* irakurtzen ari nintzen eta lo geratu naiz —Jimmy lotsagorritu egin zen.

— Ondo dago. Etorri. Miss Billinglek esan du amaren gelan ez sartzeko. Lo dago.

Kastore-olio usaineko igogailu estu batean zeuden; mutiko beltzak Jimmyri irri egin zion.

— Zer esan du sendagileak, izeba Emily?

— Espero bezain ondo ateratzen ari da dena... Baina ez estutu. Gaur gauean primeran pasatuko duzu zure lehengusutxoekin... Zuk ez duzu behar beste harremanik zure adineko haurrekin, Jimmy.

Zeru zilarrez tatu ilunaren azpian ibairantz zihoazen, kale arrear harrotua zen haize harea-tsuari aurre eginez.

— Pozik egongo zara eskolara itzuli zarelako, ezta James?

— Bai, izeba Emily.

— Eskola egunak dira zoriontsuenak mutil baten bizitzan. Amari gutxienez astean behin idatzi behar diozu, James... Orain zeu zara berak duen guztia. Miss Billingssek eta biok guztiaren berri emango dizugu aurrerantzean.

— Bai, izeba Emily.

— James, zuk nire James hobeto ezagutzea nahi dut. Zure adinekoa da, beharbada apur bat handiagoa da, eta lagun onak izan behar duzue... Poztu egingo nintzatekeen Lilyk Hotchkissera bidali izan bazintu zure lehengusuarekin ikasteko.

— Bai, izeba Emily.

Izeba apartamentu-eraikin batean bizi zen. Hango sarrerako hallean zutabeak marmol arrosazkoak ziren eta igogailuko mutilak txokolate-koloreko uniformeak eta letoizko botoiak zeuzkan. Igogailua karratua zen, ispiluz apaindua.

Izeba Emily zazpigarren pisuko kaobazko ate gorri handi baten aurrean gelditu eta giltzaren bila hasi zen bere poltsaren barruan. Hallaren bukaeran kristal beruneztatuekiko leiho bat zegoen eta handik Hudson ibaia eta baporeak ikus zitezkeen, bai eta kezko zuhaitz handiak ere, ibai ertzeko patioetatik gora, ilunabar horiaren kontra nabarmen. Izeba Emilyk atea irekitzeaz batera, piano baten doinua entzun zuten.

— Hori Maisie da, praktikatzen ari da.

Pianoa zegoen gelako alfonbra lodia eta biguna zen; zilar distiratsu koloreko arrosez apaindurik, hormako paper horia zurezko eskulan krema-kolorekoen eta olio-pinturen marko urreztatuen artean ageri zen. Pintura haietan basoak, jendea gondola batean eta kardinal lodi bat edaten ikusten ziren. Pianoko aulkitik jauzi egitean txirikor-dak sorbalden atzera eraman zituen Maisiek. Krema-koloreko aurpegi biribila zeukan eta sudurra aukeran zapala. Metronomoaren tikitak bere horretan jarraitzen zuen.

— Epa James! —esan zuen neskatoak aurpegia bereamari eskaini ondoren, hark musu eman

ziezaion—. Bene-benetan sentitzen dut izeba Lily gajoa hain gaixorik egotea.

— Ez al diozu zeure lehengusinari musu eman behar, James? —esan zuen izeba Emilyk.

Jimmyk baldarki jo zuen Maisierengana eta masail batez aurpegia estutu zion.

— A zeinen musu xelebrea! —esan zuen Maisiek.

— Tira, haurrok, orain elkarrekin egon zaitez-kete afaltzeko ordua iritsi arte.

Izeba Emily ondoko gelan aienatu zen belusezko gortinen artetik igaro bezain laster.

— Guk ezin izango dizugu James deitu, orain arte bezala.

Metronomoa gelditu ondoren bere lehengusuari begira gelditu zen, erne-erne, bere begi marroi serioez.

— Ezin dira bi James egon, ezta?

— Amak Jimmy deitzen dit.

— Jimmy oso izen arrunta da, baina, tira, horrekin konformatu beharko dugu izen hoberik bururatzen ez zaigun bitartean.

— Zenbat *jack* har ditzakezu zuk?

— *Jackak* zer dira?

— *Jackstones* direlakoak zer diren ez jakitea ere, arranopola! Ikusiko duzu nolako barreak egingo dituen Jamesek itzultzen denean!

— Badakit zer diren *Jack* arrosak, amak horietan zituen gogokoen.

— Nik *American Beauties* izeneko arrosak besterik ez ditut gogoko —adierazi zuen Maisiek *Morris* aulki batean pulunpatuz.

Oin baten gainean zutik, Jimmyk bere orpoa ostikoka zerabilen beste oinaren puntaz.

— Non dago James?

— Laster itzuliko da... Zaldiz ibiltzen ikasteko eskola hartzen ari da.

Goiztiria berunezko isiltasun bilakatu zen haien artean. Nasetatik tren-makina baten txistua zetorren, bai eta merkantzi bagoiak bazterbidean lotzean sortutako zarata ere. Jimmy lasterka joan zen leihora.

— Aizu, Maisie, gogoko al dituzu tren-makinak? —galdetu zuen.

— Uste dut nazkagarriak direla. Aitak dio beste nonbaitera joango garela bizitzera zarata eta kea direla medio.

Argitzalean Jimmyk tren-makina handi baten molde leunei zeharka begiratzen zien. Kea brontze eta lilazko egundoko kiribiletan irteten zen tximiniatik. Trenbidean argi gorri bat ziplo berde bihurtu zen. Kanpaiaren hotsa geldiro entzuten zen, nagiki. Trena puzka abiatu zen, lurrina presiopean ateraz eta izugarrizko dunbota eginez; gero eta azkarrago zihoan eta, azkenean, ilunpean galdu zen, atzealdeko bere argi gorria zabuka zebilela.

— Niri gustatuko litzaidake ba hemen bizitzea! —esan zuen Jimmyk—. Tren-makinen berrehun eta hirurogeita hamabi argazki dauzkat. Nahi baduzu egunen batean erakutsiko dizkizut. Horien bilduma egiten ari naiz.

— Zeinen gauza bitxia horren bilduma egiteko!... Aizu, Jimmy, jaitsi gortina, argia piztu nahi dut eta.

Maisiek argia piztu eta ate ondoan James Merivale ikusi zuten. Ile hori eta kizkurra zeukan, oreztaz beteriko aurpegia eta Maisierena bezalako sudur zapala. Zaldiz ibiltzeko galtzak eta larru beltzezko polainak jantzita zeuzkan eta egur zurituzko usta luze bat astintzen ari zen.

— Epa Jimmy! —esan zuen—. Ongi etorri gure hirira.

— Aizu, James —oihu egin zuen Maisiek—. Jimmyk ez daki zer diren jackstonesak.

Izeba Emily belus urdinezko gortinen artetik azaldu zen. Lepo luzeko blusa zeta berdezko bat jantzita zeukan, farfail batez apaindua. Bere ile zuria bihurgune leun batean zut ageri zen, beko-kiaren gainean.

— Eskuak garbitzeko ordua duzue, haurrok —esan zuen—. Afaria bost minutu barru prest egongo da... James, eraman zure lehengusua zeure gelara eta kendu azkar zaldiz ibiltzeko jantzi hori.

Jimmy bere lehengusuarekin jantokian sartu zenerako denak eserita zeuden. Aiztoek eta sardexkek pantaila gorri eta zilarreztatudun sei kandelaren argitan apalik dir-dir egiten zuten. Mahaiaren mutur batean izeba Emily zegoen eserita; ondoan, lepo gorriko gizon bat zeukan, garondo zapala agerian. Mahaiaren beste muturrean, berriz, osaba Jeff zegoen; laukiekiko gorbataren gainean orratz errubidun bat agerian zeukalarik, besaulki handi bat betetzen zuen.

Neskame beltza argizko zerrendan zehar jirabiraka zebilen ogi-pusketa xigortuak zerbitzatzen ari zen bitartean. Jimmyk zopa oso zurrun edan zuen, zaratarik egiteko beldurrez. Zopa-koilarakaden artean osaba Jeffek ahots ozenaz hitz egi-ten zuen.

— Benetan diotsut, Wilkinson, New York oso desberdina zen Emily eta biok hona bizitzera etorri ginenean. Gutxi gorabehera, garai hartan Ark izeneko itsasontzia porturatu zen... Juduek eta Irlandako jendailak hartu dute hiria, eta horixe da gure galbidea... Hamar urte barru kristau batek hemen ezin izango du bizimodua aurrera atera... Benetan diotsut, azkenean, katolikoek eta juduek gu botako gaituzte geure herritik, horixe egingo dute.

— Hau Jerusalem berria da —esan zuen Emilyk barreka.

— Hau ez da barre egiteko. Gizon batek bizi-tza osoa lan eta lan eman badu negozio bat aurrera ateratzeko, ez du kalean geratu nahi atzerritar malapartatu horien erruagatik, ezta Wilkinson?

— Zaude lasai, Jeff. Badakizu gero liseritzeko arazoak izaten dituzula.

— Lasaituko naiz, maitea.

— Herri honek duen arazoa zera da, Mr. Merivale, zera da... —Mr. Wilkinsonek bekokia zimurtu zuen, pentsakor—. Herri honetako jendea toleranteegia da. Hau ez da beste inon onartzen... Aurrena, herri hau eraiki genuen eta gero, atzeritar askori, Europako kakari, Poloniako ghettoetako zaborrari, ez diogu inolako trabarik jarri hona etortzeko eta, gure ordez, agintea hartzeko.

— Kontua da gizon zintzo batek ez duela politikan eskurik zikindu nahi eta ezerk ez diola inolako motibaziorik pizten kargu politikorik onartzeko.

— Egia da gaur egun gizon saiatu batek diru gehiago nahi duela, diru gehiago behar duela, bizitza publikoan zintzoki irabaz dezakeena baino... Jakina, gizonik onenek beste norabide batzuk hartzen dituzte.

— Eta horri judu zikin horien eta irlandar zorritsu horien ezjakintasuna gehitu behar zaio. Gainera, ezjakintasun hori saritu eta guzti egiten

dugu, horiei bozkatzeko eskubidea emanaz, ingelesez hitz egiten nekez moldatuagatik ere... —hasi zen osaba Jeff.

Neskameak plater batean oilasko erre bat atera zuen, artozko buñueloez ederki hornitua, eta izeba Emilyren aurrean paratu zuen. Solasa ahitu zen jendeari zerbitzatzen ari zitzaion bitartean.

— Ene, ahaztu egin zait zuri zerbait esatea, Jeff —esan zuen izeba Emilyk—: igandean Scarsdale-ra igoko gara.

— Ene, maitea, nik ez dut batere atsegin igandeetan etxetik irtetea.

— Etxetik irteteari dagokionez, umetxo bat besterik ez da.

— Baina igandea egun bakarra dut etxean geratzeko.

— Tira, hauxe gertatu zen: ni tea hartzen ari nintzen Harlandar ahizpekin Maillard-en eta gure ondoan nor eserita egongo eta Mrs. Burkhart...

— John. B. Burkhart-en andrea? Gizon hori ez al da National City Bank izenekoaren lehendakariordeetako bat?

— John oso gizon jatorra da eta, gainera, etorkizun handia du.

— Tira, maitea, esaten ari nintzenez, Mrs. Burkhart-ek esan zigun igandea eurekin pasatu behar genuela eta, noski, nik ezin izan diot ezeztzik esan.

— Nire aita —jarraitu zuen Mr. Wilkinson-ek— Johannes Burkhart zaharraren sendagilea zen. Agure hura oso xelebrea zen. Astor koronelaren garaian larruen salerosketari esker aberastu zen. Hezueria zeukan eta birao izugarriak botatzen zituen... Gogoan dut behin ikusi nuela: agure hark aurpegi gorria eta ile luze zuria zeukan eta burugaineko soilunean zetazko txano bat. Tobias izeneko loro bat zeukan eta kalean zehar zebiltzala, jendeak ez zekien nor zen biraoka ari zena, Tobias bera ala Burkhart epailea.

— Nola aldatu diren gauzak, alajaina! —esan zuen izeba Emilyk.

Jimmy bere aulkian eserita zegoen hankak inurrituta zeuzkala. «Amak atake bat izan dik eta datorren astean eskolara itzuliko nauk. Ostirala, larunbata, igandea, astelehena...». Skinny eta

bera elkarrekin itzultzen ari ziren urmaelaren ertzean apoekin jolastetik. Euren jantzi urdinak zeuzkaten igande arratsaldea zelako. Zuhaixkak loretan zeuden aletegiaren atzean. Judua omen zenez, mutil askok Harris txikiari lky deitzen zioten, haren kontura barre egin nahirik. Mutikoak ahotsa goratu zuen auhenka:

— Aski da lagunok, aski da. Neure jantzirik onena daukat jantzita, lagunok.

— O, Mr. Salomon Levy bere judu arroparik onenarekin —garrasi egin zuten ahots isekari batzuek—. Dena bost eta hamar zentabotan saltzen duen denda batean erosi al duzu, lky?

— Egingo nuke sute baten ondorengo arropa-merkealdietan eskuratu duela.

— Horrela bada, tutu malgua erabili beharko genuke.

— Orduan, Solomon Levy-ren kontra erabil dezagun.

— Aski da, lagunok!

— Ixo, ez egin horrenbeste oihurik.

— Txantxetan ari dira, ez diote minik egingo —xuxurlatu zuen Skinny-k.

Iky buruz behera eraman zuten urmaele-rantz. Garrasika eta aireari ostikoka zebilen, aur-
pegi zuria malkotan blai.

— Ez da judua —esan zuen Skinny-k—, baina
nik esango dizuet nor den judua, Fat Swanson
handiputz hori.

— Nola dakizu zuk hori?

— Bere gelakideak esan dit.

— Arranopola, benetan egingo al dute?

Norabide guztietan hasi ziren korrika. Ilea
lupetzez beterik, Harris txikia urbazterretik gora
ari zen, lauoinka. Bere jakaren mahuketatik ura
zorrotadaka isurtzen zitzaion.

Izozkiaren gainean txokolate-krema beroa
zegoen.

— Irlandar bat eta eskoziar bat kalean behe-
ra zihoazen eta irlandarrak esan zion eskoziarra-
ri: «Sandy, goazen trago bat hartzera...»

Ate nagusiko txirrinak luzaz jo zuen eta, hori
dela eta, osaba Jeffen istorioari denek eskain-
tzen zioten arreta bertan behera geratu zen.
Tupustean neskame beltza jangelan sartu eta
izeba Emilyren belarrira xuxurlaka hasi zen.

— ...eta eskoziarrak esan zuen: Mike... Baina zer gertatzen da?

— Mr. Joe da, jauna.

— Kaka zaharra!

— Agian behar bezala dator —esan zuen izeba Emilyk berehala.

— Apur bat zarbel, andrea.

— Sarah, zer arraio dela-eta utzi diozu sartzzen?

— Nik ez diot utzi, bera sartu da, inori baime-nik eskatu gabe.

Izeba Jeffek bere platera baztertu eta musu-zapikada bat jo zuen mahaiaren kontra.

— Ene bada, berarekin hitz egitera noa.

— Ahaleginak egin hemendik alde egin dezan... —hasi zen izeba Emily esaten eta isildu egin zen ahoa erdi irekita zeukala. Buru bat agertu zen sarrera zabalaren eta egongelaren artean zeuden gortinen artetik. Buru hark txori batena zirudien, sudur gakotua zeukan eta, gainean, ile liso beltzaren mataza bat erakusten zuen, indiar batena bezalakoa. Gorritutako begi bat lasai kliskatzen ari zen.

— Gau on denoi!... Zer moduz mundu guztia? Trabarik egiten al dut?

Bere ahots zakarrak gora egiten zuen burua-
ren ostean gorputz luze eta argal bat gortinen
artetik sartzen zen heinean. Izeba Emilyren ahoa
estutu zen irri izoztu bat osatuz.

— Emily, ...zera... barkatu behar didan; pen-
tsatu dinat... zera... gaurko gaua etxekoen
artean ematea... zera... ez litzatekeela txarra
izango. Heuk badakin... zera... nori bere etxeak
on egiten diola —osaba Jeffen aulkiaren atzean
zegoen, bere burua batera eta bestera kulunka-
tuz—. Eta hi, Jefferson, zer moduz burtsako gora-
beherak, motel?

Esku bat paratu zuen osaba Jeffen sorbalden
gainean.

— A, ederki. Ez duzu eseri nahi? —marmar
egin zuen.

— Esan zidatek... azeri zahar baten aholkua
nahi baduk... zera... burtsalari erretiratu bat...
gero eta burtzoratuago... kar, kar... Baina, esan
didatenez, merezi dik sudurra Interborough
Rapid Transit-en sartzea... Emily, ez begiratu niri
horrela, begi makur horiekin. Oraintxe bertan

alde egingo dinat... Epa, Mr. Wilkinson, zer moduz?... Itxura ona duzue, ba, mutilok. Deabruak naramala hori Lily Herfen semetxoa ez bada!... Jimmy, ez duk heure... zera... lehengusua, Joe Harland, gogoratzen, ezta? Inork ez dik Joe Harland gogoratzen... Hik, Emily, izan ezik, eta gainera, gustura ahaztu nahi huke... kar, kar... Zer moduz hire ama, Jimmy?

— Apur bat hobeto, eskerrik asko.

Jimmy larri zegoen eta nekez ibili zen hitzak ahoskatzeko.

— Tira, etxera iristean eman goraintziak nire partetik... berak ulertuko dik. Lilyk eta biok oso lagun onak izan gaituk beti, ni familiako txorima-loa banaiz ere... Ez naitek gogoko, ni urrun ego-tea nahi ditek... Esaten diat, motel, Lily taldeko onena duk. Ez al da egia, akaso, Emily, bera dela gutako onena?

Izeba Emilyk eztarria garbitu zuen.

— Halaxe duk. Bera duk politena, argiena, jatorrena... Jimmy, hire ama enperatriz bat duk... Beti finegia izan duk gure artean egoteko. Gustura joko nitek trago bat haren osasunera, arra-nopola!

— Joe, pitintxo bat baxuago hitz egingo baze-nu...

Izeba Emilyk hitz horiek tekleatu zituen bera idazmakina bat bailitzan.

— Ba! Zuek guztiok uste duzue ni mozkortuta nagoela... Ez ahaztu hori, Jimmy... —mahairantz makurtu zen eta bere whisky-usaineko arnasak Jimmyren aurpegiaren kontra jo zuen—. Gauza hauetan ez duk zertan errudunik egon... zirkunstantziak... zera... zirkunstantziak.

Hanka baten gainean balantzaka, edontzi bat bota zuen lurrera.

— Emilyk begi makur horiekin begira jarraitzen badu, alde egingo diat... Baina ez ahaztu Lily Herfi goraintziak ematea nire partetik, aspal-dian galbidean nabilen arren.

Zabuka desagertu zen gortinen artetik.

— Jeff, ziur nago Sèvres-ko pitxerra irauli egin behar duela. Behar bezala irten dadila hemen-dik, eta gero, sar ezazu kotxe batean.

Jamesek eta Maisiek euren ezpain-zapietan ito zituzten euren barre-algarak. Izeba Jeff more zegoen.

— Nahiago nuke ni infernura kondenatua izatea morroi hori kotxe batean sartzea baino. Hori ez da nire lehengusua... Giltzaperatu egin behar lukete. Eta ikusten duzun horrengo aldian, Emily, hau esaiozu nire partez: berriro horren nazkagarrri etortzen bada, kalera botako dut.

— Jefferson maitea, ez du merezi haserre-tzea... Ez da ezer txarrik gertatu. Dagoeneko alde egin du.

— Ezer txarrik ez! Ez ahaztu gure seme-alabak. Pentsa zer gertatuko zatekeen Wilkinsonez gain edozein egon izan balitz hemen. Zer pentsatuko zukeen gure etxeaz?

— Ez estutu horregatik —egin zuen karraka Mr. Wilkinsonek—, familiarik onenetan ere gertatzen dira istripuak.

— Joe gizajo hori hain da gozoa bere senean dagoenean —esan zuen izeba Emilyk—. Duela zenbait urte Burtsa bere eskuetan egon omen zela pentsatzea ere! Egunkariak Burtsako Erregea deitzen zioten, gogoratzen al zarete? Hori Lottie Smithers-en auzia baino lehenago gertatu zen...

— Tira, haurrok, joan zaitezte beste gelara jolas egitera, guk kafea hartzen dugun bitartean —txorrotxio egin zuen izeba Emilyk—. Bai, aspaldi alde eginak beharko zuketen.

— Ba al dakizu Bostehunean jokatzeko, Jimmy? —galdetu zuen Maisiek.

— Ez, ez dakit.

— Zer iruditzen zaizu hau, James? Ez daki jakak zer diren, ezta bostehunean jokatzeko ere.

— Tira, biak nesken jolasak dira —esan zuen Jamesek axolagabe—. Nik ere ez nuke horietan jokatzeko jakingo, zugatik ez balitz.

— O, ez, Mr. Sasijakintsu.

— Jolas gaitezen animalia harraparien imitaketan.

— Oso gutxi gara, ordea. Horrela, ez da dibertigarria izango.

— Eta horretan jolastu ginen azken aldian amak jolasa uzteko esan zigun zuk egiten zenuen algarak zirela eta.

— Zeuk ostiko bat eman zenion errainezurrean Billy Schmutz txikiari eta negarrez hasi zen. Horrexegatik esan zigun amak jolasa uzteko.

— Zer iruditzen zaizue trenak ikustera joango bagina? —proposatu zuen Jimmyk.

— Ilundu eta gero ez digute jaisten uzten — esan zuen Maisiek serio-serio.

— Hara zer bururatu zaidan! Burtsan jokatu-ko dugu... Nik milioi bat dolar daukat bonuetan saltzeko eta Maisiek gorantz joka dezake eta Jimmyk beherantz.

— Ondo, zer egin behar dugu?

— O, batetik bestera ibili eta oihu egin, bestetik ez... Ni gutxi saltzen ari naiz.

— Ondo dago, Mr. Burtsalari. Den-denak erosiko dizkizut bosna zentabotan.

— Ez, zuk ezin duzu horrelakorik esan... Lau-rogeita hamasei eta erdi edo horrelako zerbait esan behar da.

— Haien truke nik bost milioi emango dizkizut —oihu egin zuen Maisiek idazmahaiko xukapaper bat astintzen zuen bitartean.

— Zu bai leloa, milioi bat baino ez dute balio eta —egin zuen garrasi Jimmyk.

Maisie bat-batean gelditu zen.

— Jimmy, zer esan duzu?

Jimmyk lotsaren sugarrak soina aldenik alde zeharkatzen ziola sumatu eta bere zapata lodiei beha geratu zen.

— «Zu bai leloa», esan dut.

— Ez al zara inoiz egon Igandeko Eskolan? Ez al dakizu Jainkoak zer dioen Biblian? Hau da, inori zoroa deitzen diona infernuko garretan erortzeko arriskuan dagoela?

Jimmy ez zen ausartzen gorantz begiratzen.

— Tira, nik ez dut gehiago jolastu nahi —esan zuen Maisiek harrokeriaz soina teinkatuz.

Haraino nola iritsi zen jakin gabe, Jimmyk hallen aurkitu zuen bere burua. Kapela hartu zuen, atetik arineketan irten eta harri zurizko sei eskailera-maila jaitsi zituen. Gero, igogailuko mutilaren letoizko botoien eta txokolate-koloreko uniformearen aurretik igaro zen, marmol arrosazko zutabeak zeuzkan halla zeharkatu eta Hirurogeita Hamabigarren kalera irten zen. Gau haizetsua zen. Itzal eta oin-hots guztiak atzetik zituen segika, astunki aurrera eginez. Azkenean, hoteleko eskailera gorrimin ezagunetan gora egiten ari zen. Bere amaren atearen aurretik azkar igaro zen. Galdetuko zioten ea zergatik

itzuli zen hain goiz. Bere gelara oldartu zen, atea kisketaz itxi, giltzari bi buelta eman eta atean bermatu zen, arnasestuka.

— Tira, ezkondu al zara dagoeneko?

Horixe izan zen Congok egin zion lehenengo galdera Emilek atea ireki zionean. Emile kamisetak hutsean zegoen. Zapata-kutxa itxurako gela hura gaizki aireztatuta zegoen, argia eta beroa gas-lanpara batek ematen baitzituen.

— Nondik zatoz oraingoan?

— Bizerta-tik eta Trondjeb-etik... Marinel osoa eginda nago.

— Lanbide txarra da hori, itsasoan bizitzea... Berrehun dolar aurreztu ditut. Delmonico's-en ari naiz lanean.

Elkarren ondoan eseri ziren ohe egin gabearen gainean. Congok ertz urreztatuekiko Egyptian Deities direlakoan fardel bat atera zuen.

— Lau hilabeteko soldata —zaplada bat eman zuen bere izterraren kontra—. May Sweitzer ikusi al duzu? —Emilek burua higitu zuen—. Emagaldutako hori aurkitu behar dut... Eskandinaviako portu

malapartatu horietan emakumeak itsasontzietan irteten dira, emakume lodi eta ilehoriak...

Isildu egin ziren. Gasak burrunba egiten zuen. Arnasa botatzeaz batera, Congok txistu egin zuen.

— Arraioa! *C'est chic ça, Delmonico*. Zergatik ez zara berarekin ezkondu?

— Gogoko du ni bere atzetik ibiltzea... Neuk berak baino askoz ere hobeto eramango nuke denda.

— Zu bigunegia zara; emakumeekin gogor jokatu behar da eurengandik ezer ateratzeko-tan... Jar ezazu jeloskor.

— Bera da, ordea, nirekin jolasten ari dena.

— Ikusi nahi al dituzu nire postalak? —Congok poltsikotik fardel bat atera zuen, egunkari-orriez bildua—. Begira, hau Napoli da; hango guztiek New Yorkera etorri nahi dute... Hau neska dantzari arabiar bat da. *Nom d'une vache*, zoratzeko moduko sabelak dituzte!

— Aizu, badakit zer egingo dudan —oihu egin zuen Emilek, postalak bat-batean ohe gainera botatzen zituen bitartean—. Jeloskor jarriko dut.

— Nor?

— Ernestine... Madame Rigaud...

— Jakina, paseatu gora eta behera pare bat aldiz neska batekin Zortzigarren Etorbidean zehar, eta egingo nuke neska hori zure besoetara eroriko dela adreilu-tona bat bailitzan.

Iratzargailuak aulkian jo zuen, ohearen ondoran. Emilek jauzi egin zuen iratzargailua geldiarazteko eta konketan aurpegia garbitzen hasi zen ura aurpegiaren kontra zipriztinduz.

— *Merde!* Lanera joan beharra daukat.

— Ni Hell's Kitchen-era noa ea May aurkitzen dudan.

— Ez izan zoroa eta ez gastatu diru guztia — esan zuen Emilek, aurpegia zimur-zimur eginda, ispilu pitzatu baten aurrean bere alkandora garbi-garbiaren aurrealdeko botoiak lotzen ari zen bitartean.

— Esaten dizudana gauza ziurra da —errepikatu zuen behin eta berriro gizonak, Ed Thatcherrren aurpegira berea hurbilduz eta mahaia ahurraz joka.

— Baliteke, Viler, baina nik jende asko ezagutzen dut hondoa jota eta uste dut ez dudala arrisku hori hartu behar.

— Begira, nik andrearen zilarrezko te-jokoa eta diamantezko nire eraztuna eta haurtxoaren kikara eman ditut bahituran... Gauza guztiz segurua da... Nik ez nizuke hau esango lagun onak ez bagina eta dirua zor ez banizu eta hori guztia... Bihar eguerdirako, inbertitutako diruaren ehuneko hogeita bosta irabazita izango duzu... Eta horretan jarraitu nahi baduzu, arriskatu eta aurrera, baina hiru laurden saltzen badi-tuzu eta gainerakoari bizpahiru egunez eusten badiozu, seguruago egongo zara... Gibraltarko Haitza baino ere.

— Badakit, Viler, itxura ona dauka... benetan...

— Baina gizona, bulego malapartatu honetan eman nahi al duzu bizitza osoa? Alajaina! Ez ahaztu zure alaba txikia.

— Bai, gogoan daukat; horixe da arazoa.

— Baina Ed, gaur arratsaldean Burtsa ixteko orduan Gibbons eta Swandike hiru zentabotan erosten hasi dira... Kleinek poliki pentsatu du eta

bihar goizean, ezer egin baino lehen, haraxe joango da. Burtsa erotu egingo da...

— Lagun horiek zikin jokatu eta iritzia aldatzen ez badute. Saltsa horiek primeran ezagutzen ditut, Viler... Honek trikimailu bat dirudi... Nik finantzazko porrotei buruzko kontabilitate-liburu gehiegi aztertu ditut.

Viler zutitu eta purua listuontzira bota zuen.

— Tira, egizu nahi duzuna, kaka zaharra! Ikusten dudanez, zuk nahiago duzu trena egunero Hackensack-en hartu eta egunean hamabi orduz lan egitea...

— Nik neure lanaren bidez atera nahi dut aurrera, horixe da dena.

— Zertarako balio dute aurreztutako dolar horiek, milaka gutxi batzuek, zaharra bazara eta inolako etekinik ezin badiezu atera? Gizona, ni buru-belarri sartuko naiz kontu horretan.

— Aurrera ba, Viler... Hor konpon —xuxurlatu zuen, besteak danbateko bat eginez bulegoko atea itxi zuenean.

Iluntasuna zen nagusi bulego handi hartan; idazmahai horien ilarak eta idazmakina estaliak zeuden bertan; dena zen iluna argizko zoko bat

izan ezik non Thatcher idazmahai baten aurrean eserita baitzegoen, liburu nagusiez gainezkatu-rik. Atzealdeko hiru leihoek ez zeukaten gortina-rik. Handik eraikin handikote argitsu mailakatu batzuk eta tinta-koloreko zeru-puska bat ikus zitezkeen. Thatcher oharrak idazten ari zen paper tinbratuaren orri luze batean.

FanTan Import and Export Company (aktibo-ko eta pasiboko deklarazioak otsailaren 29ra arte, egun hori barne). New York, Shanghai, Hong Kong eta besteko sukurtsalak.

Aurreko balantzea: \$ 345.798,84

Ondasun higiezinak: \$ 500.087,12

Galerak eta irabaziak: \$ 399.765,90

— Lapur-talde madarikatu bat —purrust egin zuen Thatcherrek goraki—. Den-dena duk gezu-rra kontu honetan. Ez diat uste ez Hong Kongen ez inon sukurtsalik dutenik.

Aulkian erdi etzanda, leihotik begira zegoen, erne. Eraikinak gero eta ilunagoak ziren. Zeru-puska hartan izar bat baino ezin zezakeen ikus. «Bazkaltzera joan beharko nitek; liseriketarako

kaltegarria duk irregulararki jatea, nik egiten dudana bezala. Eman dezagun ni negozioan buru-belarri sartzen naizela, Villerren informazio fresko-freskoa entzunda». Ellen, atsegin al dituzu *American Beauty* arrosa hauek? Euren zurtoin batzuek zortzi oineko luzera dute eta nahi nuke zure heziketa osatzeko prestatu dizudan atzerri-rako bidaia zeuk aztertzea. Bai, penagarria izango da gure pisu berri zoragarria, Central Parkera ematen duena uztea... eta erdialdean, gainera, The Fiduciary Accounting Institute, Edward C. Thatcher, Lehendakaria... Zeru-puska hartatik igaroan, lurrinezko burbuilak izarra ezkutatzeko ari ziren. «Sartu buru-belarri horretan... sartu buru-belarri... Nolanahi ere, denak dituk lapurrak eta jokozaleak... Buru-belarri sartu eta aurrera atera eskuak beteta, poltsikoak beteta, bankukontua beteta, kutxa gotorrak diruz beteta. Arriskua hartzera ausartuko banintz! A ze ergelkeria, denbora buruhauste epeletan alferrik galtzea ere! Itzuli FanTan Import-en txostenera». Kaleen dirdaiak doi bat gorriztaturik, lurrinak azkar egiten zuen gora zeru-puskan zehar, jirabiraka, eta gero han-hemen sakabanatzen zen.

EEBBetako diru-gordailuetan bildutako onda-sunak... 325.666,00 dolar.

«Sartu buru-belarri horretan eta atera aurre-ra hirurehun hogeita bost mila seirehun eta sei dolar irabazita». Dolarrek lurrinak bezala gorantz, jira eta bira, eta gero han-hemen izarren artean sakabanaturik. Thatcher aberatsa patxuli usaineko gelako leiho irekira irten da, hiriko etxe-bloke beltzak ikusteko asmoz. Hiria barrez, ahotsez, txilin-hotsez eta argiz blai dago. Bere atzean, azaleen artean orkestrak jotzen ari dira, telegrama pribatuak Singapurretik, Valparaísotik, Mukden-etik, Hong Kongetik eta Chicagotik dolarrak klik, klik, klik, klikitzeatzen ari dira. Senarrarengana apur bat hurbildurik, Susiek belarrira hitz egiten dio, orkideozko soineko bat jantzita.

Negarra begietan, Ed Thatcher zutitu egin zen, ukabilak hertsirik. «Lelo alaena, zergatik puskatu burua, Susiek dagoeneko gure artetik alde egin badu? Hobe diat bazkaltzera joatea, bestela Ellenek errieta egingo zidak».

Bosgarren atala

Martimuiloa

Arrastiriak goxo-goxo kaleen ertz zorrotzak leuntzen zituen. Iluntasunak asfaltozko hiri lurrintsua gogor zanpatzen zuen eta leihoen markoak, iragarkiak eta tximiniak eta ur-deposituak eta haizagailuak eta sute-eskailerak eta moldurak eta apaingarriak eta oxkarrak eta begiak eta eskuak eta gorbatak birrintzen zituen, puska urdin eta etxe-bloke erraldoi beltz bilakatuz. Gauaren presio gero eta handiagoaren azpian, leihoei argia zerien zorrotadaka. Gauak arku elektrikoek isuritako esne distiratsua birrintzen zuen, bai eta etxe-bloke ilunak gogor estutu ere, oin-hotsen durundiaz betetako kaleak argi gorritz, horiz eta berdez tantaka blaitu arte. Asfaltoari argia zerion. Argia teilatuetako ira-

*garkietatik zorrotadaka isurtzen zen,
jira eta bira zebilen oso bizkor gurpi-
len artean eta zeru birakari horren
puska handiak koloreztatzen zituen.*

Hilerriko atean, martimuiloa aurrera eta atze-
ra zebilen, zarataka, bide asfaltatu berrian
zehar. Koipe errearen, lurrinaren eta pintura
beroaren usaina zetorren handik. Jimmy Herf
bide-ertzetik zebilen. Harriek mina ematen zio-
ten oinetan, zapaten zola higatuetan iltzatzen
baitzitzaizkion. Lepo belztuko langile batzuen
ondo-ondotik igarota aurrera jarraitu zuen erre-
pide berrian zehar, euren baratxuri- eta izerdi-
usaina sudurrean itsatsita zeukalarik. Ehun bat
metro eginda, aldirietako errepide gris batean
gelditu zen. Bide haren bi aldeak telegrafoaren
zutoinen eta harien bidez elkarrekin albaindurik
zeudela ematen zuen. Handik, paperezko kutxen
itxurako etxe grisak eta zutabe gris eta mailaka-
tuez beteriko orubeak ikusten ziren. Eta goian,
eguzkiak txantxangorri-arrautzaren kolorea zeu-
kan. Kirioak airean zegoen. Indarrez tira eginda
gorbata beltza kendu eta poltsikoan sartu zuen.

Kanta ero bat biraka zebilkion buruan:

*Bioletez gogaituta nago oso,
eraman itzazue guzti-guztiak.*

«Eguzkiaren loria bat dago, beste bat ilargia-rena eta beste bat izarrena: loria baita izarren arteko bereizgarria. Horrelakoxea da hildakoen berpiztea ere...». Azkar zebilen, zeruz beteriko putzuetan plisti-plasta, hitz koipetsuen burrunba belarrietatik uxatzeko, dolu-xingola beltzak utzi-tako sentsazioa hatzamarretatik kentzeko, lirio-en usaina ahazteko.

*Bioletez gogaituta nago oso,
eraman itzazue guzti-guztiak.*

Mutila azkarrago zebilen. Bidea muino bate-raino igozen zen. Arekatik errekaeto distiratsu bat igarotzen zen, belar-pusken eta sorgin-bela-rren artetik. Etxeak urritzen hasiak ziren; alete-gietako errotulu zartatuetan irakur zitekeen: LYDIA PINKHAM'S VEGETABLE COMPOUND. BUDWEISER. RED HEN. BARKING DOG... «Eta amak atake bat izan zian

eta orain ehortzita zagok». Ezin zuen gogora ekarri nolako itxura zuen. Hilik zegoen; hori zen dena. Hesi batetik txolarre baten txorrotxio umela zetorren. Mutilaren aurrean, txori ñimiño hark hegaka alde egin zuen, telegrafo-hari batean kokatu eta kantuan hasi zen eta galdara abandonatu baten ertzeraino hegan egin eta kantuan hasi zen eta hegaka urrundu eta kantuan hasi zen. Nakarrezko hodeiz beterik, zeru urdina gero eta ilunagoa zen. Berriro ere zetaren kutsu ezagunari antzeman zion. Mahuka farfail-dun batean bildutako esku bat ere sumatu zuen, bere eskuaren gainean gozo ixten zena. Bere sehaskan zegoen, hankak uzkuertuta eta hotzez, itzal makurtu iletsuen mehatxupear; itzalak sehaskaren ertzeekin bat eginez desagertzen ziren. Semearenganantz makurtuta, kizkurrek bekokia inguratu zioten. Zetazko mahuka puztu batzuk soinean, umeari ahoan musu emateaz batera, amak orin beltz bat agerian utzi zuen, ezpain ertzean. Mutila azkarrago zebilen. Odola bero eta arin zebilkion zainetan barrena. Hodei biribilak apar arrosa bilakatzen ari ziren. Jimmyk bere oin-hotsak entzuten zituen zoladura higa-

tuan zehar. Bidegurutze batean eguzkiak pago gazteen kimu zorrotz eta likatsuen gainean dir-dir egiten zuen. Parez pareko errotulu batek zioen: yonkers. Bidearen erdian tomate-pote pitzatu bat alde batetik bestera zebilen. Jimmyk aurrera jarraitu zuen potea ostikoka aurretik zerabilela. «Loria bat eguzkiarena, beste bat ilargiarena eta beste bat izarrena...». Aurrera jarraitu zuen.

— Epa, Emile!

Emilek, atzera begiratu gabe, buruari eraginez egin zuen agur. Bere atzetik neska lasterka abiatu eta mahukatik oratu zion.

— Horrela tratatzen al dituzu betiko lagunak, ala? Orain gozogintzako erregina horrekin zabil-tzanez...

Emilek eskua baztertu zuen.

— Pgesaka nabil, bestegik ez.

— Eta hari kontatzen badiot zu eta biok Zortzigarren Etorbideko erakusleiho aurrean elkar musukatzen eta besarkatzen ibiltzen ginela, soil-soilik bera jeloskor jartzeko?

— Hogi Congogen ideia izan zen.

— Ez zen ondo atera, ala?

— Bai, ondo atega zen.

— Ondo, eta hori ez al didazu niri zor?

— May, zu oso neskato jatoga zaga. Datogen astean, nige gau libgea asteazkenean izango da... Zuge bila etogi eta antzokiga egamango zaitut... Zeg moduz negozioa?

— Ezin okerrago... Campuseko dantzari-lanpostu bat eskuratzeko ahaleginetan ari naiz... Hor morroi asko daude diruz ustelduta. Marinel eta portuko arlote gehiagorik ez... Errespetagarri egiten ari naiz.

— May, Congogen begi ba al duzu?

— Postal bat jaso nuen ez dakit zein leku malapartatutatik. Izena ere ezin zen ulertu... Ez al da bitxia diru eske idaztea eta postal bat baino ez bidaltzea?... Morroi horrixek ematen diot dohainezko gauren bat berak nahi duenean... Eta ez beste inori, ba al zenekien hori Igelhanka?

— Agug, May.

Ustekabean, Emilek neskari oroilorez apaindutako lastozko kapela atzerantz eramane eta musu eman zion.

— Geldi egon, Igelhanka, Zortzigarren Etorbidea ez da lekuri aproposena neskari musurik emateko —murmurikatu zuen neskak, kizkur hori bat kapelaren azpian sartuz—. Nire esku dago zu kartzelara bidaltzea, eta ez pentsa horretarako gogo gutxi dudarik.

Emile urundu egin zen.

Suhiltzaile-kamioi bat, mahuka-bagoi bat eta eskailera-furgoi bat zalapartaka igaro ziren haren aurretik, kalea hankaz gora jarritz. Hiru etxe-bloke beherago, kea eta, tarteka, sugarren bat irteten ziren etxe baten teilatutik. Jendetza estu-estu zegoen polizien lerroen kontra. Aurrean zeuzkan bizkarretatik eta kapeletatik harago, Emilek suhiltzaile batzuk erdikusi zituen ondoko etxearen teilatu gainean. Isiltasunean distiratsu, hiru ur-zorrotada jostalari sartzen ari ziren goiko leihoetan. «Gozotegiaren aurrean izan behar dik». Nekez egin zezakeen aurrera espaloian zehar eta bat-batean jendetza baztertu egin zen. Bi poliziak gizon beltz bat herrestan zeramaten; besoak dilindan zerabilzkien, batera eta bestera, kable hautsiak bailiran. Atzean,

beste polizia bat zetorren, beltzari borraz buruan joka, noiz alde batean, noiz bestean.

— Beltz bat izan da etxeari sua eman diona.

— Supiztailea harrapatu dute.

— Begira, supiztailea!

— A ze gaizto-aurpegia duen, alajaina!

Jendetza itxi egin zen. Emile Madame Rigauden ondoan zegoen, dendako atearen aurrean.

— *Cheri que ça me fait une emotiong... J'ai horriblemong peu du feu.*

Emile emakumea baino apur bat atzerago zegoen. Esku batez gerria inguratu eta beste eskuaz beso bat ferekatu zion.

— Dena ondo dago berriro. Ez da su gehiagorik ikusten, kea besterik ez... Baina zu aseguratuta zaude, ezta?

— Bai, hamabost milatan...

Emakumeari eskua estutu zion eta gero, askatu.

— *Viens ma petite on va rentrer.*

Behin barruan zeudela, Emilek bi esku lodi-txoak hartu zizkion.

— Ernestine, noiz ezkonduko gara?

— Datorren hilean.

— Ezin dut hainbeste itxaron, ezinezkoa da... Zergatik ez datorren asteazkenean? Horrela, nik lagunduko nizuke inbentarioa egiten... Nire ustez, denda salduta erdigunera bizitzera joan beharko genuke, diru gehiago irabazteko.

Emakumeak zapladatxo bat eman zion masailean.

— *P'tit ambitieux* —esan zuen eta, bere artean barre egitean, sorbaldak eta bular handiak dantzan jarri zitzaizkion.

Manhattan Transfer-era aldatu behar izan zuten. Ellen antxume-larrazko bere eskularru berrien erpuru urratua hatz erakusleaz igurtzitzen ari zen, urduri. Johnnek gerrikodun kapusaia eta feldrozko gris-arrosadun kapela jantzita zeuzkan. Ellenengana irribarreka begiratu zue-nean, neskak, ezinbestean, begirada desbideratu eta trenbideetako errailetan dir-dir egiten zuen euri-zaparradan finkatu zuen.

— Hemen gaude, Elaine maitea. O, printzearen alaba, ikusten duzunez, Penn-eko geltokitik

datorren trena hartzera goaz... Bitxia da honela itxarotea New Jerseyko basoetan.

Treneko konpartimentu pribatuan sartu ziren. Johnek hots txiki bat egin zuen ahoaz, euri-tantek bere kapela argian sortzen zituzten biribil beltzak ikustean.

— Tira, bidean gaude, nire neskatoa... *Zeinen ederra zaren, maitea! Zeinen ederra zaren! Usobegiak ageri dira zure kizkurren artean.*

Ellenek soineko berria zeukan, ukondoetan estutua. Oso alai egon nahi zuen eta Johnen xuxurla atergabea arretaz entzun, baina zerbaitetik iluntzen zion bekoskoa. Neskak zingira arreak begiztatu besterik ez zezakeen egin, bai eta lantegietako milaka leiho beltzak eta hirietako karrika lupetsuak eta kanal bateko bapore ugertsu bat eta aletegiak eta Bull Durham-en iragarkiak eta, euri-hari distiratsuek marraturik, Spearmint-en gnomo aurpegi biribilak ere. Leihoan, trena geldituz gero, perla itxurako ur-tantek beheranzko lerroak osatzen zituzten supituki; abiadura azkartuz gero, berriz, lerroak gero eta zeharago egiten ziren. Gurpilek izugarrizko burrunba egiten zuten Ellenen buru barnean,

behin eta berriro ziotela: Man-ha-ttan Trans-fer, Man-ha-ttan Trans-fer. Dena den, Atlantic City urrun zegoen oraindik. Atlantic Cityra iristen garenean... *O, berrogei egunez euria egin zuen...* «Oso alai jarriko naun...». *Eta berrogei egunez euria egin zuen...* «Oso alai jarri beharra zaukaat».

— Elaine Thatcher Oglethorpe oso izen-deitura politak dira, ezta maitea? «*Ekarzu ura niretzat, indarberritu nazazu sagarrekin, maiteminak jota bainago*».

Oso gustura zegoen konpartimentu pribatu hutsaren barruan, belus berdezko aulki batean eserita, eta John, harenganantz makurturik, txorakeriak errezitatzen ari zitzaion. Leiho bustien beste aldean, aintzira arreak bere aurretik igarotzen ziren lipar batez. Txirlena izan zitekeen usaina bagoian sartzen zen barruraino. Emakumeak aurpegira so egin eta barrez hasi zen. Johni aurpegia aldenik alde gorritu zitzaion, bere ile gorri-horiaren erroetaraino. Johnen eskularru hori bat Ellenen zuri baten gainean pausatu zen.

— Orain zeu zara nire emaztea, Elaine.

— Orain zeu zara nire senarra, John.

Eta barreka hasi ziren elkarri begira, konpartimentu pribatu huts gozoan. ATLANTIC CITY letra zuriek augurio txarrak iragartzen zituzten, eguraldi euritsu gupidagabeari buruz.

Euriak itsas ertzeko pasealeku distiratsuaren aurka gogor jo eta haize-boladaka lehertzen zen leihoaren kontra, ura baldeka botatzen ariko bailiran. Euritik harago, Ellenek hondartzan zehar eta ontziraleku argiztatuen artean zabaltzen ziren uhinen aldizkako zalaparta entzun zezakeen. Ahoz gora etzanda zegoen, sabaiari so. Ondoan John zeukan, ohe handi batean lo, ume baten antzo lasai-lasai arnastuz, buru azpian buruko tolestu bat zuelarik. Ellen hotzak akabatuta zegoen. Ohetik kontu handiz irristatu zen ez baitzuen John iratzarri nahi, eta leihotik beha jarri zen itsas ertzeko pasealekuko argiek osatzen zuten V luze-luzeari. Leihoko kristala jaso zuen. Euriak aurpegian jo zuen, azala eztenkatuz eta kamisoia umelduz. Ellenek bekokia markoaren gainean bermatu zuen. «O, hil egin nahi dinat. Hil egin nahi dinat». Bere gorputzaren hotzak uzkurdurak eragiten zizkion sabelean. «Ene, ondoezik nagon». Bainugelari sartu eta

atea itxi zuen. Oka egin ondoren hobeto sentitu zen. Berriro ohean sartu zen, kontu handiz sartu ere, John ez ukitzeko. Ukituz gero, Ellen hil egingo zen. Ahoz gora etzan zen, esku hertsia saihetsekin eta oinekin bat eginda. Konpartimentu pribatuak haren buru barnean burrunba egiten zuen gozo; lo geratu zen.

Haizeak leihoen kontra jotzean eragindako danbatekoen ondorioz esnatu zen. John urrun zegoen, ohe handiaren beste aldean. Haizea eta euria —kristaletan behera irristaka— hainbeste-rainokoak ziren ezen bai baitzirudien gela, ohe handia eta enparaukoak batetik bestera zebiltzala, globo gidagarri bat itsaso gainean doan bezala aurrera eginez. *O, berrogei egunez euria egin zuen...* Bere soinaren zurruntasun hotzaren zirrikitu batetik ezari-ezarian isurtzen zen lelo hura, odola bezain beroa... *Eta berrogei gauez euria egin zuen.* Herabeki haztatu zuen esku batez bere senarraren ilea. Johnek, artean lo, aurpegia zimurtu eta auhenka «Ez» esan zuen, haur-ahotsaz esan ere, eta horrek barregura eman zion Elleni, barre funsgabea. Ohearen ertzean zegoen etzanda, etsi-etsian barreka,

eskola-garaian beste neska batzuekin egin ohi zuen gisan. Eta euriak leihoaren kontra jotzen zuen eta leloa gero eta ozenagoa zen harik eta belarrietan txaranga bilakatu zitzaion arte:

*O, berrogei egunez euria egin zuen
eta berrogei gauez euria egin zuen
eta Gabonak arte ez zuen atertu,
eta uholdeetatik bizirik atera zen gizon
bakarra*

Istmoko Jack Zangoluzea izan zen.

Jimmy Herf osaba Jeffen aurrean eserita zegoen. Biek ere txuleta bana, patata egosi bana, ilar-pilo txiki bana eta perrexil-sorta bana zeuzkaten euren plater urdinen barnean.

— Begira zure ingurura, Jimmy —zioen osaba Jeffek.

Argi bizi batek intxaurkiz apainduriko jangela hura gainezkaturik zeukan, zilarrezko aizto eta sardexketan aldizka dir-dir eginez, bai eta urrezko hortzetan, erloju-kateetan eta gorbata-orratzetan ere; argi hori zapien eta artilezko arropa nabarraren ilunpeetan aienatzen zen eta plater

garbi-garbietan, soiluneetan eta azpil-estalkietan berriro sortzen zen, distiratsu.

— Hara, zer uste duzu leku honetaz? —galdetu zuen osaba Jeffek larru latzezko bere txalekoaren sakeletan erpuruak ehortziz.

— Klub bikaina da, zinez —esan zuen Jimmyk.

— Honaxe etortzen dira bazkaltzera gure herri honetako gizonik aberatsenak eta arrakastatsuenak. Begira zokoan dagoen mahai biribil hori. Gausenheimertarren mahaia da. Hor ezkerre... —osaba Jeff aurrerantz makurtu eta baxuago mintzatzen hasi zen— masailezur handia duen hori J. Wilder Laporte da —Jimmyk bere bildots-txuleta ebakitzen du erantzun gabe—. Tira, Jimmy, seguru asko jakingo duzu zergatik ekarri zaitudan hona... Zurekin hitz egin nahi dut. Orain zure ama gajoa zeratu... desagertu denez, Emily eta biok zure legezko tutoreak gara eta Lily gajoaren testamentu-betearazleak. Egoera zehazki zertan den azaldu nahi dizut —Jimmyk aiztoa eta sardexka askatu zituen eta bere osabari beha geratu zen, bere esku hotzez aulkiaren urrezko besoei teink helduta, haren masailezur urdinaren higidura geldoari so, sate-

nezko zapi handi batean txertatutako gorbata-
orratzaren errubiaren gainean—. Hamasei urte
dauzkazu, ezta Jimmy?

— Bai, jauna.

— Tira ba... Zure amaren jaraunspena kon-
pontzen denean bost mila eta bostehun bat dola-
rren jabe izango zara. Zorionez, zu mutil argia
zara eta laster prest egongo zara unibertsitatera
joateko. Baina diru hori ondo gobernatuz gero ez
duzu inolako arazorik izan behar Columbia uni-
bertsitatean ikasteko, Columbiara joateko tema-
tuta zaudenez gero... Nik neuk, eta seguru asko
zure izeba Emilyk ere bai, nahiago genuke zu
Yale-n edo Princeton-en ikustea... Nire uste apa-
lean, zu zorte handiko mutila zara, Jimmy... Ni
zure adinekoa nintzenean Fredericksburg-eko
bulego bat ekortu behar izaten nuen eta hilean
hamabost dolar irabazten nituen. Eta zera da
esan nahi nizuna... Ez dut uste zu gehiegi ardu-
ratu zarenik diru-kontuez... zera... ez zait irudi-
tzen zuk zeure bizimodua aurrera ateratzeko
edota mundu honetan arrakasta lortzeko adina-
ko adorerik sekula ere erakutsi duzunik. Begira
zeure ingurura... Aurrezkiei eta adoreari esker,

gizon hauek iritsi dira iritsi diren lekura. Aurrezkiei eta adoreari esker, nire etxearen gozoa zuri eskaintzeko moduan nago, bai eta gurean nagusi den kultura handiko giro fina ere... Badakit zure heziketa apur bat berezia izan dela, Lily gajoaren ideiak eta gureak oso desberdinak izan direlako zenbait arlotan, baina zure prestakuntza-aldia hasi besterik ez da egin. Taxuzko erabaki bat hartzeko eta zure geroko karreraren zimentarriak finkatzeko garaia iritsi zaizu... Hauxe da nire aholkua: jarraitu Jamesen bideari eta saiatu gure enpresaren barnean aurrera egiten... Hemendik aurrera biak zaituztet seme... Gogor lan egin beharko duzu, baina horrek aukera emango dizu merezi duen zerbaitekin hasteko... Eta ez ahaztu gizon batek New Yorken arrakasta lortzen ez duen bitartean ezin daitekeela gizon arrakastatsutzat jo!

Jimmy bere osabaren aho serioari begira geratu zen, hark hitzak aletzen zituen bitartean, eta ez zuen ahogozatzen jaten ari zen bildots-txuleta urtsua.

— Tira, zer egin behar duzu?

Jimmyrenganantz pitin bat makurturik, osaba Jeff mutilari begira geratu zen bere begi gris irte-
nez. Jimmyri ogi-puska bat kontrako eztarrira
joan zitzaion, gorritu egin zen eta, azkenean,
herabeki esan zuen totelka.

— Zeuk nahi duzuna, osaba Jeff.

— Orduan, uda honetan nire bulegora lan egi-
tera joateko prest zaude, hilabete batez besterik
ez bada ere? Horrela ikusiko duzu zer-nolako
poza ematen duen bizibidea aurrera ateratzeak
eta, bide batez, ikasiko duzu nola eraman nego-
zioa.

Jimmyk baiezko keinua egin zuen buruaz.

— Tira, nire ustez, oso zentzuzko erabakia
hartu duzu —esan zuen osaba Jeffek ahots sako-
naz, bere aulkian erdi etzanda, eta horrela
argiak haren ile-xerlo gris izurtuak zeharkatu
ahal izan zituen—. A, horretaz ari garela, zer
nahi duzu postrerako?... Urte batzuk barru,
Jimmy, arrakasta handiko gizona zarenean eta
zeure negozioa duzunean, solasaldi honetaz
gogoratuko gara. Zure karreraren hasiera da.

Arropazaindegiko neskak irribarre egin zuen
bere ile kizkur horiaren arrandia erdeinariaren

azpitik, Jimmyri kapela eskuratzen zionean. Kapela hark zapala, lohia eta biguna ematen zuen, onddo-kapela tripontzien eta esekitokieta-tik zintzilikatueta jipijapa kapela dotoreen artean. Jimmyren sabela uzurtu egin zen, igo-gailua brau jaistiaz batera. Marmolezko hall jendetsura irten zen. Unetxo batez norantz jo jakin gabe, hormari pega-pega eginda egon zen, eskuak poltsikoetan, ate etengabe birakarietan zehar nekez aurrera egiten zuen jendeari so: masaila biguneko neskak txikleak ahoan, kopeta-iledun neska aurpegi luzeak, Jimmyren adin beretsuko mutil musu krema-kolorekoak, alde batera okertutako kapela zeramaten mutil indartsuak, mandatari izerditsuak, begirada gurutzatuak, aldaka kulunkariak, masaila gorriak puruak mastekatzeko, oliba-koloreko aurpegi iharrak, gizon eta emakume gazteen soin lauak, gizon nagusi tripontziak, denak estu-estu eginda, elkar bultzatuz, hankak herrestan, ate birakarietan zehar bi ilara amaigabetan sartuz, bai Broadway-ra irteteko, bai Broadwaytik etortzeko. Jimmy gau eta egun biraka zebiltzan ateen zirimolan sartu zen, saltxitxen haragia bailitzan bizitza

xehatuko zioten ate birakarien zirimolan. Bat-batean, gihar guztiak teinkatu zitzaizkion. «Osaba Jeff eta bere bulegoa pikotara joan daitezela». Bere barnetiko hitzak hain ozenak izan ziren, ezen ezker-eskuin begiratu baitzuen ea inork entzun ote zizkion.

«Denak pikotara joan daitezela!». Sorbaldak tentetu eta ate birakarietarantz jo zuen, bultzaka. Bere takoi batek oin bat zapaldu zuen. «Jainkoarren, kontuz ea non zapaltzen duzun!». Kanean zegoen jadanik. Haize-zurrumbilo batek ahoa eta begiak hareaz betetzen zizkion. Batteryrantz zihoan, haizeak atzetik joka. Trinity Church-eko hilerrian zenbait estenografo eta bulegari otartekoak jaten ari ziren hobien artean. Bapore-konpainien aurrean atzeritarren talde batzuk zeuden: iltzapazko iledun norvegiarrak; suediar aurpegi biribilak; poloniarrek; mediterranear gizontxo beltzaranak, berakatz usainekoak; eslaviar erraldoiak; hiru txinatar; laskar-talde bat. Aduanaren aurreko plaza txiki triangeluarrean, Jimmyk atzerantz begiratu eta, haizeari buru eginez, Broadwayren aitzokada sakonari

so geratu zen. «Osaba Jeff eta bere bulegoa pikotara joan daitezela».

Kamainaren ertzean eserita, Budek nagiak atera eta aharrausi egin zuen. Alde guztietatik zetozen gizonen zurrungak, euren izerdiari, arnasa garratzari eta arropa bustiari zerien usainarekin nahasita. Alde guztietatik zetozen gizon haiek egindako hotsak, euren kamainetan jira eta bira baitzebiltzan, malgukiei karraska ateraz. Oso urruti, lanpara elektriko bakar baten argiak ilunpea urratzen zuen. Budek begiak itxi eta burua bere sorbaldaren gainean pausatu zuen. «Ene Jainkoa, lo egin nahi dut. Ene Jesus, lo egin nahi dut». Belaunak esku gurutzatuen kontra estutu zituen, dardararik egin ez zezaten. «Aita gurea, zeruetan zarena, nik lo egin nahi dut».

— Zer duk, motel? Ezin duk lorik hartu? —
xuxurla bare bat iritsi zitzaion ondoko kamainatik.

— Ez.

— Nik ere ez.

Budek ukondo baten gainean bermatuta zegoen buru handi ile kizkurrari so egin zion.

— Hau zorri-zulo zikin nazkagarri bat besterik ez duk —tonu berean jarraitu zuen ahotsak—. Zabalduko diat nik hau bazter guztietatik... Eta, gainera, berrogei zentabo!... Har dezatela euren Plaza Hotela eta...

— Denbora luzea al daramak hirian?

— Abuztuan hamar urte beteko dituk.

— Hara!

Ahots batek urruma egin zuen kamaina-ilaran:

— Aizue, utzi berriketak beste baterako! Zer uste duzue dela hau? Picnic judu bat ala?

Budek ahotsa beheratu zuen:

— Hau bitxia! Urteak zituan hirira etorri nahi nuela... Ni estatuaren iparraldeko landetxe batean jaio eta hezi ninduan.

— Zergatik ez haiz hara itzultzen?

— Ezin nauk itzuli.

Bud hotzez zegoen. Ahaleginetan ari zen dardarik ez egiteko. Burusia kokotseraino eraman eta hau esaten ari zen gizonari beha geratu zen:

— Udaberriro neure buruari esaten zioat berriro bideari ekingo diodala eta sastraken eta belarren artera itzuliko naizela, jezteko orduan

etxera bidean bueltan doazen behien ondora. Baina ezer ez. Ez zakiat zergatik ez dudan alde egiten hemendik. Zer egin duk orain arte hirian?

— Ez zakiat... Hasieran, denbora gehiena Union Square-n ematen nian, gero Madison Square-n. Hoboken-en egon nauk, Jersey-n eta Flatbush-en ere bai, eta orain Bowery-ko eskale bat nauk.

— Arraioa! Zin egiten diat bihar alde egingo dudala hemendik. Beldurrak airean nagok. Polizia eta detektibe gehiegi hiri honetan.

— Diru-eskean atera zitekek bizimodua aurrera... Baina sinetsidak, motel, hobe duk landetxera bueltatzea, gurasoekin, aukera duanean.

Budek kamainatik jauzi egin zuen eta, gizonari beso batetik indarrez oratuta, berarengantz eraman nahi izan zuen.

— Etorri hona, argitara, zerbait erakutsi nahi diat eta.

Budi bere ahotsa arrotza iruditu zitzaion. Urrats luzez ibili zen kamaina-ilara zurrungarian zehar. Arlotea gizon herabea zen eta bere ile eta bizar kizkurak histuak zitzaizkion, atari zaba-

lean ibiltzearen ondorioz. Bazirudien begiak mailukadaka ezarri zizkiotela buruan. Burusien arte-tik guztiz jantzita irten zen eta segitu egin zion.

Argiaren azpian, Budek alkandoraren botoiak askatu zituen, sorbalda eta beso meheak agerian utziz.

— Begirazak nire bizkarra.

— Jainkoarren! —xuxurlatu zuen gizonak, azkazal hori luzeekiko esku zikin batez orbain sakon zurien eta gorrien gainetik haztaka—. Sekula ez diat honelakorik ikusi.

— Hau aitak egin zidaan. Hamabi urtez jo eta jo aritu zitzaidan, gogoak eman zion guztietan. Ni erantzi eta katea arin batez jotzen nindian bizkarrean. Ziotenez, nire aita zuan, baina nik banekian hori ez zela egia. Hamahiru urte nituela ihes egin nian. Ni harrapatu eta orduantxe hasi zuan ni jotzen. Orain hogeita bost urte zauzkaat.

Elkarrekin hitz egin gabe euren kamainetara itzuli eta etzan egin ziren.

Kamaina ganean, Bud sabaiari beha zegoen, burusia begietaraino iristen zitzaiola. Gela-hondoko aterantz so egin eta onddo-kapelako gizon

bat ikusi zuen, zutik, purua ahoan zeukala. Bere beheko ezpainari ausiki zion, oihurik ez egite aldera. Berriro hara begiratu zuenerako gizona desagertua zen.

— Oraindik esna al hago? —xuxurlatu zuen. Eskaleak urruma egin zuen—. Zera esan nahi nian... Aitzurkada batez burua txikitu nioan. Kalabaza ustel bat ostikoka birrintzea bezala izan zuan. Esana nioan bakean uzteko, baina kasurik ez... Jainkoari beldur handia zioan eta, era berean, besteek berari beldurra izatea nahi zian. Soro bateko belar txarrak kentzen ari gintuan patata ereiteko... Hantxe utzi nian gauera arte, ahoz gora lur gainean, burua kalabaza baten gisan birrindua. Bidetik ezin izan zian inork ikusi, hesia sasitzaz beteta zegoelako. Gero, lurperatu egin nian, etxera igo eta kikara bat kafe prestatu nian. Berak ez zidaan behin ere kafea hartzen utzi. Egunsentia baino lehen altxatu eta alde egin nian handik. Nik neure artean esan nian: ni hiri handi batean aurkitzea orratz bat lastategi batean aurkitzea bezala izango duk. Nik banekian non gordetzen zuen aitak dirua. Diru-mordo handia zeukaan, hire burua bezain

handia, baina hamar dolar besterik ez nian hartu, ez ninduan ausartu eta... Oraindik esna al hago?

Eskaleak urruma egin zuen.

— Mutikotan ni Sackett zaharraren alabarekin nenbilean. Sacketten basoetako izotz-lantegira joaten gintuan elkarrekin eta esaten genian egunen batean New Yorkera etorriko ginela diru asko irabaztera, eta orain hemen nagok eta ezin diat lanik aurkitu eta beti nagok kikilduta. Detektibeak zauzkaat atzetik egun osoan. Onddo-kapela jantzita eta beroki azpian plaka bana duten gizon batzuek ere ez naitek bakean uzten. Bart emagaldu batekin joan nahi izan diat, baina begietan igerri egin zidak eta kalera bota naik... Begietan igerri egin zidak.

Kamainaren ertzean eserita zegoen, aurretantz makurtuta, xuxurlaka hitz txistukari batzuk besteari aurpegira jaurtiz. Bat-batean, eskaleak eskumuturretatik heldu zion.

— Aizak, motel, horrela jarraituz gero, erotu egingo haiz. Sosik ba al daukak?

Budek baiezkoko keinua egin zuen buruaz.

— Hobe duk niri ematea eta neuk gordeko diat. Ni azeri zaharra nauk eta kinka larri honetatik aterako haut. Jantzi azkar, joan inguruko taberna batera eta jan ezak ganoraz. Zenbat daukak?

— Dolar bat txanponetan.

— Emaidak quarter bat eta gainerakoarekin jan ezak ematen diaten guztia.

Budek prakak jantzi eta gizonari quarter bat luzatu zion.

— Gero, hona itzuli, ondo lo egin eta bihar hire herrira joango gaituk diru-mordo horren bila. Nire burua bezain handia dela esan al duk? Gero, ezkutuko lekuren batera joango gaituk gu inork ez harrapatzeko. Erdi bana egingo diagu... ados?

Budek bostekoa eman zion, mugimendu mekaniko eta zurrun batez. Gero, oinak arrastaka, aterantz jo zuen, zapaten lokarriak dilindan, eta karkaisaz betetako eskaileretan behera egin zuen.

Atertu egin zuen; baso eta belar usaineko haize hotz batek putzuak izurtzen zituen euriak garbitutako kaleetan. Chatham Square-ko jate-

txe batean hiru gizon eserita zeuden lo, kapelak begien aurrean ezarrita. Barraren atzeko gizona kirol egunkari arrosa bat irakurtzen ari zen. Bud luzaz egon zen eskatutakoaren zain. Lasai, ezer buruan ez zuela, zoriontsu sentitu zen. Eskatutakoa jaso bezain laster latako behiki xehatu xigortuari egin zion eraso, ahamen bakoitza atsegin handiz ahogozatuz, krak egiten zuten patata frijitu gozoak mihiatz hortzen kontra zanpatuz, kafe azukreztatuegi bati tarteka zurrupadak emanaz. Platera ogi-apur batez garbitu ondoren zotz bat hartu eta alde egin zuen.

Hortzak zotzez garbitzen ari zen Brooklyn-go zubiaren sarbide lohitik igaro zenean. Onddo-kapelako gizon bat purua erretzen

ari zen tunel zabalaren erdian. Bud haren ondo-ondotik igaro zen harrokeria nabarmenez. «Bost axola niri; nire atzetik jarrai dezala, hala nahi badu». Arkupeko espaloian ez zegoen inor, polizia bat baino ez, zerura begira aharrausika. Izarren artetik ibiltzea bezala zen. Behean, bi aldeetatik, kaleak argizko puntutxoez osatutako ilaretan barna luzatzen ziren, leiho beltzekiko eraikin karratuen artean. Esne Bideak ibaiaren

gainean dir-dir egiten zuen. Isil-isilik, ezari-ezarian, atoiontzi baten argiak iluntasun ezkoan zehar lerratzen ziren. Kotxe batek zubia zeharkatu zuen zutabeak triki-traka eta kableen amarauna dardarka jarritz, banjo baten harien gisan.

Brooklyngo tren jasoaren bideei eusten zieten zutabeen nahaspilara heldu zenean, bira egin eta hegoalderantz jo zuen. «Berdin zidak nora noan. Orain ezin nauk inora joan». Bere atzean, gau urdinaren ertz bat gorritzatzen hasia zen, burdina forjan gorritzatzen hasten den bezalaxe. Tximinia eta teilatu beltzetatik harago, erdiguneko eraikin soslai arrosa argiz betetzen hasi zen. Iluntasuna perla-kolorea hartzen ari zen. «Hauek denak atzetik ditudan detektibeak dituk: onddo-kapelako gizonak, Bowery-ko eskaleak, sukaldeetako emakume zaharrak, tabernariak, tranbietako begiraleak, poliziak, emagalduek, marinelak, zamaketariak, lan agentzietako morroiak... Eta eskaleak uste zian nik esango niola non zegoen aitaren diru-mordoa... Zorritsu alaena! Izorra daitezela! Bera eta detektibe malapartatu guztiak». Ibaia bare zebilen, fusil baten kanoiaren urdin metalikoa bezain distira-

tsu. «Berdin zidak nora noan. Orain ezin nauk inora joan». Nasen eta etxeen arteko itzalek anil-kolorez hautseztatuak ziruditen. Ibaia mastez inguratuta zegoen; kea, txokolate eta arrosa koloreen arteko nahasketa morea, argirantz igo-tzen ari zen. «Orain ezin nauk inora joan».

Frak dotorea jantzita, urrezko erloju katedu-narekin eta zigilu-eraztun gorri batekin, Maria Sackett ondoan duela ezkontzera doa. Lau zaldi zurik tiratutako zalgurdi batean udaletxera doa, alkateak zinegotzi izendatuko baitu. Euren atze-ko argia gero eta biziagoa da. Zetaz eta satenez apainduta doa bere ezkontzara, kotxe zuri batean, Maria Sackett ondoan duela, jendetza-renartetik igarota. Gizon batzuek euren puruak astintzen dituzte besoa jasota; beste batzuk, berriz, begirune handiz makurtzen dira; eta, azkenik, badira euren onddo-kapelei eraginez, bikoteari agur egiten diotenak ere, eta Bud zinegotzia aurrera doa bere zalgurdi dotorean eta bere emaztegai miloidunarekin... Bud zubiaren baranda gainean eserita zegoen. Ordurako eguzkia Brooklynen atzetik altxatua zen eta Manha-ttango leihoek sua hartua zuten. Halako batean,

Budek bere burua aurrerantz bota zuen, laprast egin eta esku bakar batetik helduta geratu zen, eguzkiak begiak itsutzen zizkiola. Erortzean, garrasi bat ito zitzaion eztarrian.

McAvoy kapitaina, Prudence atoiontzikoa, aginte-gelan zegoen, zutik, esku bat leman pausatutik. Beste eskuan, berriz, gaileta bat zeukan, iparrorratz-kutxaren ondoko apal batean kokatutako kafe kikanan busti berria. Gizon sendoa zen eta bekainak punta argizariztatuekiko bibote beltza bezain sarriak zeuzkan. Gaileta ahoan sartu-hurren zegoela, bat-batean, zerbait beltza erori zen uretara, untziaren brankatik metro bakan batzuetara. Instant batean, gizon bat oihuka azaldu zen makina-gelako atera:

— Norbaitek bere burua bota du zubitik behera!

— Arraioa! —esan zuen McAvoy kapitainak, bere gaileta-puska lurrera bota eta lema bueltakaz zerabilelarik.

Itsasbehera gogorrak untzia osorik biratu zuen, lasto-mutur bat bailitzan. Hiru kanpaikada entzun ziren makina-gelan. Kizki bat eskuan, beltz batek lasterka egin zuen brankarantz.

— Aizak, Gorri, hator hona laguntzera —oihu egin zuen McAvoy kapitainak.

Ahaleginak eta bi egin ondoren gauza luze, bigun eta beltz bat branka gainean paratzea lortu zuten. Kanpaikada bat. Bi kanpaikada. Kopeta ilun eta betazpitsu, McAvoy kapitainak berriro uraren korrontearen alde kokatu zuen atoiontziaren muturra.

— Bizirik al dago oraindik, Gorri? —galdetu zuen ahots zakarraz.

Beltzaren aurpegia berde zegoen eta hortzak karraskan zebilzkion.

— Ez, jauna —esan zuen gizon ilegorriak astiro—. Lepoa hautsita dauka, dudarik gabe.

McAvoy kapitainak bibotearen puska eder bat milikatu zuen, erdia baino gehiago.

— Arraioa! —auhen egin zuen—. Ederra gauza neuri gertatu zaidana neure ezkon egunean!

BIGARREN ZATIA

Lehenengo atala

Zaldi zuri baten gaineko dama handia

Goizak dar-dar egiten zuen lehenengo tren jasoan Allen Street-etik igarotzean. Eguneko argia leihoetatik sartzen zen, adreiluzko etxe zaharrak inarrosiz, konfetizko zipriztin distiratsuak tren jasoaren egituraren zuta-beetan zehar zabalduz.

Katuak zabor-latak bertan behera uzten ari ziren, tximitxak hormetara bidean berriro, gorputzadar izerdit-suak eta lo zeuden umeen lepo zikin, samurrak atzean utzita. Gizonak eta emakumeak burusien eta edredoiaren azpian higitzen ziren gelazokoetako koltxoien gainean. Ume-piloak izaren artean irteten hasten ziren negar-zotinka eta ostiko-joka.

Riverton-en kantoian, kalamuzko bizarra zuen agurea —auskalo non

*egiten zuen lo— eskabetxean pres-
tatutako jakiak saltzeko postua ezar-
tzen ari zen. Pepinilo, piper, meloi-
azal eta piperminez beteriko ontziek
piperbeltz-usain hezea gorantz
hedatzen zuten kiribilka, eta padura
baten gisan nabarmenago egiten
zen, oheen musketa-usainarekin eta
esnatu-hurren zen kale harriztatu-
aren aldarri kerratuarekin nahasita.
Kalamuzko bizarra zuen agurea —
auskalo non egiten zuen lo— horren
guztiaren erdian eserita zegoen,
Jonas bezala, bere kalabazaren
azpian.*

Eskailera karraskan, Jimmy Herfek lau pisu
igo zituen eta ate zuri batean jo zuen. Eskutokia-
ren gainean, atea hatzez markatuta zegoen eta
han kobrezko txintxetez kontu handiz eutsitako
txartel bat ageri zen, *Sunderland* izena behiala-
ko ingelesaren karaktereez idatzirik zeukana.
Denbora luzean zain egon zen, esne botila bat,

bi krema botila eta igandeko *Times* egunkariaren ale bat ondoan zeuzkala. Xuxurla bat ate ostetik, oin-hots baten karraska; gero, ezertxo ere ez. Atezangoko botoi zuri bat sakatu zuen.

— Eta gizonak esan zuen: «Margie, guztiz sorginduta naukazu», eta emakumeak erantzun zuen: «Ez geratu hor euri azpian, blai eginda zaude-eta...»

Ahotsak eskaileretan behera, gizon baten oinak botak jantzirik, neska baten oinak sandaliak jantzirik, zeta arrosazko hankak. Neska soineko arin batekin eta udaberriko kapela batekin; gizon gazteak ertz zuriko txalekoa zeraman, eta marra berdeak, urdinak eta moreak zituen gorbata.

— Baina zu ez zara mota horretako emakumea.

— Nola dakizu zuk zein motatako neska naitzen ni?

Ahotsak ezari-ezarian aienatuz joan ziren eskaileretan behera.

Jimmy Herfek berriro jo zuen txirrina.

— Nod da? —galdetu zuen hizkera aldrebesaz emakume batek atearen zirrikitu batetik.

— Miss Prynn e ikusi nahi dut, mesedez.

Zirrikitutik, aurpegi lodi baten kokotseraino jasotako kimono bat agerian, lipar batez.

— O, ez dakit jaiki den.

— Niri baietz esan zidan.

— Begida, *apud* batez itxadongo al duzu nik hanka egiteko astia izan dezadan? —esan zuen barreka emakumeak ate atzetik—. Tida, sagtu *badguda*. *Badkatu*, baina Mrs. Sundedlandek uste zuen zu alokaidua *kobdatzeda* zentozela. Batzuetan igandeetan etogtzen *dida* gu ustekabea *hadgapatzeko*.

Irriño herabeti batek ateko zirrikituaren bi aldeak estekatu zituen.

— Esnea sartuko al dut barrura?

— Zeda... ba bai, eta esedi hallen eta nik Duth-i deituko diot.

Halla oso ilun zegoen; logela itxiak, hortzetako pastak eta aurpegirako kremak isuritako usainari antzeman zekioken. Zoko batean, artean ere soin baten zantzua ikusten zen kamaina bateko izara zimurtuen gainean. Lastozko kape-lak, zetazko xalak eta gizonentzako bi beroki esekitokiaren orein-adarretatik zintzilikaturik

zeuden, anabasan. Jimmyk kulunkaulki batetik kortse bat kendu eta bertan eseri zen. Emakume-ahotsak, janzten ari zen jendearen marmar ahula eta igandeko egunkari-orrien zarata iragazten ziren geletako zutabeen artetik.

Bainugelako atea ireki zen. Ispilu handi batean islatutako argi-parrastada batek hall iluna erdibitzen zuen. Erdian buru bat agertu zen; ilea gorri beltza zuen, zut eta nahaspilaturik. Begi urdin ilun parean nabarmena zen aurpegi biribil zurbil eta hauskor hartan. Gero, adatsa arretu egin zitzaion laranja koloreko txabusina zuen bizkar lerdana korridoretik igarotzean. Urrats bat egiten zuenero orpo arrosak nagiro irteten zitzaizkion zapatiletatik.

— E, Jimmy, e! —Ruth deika ari zitzaion ate ostetik—. Baina kontuz gero, niri edo nire logelari begiratu gabe.

Erruloz beteriko buru bat ageri zen atetik, dortoka batena irudi.

— Epa, Ruth.

— Sartu barrura, hitz ematen baduzu ez didazula begiratuko. Ez nago inork ikusteko moduan eta nire logelak txerri-korta bat dirudi... Orraztu

egin behar dut, ez besterik, eta prest egongo naiz.

Gelatxo gris hura arropaz eta artisten argazkiz mukuru beteta zegoen. Jimmy bizkarra atean bermaturik zegoen. Gako batetik dilindan zegoen zeta-antzeko zerbaitek kilikak eragiten zizkion belarrietan.

— Tira, zer moduz kazetari hasberri hori?

— Orain, Hell's Kitchen-en kontu horretan ari naiz... Primeran. Eta zuk lanik aurkitu al duzu, Ruth?

— Zera... zera... Gauza pare bat mamitu daiteke aste honetan. Baina ez dira mamituko. Ene, Jimmy, itxaropena galtzen hasita nago.

Burua, ordurako errulorik gabea, indarrez inarrosi eta gaztaina argi-koloreko izur berriak orraztu zituen. Begitarte zurbila zuen, harridurak bereganatua, aho handia eta zilarrezko betazpiak.

— Gaur goizean banekien altxaturik eta prest egon beharko nuela, baina ez naiz horretarako gauza izan. Hain da samingarria altxatzea lanik ez duzula jakinda... Batzuetan burura etortzen

zait hobe dudala ohean itxarotea munduaren bukaerara arte.

— Ruth gajoa!

Neskak aurpegia hautsez tatzeko borla bat jaurtiki zion, Jimmyren gorbata eta artile urdinezko jantziaren papar-hegalak hautsez betez.

— Ez zaitez nitaz errukitu, alproja alaena!

— Polito nik neure burua txukuntzeko horrenbeste lan hartu eta gero... Zoaz pikotara, Ruth. Eta oraindik erregai-usaina ez dut gainetik kendu!...

Ruthek burua atzerantz eramanez ozenki barre eginez.

— Zu bai xelebrea, Jimmy. Hartu eskuila.

Gorritzen hasita, Jimmyk bere gorbata putz egin zion.

— Nor da atea ireki didan neska bitxi hori?

— Ixo, atearen beste aldetik dena entzuten da-eta... Cassie du izena —xuxurlatu zuen inozoiki barre eginez—. Ca-ssan-dra Wilkins... Morgan Dancers direlakoekin lan egin da. Baina ez diogu barre egin behar, oso jatorra da eta. Nik oso maite dut —eta algara egin zuen Ruthek—. Ai Jimmy, ez duzu parerik! —zutik jarri eta atxi-

mur egin zion besoko giharrean—. Zure erruagatik txoroaren pare jokutzen dut beti.

— Galdetu Jainkoari zergatik... Tira, ni goseak akabatzen nago. Oinez etorri naiz.

— Zer ordu da?

— Ordu bata baino beranduago.

— O, Jimmy, denbora oharkabea pasatzen zait... Gogoko duzu kapela hau?... O, ia-ia ahaztu zitzaidan zuri zerbait esatea. Atzo Al Harrison ikustera joan nintzen. Ezin okerrago pasatu nuen. Telefonoa garaiz hartu izan ez banu eta poliziarik deitzeko mehatxua egin ez banio...

— Begira aurreko emakume bitxi hori. Llama-aurpegia du.

— Emakume horrengatik izan behar ditut nik errezelak egun osoan jaitsita.

— Zergatik?

— O, gazteegia zara zenbait gauza jakiteko. Harritu egingo zinateke, Jimmy.

Ruth makurtuta zegoen ispilu aurrean, ezpainetako gorri bizi bat ezpainetan zehar erabiliz.

— Hainbeste gauzak harritzen naute zeren ez baitut uste garrantzi handikoa denik. Baina, tira, goazen hemendik, eguzkiak dirdira egiten du,

jendea elizatik irten eta etxera doa izugarrizko betekada egitera eta igandeko egunkaria fikusen artean irakurtzera.

— O, Jimmy, zuk ez duzu parerik!... Egon minutu batez. Kontuz, nire gonazpiko onenari lotuta geratu zara.

Korridorean ile beltz laburreko neska bat, blusa horiz jantzia, kamainaren izarak tolesten ari zen. Anbar-koloreko hautsen eta gorri biziaren azpian, Jimmyk ez zuen behingoan ezagutu atearen zirrikituetatik ikusia zuen aurpegia.

— Epa Cassie! Hau zera da... Barkatu, Miss Wilkins, hau Mr. Herf da. Esaiozu patioaren beste aldeko emakumearen kontu hori, badakizu, Sappo monjea.

Cassandra Wilkinsek bere hizkera aldrebesaz galdetu zuen mainak eginez:

— Ez al duzu uste Mr. Hegf emakume ikadagadgia dela?... Gauza benetan ikadagadgiak esaten ditu.

— Besteak sumindu baino ez du nahi.

— O, Mr. Hegf, poz handia eman dit azkenean zu ezagutzeak. Duthek zutaz mintzatu bestedik

ez du egiten. Uste dut gehiegi luzatu dudala mihia. Ikadagadgizko mihiluzea naiz.

Korridorearen beste aldeko atea ireki eta Jimmyk bere burua sudur okerreko gizon musu zuri bat bekoz beko zuela kaustu zuen; gizon hark bi tontor desberdinetan zuen bilduta bere ile gorria, lerro zuzen baten alde banatan, eta saten berdezko txabusina eta babutxa gorriak zituen.

— Zer moduz, Cassandra? —esan zuen Oxfordeko hizkera motel eta zainduaz—. Zer berri ditugu gaur?

— Bat ede ez, Mrs. Fitzsimmons Gdeen en telegdama bat izan ezik. Ni bihad Scadsdale-da joatea nahi du biok Gweenedy Theated-i buduz hitz egin dezagun... Bagkatu, Mr. Oglethogpe, hau Mr. Hegf da.

Gizon ilegorriak bekain bat jaso eta bestea jaitsi zuen, eta esku bigun bat ezarri zuen Jimmy-ren esku baten gainean.

— Herf... Herf... Zu ez zara ba Georgiako Herftarretakoa izango? Atlantan aspaldiko Herf familia bizi da.

— Ez, ez dut uste.

— Bai pena! Garai batean Josiah Herf eta biok lagun minak izan ginen. Gaur egun First National Bank-eko lehendakaria da eta Pennsylvania estatuko Scranton-eko gizonik nabarmenena; ni, berriz,... titiritero bat besterik ez naiz, txorimalo bat.

Sorbaldak jasotzean, txabusina erori egin zitzaion ilerik gabeko bular lau, zelai bat agerian utziz.

— Begida, Mr. Oglethogpe eta biok Kanten Kanta antzeztu behad dugu. Bedak irakudi eta nik dantza eginez antzeztuko dut. Egunen batean etodi behar duzu gude entseiuden bat ikusteda.

— «Zure zilborrak kikara biribil bat dirudi, sekula edari beharrik ez baitu; zure sabelak gari-multzo bat dirudi, liliz inguratua...»

— O, utzi hodi beste batedako —hortzen artean barre egin zuen emakumeak, hankak estutzen zituen bitartean.

— Jojo, itxi ate hori —esan zuen neska-ahots sakon, lasai batek gelaren barrualdetik.

— O, Elaine gajoa, lo egin nahi du-eta... Poz handia eman dit zu ezagutzeak, Mr. Herf.

— Jojo!

— Bai, maitea.

Emakume haren ahotsak ikara eman zion Jimmyri, bere baitan nagusi zen logalearen hesi gandutsua zeharkatuz. Hantxe zegoen, korridore ilunean kikilduta, Cassieren ondoan eta hitzik egin gabe. Kafeak eta ogi-xigortuak isuritako usaina nonbaitetik iragazia zen. Haien atzean, Ruth irten zen.

— Jimmy, prest nago... Ez dakit ezer utzi dudana ahaztuta.

— Niri berdin dit, ni goseak akabatzen nago. Jimmyk sorbaldatik heldu eta eztiki bultza egin zion aterantz.

— Ordu biak dira.

— Tira, adio, Cassie, seiak aldera deituko dizut.

— Oso ondo, Duthy... Poz handia eman dit zu ezagutzeak, Mr. Hegf.

Atea ixteaz batera Cassieren hizkera bihurria eten zen.

— A, Ruth, leku honek kirioak dantzan jartzen dizkit.

— Tira, Jimmy, ez zaitez pipertu jan beharra duzulako.

— Baina esadazu Ruth, zer arraio da Mr. Oglethorpe? Ez dut sekula halakorik ikusi.

— Zer? Ogle bere zulotik irten al da?

Ruthek barre-algara bat jaregin zuen. Eguzki-argi lausoaren pean irten ziren kalera.

— Esan al dizu adar nagusitik zetorrela... badakizu... Georgiako Oglethorpetarrendik?

— Eta ile gorri beltzeko emakume xarmangarri hori al du bere emaztea?

— Hara bestea! Elaine Oglethorpek ile gorri-ka du, eta hain xarmangarria ere ez da... Neska-to bat besterik ez da eta dagoeneko oso-oso gora heldu da, arraioa! Eta dena halako saio arrakastatsu bat izan zuelako Peach Blossoms-en. Badakizu, mundu guztia txoratzen jartzen duten neskato polit fin horietako bat. Baina antzezten badaki jakin.

— Lotsagarria da berak morroi hori izatea senartzat.

— Oglek ahal izan duen guztia egin du Elaine aurrera ateratze aldera. Berarengatik izan ez balitz, koruan egongo zen oraindik...

— Ederra eta piztia.

— Piztia bai... Kontuz ibili, Jimmy, inoiz begi-tan hartzen bazaitu.

— Zergatik?

— Tipo arraroa da, oso arraroa.

Tren jaso batek eguzki-argi marratua suntsi-tu zuen euren buru gainean. Jimmyk Ruthen ahoa ikus zezakeen, hitzak osatzen ari zela.

— Begira! —deiadar egin zuen gutxituz zihon-an zalaparta hura baino ozenkiago—, goazen campusera *brunch*-a jatera eta gero Palisades aldera paseoan ibiltzera.

— Ai Jimmy, ez duzu parerik! Zer da *brunch*-aren kontu hori?

— Zuk gosaldtu eta nik bazkaldtu egingo dugu-la esan nahi du.

— Barrez lehertzekoa izango da.

Barre-algaretan itota, Ruthen besotik heldu zion. Bidean aurrera, zilarrezko saredun zorroak ukondoaren kontra jotzen zuen.

— Eta nor da Cassie, Cassandra misterio-tsua?

— Ez zenioke barrerik egin beharko, on hutsa da-eta... Kanitxe zuri zantar hori izango ez balu

sikiera... Bere logelan izaten du beti, handik atera gabe, eta kriston kiratsa botatzen du. Cas-siek nirearen ondoko gela du. Gainera, a zer-nolako senargaia duen! —Ruthek inozoki egin zuen barre—. Kanitxea baino okerragoa. Elkarre-kin ezkontzekoak dira eta gizonak beretzat har-tzen du gajoaren diru guztia. Jainkoaren izenean, ez esan inori!

— Nik ez dut, bada, nori esanik.

— Eta Mrs. Sunderland ere badago...

— A bai, komunean sartzean erdikusi dudala uste dut. Emakume zahar bat, txabusina eta lotarako txano arrosa batekin.

— Jimmy, harritu egiten nauzu... Beti galtzen ditu ordezeko hortzak —hasi zen Ruth.

Tren jaso batek isilarazi zituen gainerako hitzak. Jatetxeko atea haien atzean ixteaz bate-ra, gurpilek errailen gainean sortutako zalaparta itota gertatu zen.

Musika-banda bat «When it's Appleblosson Time in Normandee» kanta jotzen ari zen. Kon-trargitan, leku hura kezko kiribilez beterik ageri zen. Orobat, paperezko apaingarriak eta ondoko iragarkiak nonahi ziren: EGUNEKO OSTRAK, JAN TXIR-

LAK ORAIN, DASTATU FRANTSSES ERARA PRESTATUTAKO GURE MUSKUILU GOZOAK (Nekazaritza Departamentuak gomendaturik). TXULETAK GOIAN zioen letra gorridun kartel baten azpian eseri ziren eta Ruth-ek Jimmyri ogi-makilatxo batez kartel hura seinatu zion:

— Jimmy, uste al duzu egokia dela eskalopea jatea gosaritarako? Baina, lehenengo eta behin, nik zera nahi dut: kafea, kafea, kafea...

— Nik zerra txiki bat jango dut tipularekin.

— Ez, nirekin arratsaldea emateko asmorik baduzu behintzat, Mr. Herf.

— O, ederki, zure agindutara jartzen ditut neure tipulak, Ruth.

— Horrek ez du esan nahi musurik ematen utziko dizudanik.

— Nola? Palisades-en?

Ruthen irribarre inozoa barre-algara bihurtu zen. Jimmy lotsagorritu egin zen.

— *Inoiz ez diot berorri halakorik eskatu —izan ziren bere hitzak.*

Eguzki-argia lastozkokapelaren hegai batean zuten zulo txikietatik sartzen zen tantaka, neska-aren begitartea bustiz. Azkar zihoan urrats laburrak eginez, bere gonaren meharra zela eta. Zeta mehea zeharkaturik, eguzkiak kili-kiliak eragiten zizkion, bizkarra ferekatzen zion esku bat bailitzan. Giro sargorian kaleak, dendak, igandeko jantzia zeraman jendea, lastozko kape-
lak, itzalkinak, tranbiak eta taxiak distiraz blai sortzen ziren haren inguruan, metalezko bizar-
xaflen artetik balebil bezala. Neskak aurrera egi-
ten zuen, itsumandoka, zarata kirrinkarien nahaspilan zehar.

Lincoln Square-n, neska bat astiro zihoan bere zaldi zuriaren gainean. Gaztaina-koloreko adatsa zuen, gorabeherarik gabeko izur faltsue-
tan bildua, dilindan, zaldiaren zerra gainean eta urre-antzeko bordatuz egindako zaldi-estalkia-
ren gainean, non letra berdez eta puntu gorri biziz idatzita DANDERINE irakur baitzitekeen. Dolly Warden motako kapela berde bat zuen, luma gorri bizi batez hornitua. Eskubabes zuriko esku batez airoski eragiten zien bridei; beste eskuak,

aldiz, urrezko heldulekuarekiko zigor bat astintzen ziharduen.

Ellenek neska ikusi zuen bere aurretik igarotzean. Gero, lur-zerrenda berde bat urrutitik begietsiz, kale-buru bat hartu eta parkera heldu zen. Mutil batzuk beisbolean ari ziren, belar zapaldu-usaina zabalduz. Itzalpeko jarlekuetatik bat bera ere ez zegoen libre. Autoen errepidearen bihurgune batetik igarotzean, Elleni takoi zorrotzak beherantz hasi zitzaizkion, asfaltoan barna. Hankak zabal-zabalik, bi marinel eguzkitan zeuden, jarleku batean etzanda. Ellen haien aurretik pasatzean batek musua emateko keinua egin zuen ezpainez; marinelen begi irrikatsuak sumatu zituen bere lepoan, iztarretan eta orkatiletan iltzaturik. Ahaleginak egin zituen ibiltzean aldakak hainbeste ez kulunkatzeko. Bidexkan zehar, zuhaixketako hostoak ardaiturik zeuden. Eguzkiak argizatutako eraikin batzuek parkea zedarritzen zuten hegoaldean eta ekialdean; mendebaldean, berriz, eraikinak moreak ziren, itzalez zipriztinduak. Dena zen garra, izerdia, hautsa; dena ere poliziek eta igandeko jantziek estutua. Zergatik ez ote zuen tren jaso hartu?

Ellenek lastozko kapelarekiko mutil gazte baten begi beltzei so egin zion, zeinak, ia-ia espaloia ukituz, Stutz turismo-kotxe gorri bat gidatzen baitzuen. Bere begiek Ellenerenetan izarniatu egin zuten. Mutilak burua atzerantz eramanez, irribarre egin zion, irribarre aldrebasa, eta hala-ko moldez aurrerratu zituen ezpainak non Ellenek haien ukitua sumatu baitzuen bere masailean. Mutilak galga sakatu eta atea eskuaz ireki zuen. Ellenek begiak indarrez kliskatu eta, kokotsa gorantz, aurrera egin zuen. Bi uso, iduneko berde metalikoa eta koralezko hankak zituztenak, Elleneren bidetik baztertu ziren ahateen ibilkeraz. Agure batek urtxintxa bat limurtu nahi zuen poltsa bateko kakahueteak jan zitzan.

Goitik beheraino berdez jantzita, zaldi zuri baten gainean zihoan Bataloi Galduko Dama... Berdea, berdea, danderinea... Lady Godiva, ile-mataza bikain batez hornitua...

Sherman jeneralaren urrezko estatuak arreta etenarazi zion. Lipar batez gelditu egin zen naka-rrak bezala diz-diz egiten zuen Plaza hotelari behatzeko... «Bai, horixe dun Elaine Oglethorperen etxea...». Washington Square-ko autobus

batera igo zen. Igande arratsaldean, Bosgarren Etorbidea arrosaz jantzirik luzatzen zen, hautsez beterik, dardarati. Gerizpean, kapela luzea eta lebita zeramatzan gizon bat zegoen. Itzalkinek, uda-jantziek, lastozko kapelek dir-dir egiten zuten eguzkitan; izan ere, han eguzkiak, lauki distiratsuak sortaraziz, etxeen goiko leihoetan izarniatzen zuen, argizko islak limusinen eta taxien pintura gogorraren gainean pausatzen ziren bitartean. Usain berezia zegoen airean, gasolinak, asfaltoak, mendak eta talko-hautsek isuria. Bikoteak autobuseko jarlekuetan bil-bil eginda ibiltzen ziren, han-hemenka higituz eta elkarri talka eginez; eta, horrela, oharkabean, giroari perfume-usain halako bat eransten zioten. Erakusleiho batean koadroak, gaztaina-kolorako tapizak eta antigoaleko aulki bernizatuak erakusgai zeuden, kristalen atzean. St. Regis. Sherry's. Bere aldemeneko gizonak botinak eta eskularru horiak zituen. «Denda bateko sailarduradunen bat, seguru asko». St. Patrick elizaren parean pasatzean, argitzalean irekita zeuden ate batzuetatik zetorren intsentsu-usain nabarmenari antzeman zion. Delmonico's. Elle-

nen aurrean, mutil gaztea besoa limurtu nahian zebilen, disimuluan, aldameneko neskaren bizkar franela grisezkoan zehar.

— Zorte zikin ustela Joe gizajoarena! Hemetzi urte besterik ez baditu ere, ezkondu egin behar izan du.

— Benetan uste al duzu zorte txarra izan duela?

— Myrtle, ez naiz gutaz ari.

— Nik apustu egingo nuke baietz. Eta, gainera, inoiz ikusi al duzu neska hori?

— Nik apustu egingo nuke ez dela berea.

— Zer?

— Umea.

— Billy, a ze mihi pozoitsua zurea!

Berrogeita Bigarren Kalea. Union League Club-ean.

— Oso bilera dibertigarria izan zen, oso dibertigarria... Denak zeuden han. Behingoagatik, hitzaldiak oso atseginak izan ziren. Lehengo garaiak ekarri zizkidaten gogora —karraka egin zuen norbaiten ahots landuak haren bizkar atzetik.

Waldorf-a.

— Banderak ez al dira politak, Billy?... Hain bitxia den bandera hori Siam-eko enbaxadorea-gatik da, hementxe hartu du-eta ostatua. Gaur goizean irakurri dut egunkarian.

Zu eta biok, laztana, bereizten garenean, zure ezpain gainean ezarriko dut ezin adierazizko neure azken musua eta alde egingo... bihotza, hotza, zotza... poza, arroza, airosa... Zu... Zu eta biok, laztana...

Zortzigarren Kalea. Autobusetik jaitsi eta Brevoort-eko beheko pisuan sartu zen. George eserita zegoen, zain, atea atzean zuela, karteraren hesgailua behin eta berriro itxi-irekika.

— Tira, Elaine, bazenuen garaia etortzeko. Jende gutxirengatik emango nituzke nik hiru ordu laurden zain.

— Ez egin errietarik niri. Primeran pasatu dut. Urteak ziren hain ondo pasatzen ez neula. Egun osoa izan dut neuretzat eta oinez etorri naiz 105. kaletik 59.era, parkean zehar. Jende xelebrez beteta zegoen.

— Nekaturik egon behar duzu.

Mutilaren begitarte meheak, non begi distiratsuak zimur antzemangaitzen sare batean atzi-

tuak baitzituen, aurrera zegien atergabe, neska-
ren aurpegirantz, bapore baten branka irudi.

— Oker ez banago, egun osoan bulegoan eman duzu.

— Bai, auzi zahar batzuk birraztertzen ibili naiz. Ezin naiz inorengan fidatu lanik errazena, egunerakoa, egiteko ere. Hortaz, neuk neure kasa egin behar dut.

— Ba al zenekien nik ziurtzat nuela hori esango zenidala?

— Zer?

— Hiru ordu laurdeneko itxaronaldiarena.

— Zuk gehiegi dakizu beti, Elaine... Pastarik nahi al duzu tearekin?

— Baina nik ez dakit ezertxo ere, horixe da arazoa... Nik uste limoi apur bat hartuko dudala.

Edontziek txintxin egin zuten haien inguruan.

Zigarroen ke urdinean zehar aurpegiak, kapelak eta bizarrak higitzen ziren, ispiluetan isla berdexkak sortaraziz.

— Baina laztana, hau betiko konplexua besterik ez da. Beharbada hori egia izango da gizonen kasuan; emakumeei dagokienez, ordea, ez

du ezer esan nahi —esan zuen emakume baten ahots burrunbariak ondoko mahaitik.

— Zure feminismoa hesi gaindiezin baten modukoa da —gaineratu zuen gizon baten ahots lakar eta zehatzak—. Neurekoi hutsa naizela? Jainkoak daki nolako sufrimenduak ekarri dizkidan horrek.

— Arima arazten duen sua, Charley...

George hizketan ari zen Elaineren begirada erakarri nahian.

— Zer moduz Jojo ospetsua?

— O, ez dezagun horretaz hitz egin.

— Zenbat eta gutxiago hitz egin horretaz, orduan eta hobeto, ezta?

— Begira, George, ez dut nahi zuk barre egiterik Jojoren kontura, azken batean, nire senarra da dibortzioak bereizten gaituen arte... Ez dut nahi zuk barre egiterik. Nolanahi ere, zu zakarre-gia eta lañoegia zara bera ulertzeko. Jojo oso gizon berezia da, tragiko samarra.

— Jainkoaren izenean, ez dezagun senarrez eta emazteez hitz egin. Garrantzitsuena zera da, Elainetxo, zu eta biok hemen gaudela eserita eta inork ez gaituela gogoitarazten... Esan, noiz iku-

siko dugu berriro elkar, egiaz elkar ikusi, egiaz...?

— George, ez al gara «egiazalegi» jartzen ari? —barre egin zuen Elaineek eztiki, katilutik edaten ari zela.

— Nik, bada, gauza asko esan nahi dizkizut, gauza asko galdetu... Elaineek irribarretsu begiratu zion, haginkada sartu berria zion marrubizko pasteltxo bat erpuruaren eta hatz erakuslearen artean kulunka erabiliz.

— Horrela jokutzen al duzu bekatari gizajo bat akusatuen jarlekuan duzunean? Nik uste nuen zera zela... Non egon zinen zu otsailaren hogeita hamaikako gauean?

— Ez, ni serio ari naiz, baina zuk ezin duzu ulertu edo ez duzu ulertu nahi.

Mahai ondoan gizon gazte bat zuten eurei beha, zutik, kulunka txiki bat egiten zuela.

— Epa, Stan, nondik demonio atera zara zu? —esan zuen Baldwinek begiak goratuz, irribarre-rik egin gabe.

— Badakit, Mr. Baldwin, oso zakarra naizela, baina axola al zaizu ni zure mahaira esertzen banaiz lipar batez? Norbait dabil nire bila, nik

ikusi nahi ez dudan norbait. Jainkoarren, ispilu hori! Tira, ez dira niregana etorriko, zurekin ikusten banaute.

— Miss Oglethorpe, hau Stanwood Emery da, gure abokatu-bulegoko bazkide nagusiaren semea.

— O, niretzat oso pozgarria da zu ezagutzea, Miss Oglethorpe. Nik bart ikusi zintudan; zuk, ordea, ez ninduzun ikusi.

— Antzerkira joan al zinen?

—Eszenatokira irteteko zorian egon nintzen. Zu eder-ederra zeunden, nire ustez.

Gizonak azal gorrixka eta beltzarana zuen, baita begi urduriak ere, eta haietatik hurbil sudur zorrotz eta delikatuak. Bere aho handia ez zen sekula ere geldirik egoten eta bere ile izurra, gaztaina-kolorekoa, txukun-txukuna. Ellen bat eta besteari begira geratu zen, bere baitan barreka. Hirurak oso zurrun zeuden, euren aulkietan eserita.

— Gaur arratsaldean dama danderinea ikusi dut —esan zuen Ellenek—, eta berealdiko zirrara eragin dit. Halaxe irudikatzen nuen nik dama handi bat zaldi baten gainean.

— Eraztunak atzamarretan eta ezkilak behatzetan. Eta mina zernahi bazterretara zabalduko du, aurrera egin arau —errezitatu zuen buruz eta azkar Stanek, ahapean hitz eginez.

— Hori musika da, ezta? —galdetu zuen Ellenek barreka—. Ni txantxetan ari naiz beti.

— Eta zer moduz unibertsitate hori? —galdetu zuen Baldwinek ahots lakarrez, batere adeitasunik gabe.

— Betiko lekuan dago, nik uste —esan zuen Stanek lotsagorriturik—. Su emango ahal diote ni hara heldu aurretik!

Altxatu egin zen.

— Barkatu, Mr. Baldwin... Muturra barruraino sartu dut behar ez zen lekuan.

Ellerengana jiratzean, emakumeak atzeman zuen haren ahotik zerion whisky-usaina.

— Barkatu, mesedez, Miss Oglethorpe.

Oharkabean Ellenek eskua luzatu eta esku ihar mehe bat topatu zuen, berea indarrez estutuz. Stan urrats luzeak eginez urruntzen ari zen, zinbulu-zanbulu urrundu ere, eta, halako batean, zerbitzari batekin behaztopa egin zuen.

— Ezin dut tipo deabru hori ulertu —esan zuen ziplo Baldwinek—. Emery gizajoa etsita dago. Ez da batere tontoa eta nortasun handia du eta hori guztia, baina edan besterik ez du egi-ten eta kriston iskanbilak sortu... Nik uste dut behar duena lan egitea eta baloreen zentzua eskuratzea dela. Diru gehiegi, horixe da uniber-tsitateko mutil gehienen galgarria. Tira, Elaine, Jainkoari eskerrak, orain gu berriro bakarrik gaude. Nik bizitza osoa eman dut lanean, hama-lau urtez geroztik. Iritsi da dena bazterrean uzte-ko garaia, bolada batean behintzat. Bizi egin nahi dut eta bidaiatu eta zoriontsua izan. Ezin dut hiriko bizimodu eroa eraman lehen bezala. Tentsioa arindu beharra daukat... Hortxe sartzen zara zu.

— Nik ez dut inoren ihes-tutua izan nahi —esan zuen barreka begiak txilotuz.

— Atera gaitezen gaur arratsaldean hiritik. Edozein leku da ona. Egun osoa bulegoan eman dut, lanean ito beharrez. Izan ere, nik igandeak gorrotatu egiten ditut.

— Eta nire entseia?

— Zu gaixorik egon zintezke. Taxi bati deituko diot.

— Jojo hemen dago, alajaina!... Epa, Jojo! — Ellenek bere eskularruak astindu zituen buru gainetik.

Aurpegia hautseztatutik eta, lepo luzearen gainean, ahoan irribarre ondo ikasitako bat erakusten zuelarik, John Oglethorpek aurrera zegien mahai beteen artean. Zerrenda beltzekiko antzeko eskularruen barnean estu-estu, eskua luzatuz zihoan.

— Zer moduz, maitea? Hau da sorpresa eta atsegina!

— Elkar ezagutzen duzue, ezta? Hau Mr. Baldwin da.

— Barkatu tartean sartzen banaiz... zera... tête a tête honetan.

— Bai zera! Eseri, *highball* bat edango dugu... Zu ikusteko irrikan nengoen, Jojo, benetan... Horretaz ari garela, gaur gauean ezer egiteko ez baduzu, etorri salto batean antzokira, unetxo baterako besterik ez bada ere. Entzuidazu nire papera irakurtzen eta, gero, esaidaizu zer iruditzen zaizun.

— Bai noski, laztana, ezerk ez dit atsegin handiagorik emango.

Kirioak dantzau, George Baldwingek atzerantz egin zuen, aulkiaren bizkarrari helduz.

— Zerbitzari... —eta hitzok halako doinu metaliko sarkor batez ahoskatu zituen—, hiru *Scotch highballs* azkar, mesedez.

Oglethorpek kokotsa bere makilaren zilarrezko heldulekuan ezarri zuen.

— Konfiantza, Mr. Baldwin —ekin zion—, senar-emazteen arteko konfiantza oso gauza ederra da. Lekuak eta denborak ez diote inola ere eragiten. Gutako bat Txinara makina bat urtetarako joango balitz ere, elkarren arteko adiskidetasuna ez litzateke inola ere aldatuko.

— Badakizu, George, Jojori zera gertatzen zaiola, gaztetan Shakespeare neurritz gora irakurri zuela. Alde egin beharra daukat, bestela Merton-ek erretolika ederra botako dit berriro... Hitz egin dezatela gero industriako esklabotzaz. Jojo, hitz egiozu berdintasunari buruz.

Baldwin altxatu egin zen. Ahalke amini bati antzeman zekioken masailetan.

— Utziko al didazu zurekin antzokira joaten?
—esan zuen hortzak estutuz.

— Sekula ez diot inori uzten nirekin inora joaten... Eta zu, Jojo, ez edan gehiegi, ni antzezten ikusteko asmorik baduzu, behintzat.

Bosgarren Etorbidea arrosa eta zuria ageritzen hodei arrosa eta zurien azpian; haize fina zebilen, freskoa zirudiena tabakoaren keak eta koktelek sortarazitako itobeharraren eta solasaldi gogaikarriaren ondoren. Esku bati eraginez, Ellenek taxilarien arduradunari agur egin zion irribarretsu. Gerora, bi begi urdurirekin topo egin zuen: bereetan finkatuta zituen, serio, kopeta soildu xamarreko aurpegi beltzaran bat sorleku zutela.

— Zure zain nengoen. Utziko al didazu zu inora eramaten? Ford-a izkinan dut... Mesedez.

— Baina antzokira besterik ez noa. Entseiua dut.

— Ederki; ondo baderitzozu, haraino eramango zaitut.

Pentsakor, Ellen eskularru bat janzten hasitzen.

— Tira, konforme, baina traba handia eragin-
go dizut.

— Baita zera ere... Hementxe dago, izkinaren
beste aldean... Oso zakarra izan naiz zuri horre-
la oldartuta, ezta? Baina hori beste kontu bat
da... Nolanahi ere, zu ezagutu ahal izan zaitut.
Nire Ford-ak Dingo du izena, baina hori ere beste
kontu bat da...

— Polita da beti gazte-jiteko norbait ezagu-
tzea. New Yorken ez dago gazte-jiterik duenik.

Motorea martxan jartzeko makurtzeaz bate-
ra, aurpegia gorri bizi ipini zitzaion.

— O, ni gazte-gaztea naiz, gazteegia auke-
ran.

Motoreak zerbait zezeldu zuen eta gero,
marrumaka hasi zen. Stan ziztuan sartu zen
kotxe barruan eta, besoa luzatuz, estarterra
kendu zuen.

— Ez nintzateke harrituko bidean geldiarazi-
ko bagintuzte. Isilgailua aske dut eta erortzeko
zorian dago.

Hogeita Hamalagarren Kalean, zaldi zuri
baten gainean errepidea astiro-astiro zeharka-
tzen ari zen neska bat ikusi zuten; gaztaina-kolo-

reko adatsa zuen, gorabeherarik gabeko izur falsuetan bildua, dilindan, zaldiaren zerra gainean eta urre-antzeko bordatuz egindako zaldi-estalkiaren gainean, non letra berdez eta puntu gorri biziz idatzita DANDERINE irakur baitzitekeen.

— Atzamarretan eraztunak ditu —esan zuen kantuka, bozina jotzen zuela— eta behatzetan ezkilak. Neskak zahiaren gaitza sendatuko du, nonahi ere sortzekotan.

Bigarren atala

Istmoko Jack Zangoluzea

Eguerdia Union Square-n. Dena salgai. Helbide-aldaketa. SEKULAKO HUTSEGITEA EGIN DUGU. Hautsez betetako asfalto gainean belauniko, mutikoek distira ematen zieten zapatei, zapata baxuei, koloretako oinetako-ei, botoiekiko zapatei, oxford-ei. Eguzkiak distira egiten zuen kardabera bailitzan, distira atera berria zuten zapata bakoitzaren puntan. Hemendik zen, lagun, jauna, andereñoa, andrea, dendaren atzealdean fantasia ehunaren diseinu berriak. Goreneko kalitatea, behereneko salneurriak... Jaunak, andereñoak, andreak... SEKULAKO HUTSEGITEA EGIN DUGU. Helbide-aldaketa. Eguerdiko eguzkiak kiribilak marrazten zituen chopsuey usaineko giro nahasian gaindi. Sordinaz jotako

*musika kiribilkariak Hindustan zekar-
kigun gogora. Mutilak fooyong-a
jaten zuen, neskak chowmein-a
jaten zuen. Aho beterik egiten zuten
dantza. Soineko urdin mehe bat jan-
tzi beltz leun baten kontra marrus-
katurik, kizkur horailizunak ile beltz
leunaren kontra estutuz.*

*Hamalagarren Kalean behera. «Ain-
tza, Aintza, armada dator»; neskak
urrats luzeak emanek. Aintza, Ain-
tza, lauko lerrotan. Bazetorren Sal-
bazio Armadako musika-banda, disti-
ratsu, itsas urdin.*

*Goreneko kalitatea. Behereneko pre-
zioa. Helbide-aldaketa. SEKULAKO
HUTSEGITEA EGIN DUGU. Helbide-aldake-
ta.*

Liverpool-etik, Raleigh bapore britainiarra,
Kettlewel kapitaina; 933 bal, 881 kutxa, 10 saski,
8 oihal-fardel; 57 kutxa, 89 bal, kotoizko haria
zuten 18 saski; 156 feldro-bal, 4 amianto-bal,
100 bobina-zaku...

Joe Harlandek makinaz idazteari utzi eta gora begiratu zuen, sabaira. Atzamar-puntak minduta zeuzkan. Urahiak, manifestuek eta mahuka hutsik zeuden gizonak isuritako zahar-usaina nagusi zen bulego hartan. Leihotik patioko horma ilunaren zati bat ikusi zuen eta leiho bate-tik, begirik kendu gabe, bisera berdedun gizon bat beha zegoen, inozoki. Bulegoko mutilak ohar bat utzi zuen bere mahaiaren ertzean: «Mr. Polloc-ek 5:10etan ikusi nahi zaitu». Zintzurra uzurtu egin zitzaion. «Kale gorrira botako nau». Bere atzamarrek berriro ekin zioten tekleatzeari:

Glasgow-tik, Delft bapore holandarra, Tromp kapitaina; 200 bal, 123 kutxa, 14 upela...

Joe Harland alderrai ibili zen Battery-n zehar harik eta hutsik zegoen jarleku bat topatu zuen arte; hara inguratu eta astunki eseri zen bertan. Jersey-ren atzean, eguzkia azafrai-koloreko lurrin kalapitatsuan barna hondoratzen ari zen. «Tira, hau amaitu egin duk». Eguzki-sartze hari begira geratu zen, luzaro geratu ere, haginlari-kontsultategi bateko koadroa balitzan. Handik igarotzen ari zen atoiontzi batetik kezko zirimola izugarriak altxatzen ziren, beltz eta gorrimin,

untzitik gora kiribilka igoz. Joe eguzki-sartze hari begira zegoen, zain. «Hara, hemezortzi dolar eta berrogeita hamar zentabo nitian nik lehen, ken gelaren sei dolarrak, garbitegiaren dolarra eta laurogeita lau zentaboak eta Charley-ri zor dizkiodan lau dolar eta laurogeita hamar zentabok; guztira, zazpi dolar eta laurogeita lau zentabo, hamaika dolar eta laurogeita lau zentabo, hamabi dolar eta hogeita hamalau zentabo kentzen baditut hemezortzi dolar eta berrogeita hamar zentabotatik, sei dolar eta hamasei zentabo. Horixe duk daukadana. Hiru egun ditiat lana aurkitzeko, ezertxo ere edan gabe eman ez gero. Ene Jainkoa, aldatuko al zaidak inoiz zortea! Lehen nik zoria on xamarra izaten nian». Belau-netan dardarizoa zuen eta sabelaren goialdea irakiten zeukan. «Porrot ederra hire bizitza, Joseph Harland. Berrogeita bost urte eta ez lagunik, ez dirurik, hire egunak alaitzeko».

Belak triangelu gorritzat bat zirudien, ontziak zementuzko pasealekutik urrats gutxi batzuetara aurtzatu zuenean. Ezpeleta beste aldera aldatzeaz bat, mutil bat eta neska bat batera makurtu ziren. Beltzaran zeuden bi-biak eta ile horia

zuten, atari zabalean ibiltzearen ondorioz koloregabetua. Untzia badiako itzal gorrixken artetik desagertzen ari zela, Joe Harlandek ausiki egin zien bere ezpainei, malkoei eustearren. «Ene Jainkoa, zerbait edan beharra zaukaat».

— Hau bai delitua! Hau bai delitua! —zioen behin eta berriro ezkerretara zuen gizonak. Joe Harlandek burua jiratu zuen; gizonak zimurrez beteriko aurpegi gorria zuen, eta zilar-koloreko ilea. Bi atzamar lohiren artean egunkari baten antzerki-sailaren orriari eusten zion, teink.

— Begira neska aktore pinpirin hauek! Erdi biluzik azaltzen ez dituk ba! Zergatik ez ditek bat bakean uzten?

— Ez duk gogoko euren argazkiak ikustea egunkarietan?

— Berriro zioat: Zergatik ez ditek bat bakean utziko?... Batek lanik ez badu, batek dirurik ez badu, zioat nik: Zertarako balio ditek gauza horiek?

— Jende askori gustatzen zaiok egunkarietan horrelako argazkiak ikustea, esaterako, niri neuri, garai batean...

— Garai batean lana zegoan... Orain ez duk lanik? —purrust egin zuen bortizki.

Joe Harlandek ezetz egin zuen buruaz.

— Orduan, zer arraio dela eta? Bat bakean utzi beharko liketek, ezta? Lanik ez elurra etorri arte, orduan kaleak palaka garbitzeko lanak hasiko dituk eta.

— Ordura arte zer egingo duk hik?

Agureak ez zuen erantzun. Berriro egunkaria zegoen lekura makurtu, orrian begiak finkatu eta murmurikatu zuen:

— Erdi biluzik zaudek guztiak, hau delitua duk, esan diat ba.

Joe Harland altxatu eta aldendu egin zen handik.

Kasik gaua zen; belaunak zurrun zituen luzaro eserita egon izanaren ondorioz. Tirriki-tarraka aurrera zihoan bitartean ohartu zen gerrikoak sabel puztua estutzen ziola. «Gerra-zaldi giza-joa! Hik pare bat zurrut behar dituk hire gauzei buruz pentsatzeko». Ate birakarietatik halako garagardo-usain zehaztugabe bat zetorren. Barrualdean, zerbitzariaren aurpegiak madari

gorrixka bat zirudien, kaobazko apal eroso baten gainean ezarria.

— Atera whisky bat.

Whiskyak, bero eta lurrintsua, kiskali egin zion eztarria. «Honek bizi-indarra ematen zidak, bai horixe!». Edaria bukatu ez bazuen ere, barra-ra hurreratu eta urdaiazpiko-otarteko txiki bat eta oliba bat jan zituen.

— Beste whisky bat, Charley. Honek bizi-indarra ematen zidak. Denbora gehiegi eman diat ezertxo ere edan gabe; horixe gertatzen zaidak niri. Ni horrela ikusita ez huke sinetsiko, lagun, lehen Wall Street-eko Aztia deitzen zidatela; hori giza aferetan zorteak duen aparteko garrantziaren beste erakusgarri bat baino ez duk... Bai jauna, atseginez. Gora osasuna eta doala pikotara zoritxarra! Honek bizi-indarra ematen zidak, bai horixe! Tira, nik esango nitek zuen artean ez dagoela bat bera ere sekula espekulazioren batean sartu ez denik, eta, esan, zuetako zenbat ez dituk etsia harturik atera? Horra hor giza aferetan zorteak duen aparteko garrantziaren beste erakusgarri bat. Baina ez nire kasuan, jaunak, nik hamar urtez jokatu diat

Burtsan, hamar urtez, gau eta egun lan eginda, ez diat negozio bat bera ere begien bistatik galdu, eta hamar urtez hiru aldiz baino ez diat egin kale, azken aldia kontuan hartu gabe. Jaunak, sekretu bat esango dizuet, garrantzi handiko sekretu bat... Charley, atera beste erronda bat nire lagun on hauentzat, nik ordainduko diat, eta hik ere edan zerbait... Ene, a ze kilimak eragiten dituen... Jaunak, giza aferetan zorteak duen aparteko garrantziaren beste erakusgarri bat. Jaunak, nire zortearen sekretua... egiazkoa duk, benetan diotsuet; baina zuek egiaztatu behar duzue hori, garai hartan argitaratutako egunkari, artikulua, aldizkari eta hitzaldietan. Gizon batek, alproja batek, gero ikusi ahal izan nuenez, nire bizitzari buruzko detektibe nobela idatzi zian, *Arrakastaren sekretua* izenekoa; gaia aztertu nahi izanez gero, liburu hori New Yorkeko biblioteka publikoan eskuragarri duzue... Nire arrakastaren sekretua zera zuan... Eta zuek horren berri duzuenean zeuekiko barre egin eta esango duzue: «Joe Harland mozkortuta zagok, Joe Harland inozo hutsa duk...». Barre egingo duzue, bai... Lehenago esan dizuedanez, hamar

urtez ibili ninduan irabazien tarteekin lanean, dida erosten nian eta sekula entzunak ez nituen izenen akzioetan ipintzen nian neure dirua eta beti irabazten nian. Diru pila eskuratu nian. Lau banketxe nitian eskura. Azukrearen eta gutaper-txaren negozioan sartu ninduan buru-belarri, nire garaiari aurea hartuz. Baina zuek irrikan zaudete nire sekretua jakiteko, inoiz erabilgarri izango zaizuelakoan... Inola ere ez... Zeta urdinezko gorbata bat zuan, amak txikitan egin zidana... Ez egin barre, arraioa... Ez, ez dizuet adarra jo nahi. Zortearen aparteko garrantziaren beste erakusgarri bat baino ez duk. Beste lagun batekin mila dolar Louisville-ko eta Nashville-ko tituletan arriskatu nituen egunean, gorbata hura nian jantzita. Hogeita bost minututan hogeita bost puntu egin zitean gora. Hura izan zuan hasiera. Gero, pixkanaka-pixkanaka ohartu ninduan gorbata lepoan ez nuen guztietan dirua galtzen nuela. Zahar-zaharra eta zirpilsua zenez, poltsikoan eramaten saiatu ninduan. Alferrik. Jantzita eraman behar nian, ulertzen didazue?... Ondoren datorrena betiko kontua duk, jaunak... Neska bat zegoan tartean eta nik maite

nian, arraioa! Erakutsi nahi izan nioan ni bera-
rengatik edozer egiteko prest nengoela eta
eman egin nioan gorbata. Nik itxura egin nian
txantxetan ari banintz bezala eta barre egin
nian, kar, kar, kar. Berak esan zian: «Ez du ezer-
tarako balio, guztiz zirtzildurik dago»... hartu eta
di-da sutara bota zian... Beste erakusgarri bat...
Aizak, lagun, beste zurrut batera gonbidatuko
nauk? Ustekabean gaur arratsaldean fondorik
gabe nagok... Eskerrik asko, jauna. A ze indarra
ematen duen!

Metroko bagoi jendetsuan mutil mezularia
zihoan, Mary Garden usaina zuen emakume luze
ilehori baten bizkarraren kontra estu-estu egin-
da. Ukondoak, fardelak, sorbaldak, ipurmamiak
han-hemenka higitzen ziren, tren expres kirrin-
kariak emandako astinaldietan elkar topeka.
Kolpe bat hartuta, beraren Western Union kape-
la izerditsua buruaren beste aldera joan zitzaion.
«Nik horrelako emakume bat banu, horrelako
emakume bat, merezi izango likek inork trena
geldiaraztea, argiak itzaltzea eta trena deskarri-

latzea. Nik neure egin nezakek emakume hori, horretarako kemenik eta sosik izanez gero». Trenaren abiadura mantsotu zenean emakume ile-horia haren gainean erori zen. Begiak itxi eta arnasari eutsita, haren sudurra emakumearen lepoan iltzatu zen, bortizki. Trena gelditu egin zen. Jendetzak bultzaka atera zuen mutila bagoitik.

Zorabiatuak, balantzaka igo zen kaleraino, non etxeen argiak klisk-klask ari baitziren. Upper Broadway jendez beterik zegoen. Laurogeita Hamaseigarren Kalearen kantoian marinel batzuk, binakako edo hirunakako taldetan banaturik, nagikerian zebiltzan. Gozotegi batean bi otarteko jan zituen, bata urdaiazpikoarena eta bestea foie-grasena. Dendako emakumeak gurin-koloreko ilea zuen, metroko emakumearena bezalakoa, baina gizenagoa eta zaharragoa zen. Artean bigarren otartekoaren azala murtzikatzen ari zelarik, igogailuan sartu eta Lorategi Japoniarrera igo zen. Sarrerako toldoaren kulunka amaigabeak begietan, hausnarrean eseri zen une batez. «Jainkoarren, gogotik egingo ditek barre, mezulari bat horrela jantzita ikustean.

Hobe diat alde egitea. Nire telegramak banatze-ra noak».

Eskaileretan behera gerrikoa estutu zuen. Burumakur Broadwaytik gora egin zuen Ehun eta bosgarren kaleraino, gero ekialderantz jo Columbus Avenue-ra, ate, sute-eskailera, leiho eta erlaitz guztiei erreparatuta. «Hementxe duk». Bigarren pisuan besterik ez zegoen argia. Bigarren pisuko txirrina jo zuen. Kisketak hots egin zuen. Eskailerak lasterka igo zituen mutilak. Emakume baten burua ageri zen: ilea katramilaturik zuen, bisaian labearen aurrean egon izanak sortarazitako gorritasuna erakutsiz.

— Telegrama bat Santiono-rentzat.

— Hemen ez da bizi izen hori duenik.

— Barkatu, andrea, okerreko txirrina jo dut nonbait.

Atea muturraren aurrean itxi zion, danbateko batez. Bere aurpegi zurbil eta goibela zorroztu egin zen bat-batean. Azkar, oin-puntetan igo zen azken eskailbururaino, gero, eskaileretan gora egin zuen tranpol bateraino. Irekitzean, sarraillak kurrinka egin zuen. Mutilak arnasari eutsi zion. Behin errautsez beteriko teilatura iritsita, tran-

pola poliki-poliki utzi zuen bere lekuan. Lerroka, tximiniak zaindari zeuden, beltzak, mutilaren inguruan, kaleen argi itsugarriaren kontra. Piko-txean eta kontu handiz etxearen atzeko ertzero hurbildu eta teilatu-hoditik behera lerratu zen sute-eskaileraraino. Lurra hartzean lorontzi bat ukitu zuen oin batez. Dena beltza. Leiho batetik, emakume-usaina nagusi zen gela batean sartu zen eta egin gabeko ohe baten burukoaren azpitik eskua limurtu zuen, apain-mahai batean zehar; aurpegirako hautsen pote bat irauli zuen; kaxoi bat astiro-astiro tira eginez ireki zuen; erloju bat, iskilin bat sartu zuen atzamar batean, paparreko orratz bat, zerbait zimurtu zen barruko zoko batean. «Billeteak, billete-erroilu bat. Alde egin ezak, harrapatuko haute-eta bestela. Jaitsi sute-eskaileratik beheko pisura. Argirik ez. Beste leiho bat irekita. Errazago ezin. Gela berbera. Txakur- eta intsentsu-usaina zagok, drogaren bat». Bere burua lausoturik ikusi zuen apain-mahaiko ispiluan, itsumustuka aurrera egiten ari zen bitartean. Atzamar bat krema hotza zuen pote batean sartu eta praken gainean garbitu zuen. «Kaka zaharra!». Biguna zen zerbaitek

jauzi egin zuen haren oin artetik, garrasika. Gela meharraren erdian dardarka geratu zen. Zoko batean txakurtxoak zaunka hasi zen, eztarria puskatu beharrez.

Halako batean gela argiz bete zen.

Atea ireki eta neska bat agertu zen, eskuan errebolber bat zuela, mutila destatuz. Neskaren atzean gizon bat zegoen.

— Zertan ari zara? Western Union-eko mutila da-eta!...

Argiak kobre-koloreko nahaspila moduko bat sortzen zuen neskaren ilearen inguruan, gorputza zeta arrosazko kimonoaren azpian zedarritzen ziola. Gizona gaztea, beltzarana eta sendoa zen, eta alkandora lotu gabe zuen.

— Tira, zertan ari zara gela honetan?

— Mesedez, andrea, goseak ekarri nau hona, goseak eta ama gajoak, bera goseak akabatzen dago-eta.

— Ez al da zoragarria, Stan? Lapurra da — neskak errebolberra astindu zuen—. Atera korridorera.

— Bai andrea, nahi duzun guztia, andrea, baina ez deitu poliziari. Gogoan izan nire ama, goseak akabatzen dago-eta.

— Ongi da, baina ezer hartu baduzu, itzuli.

— Ez dut astirik izan, benetan.

Stan astunki pulunpatu zen aulkian, barre eta barre.

— Ellie, hartu pastela... Ez nuen uste kapaz izango zinenik.

— Ez al dut paper hau antzeztu joan den udan?... Emaidazu errebolberra.

— Ez dut errebolberrik, andrea.

— Tira, ez dizut sinesten, baina alde egiten utziko dizut.

— Jainkoak bedeinka zaitzala, andrea.

— Baina diru apurren bat irabaziko duzu telegramak banatzen.

— Joan den astean bota ninduten kalera. Goseak behartzen nau hau egitera.

Stan altxatu egin zen.

— Dolar bat emango diogu eta esaiozu antzarrak ferratzera joateko.

Mutila kanpoan zela neskak billetea luzatu zion.

— Zu bai emakume aparta! —esan zuen ito-larriak jota.

Billeteari eusten zion eskuari muin eman zion mutilak. Eskua zegoen lekura makurtu eta muin heze hura ematean, une txiki batez erdikusi ahal izan zion soina, besoaren azpian, zeta arrosazko mahuka eroriaren bitartez. Beherakoan, artean dardarka, burua jiratu eta neska-mutilak elkar besarkaturik ikusi zituen, berari begira. Begiak malkotan zituen mezulariak. Billetea poltsikoan sartu zuen.

«Motel, aurrerantzean ere neskekin horren samurra bahaiz, egunen batean ibai ondoko udako hotel horretan suertatuko haiz... Nolanahi ere, gauzak ez dituk hain gaizki joan». Isil-misilka txistu eginez tren jasorantz jo eta aldirietako trena hartu zuen. Aldian behin, eskua praken atzeko poltsikoan sartzen zuen billete-erroilua ukitzeko. Lasterka, eraikin bateko hirugarren pisura igo zen: arrain frijituak eta gasak isuritako usaina nagusi zen bertan. Hiru aldiz jo zuen kristaldun ate zikin bateko txirrina. Geroxeago, hazkozkoz jo zuen atean.

— Hi al haiz, Moike? —xuxurlatu zuen emakume batek.

— Ez, Nicky Schatz naiz.

Hena-koloreko ilea zuen emakume aurpegi argal batek ireki zuen atea. Larruzko beroki bat jantzirik atera zen, barruko arropa xume batzuk erdi agerian zituela.

— Zer dugu?

— Ezer ez, emakume dotore-dotore batek bete-betean harrapatu nindinan eta ezetz jakin zer egin zuen.

Aztoraturik eleka emakumeari atzetik jarraitu zion horma zartatuekiko jantokiraino. Mahai gainean edontzi zikin batzuk eta botila bat Green River zeuden.

— Dolar bat eman eta zintzoa izateko esan zidan.

— Ez duk izango!

— Hartu, hemen daukan erloju bat.

— Ingersoll bat duk. Nik ez zioat honi erlojua deitzen.

— Bada, begira hau ondo —billete-erroilua atera zuen poltsikotik—. Zer dion sos polit honen aurrean?... Milaka billete zauden.

— Utzidak ikusten.

Emakumeak eskutik kendu zizkion billeteak, indarrez, begiak ireki-ireki eginda.

— Ziria sartu diate.

— Erroilua lurrera bota eta eskuak bihurrika erabili zituen; balantzaka, keinu judu bat egin zuen.

— Ba, antzerkian erabiltzeko dirua duk, txoriburu alaena, tontolapikoa halakoa!

Elkarren ondoan eserita zeuden ohe ertzean, inozoki barre eginez. Gela zetazko arropa txikiz beterik zegoen, aulkien gainean; apain-mahai gaineke arrosa hori sorta batek isuritako freskura zimela sumatzen zen, gelako giro itogarrian. Besarkaturik zeuden. Halako batean gizona askatu zen eta emakumearengana makurturik musu eman zion ahoan.

— Gurean lapurtzea ere... —esan zion gizonak arnasestuka.

— Stan...

— Ellie.

— Uste nuen Jojo izango zela —xuxurlatu zuen eztarria korapilaturik zuela—. Oso gogoko du kuxkuxean ibiltzea.

— Ellie, ez dakit nola bizi zaitezkeen berarekin jende horren guztiaren artean. Zu, hain xarmagarria izanik, ez zaitut ikusten horren guztiaren erdian.

— Erraza zen zu ezagutu aurretik... Eta benetan diotsut, Jojo ondo dago. Oso bitxia eta zorigaiztokoa da.

— Baina zu, maitea, beste mundu batekoa zara... Zuk Woolworth Building-en gainean bizi beharko zenuke, kristal landuz eta gereziendorez egindako apartamentu batean.

— Stan, bizkarra beltzaran duzu.

— Igeri egiteagatik da.

— Horren goiz?

— Uste dut joan den udatik badela zerbait.

— Zorte handiko mutila zara. Nik ez dut sekula behar bezala ikasi igerian.

— Neuk irakatsiko dizut... Begira, datorren igandean, goizean goiz, Dingo-an sartu eta Long Beach-eraino joango gara. Bukaera aldean seku-

la ez dago inor... Ez duzu bainujantzia eramane beharrik ere.

— Atsegin dut zure gorputz gihar eta sendoa, Stan... Jojo zuria eta pottoloa da, emakumea dirudi ia.

— Jainkoarren! Orain ez hitz egin Jojoz.

Zutik, Stanek hankak irekita zituen, alkandorra lotzen ari zen bitartean.

— Aizu, Ellie, goazen zerbait edatera... Ene Jainkoa, orain ez nuke inorekin topo egin nahi, gezur pila bat esan beharko nioke-eta... Behar izanez gero, aulki bat burura botako nioke.

— Badugu astirik. Inor ez dator etxera gaueko hamabiak arte... Buruko min nazkagarri hau izango ez banu, ez nengoke hemen.

— Ellie, bai atsegin duzula zeure buruko mina.

— Bai, liluratuta nauka, Stan.

— Nik uste Western Union-eko lapur horrek bazekiela... Jainkoarren... Lapurreta, adulterioa, sute-irtenbidetik ihes egitea, teilatu-hodietan zehar katuka ibiltzea... Hori da bizitzea, hori!

Ellenek gogor heldu zion eskutik, biak batera eskaileretatik behera jaisten ari ziren bitartean.

Itxura kaskarreko atoa, postontzien aurrean, Stanek beso artean hartu zuen emakumea, burua atzerantz bota zion eta musu eman. Arna-sestuka kalean behera egin zuten Broadwayraino, arin. Ellenek Stanen eskua beso azpian zuen, ukondoaz saihetsen kontra estututa. Isilka-misilka, akuario baten kristal lodi batetik bezala, Ellenek bere igaroan aurpegiak, fruta-erakusleihoak, lekale-poteak eta oliba-pitxerrak ikusten zituen, bai eta lore gorriak loradenda batean, egunkariak eta errotulu argidunak ere. Ibaitik zetorren haize-bolada bat sumatu zuen Ellenek aurpegiaren. Aurrera egiten zuen bitartean, tupusteko begirada distiratsuak —lastozko kapelen azpitik jaurtikiak—, kokotsak, ezpain meheak, mutur okerrak, Kupidoren arkuak, gose-itzalak masailen azpian eta gizon-emakume gazteen aurpegiak airean zebiltzan haren inguruan, sitsen gisa. Urrats luzeak eta bateratuak egiten zituen, gau gartsu eta horian zehar.

Nonbaiteko mahai batean eseri ziren. Orkestra taupaka ari zen.

— Ez, Stan, ez dut ezer edan nahi... Edan zeuk.

— Baina Ellie, ez al zara primeran sentitzen ni bezala?

— Are hobeto... Ezin izango nintzateke hobeto sentitu... Ezin izango nuke edontzi bat edan, behar besteko arretarik eskaini ezin diodalako.

Ellenek aieru egin zuen haren begien distiraren aurrean. Stan guztiz mozkortuta zegoen.

— Nahiago nuke zure gorputza fruta jangarri bat izango balitz —zioen behin eta berriro.

Ellen denbora-pasa zegoen galestar erara prestatutako untxi zatitxo hotz batzuk sardexkaz bihurritzen. Bat-batean bortizki hasi zen jaisten, txirrista batetik bezala, asturaren amildegi zirraragarriaren sakonguneetarantz. Salaren erdian, leku karratu batean, lau bikote tangoa dantzatzen ari ziren. Ellen altxatu egin zen.

— Stan, etxera noa. Bihar goizean goiz altxatu beharra daukat eta egun osoa entseiatzen eman. Deitu hamabietan antzokira.

Stanek buruaz baiezko keinua egin eta beste *highball* bat prestatu zuen beretzat. Ellen haren aulkiaren atzean geratu zen lipar batez, haren ile harrotu sarriari so. Stan eztiki hasi zen bere golkorako bertsoak xuxurlatzen.

— *Afrodita ikusi dut, zuria, akatsgabea... ederki... Adatsa aske eta ortozik... ederki... Egizu diz-diz mendebaldeko uretan barrena, ilunabarreko suaren gisa. Gogoz bestera ikusi dut... Olerki ederra, arranopola!*

Broadwayra irtetea oso gustura sentitu zen berriro. Kale erdian tranbiaren zain gelditu zen. Aldian-aldean taxi bat haren ondo-ondotik igarotzen zen. Ibaitekin bapore-adar baten aurrean luzea zetozen, haize beroaren altzoran garraiatuak. Beraren baitako sakonguneetan, milaka gnomo dorre garaiak eraikitzen ari ziren, dorre hauskorak, distiratsuak. Tranbia errailetatik behera zihoan, burrunbatsu, eta gelditu egin zen. Gora-koan, halako batean, Stanen gorputzaren usaina etorri zitzaion gogora, bere besoetan artean izerditan. Aulkian astunki eseri eta ezpainei ausiki egin zien, garrasika ez hastearren. «Ene bada, ikaragarria dun maiteminduta egotea». Aurrean arrain-aurpegidun bi gizon zituen, kokotsik gabeak biak ala biak; noiz hizketan noiz barreka ari ziren, euren belaun lodia zartaka joz.

— Esaten dizut, ba, Jim, Irene Castlek liluratu ta nauka... Onestep-a dantzatzen ikusten duda-

nean iruditzen zait aingeruak ahapeka abesten ari direla.

— Zera... hori oso argal dago.

— Nolanahi ere, berak lortu du Broadwayn inoiz izandako arrakastarik handiena.

Ellen tranbiatik jaitsi eta ekialderantz jo zuen, 105. Kale mortu eta babesgabea hartuta. Loak eta koltxoiek isuritako usain txarra limurtzen zen leiho estuekiko etxeetatik. Estolden ondoan, zaborrontziei sekulako kiratsa zerien. Atondo baten itzalean, gizon bat eta emakume bat balantzaka zeuden elkar gogor besarkaturik. Gau on elkarri esateko ordua. Ellenek irribarre egin zuen, zoriontsu. «Broadwayko inoizko arrakastarik handiena». Hitz horiek, igogailu baten gisan, neska abiadura zorabiagarrian eraman zuten gora berekin, goi-goiko eremuetaraino. Han errotulu argidunek izpi gorriak, urrezatuak eta berdeak bilbatzen zituzten; han orkideo-usaineko zabaltzak zeuden eta urre berde koloreko soineko bat jantzita Stanekin dantza egindako tango baten doinu geldia aditzen zen, milaka txalok haien inguruan eztanda egiten zuten

bitartean. «Broadwayko inoizko arrakastarik handiena».

Ellen eskailera zuri zartatuetan gora zihoan. Ate aurrean, «Sunderland» idatzia zuen plaka bat ikusi zuen eta halako higuin-sentsazio bat nagusitu zen haren baitan. Zutik geratu zen luzaro, bihotza azkar taupaka, giltza dingilizka zuela sarraila aurrean. Gero, bat-batean giltza sarrailan sartu eta atea ireki zuen.

— Txori arraroa, Jimmy, txori arraroa.

Herf eta Ruth Prynne elkarren ondoan eserita zeuden, inozoki barreka, pate-platerkada bana aurrean zutela, jatetxe zaratatsu eta sabai baxuko baten zoko ezkutu batean.

— Badirudi munduko aktore sasikomiko guztiek hemen jaten dutela.

— Izan ere, munduko aktore sasikomiko guztiak Mrs. Sunderlanden etxean bizi dira.

— Zer berri dugu Balkanetatik?

— Balkanak... ondo...

Ruthek lasto beltzezko kapela zuen, erpinaren inguruan mitxoleta gorriez apaindua. Haren

atzealdetik, Jimmyk jendez gainezka zeuden mahai batzuei behatu zien non aurpegiak gandu berdexka batean lausotzen baitziren. Bi zerbitzari zurbilek eleketen kulunkaren pentzutan aurre-ra zegiten. Begiak zabal-zabalik, Ruth begira geratu zitzaion Jimmyri, apio-zurtoin bati ausiki-ka.

— Ene, mozkor-mozkor eginda nago! —esan zuen zizaka Ruthek—. Segituan igo zait burura. Ez al da izugarria?

— Tira, zer izan zen 105. Kaleko kalapita?

— Ederra galdu duzu! Barrez lehertzekoa izan da. Jende guztia korridorera atera zen, Mrs. Sunderlandek ilea erruloz beteta zuen, Cassie negarrez eta Tony Hunter zutik atean, pijama arrosa bat jantzita...

— Nor da hori?

— Gaztetxo bat... Baina Jimmy, ez al dizut inoiz Tony Hunterrez hitz egin? Txori arraro bat, Jimmy, txori arraro bat.

Jimmy ohartu zen lotsagorritzen ari zela. Aurrerantz makurtu zen.

— A! Hori al zen? —esan zuen zurrun.

— Azkenean asaldatu zara. Jimmy, onartu behar duzu asaldatu egin zarela.

— Ez, inola ere ez. Aurrera, bada, bota zabor guztia.

— O, Jimmy, barrez lehertzekoa zara... Bada, Cassie negar-zotinka ari zen, txakurtxo zaunka eta Costello ikustezina «Polizia» oihuka eta etiketa-jantzidun gizon ezezagun baten besoetan erori zen konorterik gabe. Eta Jojok pistola bat zuen eskuetan, nikelezko pistola txiki bat, ur-pistola baten modukoa, nik dakidala... Bere senean zegoen bakarra Elaine Oglethorpe zela ematen zuen... Badakizu, zure haur-gogoan hainbesteko zirrara sortarazi zuen irudi Tizianotar hura.

— Benetan diotsut, Ruth, nire haur-gogoari ez zion zuk uste bezainbesteko zirrarak sortarazi.

— Eta azkenean Ogle horrek, antzezpen hartaz gogaiturik, oihi egin zuen ahots burrunbariz: «Desarma nazatela ala emakume hau hilko dut!». Eta Tony Hunterrek pistola kendu eta bere gelara eraman zuen. Orduan, Elaine Oglethorpek pitin bat makurtuta eta aktoreak eszenatokira ateratzean egin ohi duten bezala, esan zuen:

«Gau on denoi», eta letxuga baino freskoago sartu zen bere gelan. Ikuskizun polita, ezta?

Bat-batean Ruthek ahotsa behekitu zuen.

— Jatetxeko jende guztia guri begira dago baina... Eta benetan diotsut, hau dena ez da batere atsegina. Okerrena, ordea, ez duzu oraindik entzun. Ogle horrek atean pare bat aldiz jo zuen, gogor; erantzunik ez, ordea. Gero, Tony-rengana jo zuen eta, begiak zuri —Forbes Robertson bezala, Hamlet-en—, gerritik heldu eta esan zion: «Tony, gizon dohakabe batek eska al lezake asilorik gaur gauerako zure gelan?». Ni aho zabalik geratu nintzen, benetan.

— Baina Oglethorpe ere horrelakoa da? Ruthek baietz egin zuen buruaz.

— Orduan zergatik ezkondu zen berarekin?

— Tranbia batekin ere ezkonduko zen hortik etekinik aterako zuela uste izan balu.

— Benetan diotsut, Ruth, nik esango nuke dena alderantziz ulertu duzula.

— Jimmy, zu lañoegia zara. Baina utzidazu istorio tragikoa bukatzen... Bi-biak desagertu eta atea ixteaz batera, sekula imajina zenezakeen iskanbilarik handiena gertatu zen korridorean.

Gutxi balitz, Cassie, noski, nerbio-atake batek jota egon zen denbora osoan. Bainugelara joan nintzen berarentzako amonio-gatzak hartzera eta itzultzean ikuskizuna gori-gori zegoen. Barrez lehertzekoa izan zen. Costello andereñoak nahi zuen Oglethorpetarrak egunsentiarekin batera kalera botatzea, bestela berak alde egingo zuen eta. Mrs. Sunderlandek behin eta berriro auhenka zioen antzerkiaren munduan emandako hogeita hamar urtetan ez zuela halako eszenarik ikusi, eta etiketa-jantzidun gizonak, Benjamin Arden izeneko hori... badakizu, *Jim Honeysuckle*-n paper txiki bat egin zuena..., esan zuen Tony Hunter bezalako jende guztiak kartzela merezi zuela, Oheratu nintzenean, nahaspilak, artean, bere horretan segitzen zuen. Oraindik harritzen zara horren guztiaren ondoren lo geratu nintzela ikusita eta, horren ondorioz, zuk, gizajo horrek, ordubete eman zenuela nire zain Times Drug Store-n?

Eskuak poltsikoan, Joe Harland *Oreinaren jazarpena* izeneko koadroa begiesten ari zen

logelako sarreran, zein burdinazko bere ohe dar-
daratia zedarritzen zuen horma berde-grisean
gaizki eskegita baitzegoen. Bere atzamar izoz-
tuak etengabe mugitzen ziren praken poltsikoen
barruan. Ahapeka hitz egiten zuen, gorabehera-
rik gabe: «O, hau dena zortea duk, baina hauxe
duk Merivaletarrengana jotzen dudan azken
aldia. Emilyk eman egingo zidaan, agure zikoitz
madarikatu horrengatik izan ez balitz. Emilyk
oraindik bihotz puskatxo bat badik. Baina baziru-
dik inor ez dela ohartzen gauza hauetan ez dela
zertan errudunik egon. Zortea, besterik ez, eta
Jainkoak ondo zakik behiala nire eskutik jan ohi
zutela». Bere ahots ozenak belarriak birrintzen
zizkion. Ezpainak estutu zituen. «Txotxatzen hasi
haiz, maitea». Harat-honat zebilen ohearen eta
hormaren arteko bitarte estuan zehar. Hiru
urrats. Hiru urrats. Konketara hurbildu eta pitxer
batetik edan zuen. Urak egur ustelaren eta ur
zikinerako ontzien zaporea zuen. Azken zurruta-
dan edana jaulki zuen ahotik. «Azpizun-xerra on
bat behar diat, ez ura». Ukabilak elkarren kontra
kolpekatu zituen. «Zerbait egin behar diat. Zer-
bait egin behar diat».

Berokia jantzi zuen praken atzealdeko taratada bat estali nahairik. Mahuka listuek kilimak eragiten zizkioten eskumuturretan. Eskailera ilunek karraska egiten zuten. Hain indarge zegoen non barandari heldu behar izan baitzion beldur zen-eta lurrera ez ote zen eroriko. Ate batetik irtetean, atsoa oldartu egin zitzaion beheko korridorean. Ileizuna alde batera okertua zuen, *pompadour* orrazkera itogarriaren azpitik ihes egiteko asmoz edo.

— Mr. Harland, eta noizko hiru asteotako alokairu hori?

— Txeke bat kobratzera noa oraintxe bertan, Mrs. Budkowitz. Oso ulerkorra izan zara kontu honetan... Eta agian jakin nahi izango duzu espero dudala, edo hobeto esanda, ziur nagoela datoren astelehenetik aurrera nire egoera askoz hobea izango dela.

— Hiru aste, aski duk txo... Ez diat gehiago itxarongo.

— Baina nire andere maitagarri hori, nire ohoreagatik zin egiten dizut...

Mrs. Budkowitzek sorbalda altxatu zuen. Bere ahotsa goratu egin zen, ahula eta kexatia, kakahuete-gurdi baten txistua bailitzan.

— Ekarri hamabost dolar horiek, bestela beste norbaiti emango zioat gela.

— Gaur arratsaldean bertan ordainduko dizut.

— Zein ordutan?

— Seietan.

— Ederki, emaidak giltza.

— Baina nik ezin dut hori egin. Jo dezagun berandu iristen naizela.

— Hor zagok koska. Ekarri giltza hori... Ez diat gehiago itxarongo.

— Ongi da, tori giltza. Ulertuko duzunez, zure jokabide iraingarri honen ondoren ezinezkoa zait zure teilatupean jarraitzea.

Mrs. Budkowitz barreka hasi zen ahots zakarrez.

— Ongi duk, ekarri hamabost dolar horiek eta heure maleta heuretzat berriro.

Harlandek hari batez lotutako bi giltza ezarri zizkion esku gris baten gainean, atea danbateko batez itxi eta azkar abiatu zen kalean zehar.

Hirugarren Etorbidearen kantoian gelditu zen, arratsaldeko eguzki beroaren pean dardarka. Belarrien atzetik izerdia zerion. Ahulegi zegoen madarikazioka hasteko. Egundoko zalapartaldiak aditu ziren, bata bestearen atzean, tren jasoak handik igarotzean. Etorbidean zehar kamioiek kirrinka egiten zuten hautsa harrotuz, gasolinaren eta zaldi-gorotz zapalduaren usaineko hautsa. Harlandek bere bideari ekin zion, emeki-emeki, Hamalaugarren Kalerantz. Kalekantoian batean gelditu zen zigarro-usain limurtzaile eta goxo-epel bati atzemanda, esku bat sorbalda gainean ezarri baliote bezala. Lipar batez denda txikiari begira geratu zen, purugileak bere atzamar tindatu eta finez tabako-orri hauskorrak nola erabiltzen zituen erreparatuta. *Romeo y Julieta* markako puruak, Argüelles Morales etxeak eginak, gogora ekarrita, arnasa hartu zuen, sakonki. Urratu beharreko eztainupaper irristakorra; tentu handiz kendu beharreko eraztuna; bolizko labana txiki-txikia, muturra haragia bailitzan kontu handiz ebakitzekoa; poxpolu-usaina, ke-inhalazio luzea, ke garratza, sarkorra, trinkoa, gozoa. Eta orain, jauna, Northern

Pacific konpainiaren bonu-jaulkipen berriarekin lotutako negozio txiki hori... Ukabilak hertsizituen bere ziraren poltsiko itsaskorretan. «Giltza kentzea ere atso madarikatu horrek! Ikusiko dik nor naizen, kaka putza! Agian Joe Harland behea jota egongo duk, baina oraindik ez dik bere harrotasuna galdu».

Ekialderantz jo zuen Hamalagarren Kanean zehar eta, pentsatzeko astirik hartu gabe —bere onetik irteteko arriskua zuen bestela—, paperdenda txiki batean sartuta atzealdera joan zen, aiko-maiko. Bulego txiki baten atalasean gelditu zen, duda-mudako, non gizon lodi, burusoil eta begi urdin bat tapa birakorreko idazmahai baten aurrean eserita baitzegoen.

— Epa, Felsius —esan zuen Harlandek, karrika.

Gizon lodia aztoratuta altxatu zen.

— Jainkoarren! Mr. Harland, zu al zara?

— Joe Harland bera, Felsius... eta egoera penagarri xamarrean.

Barre-irriño bat hutsaldu zitzaion eztarrian.

— Tira... Mr. Harland... eser zaitez.

— Eskerrik asko, Felsius... Felsius, porrot eginda nago, behea jota.

— Bost urte izango dira zu ikusi ez zaitudala, Mr. Harland.

— Bost urte hauek txar-txarrak izan dira niretzat... Zortea da dena, nik uste. Nirea ez da aldatuko mundu honetan. Gogoan al duzu behin espekulatzaleei ziria sartu ondoren sekulako zoramena sortu nuela bulegoan? Eguberri haietan gabonsari ederra eman nien bulegoko langilei.

— Halaxe da, Mr. Harland.

— Dendako jarduera aspergarria izango da Wall Street-ekoaren aldean.

— Gusturago dut, Mr. Harland. Hemen ez dut nagusirik.

— Eta zer moduz emaztea eta haurrak?

— Oso ondo, oso ondo; zaharrena institututik irten berria da.

— Nire izena duena?

Felsiusek baiezkotzea egin zuen buruaz. Artega, bere atzamar saltxitxa-itxurakoez idazmahaiaren ertzaren kontra kolpe txikiak ematen ari zen.

— Gogoan dut mutil horren alde zerbait egin nahi nuela egunen batean. Bai xelebrea dela bizitza!

Harland indarge hasi zen barreka. Garondoraino iristen zitzaion halako hotzikara bat sentitu zuen, balizko zorabio baten iragarle. Eskuak belaun gainean hertsu eta besoen giharrak uzkuritu zituen.

— Ikusten duzunez, Felsius, kontua hauxe da... une honetan diru-arazo larriak ditut... Zuk badakizu gauza horiek nolakoak diren.

Felsiusek idazmahaian finkaturik zituen begiak. Izerdi-tantak zerizkion bere buru soilari.

— Denok izaten ditugu zorte txarreko boladak, ezta? Mailegu txiki-txiki bat eskatu nahi dizut, egun gutxi batzuetarako, dolar bakar batzuk besterik ez, esan dezagun hogeita bost dolar, harik eta konbinazio batzuk...

— Mr. Harland, ezin dut... —Felsius altxatu egin zen—. Sentitzen dut, baina printzipioak beti printzipio. Nik ez dut sekula zentimo bakar bat ere eskatu, ezta utzi ere. Ziur nago zuk ulertuko duzula...

— Ongi da, dena esanda dago —Harland apalik altxatu zen—. Emaidazu quarter bat... Orain ez naiz lehen bezain gaztea eta bi egun daramatzat ezer jan gabe —murmurikatu zuen bere zapata pitzatuei begira.

Harlandek eskua idazmahairaino luzatu zuen, orekari eusteko. Felsiusek atzera egin zuen, hormarantz, kolpe bat saihestu nahirik edo. Atzamar lodiak dardarka, berrogeita hamar zentaboko txanpon bat eman zion. Harlandek hartu egin zuen, eta hitz erdirik ere esan gabe, buelta eman eta kalera bidean behaztopa egin zuen. Felsiusek zerrenda moreko sudurzapi bat atera zuen poltsikotik, bekokia xukatu eta bere gutunetara itzuli zen.

Merkatarien arreta Mullen etxeko lau produktu superfin berrietara bideratzeko ausardia izan dugu. Produktu horiexek gomendatzen dizkizuegu, konfiantza osoz gomendatu ere, gure bezero zareten guztioi; horra hor abiaburu berri eta paregabe bat papergintzaren arloan...

Zinematik atera ziren, argi elektriko osaturiko puntu distiratsuen aurrean begiak kliskatuz. McAvoyk zigarro bat piztu zuen hankak irekita

eta begiak bere baitan bildurik; anartean Cassie so geratu zitzaion. Gizon sendokotea zen hura eta zezen-lepoa zuen. Bere jaka botoi bakarrekoa zen; laukiekiko txalekoa zuen eta, txakurburu batez apaindutako iskilinba bat ere, brokatuzko gorbatan iltzaturik.

— Kaka putza gaurko pelikula! —esan zuen purrustaka.

— Bada, nidi asko gustatu zait bidaiei buduzko pelikula, *Modgis*, nekazadi suitzad haiek dantzatzen eta. Hantxe banengo bezala sentitzen nintzen.

— Kriston beroa egiten zuen... Zerbait edan nahi nuke.

— Baina *Modgis*, hitza eman zenuen —esan zuen zinkurika.

— Bai, soda bat nahi dut, ez zaitez urduritu. Ene ba, atseginez edango nuke bat!

— Gedo, *pagkeda* joango gada, osteda bat egiteda.

Cassiek betileak behehitu zituen.

— Ongi da, *Modgis* —murmurikatu zuen hari begiratu gabe. Amini bat dar-dar eginez, besotik heldu zion eskuaz.

— Diruz horren izorratuta ez banengo sikiera...

— Nidi begdin zait, Modgis.

— Niri, ordea, ez, alajaina!

Columbus Circle-n, botika batean sartu ziren. Neskak udako jantzi berde, more eta arrosaz; gizon gazteen hiru ilara zeuden salmahaian zehar; gizon bakoitzak bere lastozko kapela jantzirik zuen. Cassie atzean geratu eta Morrisi so egin zion jendetzaren artean nola egiten zuen aurrera miretsita. Atzean, mahai baterantz makurtuta, gizon bat zuen neska batekin hizketan. Euren kapela-hegalen atzean gordeta zituzten aurpegiak.

— Orduan, nik esan nion: «Hezur hori beste txakur bati eman», eta dimisioa aurkeztu nuen.

— Kale gorriara bota zintuztela esan nahi duzu.

— Ez, benetan diotsut, dimisioa aurkeztu nuen niri dimitituarazi baino lehen. Bazenekien morroi hori txerri ustel bat besterik ez dela? Ez dut zorrik izan nahi berarekin. Ni bulegotik irtean deitu egin zidan... «Zerbait esango dizut, gazte: beti hutsaren hurrengoa izango zara hiri

honetako nagusia nor den ez dakizun bitartean eta hori zu ez zarela ohartzen ez zaren bitartean».

Morrisek bainila sodarekin nahasita zuen izozki bat luzatu zion.

— Ametsetan berriro, Cassie, elurretako txorritxo.

Irribarretsu, begiak distiratsu, edontzia hartu zuen. Morris Coca Cola bat edaten ari zen.

— Eskedgik asko —esan zuen neskak.

Izozki-koilarakada bat zurrupatu zuen bere aho biribila nabarmenduaraziz.

— Ene, Modgis, gozo-gozoa dago.

Arku elektrikoek isuritako argi-zipriztinen arteko bidexka ilunpean galtzen zen. Argi zeiharren eta itzal mugikorren artetik, hautsez beteriko hostoen eta belar zapalduaren usaina zetoarren eta, tarteka ere, zuhaixken azpiko lur bustiaren lurrin freskoa.

— A, oso-oso atsegin dut nik pagkea —esan zuen kantu-doinuan, korrokada bati eutsita—. Ikusten, Modgis? Ez nuke hodgelako izozkidik jan behag, haizeak sogtzen dizkit eta.

Morrisek ez zuen ezer esan. Besoaz gerria inguratu eta soina hainbeste estutu zion ezen, ibiltzerakoan, bien izterrak elkar igurtzitzen ari baitziren.

— Orduan Pierpont Morgan hil da... Milioi pare bat utzi balizkit bederen...

— O, Modgis, zodagadgia izango litzateke! Non biziko ginateke? Centgal Pagk South-en.

Atzera begira zeuden, Columbus Circle-ko kartel argidunen distirari so. Ezkerrera argia ikus zezaketen, fatxada zuriko etxe-multzo baten gortinez haraindi. Gordean Morrisek ezker-eskuin begiratu zuen eta, gero, musu eman zion. Cassie haren ezpainenatik itzuri egin zen.

— Ez, agian nodbaitek ikusiko gaitu —xuxurlatu zuen arnasestuka.

Bere barnean, dinamo baten moduko zerbait tek burrunba egiten zuen, burrunba.

— Modgis, *zed* edo *zed* godde dut isilean zudi esateko... Uste dut Goldweizedgek *paped* bedezi bat emango didala bere *hudgengo* ikuskizunean. Bigadgen konpainia ibiltadiko eszena-zuzendaria da eta pisu handia du *enpgesaden badguan*. Atzo ikusi ninduen dantzan.

— Zer esan zuen berak?

— Esan zidan nagusiak datodgen astelehe-
nean elkadgizketa egingo zidala... Baina hau ez
da, Modgis, nik egin nahi nukeena. Dena hain da
adgunta, itsusia... Nik gauza eded-ededgak egin
nahi ditut. Zedbait sentitzen dut neude badnean,
hegaz egiten duen izengabeko zedbait: buddi-
nazko kaiola izugadgi batean dagoen lumaje
ededgeko txodi bat.

— Horixe gertatzen zaizu zuri, sekula ez duzu
ezer ondo egingo, harroputzegia zara.

Cassie beha geratu zitzaion; bere begi bus-
tiek arku elektriko baten argi zuriaren azpian dis-
tira egiten zuten.

— O, ez negar egin, Jainkoarren. Ez dut ezer
esan.

— Ni ez naiz hadgoputza zudekin, ezta Mod-
gis?

Begiak xukatu zituen.

— Pixka bat, eta min handia egiten dit
horrek. Nahi nuke nire neskatzak ni pixka bat
zaintzea eta lausengatzea. Bizitza ez da soilik
garagardoa eta *sourkraut*-a.

Elkarri estuki lotuta zihoazela, haitza sumatu zuten euren oinpean. Zuhaixkez inguratutako granitozko muino txiki batean zeuden. Parkearen aldameneko eraikinen argia haien bisaietan islaturik ageri zen. Geldirik zeuden, eskutik oratuta.

— Esaterako, 105. Kalean bizi den neska ilegorri hori... Apustu egingo nuke ez dela hainbeste harrokerietan ibiltzen morroiren batekin bakarrik dagoenean.

— Emakume ikadagadgia da. Beddin zaio besteeke bedadi buduz duten iditzia. O, ikadagadgia zada, Modgis.

Negarrez hasi zen berriro. Morrisek bortizki berarengana erakarri eta indarrez estutu zuen, eskuak haren bizkarrean zehar zabalduz. Cassiek bere hankak dardarka sumatu zituen, gero eta makalago. Lurrera erortzen ari zen ahuleziaren koloretako osinean gaindi. Gizonaren ahoak ez zion arnasa hartzen utzi.

— Kontuz —xuxurlatu zuen Cassierengandik alde egiten zuen bitartean.

Aiko-maiko zihoazen bidexkan behera, zuhaixken artetik.

— Ez dut uste.

— Zed diozu, Modgis?

— Ez dut uste polizia zenik. Penagarria da nora joanik ere ez izatea, kaka zaharra! Ezin gara zure gelara joan?

— Baina, Modgis, jende guztiak ikusiko gaitu.

— Eta? Guztiak berdin egiten dute etxe horretan.

— O, ezin zaitut jasan hodgela hitz egiten duzunean... Benetako maitasuna gadbia eta ededga da... Modgis, zuk ez nauzu maite.

— Mesedez, une batez besterik ez bada ere, ez nazazu zirikatu, Cassie... Kaka putza da txakur txikirik ere ez izatea.

Jarleku batean eseri ziren, argitan. Haien atzean, errepidean zehar autoak herrestan zebiltzan, azkar eta txistuka, bi ilara luzetan. Cassiek eskua jarri zion belaun gainean eta Morrisek bere esku handi mozkoteaz estali zion.

— Modgis, ni sinetsita nago oso zodiontsuak izango gadela hemendik audgera. Ni guztiz sine-tsita nago. Zuk lan on bat logtuko duzu. Ziud nago.

— Ni ez nago horren ziur... Dagoeneko ez naiz lehengo gaztea, Cassie. Ezin dut denborarik galdu.

— Zu odaindik gazte-gaztea zada, hogeita hamabost ugte bestedik ez duzu, Modgis... Eta uste dut apagteko zedbait gegtatzekotan dela, zedbait ona. Nik lasted dantzatzeko aukeda izango dut.

— Zuk neska ilegorri horrek baino gehiago irabazi behar zenuke.

— Elaine Oglethogpe... Bedak ez du hodgenbeste idabazten. Baina ni ez naiz beda bezalako. Ni ez naiz diduaz addudatzen. Nik dantzadako bizi nahi dut.

— Bada, nik dirua nahi dut. Behin dirua izanez gero, gogoak ematen dizuna egin dezakezu.

— Baina Modgis, ez duzu uste edozed egin dezakezula hodgetan bihotz-adima jadgiz gedo? Nik baietz uste dut.

Morrisek gerria inguratu zion bere beso libreaz. Emeki-emeki Cassiek haren sorbalda gainean ezarri zuen burua.

— O, ez dio axola —xuxurlatu zuen Cassiek ezpainak lehor.

Haien atzean, limusinak, turismoak, ibilaldi turistikoetarako autoak eta sedanak herrestan zebiltzan, sigi-saga errepidean zehar, autoen argiak bi erreka baretan antolaturik.

Naftalina-usaineko jantzi arre bat tolesten ari zen Ellen. Makurtu egin zen kaxa batean sartzeko. Azpian paper mehe batek far-far egiten zuen, Ellenek zimurrak kentzeko eskua gainetik pasatzeaz batera. Kanpoan, goizeko lehenengo argi moreek bonbillaren argia goriztatzen zuten; begi loezin bat zirudien, horrenbestez. Halako batean, Ellen berriz tentetu eta zurrun geratu zen besoak soinen alde banatan bermatuta eta aurpegia gorri-gorri. «Hau gehiegi makurtzea da, benetan», esan zuen. Toaila bat jantzien gainean zabaldu zuen eta gainean eskuilak, ispilu bat, txapinak, alkandorak eta hauts-poteak pila-tu zituen arrapataka. Bat-batean kaxaren tapa jaitsi, ondo itxi eta giltza bere krokodilo-larruzko diru-zorroan gorde zuen. Gelari so geratu zen, axolagabe, apurtutako azkazal bat milikatzen zuen bitartean. Eguzkiaren argi zeharrik dizdiz-

ka ziharduen tximinietan eta etxean erlaitzetan. Ellen bere kaxaren atzealdean zeuden E.T.O letrei beha zegoen, irmo. «Hau gehiegi makurtzea da, nazka ematen dit», esan zuen. Gero, atzazal-lima bat apain-mahaitik hartu eta O-a urratzen saiatu zen. «Kitto» xuxurlatuta kriskitin jo zuen. Lorontzi itxurako bere kapela beltza eta beloa —jendea ohar ez zedin negarrez ari zela— jantzi ondoren, hainbat liburu pilatu zituen, hala nola, *Youth's Encounter*, *Thus Spoke Zarathustra*, *The Golden Ass*, *Imaginary Conversations*, *Aphrodite*, *Chansons de Bilitis* eta *Oxford Book of French Verse*. Guztiak zetazko xal batean bildu eta elkarrekin lotu zituen.

Herabeki jo zuten atean.

— Nor da? —xuxurlatu zuen Ellenek.

— Neu naiz —erantzun zion ahots negartsu batek.

Ellenek atea ireki zuen.

— Cassie, zer duzu? —Cassiek bere aurpegi hezea Ellenek lepoaren kontra igurtzi zuen—. Baina, baina, nire beloa likisten ari zara, Cassie. Zer arraio duzu?

— Gau osoa eman dut zu zenbat sufgitzen adizaden budutik kendu ezinik.

— Baina Cassie ni ez naiz sekula izan orain baino zoriontsuago.

— Gizonak ez al dida ikadagadgiak?

— Ez... Emakumeak baino hobeak dira, nolana nahi ere.

— Elaine, zed**ba**it esan behad dizut. Badakit ez nauzula kontuan hagtzen, baina, hala ede, beddin-beddin esango dizut.

— Jakina hartzen zaitudala kontuan, Cassie... Ez izan tuntuna. Baina orain lanpetuta nago... Zergatik ez zara ohera bueltatzen eta geroago esaten?

— Odaintxe esan behad dizut —Ellen bere kaxaren gainean eseri zen etsia hartuta—. Elaine, Modgis eta bion agtekoa amaitu da... Ez al da izugadgia?

Cassiek malba-koloreko txabusinaren mahu-ka batez xukatu zituen begiak eta Ellenen ondoran eseri zen, honen kaxaren gainean.

— Begira maitea —esan zuen Ellenek eztiki—, itxaron pixka bat mesedez. Taxi bat eskatzera

noa telefonoz. Jojo jaiki aurretik hanka egingo dut, iskanbilez nazka-nazka eginda nagoelako.

Korridore hura loak eta edertasun-kremek isuritako usainaz gainezka zegoen. Ellen ahapeka mintzatu zitzaion entzungailuari. Garajetik, gizon-ahots zakar baten orroa atseginez jaso zuen belarrietan: «Oraintxe bertan, andereñoa». Gelara behatz puntetan itzuli eta atea itxi zuen.

— Nik uste nuen maite ninduela. Hala uste nuen, benetan, Elaine. O, gizonak izugadgiak dira. Modgis hasedge zegoen nik ez nuelako bedadekin bizitzeda joan nahi. Hodi ez dago ondo, nide iditziz. Bedadengatik pgest nengoen gau eta egun lan egiteko. Bedak badaki. Ez al dut hodi egin azken bi ugte hauetan? Esan zidan ezin zuela hodgela jadgaitu, ni guztiz bedea izan gabe. Badakizu zed esan nahi zuen, eta nik esan nion gude maitasuna hain ededga zela, ezen ugtetan hodgela jadgai baitzezakeen. Nik bizitza osoan maita nezake bedadi musudik eman gabe ede. Ez al duzu uste maitasunak gadbia izan behad duela? Eta gedo badgeka hasi zen nide dantzen kontuda eta esan zidan Chalif-en amodantea nintzela eta bedadi adadga jotzen ari nin-

tzela eta bodgoka izugadgia izan genuen eta gauza izugadgiak deitu zizkidan eta alde egin nuen eta esan zidan ez zela itzuliko.

— Ez zaitez estutu, Cassie, itzuliko da, ikusiko duzu.

— Ez, zu oso matedialista zara, Elaine. Esan nahi dut, izpiditualtasunaden aldetik, gude batasuna betiko hautsi dela. Ez al duzu ikusten gure agtean zedbait izpidituala zegoela eta hautsi egin dela?

Berriro negar-zotinka hasi zen aurpegia Ellen sorbaldan ezarrita.

— Baina Cassie, hau guztia zergatik?

— O, zuk ez duzu ulegtzen. Gazteegia zada. Ni, hasiedan, zu bezalakoa nintzen, baina ni ez nengoen ezkondata eta ez nintzen gizonekin ibiltzen. Baina odain nik edegtasun izpidituala nahi dut. Eta nide dantzaden bidez augkitu nahi dut, nire bizitzaden bidez, nik edegtasuna edonon nahi dut eta uste nuen Modgisek ere hodixe nahi zuela.

— Baina Morrisek gauza bera nahi zuen. Argi dago.

— O, Elaine, zu bai gaiztoa, eta nik hain zaitut maite...

Ellen altxatu egin zen.

— Korrika noa behera, taxilariak txirrina jo baino lehen.

— Baina ezin duzu *hodge*la alde egin.

— Ezetz? Oraintxe ikusiko duzu —Ellenek liburu-sorta bat esku batean hartu zuen eta larru beltzezko nezeserra bestean—. Aizu, Cassie, zintzoa izango zara eta kaxa non den esango diozu haren bila datorrenean? Eta beste gauza bat, Stan Emeryk hots eginez gero, esaiozu Brewoort edo Lafayette hotelera deitzeko. Jainkoari esker, joan den astean ez nuen dirua banketxean sartu... Eta Cassie, nirea den ezer aurkitzen baduzu hortik, zuretzat... Adio.

Beloa jaso eta masailetan musu eman zion azkar.

— O, zudea bai adodea *hodge*la alde egiteko, bakadgik!... Duth eta biok zu inoiz ikusteda joatea nahi duzu? Zuk badakizu nola maite zaitugun! O, Elaine, kadgeda zodagadgia egingo duzu, ziud nago.

— Eta hitz eman behar didazu ez diozula Jojori esango non nagoen... Berehalaxe jakingo du, nolanahi ere... Telefonoz deituko diot astebate barru.

Taxilaria atarian aurkitu zuen txirrinen gaineko izenei begira. Gizona igo zen haren kaxaren bila. Ellen alaiki eseri zen taxiaren larruzko jarleku hautsez betearen gainean, arnasa sakonki hartzen zuela goizeko aire ibai-usainekoa barneratuz. Taxilariak irribarre zabala egin zion kaxa lerraka atzealdera eramatean, lohi-babesaren gaineko maletategiraino.

— Astuna da gero, andereñoa.

— Sentitzen dut zuk bakarrik jaitsi izana.

— O, astunagorik ere eraman dezaket.

— Brewoort hotelera joan nahi dut. Bosgarren Etorbidea, Zortzigarren Kaletik hurbil.

Kotxea martxan jartzeko makurtu zenean, gizonaren ile kizkur gorrixka begien gainean pausatu zen, bere kapela atzerantz botatzearekin batera.

— Ondo da, nahi duzun lekura eramango zaitut —esan eta bere jarlekura egin zuen jauzi, alderrai zebilen kotxe hartan. Broadwayko alde

eguzkitsura iritsi zirenean, halako zoriontasun-sentsazio bat txinpartaka hasi zen Ellenen baitan, gero eta gorago zihoala, suziri baten gisa. Aire freskoak bisaia inarrosten zion, zirrargarriro. Atzera begiratuta hitz egiten zion taxilariak, leiho irekitik.

— Uste nuen trena hartu behar zenuela hemendik alde egiteko, andereño.

— Nola edo hala alde egin nahi dut hemendik.

— Egun ona gaurkoa, hemendik alde egiteko.

— Nire gizonarengandik alde egiteko asmoa dut, oraintxe bertan.

Hitz haiei ezin eutsirik, ahotik bulkadan ihes egin zioten.

— Etxetik bota zaitu?

— Ez, ezin dut esan halakorik egin duenik — esan zuen barreka.

— Hiru aste dira emazteak kalera bota ninduela.

— Zer dela eta?

— Gau batean etxera itzultzean emazteak atea itxi eta ez zidan sartzen utzi. Sarraila aldatu zuen ni kanpoan lanean ari nintzen bitartean.

— Bai kontu bitxia!

— Berak dio aitzur gehiegi harrapatzen ditudala. Ez naiz harengana itzuliko eta ez diot mantenurik emango. Kartzelara bidali nazala, hala nahi badu. Kitto! Hogeita Bigarren Etorbidean pisu bat hartuko dut alokairuan, lankide batekin batera, eta piano bat izango dugu eta lasai biziko gara, gona-konturik gabe.

— Ezkontza ez da hainbesterako, ezta?

— Oraintxe esan duzu. Ona da inor horretara daramana, baina ezkontza biharamunak jota esnatzea bezala da.

Bosgarren Etorbidea zuri eta hutsik zegoen eta haize dizdizari batek eskobatua. Madison Square-ko zuhaitzak uste ez bezalako berde distiratsuaz jantzirik zeuden, gela ilun bateko garoaren modura. Brevoort hotelean, logaleak zegoen gaueko zaindari frantses batek ekipajea hartu zion. Beheko gela zurian, eguzki-argia logaletan ari zen besaulki gorrimin histu baten gainean. Umetxo baten gisa berean, Ellen korrika hasi zen gelan zehar, orpoak goraka eta txaloka. Burua okerturik eta ezpainak zimurtuta, bere garbiketata-gauzak atondu zituen apain-mahaian. Gero,

kamisoia horia aulki batean eseki eta erantzi egin zen. Bere burua ispiluan ikusi eta berari beha geratu zen, biluzik, eskuak sagar itxurako bular txiki eta gotor haien gainean ezarrita zeuzkala.

Kamisoia jantzi eta telefonorantz jo zuen. «Igo txokolate bat eta opiltxoak 108. gelara, lehenbailehen, mesedez». Gero, ohean sartu zen. Izara fresko irristakorren artean, barreari ekin zion, hankak zabalik.

Urkilek burua sastatzen zioten. Apur bat altxatuta guztiak kendu zituen eta astinaldi batez ile-mataza biribil bat sorbalden gainean bota zuen. Belaunak tolestu zituen kokotsa haien gainean bermatzeko, eta hausnarrean geratu zen. Kaletik kamioi baten aldizkako burrunba iristen zen. Beheko sukaldeetan plateren abarrotsa nabarmentzen hasia zen. Nonahitik zetorren trafikoaren estreinako orroa, gero eta ozenago. Goseak eta bakarrik sentitu zen. Ohean gabe txalupa batean zegoela begitandu zitzaion, Ellen bertan bakarrik utzia baitzuten, beti bakarrik, itsaso marrumalarian barrena. Hotzikara batek bizkarrezurrean gora egin zion

eta belaunak gehiago estutu zituen kokotsaren
kontra.

Hirugarren atala

Bederatzi eguneko miraria

*Eguzkia Jerseyrantz zihoan, eguzkia
Hoboken-en atzean zegoen.*

*Tapak idazmakinen gainean klik egi-
ten ari ziren, idazmahaiak ixten; igo-
gailuek hutsik egiten zuten gora;
mukuru beterik, berriz, behera.*

*Itsasbehera zen hiriaren erdigunean,
itsasgora beste alde batzuetan, hala
nola, Flatbush, Woodlawn, Dyckman
Street, Sheepshead Bay, New Lots
Avenue, Canarsie.*

*Orri arrosak, orri berdeak, orri gri-
sak. burtsaren aldizkariak, HAVRE DE
GRACE-KO ZALDI LASTERKETEN EMAITZAK.
Letrak kiribilka ari ziren, denda eta
bulegoetako lanaz unaturik zeuden
aurpegi, atzamar eta oinbular min-
beratuen artetik. Beso sendoko gizo-
nak. Metroa leporaino. SENATOR 8,
GIANTS 2, DIVOAK BERE PERLAK BERRESKU-*

RATU DITU, 800.000 DOLARREKO

LAPURRETA.

*Itsasbehera Wall Street-en, itsasgora
Bronx-en.*

Eguzkia Jerseyen sartu da.

— Jainko maitea, ez! —deiadar egin zuen Phil Sandbournek, mahaian ukabilaz jotzen zuela-rik—. Ez nagok ados... Gizon baten jokabideak ez ziok inori zertan arduratu. Berak egindako lana kontuan hartu behar duk soilik.

— Eta?

— Eta, nire ustez, Stanford White-k inork baino gehiago egin dik New Yorken alde. Bera etorri aurretik, inork ez zekian arkitektura izene-ko zerbait bazenik ere... Eta Thaw horrek tiro batez lasaitasun osoz akatu duela pentsatzea ere, eta gainera, aske atera duk... Jainko maitea, hiriko jendeak odol apur bat izango balu zainetan...

— Phil, hi edozein huskeriagatik berotzen haiz —esan zuen bestea purua ahotik kentzen zuen bitartean.

Gero, aharrausika, gorputza atzerantz bota zuen bere aulki birakarian.

— Nik oporrak behar ditiat, alajaina! Ederra lukek Maine-ko baso zahar horietara berriro joatea.

— Baita zera ere! Hor abokatu juduak eta epaile irlandarrak besterik ez zagok eta! —zezeldu zuen Philek.

— Geldi gizona!

— Hartly, hik bai dakiala zer den elkartasun-izpiritua, hiritar eredugarri horrek.

Hartly barreka hasi eta soilunea ahurraz igurtzi zuen.

— O, hori dena ondo zagok neguan, baina ni ezin nauk udan joan... Arraioa, dena den, ni hiru asteko oporraldi horretarako besterik ez nauk bizi. Niri bost New Yorkeko arkitekto guztiak akatzen badituzte ere, baldin eta New Rochelle-rako tren-txartelaren prezioa igotzen ez badute... Goazemak bazkaltzera.

Igogailuan zeudela Philek jarraitu zuen hizketan.

— Bizitza osoan zehar, hezurretaraino arkitektoa den beste bat baino ez diat ezagutu, hain

zuzen ere, Specker zaharra. Horrexekin egin nian lan nik, aurreneko aldiz iparrerantz etorri nintzenean, gizon bikaina, daniarra bera. Duela bi urte minbiziak jota hil zuan gizajoa. Hura bai arkitektoa! Berak etxe bati «eraikin komunala» jarri zioan izena eta horren planoak eta xehetasunak zauzkat etxean... Hirurogeita hamabost solairuko garaiera, zabaltzetarako sarguneak dituela. Solairuetan halako lorategi eseki bana zagok, hotelak, antzokiak, bainu turkiarrak, igerilekuak, biltegiak, berotzeko eta hozteko sistemak eta azoka bat, dena eraikin berean.

— Kokainarik hartzen al zuen?

— Ez jauna, bai zera!

Ekialderantz zihoazen Hogeita Hamalauagarren Kalean zehar; han ez zebilen inor, eguerdi sargoritsuan.

— Jainkoarren —jaulki zuen Phil Sandbourne bat-batean—, hiri honetako neskak urtean urtean baino politagoak dituk. Nik moda berri hauek atsegin ditiat, hik ez?

— Bai, noski. Nik urtean urtean baino gazteagoa izan nahi nikek, eta ez gero eta zaharragoa.

— Gure aurretik pasatzean eurei begiratzea besterik ezin diagu egin zaharrok.

— Zortea diagu horretan, bestela emazteak beti atzetik izango genitizkeek, untxariak bezala. Motel, burura datorkidanean zenbat aukera galdu ditudan, ene!

Bosgarren Etorbidea zeharkatzen ari zirela, Philek neska bat ikusi zuen taxi batean sartuta. Ezaugarri gorri batez apaindurik, neskaren kape-la txikiak, bere hegal beltzaren azpian, bi begi gris ezkutatzen zituen, Philen begietan distira berde ilunak islatzen zituztenak. Arnasketa eten zitzaion. Urruntasunak iraungitzen zuen trafikoa-ren hotsa. «Ez ditzala begiak baztertu». Bi urrats, atea ireki eta haren ondoan esertzen da, neskaren liraintasunaren ondoan; jarleku batean pausaturik dagoen txoritxo ematen du neskak. Txofer, ziztu bizian. Neskak ezpain kitzikagarriak erakusten dizkio. Beraren begiek kliskatu egiten dute, txori gris gatibu haiek... «E, kontuz!». Bur-dinak eragindako burrunba batek jauzi egin zuen haren gainean, atzetik etorrira. Bosgarren Etor-bidea jirabiraka zebilen kiribil gorri, urdin eta moreen artean. «Arraioa! Ez da ezer! Utzi

bakean! Ez dut laguntzarik behar altxatzeko». «Ez gelditu, atzera». Ahotsak, garrasiak, zutabe urdinen moduko poliziak. Bizkarra, hankak odol-letan likits-likits eginak zituen. Bosgarren Etorbidea minaren minez ari zen taupadaka. Ezkila txiki baten dilina gero eta hurbilago. Anbulantzia sartu zutenean Bosgarren Etorbideak ulu egiten zuen oinazeari ezin eutsirik, hil-hurren. Lepoa luzatu zuen neska ikusteko, nekez luzatu ere, hankaz gora dagoen dortoka baten gisa berean. «Ez al dute nire begiek altzairuzko tranpen bidez neska liluratu?». Bere burua zinkurinka topatu zuen. «Bertan geratu behar izango zikean, ni hil banintz ere». Ezkila txikiaren dilina urrun sumatzen zen, gero eta urrunago, gauminean.

Pareko espaloian lapurretako alarma betebetea ari zen, aldiro. Jimmyren loa adabegi gogorretatik esekirik zegoen, arrosario-aleak bailiran. Norbaitek atea jota esnatu zen. Tupustean albora egin eta ohean agondu zen: Stan Emery eriden zuen ohearen ondoan, eskuak

larru gorrizko jakaren poltsikoetan, aurpegi grisa zuelarik, argi-hautsez beterik. Barreka ari zen aurrera-atzera balantzaka.

— Baina zer ordu da?

Ohean eserita, Jimmy begiak hazkorrez igurtzitzen ari zen. Aharrausika ingurura behatu zuen, higuina ezkutatu ezinik, horma berde ilunez papereztatuetara, eguzki-argi zerrenda bati barneratzen uzten zion pertsiana berdearen arraildurara, arrosak margoturik zituen latorrizko xafla batez itxitako marmolezko tximiniara, ohearen oinaldean zegoen txabusina urdin sare-tura, kristalezko hautsontzi malba-kolorekoan zeuden zigarrokin zanpatuetara.

Gorri-gorri, Stanen aurpegia barreka ari zen hautsezko argi-korua baten azpian.

— Hamaika eta erdiak —esan zuen.

— Guztira, sei ordu eta erdi. Aski duk, nik uste. Baina Stan, zer arraio ari haiz hemen?

— Herf, ez duk, bada, hortik zehar izango zerbait tragoska bat edateko? Dingo eta biok egarriak itotzen gaudek. Boston-dik gatozek eta behin bakarrik gelditu gaituk bidean, gasolina eta ura hartzeko. Bi egun zaramatzaat lorik egin

gabe. Ikusi nahi diat ea aste osoa iraun dezake-
dan horrela.

— Bada, nik aste osoa eman nahi nitek
ohean.

— Hik zera behar duk, Herfy, egunkari batean
lana aurkitu, lanpeturik egoteko.

— Hiri, Stan, zera gertatu behar zaik... —
Jimmy ohe ertzean eseri zen— egunen batean
gorputegiko marmolezko lauzaren baten gai-
nean topatuko duk heure burua.

Bainugelan nabarmena zen beste batzuen
hortzoreak eta klorozko desinfektagarriek utzita-
ko usaina. Komuneko alfonbratxoa bustita zego-
en eta Jimmyk tolestu egin zuen lauki txiki bat
osatuz, xapinak kontu handiz kendu aurretik. Ur
hotzak odola bizkortu zion. Burua uretan pulun-
patu, bainuontzitik atera eta soina astindu zuen
txakur baten gisa berean, ura begi eta belarrie-
tatik sartzen zitzaiola. Gero, txabusina jantzi eta
aurpegia xaboitu zuen.

*Ibaia beti aurrera
itsasora iritsi arte.*

Lelo hura ezpainetan, desafinatzen ari zen, ahapetik, kokotsa aitzurraz karraskatzen zuen bitartean. Mr. Grover, oker ez banago, bi aste barru lana utziko dut. Bai, atzerrira noa. A.P.-ko korrespontsala izango naiz. Mexikon U.P.-arekin. Edo, seguru asko, Jeriko-n, *Mudturtle Gazette*-ko Halifax-en korrespontsala. *Harenean Gabonak dira eta eunuko guztiak hortxe daude.*

...Sena ibaiaren ertzetik

Saskatchewan ibaiaren ertzeraino.

Aurpegia listeriniz busti zuen, norbere garbiketarako gauzak bere toaila hezean bildu eta aza-berde koloreko alfonbra batez estalitako eskailera batzuetan gora egin zuen. Gero, bere gelara bidean, zenbait eskailera jaitsi behar izan zituen. Korridorearen erdian ugazabandrearekin gurutzatu zen: hark erratza pasatzeari utzi zion txabusina urdinaren azpiko mutilaren hanka arropagabe mehei begiratzeko.

— Egun on, Mrs. Maginnis.

— Gaur bero handia egingo du, Mr. Herf.

— Nik ere hala uste dut.

Ohean etzanda, Stan *La Revolte des Anges* irakurtzen ari zen.

— Tira, Herfy, nik ere hizkuntzak jakin nahi nitizkek, hik bezala.

— Orain ahaztuta zaukaat frantsesez nekien guztia. Denbora gutxiago behar diat gauzak ahazteko ikasteko baino.

— Horretaz ari garela, unibertsitatetik bota naitek.

— Nolatan ba?

— Dekanoak esan zidaan hobe nukeela datoren urtean hara ez itzultzea... Uste zian beste jarduera-arlo batzuk zeudela eta horietan nire jarduera eraginkortasunez eraginkorragoa izan zitekeela.

— Lotsagarria.

— Bai zera! Ni poz-pozik nagok. Galdetu nioan zergatik ez ninduen lehenago bota, iritzi horretakoa bazen. Aita triste baino tristeago jarriko duk... baina astebete etxetik kanpo emateko beste diru badiat. Gainera, bost axola zaidak. Benetan ez duk ezer edateko?

— Baina, Stan, ni bezalako langile xume batek nola izan lezakek upelategi bat astean hogeita hamar dolar irabazita?

— Gela hau aukeran kaskarra duk... Hik kapitalista jaio beharko huen, ni bezala.

— Gela hau ez duk hain txarra... baina zoratzen nauena pareko alarma paranoikoa duk, gauero jo eta jo dabilen hori.

— Lapurretako alarma duk, ezta?

— Ezin duk lapurrik egon, lekua hutsik dagoelako. Kableetan nahasketaren bat egongo duk edo halako zerbait. Ez zakiat noiz gelditu zen, baina benetan esaten diat gaur goizean neure onetik atera nauela, lotara etorri naizean.

— Baina, James Herf, zer esan nahi didak, gauero ez haizela mozkortuta etortzen etxera ala?

— Mozkortuta ala ez, guztiz gorra izan behar duk traste madarikatu hori ez entzuteko.

— Tira, nik akziodun aberatsa izateko zortea dudanez, bazkaltzera gonbidatuko haut. Ohartu haiz ordubete behar izan duala heure burua txukuntzeko?

Eskaileretan behera jaistean, denetariko usainak sumatzen ziren: lehenik, bizarra egiteko bitsarena; gero, urreztatuak garbitzeko oreena; beherago, hirugiharrek eta ile erreskalduak isuria; eta azkenik, zaborrak eta gas karbonikoak sortarazia.

— Hik egundoko zortea duk, Herfy, sekula ez haizelako unibertsitatean ibili.

— Aizak, kaiku hori, ni Columbian graduatu ninduan; hori hik egin duana baino gehiago duk.

Atea irekitzean, eguzki-argia oldartu zitzaion Jimmyren aurpegiari, halako kilima batzuk eragiten zizkiola.

— Hori ez duk kontuan hartu behar.

— Ene, zeinen gogoko dudan nik eguzkia — egin zuen oihu Jimmyk—. Benetako Colombia izan bazen, gaitzerdi...

— Hail Columbia esan nahi duk?

— Ez, nik Bogota eta Orinoco esan nahi diat, eta hori guztia.

— Nik Bogotara joandako morroi bat ezagutu nian. Ito arte edan behar izan zian elefantiasiak jota ez hiltzeko.

— Ni prest nengokek elefantiasari, izurri bubonikoari eta tifusari aurre egiteko, zulo hone-tatik irtetearren.

— Hiri honetan dena duk orgia, ibilaldia, gozamena...

— Orgiak? ...Baita zera ere!... Hor goian, *Hoi-tamahirugarren* Kanean, guk esaten dugun beza-la... Ba al hekien, txikitako lau urte kenduta, betidanik bizi izan naizela hiri puta honetan, hemen jaio nintzela eta seguru asko hementxe hilko naizela?... Itsas armadan sartzeko irrikan nagok munduan zehar ibiltzeko.

— Zer iruditzen zaik Dingo bere pintura berriarekin?

— Oso dotorea. Hautsaren azpian Mercedes bat ematen dik.

— Nik gorriz margotu nahi nian suhiltzaile-kamioi bat bezala, baina garajeko gizonak kon-bentzitu nindian urdinez margotzeko, poliziaren auto bat bailitzan... Nahi al duk Mouquin's-era nirekin joan, absenta-koktel bat edatera?

— Absenta gosaritarako... Jainko maitea!

Mendebalderantz jo zuten, Hogeita Hiruga-rren Kanean zehar; han argitasuna zen nagusi,

leihen argiaren isla angeluzuzenek eta banaketan autoen 8 itxurako nikelzko osagarriak sortzen zituzten dirdaiek eraginda.

— Ruth zer moduz, Jimmy?

— Oso ondo. Oraindik ez dik lanik.

— Begira, Daimler bat.

Jimmyk zerbait ulergaitza kurrinkatu zuen. Seigarren Etorbidea hartzean polizia batek gelditzeko agindu zien.

— Ihes-tutu hori apurtuta dago! —egin zuen garrasi poliziak.

— Garajera nindoan konpontzera. Isilgailua erortzen ari da.

— Hobe duzu, bai... Hurrengoan isuna jarriko dizut.

— Hik edozein barrabaskeria egin hezake, Stan, inork protestarik egin gabe... edozertan —esan zuen Jimmyk—. Nik ezin nezakek edozein gauza egin, hi baino hiru urte zaharrago banaiz ere.

— Dohaina duk.

Jatetxeak patata frijituen eta koktelen usain alaia zuen, zigarroek eta koktelek sortarazitako-

arekin nahasita. Bero egiten zuen eta aurpegi berritsuz eta izerditsuz bete-beterik zegoen.

— Aizak, Stan, ez mugitu begiak horrela, Ruth eta bioi buruz galdetzen duanean... Lagun onak gaituk, ez besterik.

— Zintzoki galdetu diat, baina sentitzen diat hik hori esana. Ikaragarria duk, nik uste.

— Ruthek bere aktore-lana beste ardurarik ez dik. Arrakasta izateko horrenbesteko irrika dik, ezen gainerako guztiari uko egin baitio.

— Zergatik demontre nahi du jende guztiak arrakasta izan? Porrot egin nahi duen norbait ezagutu nahi nitek. Hori baino gauza ederragorik ez zagok.

— Bai, hala duk, taxuzko errenta jasoz gero, behintzat.

— Hori txorakeria besterik ez duk... Hau duk koktela! Herfy, nik uste diat heu haizela hiriko pertsona zentzudun bakarra. Hik ez duk handi-nahirik.

— Nola dakik hori?

— Zer egin dezakek arrakasta lortuta ere? Ez zagok arrakasta jan edo edaterik. Nik ulertzen diat, noski, jateko behar adina diru eta hori guz-

tia ez dutenek ahalegin guztiak egin behar dituztela dirua lortzeko. Baina arrakasta...

— Ez zakiat zer nahi dudan; horixe duk nire arazo nagusia. Horrexegatik nabilek batera eta bestera; horrela ibiltzea etsigarria eta tristea duk.

— O, Jainkoak hartu zian erabakia hire ordeztu. Heuk ondotxo dakik hori, baina ez duk onartu nahi.

— Hiri honetatik alde egitea diat ametsik handiena, nik uste, Times Building-en lehergailu bat jarri ondoren, ahal izanez gero.

— Eta zergatik ez duk alde egiten? Oin bat bestearen aurrean jartzea besterik ez duk.

— Baina norabidea ere jakin beharra zagok.

— Hori duk gutxienekoa.

— Gero, dirua zagok.

— Ez zagok ezer dirua baino errazagorik lortzeko.

— Emery&Emery abokatu-bulegoko seme nagusiarentzat.

— Begira, Herf, ez zagok ondo nire aitaren bidegabekeriak niri aurpegiratzea. Badakik nik, hik bezala, hori dena gorrotatzen dudala.

— Nik ez diat errurik botatzen. Sekulako zortea duk, horixe duk dena. Nik ere, noski, zortea diat, jende gehienak baino askoz ere zorte handiagoa. Hogeita bi urtera bitartean bizitzeko lain diru utzi zidaan amak eta oraindik ehundaka dolar zauzkaat egun txarretarako eta osabak — madarikatua halakoa!— lana topatzen zidak kalera botatzen nautenero.

— Bee, bee, ardi beltza.

— Uste diat benetan beldur diedala osabazebei... Nire lehengusu James Merivale ezagutu beharko huke. Betidanik egin dik esan dioten guztia eta gora eta gora egin dik ereinotz berde baten gisa berean. Birjina zuhur perfektua.

— Eta hi, oker es *panao*, *pirjina* soro sarmangarri hoietako *pat* hais.

— Stan, alkoholaren eragina nabari zaik, beltzen modura hitz egiten hasi haiz.

— Bee, bee.

Stanek musuzapia mahai gainean utzi eta, barre-algaraka, soina atzerantz eraman zuen.

Absentaren usain okaztagarriak Jimmyren edontzitik gora egiten zuen mago baten arrosa-

sorta bailitzan. Hurrupatu egin zuen sudurra zimurtuz.

— Moralista naizenez gero, protesta egiten diat —esan zuen Jimmyk—. Harrigarria duk, alajaina!

— Nik whisky bat behar diat sodarekin nahasita, koktel horiek berdintzeko.

— Ez haut begien bistatik galduko. Ni langilea nauk. Irensten diren eta irensten ez diren albis-teen artean bereizten ikasi behar diat... Jainkoarren, ez diat horretaz hitz egin nahi. Hori hain duk txorakeria handia... Nik esango nitek koktel hori edonor lurrera zerraldo botatzeko modukoa dela.

— Alferrik duk pentsatzea zer egin daitekeen gaur arratsaldean; edatea beste zereginik ez zagok. Norbait aurkeztu nahi diat.

— Eta ni zintzo-zintzo eseri eta artikulu bat idazteko asmotan egotea ere!

— Zertaz?

— O, «Erreportari hasberri baten aitorpenak» izeneko artikulu engainagarria.

— Aizak, gaur osteguna da?

— Bai.

— Orduan bazakiat neska hori non egongo den.

— Hau guztia bertan behera utzi nahi diat — esan zuen Jimmyk ilun— eta Mexikora joan, diru asko irabaztera... Nire bizitzaren zatirik onena alferrik galtzen ari nauk hemen, New Yorken.

— Nola irabazi nahi duk horrenbeste diru?

— Petrolioa, urrea, dilijentzia-lapurretak, edo-zerk balio dik... kazetaritzak izan ezik.

— Bee, bee, ardi beltza, bee, bee.

— Ez egin beerik niri.

— Alde egin dezagun hemendik. Goazen Dingoren isilgailua konpontzera.

Jimmy zain zegoen garaje kirastuko atean. Arratsaldeko argi hautsez betea kiribiltzen zen suzko har distiratsuetan haren aurpegi eta eskuetan zehar. Harri nabarra, adreilu gorria, errotulu gorri eta berdeekiko asfalto ñarñarkaria, estolda gainerako paper-puskak; guztia haren inguruan biraka zebilen, emeki-emeki, lainoan murgilduta. Kotxea garbitzen ari ziren bi lagun hizketan zituen atzean.

— Bai, ni diru asko irabazten ari nintzen urdanga harekin topo egin arte.

— Bada, niri eder-ederra iruditzen zait, Charley. Ni arduratuta egongo nintzateke... Lehenengo astea pasata ez dago desberdintasunik.

Atzetik etorri eta sorbaldetatik heldu zion Stanek, kalerantz bultza egiten ziola.

— Autoa bostak arte ez duk konponduta egongo. Taxia hartuko diagu... Lafayette hotela! —egin zion oihu taxilariari, Jimmyri zapladatxo bat belaun gainean jotzen zion bitartean—. Tira, Herfy, zahar hori, ba al dakik zer esan zion Ipar Karolinako gobernadoreak Hego Karolinako gobernadoreari?

— Ez.

— Luze jotzen dik tragotik tragora. Bee, bee —egin zuen marraka Stanek, biak oldarrean kafetegian sartu zirenean—. Ellie, hemen zaudek ardi beltzak —egin zuen garrasi barreka.

Halako batean, sor eta lor geratu zen. Ellenen aurrean, mahai berean, bere senarra zegoen, bekain bat gora eta bestea betileekin ia-ia bat eginik. Euren artean teontzi bat ageri zen, lotsarik gabe.

— Epa Stan, eseri —esan zuen lasai.

Gero jarraitu egin zuen Oglethorperi irribarre egiten.

— Ez al da zoragarria, Jojo?

— Ellie, hau Mr. Herf da —esan zuen Stanek zakar.

— O, poz handia ematen dit zu ezagutzeak. Gauza asko entzun ditut zuri buruz Mrs. Sunderlanden etxean.

Isilik geratu ziren. Oglethorpe triki-traka ari zen koilaratxoaz mahaiaren kontra.

— Eta zer moduz, Mr. Herf? —esan zuen bat-batean Oglethorpek, zurikeriaz—. Gogoratzen al duzu nola ezagutu genuen elkar?

— Horretaz ari garela, Jojo, zer moduz zeu?

— Primeran, eskerrik asko. Cassandra bere lagunak utzi du, eta bestalde, Costello andere horrek lehengo gauean sekulako iskanbila sortu zuen. Izan ere, mozkor-mozkor eginda iritsi omen zen etxera eta saiatu omen zen taxilaria gelara eramaten eta gizajoak behin eta berriro esaten omen zuen berak taxi-bidaia kobratu besterik ez zuela nahi... Sekula halakorik!

Stan handiusteko altxatu zen eta alde egin zuen.

Hirurak eserita zeuden elkarri hitzik egin gabe. Kirioak airean, Jimmy ahaleginak eta bi egiten ari zen bere aulkitik ez mugitzeko. Altxatu-hurren zegoen, baina Ellenen begien belusezko xarmak geldiarazi zuen.

— Eta Ruthek lanik aurkitu al du, Mr. Herf? — galdetu zuen.

— Ez, oraindik ez.

— Hori bai zorte txarra!

— Bai, lotsagarria da. Badakit aktore ona dela. Arazoa da umore-sen handiegia duela enpresaburuei eta ikusleei koipea emateko.

— O, antzerkia nazkagarria da, ezta Jojo?

— Nardagarria, maitea.

Jimmyk ezin zituen begiak neskaren gainetik kendu; haren lepoa, urrezko distiraz inguraturik, kobre-koloreko ile-matazaren eta jantzi urdin argiaren artean.

— Tira, maitea...

Oglethorpe zutitu egin zen.

— Ni hemen geratuko naiz beste pixka batean.

Jimmyk adi-adi begiratu zion Jojoren antelarruzko botin arrosetatik irteten ziren txarolezko

triangeluei. Ezin oinik sartu han. Bat-batean, Herf altxatu egin zen.

— Orain, Mr. Herf, nirekin egongo zara hamabost minutuz? Seietan alde egin behar dut eta liburua ekartzea ahaztu zait eta zapata hauekin ezin naiz ibili.

Jimmy lotsagorritu eta berriro eseri zen zizakari.

— Bai, noski, atseginez... zerbait edan deza-kegu.

— Oraintxe bertan bukatuko dut tea, baina zergatik ez duzu *gin fizz* bat edaten? Nik oso gogoko dut jendea *gin fizzak* edaten ikustea. Tropikoetan banengo bezala sentitzen naiz, jujubonbo-baso batean eserita, mangle zuhaitzez inguratutako ibai melodramatiko irrigarri batean barrena eramango gaituen untzi baten zain.

— Zerbitzari, *gin fizz* bat, mesedez.

Joe Harland pixkanaka-pixkanaka limurtua zen bere aulki gainean harik eta burua besoen gainean bermatu zuen arte. Bere atzamar koipe-tsuen artetik, bere begiek marmolezko mahaia-

ren marrei artega jarraitzen zieten. Isiltasuna nagusi zen argi gutxiko jantoki hartan: bi bonbilla baino ez zituzten, biak barraren gainean esekirik, non artean opil bakan batzuk geratzen baitziren, kristalezko kanpai batez estalirik. Jaka zuriko gizon bat lokarturik zegoen aulki garai baten gainean, burua gora eta behera zerabilela. Aldian behin, begiak irekitzen zitzaizkion bere aurpegiaren ore grisean, eta purrustaka behatzen zuen ingurura. Azken mahaian, loak hartutako gizonen sorbalda konkordunak ageri ziren, egunkari zaharren moduko aurpegi zimurtsuak, burukorik ezean beso gainean ezarriak. Joe Harland agondu zen aharrausika. Zira bat soinean, emakume gizen bat kikara bat kafe eskatzen ari zen barran. Aurpegi gorria zuen, zerrenda arrosaz betea, haragi ustela bailitzan. Katilua kontu handiz bi eskuen artean hartuta, mahairaino eramane zuen eta Joe Harlanden aurrean eseri zen. Joek burua berriro besoen artean ezarri zuen.

— Epa, hemen ez *dao zerbitzuik* ala?

Emakume-ahots hark kirrinka eragin zion Harlandi belarrietan, klarionak arbel gainean sortarazten duen gisa berean.

— Zer *nahi'zu?* —esan zuen marruka barraren atzeko gizonak.

Emakumea negar-zotinka hasi zen.

— Galdetu dit zer nahi dudan. Ni ez *nao* ohituta jendeak niri horren zakar hitz *eiten*.

— Tira, ezer nahi *bazu*, etorri eta hartu... Zerbitzua gaueko ordu hauetan!

Joe Harlandek whisky-hatsa antzeman zion emakumearen ahoari, negar-zotinka ari baitzen. Joeek burua altxatu eta begira geratu zitzaion. Emakumeak irribarre egiteko, bere ezpain eroriak okertu eta burua Joerenganantz makurtu zuen.

— Jauna, ni ez *nao* ohituta jendeak nirekin horren zakar jokatzeko. Nire gizona *biziik* eonez gero, zerbitzari honek ez luke horrela *jokauko*. Nolatan ausartzen da izkira eosi hori niri esatera gaueko zein ordutan zerbitzatu behar zaion emakume bati? —burua atzerantz eraman zuen eta barrearen ondorioz kapela okertu zitzaion—. Izkira *eosia*, *hoixe* *besteik ezta*... Tira, emakume bat gaueko ordu hauetan iraintzea ere!...

Txima zuriak, muturra hennaz tindaturik zutenak, aurpegian behera amiltzen zitzaizkion. Jaka zuriarekiko gizona mahaira hurbildu zen.

— *Beira*, Mother McCree, horrela jarraitzen *bazu*, traba *eiten*, kalera botako zaitut... Zer *nahi'zu* zuk?

— Buñueloak, bost zentabo —zinkurinatzen hasi zen Harlandi zeharka begira.

Joe Harlandek berriro sartu zuen burua besoen artean eta lo hartzen saiatu zen. Platera ezartzen entzun zuen, gero, hortzik gabeko aho baten ausikia aditu zuen, bai eta aldizka emakumeak kafe kikarari ematen zizkion zurrutadahotsak ere. Beste bezero bat sartu zen eta zerbitzariari ahapeka eta purrustaka hasi zitzaion hizketan.

— Jauna, jauna, ez al da *ikagarria ean* nahi izatea?

Burua berriro jaso eta emakumearen begi lauso urtsuekin egin zuen topo, berari so.

— *Ze ein beha'zu oain, maitia?*

— Jainkoak daki!

— *Earra litzake, bai hoixe, ohe bat, alkando-
ra txukun bat eta zu bezalako mutil bat eukitzea,
maitia... jauna.*

— Hori *besteik* ez?

— Jauna, nire gizona *biziik eonez* gero, inork
ez ninduke *tratauko oain* bezala. General Slo-
cum-en galdu nuen senarra. Ematen du atzo *ger-
tau* zela.

— Horrek *eztu* ba zorte makala izan!

— Baina bekatuan hil zen, apaizik gabe, *mai-
tia. Ikagarria* da bekatuan hiltzea.

— Lo egin nahi dut, arraioa!

Emakume haren ahots indarge, kirrinkari eta
gorabeherarik gabe hark hortzak karraskarazi
zizkion.

— Santuak sutan daude *niekin* senarra Gene-
ral Slocum-en galdu nuenetik. Ni *enaiz* emakume
zintzoa izan.

Berriro negarrez hasi zen.

— Ama Birjina, santuak eta martiriak sutan
daude *neekin*, jende *guzia* sutan *dao neekin... O,*
inork ez al nau behar bezala *tratauko?*

— Lo egin nahi dut... Isilduko al zara behin-
goz?

Emakumea makurtu eta itsumustuka hasi zen lurrean kapelaren bila. Eserita zegoen, negarez, eta begiak igurtzitzen ari zen hazkozkoz hanpatu eta koipetsuez.

— Ene, jauna, *enauzu* ondo tratatu behar ala?

Joe Harland zutik jarri zen arnasa indarrez hartuz.

— Isilduko al zara behingoz, arraioa!

Ahotsa auhen bilakatu zitzaion.

— Ezin al dut inon bakerik izan? Ez, inon ezin dut bakerik izan.

Kapela begietaraino sartu, eskuak sakeletan pulunpatu eta jantokitik irten zen tirriki-tarraka. Chatham Square-n, zeru more-gorri haren ñirñirra tren jasoaren bidearen burdinsaretik ageri zen. Argiak letoizko botoien bi ilaratan zeuden banatuta, Bowery-ren bakardadean.

Polizia bat igaro zen handik, porra dilinbidalanba zerabilela. Joe Harlandek berarengan iltzaturik nabaritu zuen poliziaren begirada. Azkar eta kementsu ibiltzen saiatu zen, negozio-tan norabait balihoa bezala.

— Ederki, Miss Oglethorpe, zer iruditzen zaizu?

— Zer iruditzen zaidan zer?

— Badakizu zuk, zazpi eguneko mirari bat izatea.

— O, nik ez dakit ezertxo ere, Mr. Goldweiser.

— Emakumeek den-dena dakite, baina ezin dute halakorik aitortu.

Zetazko jantzi berdexka soinean, Ellen besaulki malgu batean eserita zegoen, gela luze baten bukaera aldean, non solasen txintxina eta zutargien eta harribitxien ñirñirra sumatzen baitziren, gaueko jantzien orban beltzen argiez eta emakumeen gaueko jantzi beltz distiratsuez zipriztinduta. Harry Goldweiserren sudurraren makurdurak zuzen-zuzenean bat egiten zuen bere soilunearen makurdurarekin, bere ipurdi handia aulki urreztatu triangeluar batetik ateratzen zen, bere begi nabar txikiak Ellenen aurpegian iltzatzen ziren hitz egitean, antenak bailiran. Ondoan, emakume batek sandalo-usaina isurtzen zuen. Turbante laranja baten azpian, ezpain laranja eta aurpegi zurbileko beste emakume bat igarotzen zen handik, bizar puntaduna

zuen gizon batekin hizketan. Beste bat, belatz-mokoa eta ile gorria zituena, atzetik joan eta gizon bati eskua jartzen zion sorbalda gainean. «O, zer moduz, Miss Cruikshank? Bitxia da mundu guztia aldi berean eta leku berean egoitea, ezta?». Besaulkian eserita, Ellen erdi lo entzuten ari zen; hautsek aurpegi eta beso gainean ematen zioten freskura, ezpainen gorriminaren leuntasuna; bere gorputz bainatu berria fresko zegoen bioleta baten gisa berean, zetazko jantziaren azpian, zetazko azpiko arropen azpian. Eserita, Ellen ametsetan zegoen, logaleturik entzuten. Tupustean gizonen halako ahotskalapita bat inguratu zitzaion bazter guztietatik. Ellen altxatu egin zen, hotza eta zuria, iristezina, itsasargi baten modura. Gizonen eskuak narras zebiltzan, kristal apurtezin batean gora doazen zomorroen modura. Gizonen begiradek batera eta bestera egin eta kristalezko emakumearen kontra alferrik jotzen zuten, sitsak bailiran. Baina barneko zulo beltz sakon batean zerbaitek hots egiten zuen suhiltzaileen kamioiaren modura.

George Baldwin zutik zegoen gosariko mahaiaren ondoan, New York Times ale bat eskuan tolesturik.

— Tira, Cecily —esan zuen—, zuhur jokatu behar dugu gauza horiekin.

— Ez al duzu ikusten saiatzen ari naizela zuhurra izaten? —esan zuen Cecilyk negarzinuka.

Eseri gabe, gizona begira geratu zitzaion, egunkariaren mutur bat hatz erakuslearen eta erpuruaren artean biribilka zerabilela. Mrs. Baldwin emakume garaia zen eta gaztain-koloreko mototsa zuen, kontu handiz kizkurtua. Zilarrezko kafe-ontziteriaren aurrean eserita, azukreontzia eskuztatzen ari zen azkazal zorrotz arrosak zituzten bere atzamar zuri perretxiko itxurakoez.

— George, ezin dut gehiago jasan, kitto.

Mrs. Baldwinek gogor hertsu zituen bere ezpain dardaratiak.

— Baina, maitea, zuk exageratu egiten duzu...

— Exageratu? Bai zera!... Horrek esan nahi du gure bizitza gezur-pilo bat besterik ez dela izan.

— Baina Cecily, guk elkar maite dugu.

— Zu nire posizio sozialarengatik ezkondu zinen nirekin, hori badakizu zuk. Eta ni, tuntun alaena, zutaz maitemindu nintzen. Oso ondo. Dena bukatu da.

— Hori ez da egia. Nik benetan maite zintudan. Ez al duzu gogoratzen zeinen gaizki pasatu zenuen ezin ninduzulako benetan maitatu.

— Zakarra zara gero, hori gogora ekarrita... O, ikaragarria da!

Sukaldetik, neskameak arrautzak eta hirugiharra ekarri zituen erretilu batean. Elkarri begira eseri ziren, isil-isilik. Neskamea gelatik irten eta atea itxi zuen. Mrs. Baldwinek bekokia mahai-ertzean ezarri eta negarrari ekin zion. Baldwinek egunkarien tituluen gainean finkatu zuen begirada.

ARTXIDUKEAREN HILKETAK ONDORIO LATZAK ERAGINGO DITU. AUSTRIAKO ARMADA MOBILIZATURIK.

Mahaiaren inguruan bira egin eta emakumearen ile kizkurraren gainean ipini zuen eskua.

— Cecily gajoa! —esan zuen.

— Ez nazazu ukitu.

Mrs. Baldwin lasterka irten zen gelatik, aurpegian mukizapi bat zuela. Mr. Baldwin eseri egin zen, arrautzak, hirugiharra eta ogi xigortua hartu eta gosaltzeari lotu zitzaion; guztiak paper-zaporea zuen. Gosaria bertan behera utzi eta ohar bat zirrimarratzeari ekin zion paparreko poltsikoan eraman ohi zuen koaderno txiki batean, mukizapiaren atzean. Ikus Collins vs. Arbuthnot auzia, N.Y.S.C. Appel. Div.

Halletik zetozen oin-hots batzuek belarriak zolitu zizkioten; sarraila baten klika. Igogailua jaitsi berria zen. Arineketan jaitsi zituen lau solairu. Atondoan, beirazko eta burdina forjatuzko atetik Baldwinek bere andrea ikusi zuen espaloietzean, zutik, garai, zurrin, eskularruak janzten. Korrika atera zen eta eskutik heldu zion taxi bat iristen ari zen une berean. Izerdiak perlaztatzen egiten zion kopeta, alkandoraren lepo azpian kilimak eragiten zizkiola. Ohartu zen bera zein barregarri zegoen bere musuzapia eskuetan zuela, atezain beltzak isekatsu esaten zion bitartean: «Egun on, Mr. Baldwin, badirudi egun ederra datorrela». Eskutik indarrez oratuta, ahapeka esan zuen Baldwinek hortzen artean:

— Cecily, zerbait esan behar dizut. Ezin al duzu minutu batez itxaron? Gero, elkarrekin joango gara hiriaren erdialdera... Itxaron bost minutuz, mesedez —esan zion taxilariari—. Berehala jaitsiko gara.

Eskumuturra gogor estutzen ziola itzuli ziren igogailurantz. Euren apartamentuaren korridorean, halako batean emakumeak zuzen-zuzenean egin zion so, begi gartsuez.

— Sartu, Cecily —esan zuen eztiki eta logelako atea giltzaz itxi zuen—. Orain lasai hitz egin dezagun. Eseri maitea.

Aulki bat atzean ipini zion. Emakumea tupustean eseri zen, txontxongilo bat bezain zurrin.

— Begira, Cecily, ez duzu eskubiderik nire lagunez horrela hitz egiteko. Mrs. Oglethorpe laguna dut. Lantzean behin tea hartzen dugu elkarrekin leku guztiz publikoetan, ez besterik. Nik esango nion etortzeko, baina beldur nintzen ea zu oso zakarra ez ote zinen izango berarekin... Ezin duzu horrela jarraitu, zure zelo zoro horiek alde batera utzi gabe. Nik askatasun osoa ematen dizut eta zugar guztizko ustea dut... Nire ustez, nik eskubide berbera dut zugandik

konfiantza berbera jasotzeko... Cecily, izan zaitetz berriro lehengo neskato zentzuduna. Atso zahar batzuek asmo txarrez asmatutako txutxumutxu guztiak entzuten ibili zara, zu zoritxarreko egiteko.

— Emakume hori ez da lehena.

— Cecily, aitortu beharra daukat zenbaitetan, gu ezkondu eta berehala... Baina hori aspaldi bukatu zen... Eta nor izan zen erruduna?... O, Cecily, zu bezalako emakume batek ezin ditu ulertu ni bezalako gizon baten beharrizan fisikoak.

— Ez al dut egin ahal izan dudan guztia?

— Maitea, horrelako gauzetan ez dago errudunik... Nik ez dizut errurik botatzen... Benetan maite izan baninduzu, orduan...

— Zergatik uste duzu nagoela infernu honetan zuek ez bada? O, zu bai zakarra!

Cecily eserita zegoen, bere oinei so, antezko xapinak jantzirik baitzituen, hatzen artean bere mukizapiaren lokarri hezea behin eta berriro bihurrika zerabilela.

— Begira, Cecily, oraintxe bertan dibortzioa kaltegarria izango litzateke niretzat, baina zuk

benetan ez baduzu nirekin bizi nahi, kontu hau konpontzen saiatuko naiz... Baina, nolanahi ere, nitaz gehiago fio behar duzu. Zuk badakizu estimu handitan zaitudala. Eta, Jainkoaren izenean, inori ez kontatu hau nirekin hitz egin aurretik. Zuk ez duzu iskanbilarik nahi izango, ezta egunkarietako tituluetan agertu ere, ezta?

— Ongi da... Utz nazazu bakarrik... Berdin zait dena.

— Ederki... Berandu egin zait. Taxi honetan joango naiz erdialdera. Nahi al duzu etorri erosketak egitera?

Cecilyk ezetz egin zuen buruaz. Baldwinek muin egin zion bekokian, korridorean lastozko kapela eta makila hartu eta ziztuan alde egin zuen.

— Ene, ni bai emakume dohakabea! —murmurikatu zuen zutik jartzen ari zela.

Buruko mina zuen; begitandu zitzaion burua alanbre gori batez inguratua zuela. Leihora irten eta eguzkitan jarri zen. Park Avenue-ren beste aldean, gar baten moduko zeru urdina eraikin berri baten habe gorriek marraturik zegoen. Lurrin-errematxagailuak etengabe kirrinkatzen

zuen. Noizean behin gindax batek txistu egiten zuen, kateen txintxina aditzen zen eta habe berri bat zeharka ageri zen airean. Harantzago, ipar-mendebalderantz, hodei distiratsu batzuek gorantz egiten zuten hegan, azaloreen modura loratuz zihoazela. «Ene, euria egingo balu, bederen!». Gogoeta hori burura etorri orduko trumoi baten eztanda isila trafikoaren eta eraikinen zalapartaren gainean pausatu zen. «Ene, euria egingo balu, bederen!»

Ellenek kretonazko gortina bat eseki berria zuen leihoan, gainean zuen lore gorri eta moreez osatutako marrazkiaren bidez patio mortuak eta etxeen adreiluzko murrak ez ikusteko. Gela biluziaren erdian, terako katiluz bete-beteriko kaxa-diban bat zegoen, bai eta janaria mahaian bero edukitzeko kobrezko ontzi berezi bat eta kafe-iragazki bat ere. Zur gogorrezko dornadura horiaren gainean kretona-zatiak eta gortina-uztaiak nahaspilaturik zeuden. Zoko batean, liburuek, jantziek eta izarek gainez egiten zuten kaxa batetik. Supazterraren ondoko erratzari

zedro-olioaren usaina zerion. Horman bermatuta eta nartziso-koloreko kimonoa jantzirik, Ellenek bozkarioz begiratu zuen zapata-kutxa itxurako gela handi hartara; halako batean, txirrinaren hotsak asaldura piztu zuen haren baitan. Bekoki aurrean dingilizka zuen ile-xerlo bat bildu eta krisketa irekitzeko botoia sakatu zuen. Kolpe txiki bat entzun zen atean. Emakume bat ageri zen korridoreko ilunpean.

— Epa, Cassie, ez zaitut ezagutu! Sartu... Zer duzu?

— Ez dut enbadazudik sogtzen benetan?

— Ez horixe.

Ellen makurtu egin zen etorri berriari moka-kada moduko musu azkar bat emateko. Cassandra Wilkins zurbil-zurbil zegoen eta halako dar-darizo urduri bat zuen betazalen inguruan.

— Emaidazu aholku bat. Gortinak esekitzen ari naiz... Begira, zuk uste al duzu more honek ondo ematen duela hormako grisarekin? Niri pitin bat arraroa iruditzen zait.

— Nik uste dut eded-ededga dela. Hau da gela ededga! Zeinen zodiotsua izango zaden bertan!

— Ipini labexka hori lurrean eta eseri. Tea prestatuko dut. Halako bainugela-sukalde bat dago hor, logelan.

— Ziug zaude ez dudala enbadazurik sog-tzen?

— Ez horixe... Baina Cassie, zer duzu?

— O, dena... Hodi guztia kontatu nahi nizun, baina ezin dut. Ezin diot inodi kontatu.

— Ni poz-pozik nago apartamentu honekin. Pentsa, Cassie, nire lehenengo etxea, bizitza osoan. Aitatzok nahi zuen ni berarekin bizitzea Passaic-en, baina ni ondotxo ohartu nintzen ezin nuela.

— Eta zed egiten du Mr. Oglethogpek? O, a ze lotsagabekedia!... Bagkatu, Elaine. Eddi zodatu-ta nago. Ez dakit zed esaten dudan ede.

— O, Jojo xarmangarria da! Nik nahi izanez gero, bera prest dago niri dibortzioa emateko. Zuk gauza bera egingo al zenuke, nire lekuan bazeunde?

Erantzunaren zain geratu gabe alde egin zuen ate birakarietatik zehar. Cassie kizkurtuta geratu zen sofaren ertzean.

Teontzi urdin bat esku batean eta eltze bat ur irakin bestean zuela itzuli zen Ellen.

— Axola al zaizu limoirik eta kremarik gabe hartzea? Azukre apur bat bada supazterreko apalean. Katiluak garbi daude oraintxe bertan garbitu ditudalako. Politak dira, ezta? O, zuk ez dakizu zein ondo eta etxekoi sentitzen den bat, bararentzako pisu bat lortzen duenean. Gorroto dut hotelean bizitzea. Benetan diotsut, zuk ez dakizu etxe honek zein etxekoi egiten nauen... Bitxia da, baina pisua ganoraz atondu bezain laster litekeena da hemendik alde egin eta besteren bati alokatu behar izatea. Hiru aste barru antzerki-itzuli bati ekingo diogu. Nik ez dut joan nahi, baina Harry Goldweiserrek ez dit baimenik emango.

Cassie te-zurrutada txikiak edaten ari zen koilaratxoaz. Eztiki hasi zen negarrez.

— Tira, Cassie, bota ezazu, zer duzu?

— O, zu hain zada zodioneko eta ni, bedgiz, hain zoditxadgeko.

— Bada, nik betidanik pentsatu izan dut neu nintzela zoritxarrekoetan zoritxarrekoena, baina zer duzu?

Cassiek katilua utzi eta lepoa estutu zuen bi eskuez.

— Begida —esan zuen ahots itoaz—, uste dut hauddun nagoela.

Burua belaunen artean jarri eta negar-zotinka hasi zen.

— Ziur zaude? Mundu guztiak izaten ditu sus-toak beti.

— Nik nahi nuen gude maitasuna gadbia eta ededga izatea, baina bedak esan zuen ez nin-duela bedgiz ikusi nahi nik ez banuen... eta nik godgotatu egiten dut.

Hitzak bata bestearen ondoren jaulki zituen malkoz beteriko negar-zotinen artean.

— Zergatik ez zarete ezkontzen?

— Ez dut nahi. Ezin dut. Ez lidake bat ede mesededik egingo.

— Noiztik dakizu?

— O, duela hamad egunetik, gutxienez. Badakit hodixe dela... Nik ez dut neude dantza bestedik nahi.

Negar-zotinka egiteari utzi eta berriro tea edaten hasi zen zurrutada laburrez.

Ellen atzera-aurrera zebilen supazterraren aurrean.

— Begira, Cassie, alferrik da urduri jartzea, alferrik. Ezagutzen dudan emakume batek lagunduko dizu. Lasaitu, mesedez.

— Ezin izango nuke, ezin izango nuke... —plartertxoa belaunen artean limurtu zitzaion, lurrera erori eta puskatu egin zen—. Esadazu, Elaine, inoiz paidatu al duzu *hodgelakodik*?... O, sentitzen dut bene-benetan. Beste plategtxo bat edo-siko dizut, Elaine.

Aiko-maikotan altxatu zen eta katilua eta koi-laratxoa apalean ezarri zituen.

— O, bai noski. Ezkonberritan oso-oso gaizki pasatu nuen...

— O, Elaine, hau dena izugadgia da, ezta? Bizitza hain ededga litzateke, hain libgea, hain natudala, hau gabe... Nik laztuda sumatzen dut nide baitan bod-bod, ni hiltzen nauela.

— Gauzak horrela dira —esan zuen Ellenek zakar.

Cassie berriro negarrez hasi zen.

— Gizonak hain dida basatiak eta bedekoiak.

— Beste te bat, Cassie?

— Ez, ezingo nuke. Maitea, godagale izugadgia dut... Nik uste botaka egiten hasi behad dudala.

— Bainugela zuzen-zuzenean dago, ate bira-karia igarota eta ezkerrera.

Ellen joan-etorrika zebilen gelan zehar, hortzak estuturik.

— Emakumeak gorroto ditut. Emakumeak gorroto ditut.

Cassie berehalaxe itzuli zen gelara, aurpegi zuri-berdexka agerian, bekokia trapu batez garbitzen ari zela.

— Hemen, etzan zaitez, gajo hori —esan zuen Ellenek, sofan lekua egiten zion bitartean—. Orain askoz ere hobeto sentituko zara.

— O, bagkatuko al didazu enbadazu hau guztia edaginda ede?

— Etzan zaitez minutu batez eta ahaztu guztia.

— O, atsedena hagtzea banu sikieda...

Ellenek eskuak hotz zituen. Leihora joan eta handik begira jarri zen. Mutil bat cowboy-z jantzita korrika zebilen patioan zehar, arropa esekitzeko soka bat batera eta bestera astinduz. Behaz-

topatu eta erori egin zen. Ellenek aurpegia mal-kotan blai ikusi zion altxatzean. Harantzagoko patioan, ile beltzeko emakume mozkote bat arropa esekitzen ari zen. Hesian, txolarreek txorrotxioka ziharduten elkarri mokoka.

— Elaine, maitea, aurpegidako hauts batzuk emango dizkidazu? Neude hauts-potea galdu dut.

Ellen bere logelara itzuli zen.

— Nik uste... Bai, hor, supazterreko apalean... Hobeto al zaude orain, Cassie?

— O, bai —esan zuen Cassiek ahots dardarazitiz—. Eta ezpainetakodik?

— Sentitzen dut bene-benetan... Ni ez naiz sekula makilatzen kalera ateratzeko. Laster egin beharko dut, antzezpenean parte hartzeko.

Logelan sartu zen kimonoa kentzeko, soineko soil berdea jantzi zuen, ilea bildu eta kapela beltz txiki bat jarri zuen buruan.

— Tira, Cassie. Seietan zerbait jan nahi dut... Ez dut afaria irentsi nahi antzezpena hasi baino bost minutu lehenago.

— O, beldudgak nago... Hitz eman behadidazu ez nauzula bakadgik utziko.

— O, gaur ez dizu ezertxo ere egingo... Gehienez, aztertu egingo zaitu eta agian zerbait emango dizu hartzeko... Itxaron, non utzi duzu giltza?

— Taxi bat hargtu behagko dugu. Eta, maitea, nik sei dolar bestetik ez daukat mundu honetan.

— Aitak, eskatzen badiot, ehun dolar emango dizkit, altxariak erosteko. Dena konponduko da.

— Elaine, zeu zada munduko pertsonarik onena... Medezi duzu logtu duzun adgakasta guztia.

Seigarren Etorbidearen kantoian taxi bat hartu zuten. Cassie hortzak karraskatzen ari zen.

— Mesedez, beste egun batedako utziko dugu. Beldugtuegi nago odain joateko.

— Ene kuttuna, horixe da bide bakarra.

Pipa ahoan, Joe Harlandek zurezko ate zabal kirrinkaritik tira egin eta morroiloaz itxi zuen. Eguzki-argi granate-kolorekoen azken orbana histen ari zen indusketaren ondoko etxearen murrugaiaren gainean. Garabien beso urdinak nabari ziren, ilun, murrugaren kontra. Bizkarra

atean bermaturik, Harland bere pipa ordurako itzalia zupatzen ari zen, eskorga hutsen ilarei eta pikatxoi eta pala piloei begira. Gindax eta lurrin-zulagailuetarako estalgune txiki bat pitzatutako haitz baten goialdean zegoen, mendiko aterpe baten gisa berean. Hesitik sartzen zen trafikoa-ren zalaparta gorabehera, lekua narea iruditu zitzaion. Ate ondoko estalpean sartu zen —han telefonoa baitzen—, aulkian eseri, pipa hustu eta bete eta piztu egin zuen. Gero, egunkaria belaun gainean ireki zuen.

ERAIKUNTZAKO ENPRESABURUAK
ENPRESAREN ITXIERA PRESTATZEN ARI DIRA
KONTRATISTEN GREBARI ERANTZUTEKO.

Aharrausi egin zuen burua atzera eramanez. Argi urdina ilunegia zen irakurtzeko. Luzaro geratu zen bere boten punta markadunei so. Bere gogoa hutsune eroso lauso bat zen. Bat-batean, bere burua etiketaz jantzirik ikusi zuen, kapela luzea eta botoi-zulo batean orkideo bat zeramatzala. Wall Street-eko Aztia so geratu zitzaion haren bisaia gorri guztiz marratuari, bai

eta kapela zarpailtsuaren azpiko ile grisari eta hazkozkor lohitsu eta hanpatudun esku handiei ere, eta desagertu egin zen irribarre eginez, aha-peka. Corona-Corona baten lurrinaren akordu zehaztugabea etorri zitzaion burura, jakaren sakelan pipa betetzeko Prince Albert potearen bila ari zen bitartean. «Bien arteko aldea jakin nahi nitek», esan zuen ozenki. Poxpolu bat piztean, gaua guztiz belztu zen halako batean, tinta bailitzan. Poxpulua itzali zuen. Pipa sumendi gorri txiki bat zen, zupada bakoitzean txinpart indargeak sortzen zituen. Geldiro erretzen zuen, kea irentsiz. Hango eraikin garaiek argi-koraa bana zuten euren inguruan, kaleen eta iragarki elektrikoen distira gorrixkak sortarazia. Gorantz begiratzean, argi islatuaren belo ahu-lean zehar, zeru urdin-beltza eta izarrak ikusi zituen. Tabakoa gozoa zen. Joe oso zoriontsu zegoen.

Zigarro baten mutur goriak txabola baten atea zeharkatu zuen. Linterna eskuan zuela, Harland irten egin zen handik. Ahoan purua zuen mutil gazte ilehori sudur eta ezpain lodiko baten aurpegirantz zuzendu zuen linterna.

— Nola sartu zara hemen?

— Ondoko atea irekita zegoen.

— Bai zera! Zeren bila zabiltza hemen?

— Zu al zara gaueko zaindaria? —Harlandek baietz egin zuen buruaz—. Pozten naiz zu ezagutzeaz... Puru bat?... Zurekin solasalditxo labur bat egin nahi nuke... Ni 47. saileko arduraduna naiz. Erakutsidazu zeure txartela.

— Ez naiz sindikatukoa.

— Tira, denborarekin izango zara, ezta?... Guk, eraikuntzako langileok, elkartu egin behar dugu. Mundu guztia biltzeko ahaleginetan ari gara, gaueko zaindariatik hasita inspektoreetaraino, enpresaburuen itxierari aurre egiteko.

Harlandek bere purua piztu zuen.

— Begira, gazte, listua alferrik gastatzen ari zara nirekin. Beti beharko dute zaindaria, greba egon ala ez egon... Ni zaharra naiz, ez dut indarrik borroka egiteko. Hauxe da azken bost urteotan izan dudana ganorazko lan bakarra eta akatu egin beharko naute kendu nahi badidate... Hori dena ondo dago zu bezalako mutilentzat. Ni kanpo nago. Gaueko zaindaria antolatzen saia-

tzea listua alferrik gastatzea duzu, benetan diotsut.

— Aizu, zuk ez duzu hitz egiten betidanik lan honetan jardun izan bazenu bezala.

— Agian, ni ez naiz lanbide honetakoa.

Mutil gazteak kapela kendu eta eskua beko-
kitik eta kaxkamotz sarritik pasatu zuen.

— O, zein izerdi-eragile ona eztabaidatzea, arranopola! Gau ederra, ezta?

— Bai, oso ederra —esan zuen Harlandek.

— Nik O'Keefe dut izena, Joe O'Keefe... Ziur nago zuk nahi baduzu, gauza asko kontatu ahal dizkidazula —esan zuen eskua luzatzen ziola.

— Nik ere Joe dut izena... Harland... Duela hogeit hamar urte izen hori oso ezaguna zen jendearen artean.

— Hogeit hamar urte barru...

— Aizu, zu oso morroi xelebrea zara ordezkari sindikal ibiltaria izateko. Entzun ezazu zahar honen esana, nik zu kalera bota baino lehen... Morroi gazte batek ezin du horrela aurrera egin munduan.

— Garaiak aldatu egiten dira. Pisu handiko morroiak daude grebaren atzean, ikusten? Gaur

arratsaldean bertan bulegoan hitz egin dut McNieli batzordekidearekin egoerari buruz.

— Bada, nik benetan diotsut hiri honetan zerbaitek hondamenera eraman bazaitzake, hori sindikatuen kontu hau da. Egunen batean gogorra etorriko zaizu zahar moz korti honek esan dizuna, baina ordurako beranduegi izango da.

— O, zurruta izan zen, ezta? Horixe da beldurtzen ez nauen gauza bat. Nik ez dut sekula edaten, garagardoa ez bada, eta hori gizalegez.

— Begira, gazte, konpainiako detektibea laster irtengo da erronda egitera. Hobe zenuke hemendik alde egitea.

— Niri ez didate beldurrik ematen detektibe madarikatu horiek... Tira, laster arte, egunen batean itzuliko naiz zurekin egotera.

— Itxi atea irtetea.

Joe Harlandek ur apur bat atera zuen latorrizko depositu batetik, bere aulkian lasai asko eseri, nagiak atera eta aharrausi egin zuen. Hamaikak. «Orain gizon apain jantziak eta eskote handiko emakumeak irtengo dituk antzokieta; gizonak etxera joango dituk euren andreekin edo amoranteekin; hiria lotara zoak». Taxiek

tutua jo eta karranka egiten zuten hesiaren beste aldean. Iragarki elektronikoaren urrezko hautsak dar-dar egiten zuen zeruan. Joek zigarrakina bota eta takioz zantzu zuen lurraren kontra. Hotzikara bat sumatu zuen eta zutitu egin zen. Gero, lasai ostera bat egin zuen orubean zehar, linterna dilin-dalan zerabilela.

Kaleko argia berealdiko iragarki bat horailtzen ari zen leunki, non leho beltzekiko etxeorratz zuri bat nabari baitzen hodei zuriz zipriztindutako zeru urdinaren kontra: «SEGALAND HAYNESEK BULEGOTARAKO HOGEITA LAU PISUKO ERAIKIN MODERNO BAT ERAIKIKO DU HEMEN. 1915eko urtarrilean irekiko da. Oraindik bada bulegorik alokatzea. Argibide gehiagotarako...»

Sofa berde batean eserita, Jimmy Herf irakurtzen ari zen gela biluziaren zoko bateko bonbilla baten argitan. Jean Christophe-ko Olivier-en heriotzara iritsia zen eta hunkituta irakurtzen ari zen. Bere oroimenean artean iraungi gabe zegoen Rhin-en soinua. Izan ere, ibai hark *Jean Christophe* jaio zen etxeko lorategiaren behealdea atergabe higitzen zuen. Bere gogoan, Europa lorategi berdea zen, musikaz eta bandera gorritz

betea, ibilian dabilen jendez mukuru. Aldian behin, bapore baten txistua barneratzen zen gelan, beherantz eta indarge, elurra bezain geldiro. Kaletik taxien abarrotsa eta tranbien kirrinka zetozen.

Atean jo zuten. Jimmy altxatu egin zen, irakurtzearen poderioz begiak lauso eta bero zituela.

— Epa, Stan, nondik demontre hator?

— Herfy, kriston aitzurra zaukaat.

— Hau duk nobedadea!

— Eguraldi-iragarpena ematera natorrek, ez besterik.

— Aizak, beharbada hik esango didak zergatik ez duen inork ezer egiten herri honetan. Inork ez dik musika idazten, inork ez dik iraultzarik pizten edota inor ez duk maitemintzen. Jende guztiak zera egiten dik: mozkorrak harrapatu eta zikinkeriak elkarri kontatu. Nik uste nazkagarria dela...

— Aizak, aizak... Hitz egik heure izenean. Nik edateari utziko zioat... Ez duk ona edatea, aspergarria duk... Esan, ba al duk bainuontzirik?

— Bai, noski, izango ez diat ba! Norena da, hire ustez, pisu hau? Nirea?

— Norena ba, Herfy?

— Lester-ena. Nik zaindu egiten diat bera atzerrian dabilen bitartean, bera bai zorionekoa. Stanek erantzteari ekin eta arropa bere oinetan pilatu zuen.

— Gustura joango nindukek igeri egitera, alajaina! Zergatik demontre biziko ote da jendea hirietan?

— Zergatik bizi behar ote dut narraz nik, dohakabe honek, hiri ergel eta epileptiko honetan? Horixe duk nik jakin nahi nukeena.

— «*Eraman nazazu bainugelara, Horacio jopu horrek!*» —deiadar egin zuen Stanek, bere arropa-piloaren gainean zutik zegoen, beltzaran, gihar biribil eta sendoak agerian. Pitin bat adaroa egiten zuen mozkorraren eraginez.

— Hortxe zagok, ate horixe duk.

Jimmyk gelaren zokoko bere kaxatik toaila atera, besteari bota eta irakurtzeari lotu zitzaion berriro.

Stan berriro sartu zen gelan, blai eta toailaren beste aldetik hizketan.

— Zer iruditzen zaik hau? Kapela kentzea ahaztu diat. Aizak, Herfy, mesede bat eskatu nahi diat. Egingo didak?

— Bai noski, zer da?

— Utziko didak heure gelan geratzen gaur gauean?

— Bai, jakina.

— Beste pertsona batekin esan nahi diat.

— Nahi duan guztia. Nahi baduk, ekarri Winter Garden koru osoa eta ez dik inork jakingo. Eta larrialdietarako irteera bat zagok, su-eskaile-ratik kalera ematen duena. Ni ohera joango nauk eta atea itxiko diat, gela eta bainugela zuen eskura uzteko.

— Bazakiat hau inposizio gaiztoa dela, baina norbaiten senarra sutan zagok eta kontu handiz ibili behar diagu.

— Eta bihar goizean ez estutu. Nik goizean goiz egingo diat hanka, beraz, patxadan egon zaitezkete.

— Tira, ni banoak. Gero arte.

Jimmyk bere liburua hartu zuen, bere gelara joan zen eta erantzeari ekin zion. Bere erlojuan hamabiak eta laurden ziren. Gaua sargoritsua

zen. Argia itzali ondoren, luzaro geratu zen eserita ohe ertzean. Ibaiaren adar urrunek oilo-ipurdia eragiten zioten. Kaletik zetozen oin-hotsak aditzen zituen, gizon-emakumeen ahotsak, euren etxeetara itzultzen ari ziren bikoteen barre isilak. Gramofono bat *Secondhand Rose* jotzen ari zen. Ahoz gora etzan zen izararen gainean. Airearekin batera zabor-ontzien garraztasuna sartzen zen leihotik, gasolina erreak, trafikoak eta hautsez beteriko kaleek isuritako usainarekin nahasita. Horrez gain, gaizki aireztatutako logelen usaina nabaria zen: han gizon eta emakumeen gorputzak euren kasa bihurrika ari ziren, gauak eta uda hasi berriak torturaturik. Etzanda zegoen, begiak lehor-lehor eta sabaiariso. Bere gorputzak diz-diz egiten zuen, hilzori hauskor batean murgildurik, sutan, gori-gori dagoen metalaren modura.

Emakume baten ahots asaldatuak loa eten zion; norbait ari zen atea bultzatzen.

— Ez dut ikusi nahi, ez dut ikusi nahi, Jimmy, Jainko maitea, joan zeu berarekin hitz egitera. Nik ez dut ikusi nahi.

Elaine Oglethorpe, izara batean bilduta, gelan sartu zen. Jimmyk bere burua ohetik bota zuen.

— Zer arraio duzu?

— Hemen ez dago armairurik edo?... Jojo horrela dagoenean ez diot hitzik egin nahi izaten.

Jimmyk pijama arteztu zuen.

— Bai, armairu bat dago ohearen burualdean.

— Noski... Orain, Jimmy, izan zaitez aingerutxo, hitz egiozu eta moldatu zaitez hemendik alde egin dezan.

Erdi zorabiatu, Jimmyk aldameneko gelan sartu zen.

— Mari-zirtzil alaena! —oihu egin zuen ahots batek leihotik.

Argiak piztuta zeuden. Marra gris eta arrosekiko tapaki batean indiar baten modura bildurik, Stan bi sofaz osatutako ohe zabal batean uzkuraturik zegoen. John Oglethorperi soraio beha zegoen, zeina, burua leihoaren goialdetik aterata, oihuka eta esku-imintzioka ari baitzen, txontxongiloen gisa berean. Ilea nahaspilaturik zuen

begien aurrean. Esku batez makila bat astintzen ari zen eta besteaz kafesne koloreko feldrozko kapela bat.

— Etorri hona, mari-zirtzil alaena... Delitu goria, horixe da... Delitu goria. Bulkada adieraezin batek eraman ninduen Lester Jones-en sute-eskaileratik gora.

Isildu eta Jimmyri adi-adi begira geratu zitzaion, mozkor-begiez.

— Hortaz, hauxe da erreportari hasberria, kazetari horia. Bada, oraintxe bertan habia bate-tik erori dela ematen du. Ba al dakizu zer uste dudan zutaz? Benetan jakin nahi al duzu? O, Ruthek eta besteren batek eman didate zure berri. Badakit zuk uste duzula gauza guztien gaintetik dauden dinamitari horietako bat zarela. Gogoko al duzu prentsako prostitutua izatea? Gogoko al duzu txartel horia? Kobrezko xafla, horrelako gauzak... Zuk uste duzu ni aktorea, artista, iza-teagatik ez dakidala ezer gauza horietaz. Ruthek esan dit zer iritzi duzun aktoreez eta horrelako gauzez.

— Mr. Oglethorpe, benetan diotsut oker zaudela.

— Nik irakurri eta ez dut ezer esaten. Gizon isila naiz, baina gauzak begietsi begiesten ditut. Badakit prentsan agertzen diren esaldi, hitz eta puntuazio-zeinu guzti-guztiak aztertu, zuzendu eta moldatu egiten dituztela iragarleen eta akziodunen arabera. Bizitza nazionalaren iturria pozoituta dago bere sorburuan.

— Hori duk eta, ongi esana! —egin zuen garrasi Stanek ohetik. Altxatu eta txaloka hasi zen.

— Nik nahiago nuke tramoiaririk apalena izan. Nahiago nuke eszenatokia garbitzen duen emakume zahar eta ahula izan... hiriko egunkaririk handieneko erredakzioburuaren bulegoko belusaren gainean esertzea baino. Antzezlarion lanbidea ohoragarria, zintzoa, apala eta jatorra da.

Bat-batean hitzaldia bukatu zen.

— Egia esanda, ez dut argi ikusten zer nahi duzun nigandik —esan zuen Jimmyk besoak uztartzen ari zela.

— Hara, orain euria hasi behar du —jarraitu zuen Oglethorpek auhenka ahots kirrinkariz.

— Hobe zenuke etxera joatea —esan zuen Jimmyk.

— Alde egingo dut, bai, alde egingo dut emagaldurik ez dagoen lekuren batera... ez prostitutarik, ez gigolorik... Gau luzean murgilduko naiz.

— Uste al duk etxera ondo iritsiko dela, Stan? Ohe ertzean eserita eta barrez lehertzen ari zela, Stanek sorbaldak uzkuritu zituen.

— Nire odola zure buru gainera eroriko da betiko, Elaine, betiko, entzun didazu?... Gauean, inork niri barrerik edo isekarik egiten ez didan lekuren batean. Ez pentsa ikusten ez zaitudanik... Okerrena gertatzen bada, ez da nire erruagatik izango.

— Gau on —egin zuen deiadar Stanek. Azken barre-bulkada eginda ohe-ertzetik erori eta pirritan hasi zen lurrean zehar. Jimmy leihora gerturatu zen eta kalezuloko sute-eskailerarantz begiratu zuen. Oglethorpe dagoeneko alde egina zen. Euria barra-barra ari zuen. Murruei adreilu bustien usaina zerien.

— Tira, hau bada nahasterik korapilatsuena...

Jimmy bere gelara itzuli zen Stani begiratu gabe. Ate aurrean, Ellen Jimmyren ondotik igaro zen, arin eta lirain.

— Bene-benetan sentitzen dut, Jimmy... —
hasi zen Ellen.

Atea Ellenen sudurraren aurre-aurrean itxi zuen, giltzaz.

— Tontolapiko hauek burutik eginda daude —
esan zuen hortz artean—. Zer arraio uste dute
dela hau?

Eskuak hotz eta dardarka zituen. Burusi batez tapatu zen. Ohean etzanda esna zegoen euriaren triki-traka etengabeari eta teilatu-hodien tanta-erortze txistukariari adi. Lantzean behin haize-bolada batek begitartea umeltzen zion. Logelan oraindik nabarmenak ziren Ellenen adats sarriaren zedro-usaina eta bere soinaren leuntasuna, hantxe uzkurturik egona baitzen, izararen barruan bilduta, ezkutatuta.

Ed Thatcher badiara ematen zuen leihoan eserita zegoen, igandeko egunkarien artean. Ilea urdinduta zuen eta zimur sakonak ageri zituen

masailetan. Praken goiko botoiak askatuak zituen, sabel hanpatu hura estutzen baitzieten. Leiho irekiaren aurrean eserita, asfalto kiskalgarriaren gaineko autoen erreka azkengabeari begira zegoen; izan ere, ibilgailuak bi noranzkoetan marruka zebiltzan, adreilu horizko dendak eta adreilu gorrizko geltokia atzean utziz. Han, teilatu-hegal baten azpian, eguzkitan distira ahula sortarazten zuten letra urreztatu batzuk irakur zitezkeen, atzealde beltzaren gainean ezarririk: PASSAIC. Aldameneko etxeetan, gramofonoek igandeetako marmario etengabeak gupidarik gabe zabaltzen zituzten: *It's a bear, Lucia-ren seikotea eta The Quaker Girl-en lan aukeratuak*. Belaunen gainean New York Timeseko antzerki-atala zetzan. Logaleak jotako begi horiek bero dardartiari so zegiten. Min itogarri batek estutzen zizkion saihetsak. Town Topics ale bateko paragrafo bat irakurri berria zuen.

«*Mihi gaiztoak marmarrean ari dira gertakari ukaezin baten inguruan: Stanwood Emery gazteak autoa gauero aparkatzen du Knickerbocker antzokiaren aurrean eta, diotenez, handik ez du*

sekula alde egiten laster punta-puntako izarren artean egongo den neska aktore gazte batez lagunduta ez bada. Gazte horrek hiriko abokatu-bulego errespetagarrienetako bateko burua du aita eta berrikitan, gorabehera pittin bat penagarri batzuk zirela medio, Harvard-etik alde egin behar izan du; bada, azken bolada honetan, bere balentriek berealdiko harridura piztu dute jendearen artean, seguru asko bere gaztetasunaren berezko irakinaldiaren ondorio besterik izan badira ere. Ulermen zoliari hitz gutxi.»

Txirrinak hiru aldiz jo zuen. Ed Thatcherrek egunkariak bota zituen eta dardarka oldartu zen atera.

— Ellie, atzeratu egin zara. Uste nuen ez zine-la etorriko.

— Aitatxo, etorriko naizela esaten badut, etorri egiten naiz beti.

— Bai noski, maitea.

— Zer moduz? Zer moduz bulegoan?

— Mr. Elbert oporretan dago... Nik uste dut bueltatzen denean joan egingo naizela. Nahi

nuke, bada, zu nirekin etortzea Spring Lake-ra egun batzuetarako. On egingo lizuke.

— Baina aitatxo, ezin dut... —kapela burutik kendu eta sofa gainera bota zuen—. Begira, arrosak ekarri dizkizut, aitatxo.

— Pentsatu horretaz. Gorriak dira, zure amak honelakoak zituen gogoko. Oso detaile polita izan da... Baina ez nuke bakarrik joan nahi oporretara.

— O, aitatxo, seguru asko han lagun zahar pilo bat aurkituko duzu.

— Zergatik ez zatoz nirekin, astebeterako besterik ez bada ere.

— Lehenengo eta behin, lan bat topatu behar dut... Konpainiak bira bat egin behar du eta ni oraingoz ez naiz joango. Harry Goldweiserri ez dio bat ere grazia egin horren berri izan duenean.

Thatcher berriro badiara ematen zuen leihoan eseri eta igandeko egunkariak pilatzen hasitzen aulki baten gainean.

— Baina aitatxo! Zer arraio egiten duzu zuk Town Topics-en ale horrekin?

— O, ezer ez. Irakurri gabe daukat. Nolakoa zen ikusi nahi nuen, ez besterik.

Lotsagorritu egin zen eta, ezpainak estututa, lehengo alea desagertarazi egin zuen Times-en orrien artean.

— Hori sasiegunkari bat da, txantajea egiten besterik ez dakiena.

Ellen harat-honat zebilen gelan zehar. Arrosak ontzi batean jarriak zituen. Halako freskura lurrintsu bat hasi zen hedatzen gelako aire trinkoan zehar.

— Aitatxo, zerbait esan behar dizut... Jojo eta biok dibortziatu behar dugu.

Eserita eta eskuak belaun gainean zituela, Ed Thatcherrek, ezpainak estututa, buruaz baietz egiten zuen, ezertxo ere esan gabe. Aurpegia ilun eta grisa zuen, ia-ia bere jantzi pikardatua bezain grisa.

— Ez dago ezer larririk, egia esanda. Baina ohartu gara ezin dugula elkarrekin jarraitu. Dena poliki doa, modurik egokienean... George Baldwinek, lagun batek hartu du gai honen ardura.

— Emery&Emery-rekin etorri zena?

— Bai.

— Umm...

Isildu egin ziren. Ellen arrosen usaina sakonki hartzeko makurtu zen. Gero, har berde bati beha geratu zen, brontze-koloreko hosto baten gainean noraezean baitzebilan.

— Benetan diotsut, nik oso-oso maite dut Jojo, baina erotu egingo nintzateke berarekin jarraituz gero... Zor handia dut berarekin, bada-
kit.

— Hobe zenuen inoiz begiz jo ez bazenu.

Thatcherrek eztarria garbitu eta aurpegia jiratu zuen leihotik bi auto-ilara amaigabeak ikusteko, geltoki aurretik igaroan. Autoek harrotutako hautsari eta kristal, esmalte eta nikelen gainean sortutako isla angeluarrei beha zegoen. Pneumatikoek txistu egiten zuten macadam koi-petsuan zehar. Ellenek bere burua bota zuen sofa gainean eta begiak noraezean erabili zituen alfonbraren arrosa gorri kolorgeen artetik. Txirri-nak jo zuen.

— Neu noa, aitatxo... Zer moduz, Mrs. Culve-
teer?

Emakume handi musugorri bat, gasazko jantzi zuri-beltza soinean, arnasestuka sartu zen gelan.

— O, barkatu, une txarrean banator. Oraintxe bertan alde egingo dut... Zer moduz, Mr. Thatcher?... Jakin dut, maitea, zure aita gizajoa oso gaixo egon dela.

— Huskeria bat baino ez da izan, bizkarreko min txiki bat.

— Lunbagoa, maitea.

— Baina aitatxo, zergatik ez zenidan ezer esan?

— Gaurko sermoia benetan aberasgarria izan da, Mr. Thatcher... Mr. Lourton inoiz baino finago mintzatu da.

— Badakit pixka bat irten beharko nukeela etxetik eta noizean behin elizara joan, baina nik igandeetan etxean geratzea atsegin dut.

— Jakina, Mr. Thatcher. Horixe da zeuk duzun egun bakarra. Nire senarra berdintsua zen... Baina uste dut Mr. Lourton ez dela artzain gehienak bezalakoa. Horrek bai duela ikuspegi berri-tzailea eta anitza! Badirudi elizara baino hitzaldi

oso-oso interesgarri batera goazela... Ulertzen duzu zer esan nahi dudan?

— Benetan diotsut, Mrs. Culveteer, datorren igandean, bero handia egiten ez badu, haraxe joango naiz... Alfertzen ari naizela uste dut.

— Aldaketa txiki batek denoi egiten digu on. Mrs. Oglethorpe, zuk ezin duzu pentsatu ere egin guk zer-nolako gogoia dugun zure karreraren berri igandeko egunkarien edo beste zerbaiten bidez jakiteko... Zoragarria da, benetan zoragarria. Atzo Mr. Thatcherri esan nionez, gaur egun nortasun sendoa eta sentimendu kristau sakona behar dira antzerki-munduari tentazioei eusteko. Guztiz pozgarria da pentsatzea emakume gazte bat, emakume gazte ezkondu bat, garbi eta orbainik gabe bizi daitekeela halako giro batean.

Ellenek ez zuen begirik lurretik kentzen, bere aitaren begiradak saihestu nahirik, zein, urduri, aulkiaren beso baten gainean tiki-taka ari baitzen bi atzamarrez. Irribarretsu, Mrs. Culveteer pozarren ari zen, sofaren erdialdean. Altxatu egin zen.

— Tira, alde egin beharra daukat. Neska sukaldari berria dugu eta ziur nago afaria negargarria izango dela... Egingo al diguzue bisitatxo bat arratsaldean?... Konplimendurik gabe. Gailetak egin ditut eta botila batzuk ginger ale aterako ditugu, norbait etortzen bazaigu ere.

— Atsegin handiz joango gara, Mrs. Culveteer —esan zuen Thatcherrek, zutitzen zen bitartean, zurrin.

Mrs. Culveteerrek aterantz jo zuen ahateen ibilkeraz, soinekoa estuegi baitzeukan.

— Tira, Ellie, goazen zerbait jatera... Oso bihotz oneko emakumea da. Beti ekartzen dizkit marmelada eta jele poteak. Goialdean bizi da bere ahizparen familiarekin. Saltzaile baten alarguna da.

— Bai jardun aspergarria antzerki-mundua-
ren tentazioei buruz egin duena! —esan zuen Ellenek irriño bortxatu bat eginez.

— Goazen, bestela jatetxea jendez gainezka egongo da. Jendetzarengandik ahalbait urrunen; horixe dut lema —esan zuen Thatcherrek ahots urduri eta zakarraz—. Ez dezagun alferrik hitz egin.

Atea zeharkatzean, Ellenek ireki zuen bere itzalkina, alde batean txirrinak eta bestean postontziak zituela. Bolada bero batek talka egin zien aurpegian. Atzean utzi zituzten paperdenda, A. and P. letra gorriak eta kale-kantoiko drogeria, toldo berdearen azpitik soda eta izozkiaren freskura zaharmindua isurtzen zuena. Kalea zeharkatu zuten; han, oinak asfalto bigun eta likitsean itsatsirik geratu zitzaizkien eta Sagamore kafetegian gelditu ziren. Erakusleihoko erlojuan hamabi-hamabiak ziren; esferaren inguruan, *Time to eat* esaldia irakur zitekeen, letra gotikoez idatzirik. Behean, garo handi horail bat zegoen, eta txartel bat: *Chicken Dinner*, 1,25 dolar. Ellen atean geratu zen, kale dardaratsuari so.

— Begira aitatxo, seguru asko ekaitza izango dugu.

Kumulu batek elurrezko bere zurtasun sinesgaitza zabaldu zuen zero arbeltsuan gaindi.

— Ez al da polita hodei hori? Ez al litzateke polita izango halako ostots-ekaitz bat izango bagenu?

Ed Thatcherrek gorantz begiratu, buruaz baietz egin eta, ate birakaria atzean utzita, aurrera egin zuen. Ellen atzetik joan zitzaion. Barruan, bernizaren eta neska zerbitzarien usaina zegoen. Ate ondoko mahai batean eseri ziren, haizagailu baten burrunbaren pean.

— Zer moduz, Mr. Thatcher? Non ibili zara aste honetan, jauna? Zer moduz, andereño?

Neska zerbitzari argal eta ile-hori tindatua adeitsu makurtu zen haien aldera.

— Gaur zer nahi duzu, jauna: Long Island-eko ahate errea ala Filadelfiako kapoi errea?

Laugarren atala

Suhiltzaileen kamioia

*Horrelako arratsaldeetan autobusak
lerroka kokatzen ziren zirku-desfile
bateko elefanteak bezala, Morningsi-
de Heights-etik Washington Square-
ra, Penn Station-etik Grant's Tomb-
era. Neska-mutilak elkarri bultzaka
ari ziren batzuek besteen soina ukitu
nahian, kalean gora eta kalean
behera, elkar igurtzitzen ari ziren
batzuk besteei bultzaka, plaza ilunik
plaza ilun, harik eta ilberriak Wee-
hauken-en goialdean inozoki barre
egin zien arte, harik eta igande bizi-
gabe bateko haize-boladak hautsa
begitarterantz harrotu zien arte,
arrastiri hordi baten hautsa.*

Central Park-eko pasealeku batean gora ziho-
azen.

— Badirudi zaldar bat zuela lepoan —esan zuen Ellenek Burns-en estatuaren aurrean.

— A! —xuxurlatu zuen Harry Goldweiserrek hasperen sakon bat eginez—, poeta aparta izan zen ordea.

Bere kapela zabala eta bere soineko nasai argia jantzirik, Ellenek aurrera zegien, haizeak aldian behin soinekoa hanken eta besoen kontra sakatzen bazion ere; aurrera zegien zetaren kraskaden doinupean arrastiriko argi-burbuila gorrixka, more eta berdeen artetik; belar, zuhaitz eta urmaeletatik gora zihoazen burbui-
lok, parkeko hegoaldearen ertzeko etxe garai grisen kontra hanpatzen ziren eta zenitaren anilean urtu egiten ziren. Harryk bere ezpain lodiez esaldiak biribilduz hitz egiten zuen, bere begi marroiez neskaren musua irrikaz aztertuz; Harryren hitzen hurbiltasunak hainbesteko estutasuna sortarazten zuen Ellenengan, ezen ematen baitzuen haren jantziaren estuguneetako zirrikitueta zehar aurrera egin nahi zuela. Gizonaren solasak sortarazitako izuak arnasketa galarazten zion.

— *The Zinnia Girl* antzezpenak sekulako arrakasta izango du, Elaine, benetan diotsut, eta paperak zuretzat idatzia ematen du. Nahi nuke, bada, zurekin berriro lan egin, zinez... Hain zara desberdina. Horixe da besteengandik bereizten zaituena. New York-eko neska guztiak berdinak dira: aspergarriak. Jakina, zuk nahi izanez gero... kantatu ere ederki asko egin zenezake. Ezagutu zintudanetik ero antzean ibili naiz, eta harrezkerro sei hilabete luze igaro dira. Mahaian eseri eta ez diot janariari zaporerik hartzen... Zuk ez daki-zu zein bakarrik sentitzen den gizon bat, hainbat urte eman baditu bere sentimenduak bere baitatik askatu ezinik. Gaztetan desberdina nintzen, baina zer egingo diogu ba? Nik dirua irabazi behar izan dut eta aurrera egin dut bizitzan. Eta horrela urtez urte. Orain lehenengo aldiz pozten naiz horrela jokatu izanaz, hain zuzen ere, bizitzan aurrera egin eta diru asko irabazi izanaz, den-dena zuri eskaintzeko moduan nagoelako. Ulertzen didazu zer esan nahi dizudan?... Bizitzan aurrera egiten ari nintzen bitartean neure baitan gordetzen ari nintzen ideal eta gauza

eder haiek guztiak ereindako haziak ziren eta zeu zara lorea, haiengandik sortua.

Noizean behin, ibilian, bere ahurraz ozta-ozta ukitzen zuen Ellenena eta neskak berehala ukabila hertsia eta baztertu egiten zuen, haren esku potoloaren ukipen beroa eta setatsua saihestearren.

Pasealekua bikotez beterik zegoen, baita musika noiz hasiko zain zeuden familiaz ere. Nabari zen umeek, besapeek eta talko-hautsak isuritako usaina. Handik saltzaile ibiltari bat igarotzen zen puxika gorriak, horiak eta arrosak atzetik hegan zekartzala, alderantzikatutako mahats-mordo bat bailitzan.

— O, erosidazu puxika bat!

Luzaroago eutsi ezinda, hitzak ahotik zerizkion Elleni.

— Emaidazu kolore bakoitzeko bat!... Eta urre-koloreko horietako bat ere bai. Ez, bueltak zuretzat.

Ellenek globoen hariak ipini zituen txapel gorriko hiru neskato tximino-aurpegidunen esku zikin-itsaskorretan. Puxikek arku elektrikotik distira morezko biribil erdi bana hartu zuten.

— Umeak atsegin dituzu ezta, Elaine? Umeak atsegin dituzten emakumeak atsegin ditut nik.

Ellen soraio zegoen kasinoko terrazan eserita. Janari-usainaren ufa beroak eta *He's a Ragpicker* jotzen ari zen banda baten erritmoak zirimolan ziharduten Ellenen inguruan. Aldian behin ogi-puska bat gurinez igurtzi eta ahoan sartzen zuen. Babesgabe sentitzen zen, Goldweiserren esaldi itsaskor eta gozoetan gatibu, amaraunean harrapaturik dagoen euliaren gisara.

— Ni ez nintzen sekula horrenbeste ibiliko New Yorkeko inorengatik, benetan diotsut... Neure garaian nahikoa ibili nintzen, mutikotan egunkariak saltzen aritzen bainintzen eta mandatuak egiten nituen Schwartz jostailu-dendarako... Egun osoa korrika, gauez izan ezik, orduan klasera joaten nintzelako. Abokatua izan nahi nuen. East Side-ko guztiok izan nahi genuen abokatu. Uda batez atezain-lanak egin nituen Irving Place-n eta hantxe harrapatu ninduen antzerkirako grinak... Ez zitzaidan gaizki atera, baina ez da batere ziurra. Orain berdin zait, dirurik ez galtzeaz konformatzen naiz. Horixe da okerrena. Hogeita hamabost urte dauzkat eta

dagoeneko dena berdin zait. Duela hamar urte Erlanger zaharraren bulegoetako langile xume bat besterik ez nintzen eta orain nik garai batean zapatak garbitutako askok sekulako poza hartuko lukete West aldeko Berrogeita Zortzigarren Kanean dudan etxea erratzaz garbitzeko aukera balute... Gaur gauean New Yorkeko edozein lekutara eraman zaitzaket, berdin zait oso garestia edo dotorea bada ere... eta garai batean, bost dolar poltsikoan edukita, uste genuen paradisuan geundela neska pare bat Island-era eraman genezakeelako... Apostu egingo nuke zurekin dena desberdina izango zela, Elaine... Baina nik orduko sentsazioak berriro bizi nahi ditut... Nora joango gara?

— Zergatik ez Coney Island-era? Ni ez naiz sekula izan.

— Jendaila asko dago... Kotxez osteratzen bat egin dezakegu, ordea. Ados? Telefonoz deituko dut kotxea ekar diezagutela.

Ellen eserita zegoen, bakarrik, bere kafe-kikarari so. Azukre-koxkor bat ipini zuen bere koilaratxoan, kafean busti zuen, ahoan sartu eta geldiro murtxikatu zuen mingain-puntaz azukre-

garautxoak aho-sabaiaren kontra igurtziz. Oskestra tango bat jotzen ari zen.

Eguzkia gortinen azpitik limurtzen zen bulegoan eta eztiki distira okertu batek puruen kea ebakitzen zuen.

— Kontu handiz —esan zuen George Baldwinek, hitzak nabarmenaraziz—, Gus, kontu handiz jokatu beharra zagok.

Gus McNiel mozkote eta musugorria besaulkian eserita zegoen eta aldiro baietz egiten zuen buruaz, bere puruari zupakadak ematen zizkion bitartean. Txalekoan erloju-kate astun bat agerian zuen.

— Gauzak nola dauden ikusita, orain auzitegi bat ere ez duk eskaera horren alde agertuko... nire iritziz, eskaera hori Connor epailearen azpiz joko politikoa baino ez duk, baina badituk zenbait elementu...

— Herorrek esan duk... Begira, George, nik auzi madarikatu hau oso-osorik hire eskuetan utziko diat. Heuk atera ninduan East New York-eko portuaren istilu hartatik eta espero diat

oraingoan ere honetatik atera ahal izango naua-
la.

— Baina Gus, auzi honetan hi beti legearen mugen barruan ibili haiz. Horrela ez balitz, nik ez nitek hartuko kasu hau, ez eta hi bezalako aspal-diko lagun batengatik ere.

— Ezagutzen nauk, George... Nik ez diat sekula inor saldu eta espero diat inork ni ez sal-tzea.

Gus nekez altxatu zen eta herrenka hasi zen bulegoan zehar urrezko heldulekua zuen makila batean bermatuta.

— Connor putakume galanta duk... eta bene-tan esaten diat, Albany-ra joan aurretik on hutsa zuan.

— Ni saiatuko nauk erakusten auzi honetan hire jokabidea nahita gaizki ulertua izan dela. Connor epaitegian duen posizioaz baliatu duk helburu politikoak lortzeko.

— Jainko maitea! Bera konbentzitzea lortuko bagenu... Uste nian gutarra zela eta hala zuan errepublikar zorritsu horiekin nahastu zen arte. Albany galbidea izan duk gizon on askorentzat.

Baldwin kaobazko mahaitik altxatu zen hantxe eserita baitzegoen, paper pila garaien artean, eta Gusi eskua sorbalda gainean ezarri zion.

— Ez ezak lorik gal horregatik...

— Ez nindukek kezkatuko Interborough-eko bonu horiengatik ez balitz.

— Zer bonu?... Nork ikusi du bonurik?... Gazte hori... Joe... barrura sar dadila... Eta beste gauza bat, Gus, Jainkoaren izenean, ez esan ezertxo ere... Erreportari bat edo norbait joaten bazaik, hitz egiok Bermudetara egin duan bidaiaz... Nahi adina publizitate lor zezakeagu, horren premia badugu. Momentuz komeni duk egunkariak eze-
ren berri ez izatea, bestela erreformista guztiak orpoz orpo izango dituk.

— Ez al dira hire lagunak? Hi molda haiteke eurekin.

— Gus, ni abokatua nauk, ez politikaria..., ez diat saltsa horietan sartu nahi. Ez zaizkidak interesetzen.

Baldwinek ahurra txirrinaren gainean ezarri zuen. Begiak ilun eta ile atxabitxizko, boli-kolore-

ko azala zuen emakume gazte bat sartu zen gelan.

— Zer moduz, Mr. McNiel?

— Ene, itxura bikaina duzu, Miss Levitsky!

— Emily, esaiezu Mr. McNielen zain dagoen mutil gazte horri sartzen uzteko.

Joe O'Keefe oinak pitin bat herrestan zituela sartu zen, lastozko kapela eskuetan.

— Zer moduz, jauna?

— Aizu, Joe, zer dio McCarthyk?

— Kontratisten eta Eraikitzaileen Elkarteak lan-itxiera erabakiko du astelehenetik aurrera.

— Eta Sindikatua?

— Badugu dirua. Borrokatzeko asmoa dugu. Baldwin mahai-ertzean eseri zen.

— Jakin nahi nuke zer jokabide izango duen Mitchel alkateak.

— Erreformista-talde hori erne dago, beti bezala —esan zuen Gusek puruaren punta basakeriaz ebakitzen zuen bitartean—. Noiz emango da jakitera erabakia?

— Larunbatean.

— Tira, jarraitu gurekin harremanetan.

— Oso ondo, jaunok. Eta mesedez, ez deitu niri telefonoz. Ez litzateke oso zuhurra izango. Ez da nire bulegoa, ulertzen duzue, ezta?

— Zelatan ibil litezke, gainera. Morroi horiek edozertarako prest daude. Gero arte, Joey.

Joek buruaz agur egin zuen, handik alde egiten zuen bitartean. Bekoskoa zimurtuta, Baldwin Gusengana jiratu zen.

— Gus, ez zakiat zer egin behar dudan hirekin, sindikatuen txepelkeria horiek guztiak alde batera uzten ez badituk. Hi bezalako jaiotzetiko politikari batek sen on handiagoa izan behar likek. Horrela ez haiz inora iritsiko.

— Baina hiri osoa alde diagu eta...

— Nik ondotxo zakiat hiriaren zati handi bat ez dugula alde. Baina, Jainkoari esker, hori ez duk nire kontua. Bonuen kontu hori gauza bat duk, baina greba honekin saltsa batean sartzen bahaiz, hire kasua bertan behera utzi beharko nitek. Gure bulegoak ezin izango liake babesik eman —xuxurlatu zuen zakar.

Gero, bere ohiko doinuan, ozenki esan zuen:

— Tira, zer moduz hire andrea, Gus?

Kanpoaldean, marmolezko hall distiratsuan, Joe O'Keefek *Sweet Rosy O'Grady* kanta zerabilen txistuka, igogailuaren zain zegoela. Idazkari batez guztiz maiteminduta zegoen morroia ematen zuen. Txistu egiteari utzi eta arnasots bat jaulki zuen ezpainak estutuz. Handik hurbil, gizon begi kolorge bat zebilen, koadrodun jaka jantzita. Harengana gerturatuta, Joeek diosal egin zion.

— Epa, Buck!

— Oporretan jada?

Zutik, hankak zabalik eta eskuak poltsikoan, Joeek buruaz baietz egin zuen.

— Larunbatean joango nauk. Uste diat ni egun pare baterako joango naizela Atlantic City-ra.

— Eta hori?

— O, azkarra izan beharra zagok bizitza honetan.

Eraikinetik irtetean, O'Keefek aurrera egin behar izan zuen ezkaratzean pilatutako jendetzaren artetik. Arbelezko zerua, eraikin garaien artean itoa, berrogeita hamar zentaboko txanponak jaurtitzen ari zen espaloi gainera. Lastozko

kapelak jaken azpian zituztela, gizonak lasterka abiatu ziren aterpe bila. Bi neskak egunkari-paperezko txanoak eginak zituzten euren udakapelak estaltzearren. Haien aurretik igarotzean, Joek atzeman zion euren begien urdinari, bai eta euren ezpainen eta hortzen distirari ere. Kalekantoiraino egin zuen korrika eta abian zen tranbia batera igo zen. Izara sendo bat irudi, euria kalean behera zihoan, distiratsu eta txistukari, egunkari-orriak inarrosiz, zilarrezko titiburutan jauzika asfaltoaren gainean, leihoak marratuz, tranbien eta taxien pinturari distira emanaz. Hamalagarren Kalea atzean utzita euririk ez, airea sargoritsua zen.

— Bai xelebrea eguraldia! —esan zuen ondo-ko agure batek.

O'Keefek purrust egin zuen:

— Txikitan nik gure kalearen alde bat euritan ikusi nuen eta etxe batean tximista batek jo zuen eta gure aldean tanta bat bera ere ez zen erori, gure aitak uraren premia bazuen ere, landatu berri zituen tomate batzuetarako.

Hogeita Hirugarren Kalea gurutzatzean, O'Keefek Madison Square Garden-eko dorreari

antzeman zion. Abian zela salto egin zuen tran-
biatik; bulkada zela eta, urrats txiki-arinetan
espaloiraino iritsi zen. Jakaren lepoa berriro jai-
tsita, plaza zeharkatzeari ekin zion. Jarleku baten
ertzean, zuhaitz baten azpian, Joe Harland erdi lo
zegoen. O'Keefe astunki eseri zen haren alboan.

— Epa, Joe! Puru bat nahi?

— Epa Joe, pozten nauk hi ikusteaz, motel.
Eskerrik asko. Denbora piloa zaramaat horietako
bat erre gabe... Zer ari haiz hemen? Ez al habil
heure eremutik urruti samar?

— Oso arduratuta nengoenez, pentsatu diat
larunbateko borrokaldirako sarrera bat erostea.

— Zer duk?

— Arraioa! Nik ez zakiat... Bazirudik gauzak
ez dabiltzala ondo. Orain buru-belarri sartu nauk
politikaren jokoan, baina bazirudik ez dagoela
etorkizunik horretan. Jainkoarren! Nik hik bezain
heziera ona izan banu!

— A zer zerbitzua egin didan niri!

— Nik ez nitek horrelakorik esango... Nik hire
bidea hartu izan banu, lepoa egiten diat ez
nukeela galduko.

— Ez zagok inoiz esaterik, Joe, zein gorabehera bizi behar dituen gizonak.

— Emakumeak, esaterako.

— Ez nauk horretaz ari... Baina azkenean nazkatu egiten haiz.

— Baina, arraioa!, nik ez zakiat nola nazkatzten den jendea, diru asko izanda ere.

— Orduan alkohola izango zuan... Ez zakiat.

Lipar batez isilik geratu ziren. Eguzkia sartzearekin batera, arratsaldea oskorritzen hasi zen. Puruen kea sigi-sagaka zebilkien buru gainetik.

— Begira zer neska ederra... Begira nolako ibilera duen. A zer neska puska! Horrelakoak atsegin ditiat nik, neska argiak, apainak eta ezpainak margotuak dituztenak... Baina diru askoren beharra zagok horrelako dama batekin ibiltzeko.

— Emakume horiek ez dituk ezertan ere bereziak, Joe.

— Bai zera!

— Aizak, Joe, ez duk bada dolarren bat soberra izango?

— Balitekek.

— Sabela pitin bat hondatuta zaukaat... Zer-bait hartu nahi nitek ea bere onera itzultzen den eta sakela hutsik nagok larunbatera arte, orduan ordainduko baitidate... zera... ulertzen duk, ezta?... hiri berdin zaik, ezta? Esadak heure hel-bidea eta datorren astelehen goizean itzuliko diat.

— Ez kezkatu horregatik, gizona! Ikusiko haut, bada, edozein egunetan.

— Eskerrik asko, Joe. Eta Jainkoarren, ez joku-tu diru gehiagorik burtsan Blue Peter Mines-en alde, niri aholkurik eskatu gabe. Ni hutsaren hurrengoia izango nauk, baina begiak itxita jakin zezakeat iruzurrik ba ote den.

— Bada, nik neure dirua berreskuratu egin diat.

— Txiripaz.

— Bitxia duk nik dolar bat uztea Wall Street-eko nagusia izan zenari.

— O, ez hainbestearaino ere.

— Hau bai leku bitxia...

— Zein?

— Ez zakiat... Leku guztietan antzera izango dela uste diat... Tira, ikusi arte, Joe. Sarrera hori

erostera noak... Primerako borrokaldia izango duk...

Gizon gaztea bidean behera urrunduz zihoan, lastozko kapela okerturik zuela; anartean, Joe Harland haren ibilera artegari beha zegoen. Gero, altxatu eta ekialderantz jo zuen Hogeita Hirugarren Kalean zehar. Eguzkia sartua bazen ere, artean zoladurak eta etxeen hormek beroa jariatzen zuten. Kale-kantoiko taberna baten aurrean gelditu zen eta arreta handiz begietsi zuen hautsez grisatutako erbinude zuri diseatuen talde bat, erakusleihoaren erdian kokatua. Ate birakarian zehar, ahots bareen marmarra eta maltaren freskura lerratu ziren kalera. Bat-batean Joe gorritu egin zen, goiko ezpaina ausiki zuen eta ezkutuka ezker-eskuin begiratu ondoren, atea bultzatu eta tirriki-tarraka aurrera egin zuen botilen distira islatzen zuen letoizko barrarantz.

Kanpoaldeko euriaren ostean, antzokiko igeltsu-usaina garratza gertatzen zen euren sudur-zuloetan. Ellenek kapusai bustia eseki zuen ate

atzean eta gelaren zoko batean aterkia utzi zuen, non berandu gabe putzu txiki bat sortzen hasi baitzen.

— Eta nik ezin nuen burutik kendu —esan zion ahapeka Stani, zabuka jarraitzen baitzion— kanta bitxi bat, norbaitek txikitan irakatsi zidan kanta bitxia: *Eta uholdeetatik bizirik atera zen gizon bakarra Istmoko Jack hankaluzea izan zen.*

— Jainko maitea, nik ez dakit jendeak zergatik dituen umeak. Porrota onartzea da. Ugalketa organismo osatugabe bat onartzea da. Ugalketa porrota onartzea da.

— Stan, mesedez, ez egin oihurik, tramoia-riak asaldatuko dituzu eta... Hobe nuen etortzen utzi ez banizu. Badakizu antzerkiko jendeak zer zurrumurru darabilen.

— Isilik egongo naiz, sagutxu baten antzera... Utzidazu hemen itxaroten Milly zu janztera etorri arte. Zu nola janzten zaituzten ikustea beste atsegirik ez dut... Onartzen dut ni neu, organismo bezala, osatugabea naizela.

— Eta laster, horrela edaten jarraitzen baduzu, ez zara inolako organismoa izango.

— Edango dut... edango dut harik eta ebake-ta bat eginez gero zaurietatik whiskya isuri arte. Zertarako balio du odolak, horren lekuan whiskya izan badezakezu?

— O, Stan!

— Edatea da organismo osatugabe batek egin dezakeen gauza bakarra... Zuek, organismo eder osoa duzuenok, ez duzue edan beharrik... Ni lotara noa, mozkorra pasatzera.

— Ez, Stan, Jainkoaren izenean. Hemen edozein zokotan etzanda geratzen bazara, ez dizut sekula barkatuko.

Bi kolpetxo entzun ziren atean.

— Sartu, Milly.

Milly emakume txikia zen eta aurpegi zimurtsua zuen eta begi beltzak. Odol-tanta beltz batzuek hanpatzen zituzten haren ezpain more-grisak eta halako bizitasuna ematen zioten haren azal zuri-zuriari.

— Zortziak eta laurden dira, maitea —esan zuen sartzean.

Begirada azkar bat egin zion Stani eta Ellenengana jiratu zen bekozkoa pitin bat ilundurik.

— Stan, alde egin behar duzu... Gero, Beaux Arts-en ikusiko zaitut edo nahi duzun lekuan.

— Nik mozkorra pasatu nahi dut.

Apaintze-mahaiko ispilu aurrean eserita, Ellen zapi txiki batez krema kentzen ari zen aurpegitik, mugimendu azkarrez. Bere makillaje-kutxatik, brillantinak eta kakao-gurinak isuritako usaina hedatu zen gelan zehar.

— Ez dakit zer egin berarekin gaur gauean — xuxurlatu zion Millyri, soinekoa erantzten zuen bitartean—. Edateari utziko balio sikiera!

— Nik dutxa azpian jarriko nuke eta ur hotzeko txorrota irekiko nuke, bihotza.

— Zer moduz dago antzokia gaur gauean, Milly?

— Jende gutxi, Miss Elaine.

— Eguraldi txarragatik izango da, nik uste... Gaur ez naiz batere ondo ibiliko.

— Ez utzi zu hondatzen, bihotza. Gizonek ez dute merezi.

— Nik mozkorra pasatu nahi dut.

Stan balantzaka zebilen, beltzuri eginez, gelaren erdian.

— Miss Elaine, bainugelan sartuko dut; inork ez du jakingo hor dagoenik.

— Hori da, bainuontzian lo egin dezala.

— Ellie, bainuontzian pasatuko dut mozkorra.

Bi emakumeek bainugelarantz bultzatu zuten gizona. Zerraldo erori zen bainuontzian eta, oinak airean eta burua txorrotan azpian, lo geratu zen bertan. Millyk mingainaz azkar klaskatzeari ekin zion.

— Honela dagoenean logureak dagoen ume txo bat ematen du —xuxurlatu zuen Ellenek samurtasunez.

Bainugelako zerria tolestu zuen eta buru azpian ipini zion. Gero, izerditan blai zuen ilea kendu zion bekokitik. Nekez hartzen zuen arnasa. Ellen makurtu zen eta betazalen gainean muin egin zion gozo-gozo.

— Miss Elaine, azkar ibili behar duzu... Oihala altxatzen ari dira.

— Azkar, esan, ondo nago?

— Eguzkia bezain ederra... Jainkoak bedeinka zaitzala, maitea.

Ellenek arineketan egin zuen eskaileretan behera, hegaletara atera eta zain geratu zen,

zutik, beldurrarengatik arnasestuka, auto batek ia-ia harrapatu izan balu bezala. Gero, attrezzo-ko arduradunari eskuetatik kendu zion jarraitu beharreko musika-erroilua, seinalea jaso zuen eta argiunera irten zen.

— Zer moduz, Elaine? —esan zuen Harry Goldweiserrek, Ellenen atzean eserita, bere txahal-burua astintzen zuen bitartean.

Ellen makillajea kentzen ari zen bitartean Harry ispiluan islaturik ikusi zuen. Aldamenean gizon altuago bat zuen, begi eta bekain grisak zituen.

— Gogoan duzu paper hau eman zizutenean nik esan niola Mr. Fallik-i: «Sol, ezin izango du egin, ezta Sol?»

— Hala da, Harry.

— Nik uste nuen zu bezalako neska gazte eta eder batek ezin izango zuela... zera... pasio eta izu guztia ipini, ulertzen duzu? Sol eta biok lehenengo lerroan egon ginen azken ekitaldiko eszenarako.

— Zoragarria, zoragarria —karranka egin zuen Mr. Fallik-ek—. Esaiguzu nola egiten duzun, Elaine.

Makillajea beltz eta arrosa ageri zen zapiari. Milly joan-etorri zebilen, isil-isilik, jantziak esekitzen zituen bitartean.

— Ba al dakizu nork lagundu zidan eszena hori prestatzen? John Oglethorpek. Beti harrituko naute antzezteari buruz dituen ikusmoldeek.

— Penagarria da hain nagia izatea... Aktore nabarmena izango zen.

— Ez da zehazki nagikeria...

Ellenek burua inarrosiz askatu zuen ilea eta txirikorda bat egin zuen bi eskuez. Ohartu zen Harry Goldweiserrek ukondoaz jo zuela Mr. Fallik.

— Ederra, ezta?

— Zer moduz *Red Red Rose*?

— O, ez galdetu hori, Elaine! Joan den astean aretozaintzat soilik egin nuen antzezpena, zer iruditzen zaizu? Ez dakit zergatik ez duen arrakastarik, daukan xarmarekin... Mae Merrill-ek itxura polita du. Ene, antzerkia pikotara joan da!

Ellenek ezarri zuen brontzezko azken urkila bere ile kizkur kobre-kolorekoan. Kokotsa goratu zuen.

— Nik horrelako zerbait probatu nahi nuke.

— Gauza bakoitza bere garaian, neskatxa. Arestian sustatu zaitugu aktore dramatiko gisa.

— Nazka ematen dit. Ez da inola ere egiazkoa. Batzuetan gogoia etortzen zait lehenengo lerroetara jaitsi eta ikusleei esateko: «Zoazte etxera, ergel alaenak! Antzezpen hau kaka hutsa da eta antzezleek ez dute behin ere asmatzen eta zeuek jakin beharko zenukete hori. Antzezpen musikal batean zintzo jokatu behar da».

— Ez al nizun esan burutik eginda dagoela, Sol? Ez al nizun hori esan?

— Hitzalditxo horren zati bat erabiliko dut neure publizitatean datorren astean... Hortik etekin handia atera dezaket.

— Ez iezaiozu utz antzezpenari buruz gaizki hitz egiten.

— Ez, baina badut hori kontatzea jende ospetsuaren asmoei buruzko zutabea... Badakizu, urlia Zozodont Company-ko presidentea da eta nahiago luke suhiltzailea balitz. Sandiak, berriz, nahiago luke parke zoologikoko zaindaria balitz... Giza interes handiko gauzak.

— Nahi baduzu, esaiezu, Mr. Fallik, emakumearen benetako lekua etxea dela... eroetxea.

— Kar... kar... kar —barre egin zuen Harry Goldweiserrek ahoaren bi aldeetako urrezko hortzak erakutsiz—. Nire ustez, zuk gehienek baino hobeto egin dezakezu kanta eta dantza, Elaine.

— Ez al nintzen korista izan bi urtez, Oglet-horperekin ezkondu aurretik?

— Zu sehaskan hasiko zinen —esan zuen Mr. Fallikek betile grisen azpitik zeharka begira.

— Tira, jaunok, hemendik alde egiteko eskatu behar dizuet, arropa aldatzen dudan bitartean. Blai eginda nago, gauero bezala, azken ekitaldi honen ondoren.

— Nolanahi ere, alde egin beharra geneukan... ulertzen didazu?... Axola al zaizu bainugelak erabiltzen badut unetxo batez?

Milly bainugelako atearen aurrean zegoen. Ellenek harridurazko begiradari antzeman zion Millyren aurpegi zurian.

— Sentitzen dut, baina ezinezkoa da, Harry. Hondatuta dago.

— Charleyrenera joango naiz... Thompson-iesango diot iturgina hona bidaltzeko zer gertatzen den ikus dezan... Gau on, polit hori. Zintzoa izan.

— Gau on, Miss Oglethorpe —karraka egin zuen Mr. Fallikek—, eta ezin baduzu zintzoa izan, izan zaitez zuhurra, behintzat.

Millyk atea itxi zuen.

— A ze estualdia! —deiadar egin zuen Ellenek besoak luzatuz.

— Bada, ni beldurrak airean egon naiz, benetan diotsut, bihotza... Ez utzi inoiz halako morroi bati zurekin antzokira etortzen. Aktore bat baino gehiago ikusi dut halako gauzengatik porrot egina. Hala esaten dizut oso maite zaitudalako, Miss Elaine. Ni zaharra naiz eta ondotxo dakit zer dagoen antzerkiaren munduan.

— Egia da, Milly, arrazoia duzu... Ikusiko dugu ea esnatzen dugun. Jainko maitea, Milly, begira hau.

Stan etzanda zegoen, emakumeek utzia zuten bezalaxe, urez betetako bainuontzian. Jakaren hegala eta esku bat ageri ziren ur-azalean.

— Atera hortik, Stan, inozoa halakoa... Arraioa! Bertan hilda geratu ez bada, gaitzerdi! Tontolapiko alaena!

Ellenek iletik oratu zion eta burua alde bate-tik bestera astindu.

— Ene, hau da mina! —erosta jo zuen ahots leunaz, mutiko lokartu bat bailitzan.

— Alde hortik, Stan... Blai eginda zaude.

Stanek burua atzerantz eramane eta begiak ireki zituen bat-batean.

— Bai, egia da, blai eginda nago.

Altxatu egin zen bi eskuak bainuontziaren alde banatan ezarriz. Zutik, kulunkan, ura zorrotadaka isurtzen hasi zen, bere arropa eta zapatengatik horaildua zen uraren gainera; barre-algara ozen bat bota zuen. Ellen, bainugelako atean bermaturik, barrez ari zen begiak malkoz gainezka zituela.

— Ezin zara berarekin haserretu, Milly, horrek ateratzen nau neure onetik. Zer egingo dugu ba?

— Zorionez, ez da ito... Emaizkidazu zeure paperak eta diruzorroa, jauna. Saiatuko naiz toaila batez lehortzen —esan zuen Millyk.

— Baina ezin zara horrela pasatu atezainaren aurretik... bihurrika xukatuko bazintugu ere... Stan, erantzi egin behar duzu eta nire soineko

bat jantzi. Gero, nire kapusai bat ipini gainetik, taxi batean brau sartu eta etxera eramango zaitut. Zer iruditzen zaizu, Milly?

Millyk begiak zuri jarri eta burua astintzen hasi zen, Stanen jaka bihurritzen ari zen bitartean. Konketan pilatuta zeuden gauza batzuen aztarna bustiak: diruzorro bat, koaderno bat, arkatzak, labana bat, bi pelikula-erroilu, petaka txiki bat.

— Nolanahi ere, nik bainu bat nahi nuen — esan zuen Stanek.

— O, makil-dantza ederra emango nizuke nik! Behintzat, orain ez zaude mozkortuta, ezta?

— Orain pinguinoa bezain ernai nago.

— Tira, nire arropa jantzi behar duzu, horixe da dena.

— Nik ezin dut emakume-arroparik jantzi.

— Ez duzu beste biderik... Kapusai bat ere ez duzu soina babesteko. Hori egiten ez baduzu, bainugelan giltzapean itxita utziko zaitut.

— Ongi da, Ellie... Aizu, benetan sentitzen dut.

Millyk arropa bainuontzian xukatu ondoren, egunkari batean bildu zuen. Stanek bere buruari so egin zion ispiluan.

— Jainkoarren, itxura kaskarra dut, ba, jantzi honekin... Tira, niri bost.

— Ez dut sekula ezer petralagorik ikusi... Ez, oso ondo zaude, pitin bat zakarra agian... Orain, Jainkoaren izenean, ez kendu begirik nire aurpegitik Barney zaharraren aurretik pasatzean.

— Zapatak blai eginda dauzkat.

— Zer egingo diogu ba!... Zorionez, hemen-txe neukan nik kapa hau... Milly, zu bai aingerua, nahaspila hau konpontzen baduzu...

— Gau on, bihotza, eta gogoratu zer esan dizudan... Nik ohartarazi egiten zaitut, ez beste-rik...

— Stan, egin urrats laburrak eta, inorekin topo egiten baduzu, jarraitu aurrera eta sartu brau taxi batean... Ez dago arriskurik, azkar ibiliz gero.

Eskailetan behera zihoazela, Ellenen eskuak dardarka ari ziren. Esku bat Stanen besoaren azpian sartu zuen eta itxurak egiten hasi zen, ahapeka hitz egiten ariko balitzaio bezala.

— Begira, maitea, aitatxo duela bizpahiru gau etorri zen antzezpena ikustera eta guztiz asaldatuta bukatu zuen. Esan zidan neska bat lotsagarri geratzen dela bere sentimenduak jende aurrean horrela agertuta... Ez al da aldre-besa?... Hala ere, *Herald* eta *World* egunkarietan niri buruz igandean argitaratutako artikulu losintxariek zirrara handia eragin zioten... Gau on, Barney. Bai gau nazkagarria! Jainko maitea!... Taxi bat, sartu barrura. Nora joan nahi duzu?

Taxiaren ilunpetik, txano urdin baten azpian babestutako aurpegi luzetik, Stanen begiek halako dirdaia isurtzen zuten, dirdai iluna; horrek berebiziko izua pizten zuen Ellenen baitan, dirdai hura bat-batean zulo baten ilunpeko sakonguneetatik sortua izan balitz bezala.

— Ongi da, nire etxera joango gara. Otsoaren ahoan sartzea izango da... Txoferra, mesedez, Bank Street-era.

Taxia abian jarri zen. Triki-traka zihoazen goialdeko argi-maila gurutzatuak atzean utziz, noiz argi gorrizkoak, noiz argi berdezkoak, noiz argi horizkoak —Broadwayren iragarle distiratsuak—. Halako batean, Stan harenganantz

makurtu zen eta musu azkar eta sutso bat eman zion ahoan.

— Stan, edateari utzi behar diozu. Hau txantxatik harantzago doa.

— Zergatik ezin dira gauzak txantxatik harantzago joan? Zu ere txantxatik harantzago zoaz eta ni ez naiz kexatzen.

— Baina, laztana, zeure buruaz beste egiten ari zara!

— Eta?

— O, ez dizut ulertzen, Stan.

— Nik ere ez dizut ulertzen, Ellie, baina oso... izugarri maite zaitut.

Ahapeka ari zela, halako dardara pitzatu bat nabari zen haren ahotsean, Elleni zoriontasunezko lilura piztu ziona.

Ellenek taxia ordaindu zuen. Adar baten hotsa gero eta ozenago sumatu zen; handik laster, ordean, auhen indarge bilakatu zen, harik eta kalean behera guztiz aienatu zen arte. Suhiltzaille-kamioi gorri eta distiratsu bat zen. Atzealdean, eskailera-furgoi bat zeraman eta, hortik dingilizka, kanpai bat, bizi-bizi joka.

— Goazen sutea ikustera, Ellie.

— Zu horrela jantzita?... Ezta pentsatu ere.

Eskaileretan gora, Stanek isilik jarraitu zion.

Ellenen gela luzeak freskura-usaina zuen.

— Ellie, ez zaude haserre nirekin?

— Ez noski, inozo hori.

Ellenek arropa bustia fardel batetik atera eta sukaldean lehortzen jarri zuen, gas-berogailuaren ondoan. Gramofonotik *He's a devil in his own home town* kantaren doinua ateratzen zen; horrek atzera begirarazi zion Elleneri. Stanek soinekoa erantzia zuen. Aulki batekin dantzan ari zen eta bere hanka mehe iletsuen inguruan Ellen txabusina urdinak hegaz egiten zuen.

— O, Stan, zu bai inozo xarmangarria!

Aulkia alde batera utzi eta Ellenengana jo zuen, beltzaran, kementsu, lerden, bere txabusina aldrebesarekin. Gramofonoko kanta amaitu eta diskoak bira eta bira jarraitu zuen, kurrinka eginez.

Bosgarren atala

Animalien feriara joan ginen

Argi gorria. Kanpaia.

Lau auto-ilara trenbide-pasagunean zain. Kolpe-leungailuak atzeko argiekin bat, lohi-babesak elkar marruskatuz, motoreak marruka, ihes-tutuak ketan. Babaylon-go, Jamaika-ko, Montauk-eko, Port Jefferson-eko, Patchogue-ko autoak, Long Beach-eko, Far Rockaway-ko limusinak, Great Neck-eko autoak... Autoak mukuru zeuden: asterrak, bainujan-tzi bustiak, eguzkitan beltzaranduta-ko lepoak, sodaz eta hot dog-ez koi-peztutako ahoak... Autoak zorne-belarren eta urrezko makilen lorau-tsaz guztiz estalirik.

Argi berdea. Motoreak azeleratu egin ziren, palankek kirrinka egin zuten lehenengo martxa sartzean. Autoen arteko tarteak handitu egin

*zen, zinta luze batean isuri ziren
zementuzko bide misteriotzuan
zehar, leiho beltzekiko hormigoi-lan-
tegien artetik, kolore dirdaitsuen
kartelen artetik, gauaren ortzian
harrigarriro gora zihoan hiriaren
erlantzerantz, zirku baten olana
eskerbaren puska urre-kolorekoaren
gisa berean.*

«Sarajevo» hitza ahoskatzen saiatu zen,
baina trabaturik geratu zitzaion eztarrian.

— Ikaragarria da, ikaragarria da horretan
pentsatuz gero —George Baldwin purrustaka
hasi zen—. Wall Street-ek behea joko du... Bur-
tsa itxiko dute, ez dago zereginik.

— Ni ere ez naiz sekula izan European... Gerra
batek ikuskizun aparta izan behar du.

Ellenek belus urdinezko soinekoa jantzirik eta
horren gainetik larruzko beroki bat zuelarik, gor-
putza atzerantz finkatua zuen, taxiko kuxinen
gainean, haren burrunba eztia belarrietan.

— Nik historia beti irudikatu izan dut ikaslibu-
ruetako litografiak bailitzan: jeneralak aldarrika-

penak egiten; besoak luze, zelaietan zehar arinetan ari diren irudi txikiak; sinaduren faksimileak.

Argizko konoak argizko konoen ebakitzailer, errepide bero zalapartatsuan zehar. Faroen argizpriztinak zuhaitzetan, etxeetan, publizitate-paneletan eta telegrafo-zutoinetan barreiatuak. Taxiak buelta erdia eman zuen eta bide-jatetxe baten ondoan gelditu zen, bere zirrikitu guztietatik argi arrosa eta jazz doinuak zerizkiona.

— Gaur gauean mukuru —esan zion taxilariak Baldwini ordaintzeko orduan.

— Zergatik ote? —galdetu zuen Ellenek.

— Canarsie-ko krimenak izango du zerikusirik horrekin, nik uste.

— Zer krimen baina?

— Zerbait ikaragarria. Neuk ikusi nuen.

— Benetan erailketa ikusi zenuen?

— Krimena ez nuen bertatik bertatik ikusi. Gorpu zurrinak ikusi nituen gorputegira eramane baino lehen. Guk, mutilok, Santa Klaus deitzen genion belarri aldeko bizar zuriak zituelako... Txikitandik ezagutzen nuen.

Atzeko autoak bozina jotzen ari ziren.

— Hobe dut hemendik lehenbailehen alde egitea... Gau on, andere.

Korridore gorrian nabari zen otarrainek, txirla egosiek eta koktelek isuritako usaina.

— Epa, Gus!... Elaine, hauek Mr. eta Mrs. McNiell dira... Hau Miss Oglethorpe da.

Ellenek lepo labur eta sudur zapaleko gizon baten esku handiari oratu zion eta gero, haren emaztearen eskularru txiki apainari.

— Gus, alde egin aurretik, hirekin hitz egin nahi nikek.

Ellen etxezainaren jakaren hegalean atzetik zihoan, dantzatokiaren ertzetik. Horma ondoko mahai batean eseri ziren. Orkestra *Everybody's Doing it* kanta jotzen ari zen. Baldwin ahapeka ari zen kantuan eta Ellenenganantz makurtu zen, haren berokia aulkiaren atzealdean ipintzeko.

— Elaine, zu baino emakume xarmangarriagorik ez dut... —hasi zen haren aurrean eser-tzeaz batera.

— Ikaragarria da. Ezinezkoa irizten diot.

— Zer?

— Gerra hau. Ezin dut burutik kendu.

— Nik bai.

Ellenen begiak menuan iltzatu ziren.

— Erreparatu al diozu aurkeztu dizudan biko-
te horri?

— Bai. Hori ez al da behin eta berriro egunka-
rietan agertzen den McNiel? Ez dakit zer iskanbi-
la, eraikitzaileen lan-itxierarekin eta Interbo-
rough-en bonuen jaulkipenarekin zerikusia
duena.

— Politika da dena. Apustu egingo nuke Gus
gizajoa poztu egingo dela gerraren kontu hone-
taz. Horrekin, gutxienez, zera lortuko da: bere
auzia lehenengo orrialdetik kentzea. Gero, une-
txo batean zerbait kontatuko dizut gizon horri
buruz... Ez dakit gustuko ote dituzun txirla ego-
siak. Hemengoak oso onak dira.

— George, nik oso-oso atsegin ditut txirla
egosiak.

— Orduan, Long Island-eko marinel erako
afari bat eskatuko dugu, lehengo modukoa. Zer
deritzozu horri?

Eskularruak mahai ertzean uztean, Ellenek
doi-doi ukitu zuen arrosa zimel gorri eta horiak
zituen ontzi bat. Petalo-zaparrada bat jira eta

bira hegaldatu zen haren esku gainera, eskularruen gainera, mahai gainera. Ellenek eskuak inarrosi zituen petaloak gainetik kentzeko.

— Esaiezu arrosa zikin hauek hemendik eramateko, George... Lore zimelek nazka ematen didate.

Txirla-katilu zilar-kolorekotik irteten zen lurri-na lanpararen pantailaren erlantz arrosaren inguruan kiribiltzen zen. Baldwin Elleni beha geratu zen eta arreta handiz ikusi zuen nola ateratzen zituen txirlak maskorretatik bere atzamar arrosa eta finez, nola bustitzen zituen gurin urtuan eta, tantaka, nola sartzen zituen ahoan. Ellen txirlen jate horretan ari zela, bere baitan zeharo bildu zen. Baldwinek hasperen egin zuen.

— Elaine... ez naiz batere zoriontsua... McNielen emaztea berriro ikustea hainbeste urte igaro eta gero. Pentsa... ni guztiz maiteminduta egon nintzen berarekin eta orain ezin dut bere izena ere gogora ekarri... Bitxia da, ezta? Gauzak oso-oso astiro joan dira, neure kasa lanean hasi nintzenetik. Ausarkeria izan zen, bi urte baino ez baitziren Zuzenbide Fakultatetik atera nintzela eta ez nuen dirurik aurrera egiteko. Garai hartan

ni gizon ausarta nintzen. Behin batean erabaki nuen egun hartan bertan kasurik sortu ezean, dena bertan behera utziko nuela eta bulegari- lanetara itzuliko nintzela. Ostera bat egitera joan nintzen burua egurastera eta Hamaikagarren Etorbideko bazterbidean ikusi nuen nola mer- kantzi tren batek esnezalearen gurdia harrapatu zuen. Txiki-txiki eginda utzi zuen eta gizajoa jaso genuenean, nik esan nuen neure artean: «Mere- zi duen kalteordaina lortzen ez badut, behea joko diat ahaleaginean». Auzia irabazi egin nuen eta horrek ezagutzera eman ninduen zenbait jende garrantzitsuren aurrean, eta halaxe hasi zuen berak bere karrera eta nik neurea.

— Hortaz, horrexek zeraman esne-gurdia, ezta? Nik uste dut esnezaleak munduko pertso- narik jatorrenak direla. Nirea maitagarria da.

— Elaine, ez esan hori inori... Zugan uste osoa daukat.

— Eskerrik asko, George. Ez al da harrigarria neskek Mrs. Castle-ren antz gero eta handiagoa dutela? Begiratu pixkat inguruan.

— Lehen basoko lore bat bezalakoa zen, Elai- ne, freskoa eta arrosa eta irlandar peto-petoa;

orain, ordea, enpresaburu itxurako emakume potolatxo bihurtu da.

— Eta zu ez zara bat ere aldatu. Bizitza hala-koxea da.

— Ez dakit... Zuk ez dakizu zeinen hutsala eta funsgabea iruditzen zaidan zu ezagutu aurreko guztia. Cecily eta biok ezin gara elkarrekin bizi. Gure artekoarenak egin du.

— Non dago orain?

— Bar Harbor-en... Nik suerte eta arrakasta handia izan nuen gaztetan... Oraindik ez ditut berrogei urte bete.

— Baina zoragarria izan behar du. Zuk nahi-taez Zuzenbidea gogoko izango duzu, bestela ez zenuen horretan arrakastarik izango.

— O arrakasta... arrakasta... Zer esan nahi du horrek?

— Bada, horren apurtxoren bat nahi nuke nik neuretzat.

— Nahikoa lortu duzu zuk, maitea.

— Ez naiz horretaz ari, alajaina!

— Baina jadanik ez du inolako xarmarik nire-tzat. Gaur egun nire bulegoan eseri eta gazteei lan egiten utzi besterik ez dut egiten. Nire etor-

kizuna markatuta dago. Badakit serio eta arranditsu jar nintekeela eta bizio txiki pribatuei ekin... baina nire baitan bada beste zerbait gehiago...

— Zergatik ez zara politikan sartzen?

— Zertarako joan Washingtonera neure burua zingira horretan zikintzera, ni aginduak ematen diren lekuan egonda. Ikaragarria da jakitea inor New Yorkez nazkatzen bada ez duela nora joanik. Munduaren erpina da. Kaiolan dau den urtxintxen modura bira eta bira ibiltzea besterik ez dugu egiteko.

Ellen udako arropa jantzirik zuen jendeari beha zegoen, erdialdeko karratu ezkoztuan dantzari zen jendeari, alegia. Aretoaren atzealdeko mahai batean, Tony Hunter-en aurpegi obalatu arrosa-zuria begiztatu zuen. Oglethorpe ez zegoen berarekin. Herf, Stanen laguna, Ellenen aurrean eserita zegoen, hari bizkarra emanez. Ellenek barreka ikusi zuen, burua lardaskaturik eta lepo mehearen gainean pitin bat okerturik zuela. Beste biak ez zituen ezagutzen.

— Nori begira zaude?

— Jojoren lagun batzuei... Ideia azterrenik ere ez daukat zertarako etorri diren hona. Ez nuen uste gogoko zituztenik honelako lekuak.

— Beti hala da, nahi dudana lortzen saiatzen naizenean —esan zuen Baldwinek irribarre ironiko bat aurpegian zuela.

— Nik esango nuke beti egin izan duzula gogoak eman dizuna.

— O, Elaine, utziko bazenit orain egin nahi dudana egiten! Utzidazu zu zoriontsu egiten, horixe besterik ez dizut eskatzen. Hain zara ausarta; zeure bidea bakarrik ari zara egiten, inoren laguntzarik gabe. Jainko maitea, hain zaude maitasunez, misterioz eta dirdaiz beterik...

Asaldatu egin zen, ardo-zurrutada bat edan eta hizketan jarraitu zuen, lotsagorriturik.

— Eskolakume bat ematen dut. Tontoarena egiten ari naiz. Elaine, zuk eskatu eta nik edozer egingo dut zugatik.

— Tira, otarrain hau hemendik eramateko besterik ez dizut eskatuko. Ez dut uste guztiz ondo dagoenik.

— Arraioa!... Beharbada arrazoia duzu... Aizu, zerbitzari!... Hitz eta pitz ari nintzen eta oharkabea ia-ia osorik jan dut otarraina.

— Eskatu oilasko-bularki batzuk niretzat...

— Bai noski! Goseak akabatzen egon behar duzu, gajoa.

— ...Eta artaburu bat... Orain ulertzen dut zergatik zaren hain abokatu ona, George. Edozein epaimahai aspaldi hasiko zen negar-zotinka halako alegatu gartsua entzunda.

— Eta zu ere bai, Elaine?

— George, mesedez, galderarik ez.

Jimmy Herfen mahaian whiskya eta soda edaten ari ziren. Azal horaileko gizon ile argi bat, bi haur-begi urdinen artean okerturik zegoen sudur mehea zuena, ahapetik ari zen hizketan.

— Nik masta nagusitik esekiko nituzke, benetan. Poliziak ez dira ezertarako gauza, ezertarako ere ez. Bortxaketa eta suizidioa izan direla esatea ere! Agure hori eta bere alaba errukarria hil egin dituzte, doilorkeria osoz, gainera. Eta badakizue nork egin zuen?

Tabakoz zikindutako atzamar potolo batez Tony Hunter seinalatu zuen.

— Ez niri egin itaunketarik, epaile jauna, nik ez dakit ezer horretaz —esan zuen, bere betile luzeak behehitzeaz batera.

— Esku Beltzak egin zuen.

— Bai zera, Bullock! —esan zuen Jimmyk barreka.

Bullockek halako ukabilkada gogorra jo zuen mahaian, ezen platerak eta edontziek tintin egin baitzuten.

— Carnarsie Esku Beltzeko kideez, anarkistez, bahitzaileez eta gizatxarrez gainezka dago. Gure eginkizuna haien atzetik ibiltzea eta agure gizajo horren eta bere alaba maitagarriaren oho-rea aldarrikatzea da. Horretaz ari garela, nola du izena agure gizajo tximino-aurpegi horrek?

— Mackintosh —esan zuen Jimmyk—. Hemengo jendeak Santa Klaus deitzen zion. Bai, noski, jende guztiak onartzen du burutik zegoela aspalditik.

— Guk amerikar hiritarren handitasuna baino ez dugu onartzen... Baina zer egin dezake batek gerra madarikatu honek beti egunkarien lehe-

nengo orria betetzen badu? Nik orrialde oso bat betetzeko asmoa nuen eta zutabe erdi bat baizik ez didate eman. Hau al da bizitza?

— Zerbait asma dezakezu, esaterako, Austriako tronuaren oinordekoa zela eta arrazoi politikoengatik hil zutela.

— Ez da batere ideia txarra, Jimmy.

— Baina hori ikaragarria da —esan zuen Tony Hunterrek.

— Zer uste duzu, gu astakilo gupidagabeen samalda bat garela, ezta Tony?

— Ez, baina nik ez dakit zer gustu har dezakeen jendeak horrelako gauzak irakurrita.

— O, hori eguneroko kontua da —esan zuen Jimmy—. Baina zerak eragiten dit oilo-ipurdia, armaden mobilizapenak, Belgrad-eko bonbardaketak, Belgikaren inbasioak... Horrek denak. Ezin dut sinetsi... Jaures hil dute.

— Nor da hori?

— Sozialista frantziar bat.

— Frantziar malapartatu horiek ustelduta daude eta dueluetan aritzea edo/eta lagun hurkoaren emaztearekin oheratzea beste kezkarik

ez dute. Apostu egingo nuke alemanak bi aste baino lehenago Parisen egongo direla.

— Egoerak ezin du horrela luze iraun —esan zuen Framingham-ek, Hunterren ondoan eserita zegoen gizon altu zeremoniatsu batek, bibote hori zorrotza zuenak.

— Nahiago nuke gerrako erreportari izendatuko banindute.

— Aizu, Jimmy, frantses hori ezagutzen al duzu, koktelen arduraduna?

— Congo Jake? Bai, noski.

— Jatorra da?

— Bai, oso.

— Goazen berarekin hitz egitera. Agian argibideren bat emango digu erailketari buruz. Jainko maitea, nik erailketa hori mundu-gerrarekin nahasterik baneuka!

— Nik konfiantza handia daukat —ekin zion Framinghamek— ingelesek dena konponduko dutela.

Jimmy barrarantz joan zen Bullocken atzetik.

Aretoa zeharkatzean Ellen begiztatu zuen. Haren ileak gorri-gorria zirudien, ondoko lanpararen erlantzaren meneko. Ezpainak bustirik eta

begiak argitsu, Baldwin mahairantz makurturik zegoen. Jimmyk zerbait berezia sumatu zuen bere golkoan, malguki baten modura jauzi egin zuen zerbait. Halako batean burua biratu zuen, Ellenek ikusiko ote zuen beldur zen eta. Bullock jiratu egin zen eta ukondokada bat eman zion saihetsetan.

— Aizu, Jimmy, nor arraio dira gurekin dauden bi morroi horiek?

— Ruthen lagunak. Ez ditut oso ondo ezagutzen. Framingham dekoratzailea da, nik uste.

Barran, Lusitania transatlantikoaren argazki azpian, gizon beltzaran bat zegoen, gorila-papar sendo batek puztutako jaka zuri bat jantzirik. Koktel-ontzi bati eragiten ari zen bere esku iletsuen artean. Barra aurrean, zerbitzari bat zutik zegoen, koktel-edontziz betetako erretilu bat eskuan. Kokteletik bits berde-zurixka isuri zen haien gainera.

— Epa Congo —esan zuen Jimmyk.

— A, *bonsoir, monsieur'Erf, ça biche?*

— Tira, ondo antzean... zera... Congo, neure lagun bat aurkeztu nahi dizut: Grant Bullock, *American*-ekoa.

— Zer moduz? Zuk eta Mr. Erfek edan zerbait etxearen kontura.

Zerbitzariak erretilu txilinarria sorbaldaren mailara jaso zuen eta ahurrean ezarrita eraman zuen.

— Oker ez banago, *gin fizz* batek, hainbeste whisky edan ondoren, ez dit bat ere onik egingo. Hala ere, bat edango dut... Zerbait edan nahi duzu gurekin, Congo?

Bullockek oin bat letoizko arrabolaren gainean ezarri eta zurrutada bat edan zuen.

— Neure artean ari nintzen —esan zuen astiro— ea hemengo inork ez ote zuen ezer jakingo errepideko erailketa horri buruz.

— Bakoitza bere teoriarekin.

Jimmyk antzeman zion Congok bere begi beltz eta sakonetako batekin egindako keinu lauso bati.

— Hemengo aldean bizi zara? —galdetu zuen barre inozoari eustearren.

— Gau erdian auto baten hotsa entzun nuen, oso-oso azkar eta kriston zarata eginez. Uste dut zerbait jo zuela eta gero, bat-batean gelditu eta

atzerantz egin zuela askoz azkarrago, tximista baten modura.

— Tirorik entzun al zenuen?

Congok burua astindu zuen misteriotsu.

— Ahotsak entzun nituen, oso ahots hase-
rreak.

— Tira, hau ikertu egin behar da —esan zuen Bullockek edontziaren azken zurrutada kolpetik irentsiz—. Goazen neskengana.

Ellen kafea ekarri zien zerbitzariari beha zegoen, aurpegia intxaurrarena bezain zimurturik zuelako eta begiak bisigu frijituarenak bezalakoak. Baldwin bere aulkian erdi etzanik zegoen, Elleni so, begiak erdi itxirik. Ahapeka eta gorabeherarik gabe hitz egiten zuen.

— Ez al duzu ikusten zoratuko naizela zu lortzen ez bazaitut? Zeu zara mundu honetan betidanik nahi izan dudana gauza bakarra.

— George, nik ez dut inorena izan nahi... Ez al duzu ulertzen emakume batek askatasuna behar duela? Izan zentzuzkoa. Etxera joan

beharko dut, horrela hitz egiten jarraitzen baduzu.

— Zergatik ez didazu orain arte trabarik ipini? Nirekin ezin da jolasean ibili txotxongiloa banintz bezala. Ni ez naiz gizon horietakoa. Zeuk ondotxo dakizu hori.

Ellenek bere begi gris zabalez zuzenean begiratu zion. Argiak urrezko distira piztu zuen irisaren fits nabar txikien gainean.

— Oso gogorra izan behar du lagunak egiteko ahalmenik ez izateak.

Ellenek begiak beheratu zituen eta mahaiertzean bermatutako bere atzamarretan soa finkatu zuen. Baldwin haren betileen erlantzari begira zegoen. Halako batean, elkarrengandik bereizten zituen isiltasuna urratu zuen abokatuak.

— Tira, goazen dantza egitera.

*J'ai fait trois fois le tour du monde
dans mes voyages.*

Congo Jake kantuan ari zen ahapeka, bere esku iletsuen artean koktel-ontzi handi distiratsu

bat astintzen zuen bitartean. Berdez paperezta-tutako taberna meharra jendez josita eta aho-tsez borborka zegoen, alkoholaren lurrinak kiri-bilka egiten zuen gora, izotzak tintin egiten zuen edontzietan, eta aldian behin musika etortzen zen ondoko gelatik. Jimmy Herf zoko batean bakarrik *gin fizz* bat edaten ari zen zurrutadaka. Beraren ondoan, Gus McNiel zaplada txikiak ematen ari zitzaizkion Bullocki bizkarrean, garra-sika hitz egiten ziola belarrira:

— Zera, burtsa ixten ez badute... arraioa!... eztanda egin baino lehenago aukera on bat sortuko da... Ez ahaztu. Izualdia odol hotzeko gizon-ek dirua irabazteko tenorea da.

— Finantza-porrotak dagoeneko gertatu dira batzuk, eta hau hasiera besterik ez da...

— Zoriak behin bakarrik jotzen du gizon gaz-tearen atean... Entzuidazu: burtsa-arteizkaritza handi horietako batek bat ere dirurik ez duela jakitera ematen duenean, jende zintzoak poza hartu behar du... Baina esan dizudan guztia ez duzu egunkarian argitara emango, ezta? Zu morroi jatorra zara... Kazetari gehienek nahi duzuen guztia ipintzen diozue bati ahoan. Inor

ezin da zuekin fidatu. Gauza bat, ordea, esango dizut: itxierak izugarrizko mesedea egiten die eraikitzaileei. Nolanahi ere, gerrarekin batera, ez da etxerik bat bera ere eraikiko.

— Ez du iraungo bi aste baino gehiago eta, dena den, nik ez dakit zer-nolako eragina izango duen gudan.

— Mundu guztiak jasango ditu kalteak... Aizu, Joey, zer arraio nahi duzu zuk?

— Zurekin bakarka hitz egin nahi nuke une batez, jauna. Albiste garrantzitsuak daude...

Taberna arian-arian husten ari zen. Jimmy Herf artean zutik zegoen, atzealdeko horman bermaturik.

— Zu ez zara mozkortzen, Mr. Erf, inoiz.

Congo Jake barra atzean eseri zen, kikara bat kafe edateko.

— Nahiago dut gainerako morroiei begiratu.

— Oso ondo. Bai lelokeria! Diru piloa gastatu eta hurrengo egunean buruko mina.

— Horrela ez du hitz egin behar zerbitzari batek.

— Pentsatzen dudana esaten dut.

— Aizu, betidanik galdetu nahi izan dizut... Axola al zaizu niri esatea zera...? Nolatan duzu Congo Jake izena?

Congok barre sakon bat egin zuen.

— Ez dakit... Ni txikitan itsasoratu nintzen lehenengo aldian Congo deitu zidaten ile kizkurrea eta iluna daukadalako, beltzek bezala. Gero, Amerikan lan egiten nuenean, itsasontzi amerikar batean eta hori dena, morroi batek galdetzen zidan: Zer moduz, Congo? Eta nik esan nuen: Jake... horregatik deitzen didate Congo Jake.

— Ezizen polita... Nik uste nuen zuk itsasoan jarraitzen zenuela.

— Bizimodu hori gogorra da... Benetan esaten dizut, Mr. Erf, beti zoritxarra aldean. Gabarra baten nire lehenengo oroitzapena... kanal bateko gabarra batena, gizon batek, ez aitek, egunero egurra ematen zidan. Gero, ihes egin nuen eta belaontzietan lan egin nuen Bordelen.

— Txikitan ni hantxe egon nintzen, nik uste.

— Bai, ziur... Zeuk ulertzen dituzu horrelako gauzak, Mr. Erf. Baina zu bezalako gizon batek, edukazio ona eta hori dena, ez daki zer den bizi-

tza. Hamazazpi urterekin etorri nintzen ni New Yorkera... gauza onik ez. Parrandan ibiltzea besterik ez buruan. Gero, berriro itsasoratu nintzen eta munduan barrena jo nuen. Shanghain ikasi nuen amerikanoz hitz egiten eta taberna gobernatzen. Frisco-ra itzuli eta ezkondu egin nintzen. Orain amerikarra izan nahi dut. Baina zoritxarra berriro aldean... Begira, neska horrekin ezkondu aurretik, urtebetez elkarrekin bizi izan ginen, oso pozik, baina ezkondu bezain laster, gauza onik ez. Berehala hasi zen adarra jotzen eta Frantxi-mant deitzen, zeren eta ni ez naiz amerikanoz ondo mintzatzen eta, gainera, ez zen sekula etxetik ateratzen eta pikotara bidali nuen. Gauza bitxia gizon baten bizitza.

*J'ai fait trois fois le tour du monde
dans mes voyages.*

Congok berriro ekin zion kantari, bere bariton-ahots marmartiaz.

Esku bat pausatu zen Jimmyren besoan. Hura jiratu egin zen.

— Zer moduz, Ellie, zer duzu?

— Zoro batekin nago, alde egiten lagundu egin behar didazu.

— Hau Congo Jake da... Ezagutu egin behar duzu, Ellie, gizon aparta da... Nire laguna *une très grande artiste* da, Congo.

— Kopatxo bat anis nahi duzu, andrea?

— Edan ezazu zerbait gurekin... Zeinen leku gozoa den hau, jende guztiak alde egin eta gero!

— Ez, eskerrik asko, etxera noa.

— Baina gaua hasi besterik ez da egin.

— Tira, nire zoroarekin moldatu beharko duzu... Aizu, Herf, gaur Stan ikusi duzu?

— Ez, ez dut ikusi.

— Berarekin elkartzeko nintzen eta ez da azaldu.

— Stanek gutxiago edatea lortuko bazenu behintzat, Ellie... Kezkatzen hasita nago berarekin.

— Ni ez naiz bere tutorea.

— Badakit, baina ulertzen duzu zer esan nahi dudan.

— Zer uste du gure lagunak gerrari buruzko zurrumurru horietaz?

— Ni hemen geratuko naiz. Langileok ez dugu herririk. Nik nahi dut amerikar hiritarra izan... Itsas armada ez da berria niretzat baina...

Kolpe bat jo zuen esku batez besaurre okertuaren kontra eta barre sakon bat atera zen bere eztarritik.

— Pikotara! *Moi, je suis anarchiste, vous comprenez, monsieur.*

— Baina orduan zu ezin zara amerikar hiritarra izan.

Congok sorbalda jaso zuen.

— O, gizon aparta da —xuxurlatu zuen Ellenek Jimmyren belarrira.

— Zertarako nahi dute gerra? Langileek iraultza handia ez egiteko. Jende gehiegi dago lanpeturik gerran. Hortaz, Guillaume eta Viviani eta Krupp eta Rothschild eta Morgan, horiek esaten dute: «Eta orain gerra bat...». Eta zer egin dute lehenik? Jaures hil, sozialista zelako. Sozialistek traizioa egin diote Internazionalari, baina berdin dio...

— Baina nola ipintzen dute jendea bere borondatearen kontra elkarren aurka borrokan?

— European jendea esklabo izan da urte askotan. Hemen ez bezala... Baina nik gerra ikusi dut. Oso bitxia. Nik taberna bat izan nuen Port Arthur-en, mutikotan. Oso bitxia.

— Ene, gerrako erreportari-lanpostua eman-go balidate!

— Ni Gurutze Gorriko erizain joan ninteke.

— Erreportaria, bai gauza ona... Beti taberna amerikar batean mozkortuta, borroka-zelaitik oso urrun.

Barre egin zuten.

— Baina ez al gaude gu borroka-zelaitik dezente urrun, Herf?

— Ederki, goazen dantza egitera. Barkatuko didazu gaizki dantzatzan badut.

— Ostikada bat emango dizut, ezer gaizki eginez gero.

Herfen besoak igeltsuzkoak zirudien, Elleni gerritik oratu zionean. Hautsezko horma garaiak puskatu eta bertan behera erortzen ziren haren baitan. Gorantz hasi zen, suzko globo baten modura, Ellenen ilearen lurrinari antzemanda.

— Behatz-puntetan eta erritmoarekin batera... Zuzen ibili aurrerantz, horixe da dena.

Ellenen ahotsa zerra txiki zorrotz malgu bat bailitzan barneratzen zitzaion haragian. Ukondo-kadak, aurpegi zurrinak, begi irtenak, gizon lodiak eta emakume lirainak, emakume lirainak eta gizon lodiak erruz biraka ari ziren haien inguruan. Jimmy igeltsua xehatzen ari zen, bularrean indartsu eta min-eragile pilpiratzen zion zerbaitetaz baliatuta. Ellen makina nahaspilatu bat zen haren besoen artean, argi zuria, urdina eta kobre-kolorekoa isurtzen zituen zerra dirdaitsua-ren hortzak zituen. Dantzaldia bukatu zute-nean, Ellenen paparra, aldaka eta izterrak hurbiltzenago sumatu zituen. Halako batean, Jimmyri odola pilatu egin zitzaion, zaldi eroaren pare. Ate ireki batetik, haize leunak aurrera egiten zuen jangelaren tabakoaren kean eta aire trinko arrosan gaindi.

— Herf, erailketaren etxera joan nahi dut. Mesedez, eraman nazazu hara.

— Dagoeneko X askotxo ikusiak ditut nik, erailketa gertatu zen lekua markatzeko jarriak.

Hallean George Baldwin bidera irten zitzaien. Klariona bezain zurbil zegoen. Gorbata beltza

zuen, okertua. Bere sudur finaren zuloak zabal-
durik eta zain txiki gorriz marraturik zeuden.

— Epa, George.

Abokatuaren ahotsak karraka egin zuen,
garraztasunez, klaxon baten modura.

— Elaine, zure bila ibili naiz. Hitz egin behar
dizut... Agian zuk uste duzu txantxetan ari naize-
la. Nik ez dut sekula txantxarik egiten.

— Herf, barkatu une batez... Tira, zer gerta-
tzen da, George? Itzuli mahaira. George, ni ere
ez nintzen txantxetan ari... Herf, taxi bat eskatu
nahi duzu niretzat?

Baldwinek eskumuturretik heldu zion.

— Nahikoa jolastu duzu nirekin, aditu? Egu-
nen batean, gizon batek errebolber bat hartu eta
hil egingo zaitu. Uste duzu nirekin jolas egin
dezakezula mukizu horiekin guztiekin bezala...
Zu ez zara prostituta arrunt bat baino hobe.

— Herf, esan dizut taxi bat eskatzeko nire-
tzat.

Jimmyk bere ezpainak hozkatu zituen eta ate
nagusitik irten zen.

— Elaine, zer egin behar duzu?

— George, nik ez dut inoren agindurik onartzen.

Nikelezko zerbaitek ñir-ñir egin zuen Baldwinen eskuan. Gus McNielek aurrera jo zuen eta eskutik heldu zion bere esku gorri handiaz.

— Emaidak hori, George... Jainkoarren, gizona, lasaitu!

McNielek errebolberra poltsikoan sartu zuen. Aldaroka, Baldwin hormarantz abiatu zen. Eskuin eskuko hatz erakusletik odola zerion.

— Hementxe dago taxia —esan zuen Herfek aurpegi zurbil zurrun guztiei begira, banan-banan.

— Ederki, eraman ezazu neska etxera... Ez da ezer gertatu, nerbio-atake bat baino ez. Ez da zertan larritu.

McNielek kaleko hizlari baten modura egiten zuen oihu. Maître-ak eta arropazaindegiko neskak artega begiratu zioten elkarri.

— Ez da ezer gertatu... Jaun hau pitin bat urduri dago... Lan gehiegi, badakizue.

Lasaitasuna eman nahirik, McNielek ahotsa behekitu eta xuxurlatu zuen:

— Ahaztu kontu hori, ulertzen?

Taxian sartzean, Ellenek bat-batean esan zuen haur-ahots finaz:

— Ahaztuta neukan erailketa gertatu zen lekura joateko ginela... Taxilariak itxaron dezala. Aire zabalean apur bat ibili nahi nuke.

Paduren gatz-usaina nabaria zen. Gaua ilargiaren argiaz eta hodeiez zipriztinduta zegoen. Poek ubideetan kaskabiloek bezala hots egiten zuten.

— Urruti dago? —galdetu zuen Ellenek.

— Ez, hor behean da, kale-kantoian.

Legarrak krak egin zuen haien oinen azpian. Gero, haien oin-hotsa leunki entzun zen macadamen gainean. Faro batek itsutu egin zituen; gelditu egin ziren autoari pasatzen uzteko. Ihes-tutuak sudurzuloak bete zizkien, eta gero, usain hori padurenaren baitan aienatu zen.

Teilatu zorrotzeko etxe gris bat zen eta atzealdetik akazia handi batek itzala ematen zion. Bide ondoan ataurre txiki bat zuen, burdinsare hautsi batez babestua. Etxearen aurrealdean, polizia bat harat-honat zebilen, txistuka, bere baitan bilduta. Lipar batez, ilargiaren pusketatxo mutxitu bat agertu zen hodeien atzetik,

leihu ireki baten kristal puskatua eztainu-paper bihurtuz eta akaziaren hosto txiki eta biribilak nabarmenduz. Horrela, hodeien arteko zirrikitu batetik pirritan hasi zen, galdutako txanpon baten modura.

Bietako inork ere ez zuen ezer esan. Bide-jatetxerantz abiatu ziren berriro.

— Herf, benetan ez duzu Stan ikusi?

— Ez, eta ez dut ideia aztarrenik non ezkutu ote den.

— Ikusten baduzu esaiozu niri lehenbailehen telefonoz deitzeko... Herf, nola deitzen ziren Frantziako Iraultzan armaden atzetik zihoazen emakume haiek?

— Utzidazu pentsatzen. *Cantonnières* ez zen?

— Horrelako zerbait... Nik horietako bat izan nahi nuke.

Haien eskuinaldean, urrun, tren elektriko batek txistu egin zuen, triki-traka eginez hurbildu zen eta gero, haren aztarna iraungiz joan zen, urrutiratu ahala.

Tango bat zeriola, bide-jatetxea arrosa urtzen zen, izozki baten gisa berean. Jimmy Elleenekin sartzekotan zen taxian.

— Ez, bakarrik joan nahi dut, Herf.

— Baina nik oso gustura lagunduko nizuke etxeraino... Ez zintuzket bakarrik utzi nahi.

— Mesedez, lagun gisa eskatzen dizut.

Ez zioten eskurik elkarri eman. Hautsa eta gasolina errea nahasirik zituen bafada bat bota zion taxiak aurpegira. Jimmy eskaileran gelditu zen, zarata eta ke artera itzultzeko gogorik gabe.

Nellie McNiel bakarrik zegoen mahaian. Aurrean, bere senarraren aulki hutsaren bizkarraletik ezpain-zapi bat esekita zegoen. Nelliek aurrerantz finkatua zuen begirada, norarik gabe. Dantzan ari zirenak itzalak bailiran igarotzen ziren haren begien aurretik. Gelaren beste muturrean George Baldwin ikusi zuen, zurbil eta argal, bere mahairantz astiro zihoala, gaixo baten legez. Mahai ondoan, zutik, abokatuak bere kontua arretatsu aztertu, ordaindu eta bere ingurura begiratu zuen, ezeri bereziki erreparatu gabe. Nellie ikusteko zorian zegoen. Zerbitzariak erretilu batean ekarri zituen bueltak eta dezente makurtu zen. Baldwinek dantzan ari zirenei

azkar egin zien so, begirada ilunaz, soina biratu zuen eta irten egin zen handik. Lirio txinatarren gozotasun jasanezina gogora ekarrita, Nelliek begiak malkoz beterik sumatu zituen. Bere zorro zilarreztatutik agenda bat atera zuen, gainetik irakurri eta oharrak hartu zituen arkatz zilarrez-tatu batez. Gero, gorantz begiratu zuen eta, bere aurpegiaren azal nekatuan atsekabe-imintzio bat erakutsiz, keinu bat egin zion zerbitzariari.

— Aizu, mesedez, esango diozu Mr. McNieli Mrs. McNielek hitz egin nahi diola? Tabernan dago.

— Sarajevo, Sarajevo, hantxe piztu da sua! — oihu egin zion Bullockek barran zehar kokaturiko aurpegi eta edontzien ilarari.

— Aizu —esan zuen Joe O'Keefek ahapetik, inorekin bereziki ari ez bazen ere—, telefono-bulegoko batek esan dit itsasoan bataila handi bat gertatu dela, St. John's-en, Ternuan, eta ingelesek alemanei berrogei aleko ontzidi bat urperatu dietela.

— Jimmy, horrela gerra segituan amaituko da!

— Baina oraindik ez dute deklaratu eta!

— Nola dakizu zuk? Kableak guztiz buxaturik daude eta bertatik albiste bat bera ere ezin da pasa.

— Ba al zenekien lau porrot gehiago izan direla Wall Streeten?

— Esan didate Chicagoko gariaren merkatua erotu egin dela.

— Burtsa guztiak itxi beharko lituzkete hau bukatu arte.

— Agian Ingalaterrak askatasuna emango dio Irlandari, Alemaniak izugarrizko jipoia ematen badio.

— Baina oraintxe ari dira... Burtsa bihar ez da irekiko.

— Dirua eta zuhurtasuna duen gizonak oraintxe du nahi adina sos irabazteko tenorea.

— Tira, Bullock laguna, etxera noa —esan zuen Jimmyk—. Hauxe dut lanik gabeko gau bakarra eta ezin dut alferrik galdu.

Bullockek begi-keinu bat egin eta esku mozkor bat inarrosi zuen. Ahotsak Jimmyren belarrietan taupadaka ari ziren marruma malgu baten antzera, hurbil, urrun, hurbil, urrun... Txakurrak bezala hil da. «Tira ba, aurrera», esan zuen. Bere

diru guztia xahutu zuen quarter bat izan ezik. Egunsentian fusilatua. Gerra-deklarazioa. Borroka-
karen hastapena. Eta bakarrik utzi zuten bere
lorian. Leipzig, eskualde jendegabea, Waterloo,
han nekazariak altxatu ziren eta bataila haren
sugarra piztu zuten... «Ezin diat taxia hartu; ibili
egin nahi diat». Ultimatuma. Loreak belarrietan,
soldadu-trenak kantari doaz gerrara. Eta ahalkea
etxean geratzen den gezurrezko etruskoagatik...

Legarrezko zidorretik errepiderantz jaisten
ari zela, beso bat haren beso bati lotu zitzaion.

— Ardura al dizu ni zurekin joaten banaiz? Ez
dut hemen geratu nahi.

— Ez, inola ere ez, Tony. Ni oinez itzuliko
naiz.

Herf urrats luzeak eginez zebilen, aurrera
begira. Hodeiek ilundua zuten zerua, non artean
ozta-ozta ageri baitzen ilargiaren esne-kolore
indargea. Eskuin eta ezkerraldera, arku elektriko
bakan batzuen argizko kono gris-moreak, ilun-
pearen ziprizzintzaile. Harantzago, erlantzak
gorantz egiten zuen, kaleek aurrean horma
lauso hori eta gorrixkak balituzte bezala.

— Ez nauzu begiko, ezta? —esan zuen Tony Hunterrek zenbait minutu geroago, arnasa nekez hartuz.

Herfek ibilera moteldu zuen.

— Ba... zera... ez zaitut ondo ezagutzen...
Oso atseгина ematen duzu.

— Ez esan gezurrik, ez duzu zertan... Uste dut gaur gauean neure buruaz beste egingo dudala.

— Baina, baina gizona! Ez egin hori... Zer duzu?

— Zuk ez duzu eskubiderik niri esateko ez dudala neure buruaz beste egin behar. Zuk ez dakizu ezer ere nitaz. Ni emakumea banintz, kasu handiagoa egingo zenidake.

— Baina hori alde batera utzita, zer duzu?

— Erotzen ari naiz, horixe da dena, hain ika-ragarria da guztia. Gau batean, Ruthekin ikusi zintudan lehen aldian, uste nuen lagunak izango ginela, Herf. Hain atseгина eta ulerkorra ematen zenuen... Uste nuen zu ni bezalakoa zinela, baina orain hain bihozgabe bihurtzen ari zara...

— Times-en erruagatik izango da, nik uste...
Laster botako naute, ez estutu.

— Nekatuta nago pobrea izateaz. Arrakasta lortu nahi dut.

— Ondo, zu oraindik gaztea zara, ni baino gazteagoa, seguruenik.

Tonyk ez zuen erantzun.

Etorbide zabal batetik behera zihoazen, zurezko etxe belztuen bi ilararen artean. Tranbia luze eta hori bat txistuka igaro zen handik.

— Flatbush-en egongo gara, nonbait.

— Herf, nik uste nuen zu ni bezalakoa zinela, baina orain beti emakumeen artean ikusten zaitut.

— Zer esan nahi duzu?

— Ez diot sekula kontatu inori... Jainko maitea, zuk hau inori esaten badiozu... Txikitan izugarrizko nahaspila nuen nik sexu kontuetan. Nik hamar, hamaika edo hamahiru urte izango nituen.

Negar-zotinka ari zen. Arku elektriko baten azpitik pasatzean, Jimmyk antzeman zion Tonyren masail gaineko malkoen distirari.

— Ez nizuke horrelakorik esango, mozkortuta ez banengo.

— Baina horrelako gauzak ia jende guztiari gertatzen zaizkio txikitan. Ez zenuke larritu behar.

— Baina ez naiz aldatu eta horixe da okerre-na. Ez ditut emakumeak gustuko, behin eta berriro saiatu banaiz ere... Harrapatu egin ninduten. Hain lotsatuta egoten nintzen ezen hainbat astetan eskolara joan gabe egon bainintzen. Gure ama negar batean ari zen. Hain nago lotsatuta! Zuk ez dakizu nolako beldurra ematen didan jendeak horren berri jakiteak. Beti borrokan nago kontu hori ezkutatu nahian, neure sentimenduak inork jakin ez ditzan.

— Beharbada, dena zure irudimena izango da. Seguru asko, gainditu ahal izango duzu. Joan psikoanalista batengana.

— Ezin dut inorekin hitz egin honetaz. Gaur gauean mozkortuta ez banengo... Entziklopedia bat kontsultatzen saiatu naiz... Hiztegian ere ez dator.

Jimmy Herfek zaplada batzuk eman zizkion bizkarrean.

— Tira, gizona, aupa! Zer arraio! Jende piloa dago zure kasuan. Antzerkiaren mundua gainezka dago.

— Horiek denak gorroto ditut nik... Horrelako jendeaz ez naiz ni maitemintzen. Neuk ere neure burua gorrotatzen dut. Gainera, ziur nago hemendik aurrera zeuk ere gorrotatuko nauzula.

— Hori bai txorakeria! Niri bost!

— Orain badakizu zuk zergatik egin nahi dudan neure buruaz beste... O, ez dago eskubiderik, Herf! Ez dago eskubiderik!... Ez dut inoiz zorterik izan bizitzan. Institututik aterata hasi nintzen neure bizibidea aurrera ateratzen. Mandatu-mutila nintzen udako hoteletan. Gure ama Lakewood-en bizi zen eta nik irabazten nuen guztia bidaltzen nion. Oso gogor lan egin dut nagoen lekura iristeko. Jende guztiak horren berri izango balu, izugarrizko iskanbila sortuko balitz eta dena jakitera emango balitz, nire akabua litzateke.

— Baina hori esaten da galai gazte itxuroso guztiei buruz eta inor ez da estutzen.

— Paper bat kentzen didatenean burura etortzen zait horrexegatik dela. Horrelako gizon guz-

tiak gorrotatu eta mesprezatu ditut... Ez dut galai gazte itxurosoa izan nahi. Nik antzeztu egin nahi dut. A ze infernua!... A ze infernua!

— Baina orain zu entseiatzen ari zara, ezta?

— Antzezpen txoro bat, sekula Stamford-etik aterako ez dena. Orain ez zara harrituko egin dudala entzuten baduzu.

— Egin zer?

— Neure buruaz beste.

Aurrera segitu zuten elkarri hitzik esan gabe. Euria hasi zuen. Kalearen behealdean, zapata-kutxak bezalako etxe berde-beltz batzuen atzetik, oinaztargi more bat sigi-sagan ageri zen tarteke. Hezetasunak eta hautsak eragindako usaina sortzen zen, tantatzar zalapartatsuek asfalto-ari talka egitean.

— Hemengo aldean metro-geltoki bat dagoe-la uste dut... Hori ez al da argi urdin bat? Korrika egin dezagun, bestela blai eginda bukatuko dugu-eta.

— Arraioa, Tony! Niri berdin zait blai eginda bukatzea ala ez.

Jimmyk kapela erantzi eta esku batez kulunkan erabili zuen. Tantalak hotz erortzen ziren bere

bekoki gainera. Euriak, teilatuek, lupetzak eta asfaltoak isuritako usainak ahotik kendu zion whisky eta zigarroen garraztasuna.

— Kaka zaharra! Ikaragarria da —deiadar egin zuen Jimmyk bat-batean.

— Zer?

— Sexuari buruzko kontu horiek guztiak. Gaur gauera arte ez naiz ohartu hilzoriaren benetako luze-laburraz. Oso gaizki pasatu behar duzu zuk. Denok ere pasatzen dugu gaizki. Zure kasuan, zorte txarra da, zorte txar-txarra. Martin-ek esan ohi zuen: «Dena askoz hobeto joango litzateke, bat-batean ezkila batek joko balu eta denek elkarri esango baliote zer egin duten, nola bizi izan diren, nola maitatzen duten. Gauzak ezkutatzuz usteldu egiten dira». Jainko maittea, ikaragarria da! Hori gabe bizitza berez nahiko zaila ez balitz bezala.

— Tira, metroko geltoki horretan sartuko naiz.

— Luzaro itxaron beharko duzu, ordea.

— Berdin dio, nekatuta nago eta ez dut busti nahi.

— Orduan, gau on.

— Gau on, Herf.

Ostots luze bat entzun zen. Euria barra-barra hasi zuen. Jimmyk kapela belarrietaraino sartu eta jakaren lepoa gorantz jaso zuen. Lasterka zihoala, oihu egin nahi zuen: «Putakumeak!», biriken indar guztiarekin. Oinaztargiak sigi-sagan ari ziren leiho hilen ilaretan zehar. Euriak borborka jarri zituen zoladura, erakusleihoak, harrizko eskailera nabarrak. Belaunak bustita zeuzkan. Bizkarretik behera tanta-zorrotada geldi bat zihoakion eta ur-jauzi hotzak mahuketatik behera erortzen zitzaizkion, eskumuturrak blaituz. Azkura zuen gorputz osoan eta dar-dar egiten zuen. Brooklynen zehar ibili zen. Logela guztietako ohe guztien obsesioa: bertan jendea bihurrikatuta zegoen, nahasita, itota, lorontziko landareen sustraien antzera. Ostatuetako eskaileretan kraska egiten zuten oinen obsesioa, itsumustuka ateko heldulekuen bila ari ziren eskuen obsesioa. Loki taupakarien eta ohe gaineko gorputz bakarti zurrunen obsesioa.

*J'ai fait trois fois le tour du monde
vive le sang, vive la sang.*

— *Moi, monseur, je suis anarchiste... And three times round went our gallant ship, and three times round... Batetik hori eta bestetik dirua, kaka zaharra!... And she sank to the botton of the sea... Leku onean gaude.*

J'ai fait trois fois le tour du monde dans mes voy... ages.

Gerra-deklarazioa... Danbor-arradak... Bola iletsu baten moduko kapela luzea zuen danbor nagusiaren makila dizdizariaren atzetik, gorriz jantzitako alabardarien ibilaldia zihoan. Zilarrezko kirtenak birak ematen zituen dirdaiak jaulkiz... ran, rataplan, plan... munduko iraultza... Borrokaren hastapena euriak astindutako kale hutsetan zehar egindako desfile luze batekin. Estra, estra, estra. Santa Klaus bere alaba bortxatzen saiatu ondoren hil egin zuen. ESKOPETAZ BERE BURUAZ BESTE EGIN ZUEN... Kanoia kokots azpian ezarri eta hatz lodiaz sakatu zuen katua. Izarrek Fredericktown arbuiazen dute. Munduko

langileok, bat egin ezazue. *Vive le sang, vive le sang.*

— Kaka zaharra, blai eginda nago! —esan zuen Jimmy Herfek goraki.

Bera zegoen lekutik ikusi zuenaren arabera, kalea hutsik luzatzen zen, euripean, arku elektrikoak bola morez han eta hemen jositako leiho hilen ilaren artean. Etsi-etsian segitu zuen oinez.

Seigarren atala

Legezko bost auzi

Azkar kokatu ziren bikoteka. GUZTIZ DEBEKATUTA DAGO BAGONETETAN ZUTITZEA. Trakzio-kateek gurpil koskadunak hartu eta karranka egiten zuten; bagoneta triki-traka eginez zihoan maldan gora, argi burrunbarietatik urrun, jendetzak, krispetek eta kakahuetek sortarazitako usainetik urrun; triki-traka eta karranka eginez igo zen iraileko meteorioak nagusi ziren gau garaian gora. Itsasoa, zingira-usaina, burdinazko bapore baten argiak portua atzean utziz. Ilunpe more-anil zabal batean itsasargi batek kliska egiten zuen. Gero, bat-bateko jaitsiera. Itsasoa gorantz eta beherantz eta argiak zeruraino. Emakumearen ilea gizonaren ahoan, gizonaren eskua ema-

*kumearen saihetsetan, izterrak elkar
igurtzika.*

*Jaitsialdi bortitzak eragindako hai-
zeak euren garrasiak zeramatzan
berekin. Astinaldiek asaldaturik,
haben nahaspilan gora egin zuten.
Beherantz. Gorantz. Argizko burbui-
lak iluntasunez eta itsasoz osatutako
sandwich batean. Beherantz. ZAINDU
ZEUN AULKIAK HURRENGO BIDAIAK.*

— Sartu Joe, ikusiko diat amak ezer jateko
ematen digun.

— Eskerrik asko... zera... Ni ez nagok... zera...
dama bat ezagutzeko behar bezala jantzita.

— O, berdin zio. Gure ama duk eta. Eseri,
deitu egingo zioat.

Harland ate ondoko aulki batean eseri zen,
sukalde ilunean, eta eskuak belaun gainean eza-
rri zituen. Eskuei begiratu zien: dardarka zeuz-
kan, gorri eta ugerrez beterik. Mihia latz sumatu
zuen, intxaur-birringailu baten antzera, aurreko
astean edan zuen whisky merkearen eraginez.
Gorputz osoa hozmindurik, beraturik eta ozpin-

durik zeukan. Eskuei begiratu zien.

Joe O'Keefe sukaldera itzuli zen.

— Ohean zagok. Labean zopa apur bat dagoela zioke... Hortxe zagok. Horrek adorea emango dik... Joe, ni bertan izan nintzen lekuan egon bahintz. Seaside Inn-era joan ninduan nagusiari esateko burtsa ixteko asmoa dutela, zurrumurruak diotenez. Arraioa! Ez diat sekula honelakorik ikusi. Morroi hori, negozio-gizonen artean oso ezaguna den abokatu hori, eroaren pare ari zuan zerbaitegatik garrasika, hallean. Hark bai aurpegi beldurgarria! Eta gero, errebolber bat ateratzen eta emakumea hiltzeko asmoa zian edo horrelako zerbaite eta, halako batean, inor horretaz ohartu baino lehen, nagusia errenka heldu zuan eta, burua galdu gabe, errebolberra kendu zioan eta poltsikoan sartu zian. Baldwin hori laguna dik. Arraioa! Sekula ez diat halakorik ikusi, ezta antzekorik ere. Gero, uzurtu egin zuan zera bezala...

— Aizak motel —esan zuen Joe Harlandek—, lehenago edo geroago denoi gertatzen zaiguk.

— Tira, jan lasai. Ez duk ia ezer jan.

— Ezin diat gehiago.

— Bai zera!... Aizak Joe, zer dakik hik gerra-ren kontu horretaz?

— Uste diat oraingoan benetan ari direla... Entzun diat hori Agadir-ko gertakariaz geroztik jazoko zela.

— Nahi nikek nik, ba, norbaitek egurra eman-go balio Ingalaterrari, Irlandari autonomia emateko asmorik ez izatearren.

— Lagundu egin behar zieagu... Nolanahi ere, honek ezin dik luze iraun. Nazioarteko finantzak kontrolatzen dituzten gizonak ez ditek onartuko. Azken batean, bankaria duk, ekonomiaren hariak darabiltzana.

— Guk ez zioagu Ingalaterrari lagundu behar, ez jauna, Irlandako iraultzan eta gerra zibilean egin dutena egin eta gero.

— Joe, izugarrizko nahastea daukak buruan, gauero biblioteka publikoan irakurtzen duan istorio horrekin... Hik burtsaren kotizazioen gora-beheren berri izan eta erne egon eta ez utzi inori hiri ziria sartzen greba, altxamendu eta sozialismoari buruz egunkarietan idazten dituzten artikulak hutsalekin. Ikusi nahi nikek aurrera egiten duala. Tira, hobe diat alde egitea.

— Ez, geratu hemen apur batean, botila bat pattar irekiko diagu.

Oin-hots sendo batzuk entzun zituen korridorean, sukaldearen kanpoaldean.

— Nor da?

— Hi al haiz, Joe?

Mutil handi ilegorri bat, bisaia gorri karratua eta lepo sendoa bi sorbalda trinkoen artean txer-tatua zuena, zabuka sartu zen gelan.

— Zer arraio ari haiz?... Hau anaia txikia diat, Mike.

— Bai, eta?

Mike balantzaka zegoen kokotsa papar gainean ezarririk. Sorbaldak makurtuta zituen, sukaldearen sabaia oso behean baitzegoen.

— Balea ematen dik, ezta? Baina, Mike, Jainkoarren, ez al diat esan etxera mozkortuta ez etortzeko?... Kapaz duk etxea bertan behera botatzeko.

— Inoiz etorri behar diat etxera, ezta? Tutore hasi hintzenetik, aitak baino gehiago zirikatzen nauk. Zorionez, ni ez nauk luzaro geratuko hiri madarikatu honetan. Inor ero bihurtzeko modukoa duk. *Golden Gate*-a baino lehenago itsasora-

tzen den ontzirik aurkitzen badut, benetan eta egiatan esaten diat, alde egingo diat.

— Tira, niri ez zaidak axola hemen geratuko haizen ala ez. Baina ez diat nahi hik iskanbilak etengabe sortzea, aditu?

— Nik gogoak ematen didana egiten diat, ulertzen?

— Orduan alde egin ezak hemendik, Mike... eta itzuli mozkorra pasatzen zaianean.

— Bota nazak, ba, hemendik. Bota nazak. Harland zutitu egin zen.

— Tira, banoa —esan zuen—. Ikusi behar dut lan hori harrapatzen dudan.

Mikek sukaldean zehar aurrera egin zuen, ukabilak hertsirik. Masailezurra teink, Joeyk aulki bat hartu zuen.

— Burua txikituko diat honekin!

— Santu eta martiri guztien izenean! Ezin al da emakume bat bakean bizi bere etxean?

Emakume txiki ilezuri bat oihuka hasi zen euren artean. Begi beltz dirdaitsuak zituen, elkarrengandik bereizi xamarrek, joan den urteko sagar baten moduko aurpegi zimurtsu batean.

Eskuak airean zerabiltzan, lanak higatutako eskuak.

— Ixo biok! Etxean beti juramentuka eta borrokan, Jainkorik ez balego bezala... Mike, zu igo gora eta sartu ohean, mozkorra pasatzen zai-zun arte.

— Horixe esaten diot nik —esan zuen Joeyk. Emakumea Harlandengana jiratu zen. Bere ahotsak kirrinka egiten zuen, klarionak arbelean bezala.

— Eta zuk alde hemendik. Nik ez dut mozkor-tirik onartzen neure etxean. Alde hemendik! Berdin zait nork ekarri zaituen.

Harlandek Joeyri behatu zion irribarre garratz txiki bat ezpainenetan. Gero, soina goratu eta alde zuen.

— Neskamea —murmurikatu zuen, adreilu ilunekiko etxez osatutako kale hautseztatuetan zehar bere hanka zurrun minberatuen gainean zihoala, balantzaka.

Arratsaldeko eguzki sargoritsuak halako talka bat jo zion bizkarrean. Dontzeila, neskame, sukaldari, bulegari eta idazkarien ahotsak haren belarrietan. Bai jauna, Mr. Harland. Eskerrik

asko, Mr. Harland. O jauna, esker mila, Mr. Harland, jauna...

Eguzki-izpi batek Ellen esnatu zuen, burrunba gorri bat haren betazaletara isuriz. Loaren zetazko korridore purpuretan berriro pulunpatu zen, eta berriro esnatu egin zen, aharrausika jiratu zen, belaunak kokotseraino eraman zituen loaren pipilari gogorrango eustearren. Kamioi bat zalapartaka zebilen kolean zehar. Eguzkiak marra beroak paratzen zizkion bizkarrean. Etsian egin zuen aharrausi, bihurkatu egin zen eta etzanda geratu zen begiak zabalik eta eskuak garondoaren azpian zituela, sabaira begira. Oso urrutitik, kale eta hormetan zehar, bapore baten adarrari zerion auhen luzea Ellenen baitan barneratu zen, legarrean zehar aurrera zegien belar-azaoaren antzera. Ellen eseri egin zen, burua inarrosi zuen aurpegiaren inguruan zebilkion euli bat uxatze aldera. Eulia eguzki-argian aienatu zen, une batez diz-diz egin eta gero. Baina bere baitako zokoren batean halako estutasun etengabe bat sumatu zuen, adierazezina,

aurreko gaueko gogoetagarritzen lorratza. Hala ere, pozik eta guztiz esna zegoen eta, gainera, goiz zen. Altxatu egin zen eta, kamisoia jantzita, alderrai ibili zen logelan zehar.

Eguzkiak jotzen zuen lekuetan egurrezko lurzorua bero zegoen, haren oin-azpiek sumatu zutenez. Txolarreak txorrotxioka ari ziren leiho ertzean. Goialdetik, josteko makinaren hotsa zetorren. Bainugelatik irtetean, soina leuna eta gardena zuen; toaila batez gorputza igurtzitzea-ri ekin zion eta aurretik zuen egun luzearen orduak zenbatzen hasi zen. Ibilaldi bat egingo zuen hiriko kale zikin eta zabortsuetan zehar East River-eko ontziraleku hartaraino, bertan pilatzen baitziren kaobazko habe handiak; baka-rrik gosalduko zuen Lafayette-n, kafea, opilak eta gurin gozoa; erosketetara goiz joango zen Lord&Taylor-era, dendaren giroa itogarria izan aurretik eta neska saltzaileak zimeldu baino lehen; bazkalduko zuen zerarekin... Orduan, gau osoan bakerik eman ez zion mina azaleratu zen eta ziplo bota zuen: «Stan, Stan... Jainko mai-tea!», esan zuen goraki. Ispilu aurrean eseri zen bere begi-nini zabaldu beltzei so.

Azkar jantzi eta irten egin zen, Bosgarren Etorbidean behera joan zen eta ekialderantz jo zuen, Zortzigarren Kanean zehar, ezkerrera edo eskuinera begiratu gabe. Eguzkia ordurako berotzen hasia zen eta espaloietan, kristaletan eta kartel esmalteztatu hautseztatueta irakiten zuen. Haren aurretik igaro ziren gizon eta emakumeen begitarteak zimurtuak eta grisak ziren, loaldi gehiegi eginak zituzten burkoen antzera. Lafayette Street zeharkatu ondoren, autoen eta kamioien marrumen artean, hauts-zaporea zuen ahoan eta hareazko fitsek hortzen artean hirrikinatzen zuten. Ekialderago, eskorgen aurretik igaro zen. Saltzaileak freskagarri-postuen marmolezko salmahaiak garbitzen ari ziren, biraderadun organo batek *Danubio urdinaren* doinu kiribil distiratsuz betetzen zituen kaleak. Ozpin-pepinoen postuari garraztasuna zerion. Tompkins Square-n umeak oihuka ari ziren, pila pila eginda, asfalto bustian zehar. Ellenek oinetan, alkandora tarrantaturik eta lohiturik zuten makina bat ume zeuden; ahoak adurtsu, ukabilkadak, ausikiak, atzamarkadak; narrats-usaina isurtzen zuten, ogi lizunak bezala. Halako batean, Ellenek

belaunetan ahulezia sumatu zuen. Bira egin eta etorritako lekutik itzuli zen.

Eguzkiak Baldwinen besoak bezala estutzen zion gerria, haren atzamarrek bezala ferekatzen zizkion besaurre biluziak, haren arnasa bezalako zen bere masailetan.

— Legezko bost auziak baino ez —esan zion Ellenek begiak ostrak bezalakoak zituen gizon hezurtsu bati, haren alkandoraren kolkoari hitz eginez.

— ...Hortaz, epaia ziurtatuta dago? —galdetu zuen handios.

— Seguru asko ez dio inork kontra egingo...

— Bada, benetan sentitzen dut, bi aldeek lagun zaharra naizelako.

— Begira, Dick, benetan diotsut, Jojo estimu handian dut. Askok zor diot... Zentzu askotan, gizon aparta da, baina ezin zitekeen besterik egin.

— Beste bat dagoela esan nahi duzu?

Begi distiratsuz so egin zion eta erdizka baie-tsi zuen.

— Baina dibortzioa oso kontu serioa da, nire lagun maitea.

— O, ez da horren serioa, hala ere.

Harry Goldweiser ikusi zuten eurengana zihoala panelez apaindutako gela zabalean zehar. Bat-batean Ellenek ahotsa goratu zuen.

— Diotenez, Marne-ko bataila horrek amaiera ekarriko dio gerrari.

Harry Golweiserrek esku bat hartu zion bere esku lodien artean eta agur moduan makurtu zen.

— Benetan eskertzen dizut, Elaine, hona etorri izana mutilzahar hauek asperraren asperrez hil ez daitezen. Epa, Snow laguna, zer moduz?

— Zer dela-eta dugu zuk oraindik ere hemen aurkitzeko atsegina?

— O, zenbait kontuk geldiarazi naute... Nola-nahi ere, udako turismoguneak gorrotatzen ditut. Dena den, Long Beach baino politagorik ez dago... Buff, Bar Harbor, ni ez nintzateke Bar Harbor-era joango, milioi bat emango balidate ere, milioi eder bat.

Mr. Snow-ek arnasots zakar bat bota zuen.

— Goldweiser, ez al zara han higiezin en negozio batean sartu?

— Landaetxe bat erosi nuen neuretzat, horixe da dena. Harrigarria da landaetxe bat erosi ezin izatea, Times Square-ko egunkari-saltzaile guztiek horren berri izan gabe. Goazen mahaira, arreba segituan etorriko da.

Lentejuelez hornitutako soineko bat jantzirik zuen emakume potola bat sartu zen, haiek oreinadarrez apaindutako jangela handi bateko mahaian eseri ondoren. Bularrandia zen eta azal horixka zuen.

O, Miss Oglethorpe, izugarri pozten naiz zu ezagutzeaz! —esan zuen txioka emakumeak papagai-ahotsaz—. Zu sarri ikusi zaitut eta beti pentsatu izan dut xarmagarria zarela. Ahal izan dudan guztia egin dut Harryk zu etxera egunen batean ekartzeko.

— Hau arreba dut, Rachel —esan zion Goldweiserrek Elleni bere lekutik altxatu gabe—. Berak zaintzen dit etxea. Snow, eskertuko nizu-ke lagunduko bazenit Miss Oglethorpe konbentzitzen *The Zinnia Girl*-en lan egiteko paper hori

onartzeko... Benetan diotsut, zuretzat idatzia ematen du.

— Baina hain da txikia paper hori...

— Ez da, noski, aktore nagusiarentzako pape-
ra, baina aktore moldaerraza eta fina izateko
ospea lortu nahi duzula kontuan hartuta, ez dago
paper hoberik antzezlanean.

— Nahi al duzu arrain gehiagorik, Miss Oglet-
horpe? —txio egin zuen Mrs. Goldweiserrek.

Mr. Snowek arnasotsa atera zuen.

— Dagoeneko ez dago aktore handirik:
Booth, Jefferson, Mansfield... ez da bat ere geldi-
tzen. Gaur egun dena da publizitatea; aktore
guztiak merkatuan jartzen dituzte botikak baili-
ran, ez al da egia Elaine?... Publizitatea... publi-
zitatea.

— Baina hori ez da arrakastaren giltzarria...
Arrakasta lortzeko, publizitatea aski balitz, New
Yorkeko enpresaburu guztiak aberatsak izango
lirateke —bota zuen bat-batean Goldweiserrek—
. Indar ezkutu eta misterioitsu batez igoarazten
du txartel-leihatila bateko edo besteko sarrera-
ren prezioa, jende-piloak kalean zehar bultzatu
eta antzoki jakin batean sarrarazten baititu, uler-

tzen didazu? Publizitateak ezin du horrelakorik egin, ez eta kritika onak ere. Agian jeinuak egin dezake, agian zorteak, baina zuk jendeari eman ahal badiozu nahi duena eta nahi duen lekuan, arrakasta bertan duzu. Horixe eman zigun Elai-nek azken antzezpenean... Ikusleekin bat egitea lortu zuen. Munduko antzezpenik onena izan zitekeen, munduko aktorerik onenek antzeztua eta, hala ere, porrot handia izateko arriskua hor-txe dago. Eta nik ez dakit nola lortzen den arra-kasta, inork ez daki. Gau batean lotara joan zin-tezke antzokia oparitutako sarreraz sartu den jendeaz mukuru beteta ikusita eta biharamun goizean jaiki zaitezke itzelezko arrakasta lortu duzula. Enpresaburuak ezin du hori kontrolatu, eguraldi-gizonak eguraldia kontrolatu ezin deza-keen bezala. Egia ala gezurra?

— New Yorkeko jendearen gustua modu penagarrian endekatu da Wallack-en garaitik.

— Baina zenbait antzezpen on ere eman dituzte —egin zuen txio Miss Goldweiserrek.

«*Egun luze hartako maitasunak zurrunduak zizkion ile-kiribilak... ile-kiribil beltzak... altzairuz-ko erlantzak begi ilunetan...*». Bere sardexkaz

uraza baten buru kizkurra eta zuria zatitzen ari zen Ellen. Hitzak esaten zituen, eta bitartean guztiz bestelakoak ziren beste hitz batzuk haren golkoan askatzen ziren nahasian, iduneko puskatu baten aleak bailiran. Koadro baten aurrean eserita zegoen: bertan, bi emakume eta bi gizon mahai batean jaten ari ziren, panelez apainduta-ko gela batean, kristalezko zutargi dardarati baten azpian. Plateretik gora begiratu zuen eta Miss Goldweiser ikusi zuen bere txori-begitxo gozo eta kexatiak haren aurpegian gogor finkaturik zituela.

— O, bai, New York atseginagoa da uda erdian beste edozein urte-sasoitan baino; presa eta zalaparta gutxiago dago.

— Bai, egia hutsa da, Miss Goldweiser.

Ellenek bat-bateko irribarre zabala egin zuen... *«Egun luze hartako maitasunak zurrunduak zizkion bekokiko ile-kiribilak eta diz-diz egiten zuen altzairuzko erlantzak erakusten zituzten begi ilun haietan...»*

Taxian Goldweiserren belaun labur eta zabalak Ellenenak estutzen zituzten. Haren begirada gordeek armiarma baten bezainbesteko trebeta-

sunaz bilbatzen zuten halako sare gozo eta itogarri bat Ellenen lepo eta aurpegiaren inguruan. Miss Goldweiser eroso eseria zen haren ondoko aulkian. Dick Snow-ek puru itzali bat zuen ahoan, mihiaz biraka zerabilena... Ellen ahaleginetan ari zen Stanen itxura zehatz-mehatz nolakoa zen gogora ekartzeko, pertika-jauzlari baten lerdentasun sendo hartaz oroitzeko. Ezin zuen haren aurpegia guztiz gogora ekarri; haren begiak ikus zitzakeen, ezpainak, belarri bat.

Times Square koloretako argi aldizkakoez beteta zegoen, distirazko uhindura gurutzatuez. Astor hoteleko igogailuan gora egin zuten. Ellenek Miss Goldweiserri jarraitu zion terrazako mahaien artetik. Gau-jantziak, udako muselinak eta jantzi arinak biratu ziren Elleni so egiteko. Handik igarotzean, begirada guztiak hari oraturik geratu ziren, mahatsondo-kiribil likatsuen antzera. Orkestra *In My Harem* jotzen ari zen. Mahai batean paratu ziren.

— Dantza egin nahi? —galdetu zuen Goldweiserrek.

Ellenek irribarre ironiko bat egin zuen, Goldweiserrek besoa bizkar gainean ipini zionean.

Gizonaren belarri handia, ile irmo eta bakartiez hornitua, Ellenen begien parean zegoen.

— Elaine —xuxurlatu zion belarrira—, nik morroi argitzat nuen neure burua, benetan —arnasari eutsi zion—, baina ez da horrela... Zuk, neskaxa, sorgindu egin nauzu, onartu egin behar dut... Zergatik ezin nauzu pitin bat maitatu? Nahi nuke zera... gu biok ezkontzea zuk dibortzioa lortu bezain laster... Ezin al zara zintzoagoa izan nirekin, behin edo behin besterik ez bada ere?... Nik edozer egingo nuke, badakizu zuk... Eta New Yorken makina bat gauza egin nezake zure alde.

Musika bukatu egin zen. Palmondo baten azpian zeuden, apartean eta zutik.

— Elaine, etorri nire bulegora kontratu hau sinatzera. Ferrari-ri itxaroteko esango diot... Hamabost minutu barru itzultzeko moduan izango gara seguru asko.

— Pentsatu beharra daukat... Ez dut inoiz ezer egiten, ohean horretaz gogoeta egin gabe.

— Jainkoa, zu edonor erotzeko modukoa zara.

Halako batean, Ellenek oso-osorik ekarri zuen gogora Stanen aurpegia. Hantxe zuen, zutik, aurre-aurrean: gorbataren korapiloa okerturik zuen bere alkandora zuriaren gainean, ilea ana-basean, berriro edanari emana.

— O, Ellie, aspaldiko!

— Hau Mr. Emery duzu, Mr. Goldweiser...

— Aparteko bidaia ikusgarri bat egin dut oraintsu, pena izan da zu ez etortzea, benetan... Montreal eta Quebec-era joan eta Niagarako urjauzietatik bueltatu ginen, beti mozkor-mozkor eginda, gure betiko New York honetatik irten ginenetik Bostonera bidean abiadura handiagatik arrastatu gintuzten arte, ezta Pearline?

Ellenek ez zion begirik gainetik kentzen Stanen atzean zegoen neskak txolin bati: lorez apaindutako lastozko kapela txiki bat zeukan, esne urtsuaren antzeko begi urdinen gainean ezarria.

— Ellie, hau Pearline da... izen polita, ezta? Ni barrez lehertzeko zorioan egon nintzen zera esan zidanean... Baina zuk ez dakizu onena. Halako mozkorra harrapatu genuen Niagarako urjauzietan, ezen geure senera etortzean ohartu

baikinen ezkontuta geundela... Eta badugu ezkontza-agiria eta guzti.

Ellenek ezin zuen haren aurpegia ikusi. Orkestra, aldarriak eta plater-hotsak kiribil burrunbatsuen tankeran isurtzen ziren bere inguruan, gero eta ozenago.

*Harengo emakumeek ondotxo zekiten
nola jantzi behar zuten,
antzina, Bagdad-eko ekialdean.*

— Gau on, Stan.

Ahotsak zintzurra urratzen zion. Hitzak ahoskatzean, oso argi entzun zituen.

— O, Ellie! Etorri gurekin parranda egitera...

— Eskerrik asko... Eskerrik asko.

Berriro hasi zen Harry Goldweiserrekin dantzatzen. Terraza biraka ari zen, oso azkar hasieran, geldiroago gero. Zarata urrituz zihoan.

— Barkatuko didazu unetxo batez, Harry — esan zuen—. Laster nator mahaira.

Emakumeen bainugelan kontu handiz eseri zen felpazko sofaren gainean. Bere aurpegia islatuta ikusi zuen hauts-kutxako ispilu biribi-

lean. Iskilinba-buruen moduko bere begi-nini beltzak pixkanaka-pixkanaka handitu egin ziren, harik eta begien luze-labur osoa hartu zuten arte.

Jimmy Herfek hankak nekatuta zeuzkan, arratsalde osoa ibiltzen emana baitzuen. Akuarioaren ondoko jarleku batean eserita, itsasazalari begira zegoen. Iraileko haize freskoak altzairuzko distira ematen zien portuko uhin kizkurrei eta arbel-koloreko zeru ilunari. Tximinia horiko bapore zuri handi bat Askatasunaren estatuaren aurretik pasatzen ari zen. Atoiontzi baten kea gardenki ebakita irteten zen, paper baten modura. Deskarga-biltegiak tartean baziren ere, Manhattanen bukaerak gogora ekarri zion portuan zehar astiro aurrera doan gabarra baten brankaren irudia. Antxetak jiraka eta biraka hegaldatzen ziren uluka. Jauzi bat eginez zutitu egin zen.

— Zerbait egin behar diat, arraioa!

Lipar batez zutik geratu zen, aiko-maiko, giharrak teink. Gizon zarpailtsu bat igandeko

egunkari bateko fotograbatuei begira zegoen; haren aurpegia lehenago nonbait ikusia zuen.

— Epa! —esan zuen indarge.

— Berehala ezagutu zaitut —esan zuen gizonak eskua luzatu gabe—. Zu Lily Herfen semea zara... Uste nuen ez zenidala hitzik egingo... Niri zertan hitz eginik ere ez duzu, noski.

— A, noski, zu Joe Harlanden lehengusua izango zara... Izugarri pozten naiz zu ikustiaz... Askotan galdetu diot neure buruari zer moduz ibiliko ote zinen.

— Zergatik?

— O, ez dakit... Batek ez du sekula uste bere senideak bera bezalakoak direnik, ezta?

Helf berriro eseri zen.

— Zigarro bat?... Camel-a baino ez da.

— Tira, berdin dit... Zer ari zara, Jimmy? Ez zaizu axola horrela deitzen badizut, ezta?

Jimmy Herfek poxpolu bat piztu zuen; itzali egin zen, beste bat piztu zuen eta Harlandi luzatu zion.

— Aste honetako lehenengo zigarroa da... Eskerrik asko.

Jimmyk begiratu bat egin zion. Haren masail grisaren arrakala luzeak eta haren aho ertzean hasten zen izur sakonak halako angelu bat osatzen zuten.

— Porrot eginda nagoela uste duzu —jaulki zuen Harlandek—. Damutzen zara hemen eseri izanaz, ezta? Damutzen zara zure amak zu jaun bezala hezi izanaz, eta ez alproja bezala, zure senide guztien antzera.

— Times-eko erreportari gisa egiten dut lan... Nazka ematen dit kaka-lan horrek —esan zuen Jimmyk, astiro hitz eginez.

— Ez mintzatu horrela, Jimmy, gazteegia zara... Jarrera horrekin ez zoaz inora.

— Eman dezagun ez dudala inora joan nahi.

— Lily gajoa hain harro zegoen zutaz... Zu gizon handia izatea nahi zuen. Zuretzat onena nahi zuen. Ez duzu zeure ama ahaztu nahi izango, ezta Jimmy? Huraxe zen familian izan nuen lagun bakarra.

Jimmyk barre egin zuen.

— Nik ez dut esan asmo handiko gizona ez naizenik.

— Jainkoaren izenean, zure amaren izenean, kontuz egiten duzunarekin. Hasi berria zara bizitzan... dena datozen bi urteen arabera da. Begira niri.

— Antza denez, Wall Street-eko Aztia ez da horren gaizki atera... Baina zera gertatzen da: nik ez dudala onartu nahi hiri madarikatu hone-tako jendearengandik onartu behar den guztia. Nazkatuta nago inolako begirunerik sortarazten ez didaten erdipurdiko bulegari horien guztien aurrean makurtu behar izateaz... Zertan ari zara, lehengusu Joe?

— Ez galdetu...

— Begira, ikusten duzu tximinia gorriak dituen itsasontzi hori? Frantziakoa da. Begira, popako kanoiaren olana kentzen ari dira... Gerra-ra joan nahi dut... Baina nik ez dut balio halako nahaspiletan sartzeko. Horixe dut eragozpen bakarra.

Harland bere goiko ezpainari hozka ari zitzaion. Isilune baten ondoren, hitz egiteari ekin zion ahots zakar-urratuaz.

— Jimmy, zerbait eskatuko dizut Lilyren izenean... zera... Diru xeherik ba al duzu aldean?

Zoritxarreko koinzidentzia bat dela medio, ez dut oso ondo jan azken bizpahiru egunetan... Pitin bat ahuldurik nago, ulertzen duzu?

— Bai, noski. Gainera, kafea, tea edo horrela-ko zerbait hartzera joatea proposatu nahi nizun... Siriar jatetxe on bat ezagutzen dut Washington Street-en.

— Goazen ba —esan zuen Harlandek, zurrun zutitzen ari zela—. Ziur zaude ez zaizula axola ni bezalako txorimalo batekin ikusten bazaituzte?

Egunkaria eskuetatik erori zitzaion. Jimmy makurtu egin zen jasotzeko. Hazpegi zehazgabeak zituen neska-aurpegi arre batek ziztada bat eragin zion, zerbaitek hortz baten nerbioa ukitu izan balio bezala. «Ez, ez zuan bera, ez zian bere antzik, behintzat. Bai...». talentu handiko neska aktore batek berebiziko arrakasta lortu du the zinnia girl-en...

— Eskerrik asko, utzi hor, bertan aurkitu dut-eta —esan zuen Harlandek.

Jimmyk egunkaria bota egin zuen; neska muturrez aurrera erori zen.

— Bai argazki zatarrak, ez duzu uste?

— Denborapasarako balio dute. Niri gustatzen zait gutxi gorabehera jakitea New Yorken zer gertatzen den... Katuak erregeari begira diezaioke, ulertzen didazu? Katuak erregeari begira diezaioke.

— O, nik argazkiak ez zeudela ondo aterata besterik ez nuen esan nahi.

Zazpigarren atala

Errusimendia

Berunezko arrastiriak pisatzen zuen Broadwayrantz zihoan agure baten gorputzadar lehorren gainean. Kalekantoian, Nedick-en postuaren ondoran, zerbait jauzika hasi zitzaion begietan. Panpina bernizatu artikulutatuen ilarako panpina puskatu bat. Burumakur, nekez egiten zuen aurrera, itolarri eta estutasunaren alderantz, argizko kartelen goritasunerantz: «Gogoan dut hau dena zelaia zen garaia», xuxrlatu zion mutikoari.

LOUIS EXPRESSO ASSOCIATION: kartealeko letra gorriak Stanen begien aurrean dantzan. URTEKO DANTZALDIA. Neska-mutilak barrura zihoazen. *Ederra bikotea, kangurua eta elefantea.* Orkestraren zalaparta halleko ate birakarietan zehar iragazi zen. Kanpoaldean euria. *Beste ibai bat,*

beste ibai bat zeharkatzeko. Jakaren papar-hegalak lisatu zituen, ahoa neurritasunez apailatu zuen, bi dolar ordaindu zituen eta zintzilikario gorri, zuri eta urdinez hornitutako gela handi zaratatsu batean sartu zen. Zorabioa. Hartara, lipar batez horman bermatu zen. *Beste ibai bat...* Dantza egitean elkar behaztopatzen zuten biko-teen azpiko lurzorua kulunkan ari zen, itsasontzi baten bizkarraren gisa berean. Tabernak oreka handiagoa eskaintzen zuen. «Gus McNiel hemen dago». Jende guztiak zioen: «Gus jator hori». Esku handiek zapladak jotzen zituzten bizkar zabalen kontra, aho beltzek orro egiten zuten aurpegi gorrietan. Edontziak jaso egiten ziren, ñir-ñir eginez talka egiten zioten elkarri, jaso eta talka egiten zioten elkarri, halako dantza batean. Begiak hondoraturik eta ilea kizkurturik zituen erremolatxa-aurpegiko gizon sendokote bat errenka zebilen tabernan zehar, makila batean bermatuta.

— Zer moduz, Gus?

— A ze ondo! Nagusia hemen dago.

— Gora McNiel zaharra! Etorri egin da azke-nean.

— Zer moduz, Mr. McNiel?

Taberna baretu egin zen. Gus McNielek bere makila airean erabili zuen.

— Aupa mutilok, ondo pasa!... Aizak, Burke, erronda bat nire kontura guztiontzat.

— Hortxe dago aita Mulvaney ere berarekin. Gora aita Mulvaney!... Hori bezalakorik ez dago.

*Mutil bikaina da eta
inork ez du ukatzen...*

Dantzan ari zirenen artetik astiro aurrera egin ahala, begirunez makurtutako bizkar zabalak aldi oro irteten zitzaizkien bidera.

*Babuino handia ilargiaren argitan
bere ile gorrixka orrazten eta orrazten.*

— Dantza egin nahi?

Neskak sorbalda zuri bat jiratu eta alde egin zuen.

*Ezkongabea naiz eta bakarrik bizi naiz
eta ehundegi batean egiten dut lan.*

Stanek bere burua ispilu baten aurrean kau-situ zuen bere artean kantuan ari zela. Bekain bat ilearekin bat eginda zeukan, bestea betilee-kin. «Ez, ez naiz ezkongabe, ni ezkontuta nago... Borrokarako prest nauzue, eta inork esaten badu ni ez nagoela ezkontuta eta ez naizela New York hirikoa, New York konderrikoa, New York estatu-koa...»

Aulki batean igota, hitzaldi bat ematen ari zen, eskua ukabil batez jotzen ari zen bitartean... «Erromatarrok, lagunok eta herrikideok, utzizki-dazue bost dolar... Zesarri ahoa estaltzera etorri gara, ez hari bizarra moztera. New York estatuko New York konderriko New York hiriko Konstitu-zioaren arabera, eta barrutiko fiskalaren aurrean adierazita eta izenpetuta, 1888ko uztailaren 13ko legean xedatutakoarekin bat etorriz... Dena pikotara.»

— Aski da. Mutilok, bota dezagun tipo hau kalera... Ez da gutarra... Ez dakit nola sartu den hona. Mozkor-mozkor eginda dago.

Begiak itxita, Stanek salto egin zuen ukabil-sare baten barnean. Bekainetan, masailezurrean

jo zuten eta ziztu bizian atera zen zirimiri hotzak bustitako kale isilera, kanoi batek jaurtikia beza-la.

*Ezkongabea naiz eta bakarrik bizi naiz
Eta beste ibai bat dago zeharkatzeko
Beste ibai bat Jordan ibaira baino lehen
Beste ibai bat zeharkatzeko...*

Bere onera etorri zenean, aurpegian haize hotza zebilkion eta ferry baten aurrealdean eserita zegoen. Hortzek karraska egiten zioten. Dardarka zegoen... «DT-a diat. Nor ote naiz ni? New York hiria, New York estatua... Stanwood Emery, hogeita bi urte, lanbidez ikaslea... Pearline Anderson, hogeita bat urte, lanbidez aktorea. Pikotara joan dadila. Berrogeita bederatzi dolar eta zortzi zentabo zauzkaat eta non arraio ibili naiz ni? Eta inork ez zidak poltsikoa hustu. Bada, ez, ez diat ez DT-a, ez, ezer ere ez. Oso ondo sentitzen nauk, apur bat ahulduta, hori bakarrik. Trago bat besterik ez diat behar, ezta? Epa!, uste nian hemen norbait zegoela. Hobe diat isilik jarraitzea, nik uste».

Berrogeita bederatzi dolar hormatik dingilizka.

Berrogeita bederatzi dolar hormatik dingilizka.

Zinkezko uraren beste aldean, horma garaiek eta hiriaren erdialdeko eraikinek indarge dir-dir egiten zuten arrosa koloreko goiz hartan eta txokolatzeko ganduan zehar bozina-hotsak entzuten ziren. Txalupa urertzera hurbildu ahala, eraikinak metatu egiten ziren aitzokadek arrailduta-ko granitozko mendi batean. Ferrya bapore potolo baten ondo-ondotik igaro zen; bertan ainguratutik, bapore hura Stanenganantz okertuta zegoen halako gisan ezen hark bizkar guztiak ikus baitziezaizkioken. Ferryaren beste aldean, Ellis Island-eko atointzi bat zegoen. Hamaika aurpegi zeuden zahar-usaineko bizkar haietan, guztiak ere gora begira, meloi-kargamentuen antzera. Hiru antxeta biraka ari ziren uluka. Bat gorantz hegaldatu zen kiribilean, hegala zuriak eguzkiaz gainezkatu ziren; antxeta urrezko argitik higitu gabe limurtzen zen. Eguzki-ertza hodeien marra

morearen gainetik ageri zen, East New York-en atzealdetik. Milioi bat leihok dirdira egiten zuten. Hiritik burrunba eta zalaparta zetozen.

*Animaliak binaka sartu ziren,
ederra bikotea kangurua eta elefantea,
eta beste ibai bat dago Jordan ibaira baino
lehen,
beste ibai bat zeharkatzeko.*

Argi zurixkan hiru kaio jira-biraka zebiltzan; behean, hesiaren ohol ezpalduen artean flota-tzen, kutxa hautsiak, laranja-azalak eta aza uste-lak zituzten. Uhin berdeak apar bihurtzen ziren ferryaren branka biribilaren azpian. Ur-azala arrailatzen zuen ferryak laprast egiten zuen eta, mareak bere altzoan eramanik, astiro-astiro iristen zen ontziralekura. Biraderak aurrera eta atzera kateen txilin-hotsa eginez, ateak gorantz. Stanek jauzi egin zuen lurrera eta sigi-sagan atera zen Battery-ra zihoan egurrezko tunel kirastutik. Jarleku batean eseri zen eta eskuak belaunen gainean gurutzatu zituen, hainbesteko

dardararik egin ez zezaten. Burua artean taupadaka zuen, pianola baten antzera.

Ezkilak atzamarretan eta eraztunak hatzetan

joango da dama zuria zaldi handi baten gainean

eta mina zernahi bazterretara zabalduko du, aurrera egin arau.

Babilonia eta Ninive adreiluzkoak ziren. Atenas osoan gaindi nagusi ziren marmolezko urrekoloreko zutabeak. Erroma harrizko arku zabaletan eraiki zuten. Sekulako kandelak bailiran, dir-dai egiten zuten Konstantinoplako minareteek Urrezko Adarraren inguruan... Beste ibai bat zeharkatzeko. Altzairua, beira, baldosak eta hormigoia izango dira etxe-orratzen materialak. Uharte mehar batean pilaturik, mila leihoko eraikinak tente ageriko dira, distiratsu, piramide bat bestearen gainean, ekaitza behean uzten duten hodei zuriak bailiran...

O, berrogei egunez euria egin zuen

*eta berrogei gauez euria egin zuen
eta Gabonak arte ez zuen atertu,
eta uholdeetatik bizirik atera zen gizon*

bakarra

Istmoko Jack Zangoluzea izan zen.

— Etxeorratza izan nahi nitek, arraioa!

Sarraila guztiz biratu zen giltza sar ez zedin. Stanek abileziaz tamaina hartu zion eta giltza barrura sartzea lortu zuen. Tupustean oldartu zen ate irekitik, gora eta behera ibili zen korridore luzean zehar eta egongelara joan zen, Pearlne-ri deitzeko asmotan. Usain arraroa zegoen. Pearlne-ren usaina. «Joan dadila pikotara!». Aulki bat hartu zuen. Aulkiak hegaz egiteari ekin zion eta, haren buruaren inguruan itzuli-mitzulika hasita, leihoaren kontra talka egin zuen. Kristal puskatuen hotsa. Leihotik begiratu zuen. Kalea zutitu egin zen. Suhiltzaile-kamioi bat eta eskailera-furgoi bat gorantz zihoazen ziztu bizian, adar-hots ulukari baten oihartzuna atzean utzita. *Sua, sua, bota ura, Eskozia sutan*

dago. «Mila dolarreko sute bat, ehun mila dolarreko sute bat, milioi bat dolarreko sute bat». Etxeorratzekugarren modura egiten zuten gora,ugarretan,ugarrak. Bere gelara zabuka itzuli zen. Mahaiak itzulipurdi bat egin zuen. Arasak salto egin zuen mahai gainera. Haritzezko aulkiak saltoka bata bestearen atzetik gas-pizgailuaren gainean ezarri ziren. *Bota ura, Eskozia sutan dago*. «Ez diat atsegin New York estatuko New York konderriko New York hiriko gela honen usaina». Bizkarrez etzanda, sukalde birakariaren lurzoruan barreka eta barreka ari zen. «Uholdeetatik bizirik atera zen gizon bakarra eta andere handi bat zaldi zuri baten gainean zamalkatzen zituan». Sugarak gora, gora eta gora. «Kerosenoa», xuxurlatu zuen sukaldearen zokoko lata koipetsu batek. *Bota ura*. Hankaz gora eta anabasean zeuden mahai-aulki kraskagile batzuen gainean, Stan balantzaka ari zen. Kerosenoa milika ibili zitzaion bere mihi hotz zuriaz. Oreka galdu zuen. Gas-pizgailuari heldu zion. Gas-pizgailuak ez zion eutsi. Bizkarrez putzu batean etzanda, poxpoluak igurtzitzen hasi zen. Alferrik. Bustita zeuden, ez ziren pizten. Poxpulu baten

txinparta eta, azkenik, garra. Stanek kontu handiz babestu zuen sua esku artean.

— O, bai, nire senarrak izugarrizko asmo handiak ditu —esan zion Pearlinek kotoizko ehun urdinez jantzita zegoen janaridendako andeari—. Ondo pasatzea eta hori dena gustatzen zaio, baina ez dut sekula inor ezagutu berak baino asmo handiagorik duenik. Azkenean, Stanek arkitektura atzerrian ikastea lortuko du, bere aitari esker. Nire senarrak arkitektoa izan nahi du.

— Hori zoragarria litzateke, ezta? Horrelako bidaia bat, pentsa!... Besterik, andrea?

— Ez, uste dut ez dudala ezer ahaztu... Bestelakoa balitz, larri egongo nintzateke. Bi egun dira ikusi ez dudala. Bere aitaren etxean egongo da, seguru asko.

— Eta zuek ezkondu berriak zarete?

— Ez nizuke ezer esango, ezer txarrik bada-goela uste izango banu. Ez, oso zintzo ari da... Tira, agur, Mrs. Robinson.

Bere fardelak besapean hartu eta kalean behera egin zuen, esku librean bolatxo apaindutako zorro bat balantzaka zeramala. Artean eguzkiak berotu egiten zuen, airean halako gain-behera-kutsu bat nabari bazen ere. Penny bat eman zion *Alargun Alaia* biraderadun organo batez jotzen ari zen itsu bati. «Nolanahi ere, hobe niken etxean errieta pitin bat egingo banio, gauza bera sarri egin ez dezan». Berrehungarren Kaletik hartu zuen. Jendea leihotik begira zegoen. Jendetza pilatzen hasia zen. Sute bat zen. Aire erreskaldatua hartu zuen. Oilo-ipurdia jarri zitzaion. Gogoko zuen suteak ikustea. Gero eta azkarrago zebilen. «Ene, gure etxe-blokean dun, gure etxean!». Kea, galipota bezain trinkoa, bosgarren pisuko leihotik irteten zen. Halako batean, dardarka hasi zen. Igogailuzain beltza harengana joan zen lasterka. Aurpegi berdea zuen.

— Ene, gure etxean da —egin zuen oihu—, eta astebete baino ez da altzariak ekarri zizkigutela! Utzidazue pasatzen. Fardelak erori zitzaizkion. Crema-botila bat puskatu zen espaloian. Pearlinek bidera irten zitzaion poliziarri heldu zion

eta joka hasi zitzaion bularralde urdin zabalaren kontra. Ezin izan zion garrasi egiteari eutsi.

— Lasai, andereño, lasai —esaten zuen poliziak ahots sakonaz.

Pearlinek poliziaren ahotsaren marmar isila entzuten zuen, bularraldean burukadak jotzen zizkion bitartean.

— Jaisten ari dira, keak estuturik dago, ez besterik, keak estuturik.

— O, Stanwood, ene gizona! —egin zuen deiadar emakumeak.

Dena belzten ari zen. Poliziaren jakaren bi botoi distiratsutik helduta, emakumeak konortea galdu eta lurrera erori zen.

Zortzigarren atala

Beste ibai bat Jordan-era baino lehen

Bigarren Etorbideak Houston Streetekin bat egiten duen kale-kantoian, Cosmopolitan kafetegiaren aurrean, gizon bat garrasika ari zen sasitribuna batetik: «... gizon horiek, soldataren esklabo horiek, ni halakoxea izan nintzen garai batean, ...ez dizuete arnasarik hartzen uzten... ogia ahotik kentzen dizuete. Non daude bulebarrean zehar joan-etorrika ibili ohi ziren neska politikak? Zoazte haien bila kabaret dotoreetara... Zanpatuta gaude lagunok, langileok, esklabook esan beharko nuke... Lana kentzen digute, idealak eta emakumeak ere bai... Plaza hotelak eta aberatsentzako klubak eraikitzen dituzte, baita milioika dolar balio duten antzokiak eta gerraontziak

ere, eta zer uzten digute?... Tuberkulosia, errakitismoa eta zakar-potez betetako kale zikin pilo bat uzten dizkigute... Zurbil zaudete, lagunok... Odola behar duzue... Zergatik ez duzue odol apur bat sartzen zainetan?... Han, Errusian, pobreak... ez dira gu baino askoz pobreago... eta banpiroengan sinesten dute, hau da, odola zupatzen dizueten animalia horiengan... Horixe duzue kapitalismoa, odola gau eta egun zupatzen dizuen banpiroa».

Elurra hasi zuen. Elur-maluten ertzek ñir-ñir egiten zuten farolen ondotik pasatzean. Kanpoaldetik ikusita, Cosmopolitan kafetegiak akuario lohitsuak zirudien: bertan, kea opalo-antzeko kiribil urdin eta berdeetan igotzen zen eta mahaien inguruan aurpegi hitsak ez ziren geldirik egoten, gaizki sailkatutako arrainak bailiran. Aterkiak sortaka hasten ziren batzen, elurrez zipriztindutako

*kalean zehar. Hizlariak lepoa jaso
zuen eta azkar ibiltzeari ekin zion
Houstonen gaindi. Ahaleginetan ari
zen lokatzez betetako sasitribunak
prakak zikindu ez ziezaizkion.*

Aurpegiak, kapelak, eskuak eta egunkariak han-hemenka zebiltzan metro kirastu zalapartatsuan, artoa zartaginean bezala. Espresso orroka igaro zen, argi horiz blai. Bazirudien leihoak pilatu egiten zirela, harik eta, ezkatzen antzera, elkarren gainean teilakatu ziren arte.

— Begira, George —esan zion Sandbournek George Baldwini, ondoan baitzuen, sabaiko helduleku batetik oraturik—, Fitzgerald-en legea ikus dezakek.

— Azkenean, ehorztetxe baten barrualdea ikusiko diat, metro honetatik azkar irteten ez banaiz.

— Horixe komeni zaizue zuei, plutokratei, noizean behin ikustea nola bidaiatzen duten gainerakoek... Agian, hori ikusita, Tammany Hall-eko hire laguntxoei iradokiko diek liskarrak alde batera utzi eta, guri, soldatapeko esklabooi,

garraibide hobeak eman diezazkiguten... Arraioa! Gauza bat baino gehiago esango niekek nik... Nire ideia Bosgarren Etorbide azpiko nasa amaigabe mugikorren sorta bat duk.

— Hori erietxean hengoela egosi huen, ezta Phil?

— Gauza asko egosi nitian erietxean.

— Begira, Grand Central-era irten eta hortik oinez joango gaituk. Ezin diat hau jasan... Ez nagok ohituta.

— Goazemak... Elsie-ri telefonoz deituko zioat afaltzera apur bat berandu iritsiko naizela esateko... Azkenaldi honetan gutxitan ikusten haut, George... Lehengo garaietan ez bezala.

Metro-bagoitik bultzaka irten ziren, gizon-emakumeen, besoen, hanken, garondo izerditsuen eta kapela okertuen anabesean murgilduta. Gero, Lexington Avenue-tik igaro ziren; han lasaitasuna zen nagusi, arrastiriaren ardo gorriaren koloreko ganduan murgildua.

— Baina Phil, nola arraio moldatu ote hintzen kamioi baten azpian horrela sartzeko?

— Ez zakiat, George, benetan... Gogoan dudan azken gauza duk lepoa okertu nuela taxi

batean zihoan neska eder-eder bati begiratzeko. Gero, erietxean suertatu ninduan teontziko ur izoztua edaten.

— Lotsagarria hire adinean, Phil.

— Bazakiat, kaka zaharra. Baina ni ez nauk bakarra.

— Bitxia duk bati halako gauzak gertatzea... Aizak, zer entzun duk nitaz?

— George, egon lasai... *The Zinnia Girl*-en ikusi diat. Berak guztia egiten dik. Beste neskak, alegia, aktore izarrak, ez dik paperik.

— Begira, Phil, Miss Oglethorperi buruz txumutxurik entzuten baduk, mesedez, Jainkoarren, ez egin kasurik. Ergelkeria handia duk inor emakume batekin tea hartzera joanez gero, jende guztia marmarka hastea... Ez diat iskanbilarik nahi, Jainko maitea! Berdin zaidak zer gertatzen den.

— Aizak, lasai egon, George.

— Une honetan nire lan-egoera ez duk oso samurra... Gainera, Cecily eta biok azkenean *modus vivendi* bat lortu diagu... Eta ez diat dena alferrik galdu nahi.

Isilik jarraitu zuten aurrera.

Sandbourne kapela eskuetan zuela zebilen. Ilea kasik zuria zuen, baina betileak artean beltzak eta sarriak zituen. Une oro aldatzen zuen urratsen luze-laburra, ibiltzean mina hartuko balu bezala. Eztarria garbitu zuen.

— George, lehenago galdetu didak ezer egosi ote nuen erietxean... Gogoan duk duela zenbait urte Specker zaharrak zeramikazko baldosa beiratzuez hitz egin ohi zuela? Bada, nik Hollis-en lan egin diat Speckerren formula erabiliz... Lagun batek zeramika egosteko labea dik, bi mila gradukoa. Nire ustez, ondo asko saltzeko modukoa duk... Honek, gizona, iraultza ekarriko liokek industriari. Zementuarekin nahasita, arkitektoak askoz ere material gehiago izango ditik eskura. Edozein kolore, neurri edo itxuratako baldosak egin genitzakek. Pentsa nolakoa izango zen hiri hau, eraikin guztiak gris zikin kolorekoak izan ordez kolore biziez apainduta baleude. Zer irudituko litzaiake etxeorratzei erlaitzen inguruan zerrenda gorriminak ezarriko balitzaizkie? Kolorretako baldosek guztiz irauliko ditek hiri honen bizimodua... Lehengo ordenetara edo molde gotiko edo erromanikoetara itzuli beharrean

badiagu eredu berriak garatzea, kolore berriak, diseinu berriak. Hirian kolore apur bat balego, bizimodu gogor eta zurrun hau bertan behera eroriko lukek... Maitasun gehiago izango genikek eta dibortzio gutxiago.

Baldwinek barre-algara bat egin zuen.

— Beste egun batean hitz egingo diagu horretaz, Phil... Egunen batean etxera etorri behar duk afaltzera, Cecily bertan dagoen egunen batean, eta dena kontatuko diguk. Ezin al lezake Parkhurst-ek ezer egin?

— Ez niokek utziko kontu honetan sartzen. Ideia bere egingo likek eta formulaz jabetu bezain laster, bertan behera utziko nindikek. Ez niokek nickel faltsu bat ere utziko.

— Zergatik ez da hire bazkide egiten, Phil?

— Nolanahi ere, eduki nahi nauen lekuan naukak... Bazakik neronek egiten dudala bere bulego madarikatuko lan guztia. Gainera, bazakik ni egoskorregia naizela jende gehienarekin harremanetan jarduteko. Morroia ez duk tentela.

— Hala ere, niri iritziz, bazkidetze kontu hori kontuan hartu beharko huke.

— Nahi nauen lekuan naukak eta bazakik hori, hortaz, nik lanean segitzen diat, bera diruz usteltzen den bitartean... Logikoa iruditzen zaidak. Diru gehiago izango banu, gastatu egingo nikek. Ezin zioat aurre egin.

— Baina gizona, begira, hi ez haiz ni baino askoz ere zaharragoa... Hik oraindik karrera bat duk aurretik.

— Bai, bederatzi ordu egunean delineatzen... Ene, hi nire bazkide egingo bahintz baldosen negozio honetarako!

Baldwin kale-kantoian gelditu zen eta zaplada bat jo zuen bere maletan.

— Badakik, Phil, ahal izanez gero, atsegin handiz lagunduko niakeela, baina oraintxe bertan nire egoera finantzarioa oso-oso zaila duk. Ziurtasun gutxiko nahaspila batean sartu nauk eta batek zakik nola irtengo naizen hortik. Horregatik ez diat nahi ez iskanbilarik, ez dibortziorik, ez horrelakorik. Hik ez dakik nola nahaspilatzaren diren gauza horiek... Ezin zioat ezer berriri ekin, urtebeteko epean bederen. Gerra hau dela eta, ekonomiaren egoera ez duk batere egonkorra. Edozer gerta daitekek.

— Oso ondo. Gau on, George.

Sandbourne ziplo biratu zen orpoen gainean eta etorbidean atzera egin zuen. Nekatuta zegoen eta hankak minduta zeuzkan. Ia gaua zen. Geltokira bidean, adreilu eta harrizko bloke zikinak bata bestearen ondoan kokatuta ageri ziren, denak ere berdin-berdinak, bere bizitzako egun guztiak bezalaxe.

Lokien azalaren azpian, burdinazko kakoak estutu egiten ziren, harik eta, arrautza bailitzan, buruak eztanda egingo zion arte. Urrats luzeak eginez, atzera-aurrera zebilen gelan zehar, non halako itolarri garratz bat altxarazten baitzen. Leku guztietan sakabanaturik, koadroen, alfonbren eta aulkien koloreek Ellen ito egiten zuten, tapaki bero batean bildurik balego bezala. Leihoen kanpoaldean, arrastiri euritsu baten urdin, more eta topazioak marratutako patioak. Leihoa ireki zuen. «Ilunbarra baino denbora-tarte hobetik ez zagon mozkortzeko», esango zuen Stanek. Telefonoak bere garro distiratsuen hots-aleak aletu zituen. Ellenek leihoa danbateko bat joz itxi

zuen. «Arraioa! Ez al naute sekula bakean utzi-ko?»

— Epa, Harry, ez nekien zu itzulia zinenik... O, ez dakit ahal izango dudan... Bai, baietz uste dut... Etorri antzezpenaren ondoren... Ez al da zoragarria? Den-dena kontatu behar didazu.

Hargailua eseki bezain laster, telefono-hotsak berriro erakarri zion arreta.

— Nor da?... Ez... O, bai, agian... Noiz itzuli zinen? —Ellenek telefono-hotsaren moduko barrea egin zuen—. Baina, Howard, oso-oso lanpetuta nago... Benetan diotsut... Antzezpena ikusi duzu? Tira, etorri egunen batean antzezpenaren ondoren... Irrikan nago zure bidaiaren berri jakiteko... Adio, Howard.

«Ostera batek on egingo zidaan». Apaintze-mahai aurrean eseri zen eta ilea askatu zuen sorbalden inguruan.

«Gogaikarria dun gero, ebaki egin beharko dinat... Horrela jarraituz gero... *Heriotz Zuriaren itzala*... Garaizago oheratu beharko niken, betzulo ilun horiek... eta karteleran *Ustelkeria Ikustezina*... Negar egitea izango banu sikiera; zenbait jendek begiak galdu arte egin zezaken negar,

itsutu arte egin zezaken negar... Nolanahi ere, dibortzioa gauzatu egingo dun...»

*Urertzetik urrun, jendetzarengandik urrun,
belek ez zioten lehenago ekaitzari aurre egin.*

«Ene! Seiak ditun dagoeneko.»

Berriro aurrera-atzera hasi zen gelan zehar. «Izugarri urrun sentitzen naun, ilunpean». Telefonoak jo zuen.

— Nor da?... Bai, Miss Oglethorpe naiz... Ruth, epa, urteak dira ikusten ez zaitudala, Mrs. Sunderland-en auzitik... A ze irrika dudan zu ikusteko! Etorri eta zerbait jango dugu antzokira bidean... Hirugarren pisua.

Telefonoa eseki eta armairutik kapusai bat atera zuen. Larruek, naftalinak eta jantziek isuritako usaina sudurzuloetan itsasten zitzaion. Per-tsiana igo eta sakonki hartu zuen udazkenaren usteltze hotzaz betetako aire hezea. Ibaitik zetorren bapore handi baten lurrin trinkoaren urruma aditu zuen. «Ilunpean, bizitza zentzugabe hone-

tatik izugarri urrun, borroka hutsaletik, borroka inozotik; gizon bat itsasontzi batekin ezkon liteken, baina emakume bat...». Telefonoa jotzen ari zen bere hots-aleak askatuz, behin eta berriro jotzen.

Aldi berean, ateko txirrinaren urruma entzun zen. Ellenek kisketa jasotzeko botoia sakatu zuen.

— Nor da?... Benetan sentitzen dut, baina esan behar didazu nor zaren... Larry Hopkins?... Tokion zeundela uste nuen... Ez zaituzte berriro lekuz aldatu, ezta? Bai noski, elkar ikusi behar dugu... Izugarria da, bihotza, baina aste hau eta datorrena konpromisoz beterik dauzkat... Begira, gaur gauean eroaren pare nago. Deitu bihar hamabietan eta saiatsu naiz aldaketaren bat egingen... Bai noski, lehenbailehen ikusi behar zaitut... laztana.

Ruth Prynne eta Cassandra Wilkins euren aterkien ur-tantak inarrosiz sartu ziren.

— Adio, Larry... Eskerrik asko bioi... Ekarri berokiak... Cassie, afalduko duzu gurekin?

— Zudekin egon behad nuen... Izugadgia da adgakasta zodagadgi hodi logtu izana —esan

zuen Cassiek ahots dardaratiz—. Eta, maitea, zuk ez dakizu zein gaizki sentitu nintzen Md. Emedy-dena jakin nuenean. Negad eta negad egin nuen, ez da egia, Duth?

— O, bai pisu polita zurea! —deiadar egin zuen Ruthek batera.

Ellenek belarrietan halako burrunba gogaikarri bat aditzen zuen.

— Noizbait hil behar dugu denok —oharkabea esan zuen, zakar.

Ruth gomazko botez takateko arinak jotzen ari zen lurzoruaren kontra eta Cassieri keinu bat egin zion isil zedin.

— Ez al genuke hobe alde egitea? Berandu da —esan zuen.

— Barkatu unetxo batez, Ruth.

Ellen lasterka joan zen bainugelara eta danbateko bat eginez itxi zuen atea. Bainuontziaren ertzean eseri eta, ukabilak hertsita, belaunen kontra kolpeka hasi zen. «Emakume horiek txoratu egingo naiten». Gero, teinkatasuna laxatu egin zen, bere baitatik zerbait isurtzen ari zela igerri zuen, konketako ura bailitzan. Lasaikiro, gorrizkoukitu bat eman zuen ezpainenetan.

Besteen artera itzulita, ohiko ahotsaz esan zuen:

— Tira goazen. Paperik eman dizute, Ruth?

— Nik Detroit-era joateko aukera izan nuen konpainia batekin. Ez nuen joan nahi izan. Datorrena datorrela, ez naiz New York-etik aterako.

— Zer ez nuke nik emango New York-etik alde egiteko aukera izatearren?... Benetan, zinema batean kantatzeko lana eskainiko balidate, *Medicine Hat*-en, onartu egingo nukeela uste dut.

Ellenek bere aterkia hartu zuen eta hiru emakumeak eskaileretan behera jaitsi eta kalera irten ziren.

— Taxi! —dei egin zuen Ellenek.

Auto bat karranka eginez gelditu zen. Taxilariaren belatz-aurpegi gorria luzatu egin zen kaleko farolaren argitan.

— Eugenie's-era, Berrogeita Zortzigarren Kalea —esan zuen Ellenek, beste biak taxian sartzan ari ziren bitartean. Argi berdexkak eta itzalak tartekatzen ziren, leiho argiztatuen aurretik igarotzean.

Ellen terrazako barandatik begira zegoen, besoa Harry Goldweisserren smoking-aren beso-aren gainean ezarrita. Azpian parkea zuten, argi bakanez zipriztindua eta laino-zerrendek urratua, zerua lurrera erori izan balitz bezala. Atzeal-detik, tango baten boladak eta ahots-aieruak zetozkien, baita oinek dantzagunean egindako igurtzialdiak ere. Bere soineko berde-metalikoa-
ren barruan, Ellen zurrun sentitzen zen, burdi-nazko estatua baten gisan.

— A, baina Boirnhardt, Rachel, Duse, Mrs. Siddons... Ez, Elaine, esaten dizut ba, ulertzen? Ez dago antzerkia bezalako arterik giza grinak askatzeko. Nahi dudana egitea izango banu, munduko handienak izango ginateke... Zu akto-
rerik onena... Ni produktorerik handiena, eraiki-tzaile ikustezina, ulertzen duzu? Baina ikusleek ez dute arterik nahi, herri honetako ikusleek ez digute ezer egiten uzten euren alde. Detekti-been melodramak besterik ez dute nahi edo far-tsa frantses zikin bat, gatza kenduta eta neska polit batekin eta musikaz horniturik. Hortaz,

enpresaburuaren negozioa publikoari nahi duena ematean datza.

— Nik uste dut hiri hau gauza pentsaezinak nahi dituen jendeaz gainezka dagoela... Begirazeuk.

— Gaez ondo dago, ikusterik ez dagoenean. Ez dago zentzu artistikorik, ez eraikin ederrik, ez lehengo garaien kutsurik, horixe gertatzen da.

Lipar batez isilik egon ziren. Orkestra *Domino Morea* baltsea jotzen hasi zen. Halako batean, Ellen Goldweiserrengana jiratu zen eta zorrotz esan zion:

— Zuri buruan sartzen al zaizu emakume batek batzuetan prostituta, emagaldu arrunta izan nahi duela?

— Nire lagun maitea, gauza xelebreak bururatzeko zaizkizu gero, horren neska ederra eta gozoa izanda!

— Ahoa bete hortz geratu zara, ezta?

Ez zuen Goldweiserren erantzuna aditu. Negar egiteko gogoa etorri zitzaion. Azazkal zorrotzak ahurretan iltzatu zituen eta arnasari eutsi zion hogeitaz bat arte. Gero, haur-ahots itoaz esan zuen:

— Harry, goazen dantza apur bat egitera.

Kartoizko eraikinen gainean, zeruak berun irabiatuzko ganga bat irudikatzen zuen. «Elurra eginez gero, ez liken horrenbesteko hotzik egingo». Zazpigarren Etorbideko kantoian taxi bat aurkitu zuen eta jarlekuan astunki eseri zen, eskularrua jantzirik zuten atzamar hozminduez beste eskuaren ahurra igurtzika. «Mesedez, Berrogeita Hamazazpigarren Kalea. West aldea». Aurpegia zeharo abailduta, leihatilatik denetarik begiesten zuen: frutadendak, kartelak, jasotzen ari ziren eraikinak, kamioiak, emakumeak, mandatariak, poliziak. «Nire haurra, alegia, Stanen haurra, jaiotzen bada, Zazpigarren Etorbidea iraultzeko haziko dun, berun irabiatuzko zeru honen azpian, eta ez din inoiz elurrik egingo, eta oso argi begietsiko ditin frutadendak, kartelak, jasotzen ari ziren eraikinak, kamioiak, emakumeak, mandatariak, poliziak...». Belaunak batuta eta eskuak sabel lerdaren gainean gurutzatuta, zuzen eseri zen jarlekuaren ertzean. «Jainko maitea, zeinen txantxa gaiztoa... Stan sute batean hilda. Nire baitan hazten ari den eta hil egingo nauen hau besterik

ez zaidan geratuko». Negar-zotinka ari zen esku hozminduen gainean. «Jainko maitea, zergatik ez du elurrik egingo?»

Espaloi grisean, poltsikoa arakatzen ari zen, billete baten bila. Paper puskatuak estoldaren inguruan metatzen zituen hauts-zirimola batek ahoa zikinkeriaz bete zion. Igogailuzainaren aurpegia ebanozkoa zen, bolizko inkrustazioez hornitua.

— Mrs. Staunton Wells?

— Bai andrea; zortzigarren pisua.

Gorakoan igogailuak burrunba egiten zuen. Zutik, Ellenek bere burua ispiluan begietsi zuen. Bat-batean, alaitasun handi bat nagusitu zen bere baitan. Musuzapi bihurritu batez aurpegiko hautsa igurtzi zuen, igogailuko mutilari irribarrea itzuli zion, piano baten teklatura bezain irribarre zabala, eta lasterka egin zuen pisuko aterantz. Barrualdean, teak, larruak eta loreek isuritako usaina nabaria zen. Emakumeek txio egiten zuten katiluen tintinen artean, txoriek txorigian bezala. Gelan sartu zenean, begirada guztiak haren buruaren ingurura hegaldatu ziren.

Mahai-oihalera ardo-zipriztinak eta espageti-tien tomate-izpiak isuriak ziren. Jatetxea leku itogarria zen eta hormetan Napoliko ikuspegiak erakusgai zituen, berde eta urdin lausoz margotuak. Aulkia gazteez beteriko mahaitik pitin bat urrundua zuelarik, Ellen bere zigarroaren keari begira zegoen, *Chianti* botila potoloaren inguruan biribilka. Beraren platerean, hiru koloreko izozki bat urtzen ari zen, ahantzirik.

— Baina, Jainkoarren, gizakiak ez al du esku-biderik? Ez, zibilizazio industrial hau dela eta, gobernuaren eta gizarte-bizitzaren artean oreka berri bat lortu behar dugu...

— A, ze hitz luzeak! —xuxurlatu zion Ellenek Herfi, ondoan baitzuen.

— Arrazoia du, hala ere —purrust egin zion Elleni—. Eraitza zera izan da: Egipto eta Mesopotamiako zibilizazio esklabo izugarriez geroztik, inork ez duela sekula munduaren historian botere handiagorik izan gaur egungo gizon bakan batzuek baino.

— Ederki.

— Ez, serio ari naiz...Langileek, proletarioek, ekoizleek eta kontsumitzaileek —nahi bezala deitu— dituzten interesak defendatzeko bide bakarra sindikatuak sortzea eta ondo antolatuta egotea da, orain arteko menpekotasuna gainetik kentzeko.

— Nik uste dut erabat oker zaudela, Martin. Zure hitzak erabiliz, interesei esker, hau da, kapitalista ikaragarri horiei esker dago herria orain dagoen bezala.

— Jainko maitea, begira nola dagoen!... Hori xe ari naiz esaten. Txakur bat ere ez nuke sartuko txakurtegi honetan.

— Ez nago ados zurekin. Nik herri hau mires-ten dut... Herri bakarra dut... Eta uste dut masa zanpatu guztiek benetan nahi dutela zanpatuta egon; ez dute beste ezertarako balio... Bestela, negozio-gizon onak izango lirateke, zerbaitetarako balio duen jende guztia bezala.

— Baina nik ez dut uste negozio-gizon onen giza esfortzuaren ideal gorena denik.

— Txerri anarkista iraultzaile baten ideala baino dezente gorago dago. Lapurrak ez direnak zoroak dira.

— Begira, Mead, ulertzen ez duzun zerbait iraindu duzu, ezagutzen ez duzun zerbait... Ez dizut hori onartuko... Gauza horiek ezagutu egin behar zenituzke, iraintzen hasi aurretik.

— Sozialiston hitz-jario zoroa adimenari irain egitea besterik ez da.

Ellenek zapladatxo bat jo zion Herfi mahun.

— Jimmy, etxera joan beharra daukat. Nahi duzu nirekin etorri apur batean?

— Martin, gurea ordainduko duzu? Alde egin beharra daukagu... Ellie, izugarri zurbil zaude.

— Hemen beroegi egiten du... Uf, zeinen ondo orain!... Nolanahi ere, eztabaidek higuina ematen didate. Ez zait inoiz esateko ezer bururatzten.

— Talde hori kontu-kontari aritzen da gauero; horixe besterik ez du egiten.

Zortzigarren Etorbidea erabat laino zegoen, zintzurrari itsatsita geratzen zitzaien lainoa. Bertan murgilduta, argiek indarge egiten zuten dir-dir, aurpegien soslaiak agertu, hurbildu eta aienatu egiten ziren, arrainak akuario lupeztuan bezala.

— Hobeto zaude, Ellie?

— Bai, askoz ere.

— Izugarri pozten naiz.

— Ba al dakizu zeu zarela Ellie deitzen didan bakarra? Gustatzen zait... Antzerkian hasi nintzenez geroztik jende guztiak gogorarazi nahi izan dit ez naizela haurra.

— Stanek hala deitzen zizun.

— Beharbada horrexegatik gustatzen zait — esan zuen ahots luze eta ahulaz, gauez oso urrutiti, hondartzan entzundako garrasia bailitzan.

Jimmyk eztarria estutzen zion zerbait sumatu zuen.

— Kaka zaharra! —esan zuen Jimmyk—. Nik, Martin-ek bezala, guztiaren errua kapitalismoari botatzea baneuka, gaitzerdi!...

— Oso atseгина da horrela ibiltzea... Lainoa gogoko dut.

Aurrera jarraitu zuten elkarri hitzik egin gabe. I baitiko adar-hotsen orro urrunekin eta baporeen txistuekin batera, auto-gurpilek burrunba egiten zuten lanbro leungarrian zehar.

— Baina zuk karrera bat baduzu behintzat... Zeure lana gustatzen zaizu, izugarrizko arrakas-

ta lortu duzu —esan zuen Herfek Hamalagarren Kalearen kantoian eta besotik oratu zion beste aldera pasatzeko.

— Ez esan horrelakorik... Zuk ez duzu benetan horretan sinesten. Nik ez dut neure burua engainatzen, zuk baietz uste baduzu ere.

— Ez, baina hala da.

— Nik horrela jokatzeko nuen Stan ezagutu aurretik, Stan maitatu aurretik... Zuk badakizu, ni antzerkiarekin liluratuta zegoen neskato bat nintzen, ulertzen ez zuen gauza-pilo batean murgildua, bizitzari buruz ezer jakin baino lehen... Hemezortzi urterekin ezkondua eta hogeita birekin dibortziatua, sekulako errekorra... Baina Stan hain zen zoragarria...

— Badakit.

— Hitzik esan gabe beste gauza batzuk ere bazeudela sentiarazi zidan... gauza sinesteziak...

— Txoriburu hutsa zen, baina... zoritxarrez, galera handia izan da.

— Ezin dut horretaz hitz egin.

— Utzi egingo dugu orduan.

— Jimmy, zeu zara geratzen zaidan pertsona bakarra hitz egiteko.

— Ez zaitez nitaz fio. Agian edozein egunetan arazoak sortuko dizkizut.

Barre egin zuten.

— Jainko maitea! Pozik nago hilda ez ego-teaz, zu ez Ellie?

— Ez dakit. Hau nire etxea da. Ez dut nahi zu gora igotzerik... Ohera noa zuzenean. Oso gaizki sentitzen naiz.

Kapela eskuan, Jimmy hari begira geratu zen. Ellen bere zorroa haztatzen ari zen giltzaren bila.

— Begira, Jimmy, azkenean esan egingo dizut...

Harengana hurbildu eta azkar hitz egin zion, beste norabait begira eta kaleko farolaren argia islatzen zuen giltza txiki bat harengana zuzendu-ta. Lainoak kanpadenda zirudien, hain zen trinkoa.

— Ama izango naiz laster... Stanen haur bat izango dut. Bizimodu zentzugabe hau alde bate-ra uztea eta haurra heztea erabaki dut. Ez zait axola zer gertatuko den.

— Ene Jainkoa! Ez diot inoiz emakume bati ezer ederragorik entzun... O, Ellie, hain zara zoragarria! Nik zuri esan ahal banizu zera...

— O, ez —esan zuen ahotsa urraturik eta begiak malkoz beterik—. Ni tuntuna naiz, hori da dena.

Aurpegia haur txiki baten modura zimurtu zuen eta eskaileretan gora igo zen. Bisaia hamai-ka malko-errekastok zeharkatzen zioten.

— O, Ellie, zerbait esan nahi dizut...

Atea Ellenen atzean itxi zen.

Jimmy Herf geldi-geldi geratu zen harrizko eskaileren behealdean. Lokiak taupadaka zituen. Atea gustura apurtuko zuen. Astunki belaunikatu zen eta Ellen zutik egondako eskailera-mailari muin egin zion. Lainoa haren inguruan kiribiltzen zen, koloretako konfetiak bailitzan. Behin estasi sentsazioa desagertuta, Jimmy bere baitako zulo beltz batean erortzen hasi zen. Zeharo geldirik geratu zen. Polizia batek bere begi biribil-biribil-gez goitik behera begiratu zion aurpegira, porra alde batera eta bestera zerabilen zutabe sendo urdin bat irudi. Gero, Jimmyk bat-batean ukabilak hertsu zituen eta handik aldendu zen.

— Ene Jainkoa! Dena ustelduta dago! —esan zuen goraki.

Jakaren mahukaz ezpainetako hautsa kendu zuen.

Ferryak itsasoratzeaz batera, Ellenek eskua eman zion autotik jauzi egiteko.

— Eskerrik asko, Larry —eta jarraitu egin zion brankarantz zihoan gorputz sendokote hari.

Ibaiko haize finak hautsak eta gasolinak isuritako usaina erauzi zien sudurzuloetatik. Perlazko gauean, Riverside Drive-ko etxeen soslai karratuek dir-dir egiten zuten, suzirien gisa berean. Uhinak plisti-plasta zebiltzan ferryaren brankak urraturik. Konkordun bat *Marianela* jotzen ari zen biolinaz.

— Ezer ez da arrakasta bat bezain arrakastatsua —esan zuen Larryk ahots sakon eta kantariz.

— O, zuk jakingo bazenu hau zeinen gutxi axola zaidan orain, ez zenidake gehiago adarra joko hitz horiekin guztiekin... Badakizu, ezkon-

tza, arrakasta, maitasuna, hitzak besterik ez dira.

— Baina niretzat esanahi osoa dute... Uste dut Lima-n bizitzea gustatuko litzaizukeela, Elaine... Zu aske egon arte itxaron nuen, ez al da egia? Eta orain hementxe naukazu.

— Inor ez da librea, ezta... Baina izoztuta nago.

Ibaiko haizea osasungarria da. Ehun eta Hogeita Bosgarren Kaleko biaduktuan zehar tranbiek gorantz egiten zuten kakalardoak bailiran. Ferrya porturatzean, gurpilek asfaltoaren gainean egindako kirrinka eta biraketa entzun zituzten.

— Hobe genuke autora itzultzea, Elaine, ume polit hori.

— Azkenean, egun zirraragarria atera da, ezta Larry?, gauza guztien erdigunera itzultzeko.

Ate zuri uherraren ondoan bi botoi zeuden: GAUEKO TXIRRINA ETA EGUNEKO TXIRRINA. Ellenek txirrina jo zuen atzamar dardarati batez. Arratoi-aurpegia eta atzerantz orraztutako ile beltz disti-

ratsua zuen gizon txiki eta zabal batek ireki zuen. Perretxiko-orearen koloreko panpina-esku laburrak dilindan zituen alde banatan. Sorbaldak uztaitu zituen agur moduan.

— Zu al zara andrea? Aurrera.

— Eta zu Dr. Abrahams?

— Bai... Zu al zara nire lagunak telefonoz aipatu zidan andrea? Eseri, ene andrea.

Bulegoak arnika bezalako zerbaiten usaina zuen. Bihotza etsi-etsian ari zitzaion taupadaka saihetsen artean.

— Ulertu egin behar didazu —Elleni bere ahots dardaratia jasanezina egin zitzaion, aldi-txartzeko zorian zegoen—. Ulertu egin behar didazu, Dr. Abrahams, ezinbestekoa da. Neure senarrarengandik dibortziatu behar dut eta bizi-bidea aurrera atera.

— Oso gazte, zoritxarreko ezkontza... Sentitzen dut.

Doktoreak ahapeka urruma egin zuen, bere kolkoarekin arituko balitz bezala. Auhentxistukari bat egin zuen eta, halako batean, laztabin moduko bere begi beltz altzairuzkoak Ellenenentan finkatu zituen.

— Ez zaitez beldurtu, andrea, oso ebakuntza erraza da... Prest zaude orain?

— Bai. Ez du denbora askorik beharko, ezta? Behar bezain sendo banago, bostetan geratuta nago tea hartzeko.

— Zu andrea ausarta zara. Ordubete barru dena ahaztuko zaizu... Sentitzen dut... Penagarria da honelako gauzak beharrezkoak izatea... Andrea, zuk etxe bat eta seme-alaba asko eta senar on bat izan beharko zenituzke... Nahi al duzu ebakuntza-gelan sartu eta zeure burua prestatu?... Nik laguntzailerik gabe egiten dut lan.

Argi kiskalgarrizko biribil dirdaitsua puztu egin zen sabaiaren erdian. Horrekin batera, bisturien nikela suspertu zen, bai eta esmaltea eta tresna zorrotzez beteta zegoen beira zorrotzeko arasa bat ere. Ellenek kapela kendu zuen eta dardarka pausatu zen esmalteztutako aulki txiki baten gainean. Gero, zurrun zutitu zen eta gonaren xingola bat askatu zuen.

Kaleen kalapita lehertu egin zen, uhinak hilzori taupakariaren maskor baten kontra bezala. Larruzko bere kapelaren makurdura, bere masai-

la arrosak eta bere ezpainen gorrimina ikusi zituen, hots, bere aurpegiaren moxorroa. Bere esku-larruen botoi guztiak lotuta zeuden. Eskua jaso zuen. «Taxi!». Suhiltzaileen kamioi bat orroka igaro zen handik; haren atzetik, mahukabagoi bat, kapusaiak janzten ari ziren aurpegi izerditsuko gizonez betea; eta azkenik, eskaile-ra-furgoi bat, zalapartaka. Sentimendu guztiak lausotu egin ziren haren baitan, sirenaren kantu lausoaren eraginez. Egur margotuzko indiar batek esku bat jaso zuen kale-kantoian.

— Taxi!

— Bai, andrea!

— Ritz-era.

HIRUGARREN ZATIA

Lehenengo atala

Hiri alaia eta arduragabea

Bosgarren Etorbideko haga guztietan banderak zeuden, historiaren haize zakarraren menpe. Sokaz makila kraskagilei loturik, bola urrez-tatuez apaindutako hagetan, banderra handi haiek inarrosi eta jipoituak ziren, haizearen meneko. Izarrak lasai ari ziren dantzan arbelezko zeruan, zerrenda gorri eta zuriak bihurrikatzen ziren atzealde hodeitsu baten kontra.

Txarangen eta zaldi putinzaleen abarrotsean, kanoiaren berealdiko azantzean, atzaparren itzalen moduko itzalak bandera teinkatuei ebatu-rik zeuden. Banderak milikatzen, kiribilkatzen, bihurrikatzen ari ziren, mihi gosetien gisan.

«Bide luzea Tipperary-ra baino lehen... Hortik! Hortik!»

Portua zebren etamofeten moduko
itsasontzi marratuz gainezka zego-
en. Narrows-ak lingotez buxaturik
zeuden. Ogasuneko eraikinean
urrezko txanponak pilatzen ari ziren
sabairaino. Dolarrek auhen egiten
zuten irratian, kable guztiek dolarrak
tekleatzen zituzten.

«Bide luze-luzea dago, kiribilean...
Hortik! Hortik!»

Metroan begiak zuloetatik irteten
zitzaizkien ondokoa ahoskatzean:
apokalipsia, tifusa, kolera, metraila-
keta, altxamendua, sute batean hil-
tzea, uretan hiltzea, goseak hiltzea,
lokatzetan hiltzea.

«O, zeinen urrun dagoen Madymo-
sell Armenteurs-etik, hortik, hortik!
Badatoz yankeeak, badatoz yan-
keeak». Bandak zalapartaka ari
ziren, Askatasunarentzako Jesapena-
ren alde, Gurutze Gorriaren alde.
Erietxe-itsasontziak portuan gora
limurtzen ziren eta gauez isilgordeka

*deskargatzen zuten Jersey-ko nasa
zaharretan. Bosgarren Etorbidean
zehar, hamazazpi herrietako bande-
rak dantzan ari ziren, haize goseti
eta zakarraren inguruan kizkurtuta.
«O, haritza, lizarra eta zume negar-
tia!*

*Berde hazten da belarra Jainkoaren
herrian...»*

*Sokaz makila kraskagilei loturik, bola
urreztatuez apaindutako hagetan,
bandera handi haiek inarrosi eta
jipoituak ziren, haizearen meneko.*

Begiak itxita, James Marivale kapitaina, DSC, besaulki batean eserita zegoen, bizarginaren atzamar bigunek masailak eztiki eskuztatzen zizkioten bitartean. Bitsak kilimak eragiten zizkion sudurzuloetan; lozioaren lurrina atzeman zezakeen; bibragailu elektriko baten burrunba eta artazien hotsa entzuten zuen.

— Aurpegi-masaje txiki bat, jauna, zaldar horiek kentzeko, jauna? —murmurikatu zion bizarginak belarrira.

Bizargina burusoila zen eta kokots urdin eta biribila zuen.

— Ondo —ihardetsi zuen Merivale-k—, egizu nahi duzuna. Hauxe da bizarra ganoraz kentzen dudan lehenengo aldia, gerra deklaratu zenetik.

— Etorri berria, kapitain?

— Bai... demokraziaren alde borrokan.

Bizarginak toaila bero baten azpian indargetu zituen haren hitzak.

— Lila-ur apur bat, kapitain?

— Ez bota lozio madarikatu horietakorik, aski da hamameli-ur apur bat edo edozein antiseptiko.

Manikura egiten zuen neska ilehoriak beti-leak errimel apur batez apaindurik zituen; hala-ko begirada liluragarri bat egin zion, arrosazko ezpainak bereizita.

— Bistan da porturatu berri zarela, kapitain... Beltzaran etorri zara, gero! —eskua emakumearen eskuaren ondoan utzi, mahaitxo zuriaren gainean—. Denbora luzea da, kapitain, inork eskuak zaintzen ez dizkizula?

— Nola dakizu hori?

— Hara nola hazi zaizun katikula!

— Lanpetuegi geunden horrelako gauzetarako. Ni gizon askea naiz, baina bakarrik zortzietatik aurrera.

— O, izu... garria izan da, ziur!

— Bai, gerra handia izan zen iraun zuen bitartean.

— Hala entzun dut nik ere... Eta zure lana orain guztiz bukatu da, kapitain?

— Orain erreserban nago, noski.

Neskak azken zapladatxo eman zion eskuan eta kapitaina zutitu egin zen. Bizarginaren ahur bigunaren gainean eta kapela luzatu zion mutil beltzaren ahur gogorraren gainean eskupeko bana ipini zuen eta astiro igo zen marmolezko eskaileretan gora. Eskailera-buruan ispilu bat zegoen. James Merivale kapitaina gelditu egin zen James Merivale kapitainari lipar batez so egiteko. Gizon gaztea zen eta hazpegi zuzenak eta kokots haragitsua zuen. Panazko uniforme zeraman, primeran doitua, *Rainbow Division* izenekoaren intsigniez apaindua eta xingolez eta galoiz hornitua. Ispiluaren argiak zilarrezko isladak isurtzen zituen haren azpantarren bi aztaletan. Eztarria garbitu zuen, bere buruari goitik

behera behatzen zion bitartean. Zibilez jantzita-ko gizon gazte bat atzetik hurbildu zitzaion.

— Epa James, txukun-txukun utzi zaituzte.

— Hala da... Ez al zaizu arau ergela iruditzen guri Sam Browne gerrikoak erabiltzen ez uztea? Uniformea guztiz alferrik galtzea da.

— Nire aldetik, nahi badute, har ditzatela euren Sam Browne gerriko guztiak eta Jeneral Gorenari ipurtzulotik sartu... Ni zibila naiz.

— Zu oraindik erreserbako ofiziala zara, ez ahaztu hori.

— Nire aldetik, nahi badute, har dezatela euren erreserba eta pikotara bidali. Goazen trago bat jotzera.

— Familia ikustera joan beharra daukat.

Berrogeita Bigarren Kalera iritsiak ziren.

— Tira, laster arte, James, kriston mozkorra harrapatzera noa... Pentsa, askatasuna!

— Laster arte, Jerry, ez egin nik egingo ez nukeen ezer.

Merivalek sartalderantz jo zuen Berrogeita Bigarren Kanean zehar. Artean banderak ikus zitezkeen, batzuk leihoetatik dilindan, beste batzuk nagiki ari ziren dantzan hagetan, iraileko

haize gozoaren altzoan. Aurrera zihoala, denden erakusleihen gardenetatik begirik kendu ezinik zegoen: loreak, emakumeen galtzerdiak, bonboiak, alkandorak eta gorbatak, jantziak, koloretako ehunak; horri guztiari beha, ordea, aurpegi-multz bat, hain zuzen ere, gizon-aurpegi bizarra kenduak eta ezpain gorriko eta sudur hautsezta-tuko emakume-aurpegiak. Hori dela eta, Merivale lotsagorritu eta aztoratu egin zen. Asaldaturik metroan sartu zen. «Begira horrek zenbat galoi dituen. DSCa da», entzun zion neska bati beste bati esaten ziola. Hirurogeita Hamabigarren Kanean jaitsi zen eta paparra harroturik aurrera egin zuen ibai alderantz, harri nabarrezko kale ezagunegian zehar.

— Zer moduz, Merivale kapitaina? —esan zuen igogailuzainak.

— Zer James, bukatu duzu azkenean? —egin zion oihu bere amak haren besoetara oldartuz.

Marivalek baietz egin zuen buruaz eta musu eman zion. Beltzez jantzita, bere ama zurbila eta zimela zen. Maisie, hura ere beltzez jantzirik,

haren atzetik agertu zen, garai eta masaila arrosadun.

— Zoragarria da biok horren itxura ona izatea!

— Bai, espero bezain ondo gaude. Maitea, oso gaizki pasa dugu... Orain zeu zara familiaburua, James.

— Aita gizajoa... horrela hiltzea ere!

— Horretatik libratu zinen zu... Milaka lagun hil ziren gaitz horrek jota, New Yorken bakarrik.

Jamesek Maisie beso batetik estekatu zuen eta bere ama bestetik. Hirurak ere isil-isilik zeuden.

— Bai —esan zuen Merivalek egongelarantz zihoala—, gerra handia izan zen iraun zuen bitartean.

Amak eta arrebak orpoz orpo jarraitu zioten. Larruzko aulki batean eseri zen eta hankak luzatu zituen, bota distiratsuak agerian.

— Zuek ez dakizue zein zoragarria den berriro etxean egotea.

Mrs. Merivalek bere aulkia hurreratu zuen.

— Orain maitea, kontaiguzu dena.

Atariko ilunpean, sarbideko atearen aurrean, bortxaz heldu zion eta bere soinerantz erakarri zuen.

— Ez, Bouy, ez; ez zaitez astakirtena izan.

Gizonaren besoek, korapilodun sokak bailiran, bizkarra estutu zioten emakumeari. Horren ondorioz, belaunak dardarka hasi zitzaizkion. Gizonaren ahoa itsumustuan ari zen masaila batean, sudurraren azpian, emakumearen ahoaren xerka, irrikatsu. Ezin zuen arnasarik hartu, gizonaren ezpaineak haren ezpainak milikatzen zituztelako.

— Ezin dut hau jasan.

Gizonak bere aldetik baztertu egin zuen. Emakumea haren esku handiek oratuta zegoen eta kolokan zihoan arnasestuka, hormarantz.

— Ez duzu kezkatu behar —xuxurlatu zuen eztiki Bouyk.

— Banoa, berandu da... Seietan jaiki beharra daukat.

— Eta zein ordutan uste duzu jaiki behar dudala nik?

— Eta amak harrapatzen banau?

— Esaiozu pikotara joateko.

— Egunen batean... zerbait okerragoa esango diot... bakean uzten ez banau.

Emakumeak masailak estutu zizkion eta, musu azkar bat ahoan emanda, harengandik askatu eta lasterka lau pisu igo zituen, ugerrez betetako eskaileretan gora.

Atea artean itxi gabe zegoen. Emakumeak dantza-zapatilak erantzi zituen eta kontu handiz sukaldea zeharkatu zuen, oinak minbera zituela. Ondoko gelatik zetorren osaba-izeben zurrunga nekoso bikoitza. *Norbaitek maitatu egiten nau, ez dakit nork...* Kanta gorputz osoan zehar zebil-kion, batik bat oin dardaratsuetan eta bizkarrean, soinaren alde horretan eskua estutu baitzion gizonak, dantzan ari zirela. «Anna, ahaztu hori edo ez dun lo egiterik izango. Anna, ahaztu egin behar dun». Gosarirako platerak ikaragarritzko tintina egin zuten, emakumeak mahaiaren kontra talka egin zuenean.

— Anna, zu zara? —esan zuen logaleak jota-ko ahots kexati batek bere amaren ohetik.

— Ura edatera joan naiz, ama.

Atsoak hortzen artean adiakatu zuen, eta, ohean bira egitean, malgukiek kirrinka egin zuten. Denbora osoan lo.

Norbaitek maitatu egiten nau, ez dakit nork... Annak dantzarako soinekoa erantzi eta kamisoia jantzi zuen. Gero, oin-puntetan armairura joan zen soinekoa esekitzera eta, azkenean, izaren artean limurtu zen, amiñika-amiñika, oheko oholtxoek kirrinkarik egin ez zezaten. *Ez dakit nork.* Oinak herrestan, argi dirdaitsuak, aurpegi hanpatuak, beso oratzaileak, gihar teinkatuak, oinak jauzika. *Ez dakit nork.* Oinak herrestan, saxofoi petrala, oinak danborraren, tronboiaren, klarinetearen doinuei jarraiki. Oinak, izterrak, masailak masailekin. *Norbaitek maitatu egiten nau...* Oinaz herrestan, *ez dakit nork.*

Ukabilak hertsirik, ume musugorria lo zegoen ohatzean. Ellen makurtuta zegoen larruzko maleta beltz bat zegoen aldera. Makutsik, Jimmy atakatik beha zegoen.

— Hortxe dago Askatasunaren estatua... Ellie, bizkarrean egon beharko genuke.

— Mendeak igaroko dira porturatu aurretik... Igo zeu. Segituan joango naiz ni Martinekin.

— O, etorri orain; umearen gauza guztiak zorroan sartuko ditugu, portura atoian garamatzaten bitartean.

Bizkarrera irten ziren iraileko arratsalde argitsuaren pean. Ura berde-anila zen. Haize zakarrek ke grisaren kiribilak eta kotoizko burbuilak behin eta berriro desegiten zituen, zeruaren ganga eskerga urdin-anilaren azpian. Zeruertz kedarreztatuaren kontra, gabarrak, baporeak, zentral elektrikoak, ontziraleku estaliak, zubiak. New Yorkeko alde hori kartoizko piramide luzanga arrosa eta zuria zen.

— Ellie, Martin kanpora atera behar genuke, zerbait ikus dezan.

— Orroka hasiko litzateke atointzi baten modura... Ondo dago dagoen lekuan.

Soka batzuen azpitik igarotzeko makurtu, dibidieta kirrinkari baten ondotik limurtu eta brankara iritsi ziren.

— Ene, Ellie, hauxe da munduko ikuskizunik ederrena!... Ez nuen uste sekula itzuliko nintzenik, eta zuk?

- Nik beti izan dut hona itzultzeko asmoa.
- Baina horrela ez.
- Arrazoia duzu.
- *S'il vous plait, madame...*

Marinel batek atzerantz joateko esan zien. Ellenek aurpegia biratu zuen haizearen kontra, begietatik kobre-koloreko ile-xerloak kentze aldera.

- *C'est beau, n'est ce pas?*

Haizearen meneko, Ellenek irribarre egin zion marinelaren aurpegi gorriari.

- *J'aime mieux Le Havre... S'il vous plait, madame.*

- Tira, behera noa, Martin jantzi behar dut eta.

Itsasontziaren albo batera gerturatzen ari zen atoiontziaaren zalapartak ez zion utzi Jimmyren erantzuna entzuten. Ellen urrundu eta gelara jaitsi zen berriro.

Pasabidearen bukaeran lauskituta zeuden jendetzaren artean.

- Begira, maletazain bat etorri arte itxaron genezake —esan zuen Ellenek.

— Ez, laztana, neronek eramango ditut maletak.

Jimmy izerditan eta behaztopaka zihoan, maletak esku banatan eta fardelak besapean zeramatzala. Ellenen besoetan umeak urruma egiten zuen, besoak inguruko aurpegietarantz luze-luze eginda.

— Ba al dakizu gauza bat? —esan zuen Jimmyk pasabidea zeharkatzen ari zirela—. Nahiago nuke berriro itsasoratu... Ez dut etxera itzultzeko bat ere gogorik.

— Nik, ordea, bai...

— Hortxe dago H...

— Aurreratu egingo naiz... Frances eta Bob hemen ote dauden ikusi nahi dut. Kaixo...

— Tira, ni ba...

— Helena, gizendu egin zara, eder-ederra zaude. Eta Jimps?

Jimmy eskuak igurtzitzen ari zen, maleta astunen heldulekuek minberaturik.

— Ongi etorri, Herf!

— Epa Frances!

— Ez al da zoragarria?

— A ze poza zuek ikustea!

— Jimps, Brewoort-era azkar joan behar dut umearekin...

— Ez al da xarmangarria?

— Bost dolar ba al dituzu?

— Dolar bat baino ez dut diru xehean. Ehun dolar txeketan ditut.

— Nik diru asko daukat. Helena eta biok hotelera goaz eta zuek gero etortzea duzue ekipajearekin.

— Inspektorea, axola al dizu umearekin joaten banaiz? Nire senarra arduratuko da baulez.

— Ez noski, anderea! Tira, aurrera!

— Ez al da polita? O, Frances, hau liluragarria da!

— Aurrera, Bob. Nik azkarrago bukatuko dut bakarrik... Zu joan andereekin Brevoort-era.

— Penagarria da zuk hemen geratu behar izatea.

— Tira, zoazte... Ni ere laster joango naiz.

— Mr. James Herf, emaztea eta haurra... Ondo dago?

— Bai, ondo.

— Laster izango naiz zurekin, Mr. Herf... Ekipaje guztia dago?

— Bai, guztia.

— Ez al da ona? —esan zuen kakaraka Frances-ek, bera eta Hildebrand autoan sartzen ari ziren bitartean, hantxe baitzen Ellen.

— Nor?

— Umea, noski.

— O, behin baino gehiagotan ikusi beharko zenuke... Badirudi bidaiak gustuko dituela.

Uniformerik gabeko gizon batek autoko atea ireki eta burua barruan sartu zuen, irtetera zihoazela.

— Gure arnasak usain ona du? —galdetu zion Hildebrandek autoko gizonari.

Egur-puska baten moduko burua zuen gizon hark atea itxi zuen.

— Helenak oraindik ez daki debekuarena, ezta?

— Ikaratu egin nau... Begira.

— Arranopola!

Umea biltzen zuen burusiaren azpitik paper marroizko fardel bat atera zuen...

— Gure koñak bereziko bi litro... *gout famille* 'Erf... eta beste bat dakar termo batean, gerrian

ezkutaturik... Horrexegatik ematen du beste ume bat izatekotan nagoela.

Hildebrand-arrak barrez lehertu ziren.

— Jimpsek gerrian termo bat du eta aldakan, berriz, *chartreuse* flasko bat... Litekeena da guk fidantza ordaindu behar izatea, kartzelatik atera dadin.

Barrearen barreaz begietatik malko-errekastoak zerizkiela, autotik jaitsi ziren, hotelera iritsita. Igogailuan umea garrasika hasi zen.

Gela handi eguzkitsuko atea itxi bezain laster, Ellenek termoa atera zuen jantziaren azpitik.

— Aizu, Bob, deitu telefonoz izotz xehetu apur bat eta sifoi bat ekartzeko... Koñak bat edango dugu *a l'eau de selz*.

— Ez al dugu Jimp heldu arte itxaron behar?

— O, berehala izango da hemen... Ez dugu ezer deklaratzeko... Poltsikoak hustuegi ditugu... Frances, nola moldatzen zara esnea lortzeko New Yorken?

— Nola jakin behar dut nik hori, Helena?

Frances Hildebrand, guztiz lotsagorriturik, leihorantz abiatu zen.

— Berdin dio. Berriro bere janaria emango diogu... Badirudi on egin diola bidaian.

Ellenek umea ohean sartua zuen. Umeak oinak airean zerabiltzan, ingurura begira, kuartzozko isladadun bere begi biribilez.

— Ez al dago pitin bat loditxo?

— Hain osasuntsu dago, ezen ziur bainago erdi tentela dela... Ene Jainkoa! Eta nik aitari deitu behar diot... Familiaren bizitza ez al da desesperagarri zaila?

Ellen bere alkohol-labetxoa apailatzen ari zen konketan.

Mandatu-mutila barrura sartu zen, edontziak, izotz xehetuz betetako ontzi bat eta botila bat *White Rock* erretilu batean ekarriz.

— Prestatu zerbait termokoarekin. Berehala-xe edan behar dugu, bestela alkoholak goma hondatuko du... Eta topa egingo dugu Café d'Harcourt-en alde.

— Zuek, lagunok, noski, ez zarete konturatzen —esan zuen Hildebrandek— zein zaila den debekuarekin mozkorturik ez egotea.

Ellenek barre egin zuen, labetxorantz makurtu zen, nikel beroak eta alkohol erreak isuritako etxeko usaina baitzerion.

Jaka arina besapean, George Baldwin Madison Avenue-n gora zihoan. Bere izpiritu akitua udazkeneko ilunabarrean suspertzen ari zen. Arrastiri hartako gasolina-usainari eta taxi-hotsari gaina hartuta, Baldwinen begien aurrean bi abokatu ari ziren eztabaidan, zein bere espaloitik, biek ere frak beltza eta tximeleta-lepo zurrinak jantzirik. «Etxera joanez gero, gozo egongo haiz bibliotekan. Pisua ilun eta nare egongo duk eta zapatilak jantzirik eseri ahal izango haiz Eszipion Afrikarraren bustoaren azpian, larruzko besaulkian. Bertan irakurri ahal izango duk eta afaria ekartzeko agindu... Nevada alai eta berritsu egongo duk eta pasadizo bitxiak kontatuko dizkik... Udaleko txutxumutxu guztiak jakingo ditik... komeni duk... Baina hik ez duk Nevada berriro ikusiko... arriskutsuegia duk; heure onetik ateratzen hau... Eta hantxe egongo duk Cecily, hits, dotore, lerdan, bere ezpainei

ausikika, ni gorrotatzen, bizitza gorrotatzen... Ene Jainkoa, nola zuzenduko ote dut neure existentzia?». Loradenda baten aurrean gelditu zen. Atetik lurrin heze, gozo, garestia zetorren eta trinko hedatzen zen kale urdin bizian zehar. «Neure egoera finantziarioa finkatzea lortuko banu sikiera...». Erakusleihoan ageri zen zubi arkudunak eta urmaelak zituen lorategi japoniar baten miniatura. Urmaelotan, arrain urreztatuek baleak bezain handiak ziruditen. «Neurria, horixe duk. Heure bizitza lorazain baten antzera antolatzea, goldatzea, ereitea. Ez, gaur goizean ez nauk Nevada ikustera joango. Agian lore batzuk bidaliko zizkioat, hala ere. Arrosa horiak, kobrezko arrosa horiek... Elainen eskuetara iritsi beharko lituzkek. Pentsa, berriro ezkondata eta haur batekin». Dendan sartu zen.

— Zein arrosa-mota dira hauek?

— Ofir-eko urrea, jauna.

— Oso ondo, bi dozena nahi ditut lehenbailehen Brevoort-erako... Miss Elaine... Ez, Mr. eta Mrs. James Herf... Txartel bat idatziko dizut.

Idazmahai aurrean eseri zen boligrafo bat eskuan zuela. «Arrosen intsentsua, Ellen en ilea-

ren su ilunaren intsentsua. Ez, Jainkoarren, a ze txorakeria!»

Elaine maitea:

Espero dut ez zaizula gaizki irudituko lagun zahar hau zuri eta zure senarrari bisita egitera joaten bada hauetako egunen batean. Eta, mesedez, gogoan izan beti laguntzeko benetan irrikatsu naukazuela —zuk ondoegi ezagutzen nauzu esaldi hau gizalegezko eskaintza bat besterik ez dela pentsatzeko—, bai zuk bai berak, neure esku dagoen guztia egingo baitut zuen zoriontasunaren alde. Barkatuko didazu bizitza osoan zure morroi eta mireslea izango nauzula aitortzen badizut.

George Baldwin

Gutunak lore-saltzailearen hiru txartel zuri hartu zituen. Ezpainak zimurturik, Baldwinek berriro irakurri zuen, t-ak kontu handiz gurutzatu eta i-en gainean puntua ezartzen zuen bitartean. Atzeko poltsikotik billete-erroilu bat atera zuen eta lore-saltzaileari ordaindu egin zion. Gero, kalera irten zen berriro. Gaua zen, zazpiak

aldera. Artean duda-mudan, kale-kantoiari gelditu egin zen handik igarotzen ziren taxi hori, gorri, berde, laranjei begira.

Garraiontzia zapal bat astiro-astiro zihoan Narrows-en zehar, euripean. Bizkarreko kamaretan aterpeturik, O'Keefe sarjentu nagusia eta Dutch Robertson lehen mailako soldadua berrogeialdian ainguratutako ontzietan eta ontziralekuz jositako itsasbazterreari begira zeuden.

— Begira, batzuek oraindik gerra-garaiko pintura zukatek... Shipping Board itsasontziak... Ez ditek merezi ezta eurak lehertzeko behar den bolbora ere.

— Ez horixe! —esan zuen Joey O'Keefek indarge.

— Gure betiko New York paradisua irudituko zaidak, alajaina!

— Niri ere bai, sarjen, euria egin ala ez, niri bost.

Bat eginik ainguratuta zegoen bapore-pilobaten ondotik igarotzen ari ziren. Ontzi batzuk alde batera okerturik zeuden, besteak bestera,

tximinia txikiko ontzi luzengak, ugerrez gorritutako tximinia handiko ontzi potoloak, batzuk marratuak edo puntuztatuak edo urdinez, berdez, arrez, kamuflaje-kolorez zipriztinduak. Txalupa motoredun batean, gizon bat besoak astintzen ari zen. Praka kakiak jantzirik, soldadu batzuk kantuan hasi ziren, garraiontziazen bizkar grisean bil-bil eginda:

*O, infanteria, infanteria,
belarrien atzeko zikinkeria...*

Laino argitsuan zehar, Governors Island-eko eraikin txikien atzean, Brooklyn-go zubiaren pilare handiak, kable okertuak eta aireko mihiztadurak ikustatu zituzten. Robertsonek pakete bat poltsikotik atera eta kareletik behera bota zuen.

— Zer zen hori?

— Nire profilaxi botikina... Hemendik aurrera ez diat horren beharrik izango.

— Nolatan ba?

— Zera egin nahi diat: zintzo bizi, lanpostu ona lortu eta agian ezkondu.

— Ez duk ideia txarra. Ni ere nekatuta nagok tontakeriak egiteaz. Baten batek etekin ederrak aterako zizkiek Shipping Board ontziei.

— Hor izugarrizko mauka zaukaatek urteko dolar batengatik armadan sartzen direnek.

— Bai, horixe.

Goitik zetorren kantu hau:

*Emakumeak fabrika batean egiten du lan
eta hori oso ondo egon daiteke...*

— Hara, orain East River-en gora igotzen ari gaituk, sarjen! Non arraio porturatu behar gaituzte?

— Ene Jainkoa, gustura joango nindukek igerian itsasbazterrera! Morroi horiek guztiak gure kontura aberastu direla pentsatzen dudak bakoitzean... Hamar dolarreko soldata egunean ontziola batean lan egiteagatik, pentsa...

— Zer arraio, sarjen, guk esperientzia diagu!

— Esperientzia...

Après la guerre finie

Back to the States for me...

— Apustu egingo nitek kapitaina *beaucoup highballs*-ak edaten egon dela eta Brooklyn hartzen duela Hoboken delakoan.

— Tira, hortxe zagok Wall Street.

Brooklyn-go zubiaren azpitik igaro ziren. Tren elektrikoen auhen burrunbatsua aditu zen euren buru gainean. Aldian behin errail bustiei txinparta more bat zerien. Atzean, lurrin eta laino taratada zuriz marraturik, eraikin gris eta garaiek gorantz egiten zuten hodei erorien artetik, itsasontziez, atoiontziez eta ferryez haraindi.

Inork ez zuen ezer esan zopa hartzen ari ziren bitartean. Beltzez jantzirik, Mrs. Merivale mahai obalatuaren buruan eserita zegoen, gortina erdi zabalduetan zehar, egongelako leihotik, ke zurizko zutabe bati so, tren-nasen gainean eguzkiaren inguruan kiribiltzen zela. Anartean, senarra zuen buruan, bai eta igeltsu eta pintura usaineko pisua ikustera joan zireneko eguna ere. Azkenean, zopa bukatzeaz batera, zolitu eta esan zuen:

— Zera, Jimmy, kazetari-lanetara itzultzeko asmoa duzu?

— Baietz uste dut.

— Jamesi hiru lanpostu eskaini dizkiote. Aparta iruditzen zait.

— Uste dut, hala ere, komandatearen eskaintza onartuko dudala —esan zion James Merivalek Elleni, ondoan baitzuen—. Goodyear komandantea, Buffalo-ko Goodyear-tar horietako bat, lehengusina Helena... Banker's Trust-eko Atzerriko Moneta Departamentuburua da... Berak dioenez, azkar asko igoko nau mailaz. European adiskidetu ginen.

— Zoragarria litzateke —esan zuen Maisiek urruma-ahotsaz—, ezta, Jimmy?

Maisie, beltzez jantzirik, lirain eta musugorri, haren atzean eserita zegoen.

— Ni Piping Rock-en aurkezteko asmoa du Goodyear-ek —jarraitu zuen Merivalek.

— Zer da hori?

— Baina, Jimmy, ez dakizu ala?... Ziur nago lehengusina Helenak han askotan hartu duela tea.

— Jimps, leku hori ezagutzen duzu —esan zuen Ellenek bere platerari begira—. Haraxe joaten zen Stan Emeryren aita igandero.

— Ene, zuk ezagutzen al zenuen gizon gazte zoritxarreko hura? Ikaragarria izan zen —esan zuen Mrs. Merivalek—. Azken urteotan hamaika gauza ikaragarri gertatu dira... Ia-ia ahaztuta neukan.

— Bai, ezagutzen nuen —esan zuen Ellenek. Bildots-hanka etorri zen berenjena frijituez, arto berriaz eta patatez horniturik.

— Ikaragarria iruditzen zait —esan zuen Mrs. Merivalek haragia zatikatzen ari zela— bikote honek ezer kontatu nahi ez izatea munduan zehar izandako abenturei buruz... Horietako asko oso interesgarriak izango dira. Jimmy, nik uste liburu bat idatzi beharko zenukeela zure esperientziei buruz.

— Horretan saiatu naiz zenbait artikuluren bidez.

— Noiz argitaratuko dira?

— Inork ez ditu zabaldu nahi... Zera ba... Haien ustez, zenbait gaitan nire iritziak ez dira batere egokiak.

- Mrs. Merivale, urteak dira hain patata gozorik jaten ez nuela. Ñame-zaporea dute.
- Oso onak daude... Prestaera da gakoa.
- Bai, gerra handia izan zen iraun zuen bitartean —esan zuen Merivalek.
- Non zeunden zu armistizioko gauean, Jimmy?
- Jerusalem-en, Gurutze Gorriarekin. Ez al da aldrebesa?
- Ni Parisen nengoen.
- Ni ere bai —esan zuen Ellenek.
- Hortaz, zu ere han zeunden, Helena? Azkenean, Helena deituko dizut, beraz, ondo asko oraintxe bertan has ninteke horretan. Ez al da interesgarria? Han ezagutu al zenuten elkar Jimmyk eta zuk?
- O, ez, gu aspaldiko lagunak ginen... Askotan gertatzen ginen elkarrekin... Gurutze Gorriko departamentu berean geunden, Publizitate Departamentuan.
- Gerra-garaiko benetako amodio bat —esan zuen kantari-antzean Mrs. Merivalek—. Ez al da interesgarria?

— Begira, lagunok, kontua zera da —esan zuen goraki Joe O'Keefek, aurpegia gorri eta izerditan blai zuela—: hobarien kontu hori aurrera aterako dugu ala ez? Guk euren alde egiten dugu borroka. Buru karratuei irabazi genien, ezta? Eta orain etxera itzulita, hezur bat ematen digute hortzikatzeko. Lanik ez... Gure neskak desagertu eta beste batzuekin ezkondu dira... Zirtzil edo alfer talde bat bagina bezala tratatzen gaituzte, guri dagokigun bidezko eta legezko ordaina eskatzen dugunean... Jasango al dugu hau? Ez. Onartuko al dugu politikari-andana batek ate ondoan limosna eske bageunde bezala trata gaitzan? Horixe galdetzen dizuet, lagunok.

Oinak zoruaren kontra ostikoka.

— Ez.

— Doazela pikotara —esan zuten garrasika zenbait ahotsek.

— Orain nik diot: politikariak pikotara... Herriari kanpainaren berri emango diogu... Herri amerikar handi honi, bihotz on eta zabaleko honi, horren alde borrokatu baikin, horren

alde eman baikenituen geure odola eta geure bizitzak.

Armategiko gela luzeak durundi egin zuen txaloekin. Lehenengo ilaran zaurituek lurraren kontra jotzen zuten euren makuluez.

— Joey morroi jatorra da —esan zion besa-motz batek bere aldameneko gizon betoker hanka artifizialdunari.

— Hala da, Buddy.

Ilaran ateratzen ari zirela, elkarri zigarroak eskaintzen zizkioten; bizkitartean, ate ondoko gizon batek garrasi egin zuen: «Batzordearen bilera. Hobariei buruzko bilera».

Lurak eseri egin ziren koronelak utzia zien gelako mahai baten inguruan.

— Tira, lagunok, erre dezagun puru bana.

Joe mahai gainera oldartu zen eta lau *Romeo y Julieta* atera zituen.

— Ez dik sekula horien falta nabarituko.

— Bai beso luzeak dituala! —esan zuen Sid Garnett-ek hankak luzatuta.

— Ez duk, ba, botila bat whisky izango hor nonbait, Joey? —esan zuen Bill Douganek.

— Ez, orain ez diat edaten.

— Nik bazakiat non saltzen duten *Haig and Haig* —tartekatu zuen Segal-ek ausarki—, gerrarren aurretik egina, sei dolar litroa.

— Eta nondik arraio atera behar ditugu sei dolar?

— Tira, tira, lagunok —esan zuen Joek mahai ertzean esertzen ari zela—, goazemak harira... Taldeko lagunon artean eta ahal dugun lekuan fondo bat sortu behar diagu... Ados zaudete?

— Jakina —esan zuen Dougan-ek.

— Nik jende piloa ezagutzen diat, gurekin bidegabeki jotzen ari dela uste duena. Honela deituko zioagu: Brooklyn Bonus Agitation Committee, American Legion-eko Sheamus O’Rielly Post elkartekoekin bat egindakoak... Alferrik duk ezer egitea, zuzen egiten ez bada... Ados zaudete ala ez, mutilok?

— Bai, noski, Joe... Hik esan eurei eta geuk ezarriko zioagu erritmoa.

— Ondo. Douganek izan behar dik lehendakaria, berak duelako inork baino itxura hobe.

Dougan gorritu eta totelka hasi zen.

— Aizak, hondartzako Apolo hori! —egin zuen oihu Garnettek, isekari.

— Eta nik uste diat ni neu diruzain ona izan naitekeela, horretan praktika handia dudalako.

— Lapurtzea zer den ondotxo dakialako, hain zuzen —esan zuen Segalek bere artean.

Joek masailezurra kanporantz atera zuen.

— Begira, Segal, gurekin hago ala ez? Hobe duk lehenbailehen esatea.

— Bai noski. Utzi lelokeriak —esan zuen Douganek—. Joeyk aurrera atera zezakek kontua eta hik ondotxo dakik hori... Utzi lelokeriak... Gustatzen ez bazaik, ospa egin.

Segalek bere sudur argal eta kakoduna igurtzi zuen.

— Jaunok, txantetan ari ninduan, ez diat asmo txarrez esan.

— Entzun —jarraitu zuen Joek haserre—, zertan uste duk ematen dudala nik denbora?... Zergatik ez nituen atzo onartu hamar dolar hilean? Horrela duk, ezta Sid? Morroiarekin hitz egiten ikusi ninduan.

— Bai, ikusi hintudan, Joey.

— Aski duk, mutilok, ixo! —esan zuen Segalek—. Txantxetan ari ninduan, ez besterik.

— Ondo. Nire ustez, hik, Segal, idazkaria izan behar huke, bulego-lanak ezagutzen ditualako...

— Bulego-lanak?

— Bai noski —esan zuen bularraldea puztuz—
. Lagun baten etxean izango diagu lekurik...
Dena konponduta zagok. Dohainik utziko ziguk,
kontua bideratu arte. Eta paper zigilatua izango
diagu. Mundu honetan ezin duk inora joan, gau-
zak ganoraz aurkeztu gabe.

— Eta nik zer arraio egingo dut? —galdetu
zuen Sid Garnettek.

— Hi batzordebura haiz, kankailu hori.

Mitinaren ondoren Joe O'Keefe txistuka jaitsi
zen Atlantic Avenue-n behera. Gau kraskatsu
batean, malguki gainean zebilela zirudien. Dr.
Gordon-en bulegoan argia zegoen. Deitu egin
zuen. Jaka zuriko gizon musu zuri batek ireki zion
atea.

— Gau on, doktore.

— A, zu zara O'Keefe? Sartu, sartu barrura,
mutil.

Doktorearen ahotsaren baitako zerbait haren
bizkarrezurrean itsatsi zitzaion, esku bat baili-
tzan.

— Zer, atera dira analisiaren emaitzak, doktore?

— Bai, atera dira... positiboa eman duzu.

— Arraioa!

— Ez zaitez estutu horregatik, mutil. Hilabete gutxitan sendatuko zaitugu.

— Hilabeteak.

— Gutxienez kolean ikusten duzun jendearen ehuneko berrogeita hamabostak badu sifiliaren arrastoren bat.

— Bada, ni ez naiz lelokerietan ibili. Beti kontu handiz ibili naiz han.

— Halabeharrezkoa gerra-garaian...

— Orain damu dut neure buruari eutsi izana... Hamaika aukera alferrik galdu ditut.

Doktoreak barre egin zuen.

— Seguru asko sintomarik ere ez duzu nabarrituko... Injekzio-kontua besterik ez da... Segituan sagar baten tankeran utziko zaitut, osasunez betea... Nahi duzu ziztada bat hartu orain? Dena prest daukat.

O'Keeferi eskuak hoztu zitzaizkion.

— Tira, aurrera —esan zuen barre behartu bat eginez—. Alta ematen didazunerako, seguru-
enik termometro madarikatu bat izango naiz.

Doktoreak barre kirrinkari bat egin zuen.

— Artsenikoz eta merkurioz betea, e?... Hori-
xe da.

Haizea gero eta hotzagoa zen. Hortzak
karraskatu egiten zitzaizkion. Gau hotz eta latz
hartan, etxera oinez zihoan. «Ni bai leloa! Zizta-
tu nauenean horrela ondoeztea ere!». Artean
sentitzen zuen orratzaren eztenkada mingarria.
«Hurrengo batean, zortea alde izan behar diat...
zortea alde izan behar diat».

Leihoaren ondoko mahai baten inguruan hiru
gizon eserita zeuden: horietatik bi sendoak ziren
eta bestea argala. Zinkezko zeruaren argiak isla
biziak erauzten zituen edontzitetatik, zilarrezko
baxeratik, ostren maskorretatik eta begietatik.
George Baldwin leihoari bizkarra ematen zego-
en. Gus McNiell zeukan eskuinean eta Densch
ezkerrean. Zerbitzaria maskor hutsak jasotzeko
makurtu zenean, leihotik eraikin gutxi batzuen

goialdea eta ezta inu koloreko portuaren inguru-
mariak itsasontziz beterik ikusi zituen. Eraikinok
itsaslabarren ertzeko zuhaitzen modura gailen-
tzen ziren.

— Oraingoan neuk botako diat neure ser-
moia, George... Izan ere, beste garai batean
heuk botatzen hidan sermoia. Benetan esaten
diat, sekulako txorakeria duk —esan zuen Gus
McNielek—. Sekulako txorakeria duk hire adi-
nean karrera politikoa egiteko aukera alferrik
galtzea. Ez zagok New Yorken hi baino egokiago-
rik kargu publikoren bat hartzeko.

— Nire ustez, zure betebeharra da, Baldwin
—esan zuen Densch-ek ahots sakonaz, betaurre-
koak kutxa batetik atera eta sudur gainean
azkar ezartzen zituen bitartean.

Zerbitzariak plantxan eginiko xerra handi bat
eraman zuen, perretxikoz, azenario xehatuz, ila-
rrez eta patata-purez osatutako guarnizio batez
hornitua. Denschek betaurrekoak aztertu eta
arreta handiz begiratu zion xerrari.

— Oso itxura ederra du honek, Ben, oso itxu-
ra ederra, diot... Begira, Baldwin, kontua hauxe
da... honela ikusten dut nik... Herria berreraikun-

tza-aldi arriskutsu batean dago... gatazka handi baten ondoko ohiko giro nahasia... kontinente baten porrot ekonomikoa... boltxebikismoa eta doktrina iraultzaileak gorantz doaz... Amerika... —esan zuen altzairu leunduzko aizto batez ondo piperraustutako xerra lodi eta gutxi egindako hura ebakitzen zuen bitartean. Mokadu bat astiro murtxikatzen ari zen—. Amerika —jarraitu zuen— munduaren zaindaria izateko moduan dago. Demokraziaren oinarri sakratuak, gure zibilizazio osoak zutabetzat duen merkataritza-askatasun horren oinarri sakratuak ez dira sekula honelako egoera larri batean egon. Orain inoiz baino gehiago behar ditugu trebetasun eta zintzotasun handiko gizonak, batez ere kargu publikoetan jarduteko gai judizial eta legetan adituak badira.

— Horixe esan nahi nian lehengoan, George.

— Hori dena oso ondo zagok, Gus; baina nola dakik hautatuko nautela?... Gainera, horrek ekarriko likek nire abokatu-lana bertan behera uztea, horrek ekarriko likek...

— Utzi niri... George, hi dagoeneko hautaturik hago.

— Xerra aparta —esan zuen Denschek—. Inolako dudarik gabe... Baina egunkarietako txutxumutxuak alde batera utzita... iturri onetik dakit herri honetako jendilajea konplot bat prestatzen ari dela... Ene Jainkoa! Ez ahaztu Wall Street-eko lehergailuarena... Esan behar dut prentsaren jarrera nolabait egokia izan dela... Izan ere, batasun nazional baterantz goaz, gerra baino lehen inori bururatu ezin zitzaiona.

— Gainera, George —sartu zen tartean Gus—, gauza honela ikusi beharra zagok... Hire karre-
ra politikoak harrotuko duen publizitateak hire abokatu-lanari on egingo zio.

— Agian bai, agian ez, Gus.

Denschek puru baten eztainu-paperezko estalkia zabaldu zuen.

— Nolanahi ere, aukera handia da.

Denschek betaurrekoak kendu eta lepo sendoa luzatu zuen portuaren irudi argitsua begizteko. Handik argiro ikusten zen mastez, kez, lurri-
nezko burbuilez, gabarra ilun angeluzuzenez beteriko portutik Staten Island-eko muino lan-
brotsura bitarteko paisajea.

Hodei-maluta dirdaitsuak Battery gainera erortzen ari ziren, zeru more baten ezkatengisan; bertan, jendetza zikina, iluna eta isila zerbaiten zain zegoen, Ellis Island-eko ontziralekua-ren eta txalupen nasen aldirietan. Ke zirpiltzuak atoiontzien eta baporeen atzealdeari itsatsita egiten zuen hegaz, oso behean, ur opako eta berdekan zehar arrastaka. Atoian eramanik, hiru mastako goleta bat jaisten ari zen North River-en zehar. Jaso berri zuten foke bat baldarki higitzen ari zen haizeak bultzaturik. Portuaren azken muturrean, aurrerantz zihoan bapore bat gero eta handiago ikusten zen: krema koloreko gainegitura distiratsu bat zuen eta, horren guztia-aren gainean, lau tximinia gorri baturik ageri ziren, nabarmen.

— Mauretania ontzia hogeita lau ordu berandu dator... —esan zuen goraki betaurrekoak eta teleskopioa zituen gizonak—. Horra hor Mauretania, ozeanoko galgorik azkarrena, hogeita lau ordu berandu.

Etxeorratza bezain zut, Mauretania handiosartu zen kaian. Eguzki-izpi batek aginte-zubia-

ren azpiko itzala nabermentzen zuen, goiko bizkarretako zerrenda luzeetan zehar, ataka-ilaretan izarniatuz. Tximiniak bereizi egin ziren; kroskoa, berriz, luzatu. Atoiontziak arnasestuka bulztaturik, Mauretaniako krosko beltzak North River ebakitzen zuen, aizto luze bat bailitzan.

Ferry bat emigratzaile-geltokitik aldentzen ari zen. Marmar bat zabaldu zen ontziralekuaren ertzetan pilatuta zegoen jendetzaren ahotan. «Deportatuak... Hauexek dira Justizia Sailak deportatu dituen gorriak... Deportatuak... Gorriak... Horiexek dira deportatzen ari direnak». Ferrya ontziralekutik aldenduz zihoan. Popan zutik, berunezko soldadu txikien moduko gizon-talde bat zegoen. «Gorriak Errusiara bidaltzen ari dira bueltan». Ferryan musuzapi bat dantzan, musuzapi gorri bat. Jendea behatz-puntetan zebilen ontziralekuaren ertzean, behatz-puntetan eta isilik, gaixo baten gelan bezala.

Urbazterrean pilatutako gizon-emakumeen bizkarren atzean, poliziak aurrera eta atzera zebiltzan, porrak kulunkari, euren gorila-aurpegiak etatxinpantze-sorbaldak erakutsiz.

— Gorriak Errusiara bidaltzen ari dira bueltan... Deportatuak... Iraultzaileak... Jendaila.

Antxetak jira eta bira zebiltzan, uluka. Tomate-saltsa botila bat beira xehatuzko uhinen gainean zabukatzen zen, batetik bestera. Ferrytik, urrundu ahala gero eta adigaitzago zen kanta bat zetorren.

C'est la lutte final, groupons-nous et demain

L'Internationale sera la genre humain.

— Begiratu deportatuei!... Begiratu atzerriko jendaila horri! —egin zuen oihu teleskopioa eta betaurrekoak zituen gizonak.

Halako batean neska baten ahotsak deiadar egin zuen:

Arise, prisoners of starvation.

— Ixo... agian horregatik sartuko zaituzte kaiolan.

Kanta uretan aienatzen zen. Marmolezko lorratz baten bukaeran, ferrya lainoan desagertu

zen. *International shall be the human race.*
Kanta hil egin zen. Ibaiaren goialdetik, itsasora-
tzen ari zen bapore baten taupaden hotsa iristen
zen. Antxetak jira eta bira zebiltzan jendetza
ilun, zikin eta zirtzilaren gainetik, hantxe baitze-
goen, isilik, badiara begira.

Bigarren atala Nickelodeon

Gauerdia baino lehen, nickel batez biharra erosten da... Banku-lapurreten titularrak, makinako kafe bat, paseo bat Woodlawn, Fort Lee, Flatbush-en zehar... Zirrikitutik sartutako nickel batez txiklea erosten da.

Somebody loves me, Baby Divine, You're in Kentucky Juss Shu'as You're Born... fox-trot-en nota minbertuak herrenka ateratzen ziren atee-tatik, bluesak, baltseak (We'd Danced the Whole Night Through), jira eta bira, arrandiazko oroitzapenen ekarle. Artean Seigarren Etorbidean eta Hamalaugarren Kalean linterna magikoak zeuden, euli-kakaz beteak, eta han nickel baten truke antzeman zekiekeen atzo-herenegun horailei. Itura tiro egiteko gela zalapartatsua-ren ondoan ikus zitekeen: UNE BERO-

AK, SENARGAIARENTZAKO EZUSTEA, GALTZARI LAPURTUA... *Paperontzia, gure amets suntsituen hilobia... Gauerdia baino lehen, nickel batez atzo-here-negunak erosten dira.*

Ruth Prynne medikuaren kontsultategitik irten zen, larruzko bekokia lepoaren inguruan estutzen zitzaiola. Oso ahulduta sentitzen zen, kordea galtzeko zorian. «Taxi». Barrura sartzean, kosmetikoek eta ogi xigortuek sortarazitako usaina eta Mrs. Sunderland-en etxeko korridore anabasatua etorri zitzaizkion burura. «O, ezin naun orain etxera joan!»

— Taxilari, Berrogeigarren Kaleko Old English Tea Room-era, mesedez.

Larru berdezko bere diru-zorro luzea ireki eta barrura begiratu zuen. «Jainko maitea, dolar bat, quarter bat, nickel bat eta bi penny baino ez!». Taximetroan saltoka ari ziren zenbakietatik begirik kendu ezinik zegoen. Negar egin nahi zuen... «Diruak hanka arinak ditin, ene!». Taxitik jais-teaz batera, hautsez betetako haize hotzak ezta-rria laztu zion.

— Laurogei zentabo, andereño... Ez dut bueltarik, andereño.

— Ongi da. Bueltak zeuretzat. Hogeita hamabi zentabo besterik ez dut, ene!

Barrualdea bero zegoen eta te eta pasta usaina nabaria zen bertan.

— Hara Ruth!... Zu Ruth bazara... Urte asko igaro dira, laztana, zatoz nire besoetara.

Billy Waldron zen. Lehen baino gizenago eta zuriago zegoen. Besarkada bero bat eman zion eta bekokian muin bat paratu zion.

— Zer moduz? Esaidazu... Zeinen dotore zauden kapela horrekin!

— Eztarriaren erradiografia egin didate orain-txe bertan —esan zuen irribarreka—. Oso gaizki sentitzen naiz.

— Zertan ari zara orain Ruth? Urteak dira zure berri ez dudala.

— Boleto zahar baten modura bota naute paperontzira, ez al da egia? —esan zuen Ruthek bortizki.

— Hara, *The Orchard Queen*-en egin zenuen paper ederraren ondoren?

— Egia esan, Billy, azken bolada honetan ez dut zorte onik izan.

— Badakit dena hilda dagoela.

— Belasco-rekin hitzordua daukat datorren astean... Baliteke zerbait ateratzea hortik.

— Ea horrela den, Ruth... Norbaiten zain zaude?

— Ez... O, Billy, beti adarra jotzen... Ez adarrik jo niri arratsalde honetan. Ez nago txantxetarako.

— Gajoa! Eseri eta hartu tea nirekin. Benetan diotsut, Ruth, aurtengo urtea ikaragarria da. Antzezleri on batek baino gehiagok bere erloju-katearen azken begia ere bahituko du... Zu ere enpresaburuekin hitz egitera joango zara, ezta?

— Nahiago dut horretaz hitzik ez egin... Ezta-rria guztiz ondo baneuka behintzat... Horrelako gauzak edonor suntsitzeko modukoak dira.

— Gogoan dituzu lehengo garaiak Somerville Stock-en?

— Bai, noski. Ez ditut sekula ahaztuko, Billy. Makina bat barre egin genuen orduan!

— Seattle-n, *The Buterfly on the Wheel*-en ikusi zintudan azken aldiz. Ni ere hantxe nengoen.

— Zergatik ez zinen sartu, nirekin hitz egiteko?

— Garai hartan haserre nengoen zurekin, nik uste. Gogoia oso behean nuen. Itzalaren... malenkoniaren... neurasteniaren... bailaran. Ez nuen sosik bat ere. Gainera, gau hartan pixka bat alkoholaren eraginpean nengoen, ulertzen didazu. Ez nuen nahi zuk nire baitako basapiztia ikusterik.

Ruthek beste te bat ipini zuen berarentzat. Bat-batean, sukarra bailitzan, poza jabetu zen haren barneaz.

— Baina Billy, oraindik ez duzu kontu hori ahaztu?... Garai hartan ni neskato tentel bat besterik ez nintzen... Beldur nintzen ea maitasunak edo ezkontzak edo horrelako zerbaitek oztopatuko ote zidan karrera artistikoa... Izugarrizko irrika nuen arrakasta lortzeko.

— Orain berdin jokatuko zenuke?

— Ez dakit...

— Nola zen hura... zera... *The moving finger writes and having writ moves on...*?

— Honelako zerbait: *Not all your tears wash out a word of it...* Baina Billy —burua atzerantz eramanez eta barre egin zuen—. Uste nuen prestatzen ari zinela berriro zeure maitasuna niri aitortzeko. A, nire eztarria!

— Ruth, hobe zenuke X izpien tratamendua uztea... Entzunda daukat oso arriskutsua dela. Ez zaitut larritu nahi, laztana... baina entzun dudanez, tratamendu horren eraginez minbizikasua gertatu izan dira.

— Hori bai txorakeria, Billy!... Hori gertatzen da X izpiak behar bezala erabiltzen ez badira, soilik orduan, eta gainera, denbora luzean egon behar da haien eraginpean. Ez, nire iritziz, Dr. Warner gizon fidagarria da.

Geroago, metro espresoan eserita, Ruthen artean sentitzen zuen haren esku leuna bere eskularrua ferekatzen.

— Adio, neskato, Jainkoak bedeinka zaitzala —esan zuen supituki.

«Ziur nagon munduko aktorerik kaskarrena izan dela...». Ruthen baitan zerbait isekari ari

zen une oro. «Jainkoari esker, ez din inoiz horren berri izango...». Bere hegal zabal malguarekiko kapela astindu eta zetazko ile zuria inarrosi zuen, *Monsieur Beaucaire* antzezpenean parte hartuko balu bezala. Gero, bira egin eta Broadwayko jendetzaren artean desagertu zen. «Nik ez dinat zorterik izango, baina oraindik ez naun mutur horretara iritsi... Minbizia, esan din». Ruthek ezker-eskuin begiratu zien aurrean zituen bidaiari erdi lokartuei. «Hauetako batek gutxienez eduki behar din». BOSTETIK LAUK DAUKATE... «Bai ergela, hau ez dun minbizia eta». EXLAX, NUJOL, O'SULLIVAN'S... Ruthek eskua eztarriaren inguruan ezarri zuen. Eztarria oso handituta zeukan, eztarriak pilpira egiten zion, oso azkar. Agian okerrago zegoen. «Haragian hazten den zerbait bizia dun, bizitza jaten duena, oso gaizki, ustelduta uzten duena...». Beraren aurrean eserita zeudenek begirada finkaturik zuten: gizon-emakume gazteak ziren, jende heldua, aurpegi berdeak argi zurbilaren eta kartel hitsen azpian. bostetik lauk... Gorpuen kargamentu bat zabuka zihoan, Laurogeita Hamaseigarren Kalerantz orroka zihoan espresoaren triki-trakaren doinu-

pean. Laurogeita Hamaseigarren Kalean beste tren bat hartu behar zuen.

Dutch Robertson Brooklyngo zubiko jarleku batean eserita zegoen, bere longain militarren lepoa jasota eta egunkari bateko lan sailari so. Arratsalde hartan lainoa trinko-trinkoa eta itogarria zen. Ura zorrotadaka zeriola, zubia zut ageritzen, baporeen adar-hotsen lorategi sarri bateko zuhaitza bezala. Bi marinel igaro ziren handik. «Buenos Aires-en egon nintzenetik ez diat halako zorterik izan».

Bazkidea, antzoki-zinema, auzo jendetsua... baimen guztiak jasota... 3.000 dolar... «Nik ez ditiat hiru mila dolar...». Estankoa, eraikin jendetsua, nahitaezko sakrifizioa... Musika eta irrati denda erakargarria, ondo atondua... jendetsua... Moldiztegi modernoa, ertaina, zilindroez, Kelleyez, Miller elikagailuez, prentsa txikiez, linotipomakinez eta koadernatze-tailer oso batez hornitua... Kosher jatetxe eta janaridenda... Bolatokia... leku jendetsua... Dantzarako areto handia eta beste gela batzuk. ORDEZKO HORTZAK EROSTEN

DITUGU, urrea, platinoa, antzinako bitxiak. «Ze urre, ze bitxi eta ze bitxiondo! Hori sinesten duenik ez zagok». LAGUNTZAILEA BEHAR DA, GIZONA... «Hau nire asmoetatik hurbilago zagok». Eskribauak, lehen mailako idazlariak... «Ezinezkoa!»... Artista. Laguntzailea. Autoa. Bizikletak eta motozikletak konpontzeko tailerra... Gutunazal baten atzealdean helbidea idatzi zuen. Zapata-garbitzailea... «Oraindik ez. Mutila; ez, uste diat dagoeneko ez naizela mutila». Goxotegia, agenteak, auto-garbitzaileak, plater-garbitzailak. IRABAZI IKASTEN DUZUN BITARTEAN. Odontologia mekanikoa, biderik laburrena arrakasta eskurtzeko... Lan jarraitua, gorabeherarik gabea.

— Kaixo, Dutch... Uste nuen ez nintzela inoiz helduko.

Kapela gorria eta untxi-larrazko jaka grisa jantzirik zituen neska musu gris bat haren ondoran eseri zen.

— Jainko maitea, nazkatuta nago lan-eskaintzak irakurtzeaz.

Duthek besoak luzatu eta aharrausi egin zuen, egunkaria bere hanketatik behera erortzen zen bitartean.

— Ez al zara hotz hemen eserita, zubian?

— Baliteke... Goazen bazkaltzera.

Jauzi eginez Dutch Robertson zutitu egin zen eta sudur okertu meheko bere musu gorria neskarenari hurbildu zion. Beraren begi gris zurbilak neskaren begi beltzetan iltzatu ziren. Halako batean, Duthek zapladatxo batzuk jo zizkion, besoan.

— Kaixo, Francie... Zer moduz dago ene mai-teñoa?

Manhattanerantz itzuli ziren, neskak lehena-go erabilitako bideari jarraiki. Euren behealdean, ibaiak ñir-ñir egiten zuen ganduan zehar. Handik bapore handi bat igarotzen ari zen, poliki-poliki; argiak jadanik piztuta zituen.

Espaloiaaren ertzetik tximinia beltzei so egin zieten.

— Europara eraman zintuen itsasontzia hor-koa bezain handia zen, ezta Dutch?

— Handiagoa.

— Gustura joango nintzateke ni ere, arrano-pola!

— Egunen batean eramango zaitut eta hango leku guztiak erakutsiko dizkizut... Garai hartan,

baimenik gabe ihes egiten nuen eta leku pilo batean egon nintzen.

Tren jasoaren geltokira iritsita, zalantza egin zuten.

— Francie, sosik ba al duzu?

— Bai, dolar bat daukat... Baina biharko gorde nahi nuke.

— Nik quarter bat besterik ez daukat. Berrogeita hamabosna zentaboko bi afari hartuko ditugu jatetxe txinatar horretan... Hori dolar bat eta hamar izango da.

— Nickel bat gorde behar dut, bihar bulegora joateko.

— Kaka zaharra! Diru apur bat izango bage-nu...

— Oraindik ez duzu ezer aurkitu?

— Hala balitz, dagoeneko jakingo zenuke.

— Goazen, nik dolar erdi bat aurreztuta daukat neure gelan. Horrekin tranbia ordainduko dut.

Neskak dolarra aldatu eta bi nickel sartu zituen zirrikitutik. Hirugarren Etorbideko trenean eseri ziren.

— Aizu, Francie, alkandora kaki honekin utzi-ko didate dantza egiten?

— Zergatik ez, Dutch? Oso ondo zaude.

— Ez nago guztiz eroso.

Jatetxeko jazz taldea *Hindustan* jotzen ari zen. Chopsuey-k eta saltsa txinatarrak isuritako usaina nabaria zen. Berehala eseri ziren mahai batean. Ile distiratsuko mutilak eta adats laburreko neskak pega-pega eginda ari ziren dantzari. Esertzean, irribarreka begiratu zioten elkarri.

— Gose naiz.

— Benetan diozu, Dutch?

Duthek belaunak aurreratu zituen neskarenak ukitu arte.

— Zu neska ona zara —esan zuen zopa bukatzean—. Benetan diotsut, aste honetan lana aurkituko dut. Eta gero, gela polit bat aurkituko dugu eta ezkondu egingo gara eta hori dena.

Dantza egiteko altxatu zirenean, halako molde egiten zuten dar-dar, ezen nekez ibili baitziren erritmoari atxikitzeko.

— Jauna... ez egin dantzalik jantzi egokilik gabe —esan zuen gizon txinatar dotore batek, eskua Dutchen beso gainean ezarri zuela.

— Zer nahi duzu? —purrust egin zuen dantza utzi gabe.

— Alkandoraz ari dela uste dut, Dutch.

— Pikotara joan dadila!

— Nekatuta nago. Dena den, nahiago dut hitz egin dantzatu baino...

Euren mahaira eta postreko ananara itzuli ziren. Gero, Hamalaugarren Kalean zehar ibili ziren.

— Dutch, zure gelara joango gara?

— Ez dut gelarik. Sorgin zaharrak kalera bota nau eta ez dizkit nire gauzak bueltatu. Benetan diotsut, aste honetan lanik aurkitzen ez badut, erreklutatze-bulegora joan eta berrengaiatuko naiz.

— Ez, ez egin horrelakorik! Horrela ez gara sekula ezkonduko, Dutch... Zergatik ez didazu ezer esan?

— Ez nuen zu kezkatzerik nahi, Francie... Sei hilabete lanik gabe... Edonor erotzeko modukoa da.

— Baina Dutch, orain nora joango gara?

— Hortik zehar... Ontziraleku bat ezagutzen dut.

— Hau da hotza!

— Ni ez naiz hotz, zu nirekin zaudenean, maita.

— Ez hitz egin horrela... Ez dut atsegin.

Elkarren kontra bermaturik zihoazen ibaiertzeko kale ilun eta lupeztuetan barna, itzelezko gas-tangak, hesi eroriak eta hamaika leihodun biltegi luzeak atzean utziz. Kale-kantoi bateko farol baten azpian, mutil batek isekari txistu egin zien haien pasakeran.

— Muturra txikituko diat, putakumea halakoa! —bota zuen Duthek ahoa bihurkatuz.

— Ez iezaiozu erantzun —xuxurlatu zuen Franciek—, talde osoa gure gainean erortzea nahi ez baduzu.

Isil-isilik, hesi garai bateko ate txiki batetik sartu ziren; beste aldean, ohol pilo izugarriak zeuden. Ibaiak, zedro-zurak eta zerrautsak isuritako usainari antzeman zekiokkeen. Euren oin azpitik, ibaiak piloteak milikatzen zituen. Dut-

chek Francie berarengana erakarri zuen eta euren ahoak batu egin ziren.

— Aizue! Ez al dakizue ezin dela hona sartu gauez hori egiteko? —zaunka egin zien ahots batek. Zaindariak eskuargia haien begietarantz zuzendu zuen.

— Ongi da, egon lasai... Ostera bat egiten ari ginen.

— Bai zera!

Berriro kalera irten ziren. Ibaiko haize gozoak bisaia ferekatzen zien.

— Kontuz.

Bere baitan bildurik, polizia bat txistuka hurbildu zen. Lipar batez elkarrengandik bereizi ziren.

— O, Francie, *komi*-ra eramango gaituzte, horrela jarraitzen badugu. Goazen zeure gelara.

— Ugazabandreak bota egingo nau, badakizu.

— Ez dut zaratarik egingo... Zuk zeure giltza daukazu, ezta? Hanka egingo dut egunsentia baino lehen. Arraioa! Izurriduna banintz bezala sentiarazten naute.

— Tira, Dutch, goazen etxera, datorrena datorrela.

Eskailera lupeztu batzuetatik gora igo ziren, azken pisuraino.

— Erantzi zapatak —esan zion belarrira Franciek, giltza sarrailan sartzen zuen bitartean.

— Zuloak dauzkat galtzerdietan.

— Ez dio axola, txotxolo hori. Ikusiko dut dena ondo ote dagoen. Nire gela bukaeraldean dago, sukaldea atzean utzita. Hortaz, denak ohean badaude, ez digute entzungo.

Bakarrik geratu zenean, Duthek bere bihotzaren taupadak entzun zitzakeen. Neska lipar batez itzuli zen. Duthek behatz-puntetan jarraitu zion korridore kraskagilean zehar. Ate batetik zurrunga batzuk ateratzen ziren. Korridorean barazki eta lo usaina zegoen. Behin beraren logelara iritsiz gero, Franciek atea giltzaz itxi eta aulki bat haren kontra ezarri zuen, heldulekua-ren azpian. Errauts-koloreko argizko triangelu bat sartzen zen kaletik.

— O, Jainkoaren izenean, zaude isilik, Dutch.

Duthek, artean zapatak esku banatan zituela, estu-estu besarkatu zuen.

Francieren ondoan etzanda eta ezpainak haren belarriari erantsita, Dutch xuxurlaka ari zitzaion.

— Ikusiko duzu, Francie, nola egingo dudan aurrera. Ni European sarjentu izatera iritsi nintzen galoiak kendu zizkidaten arte, baimenik gabe alde egitearren. Horrek argi uzten du zerbait egin dezakedala. Aukerarik txikiena dudanean, diru-pilo bat irabaziko dut eta biok joango gara Chateau-Thierry, Paris eta leku horiek guztiak ikustera. Gustatuko zaizu, ikusiko duzu, Francie... Hiriak zaharrak, dibertigarriak eta lasaiak dira; han gozo sentitzen zara eta taberna paregabeak dituzte eta kanpoaldean eguzkitan eseritzen zara jendearen joan-etorriak ikusteko. Janaria ere ona da, behin horretara ohituz gero, eta ehundaka hotel daude gaurkoa bezalako gaue-tan joateko, eta ez dira arduratzen ezkondata zauden ala ez. Eta ohe handiak dituzte, guztiak ere zurezkoak eta oso erosoak eta gosaria ohera eramaten dizute. O, Francie, zeinen ondo pasatuko zenukeen!

Kale elurtuetan zehar afaltzera zihoazen. Elur-maluta handiak jira eta bira zebiltzan, haien inguruan kiribilka, kaleen erlantzean zipriztin urdinak, arrosak eta horiak txertatuz eta ingurumariak lausotuz.

— Ellie, amorrua ematen dit zuk lan hori onartu behar izateak... Zure karrerarekin jarraitu beharko zenuke.

— Baina Jimps, bizi egin behar dugu.

— Badakit... Badakit. Egia esanda, zu ez zinen zeure buruaren jabe, Ellie, nirekin ezkondu zinenean.

— O, ez dezagun gehiago hitz egin horretaz.

— Bota dezagun parranda bat gaur gauean... Lehenengo elurtea da.

— Hemen da?

Soto ilun bateko atera iritsi ziren. Atea engranaje zurruneke burdinsare batez babestuta zegoen.

— Ikusiko dugu.

— Txirrinak jo du?

— Baietz uste dut.

Barruko atea ireki zen eta amantal arrosako neska batek adi begiratu zien.

— *Bonsoir, mademoiselle.*

— *A..., bonsoir, monsieur, dame.*

Neskak gas-lanparez argiztatutako hall bate-ra eraman zituen, non janari-usaina nagusi baitzen. Berokiak, kapelak eta bufandak esekitokitatik dingilizka. Gortina batetik jatetxeak aurpe-gira bafada bero bat bidali zien. Hartara, hango giroan sumatu zituzten ogia, koktelak, gurin friji-tua, lurrinak, ezpainetakoak, kalapita eta berri-keta.

— Absenta-usaina dago —esan zuen Elle-nek—. Goazen mozkor eder bat harrapatzera.

— Hara! Hortxe dago Congo... Gogoan duzu Seaside Inn-eko Congo Jake?

Korridorearen bukaeran zutik zegoen, sendo, eurei keinuka. Aurpegi beltzarana zuen, bibote beltz dirdaitsu batez apaindurik.

— Kaixo Mr. Erf... Zer moduz?

— Primeran. Congo, emaztea aurkeztu nahi dizut.

— Sukaldean trago bat edango dugu, ados?

— Bai noski... Etxeko lekurik onena da... Zer dela-eta zabiltza herrenka?... Zer gertatu zaizu hankan?

— *Foutu...* Italian utzi nuen... Moztu eta gero ezin hona ekarri.

— Zer gertatu zen?

— Ezer ez, lelokeria bat. Mont Tomba-n gertatu zen... Nire koinatuak hanka artifizial on-on bat eman zidan... Eseri. Begira, anderea, zein da zein?

— Ez dakit —esan zuen Elliek barreka.

Marmolezko mahai txiki batean zeuden eserita, sukalde jendetsuaren zokoan. Erdialdean, neska bat platerak atontzen ari zen pinuzko mahai batean. Bi sukaldari lanean ari ziren sute-giaren gainean. Airean janari-usain koipetsuz blai zegoen. Congo herrenka itzuli zen erretilu txiki batean hiru edontzi zituela. Haiekin geratu zen edaten zuten bitartean.

— Salut —esan zuen edontzia gorantz jasoz—. Absenta-koktela, New Orleans-en bezala.

— Demasekoa da.

Congok txalekoaren poltsiko batetik txartel bat atera zuen.

MARQUIS DES COULOMMIERS

IMPORTAZIOAK

— Igoal egun batean zerbait beharko duzue. Gauza bakar batekin egiten ditut negozioak: gerra baino lehen inportatutako likoreekin. New Yorken ez dago ni baino «alkohol-banatzaile» hoberik.

— Egunen batean dirurik izanez gero, dudarik gabe, horretan gastatuko dut, Congo... Zer moduz negozioa?

— Oso ondo, kontatuko dizut. Gaur gauean oso lanpetuta nago... Orain mahai bat bilatuko dizuet jatetxean.

— Leku hau ere zurea da?

— Ez, nire koinatuarena.

— Ez nekien arrebarik zenuenik.

— Nik ere ez.

Congo handik herrenka aldendu zenean, euren artean isiltasuna erori zen, antzoki bateko amiantoazko oihala bailitzan.

— Oso morroi barregarria da —esan zuen Jimmyk irribarre behartu bat eginez.

— Bai, hala da.

— Aizu, Ellie, beste koktel bat edango dugu?

— Bai.

— Ea egunen batean «alkohol-banatzailei» buruzko pasadizo batzuk kontatzen dizkidan.

Hankak mahai azpian luzatzean Ellierenak ukitu zituen. Orduan, Elliek alde batera baztertu zituen bereak. Jimmyk bere masailezurra sentitzen zuen, murtxikatzen; hain karraska ozena egiten zuen masailen barruan, ezen pentsatu baitzuen Elliek ere entzun zezakeela. Ellie Jimmyren aurrean eserita zegoen, neurrira egingako jantzi gris bat soinean. Blusaren eskote tolesdunak osatutako bolizko V-tik lepoa sortzen zen; burua kapela gris zurrun baten azpian okertuta zeukan; ezpainak margotuak zituen. Hara-gia isil-isilik zatikatzen ari zen, ezertxo ere jan gabe.

— Kaka zaharra... eska dezagun beste koktel bat —esan zuen Jimmyk.

Jimmy paralizaturik sentitu zen, lokamuts batean bezala. Bere emaztea argi baten azpiko portzelanazko irudi bat begitantzen zitzaion. Aire freskoaren bolada bat, elurrak garbitua, ustekabean igaro zen jatetxearen giro lausoan zehar, janariak, edariak eta tabakoak sortarazitako

kiratsa ebakiz. Lipar batez Jimmyk Ellenen ilearen lurrina hartu zuen. Koktelak sutan zituen barnean. «Ene Jainkoa, ez nitek lurrera erori nahi zorabiatuta!»

Gare de Lyon zeritzon treneko jatetxean elkarren ondoan eserita zeuden, larru beltzezko jarlekuaren gainean. Bere masailek Ellenenak ukitzen zituzten, haren platerean sardinzarrak, gurina, sardina, antxoak eta saltxitxoia ipintzeko makurtu zenean. Azkar asko jaten zuten, irensiten zuten, barre egiten zuten, ardoa barra-barra edaten zuten, makinaren txistukadak entzutean asaldatu egiten ziren...

Trena Avignon-etik zetorren. Biak esnatu egin ziren eta elkarri begietara so egin zioten, lozorroan zurrunka ari ziren bidaiarien konpartimentu betearen barruan. Jimmyk hanka nahaspilatuen artetik aurrera egin zuen, zigarro bat erre nahi baitzuen korridore kulunkari eta ilunaren muturrean. Triki-traka, hegoalderantz, triki-traka, hegoalderantz, gurpilak kantuan ari ziren errailen gainean Rodano-ko bailaran gaindi. Leihoan bermaturik, zigarro apurtu bat erretzen ari zen, edo hobeto esanda, horretan ari zen

ahaleginetan, hatz batez zigarroak zuen zulo bat estaliz. Glub-glub, glub-glub, sasietatik, burdinbidearen bi aldeetako makal zilarreztatuetatik. «Ellie, Ellie, txantxangorriak kantatzen ari dira trenbidean zehar». «O, lo nengoen, maitea». Ellen itsumustuan hurreratu zitzaion, lo zegoen jendearen zangoetan estropezu eginez. Elkarren ondoan zeuden leihoan, korridore kulunkari eta zalapartatsuan.

Triki-traka, hegoalderantz. Burdinbidearen makal zilarreztatuetako txantxangorrien auhenak. Ilargibeteko gau zoro hodeitsu hartan, lora-tegiek, berakatzak, ibaiek eta arrosa-eremu simaurtu berriek isuritako usainak nahasten ziren. Txantxangorrien auhenak.

Panpina hura, Ellen, aurrean zuen hizketan.

— Otarrain-entsalada bukatu dela dio... Ez al da gogaikarria?

Halako batean, Jimmyk mintzatzeko ahalmena berreskuratu zuen.

— Ene Jainkoa! Hori bakarrik balitz!

— Zer esan nahi duzu?

— Zergatik itzuli ote gara hiri zikin honetara?

— Hona etorri ginenetik hiri hau laudatu besterik ez duzu egin.

— Badakit... Agian ez nago aldarte onez... Beste koktel bat edango dut... Ellie, Jainkoaren izenean, zer gertatzen zaigu?

— Horrela jarraituz gero, gaixotu egingo gara, benetan diotsut.

— Ondo, gaixotu gaitezen... Zintzoak izan eta gaixotu gaitezen.

Ohe handian eserita, portua ikus zezaketen, bai eta belaontzi bat, bailandra txiki zuri bat eta jostailu baten moduko atoiontzi gorri-beltz bat ere. Era berean, beste aldean etxe soil batzuk ikus zitzaketen, eta harantzago ur-zerrenda bat, paumaren isatsaren antzean. Oheratzean, antxetak ikusten zituzten zeruan. Ilunabarrean egokiro jantzi ziren eta, artean logaleak jota eta dardarati, hoteleko korridore hezeetan zehar estropozuka atera ziren txaranga bezain zala-partatsu ziren kale haietara; han dena zen kanpai-hotsa, brontzezko dirdira, kristalezko isla, bozina-hots, motore-urruma... Biak bakarrik ilunabarrean xereza edaten ari ziren hosto zabaleko platanondo baten azpian, biak bakarrik jende-

tza nabarraren artean, ikustezinak bailiran. Eta udaberriko gau hura, itsasotik sortua, euren inguruan paratua zen. Gau afrikar hura...

Kafea bukatua zuten. Jimmyk oso astiro edana zuen berea, amaitzean oinazeren bat zain izango balu bezala.

— Beldur nintzen Barney-tarrak hemen topatuko ote genituen! —esan zuen Ellenek.

— Leku hau ezagutzen dute?

— Zeuk ekarri zenituen hona, Jimps... Eta emakume gogaikarri hori hitz eta pitz gau osoan, umeak gora, umeak behera. Nik ez dut atsegin umeei buruz hitz egitea.

— Gustura joango nintzateke ni antzerkira.

— Berandu da, hala ere.

— Eta nik ez daukadan dirua xahutzea litzateke... eta bukatzeko, koñak bat nahi? Berdin dio porrot eginda uzten bagaitu.

— Hala utziko gaitu eta modu batean baino gehiagotan.

— Topa dezagun zure alde, Ellie, gizon zuria-
ren zama garraiatzen duen emakume langilea-
ren osasunaren alde.

— Jimmy, uste dut jostagarria izango dela argitaletxe batean bolada batean lan egitea.

— Edozein lan egitea izango litzateke jostagarria niretzat... Tira, nik beti badut etxean gertatzea eta umeak zaintzea.

— Ez izan hain ezkorra, Jimmy, hau bolada baterako besterik ez da.

— Bizitza bezalaxe.

Taxia gelditu egin zen. Jimmyk bere azken dolarraz ordaindu zion. Elliek giltza sarrailean sartu zuen. Kalea absentak lausotutako elur-zirimola zen. Gelako atea haien atzean itxi zen. Aulkiak, mahaiak, liburuak eta gortinak metatzen ziren haien inguruan, tristerik, atzoko, herenegungo, herenegunaren aurreko hautsa jantzirik. Bi-biak estuturik zeuden, haur-oihalak, kafe-ontziek, idazmakinen olioak eta garbitzeko hantsek isuritako usainaren eraginpean. Ellenek kanpora atera zuen esne botila hutsa eta ohera joan zen. Aurreko gelan, Jimmy harat-honat zebilen, artega. Mozkorra pasatu egin zitzaion eta hotz geratu zen, guztiz hotz eta buru argi. Burmuinaren hutsunean bi aldetako hitz batek txin-

txin egiten zion txapona bailitzan. Arrakasta-Porrota. Arrakasta-Porrota.

*Harry nitaz zeharo maiteminduta dago
eta ni Harryz zeharo maiteminduta nago.*

Lelo hori ahapeka zerabilen neska batek, dantza egiten zuen bitartean. Aretoa luzea zen, orkestra atzealdean zuen eta erdialdean zintzilikatutako argi elektrikoen bi sortak argiztaturik zegoen, paperezko girnalden artetik. Mutur batean, atetik hur, baranda bernizatuak gizonilarari eusten zion. Annarekin dantzan ari zena suediar garai eta sendo bat zen; oin luzeak baldarki higitzen zituen Annaren oin txiki arin bizen atzetik. Musika gelditu egin zen. Gero, ile beltzeko judu txiki eta argal baten txanda izan zen. Neskarekin estu-estu dantza egiten saiatu zen.

— Hori ez.

Annak judua pixka bat atzerantz bultzatu zuen, gain-gainetik kendu nahirik.

— Erruki zaitez, mesedez.

Erantzunik ez, eta zehaztasun hotzaz jarraitu zuen dantzan; neka-neka eginda zegoen.

Ni eta nire senargaia.

Nire senargaia eta ni.

Italiar batek ahoko berakatz-bafada bat bota zion aurpegira; itsas armadako sarjentu bat; greziar bat; mutil gazte ilehori musugorri bati Annak irribarre egin zion; gizon heldu mozkor bat hari musu emateko ahaleginetan... *Charley my boy o Charley my boy...* adats distiratsuak, adats nahiak, oreztak, aurpegi pikortatsuak, sudur zapalak, sudur zuzenak, dantzari arinak, dantzari astunak... *Goin souf... Wid de taste o de sugarcane right in my mouf...* Haren bizkarraren kontra esku handiak, esku beroak, esku izerditsuak, esku hotzak... dantzaldi bakoitzeko fitxa bat jasotzen zuen; dagoeneko ukabila beterik zeukan. «Honek baltsea oso ondo dantzatzen din eta oso dotore zagon bere jantzi beltzarekin».

— Neka-neka eginda nago —xuxurlatu zuen Annak.

— Ni ez naiz sekula nekatzen dantza egiteaz.

— Jende guztiarekin horrela dantza egiteagatik da.

- Nahi al duzu biok bakarrik dantza egitea inon?
- Senargaia bila etorriko zait.

*Argazki bat baino ez,
nire arazoen berri emateko...
Zer egingo dut nik?*

— Zer ordu da? —galdetu zion Annak lotsaga-be-itxurako gizon sendo bati.

— Elkarren arteko harremanak estutzeko, arrebatxo...

Annek buruaz baietz egin zuen ironikoki. Halako batean, musikak eztanda egin zuen *Auld Lang Syne* jotzean. Neska gizonarengandik aldendu eta barrara joan zen lasterka; bertan, makina bat neska multzoka zegoen, elkarri ukondoka, euren fitxak lehenbailehen itzuli guran.

— Aizu, Anna —esan zuen aldaka zabaleko neska ilehori batek—, ikusi duzu nirekin dantzan ari zen morroi hori? Bat-batean, hona zer esan didan: «Berriro ikusiko zaitut?», eta nik erantzun

diot morroiari: «Infernuan»... eta gero, berak
esan du: «Alajaina!»

Hirugarren atala

Ate birakariak

*Ilunabarrean, ipurtargi-trenak han-
hemenka zebiltzan lainoan murgildu-
ta, zubi amaraunduen zilueten arte-
tik. Igogailuak gora eta behera. Por-
tuko argiak keinuka.*

*Lehenengo izoztaldietako izerdiaren
antzera, bostetan, apurka-apurka
erdialdeko eraikin garaietatik gizon-
emakumeak isurtzen hasi ziren.*

*Gizatalde handi zurbilak metro-zulo-
etan eta tuneletan sartu eta lurpean
desagertzen ziren.*

*Eraikin handiek isilik eta hutsik ema-
ten zuten gau osoa; euren milioika
leihoek, berriz, ilun. Argia zeriela,
ferryek bidea irensten zuten, portu
lakatuan zehar. Gauerdian, lau txi-
miniadun transatlantiko espressoak
euren ontziraleku argitsuetatik itsa-
soratu eta ilunpean pulunpatu ziren.*

*Ezkutuko bilerez unaturik eta begiak
makartsu, bankariek atoiontzien
uluak entzuten zituzten, zaindari lin-
ternadunek aldeetako ateak ireki-
tzean. Bankariak purrustadaka koka-
tzen ziren euren limusinen atzeko
jarlekuetan eta Berrogeitakagarren
Kalearen ingurura azkar hurbiltzen
ziren; hango kaleak kalapitatsuak
ziren eta denetariko argiak zituzten:
ginebra bezain zuriak, whiskya
bezain horiak, sagardoa bezain bur-
builatsuak.*

Apaintze-mahaian eserita, Rosie ilea txirikor-
datzen ari zen. Beraren ondoan, malba koloreko
tiranteak fraka dotoreetatik dilindan zituen gizon
bat alkandoraren diamantezko mahuka-bikiak
lotzen ari zen.

— Jake, honetatik kanpo egon nahi nuke —
purrust egin zuen ahoan zituen urkilen artetik.

— Nondik kanpo?

— Prudence Promotion Company-tik... Bene-
tan diotsut, kezkatuta nago.

— Baina dena primeran doa. Nichols-i ziria sartu behar diogu, horixe da dena.

— Jo dezagun auzipetu egiten zaituela.

— Ez, ez du horrelakorik egingo. Diru asko galduko luke. Gurekin elkartzea komeni zaio... Gainera, astebete barru esku-dirutan ordainduko diot. Dirua daukagula pentsaratzen badiogu, txoritxo baten modura etorriko da gure eskuetan jatera. Ez al zuen esan El Fey-n izango zela gaur gauean?

Rosiek apain-orrizi bat ipini berria zuen bere ile beltzezko mototsean. Baietz egin zuen buruaz eta zutitu egin zen. Aldaka zabaleko emakume mardula zen; begi handi beltzak eta oso bekain kakotuak zituen. Farfail horiz apaindutako kortsea eta zeta arrosazko alkandora zituen jantzirik.

— Jantzi zeuk duzun onena, Rosie. Gabonetako zuhaitz baten modura jantzita egon zaitezen nahi dut. Gaur gauean El Feyra joango gara eta Nichols liluratuta utziko dugu, eta bihar proposamena egingo diot... Tira, lehenago edan dezagun zerbeit... —Telefonoa hartu zuen—. Izotz xehatua eta botila pare bat White Rock igo ditzatela

lau zero lau gelara. Silverman dut izena. Azkar-
txoago.

— Jake, hanka egin dezagun hemendik! —
oihu egin zuen Rosiek bat-batean. Zutik zegoen,
armairutik hurbil, jantzi bat beso gainean zera-
mala—. Ezin dut honelako urduritasunik jasan...
Hau bai oinazea!... Alde egin dezagun Parisera
edo Habanara eta has gaitezen berriro.

— Eta handik itzalpera zuzenean. Iruzurraga-
tik estraditatzten dute jendea. Ez duzu nahi izan-
go nik bizitza osoa ematea betaurreko beltzekin
eta gezurrezko papiloteekin, ezta?

Rosiek barre egin zuen.

— Ez dut uste oso itxura ona izango zenukee-
nik horrelako moztorro batekin... O, benetan
ezkonduta bageunde sikiera!

— Gure artean ez dago desberdintasunik,
Rosie. Gainera, bigamiagatik jazarriko ninduke-
te. Zoragarria izango litzateke.

Mandatu-mutilak atean jotzeaz batera, hotzi-
kara batek zeharkatu zuen Rosieren soina. Jake
Silvermanek erretilua hartu zuen, han katilu
batean izotz-puska batzuek tintin egiten baitzu-
ten, eta idazmahaiaren gainean ezarri zuen.

Gero, armairu batetik whisky botila karratu bat atera zuen.

— Ez iezadazu ezer prestatu niri. Ez dut ezer edateko gogorik.

— Indarberritu behar duzu, laztana. Tira, dotore-dotore jantzi zaitez eta goazen antzoki batera. Zer arraio, makina bat aldiz egon naiz hau baino egoera larriagoetan! —edontzia eskuan hurbildu zen telefonora—. Kioskoarekin, mesedez... Kaixo, laztana... Zuk aspaldi ezagutzen nauzu, bai noski... Aspaldiko laguna nauzu... Aizu, lortuko dizkidazu bi jarleku *Follies*-ak ikusteko?... Ez, zortzigarren ilaratik atzera ez... Zu bai neska paregabea!... Eta deitu hamar minutu barru, konforme laztana?

— Aizu, Jake, egia al da boraxa dagoela laku horretan?

— Bai, noski. Ez al dugu lau adituren egiaztagiria?

— Badakit. Galdera zen, ez besterik... Aizu, Jake, honetatik irteten bagara, hitz eman behar didazu ez zarela gehiago sartuko horrelako kontu arraroetan.

— Bai, noski. Ez dut horren beharrik izango...
Zu bai neska puska, soineko horrekin! Arranopola!

— Gustatzen zaizu?

— Brasildarra ematen duzu... ez dakit... tropikala edo.

— Horixe da nire xarma arriskutsuaren giltzarria.

Telefonoak bortizki jo zuen. Jauzi bat eginez altxatu ziren. Rosiek ezpainak estutu zituen eskugainaz.

— Bi laugarren lerroan. Oso ondo... Segituan jaitsiko gara eta jasoko ditugu... Begira, Rosie, ezin zara gehiago asaldatu horrela; zure erruatik ni ere urduri jartzen ari naiz. Egon lasai, ados?

— Goazen zerbait jatera, Jake. Egun osoan esnea besterik ez dut edan. Pisua galtzeko ahaleginetan ari nintzen baina utzi egingo dut. Nahikoa argalduko naiz larritasun honekin.

— Aski da, Rosie... Neure onetik ateratzen ari naiz.

Atondoko lore-saltokiaren aurrean gelditu ziren.

— Gardenia bat nahi dut —esan zuen Jakek.

Paparra harrotu eta irribarre egin zuen, salto-kiko neskak lorea ipini zionean jakaren botoizuloan.

— Eta zuk zer nahi duzu, laztana? —galdetu zion arranditsu, Rosierengana jiratzan zela.

Rosiek maina bat egin zuen.

— Ez dakit zerk emango lukeen ondo soineko honekin.

— Sarrerak jasotzera noa, erabakia hartzen duzun bitartean.

Jake berokia zabalik jiratu egin zen bere papar harrotua eta bere esku lodietan zehar luze ageri ziren alkandoraren eskumuturrak erakusteko eta ibilera arranditsuz jo zuen kioskorantz. Saltokiko neska arrosa gorrien zurtoinak aluminio-paperean biltzen ari zen bitartean, Rosiek Jakeri zeharretik begiratu zion. Jake aldizkari batzuen aldera makurtuta zegoen, kioskoko neska ilehoriari ume-hizkeraz eleka. Pozarren zetorren billete-sorta bat eskuetan zekarrela. Rosiek orratz batez josi zituen arrosak bere larruzko berokian, besotik heldu zion eta ate

birakaritik irten ziren gau elektriko hotz distiratsura.

— Taxi! —egin zuen ulu.

Jantokian nabari zen ogi xigortuak, kafeak eta New York Times egunkariak isuritako usaina. Marivale-tarrek gosaria hartzen ari ziren argi elektrikoaren pean. Elurbustiak leihoen kontra jotzen zuen.

— Bada, Paramount-ek bost puntu gehiago egin ditu beherantz —esan zuen Jamesek egunkariaren atzetik.

— O, James, ez zaitez horren gogaikarria izan —kexatu zen Maisie, oiloen modura zurrutada laburrak egiten zituen bitartean.

— Eta gainera —esan zuen Mrs. Merivale—, dagoeneko Jack ez dago Paramount-ekoekin. Publizitatea egiten ari da Famous Players-etarako.

— Bi aste barru etorriko da ekialdera. Berak dioenez, espero du urte hasierarako hemen egoitea.

— Telegrama gehiagorik jaso zenuen, Maisie?

Maisiek baietz egin zuen buruaz.

— James, zuk dakizunez, Jackek ez du sekula gutunik idazten. Beti telegramak bidaltzen ditu —esan zion Mrs. Merivalek bere semeari egunkarian zehar.

— Egia da etxea lorez betetzen digula, hori ezin da ukatu —purruts egin zuen Jamesek egunkariaren atzetik.

— Beti telegrafoz —esan zuen Merivalek garaile.

Jamesek egunkaria utzi egin zuen.

— Tira, espero dut dirudien bezain morroi ona izatea.

— O, James, nazkagarria zara Jackekin... Ez zenuke horrela jokatu beharko.

Maisie altxatu eta gortinen artetik desagertu zen, egongelan.

— Tira, uste dut eskubidea dudala nire koinatua izango denari buruz iritzia emateko —murmurikatu zuen.

Mrs. Merivale bere alabaren atzetik joan zen.

— Etorri eta bukatu gosaria, Maisie. Beti adarra jotzen ari da.

— Ez diot utziko Jacki buruz horrela hitz egingen.

— Baina Maisie, nik uste dut Jack zoragarria dela —beso batez bere alaba inguratu zuen eta berriro mahaira eraman zuen—. Hain da zintzoa... eta badakit nik asmo onak dituela... Ziur nago zoriontsu egingo zaituela.

Maisie berriro mainak egiten ari zela eseritzen bere kapelaren begizta arrosaren azpian.

— Ama, beste kikara bat kafe hartzea ba al dut?

— Laztana, badakizu ez dituzula bi kikara hartu behar. Dr. Fernald-ek esan du horrexek jartzzen zaituela horren urduri.

— Apur bat besterik ez, ama. Arina, mesedez. Opil hau bukatu nahi dut eta, horretarako, zerbait edan beharra daukat eta zuri ez zaizu gus-tatzen ni gehiago argaltzea.

Jamesek bere aulkia baztertu eta Times egunkaria besapean zuela irten zen.

— Zortzi eta erdiak dira, James —esan zuen Mrs. Merivalek—. Ordubete edo ematen du hor barruan, behin egunkariarekin sartuz gero.

— Orain —esan zuen Maisiek haserre— ohera noa berriro. Uste dut lelokeria dela denok jaikitzea gosarirako. Gure mailako jendeak dagoeneko ez du horrelakorik egiten, ama. Perkins-tarren etxean, bati gosaria ohera eramaten diote, erretilu batean.

— Baina Jamesek bederatzietan egon behar du bankuan.

— Hala ere, besteok ez dugu zertan ordu horretarako jaiki. Horregatik dauka jendeak aurpegia zimurrez beterik.

— Baina afaltzeko ordura arte ez genuke James ikusiko. Atsegin dut goiz jaikitzea. Goiza egunaren parterik ederrena da.

Maisiek aharrausi egin zuen, etsian.

James halleko atean agertu zen, eskuila bere kapelan zehar zerabilela.

— Zer egin duzu egunkariarekin, James?

— Hortxe utzi dut.

— Nik hartuko dut, lasai... Laztana, gorbatako orratza okertuta daukazu... Utzidazu ondo ipintzen... Oraintxe.

Mrs. Merivalek eskuak bere semearen sorbaldeen gainean ipini zituen eta aurpegira begiratu

zion. Jamesek marra berde argiekiko jantzi gris ilun bat zuen, bai eta urrezko orratzarekiko puntuzko gorbata oliba-berde bat eta lauki beltzekiko artilezko galtzerdi oliba-berde batzuk ere. Orobat, Oxford tankerako zapata gorri ilunak ere bazituen; lokarriak aska ez zekizkion, korapilo bikoitzaz lotuta zeuden, kontu handiz.

— James, ez duzu makilarik eraman behar?

Behin artilezko bufanda berde-oliba lepoaren inguruan ezarrita, neguko beroki marroi iluna janzteari ekin zion.

— Ohartu naiz gazte jendeak ez duela makilarik eramaten, ama... Agian uste dute apur bat... Ez dakit...

— Hala ere, Mr. Perkinsek loro-buru bat kirtentzat duen makila bat eraman ohi du.

— Bai, baina bera da lehendakariordeetako bat, eta nahi duen guztia egin dezake... Tira, lasterka alde egin beharra daukat.

James Merivalek azkar musu eman zien bere ama eta arrebari. Igogailuan sartzean eskularruak jantzi zituen. Burua makurturik, di-da aurre egin zion elurbustiari Hirurogeita Hamabigarren Kalean zehar. Metroaren sarreran *Tribune*-a

erosi zuen eta bultzaka jaitsi zen eskaileretan behera, nasa jendetsu eta kirasturaino.

«Chicago! Chicago!» irteten zen borborka gramofono itxitik. Jantzi beltz oso estu batean bildurik, Tony Hunter ile hori bizia sorbaldetaraino zuen neska batekin lirain ari zen dantzan. Bakarrik zeuden hoteleko egongelan.

— Laztana, oso dantzari ona zara —urruma egin zuen neskak gero eta hurbilago.

— Zuk uste, Nevada?

— Umm... Ez duzu ezer berezirik sumatunigan, laztana?

— Zer, Nevada?

— Ez duzu ezer berezirik sumatu nire begietan?

— Munduko begitxorik ederrenak dira.

— Bai, baina bereizgarri bat dute.

— Zer esan nahi duzu? Bat berdea eta bestea grisa dituzula?

— Ene, nola konturatu den alproja hau!

Neskak ahoa eskaini zion. Tony Hunterrek musu eman zion. Diskoa bukatu egin zen. Biak lasterka joan ziren diskoa gelditzera.

— Hori ez da musua izan —esan zuen Nevada Jonesek, ile-kizkurak begi paretik kentzen ari zela.

Shuffle Along kanta ipini zuten.

— Aizu, Tony —esan zuen, berriro dantzari ekin ziotenean—, zer esan zizun psikoanalistak atzo?

— O, ezer askorik ez. Hitz egin genuen, ez besterik —esan zuen hasperenka—. Uste du dena irudimena dela. Neska gehiago ezagutu behar nituela esan zidan. Jatorra da, baina ez daki zer esaten duen ere. Ezin du ezer egin.

— Apustu egingo nuke nik bai egin nezakeela zerbait.

Dantza utzi eta elkarri begiratu zioten. Masailak sutan zeuzkaten.

— Zu ezagutzea, Nevada —esan zuen halako doinu errukarri batez—, garrantzitsuagoa izan da niretzat... Zu hain zara zintzoa nirekin... Jende guztia beti izan da hain gorrotagarria...

— Ez zaitez horren serio jar.

Nevada pentsakor aldendu zen eta gramofonoa gelditu zuen.

— Txantxa ederra Georgerentzat.

— Sentitzen dut bene-benetan. Hain jatorra izan da... Eta azken batean ezin izango nioke sekula ordaindu Dr. Baumgardt-i.

— Berak du errua. Tentel hutsa da... Jai dauka, uste du ni eros nazakeela hotel bateko gela bat eta antzokiko sarrera batzuk eskainita. Baina benetan diotsut, Tony, sendagile horrekin jarraitu behar duzu. Glen Gaston-ekin mirariak egin ditu... Hogeita hamabost urtera arte uste zuen ez zela sekula aldatuko, eta azken bolada honetan entzun dut ezkondu egin dela eta bikiak dituela... Tira, orain emaidazu benetako musu bat, laztana. Horrela... Goazen pitin bat gehiago dantza egitera. Zein ondo egiten duzun dantza! Zu bezalako mutil guztiek ondo egiten dute dantza. Ez dakit zergatik izango den...

Halako batean telefonoaren hotsak gela ebaki zuen, zerra baten antzera. «Nor da?... Bai, Miss Jones naiz... Noski, George, zure zain nago...». Telefonoa eseki zuen.

— Ai ene! Alde egizu, Tony, azkar. Geroago deituko dizut. Ez erabili igogailua, gorakoan topatuko zenuke bestela.

Tony Hunter desagertu egin zen. Nevadak *Baby... Babe* *Deevine* ipini zuen gramofonoan eta urrats luzeak eginez hasi zen gelan zehar ibiltzen, aulkiak egokiro kokatzen, bere kizkur labur zurrinak atontzen.

— O, George, uste nuen ez zinetela etorriko... Zer moduz, Mr. McNiel? Ez dakit zergatik nagoen gaur hain urduri. Uste nuen ez zinetela sekula etorriko. Zerbait afalduko dugu. Goseak amorratzen nago.

George Baldwinek onddo-kapela eta makila zokoko mahai baten gainean utzi zituen.

— Zer nahi duk hik, Gus? —esan zuen.

— Nik beti bildots-txuleta eta patata-erre bat jaten ditiat.

— Nik esnea galletekin besterik ez diat hartuko, gaizki nagok sabeletik egun hauetan... Nevada, *highball* bat prestatuko duzu Mr. McNielentzat?

— Tira, ideia ona duk, George.

— George, niretzat eskatu otarrain erdi bat egosita eta aguakate-entsalada bat! —oihu egin zuen Nevadak bainugelatik, han izotza zatikatzen ari baitzen.

— Nevada izugarria duk otarrain-kontuetarako —esan zuen Baldwinek barreka, telefonoz deitzera zihoala.

Nevada bi *highball* erretilu batean zekartzala etorri zen bainugelatik; lepoaren inguruan bufanda gorri eta berde-papagai bat ipinia zuen.

— Guk biok edaten dugu, ez beste inork, Mr. McNiel... Georgek ura baino ezin dezake edan. Medikuaren aginduak.

— Nevada, nahi duzu nirekin etorri musikal batera arratsaldean? Buruhauste pilo bat kendu nahi dut burutik.

— O, niri arratsaldeko saioak asko gustatzen zaizkit! Ardura al dizu Tony Hunter eramaten badugu? Telefonoz esan dit oso bakarrik zegoe-la eta hona etorri nahi zuela gaur arratsaldean. Aste honetan ez du lanik egiten.

— Ongi da... Nevada, barkatu, baina Mr. McNielek eta biok zerbaiti buruz hitz egin behar

dugu apur batean. Hementxe bertan, leiho ondoan. Bazkalordua iritsita utzi egingo dugu.

— Ederki, ni arropa aldatzera noa.

— Eseri hemen, Gus.

Eseri eta gero, isilik geratu ziren lipar batez, erdi eginda zegoen eraikin baten habe-egitura gorriari leihotik begira.

— Tira, Gus —esan zuen bat-batean Baldwinek zakar—. Azkenean aurkeztu egin nauk.

— Oso ondo George, hi bezalako jendea behar diagu.

— Hautagai-zerrenda erreformistan aurkeztuko nauk.

— Bai zera!

— Neuk esan nahi nian, Gus, hik beste non-baitetik jakin baino lehen.

— Nork hautatu behar hau hi?

— Ez nagok bakarrik... Prentsa alde izango diat.

— Zer prentsa eta zer prentsaondo...! Guk boto-emaleak ditiagu alde... Baina, arraioa, niga-tik ez balitz, hi ez hintzateke barrutiko fiskala izango.

— Bazakiat hi beti lagun ona izan haudala eta espero diat hala izango dela aurrerantzean ere.

— Sekula ez zioat inori bizkarra eman; baina, George, mundu honetan dena duk hartu eta ematea, etengabe.

— Tira —eten zuen Nevadak, dantza-urrats laburrak eginez haienganantz zihoala, zeta arrosazko soineko batekin—. Oraindik eztabaidan ari zarete ala?

— Amaitu dugu... —purrust egin zuen Gusek—. Esaidazu, Miss Nevada, nondik atera duzu izen hori?

— Reno-n jaio nintzen... Nire ama hara joan zen dibortzioa lortzera... Jainko maitea, zein triste zegoen!... Momentu ederrean sortu nintzen mundura.

Anna Cohen zutik zegoen salmahaiaren atzean, new yorkeko sandwichik onena zioen kartel baten azpian. Oinak minbera zeuzkan, bere zapata zorrotz takoi higatudunetan sarturik.

— Uste dut laster izango direla hemen, bestela egun osoa galdurik —esan zuen haren ondolan sodak zerbitzatzen zituen zintzur-sagar nabarmeneko gizon musugorri batek—. Beti trumilka etortzen dira.

— Bai, badirudi guztiei gauza bera bururatzzen zaiela aldi berean.

Beirazko tabikearen beste aldetik ikusten zituzten metroan bultzaka sartzen eta irteten ari zen jendearen ilara amaigabeak. Halako batean, Anna salmahaitik aldendu eta gaizki aireztatutako sukaldera joan zen, non emakume zahar gizen bat labea garbitzen ari baitzen. Zoko batean ispilu bat zegoen, iltze batetik dilindan. Esekitokiko bere berokiaren poltsikotik, Annak aurpegirako hauts-kutxa bat atera zuen eta sudurra hautseztatzen hasi zen. Instant batez, ispiluari eutsi eta bere begitarteari so egin zion, bekokiko bere ile-xerloei eta bere adats leun ilun nahaspilatuari erreparatuta. «Emakume judu arrunta», esan zuen bere artean garraztasunez. Salmahaira azkar itzuli zen eta soilune koipetsudun gizon italiar lodi eta txiki batekin estropezu egin zuen, gerentearekin, alegia.

— Egunean zehar zeure burua apaintzen eta ispiluari begiratzen besterik ez dakizu ala?... Oso ondo, kalera.

Annak oliba bezain leuna zen aurpegi hartan finkatu zuen begirada.

— Gera al naiteke hemen eguna bukatu arte? —esan zuen totelka.

Baietz egin zuen buruaz.

— Esnatu, hau ez da apaindegia eta.

Anna bere lekura itzuli zen lasterka. Aulki bat bera ere ez zegoen libre. Neskak, mutil bulegariak, aurpegi griseko kontulariak...

— Oilasko-otarteko bat eta kikara bat kafe.

— Gazta-otarteko bat olibekin eta edontzi bat esne.

— Txokolatezko izozki bat.

«Arrautz-otarteko bat, kafea eta buñueloak». «Kikara bat salda». «Katilu bat oilo-salda bat». «Soda txokolatezko izozkiarekin». Jendea presa-ka jaten ari zen, elkarri begiratu gabe, begiak plateretan eta kikaretan iltzaturik. Aulkietan eserita zegoen jendearen atzean, zain zeudenak bultzaka hurbiltzen ziren. Batzuk zutik jaten ari ziren. Beste batzuk, ordea, salmahaiari bizkarra

emanda, kristaletatik eta HCNUL ENIL NEERG kar-
teletik jendeari begira, metroan bultzaka sartu
eta ateratzen ari baitzen, iluntasun berdekaran.

— Aizak, Joey, esaidak —esan zuen Gus McNielek bere aulki birakarian erdi etzanda, bere puruari ke-hodei eskerga bat zeriola—. Lagunok, zeren atzetik zabilzate hor Flatbush-en?

O'Keefek eztarria garbitu eta oinak herresta-
tu zituen.

— Bada, iraultza-batzorde bat osatu dugu.

— Bai, banengoan ba ni... Baina ez zenuten zertan Jostunen Dantzaldiari erasorik egin.

— Nik ez nuen horrekin zerikusirik izan... Lagunak suminduta zeuden bakezale eta gorri horiekin guztiekin.

— Hori dena oso ondo egon zuan duela urtebete, baina jendearen iritzia aldatzen ari duk. Benetan esaten diat, Joe, herri honetako jendea nazkatuta zagok gerrako heroiez.

— Hor nonbait oso erakunde eraginkorra dugu.

— Bazakiat, Joe, bazakiat. Ez diat zalantzarik... Hala ere, pentsio-kontu horretan nik mantsoago jokatuko nikek... New Yorkeko estatuak bere eginkizuna bete dik beteranoekin.

— Hori egia hutsa da.

— Pentsioak zergak besterik ez dituk negozio-gizonentzat... Inork ez dik zerga gehiagorik nahi.

— Hala ere, gizonak euren eskakizunak lortzeko zorian daude.

— Denok sekula eskuratuko ez ditugun hamaika gauza lortzeko zorian gaudek... Jainkoaren izenean, ez pentsa esaldi hori nirea denik... Joey, hartu puru bat kutxa horretatik. Lagun batek Habanatik bidali zizkidaan itsas armadako ofizial baten bidez.

— Eskerrik asko, jauna.

— Tira, hartu lauzpabost.

— Eskerrik asko.

— Aizak, Joey, nori emango diozue zuek, lagunok, botoa udal hauteskundeetan?

— Ikusi egin behar da zein den jarrera orokorra beteranoen beharrianen inguruan.

— Aizak, Joey, hi ez haiz batere tentela...

— Etorriko dira, lasai... Neronek hitz egingo diet.

— Zenbat lagun dituk hortik zehar?

— Sheamus O'Rielly Post elkarteak hirurehun kide ditu eta egunetik egunera kopuru hori areagotuz doa... Leku guztietatik datoz kideak. Dantzaldi bat eta borrokaldi batzuk antolatu nahi ditugu koartelean Gabonetarako, boxeolaririk aurkitzen badugu.

Gus McNielek burua atzerantz bota zuen bere zezen-lepoaren gainean eta barre egin zuen.

— Primeran.

— Baina benetan diotsut, pentsioen kontu hori da gizonak elkarturik mantentzen dituen gauza bakarra.

— Eta ni gauren batean hara joaten banaiz eurekin hitz egitera?

— Oso ondo, baina gerran izan ez zirenak begitan hartuta dauzkate.

McNiel lotsagorritu egin zen.

— Gerratik etorri eta uste duzue den-dena dakizuela, ezta? —eta barreka hasi zen—. Honek gehienez urtebete edo bi urte iraungo dik. Kuba-

ko gerratik zetozenak ikusi nitian, ez ahaztu hori, Joe.

Bulegoko mutil bat sartu zen eta txartel bat utzi zuen idazmahaiaren gainean.

— Andre batek zurekin hitz egin nahi du, Mr. McNiel.

— Ondo, sar dadila barrura... Eskola-batzordeko atso madarikatu hori da... Tira, Joe, bueltatu datorren astean. Gogoan izango zaituztet hi eta hire armada.

Dougan bulegoaren kanpoaldean zain zegoen. Misteriotsu hurbildu zen.

— Zer, Joe, zer moduz?

— Ondo antzean —esan zuen Joek paparra puztuta—. Gusek esan dit Tammany gurekin egongo dela pentsioen kontu horretan... Kanpaina nazional handi bat prestatzen ari da. Puru batzuk eman dizkit, bere lagun batek Habanatik hegazkinez ekarriak... Nahi duzu bat?

Puru bana aho ertzean zeramatela, kementsu eta arranditsu zeharkatu zuten City Hall Square. Udaletxe zaharraren aurrean aldamio bat zegoen. Joek purua harantz zuzendu zuen.

— Horixe da Hiritarren Bertutearen estatua berria, alkatearen aginduz eraikia.

Sukaldeko lurrinak sabela gehiago uzkurtu zion, Child's-en aurretik igarotzean. Goiztiriak hauts fin grisa galbahetzen zuen burdinazko hiri beltzaren gainera. Dutch Robertsonek burumakur zeharkatu zuen Union Square, Francieren ohe beroa eta haren ilearen usain gozoa gogoan. Eskuak praken sakeletan hondoratu zituen. Txakur txikirik ere ez, eta Franciek ezin izan zion ezer eman. East alderantz jo zuen, Hamabosgarren Kaleko hotela atzean utzita. Gizon beltz bat eskailerak erratzaz garbitzen ari zen. Duthek bekaizkeriaz begiratu zion; «lana badik behintzat». Esne-bagoiak triki-traka pasatzen ziren handik. Stuyvesant Square-n, eskuetan botila bana zeraman esnezale bat Dutchen ondo-ondotik igaro zen.

Duthek masailezurra atera eta zakar hitz egin zuen:

— Aizu, emaidazu trago bat esne.

Esnezalea gazte ahul musugorri bat zen. Beraren begi urdinak zimeldu egin ziren.

— Nola ez! Esne-bagoiaren atzealdean botila bat irekita dago jarlekuaren azpian. Ez zaitzala inork ikus.

Zurrutada handitan edan zuen. Esnea gozo eta leun jaisten zen eztarri lehorretik behera. «Ez nioan hain zakar hitz egin behar». Zain egon zen mutila bueltatu arte.

— Eskerrik asko, tipo jator-jatorra zara.

Inguru hartako parke hotzean sartu eta jarleku batean eseri zen. Asfalto gainean antzigarra. Gaueko egunkariaren puska bat jaso zuen lurretik. 500.000 DOLARREKO LAPURRETA. Banketxe bateko mandatari bati den-dena ebatsi diote Wall Streeten, puntako orduan.

«Eguerdian, kalean jende gehien zebilen orduan, bi gizonak Adolphus St. John-i, Guarantee Trust-eko mandatariari eraso egin eta milioi erdi bat dolar billettetan zuen zaku txiki bat kendu zioten eskuetatik...»

Zutabea irakurtzean, Duthek bihotza taupadaka sumatu zuen. Izoztuta zegoen. Zutitu egin

zen eta eskuez zapladatxoak jotzen hasi zen gorputz osoan zehar.

Hanka bat herrestan, Congo tren jasoaren azken geltokiko tornu-atetik iragan zen. Jimmy Herfek jarraitu egin zion, ezker-eskuin begiratzzen zuen bitartean. Gaua zen. Haizeteak gogor egiten zuen txistu haien belarrietan. Ford bat baino ez zegoen zain geltokiaren kanpoaldean.

— Zer, gustatzen, Mr. Erf?

— Asko, Congo. Hori ura al da?

— Bai, Sheepshead Bay da.

Errepidean aurrera egin zuten, hango eta hemengo putzu altzairu-urdinak saihestuz. Arku elektrikoek mahats zimelak ziruditen, haizearen altzoan kulunkari. Ezkerraldean eta eskuinaldean, etxeek kliska egiten zuten urruti. Ur gainean piloteetan finkatutako eraikin luze baten aurrean gelditu ziren. billarrak. Jimmyk ozta-ozta ikus zitzakeen argirik gabeko leiho batean idatzitako letrak. Eurak iristeaz batera, atea ireki egin zen.

— Kaixo, Mike —esan zuen Congok—. Hau Mr. Erf da, nire lagun bat.

Atea euren atzean itxi zen. Barrualdean iluntasuna zen nagusi, labe batean bezala. Esku babatsu batek Jimmyren eskuari heldu zion.

— Pozten naiz zu ezagutzeaz —esan zuen ahots batek.

— Baina, baina... nola ikusi didazu eskua?

— Aizu, nik ilunpean ikusteko ahalmena dut.

Ahotsak barre sudurkari bat egin zuen. Ordu-rako Congok irekia zuen barruko atea. Argi-zorrotada handiak isurtzen ziren billar-mahaietara; barra luze bat bukaera aldean; billar-makilen euskarriak.

— Hau Mike Cardinale da —esan zuen Congok.

Jimmyren alboan herabeti-itxurako gizon handi eta zurbil bat zegoen, bekokiaren erditik atzera adats beltza zuena. Barruko gelan, zera-mikazko ontziz beteriko apalak eta ziape-koloreko oihal batez estalitako mahai biribil bat zeuden. «E!, *la patronne*», deiadar egin zuen Congok. Masailetan sagarren gorritasuna zuen, emakume frantziar gizen bat sartu zen, berekin gurin

beroak eta berakatzak sortarazitako kiratsa zeramala.

— Hau nire laguna da... Jateko garaia da, ezta? —egin zuen oihu Congok.

— Hori nire emaztea da —esan zuen Cardinalek harro—. Oso gorra... Goraki hitz egin behar da —jiratu egin zen eta hall handiko atea giltzapean itxi zuen—. Ez da argirik ikusten errepidean —esan zuen.

— Udan —esan zuen Mrs. Cardinalek— batzuetan ehun bat bazkari ematen ditugu eta beste batzuetan ehun eta berrogeita hamar ere bai.

— Baduzu ezer edateko? —esan zuen Congok.

Aulki batean astunki eseri zen purrustadaka. Cardinalek txarro bat ardo eta edontzi batzuk ipini zituen mahai gainean. Ardoa dastatu egin zuten, ezpainez hots eginez.

— *Dago Red* baino hobea, ezta Mr. Erf?

— Hala da. Benetako Chianti-a dirudi.

Mrs. Cardinalek sei plater ezarri zituen, bakoitza bere sardexka, aizto eta koilararekin;

gero, zopa-ontzi bero bat mahai erdian ipini zuen.

— *Pronto pasta!* —oihu egin zuen emakumeak oilo-ahotsaz.

— Hau Anetta da —esan zuen Cardinalek.

Bekain okertuen azpian begi beltz distiratsuak zituen neska musugorri eta ilebeltz bat sartu zen gelan; atzetik, lan-jantzi kakia zuen mutil gazte bat zerraion. Mutil hark ilea kizkurka eta eguzkiak koloregabetua zuen. Denak batera eseri ziren eta, euren plateren gain-gaineen bermatuta, barazki-lapikoko sendo eta min bat jaten hasi ziren.

Congok bere zopa bukatu eta gorantz begiratu zuen.

— Argirik ikusi duzu, Mike? —esan zuen Congok.

Cardinalek baietz egin zuen buruaz.

— Ziur... Edozein momentutan etorriko dira.

Zein bere platerean arrautza frijituak berakartzarekin, txahal-txuletak, patata frijituak eta brokolia jaten ari zen bitartean, Herfek motoredun txalupa baten pop, pop, pop urruna entzun bide zuen. Congo mahaitik altxatu zen, gainerakoei

ez mugitzeko keinua egin zien eta leihotik begiratu zuen, gortinaren ertz bat kontu handiz altxatuta.

— Bera da —esan zuen mahaira itzulita—. Hemen ondo jaten da, ezta Mr. Erf?

Mutil gaztea altxatu egin zen ahoa mahukaz garbitzen ari zela.

— Ba al duzu nickelik, Congo? —esan zuen hankak azkar mugitzen ari zela, olanazko zapa-tak oinetan.

— Hortxe dago, Johnny.

Neska altxatu egin zen eta atzetik jarraitu zion kanpoaldeko gela iluneraino.

Handik laster piano mekaniko bat baltse bat jotzen hasi zen. Atetik Jimmyk dantzan ikusi zituen, aurrera eta atzera, argi-jausi luzangen azpian. Motoredun txaluparen hotsa gero eta hurbilago zegoen. Congo irten egin zen, gero Cardinale, gero bere emaztea. Jimmy baso bat ardo zurrupatzen geratu zen, bakarrik, janari-hondarren artean. Urduri zegoen, aztoratuta eta apur bat mozkortuta. Jadanik hasia zen istorio bat mamitzen bere gogoan. Errepidetik kamioi baten palanken kirrinka zetorren, gero beste

batena. Horren ondoren, txaluparen motoreak buxatu eta gelditu egin zen. Gero, txalupa batek piloteen kontra jotzean sortarazitako karraska entzun zuen. Olatuen plisti-plasta. Isiltasuna. Piano mekanikoa isilik zegoen. Eserita, Jimmy zurrutada laburretan edaten ari zen bere ardoa. Paduren usaina etxe barnera iragazten zen. Jimmyren azpian, urak piloteak eztiki milikatzen zituen. Urrun, beste txalupa bat orroka hasi zen.

— Nickel bat bai? —galdetu zuen Congok, gelan supituki sartu bezain laster—. Musika behar dugu... A ze gaua! Annette eta zure kontu pianoa beti martxan egotea. Ez dut McGee ikusi lehorreratzen... Agian norbait etorriko da. Presa-ka ibili behar.

Jimmy altxatu eta bere poltsikoak miatzen hasi zen. Piano ondoan Annette aurkitu zuen.

— Dantza egin nahi?

Anettek baietz egin zuen buruaz. Pianoa *Innocent Eyes* jotzen ari zen. Axolagabe egin zuten dantza.

Kanpoaldean ahotsak eta oin-hotsak entzuten ziren.

— Mesedez —esan zuen neskak bat-batean eta dantza egiteari utzi zioten.

Bigarren txalupa oso hurbil zegoen; moto-reak eztula egin zuen eta lasai hasi zen purrustadaka.

— Geratu hemen, mesedez —esan eta ezarian alde egin zuen.

Jimmy Herf gora eta behera zebilen, artega, zigarro bati zupadak jotzen. Bere gogoan istorioa mamitzen ari zen. Dantza-areto bakarti batean, Sheepshead Bay-ko neska italiar eder bat... txistu zorrotz bat ilunpean... «Kanpora irten beharko nuke zer gertatzen den ikusteko». Haztamuka aritu zen aurrealdeko atearen bila. Giltzapean itxita zegoen. Pianora itzuli zen eta beste nickel bat sartu zuen barruan. Gero, beste zigarro bat piztu zuen eta berriro gora eta behera hasi zen. Behin eta berriro... «Bizkarroi bat bizitzaren dramaman... Erreportariak dena behatxulo batetik ikusten du. Ez da inoiz ezertan sartzen». Pianoak *Yes We Have No Bananas* jotzen zuen.

— Kaka zaharra! —murmurikatu zuen hortzak karraskatuz, gora eta behera ibiltzeari utzi gabe.

Kanpoaldeko oin-hotsak kalapita bilakatu ziren. Aldarriak entzun ziren. Gero, ezpalen eta botila hautsien zarata. Jimmyk jangelako leihotik begiratu zuen. Gizon-itzalak borrokan ikusi zituen ontziralekuan; bortizki elkar jotzen ari ziren. Lasterka joan zen sukaldera. Bertan estropezu egin zuen Congorekin, zein izerditan blai eta bilin-balanka sartu baitzen etxean, makila sendo batean bermaturik.

— Kaka zaharra! Hanka hautsi didate! —oihu egin zuen.

— Arraioa!

Congo auhenka ari zen bitartean, Jimmyk jantokiraino lagundu zion.

— Aurrekoan hanka izorratu eta berrogeita hamar dolar ordaindu nituen.

— Zure egurrezko hanka esan nahi duzu?

— Noski, zer uste zenuen ba?

— Debekuaren agenteak dira?

— Bai zera! *Hijacker* malapartatu batzuk besterik ez dira... Tira, ipini nickel bat pianoan.

Beautiful Girl of my Dreams, erantzun zuen pianoak alai. Jimmy itzuli zenean, Congo, aulki batean eserita, bi eskuez hankaondoa igurtzi-

tzen ari zen. Mahai gainean kortxo eta nikelezko gorputzadarra zetzan, ezpaldua eta mailatua.

— *Regadez-moi ça... C'est foutu... Complètement foutu...*

Hizketan ari zen bitartean, Cardinale sartu zen. Begi gainean ebakiondo bat zuen eta hortik odol-tanta batzuk isurtzen ziren masaila, jaka eta alkandoraraino. Bere emazteak begiak zuri jarraitzen zion atzetik. Konketa bat zeraman eta belaki batez kolpetxoak jotzen zizkion bekokian, baina alferrik. Cardinalek emaztea bidetik baztertu zuen.

— Horietako bati zartako eder bat eman nion hodi-puska batekin. Uste dut uretara erori dela. Nahiago nuke itota balego!

Johnny gorantz begira sartu zen. Annetek gerria inguratzen zion beso batez. Begi bat ubel-durik zeukan eta bere alkandoraren mahuka bat tarrataturik zegoen.

— Zineman bezalaxe, arranopola! —esan zuen Annetek barreka, bere onetik aterata—. Ez al da bikain ibili, ama, ez duzu uste?

— Eskerrak tiroka hasi ez diren. Batek errebolberra zeukan.

- Beldurtuta egongo zen, nik uste.
- Kamioiek alde egin dute dagoeneko.
- Apurtutako kutxa bat, besterik ez...

Arraioa, bost ziren eta!

— A ze ausardia haien artean sartzeko, arra-nopola! —garrasi egin zuen Annettek.

— Ixo —purrruts egin zuen Cardinalek.

Aulki batean astunki eseri zen. Emaztea aur-pegia igurtzitzen ari zitzaion belakiaz.

— Ondo ikusi duzu txalupa? —galdetu zuen Congok.

— Ilunegi zegoen, kaka zaharra! —esan zuen Johnnyk—. Morroiek Jerseykoen modura hitz egi-ten zuten... Lehenengo, morroi bat hurbildu zait eta esan dit: «Aduanaria naiz», eta nik ukabilka-da bat eman diot, berari pistola ateratzeko asti-rik utzi gabe, eta uretara. Jende makala zen. Georgek, txalupako horrek, arraun batez ia-ia garunak txikitu zizkion bati. Orduan, euren txalu-pa zaharrera itzuli eta alde egin dute.

— Baina nola zekiten non lehorreratuko ginen? —esan zuen totelka Congok aurpegia gorri-gorri zuela.

— Norbaitek esanda beharbada —azaldu zuen Cardinalek—. Nor den jakiten badut... Arranopola! Zin egiten dut zera... —hots lehor bat egin zuen ezpainez.

— Zera... Mr. Erf —esan zuen Congok bere ahots gozoa berreskuratuta— ...dena oporretarako xanpaina zen... Balio handiko kargamentua, e?

Masailak gorri-gorri, Annette eserita zegoen, ezpainak erdi irekirik eta begiak dirdiratsuegi, Johnnyri begira. Annetteri so eginda, Herf lotsatu egin zen. Altxatu egin zen.

— Tira, hirira bueltatu beharra daukat. Eskerrik asko afari eta ikuskizunagatik, Congo.

— Aurkituko duzu geltokia?

— Bai noski.

— Gau on, Mr. Erf, nahi al duzu xanpainabotilen kutxa bat Gabonetarako, *Mumms* benetakoa?

— Ez dut txakur txikirik ere, Congo.

— Orduan, agian zeure lagunei salduko diezu eta nire komisia jaso.

— Oso ondo, ikusiko dut zer egin daitekeen.

— Bihar deituko dizut telefonoz, prezioa esateko.

— Konforme, gau on.

Etxera bidean zihoan tren hutsean, Brooklyn-go aldiri hutsetan zehar; Jimmy ahaleginetan ari zen alkohol-trafikatzaileen istorioari buruz pentsatzeko, horretaz idatzi behar baitzuen egunkariaren igandeko ale berezirako. Neskaren masaila arrosak eta begi distiratsuegiak tartean sartzten ari ziren, gogoeten antolaketa deuseztuz. Apurka-apurka amets gero eta lausoago batean murgildu zen. «Umea jaio aurretik, Elliek ere zenbaitetan begi distiratsuegiak zitian». Behinola muino batean Ellen bat-batean haren eskuetara erori zen zorabiatuak eta Jimmyk belar gainean utzi zuen. Aldapa belartsuan larrean zebiltzan behiei so egin zieten lasai. Jimmy artzain baten bordara joan zen eta esnea ekarri zion zurezko zali batean eta, astiro-astiro, ilunabarrean mendiak makurtu zirenean, kolorea itzuli zitzaion masailetara eta Ellenek modu berezian begiratu zion eta irribarre txiki bat eginda esan zion:

— Barruan daukadan Herf txikia da.

«Jainko maitea! Zergatik pentsatu behinolako gauzez?». Eta umea Neuilly-ko Erietxe Amerika-
rrean jaio zenean, Jimmy alderrai zebilen ferian
zehir: Arkakusoen Zirkura, zaldiko-maldikoetara
eta lurrin-zabuetara joan zen, jostailuak eta
gozokiak erosi zituen, zozketetan parte hartu
zuen eta igeltsuzko zerri bat besapean zuela
itxuli zen erietxera. «Bitxia duk iraganean babe-
sa bilatzea! Ellie hil izan balitz... Nik uste nian hil
gingo zela». Orduan iraganak zeharo bilduko
zuen Jimmy, koadro baten markoa bailitzan, eta
kameu baten modura eramango zuen beti lepo-
aren inguruan. Moldeko letraz idatzita legoke,
igandeko alean argitaratzeko xafletan grabatua,
eta James Herfek *Kontrabandoko aldea* delakoa-
ri buruz idatzitako lehenengo artikulua izango
litzateke. Gogoeta gartsuen lerroak euren lekue-
tan kokatzen ari ziren, linotipia zalapartariak
ahoskaturik.

Gau erdian Hamalaugarren Kalea zeharka-
tzen ari zen. Ez zuen etxera joan nahi lo egitera,
haize hotzak bere izotzezko atzapar zorrotzez
lepoa eta kokotsa urratzen bazizkion ere. Zazpi-
garren eta Zortzigarren Etorbideak gurutzatu

zituen eta *Roy Sheffield* izena aurkitu zuen txirrinen baten ondoan, gaizki argizatutako atari batean. Botoia sakatu bezain laster, kisketak halako hots bat egin zuen. Eskailerak azkar igo zituen. Royk bere buru kizkurtsua eta bere bisigu-begi grisak atera zituen atetik.

— Kaixo, Jimmy! Sartu, erabat esna gaude, hontzak bezala.

— Oraintxe ikusi dut alkohol-trafikatzailen eta hijackerren arteko borroka bat.

— Non?

— Sheepshead Bay-n.

— Hementxe dago Jimmy Herf. Oraintxe bertan borroka egin du debekuko agenteekin! — garrasi egin zion bere emazteari.

Alice-k gaztaina-koloreko ile iluna eta panpin aurpegi leuna zituen. Jimmyrengana lasterka joan zen eta kokotsean musu eman zion.

— O, Jimmy, kontaiguzu dena! Asper-asper eginda gaude.

— Kaixo! —oihu egin zuen Herfek.

Frances eta Bob Hildebrand ikusi zituen sofan eserita, gelaren argi urriaren azpian. Edontziak altxatu zituzten agur moduan. Jimmy besaulkira

eraman zuten eta edontzi bat gin eta ginger ale ipini zioten eskuan.

— Eta zer da borrokaren kontu hori? Hobeto zeuk kontatzen badiguzu guk ez baitugu Tribune-ren igandeko alea erosiko horren berri jakiteko —esan zuen Bob Hildebrandek ahots sakon eta burrunbatsuaz.

Jimmyk zurrutada luze bat edan zuen.

— Nire ezagun batekin joan naiz hara. Alkohol-trafikatzaile frantziar eta italiar guztietan lehena da. Gizon ona. Egurrezko hanka bat du. Bazkari bikain batera gonbidatu ninduen, benetakoa ardo italiarra edan dugu, billar-gela huts batean, Sheepshead Bayko urbazterrean.

— Horretaz ari garela —galdetu zuen Royk—, non dago Helena?

— Isildu, Roy —esan zuen Alicek—. Kontua interesgarria da... eta, gainera, gizon bati ez zaio sekula galdetu behar non duen emaztea.

— Gero, argizko seinale pilo bat ikusi dugu eta ez dakit zer gehiago, eta motoredun txalupa bat etorri da Park Avenue-ko Gabonetarako Mumms markako xanpaina lehor-lehorrez gainezka... Eta hijackerrak beste txalupa batean

azaldu dira ziztu bizian... Seguru asko hidrohegazkina izango zen, hain azkar etortzeko...

— A ze kitzikagarria! —urruma egin zuen Alicek—. Roy, zergatik ez zara zu ere kontrabandista hasten?

— Zinematik kanpo inoiz ikusi dudan borrokarik handiena, alde bakoitzeko sei edo zazpi borrokan ari ziren gela honen neurriko ontziraletan, batean, arraunez eta berunezko hodiez elkarjoka.

— Zauriturik?

— Denak... Uste dut bi hijacker ito direla. Kontua da alde egin dutela eta isuritako xanpainaguztia utzi zigutela geuk miazkatzeko.

— Ikaragarria izango zen —garrasi egin zuten Hildebrand-arrek.

— Eta zuk zer egin duzu? —galdetu zuen Alicek arnasestuka.

— O, ni handik nenbilen, kontu handiz arazoetan ez sartzeko. Ezin nituen bi aldeak bereizi... Dena ilun eta heze zegoen... Dena zen iskanbila... Azkenean, nire lagun kontrabandista atera dut borrokatik, hanka hautsi diotenean... egurrezko hanka.

Denek oihu egin zuten. Royk berriro ginez bete zuen Jimmy-ren edontzia.

— O Jimmy —urruma egin zuen Alicek—, zurea bai bizitza kitzikagarria!

James Merivale telegrama bat birpasatzen ari zen, jasotako azkena, eta hitzak irakurri ahala kolpetxoak jotzen zituen lapitzaz. «Tasmanian Manganese Products baltzuak kreditua irekitzeko eskatzen ziguk...». Bere idazmahaiko telefonoa burrunbaka hasi zen.

— James, neu naiz, zure ama. Etorri azkar, zerbait izugarria gertatu da.

— Baina ez dakit atera ahal izango naizen...
Ordurako, andreak deia moztua zuen. Merivale ohartu zen zurbiltzen ari zela.

— Mr. Aspinwall-ekin hitz egin nahi dut, mesedez... Mr. Aspinwall, neu naiz, Merivale... Ama bat-batean gaixotu egin da. Beldur naiz ez ote den atake bat izango... Kanpora irten beharra daukat, ordubetez. Garaiz iritsiko naiz Tasmaniako telegrama horri erantzuteko.

— Oso ondo... Benetan sentitzen dut, Merivale.

Merivalek jaka eta kapela hartu eta bufanda ahaztu zuen; tximistaren pare banketxetik atera eta metroan sartu zen. Arnasestuka etxean sartu zen, urduri, hatzak klaskatuz. Oso serio, Mrs. Merivalek hallean topo egin zuen bere semearekin.

— Ene, uste nuen gaixorik zeundela!

— Ez, ez da hori... Maisie da...

— Ez du ba izan istrip...

— Etorri hona —eten zuen Mrs. Merivalek.

Egongelan emakume txiki aurpegi biribil bat zegoen, igarabazko kapela biribil bat eta igarabazko beroki bat jantzirik zituena.

— Laztana, neska honek dio Mrs. Jack Cunningham dela eta hori egiaztatzen duen ezkontza-agiri bat dakarrela.

— Jainkoaren izenean! Hori egia al da?

Neskak malenkoniatsu baietz egin zuen buruaz.

— Eta gonbidapen-orriak bidean dira dagoeneko. Jacken azken telegramaren ondoren, Maisie arreoan prestatzen aritu da.

Neskak bitxilorez apaindutako egiaztagiri handi bat destolestu zuen eta Jamesi luzatu zion.

— Baliteke faltsua izatea.

— Ez, ez da faltsua —esan zuen neskak ezti-ki.

— John C. Cunningham, 21... Jessie Lincoln, 18 —irakurri zuen ozenki—. Aurpegia txikituko diot. Doilor alaena! Hauxe da bere sinadura, dudarik gabe. Nik banketxean ikusita daukat... Doilor alaena!

— Aizu, James, egon lasai.

— Uste nuen hobe zela orain esatea ezkon-tzaren ondoren baino —esan zuen neskak bere ahots finaz—. Ez nuke inola ere nahi Jack biga-miaren errudun izaterik.

— Non dago Maisie?

— Bere gelan etsirik, gajoa.

Merivale gorri zegoen. Idunekoaren azpitik izerdia zerion.

— Entzun, maitea —zioen berriro Mrs. Meri-valek—. Hitz eman behar didazu ez duzula txora-keriarik bat ere egingo.

— Maisieren izen ona kosta ahala kosta zain-du beharra dago.

— Maitea, nire ustez, zera egin behar dugu, Jack hona ekarri eta hizketan jarri zera honekin... zera... andere honekin... Ados, Mrs. Cunningham?

— Ba... baietz uste dut.

— Itxaron apur batean! —oihu egin zuen Merivalek eta, halla urrats luzeak eginez zeharkatuta, telefonoa hartu zuen—. 12305 erretoa?... Kaixo, Mr. Cunninghamekin hitz egin nahi nuke, mesedez... Kaixo, hau al da Mr. Cunninghamen bulegoa?... Mr. James Marivale nauzu... Hirian ez dagoela?... Eta noiz itzuliko da?... Umm —halla urrats luzeak eginez zeharkatu zuen—. Alproja hori kanpoan da.

— Beti kanpoan —kapela biribildun andere txikiak esan zuen—, hala izan da ezagutu nuenetik.

Bulegoaren leiho zabalen kanpoaldean gau grisa eta lainotsua zen. Han eta hemen, argi bakan batzuek irudi lausoak eratzen zituzten: izartxoak, marra horizontalak eta lerro elkarzuta. Phineas Blackhead bere idazmahaiaren

aurrean eserita zegoen, larruzko jarleku txikian erdi etzanda. Hatzak zetazko zapi handi batez babesturik zituelarik, eskuan edontzi bat ur bero zeukan, soda-bikarbonatoarekin nahasia. Billar-bola bezain burusoil eta

biribil, Densch jarleku eroso batean eserita zegoen, bere betaurrekoekin olgetan. Berogailu-hodiek noizbehinka sortarazitako zaratak eta burrundak baino ez zuten isiltasuna urratzen.

— Densch, barkatu behar didazu... Badakizu nik oso gutxitan egiten dudala iruzkinik besteren kontuei buruz —esan zuen Blackheadek astiro-astiro, zurrutaden arteko unea aprobetxatuz, eta aulkian soina goratu zuen bat-batean—. Propo-samena guztiz aldrebesa da. Densch, guztiz aldrebesa... Arraioa! Ez du zentzurik.

— Nik ez dut zuk baino gogokoago eskuak zikintzea. Baldwin tipo jatorra da. Uste dut ez dugula arriskurik bat ere hartzen, bultzadatxo bat ematen badiogu.

— Jakin al daiteke zer lotura-mota dagoen inportazio eta esportazioko elkarte baten eta politikaren artean? Morroi horietakoren batek laguntza behar badu, hona etorri eta eska deza-

la! Gure negozioa babarrunen prezioa da... eta oso behean dago, alajaina! Zuon, abokatuon artean, baten batek merkataritza-oreka berriro ezartzea lortuko balu, ni edozer egiteko prest egongo nintzateke... Baina abokatu guztiak lapur hutsak dira... Lapur hutsak, arraioa!

Aurpegia gorri-gorri jarri zitzaion, bere aulkian tentetu eta ukabilkada bat jo zuen mahai ertzean.

— Zure erruagatik sutan jartzen ari naiz eta hori ez da ona ez nire sabelerako ez nire bihotzerako.

Phineas Blackheadek korrokada harrigarria egin eta bikarbonato-zurrutada handi bat edan zuen. Gero, bere aulkian berriro erdi etzan zen, begiak guztiz itxi gabe.

— Tira ba —esan zuen Mr. Densch-ek neke ahotsaz—, agian ez dut ondo jokatu, baina nik hitz eman dut hautagai erreformistaren alde egingo nuela. Kontu hori guztiz pertsonala da, ez du inolako zerikusirik enpresarekin.

— Bai zera!... Eta McNiel eta bere lagunak?... Beti ondo tratatu gaituzte eta guk zer eman diegu ordainetan?... Kutxa pare bat whisky eta

puru batzuk noizean behin... Eta orain datoz erreformista hauek udala liskarretan sartzeko... Arraioa!

Densch zutitu egin zen.

— Blackhead laguna, uste dut, hiritarra naizen aldetik, udala eroskeriatik, ustelkeriatik eta azpikeriatik garbitzen lagundu behar dudala... Uste dut nire betebeharra dela.

Bere zilbor hanpatua aurretik zuela, aterantz jo zuen.

— Tira, Densch, barkatuko didazu, baina esan behar dizut proposamen horrek ez duela ez bururik ez hankarik! —oihu egin zuen Blackheadek Denschen atzetik.

Bere bazkideak alde egindakoan, lipar batez etzanda geratu zen begiak itxita. Aurpegia errauts-koloreko orbainez beteta zeukan eta bere itzelezko soin haragitsua globo baten gisan despuzten hasi zitzaion. Azkenean, purrustada eginda altxatu zen. Gero, kapela eta berokia hartu zituen eta urrats geldo eta astunak eginez atera zen bulegotik. Korridorea hutsik eta gaizki argiztaturik zegoen. Luzaro egon zen igogailuaren zain. Eraikin hutsean gaizkilerik egon zite-

keelako burutazioak arnasketa eten zion bat-batean. Atzera begiratzeko beldurrak zegoen, umeak ilunpean bezala. Azkenean, igogailuak gora egin zuen.

— Wilmer —esan zion gaueko igogailuzainari—, gauez korridore hauetan argi gehiago behar litzateke... Krimen-bolada honetan uste dut erai-kin osoa hobeto argiztaturik eduki behar zenuketela.

— Bai jauna, agian arrazoia duzu..., baina inor ezin da sartu nik ikusi gabe.

— Gaizkile-talde batek erraz hartuko zintuzke menpean, Wilmer.

— Saia daitezela.

— Agian arrazoia izango duzu... gakoa odol hotza da.

Packard limusinaren barruan eserita, Cynthia liburu bat irakurtzen ari zen.

— Maitea, uste zenuen ez nintzela inoiz jaitsiko?

— Ia-ia bukatu dut liburua, aitatxo.

— Tira, Butler... etxera ahalik eta azkarren. Berandu iritsiko gara afarira.

Limusina Lafayette kaletik gora zihoala, Blackhead bere alabarengana biratu zen.

— Inoiz gizonen bati entzuten badiozu hiritar den aldetik dituen betebeharez hitz egiten, ez zaitez berarekin fida, arraioa! Hamarretik bederatzitan negozio zikinen batean sartuta dago. Zuk ez dakizu zeinen lasaigarria den niretzat zuk eta Joek bizitza ondo bideratuta daukazuela ikustea.

— Zer duzu aita? Egun txarra izan duzu bulegoan?

— Mundu zikin honetan ez dago txikituta ez dagoen merkaturik... Benetan diotsut, Cynthia, egoera ez da batere erraza... Ezin da jakin zer gertatuko den... Begira, ahaztu aurretik, bihar hamabiak baino lehen joango zara banketxera?... Hudgins bidaliko dut balore batzuekin... zerbait pertsonala da, ulertzen? Zure kutxa gotorrean gordetzea nahi dut.

— Dagoeneko beteta dago, aitatxo.

— Astor Trust-en dagoen kutxa hori zure ize-nean dago, ezta?

— Bai, nire izenean eta Joerenean.

— Ondo, ba, hartu beste kutxa bat Fifth Avenue Bank-en zeure izenean... Dena hamabi-hamabietan izango da bertan, nire kontu... Eta ez ahaztu esan dizudana, Cynthia, inoiz entzuten baduzu bazkideren bat hiritarren bertuteez hitz egiten, erne egon.

Hamalagarren Kalea zeharkatzen ari zen. Aitak eta alabak leihotik ikusi zuten haizeak inarrosi zituela kalea gurutzatzeko zain zegoen jendearen aurpegiak.

Jimmy Herfek aharrausi egin eta aulkia atzerantz bultzatu zuen. Idazmakinaren nikelezko islek mina ematen zioten begietan. Atzamar-puntak minberaturik zeuzkan. Ate irristatzaileak erdi ireki eta zeharka begiratu zuen gela hotzera. Ellie ozta-ozta ikus zezakeen, logelako ohean lo. Gelaren azken muturrean umearen sehaska zegoen. Umearen arropako esne garratzak isuritako usainari antzeman zion. Ateak berriro batu eta erantzten hasi zen. «Leku gehiago izango bagenu... —murmurikatu zuen—, urtxintxen kaiola batean bizi gaituk». Sofa estaltzen zuen

kaxmir hautseztatua kendu eta di-da atera zuen bere pijama burukoaren azpitik. «Lekua, lekua, txukuntasuna, lasaitasuna...». Bere burua hitzal-di batean mintzatzen irudikatu zuen, hitz horiek ahoskatzeko keinuak egiten zituela.

Argia itzali, leiho irekian zirrikitu bat utzi eta, logaleak jota, ohe gainera astunki bota zuen bere burua, enbor baten antzera. Berandu gabe eskutitz bat idazteari ekin zion linotipiaz. «Orain lotara noak..., berealdiko goiztiriaren ama». Linotipiaren besoa eskularru zuri bat jantzirik zuen emakume baten eskua zen. Zalapartan zehar, baterien argi anbarren atzean, Ellieren ahotsa: «Ez, ez, mina ematen didazu...». «Mr. Herf», esan zuen lan-jantzia zuen gizon batek, «mina ematen diozu makinari eta ezin dugu edizioa atera...». Nikelezko hortz-ilarak zituen aho bat zen linotipia, irensten, xehatzen zuena. Iratzarri eta ohe gainean eseri zen. Hotzak zegoen, hortzek karraskatu egiten zioten. Burusiez tapatu zen eta berriro loak hartu zuen. Berriro esnatu zenerako egunargia zen. Hotza joana zitzaion eta pozik zegoen. Elur-malutak dantzan, aiko-maiko, jira eta bira leiho handien beste aldean.

— Kaixo, Jimps —esan zuen Elliek, erretilua eskuetan gero eta hurbilago.

— Hara! Hil egin naiz, paradisuan nago edo zer?

— Ez, igande goiza da. Uste nuen ez lizukeela kalterik egingo luxu apur batek... Artopil batzuk egin dizkizut.

— O, Ellie, zoragarria zara!... Itxaron apur batean, hortzak garbitzera noa. Segituan nator.

Aurpegia garbiturik itzuli zen, bere bainu-txa-businean bilduta.

Ellieren ahoa kuzkurtu egin zen haren musuaren azpian.

— Eta hamaikak dira oraindik. Ordubetea irabazi dut neure egun librean... Zuk ez duzu kafe-rik hartu behar?

— Berehala... Begira, Jimps, zerbait esan nahi dizut. Ez al duzu uste beste leku baten bila hasi behar dugula, orain berriro gauero lan egiten duzula kontuan hartuta?

— Etxez aldatu behar dugula esan nahi duzu?

— Ez. Buruan neukan nik agian zuk beste gelaren bat har zenezakeela lo egiteko, hemen-

dik hurbil... Horrela, goizean inortxok ere ez lizuke trabarik egingo.

— Baina Ellie, horrela ez genuke sekula elkar ikusiko... Gaur egun ere gutxitan ikusten dugu elkar, pentsa...

— Ikaragarria da... baina zer egingo diogu? Gure bulego-ordutegiak hain dira desberdinak...

Martinen negar-hotsa boladaka zetorren aldameneko gelatik. Jimmy ohe ertzean eserita zegoen, kikara hutsa belaunen gainean zuela, bere oin erantziei beha.

— Nahi duzun bezala —esan zuen goibeldurik.

Ellieri eskuetatik heldu eta bere beso artean estutzeko grinak suziri baten gisan zeharkatu zion soina, eta iraungi egin zen. Kafearekikoak jaso eta desagertu egin zen. Jimmyren ezpaineak Ellierenak ezagutzen zituzten, bere besoek ondotxo zekiten nola kiribiltzen ziren harenak, berak ezagutzen zuen haren ilearen sarria; Jimmyk Ellie maite zuen. Luzaz egon zen bere oinei begira, zain urdin lodiek marratutako oin larrutu gorrixkei; zapatak zirela-eta behatzak minduta zituen, eskailerek eta zoladurek okertu-

rik. Hatz txiki batean baba bat zeukan. Begiak malko mingotsez bete zitzaizkion. Umeak negar egiteari utzia zion. Jimmy bainugelan sartu eta bainuontziko txorrota ireki zuen.

— Zurekin zebilen beste lagun horrena da errua, Anna. Berak pentsarazi zizun ezerk ez duela garrantzirik... Berak ezkor egin zintuen.

— Zer da hori?

— Borroka egiteak ez duela merezi uste duen norbait, gizateriaren garapenean sinesten ez duen norbait.

— Uste duzu Bouy horrelakoa zela?

— Nolanahi ere, gizon zitala zen hura... Hegoaldeko tipo horiek ez dute klase-kontzientziarik bat ere... Ez al zintuen konbentzitu sindikatu-kuota ez ordaintzeko?

— Ni kopetaraino nengoen josteko makinarekin lan egiteaz.

— Baina zuk zeure lanak egin zenitzake eta diru dexente irabazi. Zu ez zara haien modukoa, zu gutarra zara... Neuk onbideratuko zaitut eta lana aurkituko duzu berriro. Jainko maitea, nik ez

nizuke inoiz utziko, berak bezala, dantza-aretoan lan egiten! Anna, zuk ez dakizu zein mingarria zitzaidan neska judu bat hori bezalako tipo batekin ikustea.

— Tira, berak alde egin zuen eta ni lanik gabe nago.

— Horrelako jendea da langileen etsairik handiena... Eurena besterik ez dute buruan.

Astiro egiten zuten aurrera Bigarren Etorbidetan zehar, arratsalde lainotsuan. Aurpegi argaleko mutil gazte judu ilegorri bat zen eta masaila hondoratuak eta azala zurixka zituen. Jostun guztiek bezala, hanka okerrak zituen. Annak txiki-kegi zeuzkan zapatak. Betazpi nabarmenak ageri. Lainoan murgilduta, hamaika lagun-talde zebiltzan, alderrai, yeddish-ez, errusieraz eta East Side-ko ingelesez hitz egiten, kanpotar kutsuarekin. Janaridendetatik eta alkoholik gabeko edariak saltzeko postuetatik argi-izpi beroak sortu eta espaloietan dir-dir egiten zuten.

— Beti horren nekatuta ez banengo —murmurikatu zuen Annak.

— Edan dezagun zerbait hemen... Baso bat esne ondo etorriko zaizu, Anna.

— Ez zait gustatzen, Elmer. Soda txokolatearekin edango dut.

— Kalte egingo dizu; baina tira, aurrera, hala nahi baduzu.

Anna nikelezko xingolaz inguratutako aulki mehar batean eseri zen. Mutila neskaren ondoan zegoen, zutik. Anna apur bat haren gainean etzan zen.

— Zera gertatzen zaigu langileoi... —esan zuen Elmerrek ahapeka, ahots inpertsonalaz—. Zera gertatzen zaigu langileoi, ez dakigula ezer, ez dakigula jaten, ez dakigula bizitzen, ez dakigula geure eskubideak defendatzen... Bai, Anna, zuk horrelako gauzei buruz gogoeta egitea nahi nuke. Ez al zara ohartzen bataila erdian gaudela, gerran bezala?

Koilara luze likatsu batez baliatuta, Anna izozki-puska batzuk arrantzatzen ari zen bere edontziko likido sendo apartsuan.

George Baldwin bere buruari begira zegoen ispiluan, bere bulegoaren atzeko bainugela txiki batean eskuak garbitzen zituen bitartean. Ilea,

artean sarria, kasik zuria zeukan eta bekokiraino zut jaisten zitzaion. Ahoaren bi ertzetan eta kokotsean zimur sakon bat agerian zuen. Bere begi bizi sakonen azpian, azala pilatu egiten zitzaion, bikortsu. Eskuak astiro eta zehaztasun handiz lehortu ondoren, estriknina-pilulen kutxa txiki bat atera zuen txalekoaren goialdeko poltsi-kotik, pilula bat irentsi eta halako inurridura bat sentitu zuen zainetan, ohiko inurridura. Gero, bere bulegora itzuli zen. Idazmahai ondoan, mutil lepo luze bat zuen zain, urduri, txartel bat eskuan zuela.

— Andre batek zurekin hitz egin nahi du.

— Hitzordua du? Galdetu Miss Ranke-ri. Itxaron apur batean. Esaiozu sartzeko.

Txartelean Nellie Linihan Mc Niel irakur zitekeen. Jantzi garestia zeraman eta bere larruzko beroki handiaren zirrikitutik farfail-pilo bat ageri zen. Lepoaren inguruan amatistazko kate bat zeraman, eta hortik dilindan betaurrekoak.

— Gusek eskatu dit zurekin hitz egiteko — esan zuen Nelliek eta gero, Baldwinek aulki bat eskaini zion bere mahai ondoan.

— Zer nahi duzu?

Arrazoireren bat dela medio, Baldwini bihotzak tarrapataka pilpiratzen zion.

Nelliek bere betaurrekoez begiratu zuen lipar batez.

— George, zuk Gusek baino hobeto eusten diozu?

— Zeri eutsi?

— O, egoera honi... Orain saiatzen ari naiz Gus atzerrira eramaten... Marienbad-era edo... Baina berak dioenez, saltsa horretan sartuegi dago alde egiteko.

— Guztioi gertatzen zaigu gauza bera —erantzun zuen Baldwinek, irribarre hotz bat eginez.

Minutu bateko isilunearen ondoren, Nellie McNiel altxatu egin zen.

— Begira, George, Gus nazka-nazka eginda dago honetaz... Zuk badakizu berak atsegin duela bere adiskideei laguntzea eta bere adiskideek berari laguntzea.

— Inork ezin du esan nik laguntzarik eman ez diodanik... Baina ni ez naiz politikaria eta, azken batean, kargu baterako hautagai izaten ausartu naizenez, neure kasa aurkeztuko naiz.

— George, hori ipuinaren erdia besterik ez da, zuk ondotxo dakizu.

— Esaiozu orain arte lagun ona izan nauela eta horrela izango dela beti... Berak ere ondotxo daki hori. Kanpaina honetan, ez dut zabaldu nahi izan Gusek esku artean darabiltzan zenbait kontu.

— Hizlari ona zara, George Baldwin, beti bezala.

Baldwin lotsagorritu egin zen. Zutik eta zurrun zeuden, elkarren ondoan, bulegoko atean. Baldwinen eskua geldirik zetzan heldulekuaren gainean, paralizatuta zirudien. Beste bulegoetatik idazmakinen eta ahotsen zarata zetorren. Kanpoaldetik iristen zitzaien eraikin berri batean lan egiten zuten errematxatzaileen mailu-hots luze eta etengabea.

— Espero dut zure familia oso ondo egotea — esan zuen Baldwinak azkenean, ahalegin handia eginda.

— Bai, ondo dago, eskerrik asko... Adio.

Nellie joana zen.

Lipar batez Baldwin leihotik begira geratu zen aurreko etxe gris eta leiho beltzekikora.

«Txorakeria galanta duk gauzek inorengan hainbesteko eragina izatea! Atsedena hartu behar diat». Kapela eta berokia bainugelako atearen atzeko kakotik hartu eta alde egin zuen.

— Jonas —esan zion meloi itxurako soilune biribila zuen gizon bati, zein egunkariak gaintetik irakurtzen ari baitzen liburutegiaren funtzioa betetzen zuen sabai altuko hall nagusian—, eramaidazu etxera mahai gainean dudan guztia... Gaur gauean gainbegiratuko dut.

— Oso ondo, jauna.

Broadwayra irtetean, sasieskola egiten duen mutilaren modura sentitu zen. Neguko arratsalde distiratsu hartan ostarteak eta hodeiak txandakatzen ziren presaren presaz. Ziztuan sartu zen taxi batean. Jarlekuan erdi etzanda, loak hartu zuen. Berrogeita Bigarren Kalean esnatu zen. Han dena zen anabasa, zeren eta koloretako plano gurutzatu distiratsuak, aurpegiak, hankak, erakusleihoak, tranbiak eta autoak nahasian baitzeuden. Eseri egin zen, eskularruetan bilduta zituen eskuak belaun gainean ezarri zituen. Dardarka zegoen, ezinegonik. Nevadaren etxearen aurrean ordaindu zuen taxia. Berrogei-

ta hamar zentaboko eskupekoa jasotzean, txofer beltzak bolizko hortzez beteriko ahoa erakutsi zion. Behean igogailurik ez zegoenez, Baldwinek ziztu bizian egin zuen eskaileretan gora, bere buruaz erdi miretsita. Hatz-koxkorrez jo zuen Nevadaren atean. Erantzunik ez. Berriro jo zuen atean. Nevadak kontu handiz ireki zuen. Baldwinek haren buru kizkurra begiztatu zuen. Gelan sartu zen eta Nevadak ezin izan zuen ezer egin hori eragozteko. Emakumeak kimono bat alkan-dora arrosa baten gainean beste jantzirik ez zeukan.

— Ene Jainkoa! —esan zuen Nevadak—. Uste nuen zerbitzaria zinela.

Nevadari heldu eta musu eman zion.

— Ez dakit zergatik sentitzen naizen umetxo bat bezala.

— Eguzkariarekin erotu zarela ematen du... Ez zait gustatzen zu honela etortzerik, telefonoz deitu gabe, badakizu.

— Ez haserretu oraingoan ahaztu zaidalako.

Baldwinek zerbait ikusi zuen sofaren gainean. Bere burua kausitu zuen kontu handiz tolestutako praka itsas urdin pare bati beha.

— Izugarri nekatuta nengoen bulegoan, Nevada. Uste nuen hona etor nintekeela zurekin hitz egitera ea apur bat suspertzen nintzen.

— Ni zenbait dantza praktikatzen ari nintzen gramofonoarekin.

— Oso interesgarria... —Baldwin gora eta behera hasi zen gelan zehar, malguki batek higituta bezala—. Nevada, orain entzun gauza bat... Hitz egin behar dugu. Berdin zait nor duzun logelari... —Nevadak bat-batean aurpegira begiratu zion eta sofari eseri zen, praten ondoan—. Kontua da aspaldi honetan jakin dudala Tony Hunter eta zu oso ondo moldatzen zaretela elkarrekin —Nevadak ezpainak estutu eta hankak gurutzatu zituen—. Egia esanda, hogeita bost dolar orduko kobratzen zizkion psikoanalista harengana joate horrek grazia handia egiten zidan... Baina orain-txe bertan ohartu naiz nahikoa dela. Nahikoa baino gehiago.

— George, burutik zaude —zezeldu zuen eta bat-batean barreka hasi zen inozoki.

— Esango dizut zer egingo duzan —jarraitu zuen Baldwinak abokatu-ahots garbiz—. Bostehun dolarreko txeki bat bidaliko dizut neska

zintzoa zarelako eta gogoko zaitudalako. Pisua hilaren hasierara arte ordainduta dago. Ondo deritzozu? Eta mesedez, ez zaitez nirekin inola ere harremanetan jar.

Nevada luzaz sofa gainean etzanda geratu zen, barre inozoari ezin eutsirik, kontu handiz tolestutako praka itsaso urdin parearen ondoan. Baldwinek kapelaz eta eskularruez agur esan zion eta atea artatsu itxita alde egin zuen. «Ederretik eskapatu nauk», esan zuen berekiko atea ixtean.

Behin kalera iritsita, berriro bideari ekin zion urrats biziz. Kalakari eta asaldaturik sentitu zen. Ez zekien norengana jo. Bere lagunen izenak gogora ekarrita gogogabeturik sentitu zen, baka-rrik, abandonaturik. Estanko batean sartu eta telefono-aurkibidea gaineratik begiratu zuen. Hatxea aurkituta astinaldi txiki bat sumatu zuen bere baitan. Azkenean, Herf abizena aurkitu zuen, Helena Oglethorpe.

Nevada Jones luzaz geratu zen sofa gainean eserita, inozoki eta histerikoki barreka. Gero, Tony Hunter alkandora eta galtzontziloak jantzi-

ta azaldu zen, gorbataren korapiloa ezin hobeto loturik.

— Joan al da?

— Joan? Bai noski, joan da eta ez da itzuliko —esan zuen Nevadak ozenki—. Zure praka madarikatuak ikusi ditu.

Tony Hunter astunki eseri zen aulki batean.

— Jainko maitea! Inork ez du nik baino zorte txarragorik munduan.

— Zergatik?

Nevada barrez lehertzen ari zen; horren ondorioz, hamaika malko-errekastok aurpegia zeharkatu zioten.

— Dena gaizki atera zait. Horrek esan nahi du hemendik aurrera ez dela arratsaldeko antzerki-saiorik egongo.

— Eta Nevada gajoa, egunean hiru berriro... Bost axola zait... Ez dut sekula gogoko izan inoren kontura bizitzea.

— Baina zuri berdin zaizu nire karrera... Ema-kumeak hain zarete zeuenkoiak! Kasurik egin ez banizu...

— Ixo, tentel hori! Zer uste duzu, ezagutzen ez zaitudala ala?

Nevada kimonoa soinari itsatsirik altxatu zen.

— Jainkoarren! Nik aukera bat behar nuen zer egin dezakedan erakusteko, hori besterik ez. Eta orain ez dut horrelakorik izango —esan zuen Tonyk auhenka.

— Izango duzu zeure aukera, nik esaten dizudan guztia egiten baduzu. Ahaleginak eta bi egingo ditut zu gizon egiteko, umetxo hori, eta lortu egingo dut... Ikuskizun bat antolatuko dugu bion artean. Hirshbein zaharrak aukera bat emango digu, garai batean txora-txora eginda zegoen nirekin... Etorri, muturreko bat emango dizut aurpegian bestela... Pentsa dezagun horretaz... Dantza-ikuskizun batekin hasiko gara... Gero, zuk egingo duzu tranbiara igotzen lagunduko bazenit bezala... begira, honela... Ni tranbiaren zain egongo naiz... honela... Zuk «kaixo, laztana» esango duzu; nik, berriz, «polizia!» garrasi batean.

— Behar besteko luzera du, jauna? —galdetu zuen arropa-saltzaileak, klarion batez praktetan markak ipintzen ari zela.

James Merivalek begiak beherantz zuzendu zituen saltzailearen soilune txiki zimurtsu berdekari eta oinen gainean dilindan zituen praka zabal nabarrei so egiteko.

— Pixka bat laburrago... Uste dut praka luzeegiek zahartu egiten dutela apur bat.

— Kaixo Merivale, ez nekien zuk ere Brooks'-en erosten zenuenik arropa. A ze poza zu ikustea!

Merivaleri zainetako odola izoztu egin zitzaion. Jack Cunninghamen begi urdin alkoholi-koak begira zituen, adi-adi. Ezpainei ausiki egin zien eta hoztasunez begiratzen saiatu zen, hitzik egin gabe.

— Jainko maitea! Ba al dakizu zer egin dugun? —deiadar egin zuen Cunninghamek—. Oihal berbera erosi... Berdin-berdina da.

Aztoraturik, Merivalek txandaka begiratu zien Cunninghamen praka grisei eta bere prakei: kolore berbera, marratxo gorri bera eta orban txiki berde berberak.

— Aizu gizona, bi koinatugaik ezin dute jantzi berbera eraman! Jendeak pentsatuko luke uniforme dela... Barregarria da.

— Tira, eta zer egingo dugu? —esan zuen kexati Merivalek.

— Zotz egingo dugu ea nori tokatzen zaion, besterik ez... Quarter bat utziko didazu? —Cunningham jiratu zen saltzailea zegoen lekurantz—. Eskerrik asko... Aurpegia ala gurutzea?

— Aurpegia —esan zuen Merivalek mekanikoki.

— Jantzi nabarra zurea da... Orain nik beste bat aukeratu beharko... Hala ere, pozten naiz biok garaiz elkarrekin topatu izanaz. Aizu —oihu egin zuen kabinaren gortinen artetik—, afaldu nahi al duzu nirekin gaur gauean Salmagundi Club-en?... Hidrohegazkinekin ni baino txoratuago dagoen munduko gizon bakarrarekin afaltzera noa... Perkins laguna da, zerorrek ezagutzen duzu, zure banketxeko lehendakariordeetako bat... A, eta Maisie ikusten duzunean, esaiozu berarekin hitz egitera igoko naizela. Gertakari-sorta arraro bat dela eta, ez dut izan berarekin harremanetan jartzerik... oraindaino atsedetik eman ez didan gertakari-sorta penagarri bat... Geroago hitz egingo dugu honetaz.

Merivalek eztarria garbitu zuen.

— Oso ondo —erantzun zuen lehor.

— Eginda dago —esan zuen saltzaileak, Mari-valeri azken zapladatxoa ematen ziola ipurmasailetan.

Berriro kabinan sartu zen arropa aldatzeko.

— Tira —oihu egin zuen Cunninghamek—, beste jantzi bat aukeratu beharra daukat... Zaz-pietan itxarongo dizut. Jack Rose bat izango duzu zain.

Gerrikoa janztean, Merivalek eskuak dardarka zeuzkan. Perkins, Jack Cunningham alu hori, hidrohegazkinak, Jack Cunningham, Salmagundi, Perkins. Dendaren zoko bateko telefonora jo zuen eta bere amari deitu zion.

— Aizu, ama, uste dut ez naizela afaltzera joango... Randolph Perkinsekin afalduko dut Salmagundi Club-en... Bai, oso atsegina da... O, biok lagun onak izan gara betidanik... Bai, funtsezkoa da goikoekin harremana izatea. A! Jack Cunningham ikusi dut. Gaia aurrez aurre agertu diot eta ez du jakin zer erantzun. Hogeita lau ordu barru azalpen bat emango didala esan dit... Ez, lasai ibili naiz. Maisieri zor diot hori. Benetan diotsut, gizon hori alproja hutsa da, baina frogat

tu egin behar dugu hori... Tira, gau on amatxo, berandu iristen banaiz ere. O, ez mesedez, ez egon nire zain. Esaiozu Maisieri ez kezkatzeko, berak nahi adina xehetasun emango dizkiot. Gau on, ama.

Atzealdeko mahai txiki batean eserita zeuden, te-areto bateko erdi-ilunpean. Lanpararen pantailak aurpegiaren goialdea ebakitzen zien. Ellenek jantzi urdin bat zuen; buruan, berriz, kapela urdin txiki bat, apaingarri berde batez hornitua. Makillajea gorabehera, Ruth Prynnek ezin zuen neke-aurpegia ezkutatu.

— Elaine, etorri egin behar duzu —zioen ahots zinkurinatiz—. Cassie, Oglethorpe eta betiko lagun guztiak izango dira hor... Egunkarian hainbesteko arrakasta izan baduzu ere, ez duzu zertan lehengo lagunak ahaztu. Zuk ez dakizu, baina guk sarri hitz egiten dugu zutaz eta zure berri jakin nahi dugu.

— Ez, Ruth, gero eta gutxiago gustatzen zaizkit jai handiak; zahartzen ari naizelako izango da agian. Ongi da, apur batean joango naiz.

Ruthek platerean utzi zuen hozkatzen ari zen sandwicha eta, Elleni esku bat hartuta, zaplada-txo batzuk eman zizkion.

— Horixe da-eta nire aktore txikia! Banekien nik etorriko zinela, noski.

— Baina Ruth, zuk ez didazu sekula kontatu zer gertatu zitzaion iazko udan biran ibili zen erreperitorio-konpainia hari...

— Jainko maitea —esan zuen bat-batean Ruthek—, ikaragarria izan zen! Barrez lehertzekoa izan zen, barrez lehertzekoa. Lehenengo eta behin zera gertatu zen: Isabel Clyde-ren senarra, Ralph Nolton, gerente-lanak egiten zituena, dipsumaniakoa zela... eta gero, Isabel xarmangarriak ez zion inori antzepenean parte hartzen uzten, baldin eta txorimalo baten lana egiteko ez bazen. Beldur zen nekazariak ez ote zuten jakingo nor zen izarra... O, ezin dizut gehiagorik kontatu... Ez da batere barregarria, ez horixe; negargarria da... O, Elaine, ez dut ezertarako gogorik... Ni bai ari naizela zahartzen, maitea.

Halako batean negar-zotinka hasi zen.

— O, Ruth, ez mesedez —esan zuen Ellenek ahots fin latzaz eta barreari lotu zitzaion—. Azken batean, denok gara gero eta zaharrago.

— Maitea, zuk ez duzu ulertzen... Ez duzu inoiz ulertuko.

Luzaz eserita egon ziren, elkarri ezer esan gabe. Te-areto ilunaren beste zoko batzuetatik solasaldi-zatiak iristen zitzaizkien. Ile argiko neska zerbitzari batek fruta-mazedoniaren bi errazio ekarri zizkien.

— Ene, oso berandu izan behar du! —esan zuen Ruthek azkenean.

— Zortzi eta erdiak besterik ez dira... Guk ez dugu goizegi iritsi nahi jai horretara.

— Hara! Ia-ia ahaztu zitzaidan... Zer moduz dago Jimmy Herf? Urteak dira ikusi ez dudala.

— Jimps ondo dago... Kazetaritzaz kopetaraino dago. Nahi nuke, ba, gustuko duen zerbait aurkituko balu.

— Betidanik izan da pitin bat kezkatua. O, Elaine, ze poza hartu nuen ezkondu zinetela jakin nuenean. Leloaren pare jokatu nuen. Negar eta negar egin nuen. Eta orain Martinekin-eta oso zoriontsuak izan behar duzue.

— O, oso ondo konpontzen gara... Martin mutil bikaina da. Badirudi New Yorkek on egiten diola. Lehen hain isila eta gizona zen ezen denbora luzean uste izan baikenuen ume ergel bat sortua genuela. Ene, Ruth, uste dut ez dudala ume gehiagorik izango... Beldur nintzen umea deformaturik edo irtengo zela... Horretaz pentsatzeko hutsak gaixorik jartzen nau.

— Zoragarria izan behar du, hala ere.

Letoizko xaflatxo batean *Hester Voorhees*, INTERPRETATION OF THE DANCE irakur zitekeen. Horren azpiko txirrin bat jo zuten. Eskailera kaskagile bernizatu berrien hiru pisu igo zituzten. Gela jendetsu batera ematen zuen ate batean Cassandra Wilkins topatu zuten tunika greko bat jantzirik. Buruan, satinezko pipil-girlanda bat zeraman eta eskuan, berriz, zur urreztatutako flauta bat.

— Lagun maiteok —esan zuen biak batera besarkatzen zituela—. Hestedgek zioen ez zinetela etodgiko, baina nik ez nion sinesten... Sagtu eta jadgi edoso, edgitmo elastiko batzuekin hasiko gadaeta.

Ruth eta Ellen haren atzetik joan ziren kandlez argizatuko gela intsentsu-usaineko batean zehar, non hamaika gizon-emakume baitzeuden, guztiak ere soineko zabalak jantzita.

— Baina maitea, ez zenigun esan jantzi-dantzaldia izango zela.

— O, bai! Ez duzu ikusten dena gdekoa, guztiz gdekoa?... Hau Hested da... Hauek nide lagunak dida, maitea... Hested, zuk Duth ezagutzen duzu... eta hau Elaine Oglethogpe da.

— Orain Mrs. Herf nauzu, Cassie.

— O, bagkatu, ez da batede edgaza egunean egotea... Gadaiz etodgi zadete... Hestedgek Adabiar Gauetako Edgitmoak dantzatu behad ditu... O, liludagadgia da.

Berokia utzia zuen logelatik irtetean, Elleni silueta garai bekain gorrixka bat hurreratu zitzaion, egiptoar buru-estalkia zeramana.

— Helena Herf, jaso ezazu nire agurrik beroena, zeu baitzara Manners-eko editore ospetsua, Ritz hotela etxerik apalenera ere hurbiltzen duen aldizkariko editorea... ez da egia?

— Jojo, zu beti adarra jotzen... Izugarri pozten naiz zu ikusteaz.

— Eser gaitezen zoko batean eta hitz egin dezagun, o zeu zara, zeu eta ez beste inor, nik inoiz maitatu dudan emakume bakarra.

— Bai goazen... Hau ez dut oso atsegin.

— Aizu, maitea, ez dakit jakingo duzun, baina psikoanalista batek Tony Hunter sendatu du eta orain sublimaturik dagoenez, eszenatokira itzuli da vodevila egitera, California Jones izeneko emakume batekin.

— Kontuz ibili, ba, Jojo.

Sofa batean eseri ziren, txapitulako bi leihoen artean. Zeharretara so eginda, zetazko belo berdeak jantzirik dantzan ari zen emakume bat ikusi zuen Ellenek. Gramofonoak Cesar Francken sinfonia jotzen zuen.

— Ez dugu Cassieren dantza-saioa galdu behar. Izugarrizko disgustua hartuko luke gajoak.

— Jojo, kontaidazu zerbait zeuri buruz. Zer moduz zabiltza?

Burua astindu eta keinu nabarmen bat egin zuen beso batez.

— Lurrean eserita elkarri kontatuko dizkiogu erregeen heriotzari buruzko istorio goibelak.

— O, Jojo, nazkatuta nago horretaz!... Hori bai kontu txatxua eta hutsala!... Kapela erantziz izan ez banu, hobeto.

— Horrek aukera eman dit zure adatsaren oihan debekatuak ikusteko.

— O Jojo, zintzoa izan!

— Zer moduz zure senarra, Elaine edo, hobeto esanda, Helena?

— Ondo dago.

— Ez du ematen poz-pozik zaudenik.

— Martin primeran dago. Ile beltza eta begi arreak ditu eta masailak arrosa jartzen ari zaizkio. Polit-polita da, benetan.

— Maitea, sobera dago ama-liluramenduaren erakustaldi hori... Azkenean esango didazu haurdesfile batean parte hartu duzula.

Elaine barreka hasi zen.

— Jojo, oso jostagarria izan da zu berriro ikustea.

— Oraindik ez dut bukatu neure erretolika, maitea... Lehen egunean jantoki obalatuan ikusi zintudan hazpegi finak zituen gizon dotore ilezuri batekin.

— George Baldwin izango zen. Zuk aspalditik ezagutzen duzu.

— Jakina, jakina. Guztiz aldatuta dago. Lehen baino askoz erakargarriago, esango nuke nik... Leku bitxia da hori Langileen Internazionaleko kide den boltxebike bakezale baten emazteak bazkaltzeko, esango nuke nik.

— Jimps ez da zehazki hori. Nolabait ere nahiago nuke hala balitz... —sudurra zimurtu egin zuen—. Pixka bat nazkatuta nago horrelako gauzez.

— Banuen horren susmoa, laztana.

Haien aldamenean, Cassie jira biraka zebilen, noraezean.

— O, etorri laguntzera... Jojok etengabe adarra jotzen dit.

— Tida, apud batean esediko naiz. Gedo, dantza egiteda joango naiz... Md. Oglethogpek Bilitis-en abestien bede itzulpena irakudgiko du eta nik dantza egingo dut.

Ellenek batari eta besteari behatu zien. Oglethorpek bekainak kakotu eta baietz egin zuen buruaz.

Gero, Ellen luzaz geratu zen bakarrik, asperrenaren laino trinkoan zehar dantzaldiari eta areto dardartari so.

Gramofonoko diskoa turkiarra zen. Hester Voorhees izeneko emakume argalak adats sarri hennaz tindatua zuen, belarrien parean moztua, eta intsentsuz beteriko ontzi ketsu bat zeramala agertu zen; bi gizon gaztek alfonbra bat zabal-tzen zioten, berak aurrera egin arau. Hesterrek zetazko galtzamotozak, gerriko metaliko tintinkaria eta gerruntzea zeramatzan. Denak txaloka eta oihuka ari ziren. «Zoragarria, liluragarria». Halako batean, beste gela batetik hiru emakume-garrasi lazgarri entzun ziren. Jauzi bat egin da, supituki denak zutitu ziren. Onddo-kapelako gizon lodi bat azaldu zen atalasera.

— Lasai, andreak, joan atzeko gelara. Gizonak hemen gera daitezela.

— Nor zara zu, baina?

— Zuri berdin zaizu ni nor naizen. Egizu esaten dizudana.

Onddo-kapelaren azpian, gizonaren aurpegia gorri-gorria zen, erremolatxaren antzekoa.

— Detektibea da.

- Hau ikaragarria da! Plaka erakuts dezala.
- Hau lapurreta da.
- Hau sarekada da.

Bat-batean gela detektibez bete zen. Leihoen aurrean kokatu ziren. Laukiekiko bonetadun gizon bat, aurpegia kalabaza bezain gogorgunetsua zuena, zutik zegoen supazterraren aurrean. Emakumeak zakar bultzatu zituzten atzeko gelarantz. Gizonak elkarrekin geratu ziren ate ondoan. Detektibeek izenak hartu zizkieten. Ellen artean sofa gainean eserita zegoen, lasai-lasai. «...kexak egiteko, deitu ordezkaritzara», entzun zion norbaiti. Gero, Ellen ohartu zen telefono bat zegoela mahai txiki baten gainean, bera eserita zegoen sofaren ondoan, hain zuzen ere. Telefonoa hartu eta zenbaki bat xuxurlatu zuen ahapeka.

— Barrutiko fiskalaren bulegoa?... Mr. Baldwinekin hitz egin nahi dut, mesedez... George... Zorionez, banekien non zeunden. Fiskala hor al dago? Oso ondo... Ez, esaiozu zeuk. Zentzugabe-ko oker bat da. Hester Voorheesen etxean nago. Badakizu dantza-estudio bat duela. Lagun batzuei dantza-saio bat ematen ari zitzaien eta,

okerren baten ondorioz, polizia azaldu eta sarekada bat egiten ari da...

Onddo-kapelako gizona ondoan zuen, zutik.

— Alferrik da telefonoz deitzea... Joan beste gelara.

— Barrutiko fiskalaren bulegoarekin hitz egiten ari naiz. Hitz egizu zeuk berarekin... Kaixo! Zu al zara Mr. Winthrop?... Bai... Zer moduz? Nahi al duzu gizon honekin hitz egin?

Ellenek telefonoa luzatu zion detektibeari eta gelaren erdialderantz jo zuen. «Kapela erantzi izan ez banu, hobe...», zerabilen buruan.

Zinkurinak eta Hester Voorheesen aktore-ahotsa garrasika argi entzuten ziren beste gelan: «Hau izugarrizko okerra da... Ez dut honelako irainik onartuko».

Detektibeak telefonoa eseki eta Ellenengana hurbildu zen.

— Barkamena eskatu behar dizut, andereño... Behar beste informaziorik gabe jokatu dugu. Neure gizonari atoa al de giteko esango diet.

— Hobe duzu Mrs. Voorheesi barkamena eskatzea... Estudio hau berea da.

— Jaun-andreok —esan zuen goraki eta ausart—, oker txiki bat egin dugu eta bene-benetan sentitzen dugu... Honelako gauzak gertatzen dira zoritxarrez...

Ellen isilean sartu zen aldameneko gelan, kapela eta berokia hartzeko. Apur batean ispilu aurrean geratu zen, sudurra hautseztatzen zuen bitartean. Estudiora itzuli zenean, jende guztia batera hitz egiten ari zen. Gizon-emakumeak biribilean zeuden, zutik, euren dantza-arropa urrien gainean izarak eta txabusinak jantzirik. Ordurako detektibeak aienatuak ziren, ziplo aienatu ere, agertu ziren bezalaxe. Oglethorpe ozenki eta gartsu ari zen hizketan gizon gazteen talde baten erdian.

— Alproja alaenak, emakumeei horrela erasotzea ere! —deiadar egin zuen aurpegi gorritz, bere buru-estalkiari esku batez eraginez—. Ez da batere erraza izan nire baitako grina gaiztoak menpean hartzea. Hil arte bakerik emango ez lidakeen zerbait egiteko zorian egon naiz. Ez da batere erraza izan nire baitako grina gaiztoak menpean hartzea...

Ellenek handik isilean alde egitea lortu zuen, eskaileretan behera lasterka jaitsi eta kale euri-tsura irten zen. Taxi bat geldiarazi zuen eta etxera joan zen. Behin etxean eroso jarri ondoren, George Baldwini telefonoz deitu zion.

— Kaixo George, bene-benetan sentitzen dut zuri eta Mr. Winthrop-i enbarazurik eragin izana. Bazkarian esan ez bazenit fiskalarekin egongo zinela gau osoan, seguru asko orain poliziaren kotxetik jaisten egongo ginateke, Jafferson Market-eko auzitegian. Oso barregarria izan zen, noski. Egunen batean kontatuko dizut, baina nazka-nazka eginda nago horretaz... O, dantza estilizatua eta literatura eta erradikalismoa eta psikoanalisi eta hori dena... Gaiendosia, nik uste... Bai, uste dut horixe izan dela, George... Uste dut zahartzen ari naizela.

Gaua beltz-beltza zen eta sekulako hotza egiten zuen. Prentsen usaina artean sudurrean, idazmakinen tintina artean belarrietan, Jimmy Herfek eskuak poltsikoan zituela City Hall Square-n so egiten zion elurra kentzen ari ziren gizon

zarpailtsuei. Belarriak boneten azpian babestuta. Lepoak xerra gordinak bezalakoak. Zahar ala gazte, guztiek ere kolore bereko aurpegiak eta kolore bereko jantziak zituzten. Labana bailitzan, haizeak Jimmy Herfi belarriak ebakitzen zizkion eta bekokian mina eragin, begien artean.

— Kaixo Herf, lan hau hartuko zenuke? —
esan zuen harengana kementsu hurbiltzen ari zen aurpegi zurbileko gizon gazte batek, elur-pilo bat seinalatzen zuen bitartean.

— Zergatik ez, Dan? Nire iritziz, ez da hobe bizitza ematea sudurra besteren bizitzan sartuta diktografo ibiltari madarikatu bat izan arte.

— Udan lan bikaina litzateke... West Side-rako metroa hartuko duzu?

— Ez, oinez joango niaz... Oinak luzatu nahi ditut.

— Hotzak akabatuko zara, gizona.

— Berdin zait... Norbaitek bizitza pribaturik ez badu, idazmakina automatiko soila baino ez da.

— Baina nik neure bizitza pribatuaren zati txiki bat kendu nahi nuke gainetik... Tira, gau on.

Espero dut bizitza pribatu apur bat lortuko duzula, Jimmy.

Barreka Jimmy Herfek bizkarra eman zien elurra kentzen ari zirenei eta Broadwayn gora hasi zen. Haizearen kontra makurtuta zihoan, kokotsa jakaren lepoan pulunpaturik zeramala. Houston Street-en erlojuari begiratu zion. Bostak. «Gaur berandu nabilek, arraioa! Ezin ote da inon trago bat edan?». Bere artean aieneka hasi zen, adoregabeturik, bere gelara iristeko ibili beharreko kale izoztuez pentsatuta. Aldian behin gelditu egiten zen belarri sorgortuak igurtzitzeko eta berotzeko. Azkenean, bere gelara heldu zen, gas-berogailua piztu zuen eta haren gainean makurtu zen. Gela karratua eta txikia zen; bate-re atsegina ez, ordea. Washington Square-ko hegoaldean zegoen. Altzari gutxi zituen: ohe bat, aulki bat, liburuz beteriko mahai bat eta gas-berogailu bat baino ez. Soina epeltzen hasi zitzaionean, ohe azpitik kalamuzko estalkidun ron botila bat atera zuen. Berogailu gainean ur apur bat berotzen jarri zuen latorrizko katilu batean eta ur beroa edateari ekin zion, ronarekin nahasita. Denetariko hilzori izengabeek eztanda

egiten zuten haren baitan. Bihotzaren inguruan burdinazko zerrenda bat zuelarik, maitagarrien ipuineko gizona bezala sentitzen zen. Burdinazko zerrenda hausten ari zen.

Rona bukatu zuen. Noizean behin gela biraka hasten zitzaion inguruan, irmoki eta metodikoki. Bat-batean goraki esan zuen: «Berarekin hitz egin behar diat... Berarekin hitz egin behar diat». Kapela buruan sartu eta berokia jantzi zuen. Kanpoaldean hotzak baltsamoa zirudien. Sei esne-bagoi ilaran igaro ziren, triki-traka.

Hamabigarren Kanean, West aldean, bi katu beltz elkarren atzetik zebiltzan lasterka. Nonahi entzuten zen euren marraka zoroa. Jimmyk zer-bait sumatu zuen buruan lehertzeko zorian. Orobat, iruditu zitzaion halako batean bera ere ziztuan aterako zela kale izoztuetan behera, marrika lazgarriak eginez. Kalezulo ilun hartan dardarka ari zen, *Herf* ondoan idatzita zeukan txirrina behin eta berriro sakatuz. Ellen txabusina urdin bat jantzita azaldu zen atera.

— Zer duzu, Jimps? Ez duzu giltzarik ala?

Loa zela eta, aurpegia bigundua zuen. Haren inguruan nabari zen loak isuritako halako zorion-

usain bat, barnekoa, xuabea. Arnasestuka, Jimmy hortzen artean hitz egiten ari zen.

— Ellie, hitz egin behar dizut.

— Mozkortuta zaude, Jimps?

— Nik badakit zer diodan.

— Sekulako logura daukat.

Jimmyk logelara jarraitu zion. Elliek zapatilak kendu eta ohera itzuli zen; bertan eserita geratu zen, lo-begiez so egiten ziola.

— Ez hitz egin horren ozenki, Martin lo dago eta.

— Ellie, nik ez dakit zergatik egiten zaidan hain zaila zernahiri buruz argi hitz egitea... Beti mozkortuta egon behar al dut, argi hitz egin ahal izateko?... Zuk oraindik maite nauzu ala ez?

— Badakizu oso estimu handian zaitudala eta beti horrela izango dela.

— Maitasunaz ari naiz, zuk ulertzen didazu... —ebaki zuen zakar.

— Nik uste dut denbora luzean ez dudala inor maitatu, hildakoak ez badira... Emakume ikaragarria naiz. Alferrik da horretaz hitz egitea.

— Banekien. Eta zuk bazenekien nik banekiel. Nirea bai zoritxarra, Ellie!

Ohean eserita eta eskuez belaunak oratuta,
Elliek so egiten zion, begiak zabal-zabalik.

— Hain maiteminduta zaude nitaz, Jimps?

— Aizu, dibortzia gaitezen eta kito.

— Egon lasai, Jimps... Martin ere hor dago?

Zer gertatuko da berarekin?

— Aldian behin diru apurren bat aurreztuko
dut berarentzat, gizajoa!

— Nik zuk baino gehiago irabazten dut...
Ordaindik ez duzu horrelakorik egin behar.

— Badakit. Badakit... Jakingo ez dut ba!

Eserita, elkarri begira geratu ziren, isil-isilik.
Begiak sutan zituzten, elkarri luzaro begiratu iza-
naren ondorioz. Bat-batean Jimmyk halako pre-
mia handi bat sentitu zuen: lo egin nahi zuen, ez
zuen ezer gogoratu nahi, burua ilunpean murgil-
du nahi zuen, bere amaren altzoan bezala, txiki-
tan bezala.

— Tira, etxera noa —lehor egin zuen barre—
. Ez genuen uste hau honela bukatuko zenik,
ezta?

— Gau on, Jimps —xuxurlatu zuen aharrausi
bat ahoratuz—. Gauzak, ordea, ez dira buka-

tzen... Horrenbesteko logalerik ez banu... Argia itzaliko duzu?

Itsumustuan atea aurkitu zuen ilunpean. Kanpoaldean goiz artikoa griseztatzen ari zen egunsentiarekin batera. Ziztu bizian itzuli zen bere gelara. Ohean sartu eta lo geratu nahi zuen egunaren argiak ortzia urratu aurretik.

Gela luze bat; erdian, mahai luzeak, zetazko eta krepezko oihalak: batzuk grisak, besteak izokin ala esmeralda kolorekoak. Harien eta arropa egiteko materialen usaina airean. Mahaietan zehar buruak makurturik: josten ari ziren nesken buru gorrixkak, horiak, beltzak. Mandatariak han-hemenka zebiltzan mahaien artetik, arropaz beteriko pertxero mugikorrak bultzaka. Txirrin batek jotzeaz batera, kalapita eta garrasi zorrotzak nagusitu ziren gelan, txoridenda batean bai-leuden.

Anna altxatu eta nagiak atera zituen.

— A ze biharamuna! —esan zion ondoan zuen neskari.

— Atzo berandu oheratu zinen?

Annak baietz egin zuen buruaz.

— Utzi egin behar duzu hori. Horrela ibiltzeak ez dizu bat ere onik egingo. Emakume batek ezin du kandela bi muturretatik erre, gizonak bezala.

Beste neska argala eta ilehoria zen eta sudurra okertutik zeukan. Beso batez Annaren gerria inguratu zuen.

— Zer ez nuke nik emango zure kilo batzuk hartzarren!

— Gustura emango nizkizuke —esan zuen Annak—. Den-denak loditu egiten nau.

— Hain lodia ere ez zaude, orde... Pitin bat baino ez. Gizonak zuri txatxamurka egitea gustuko izateko behar bezain potolatxo, ez besterik. Gizonen modura janzten saiatuko bazina, benetan diotsut, politagoa izango zinateke.

— Nire senargaiak ez ditu gogoko neska argalak.

Eskaileretan neska-talde bat erne zegoen neska txiki ilehori batek zer esango. Bi neskek kostata baina, haien artetik aurrera egitea lortu zuten. Neska txikiak arin hitz egiten zuen, ahoaz guztiz irekita eta begiak zuri-zuri.

— ...eraildako neska hurrengo etxe-blokean bizi zen, 2230 Cameron Avenue-n. Hipodromora joana zen beste neska batzuekin eta etxera bidean, berandu zenez, bakoitzak bere bidea hartu eta bakarrik abiatu zen Cameron Avenue-n zehar, eta biharamun goizean gurasoak bila hasi eta Spearmint-eko kartel baten atzean aurkitu zuten, orube batean.

— Hilda zegoen?

— Bai, guztiz hilda... Beltz batek zerbait izugarria egin zion eta gero, ito egin zuen... Oso oso gogorra izan zen niretzat. Ni berarekin joaten nintzen eskolara. Orain Cameron Avenue-n ez da neskarik ikusten ilunkeran. Izututa daude.

— Egia da, nik bart egunkarian irakurri dut kontu hori.

— Ikusi ninduzun konkordun hura ukitzen? —
deiadar egin zuen Rosiek taxian haren alboan esertzean.

— Antzokiko atariandoan?

Jake Silvermanek bere praktetatik tira egin zuen, belaun aldea estutzen ziotela eta.

— Horrek zortea emango digu, Jake. Konkordunekin ez dago huts egiterik... konkorra ukitzen badiezu... Ene, zuk ez dakizu zein gogaikarri zaizkidan hain azkar dabiltzan taxiak!

Taxiaren bat-bateko balaztada batek aurretik eraman zituen deblauki.

— Jainko maitea, ia-ia mutiko bat harrapatu genuen!

Jake Silvermanek zapladatxo batzuk jo zituen belaunetan.

— Ez zaitez beldurtu, gajoa!

Hotelera iristean, Rosie dardarka pulunpatu zuen aurpegia jakaren lepoaren barnean. Harre-
ra-lekura joan ziren giltza eskuratzerantz eta bertan enplegatuak esan zion Silvermani:

— Gizon bat duzu zain, jauna.

Gizon lodi bat bidera irten zitzaion ahotik puru bat ateratzen ari zela.

— Ardura al dizu hona apur batean sartzen banaiz, Mr. Silverman?

Rosiek uste izan zuen kordegabetu egingo zela. Geldi-geldi geratu zen, izoztuta, masailak jakaren larruzko lepoan hondoraturik.

Bi besaulki bigunetan eserita, gizonak elkarri xuxurlaka ari zitzaizkion, begiak batuta. Belarriak zoli, apurka-apurka Rosie hurreratu zitzaien. «Kartzeleratzeko agindua... Justizia Ministerioa... posta iruzurra egiteko erabil-tzea...». Ezin zuen entzun Jakeren erantzuna. Baietz egiten zuen buruaz, onarpena adierazi nahian. Gero, halako batean, gozo-gozo hasi zen hizketan, irribarreka.

— Ondo da, zure iritzia entzun dut, Mr. Rogers... Hona hemen nirea. Orain atxilotzen banauzu, nik behea joko dut eta nirekin batera jende askok eta askok ere behea joko du, enpre-sa honetan bere dirua ipinia duelako... Astebete barru negozioa itxi dezaket etekinak lortuta... Mr. Rogers, okerreko bidetik bete-betean sartu naiz, besteengan konfiantza gehiegi izateagatik.

— Ezin dizut lagundu... Agindua bete beharra daukat... Zoritxarrez, zure gela miatu beharko dut... Ikusten duzunez, zerrenda txiki bat ekarri dugu.

Gizonak bere puruaren errautsa astindu zuen eta gorabeherarik gabeko ahotsaz irakurtzeari ekin zion.

— Jacob Silverman, Edward Faversham ezizenez ezaguna, Simeon J. Arbuthnot, Jack Hinkley, J. J. Gold... O, zerrenda ederra dugu hemen!... Neuk ez nuke esan behar, baina, zure kasuan, lan polita egin dugu.

Altxatu egin ziren. Purudun gizonak buruaz keinu bat egin zion bonetadun gizon argal bati, atariondoaren beste aldean egunkaria irakurtzen ari baitzen.

Silverman harrera-lekura hurbildu zen.

— Nire negozioak direla-eta alde egin beharra daukat —esan zion enplegatuari—. Kontua prestatuko didazu, mesedez? Mrs. Silvermanek egun batzuk gehiago emango ditu hemen.

Rosiek ezin zuen hitz egin. Hiru gizonei jarraitu zien igogailuraino.

— Sentitzen dut hau egin izana, andrea —esan zuen gizon argalak bere bonetaren babesetik tira eginda.

Silvermanek gelako atea ireki eta kontu handiz itxi zuen, denak barrura sartu orduko.

— Eskertzen dizuet zuen adeitasuna... Nire emazteak eskerrak ematen dizkizue.

Rosie gelaren zokoko aulki zuzen batean eseri zen. Bere mihiari gogor egiten zion hozka, gero eta gogorrago, ezpainen dar-dar egin ez ziezaioten.

— Badakigu, Mr. Silverman, honako hau ez dela ohiko kasu kriminala.

— Zerbait edan nahi, jaunok?

Besteek burua mugitu zuten. Gizon lodiak beste puru bat piztu zuten.

— Ederki Mike —esan zion gizon argalari—, miatu tiraderak eta armairua.

— Hori egiten al da normalean?

— Normalean egiten dena egingo bagenu zuri eskuburdinak jarriko genizkizuke eta zure emaztea ere eraman egingo genuke laguntza emateagatik.

Esku izoztuak belaunen artean oraturik, Rosie saina alderik alde kulunkatzen ziharduen. Begiak itxita zeuzkan. Detektibeek armairua arakatzen zuten bitartean, Silvermanek aukera aprobetxatu zuen eskua Rosieren sorbalda gainean ezartzeko. Neskak begiak ireki zituen.

«Morroi hauek ni eraman bezain laster, deitu Schatz-i eta esaiozu dena. Nola edo hala jarri

berarekin harremanetan, horretarako New York osoa esnatu behar baduzu ere.»

Ahapeka hitz egiten zuen, azkar, ezpainak kasik mugitu gabe.

Minutu bat geroago joan egin zen, bi detekti-be atzean zituela. Eskutitzez beteriko maleta bat zeramaten. Musuak artean heze zirauen Rosie-ren ezpainetan. Dena lausoturik ikusten zuen, begiak gela huts izugarri lasai hartan finkatuz. Ohartu zen mahaiko paper lehorgarrian zerbait idatzita zegoela. Jaken idazkera zen, oso zirriborraturik. «Dena giltzapean itxi eta alde egizu; neska zintzoa zara». Malkoak masailetan behera pirritan hasi zitzaizkion. Luzaz eserita geratu zen burua mahai gainean bermatuta, arkatzez paper lehorgarrian idatzitako hitzei musuka.

Laugarren atala

Etxeorratza

*Hankarik gabeko gizon gaztea gelditua zen Hamalaugarren Kaleko hegoaldeko espaloia-
ren erdian. Jer-tse urdina eta puntuzko bonet urdi-
na zituen jantzirik. Begiak guztiz ire-
kita zeuzkan, gero eta handiago,
harik eta papera bezain zuria zen
aurpegi hura bete zioten arte.
Zeruan globo gidagarri bat norae-
zean; eztainu-paperezko puru disti-
ratsu bat goi-goian lausoturik; hodei
bigunen eta euriak garbitutako
zeruaren urratzaile geldoa. Besoetan
bermaturik, hankarik gabeko gizon
gaztea geldi-geldi zegoen, Hamalau-
garren Kaleko hegoaldeko espaloia-
ren erdian. Urrats luzeak eginez
zebiltzan hankak: hanka argalak,
hanka prakadunak, bonbatxodunak,
gonadun hankak; haien guztien*

*artean gizon gaztea zegoen, geldi-
geldi, globo gidagarriari beha.*

Lanik gabe, Jimmy Herf Pulitzer Building-etik atera zen. Espaloian gelditu zen, arrosa koloreko egunkari-pilo baten ondoan, arnasestuka, Woolworth eraikinaren silueta dirdaitsuari so. Egun eguzkitsua zen; zerua txantxangorri-arrautza bezain urdina zen. Iparralderantz biratu eta hiriaren erdialderantz jo zuen. Handik urrundu ahala, Woolworth eraikinaren itzala teleskopio baten modura luzatzen zen. Iparralderantz jota, hiria zeharkatu zuen, leiho distiratsuetako hiria, alfabeto aldrebesen hiria, kartel urreztatuekiko hiria.

Udaberri glutentsua... Gozotasun urreztatuz itoa, atsegina mokadu guztien baitan, the daddy of them all, udaberri glutentsua. Inork ezin du prince albert baino ogi hoberik erosi. Altzairu forjatua, aluminioa, kobrea, nikela, burdina forjatua. *Mundu osoak berezko edertasuna maite du.* LOVE'S BARGAIN, Gumpel etxeko jantziak. Eutsi zeure neska-azal horri... JOE KISS, abioa, argiak, pizketa eta sorgailuak.

Zernahik barre eutsiaren borborra sentiarazten zion. Hamaikak ziren. Lorik egin gabe zegoen. Bizitza hankaz gora zeukan. Bera euli bat zen, hankaz gora zegoen hiri baten sabaian zehar zebilen eulia. Bere lana utzia zuen. Ez zuen zereginik ez gaur, ez bihar, ez etzi, ez etzidamu. Igotzen den guztia jaitsi egiten da, aste edo hilabete kontua da. Udaberri glutentsua.

Jatetxe txiki batean sartu zen; arrautzak hirugiharrarekin, ogi xigortua eta kafea eskatu zituen. Gustura jan zuen mokadu guztiak ahogozatuz. Bere gogoetak aske zebiltzan, arrastiriaz zoraturako moxalak larre batean bezala. Aldameneko mahaian, gorabeherarik gabeko ahots bat zerbait azaltzen ari zen:

— Bertan behera utzita... eta, benetan diotsut, garbiketa egin behar izan genuen. Horiek denak zure elizako kideak ziren. Denok genekien istorio osoa. Emakumea kalera botatzeko aholkua eman zioten. Berak esan zuen: «Ez, ikusi nahi dut hau nola bukatzen den».

Herf altxatu egin zen. Ibili egin behar zuen berriro. Ahoan hirugihar-zaporea zeukala alde egin zuen.

Service Express-ek udaberriaren beharrak betetzen ditu. «Jainko maitea, udaberriaren beharrak betetzea!». Latarik gabe, jauna, baina pipa-zupakada xuabe guztien kalitatea ezin hobe da... socony. Zupakada bat argigarriagoa da milioi bat hitz baino. Zerrenda horidun arkatx horia. Milioi bat hitz baino, milioi bat hitz baino. «Ederki, milioi hori niretzat... Ipini zerbait gizona estaltzeko, Ben». Yonkers gaizkile-taldekoek hilda zegoelakoan utzi zuten parkeko jarleku batean. Lapurtu egin zioten, baina milioi bat hitz baino ez zuten lortu... «Baina, Jimps, zuk ez daki-zu zein nekatuta nagoen liburuez eta proletalgoaz hitz egiteaz!...»

Udaberria, gozotasun urreztatuz itoa.

Dick Snow-en ama lantegi txiki baten jabea zen. Amak behea jo zuen. Semeak eskola utzi eta alferkerian ibiltzeari ekin zion, freskagarrien postuko tipoari ederki ikasita. Mandolina-itxurako neska judu ilebeltz bati agindutako perlatxo belarritakoen bi kuotak ordainduak zituen. Tren jasoaren geltokian, banketxeko mezulariaren beha zeuden. Tornu-atearen gainera erori eta hantxe geratu zen. Maleta eskuetan zeramatela

ihes egin zuten, Ford Sedan batean. Dick Snow atzean geratu zen, errebolberra hilotzaren kontra husteko asmoz. Heriotzara kondenatutakoen sailean bete zituen udaberriaren beharrak, bere amari olerki bat idatzita, Evening *Graphic* aldizkarian argitaratuko zena.

Arnasa hartzen zuen bakoitzean, Herfek zarata, harea eta esaldi pintatuak arnasten zituen, harik eta soina puzten hasi zitzaion arte; gizen eta alfer sentitu zen, kezko zutabe bat apirileko kaleetan bezain dudatsu. Makina-denden, botoilantegien eta etxebizitzien leihoei begiratu zien. Izaren kraka eta tornuen burrunba fina sumatu zituen. Idazmakinetan hitz gordinak idazten zituen, mekanografoen atzamarren artetik. Saltoei handien etiketak nahasten zituen. Bere barnea burbuletan lehertzen zen, soda bailitzan, marrubi, endalahar, txokolate, gerezi eta banilla zaporeko xarabe gozora isuria, bitsa zeriola gasolina bezain urdina zen aire epelari. Goraga-leak jota, berrogeita laugarren pisutik erori eta lurraren kontra jo zuen. «Eta eman dezagun errebolber bat erosita Ellie hil egin dudala. Bete-ko al nituzke apirileko beharrak, amari buruzko

olerki bat heriotzara kondenatutakoen sailean idatziko banu, *Evening Graphic*-en argitaratze-ko?»

Kuzkur-kuzkur eginda geratu zen, harik eta hauts-izpien neurriko izan arte, bere iparraren xerka, harkaitz eta harritzen artean, bide-ertze-ko erreka orrolariaren, lasto luzeen eta areka-ko motore-olioz osatutako aintziren artean.

Washington Square-n eseri zen, eguerdiko arrosaz blai, eta arkuan zehar Bosgarren Etorbi-deari so egin zion. Ordurako ez zuen sukarrik. Hotz eta nekatuta sentitzen zen. «Beste udaberri bat, Jainkoak zakik duela zenbat udaberri igo nintzen hilerritik macadam urdinezko bidean zehar, bertan kantari aritzen baitziren txolarrak. Kartelak zioen: *Yonkers*. Yonkers-en ehortzi nian nik neure haurtzaroa; Marseilla-n, hai-zeak aurpegiaren kontra jota bota nian nik neure nerabezaroa portuko uretara. New Yorkeko zein lekutan ehortziko dut nik neure gaztaroa? Beharbada gaztaroa deportatua izan zuan, beharbada Ellis Island-eko ferryan itsasoratu zuan Internazionala abestuz. Ur gainean hasperen bihurturik,

Internazionalaren doinua pixkanaka-pixkanaka aienatuz zihoaan lainoaren baitan».

DEPORTATUAK

«James Herf kazetari gazteak, 190 West Hamabigarren Kalea, arestian galdu ditu bere azken urteak. Merivale epailearen aurrera azalduta, urte haiek Ellis Island-era bidali zituzten deportaturik, gizatxar arrotzak zirelakoan. Lau gazteenak, hain zuzen ere, Sasha, Michael, Nicholas eta Vladimir atxilotu egin dituzte denbora-tarte batez, anarkista kiminalak izatearen salaketapean. Arlotekeriaren salaketapean beste bi atxilotu zituzten. Azkenik, Bill, Tony eta Joe zenbait delitu eta krimen zirela medio atxilotu zituzten, hala nola, emazteari emandako tratu txarrak, nahita eragindako sutea, lapurreta eta prostituzioa. Guztiak izan dira kondenatuak gaiztakeria, indarkeria eta zabarkeria direla medio.»

Entzun, entzun, entzun, aulkiko presoak... «Frogak zalantzazkoak iruditzen zaizkit», esan zuen epaileak beretzat edari bat prestatzen zuen bitartean. Parra-hostoez apaindurik, auzitegiko

idazlaria lehengo moduko koktel bat irabiatzen ari zen. Halako batean, parra-hostoak hazten hasi zitzaizkion eta, horren ondorioz, auzitegiko salan gero eta nabariago egin zen umotzen ari ziren mahatsen kiratsa. Alkohol Trafikatzaile Distiratsuak zezenei adarretatik heldu eta Justizia jauregiko eskaileren behealdean makurrarazi zituen. «Gaurko saioa bertan behera geratzen da, arranopola!», oihu egin zuen epaileak bere ur botilan ginebra topatzerakoan. Erreportariak alkatea harrapatu zuten lehoinabar-larruaz jantzirik eta Hiritarren Bertute gisa posatzen, oin bat Fifi printzesa Ekialdeko dantzariaren bizkar gainean ezarrita. Gure korrespontsala Banker's Club-eko leihotik begira zegoen. Ondoan osaba zuen, Jefferson T. Merivale, hiriko *clubman* ospe-tsua, bai eta ondo piperreztatutako bi bildots-txuleta ere. Anartean, zerbitzariak orkestra bat azkar antolatzen ari ziren, Gausenheimertarren tripatzarrak danbor gisa erabilita. Maîtreak *My Old Kentucky Home* kantaren bertsio bikain bat eskaini zuen, Delaware-ko Well Watered Gasoline Company-ko zazpi zuzendarien soilune durunditsuez estreinako aldiz xilofono gisa

baliatuta. Eta bien bitartean, galtzontzilo gorriak eta zerrenda urdineko zetazko kapela bat jantzi-rik, Alkohol Trafikatzaile Distiratsuak zezenak zeramatzan Broadwayn zehar: zezen-kopurua bi milioi hirurehun eta berrogeita bi mila eta bos-tehun eta batekoa zen. Spuyten Duyvil-era iritsi-ta, usterik gutxienean banan-banan ito ziren, Yonkers-eraino igeri egiten saiatzearren.

«Eta hemen nagok eserita», pentsatzen zuen Jimmy Herfek, «moldeko hitzek ikaragarritzko azkura ematen zidatek, negal bat banu bezala. Moldeko hitzez josita nagok». Zutitu egin zen. Txakur hori txiki bat lo zegoen uzkurtuta jarle-kuaren azpian. Txakur hori txikiak oso zoriontsua ematen zuen. «Loaldi eder bat behar diat, ez besterik», esan zuen Jimmyk goraki.

— Zer egin behar duzu horrekin, Dutch, bahian eman behar duzu?

— Francie, nik ez nuke milioi bat dolar baino gutxiago onartuko pistola txiki horren truke.

— Jainkoaren izenean, ez hasi orain diruari buruz hitz egiten... Edozein egunetan polizia

batek hori gerrian duzula harrapatu eta atxilotu egingo zaitu, Sullivan legea dela eta.

— Oraindik ez da jaio ni atxilotuko nauen poliziarik... Ahaztu hori.

Francie negar-zotinka hasi zen.

— Baina Dutch, zer egingo dugu, zer egingo dugu?

Halako batean, Duthek pistola poltsikoan sartu zuen eta jauzi bat eginez altxatu egin zen. Gora eta behera zebilen, grinatsu, asfaltozko bidexkan zehar. Gaua latza zen, lainotsua: autoak errepide lupeztuan zehar zebiltzan argizko amaraun bat sasien eskeletoen artean atergabe bilbatuz.

— Neure onetik ateratzen nauzu zure auhen eta negarrekin... Isilduko al zara behingoz? — aldarte txarrez eseri zen Francieren ondoan—. Norbaiten zarata iruditu zait sasi horietan. Parke madarikatu hau zibilez jantzitako poliziaz beterik dago... Hiri zikin honetan ezin da inora joan, beti norbait duzu begira.

— Berdin litzaidake hain gaizki sentituko ez banintz. Jaten dudan guztia bota egiten dut eta

beti beldurak airean nago beste neskek ez ote duten zerbait susmatuko.

— Esana dizut, ba, dena konpontzeko bide bat nuela. Hitz ematen dizut egun pare bat barru dena konponduko dudala... Alde egingo dugu eta ezkondu egingo gara, hegoalderantz joango gara... Ziur nago lana ugari dagoela beste leku batzuetan... Hozten ari naiz. Goazen hemendik, arraioa!

— Ene, Dutch! —esan zuen Franciek neke-ahotsaz, lupeztutako asfaltozko bidexkatik behe-
ra egiten zuten bitartean—. Zuk uste duzu lehen bezain zoriontsu izan gaitezkeela berriro?

— Orain larri gabilta, baina horrek ez du esan nahi beti horrela egongo garenik. Ez al nintzen bizirik atera Oregon-go basoetako gas-
atake horietatik? Azken egunotan ez diot atsed-
enik eman buruari.

— Dutch, zu atxilotzen bazaituzte, neure burua ibaira botatzea besterik ez dut izango.

— Ez al dizut esan ez nautela atxilotuko?

Mrs. Cohen atso zaharra makurturik zebilen eta aurpegi beltzarana eta negalez betea zuen, errege-sagarraren antzera. Sukaldeko mahaia-
ren ondoan zutik zegoen eta bere esku latzak gurutzaturik zeuden sabelaren gainean. Aldakak kulunkatzen ziharduen, Annari gaitzezpen-jasa amaigabe bat yiddish-ez botatzen zion bitartean. Kafe-kikara baten aurrean eserita, alabak begiak makartsu zituen loaren ondorioz.

— Sehaskan ito izan bazintuzte edo hilda jaio bazina, hobe... Ene! Nik lau seme-alaba hezi ditut eta horietako bat bera ere ez zait ona atera; iraultzaileak, emagalduak, arloteak... Benny birritan kartzelan, eta Sol, Jainkoak daki non, beti istilutan sartuta, eta Sarah madarika-tua bekatura emana Minski's-en hankak jaso-tzen, eta orain zu, ustelduko ahal zara!, kalean lan egiten kartel bat bizkarrean duzula, lotsaga-be alaena!

Anna ogi-puska bat kafean busti eta ahoan sartu zuen.

— Ama, ez duzu ezer ulertzen —esan zuen ahoa beterik zeukala.

— Ulertu, ulertu prostituzioa eta bekatua... Zergatik ez duzu zeure lana egiten eta ahoa ixten? Zergatik ez duzu zeure soldata kobratzen lasai-lasai? Zuk lehen dirutza polita irabazten zenuen eta duintasunez ezkon zintezkeen, dantza-aretoetan edozeinekin burua galtzen hasi baino lehen. Ene, nik zahartzaroan hezi ditut gizon on bakar batek ere nahiko ez lituzkeen alabak...

Anna garrasika altxatu zen:

— Hori ez da zure kontua... Nik beti garaiz ordaindu dut neure alokairu-zatia. Zuk uste duzu emakumeek esklabo izateko eta atzamarrak lanaren lanaz higitzeko beste ezertarako ez dutela balio... Ni ez nator bat zurekin, aditu? Hortaz, ez egin oihu gehiagorik, ulertzen?

— Zure amari horrela hitz egitea ere! Salomon bizirik balego, ebain-ebain eginda utziko zintuzke. Hilda jaio bazina, hobe, zure amari gizonen hizkeraz mintzatzea baino. Alde egizu azkar, bestela txiki-txiki egingo zaitut eta.

— Ederki, banao.

Anna lasterka atera zen kaxaz betetako korridorean zehar eta, logelara iritsita, bere burua

ohe gainera bota zuen. Masailak sutan zeuzkan. Etzanda geratu zen, pentsatzeko ahaleginetan ari zen bitartean. Sukaldetik atso zaharraren negar-zotin haserre eta gorabeherarik gabeak zetozen.

Anna ohe gainean eseri zen. Aurreko ispiluan bere burua ikusten zuen malkotan blai eta ilea guztiz nahasirik. «Jainko maitea, zein itxura eskasa dudan!». Zutitzean, orpo batez jantziaren galartzu bat zapaldu zuen. Jantzia ziplo tarratatu zen. Anna ohe ertzean eseri eta negar eta negar egin zuen. Gero, tarratada kontu handiz josteari ekin zion oso puntada zehatzez. Joskintzak lasaitasuna berreskuratzen lagundu zion. Kapela buruan sartu, sudurra erruz hautseztatu, ezpainetakoez ukituren batzuk eman, berokia jantzi eta alde egin zuen. Apirila ustekabeko koloreak soineratzen ari zen East Side-ko kaleetan. Pina-buruz beteriko eskorga bati freskura gozoa eta lizuna zerion. Kale-kantoian Rose Segal eta Lillian Diamond topatu zituen postu batean koka kola edaten.

— Anna, edan koka bat gurekin —esan zioten.

— Ordaintzen badidazue... Txakur txikirik ere ez daukat.

— Baina sindikatuak ez al zizun greba ordaindu?

— Atsoari eman nion... Alferrik izan zen... Niri agiraka ematen du egun osoa. Zaharregia da.

— Ez al duzu entzun pistoladun batzuk sartu zirela Ike Goldstein-en dendan eta dena txiki-txiki eginda utzi zutela? Mailuekin den-dena suntsitu zuten eta Goldstein konorterik gabe utzi zuten oihal-pilo baten gainean.

— Ikaragarria benetan!

— Ondo egina.

— Baina ez zituzten gauzak horrela suntsitu behar. Azken batean, guk berak bezalaxe ateratzen dugu bizibidea aurrera.

— Bizimodu ederra bai... Ni erdi hilda nago bizimodu horri esker —esan zuen Annak edontzi hutsa barra gainean utziz.

— Aizu, aiku —esan zuen postukoak—, kontuz baxerarekin.

— Baina okerrena zera izan zen —jarraitu zuen Rose Segalek—, Goldsteinen dendan borrokan ari ziren bitartean, burdinazko barra bat

atera zela leihotik, bederatzigarren pisutik, eta kamioi batean zihoan suhiltzaile bat hil zuen. Hilda geratu zen kale erdian.

— Zer dela-eta egin zuten hori?

— Tiporen batek besteren bati botako zion eta leihotik atera zen.

— Eta suhiltzailea hil zuen.

Annak etorbidean Elmer ikusi zuen: haiengantz zetorren, burua aurreraturik eta eskuak beroki listuaren poltsikoetan hondoraturik. Bi neskak utzi eta Elmerrengantz jo zuen.

— Nire etxera zindoazen? Hobe dugu hara ez joatea, atsoa sutan dago-eta... Atso hori gustura sartuko nuke Israelgo Alabeen Elkartean! Ezin dut gehiago jasan.

— Orduan goazen plazan esertzera —esan zuen Elmerrek—. Ez al duzu udaberria sentitzen?

Annak zeharka begiratu zion.

— Nola ez! O Elmer, greba hau lehenbailehen amaitzea nahi nuke... Egunean zehar kolpe zorrik ere ez jotzeak neure onetik ateratzen nau.

— Baina Anna, greba da langileen aukera nagusia, langileen unibertsitatea. Denbora ema-

ten dizu ikasteko, irakurtzeko eta Liburutegi Publikora joateko.

— Baina zuk beti esaten zenuen greba biz-pahiru egunen buruan bukatuko zela eta, gaine-ra, zertarako balio du?

— Zenbat eta landuagoa izan gizakia, orduan eta baliogarriagoa da bere gizarte-mailarako.

Jarleku batean eseri ziren jolastoki bati bizka-rra emanda. Euren buru gainean, arrastiriko eguzkiak nakarrezko hodei txikiak oskorritzen zituen, distiratsu. Haur zikinak oihuka ari ziren, asfaltozko bidexketatik arineketan egiten zuten bitartean.

— O —esan zuen Annak zeruari so—, Parisko gau-jantzi bat izan nahi nuke neuretzat eta eti-keta-jantzi bat zuretzat... luxuzko jatetxe batera joango ginateke afaltzera eta gero, antzokira.

— Gizalegezko gizarte batean biziko bagina, izango genuke hori egitea. Iraultzaren ondoren, behar besteko alaitasuna egongo da langileen-tzat.

— Eta zertarako, Elmer, ordurako atsoa beza-lakoak bagara, zaharrak eta erretxinak?

— Gure seme-alabek gauza horiek guztiak izango dituzte.

Annak jauzi bat egin zuen jarlekuan.

— Nik ez dut sekula seme-alabarik izango — esan zuen hortzen artean—, sekula, sekula, sekula!

Alice besoa ukitu zion gozotegi italiar bateko erakusleihoan gelditu zirenean. Lorez eta anilina-ildoak apaindutako opil bakoitzean Bazkoko azukrezko bildots bat eta Piztuerako estandarte bat zeuden.

— Jimmy —esan zuen Alice bere aurpegi obalatua biratuta, ezpainak gorriegi zituela, tarta bateko arrosen antzo—. Royrekin zerbait egin beharko zenuke... Lana aurkitu behar du. Erotu egingo naiz beti etxean badago, egunkaria irakurtzen eta izugarrizko ergel-aurpegi horrekin... Badakizu zer esan nahi dizudan... Berak errespetatu egiten zaitu.

— Baina badabil lan bila, ezta?

— Ez da gehiegi saiatzen, badakizu.

— Berak baietz uste du. Nire ustez, bere buruaz oso iritzi bitxia izan behar du... Baina tira, ni al naiz egokiena lanaz hitz egiteko?

— O, badakit. Zoragarria iruditzen zait. Jende guztiak dio kazetaritza uzteko asmoa duzula idazteari ekiteko.

Jimmy Aliceren begi nabar zabal-zabalei so geratu zen. Begi haien sakonguneetako isla putzuko urarena bezalakoa zen. Beste aldera begiratu zuen; estu eta larri zegoen; eztul egin zuen. Kolore bizietako kalean zehar jarraitu zuten.

Jatetxeko atean Roy eta Martin Schiff zeuden euren zain. Kanpoko gela batetik igaro eta hall luze batean sartu ziren: bertan mahai pilo bat zegoen, Napoli-ko badiaren bi pintura berde-urdinen artean pilaturik. Airean nabari zen gazta parmesanoak, zigarroek eta tomate-saltsak isurritako usaina. Aulki batean esertzean, Alicek keinu txiki bat egin zuen.

— Koktel bat nahi dut berehala.

— Ni laño hutsa izango naiz —esan zuen Herfek—, baina Vesubio aurrean irtirin ari diren txalupa horiek beti alde egiteko gogoia pizten dida-

te... Pare bat aste barru bidaian egongo naizela uste dut.

— Baina Jimmy, nora joateko asmoa duzu? — galdetu zuen Royk—. Ez nekien ezer!

— Zer dio Helenak horri buruz? —galdetu zuen Alicek.

Herf lotsagorritu egin zen.

— Ezer ez. Zer esango du ba? —erantzun zuen zorrotz—. Ohartu nintzen hemen jarraitzeak ez duela zentzurik —esan zuen oharkabea pitin bat geroago.

— O, gutako inork ez daki zer nahi duen —bota zuen Martinek—. Horrexegatik da gure belaunaldia horren dohakabea.

— Ni oraintxe ikasten hasi naiz gogoko ez ditudan gauza batzuk —esan zuen Herfek patxadaz—. Gutxienez hasi naiz ausardia izaten onartzeko nola arbuiatzen ditudan gogoko ez ditudan gauzak.

— Baina zoragarria da —oihu egin zuen Alicek— karrera bat pikotara bidaltzea ideal bat dela eta.

— Barkatu —esan zuen Herfek bere aulkia atzerantz bultzatzen zuen bitartean.

Bainugelan bere buruari behatu zion ispilu ondulatuan. «Ez hitz egin —xuxurlatu zuen—. Esaten dena ez duk behin ere egiten...». Mozkorti-aurpegia zuen. Eskuak batu, urez bete eta aurpegia garbitu zuen. Mahaian txaloka eta goraka hartu zuten, berriro eseri zenean.

— Gora bidaiaria! —garrasi egin zuen Royk.

Alice udare-puska luzeak gaztarekin nahasita jaten ari zen.

— Zoragarria da —esan zuen Alicek.

— Roy aspertuta dago! —deiadar egin zuen Martin Schiffek isilune baten ondoren.

Aurpegia, begi handi-handiez eta hezur-kolorereko betaurrekoez hornitua, igerian zebilkion jatetxeko kean zehar, akuario lauso bateko arraina bezala.

— Buruan nituen bihar lan bila joango naizen leku guztiak.

— Lana nahi al duzu? —esan zuen Martinek melodramatikoki—. Arima saldu nahi al diozu eskaintzarik handiena egiten dizunari?

— Besterik ez balego saltzeko... —auhendatu zuen Royk.

— Goizeko loaldiak kezkatzen nau... Hala ere, nazkagarria da zure nortasuna eta hori dena jendearen aurrean erakustea. Garrantzitsuena ez da lanerako trebetasuna, nortasuna baizik.

— Prostitutak dira pertsona zintzo bakarrak.

— Baina, Jainkoarren, prostitutek ere euren nortasuna saltzen dute.

— Alokatu baino ez.

— Roy aspertuta dago... Zuek denak aspertuta zaudete... nire kontu aspergarriekin...

— Primeran pasatzen ari gara —esan zuen berriro Alicek—. Begira, Martin, aspertuko bagina ez geundekete hemen, eserita, ezta?... Nik nahi nuke Jimmyk esatea nora joan nahi duen bere bidaia misteriotsuetan.

— ...eta zera esaten ari zarete zeuekiko: «A ze tipo aspergarria, horrek zertarako balio du gizartean? Ez du ez dirurik, ez emazte ederrik, ez hitz-jario onik, ez ditu Burtsaren sekretuak eza gutzen. Gizarteari inolako ekarpenik egiten ez dion fardela da... Artista fardel hutsa da».

— Hori ez da egia, Martin... Zentzugabekeriak esaten ari zara.

Martinek besoaz keinu bat mahai gainean egin eta bi ardo-edontzi bota zituen. Beldur-aurpegia zuen zerbitzari batek ezpain-zapi bat ezarri zuen bi isurketa gorrien gainean. Horri erreparatu gabe, Martinek hizketan jarraitu zuen.

— Dena gezurra da... Hitz egiten duzuenean, mihi-puntaz gezurra esaten ari zarete. Ez zarete ausartzen zuen arimak biluzten... Baina orain berriro entzun behar didazue, azken aldiz... Azken aldiz diot. Etorri zu ere, zerbitzari, makurtu eta ikusi giza arimaren amildegi beltza. Eta Herf aspertuta dago. Zuek denak aspertuta zaudete, kristalen kontra burrunba egiten duen eulia bezain aspertuta. Zuek uste duzue kristala gela dela. Ez dakizue zein beltza den barnealdea... Mozkor-mozkor eginda nago. Beste botila bat, zerbitzari.

— Egon lasai, Martin... Aizu, orain justu ibiliko gara kontua ordaintzeko... Ez dugu gehiagorik behar.

— Zerbitzari, beste botila bat ardo eta lau *grappa*.

— Badirudi parranda ederra egingo dugula gaur gauean —purrust egin zuen Royk.

— Behar izanez gero, neure gorputzarekin ordainduko dut... Alice, kendu mozorroa... Mozorroaren atzean umetxo zoragarria zara... Etorri nirekin amildegiaren ertzero. O, mozkortuegi nago zer sentitzen dudan zuri esateko.

Di-da betaurrekoak kendu eta eskuan suntsitu zituen: kristalak lurrera erori ziren, distiratsu. Aho zabalik, zerbitzaria makurtu egin zen, mahaian artetik kristalen bila hasteko.

Denbora-tarte batean, Martin geldi-geldi geratu zen, begiak itxi-irekika. Gainerakoek elkarri begiratzen zioten. Gero, jauzi bat eginda altxatu zen.

— Zuen harrokeria gaizto eta okerrari antzematen diot. Dudarik gabe, gaur egun ezin dugu bazkari zintzorik izan, solasaldi zintzorik... Neure zintzotasun atabikoa probatuko dut.

Bere gorbatatik tiraka hasi zen.

— Aizu, Martin laguna, isildu —errepikatzen zuen Royk.

— Inork ez nau geldiaraziko... Ur beltzen zintzotasunerantz jo behar dut... East River-eko ontziraleku beltzaren bukaeraraino lasterka egingo dut, eta neure burua uretara botako dut.

Herfek jatetxean zehar jarraitu zion kaleraino. Atean, Martinek jaka bota zuen eta izkinan txalekoa.

— Arraioa, haizea baino arinago egiten du korrika —esan zuen Royk arnasestuka eta zabuka, Herfen sorbalden arrimuan.

Herfek jaka eta txalekoa jaso eta beso azpian tolestu zituen; gero, jatetxera itzuli zen. Zurbil zeuden Aliceren alde banatan.

— Benetan egingo du? Benetan egingo du? —galdetzen zuen Alicek behin eta berriro.

— Ez noski —esan zuen Royk—. Etxera joango da. Gure lepotik barreka ari zen jaramonik egiten geniola ikusita.

— Eta benetan egingo balu?

— Ikaragarria litzateke bera zeratuta ikustea... Oso maite dut nik. Berarengatik jarri genion Martin izena geure semeari —esan zuen Jimmyk serio—. Baina hain zoritxarreko sentitzen bada, guk ba al dugu eskubiderik bera geldiarazteko?

— O, Jimmy —hasperen egin zuen Alicek—, eskatu kafea.

Kanpoaldean, suhiltzaile-kamioi bat taupada-ka, orroka eta auhenka zihoan, kalean behera. Eskuak hotz, kafea zurrupatu zuten elkarri hitzik egin gabe.

Five and Ten izeneko denda baten alboko atetik irten eta arratsaldeko seietan etxera zihoan jendetzaren artean murgildu zen Francie. Dutch Robertson zeukan itxaroten. Irribarreka ari zen. Bere aurpegiari bozkarioa zerion.

— Nola, Dutch, zer...?

Hitzak kontrako eztarritik joan zitzaizkion.

— Ez zaizu gustatzen?

Hamalagarren Kalean barrena abiatu ziren aurpegi lausoen bi ibilguren artean. «Dena primeran doa, Francie», esan zuen lasai. Udaberriko beroki gris argia eta feldrozko kapela argia zituen jantzita, elkarrekin ederki ematen zutenak. Larru gorrizko zapata berri zorrotzek dir-dir egiten zuten bere oinetan.

— Zer iruditzen zaizu nire janzkera? Neure artean esan nuen alferrik zela ezertan saiatzea itxura zaindu gabe.

- Baina Dutch, nola eskuratu duzu hori dena?
- Estanko bateko tipo bat izutuz. Oso-oso erraza izan da.
- Ixo, ez hitz egin horren ozenki, norbaitek entzunda ere.
- Ez luke jakingo zertaz ari naizen.

Mrs. Densch-en Luis XIV. estiloko apaintze-mahaiaren zoko batean Mr Densch eserita zegoen, makur-makur eginda, bizkar arrosako aulki txiki batean. Sabela belaunen gainean pausaturik zeukan. Bere aurpegi berde bigunean bi triangelu zeuden, sudurtzarrak eta sudurtzarra bera aho handiaren ertzeekin batzen zuten tolesak eratuturik. Mr. Denschek telegrama piloa zeukan eskuetan. Gainean, mezu dekodetu batek zioen: «Hamburgoko sukurtsalaren defizita 500.000 dolarrekoa, gutxi gorabehera»; Heintzek izenpeturik. Zeta-antzeko objektu distiratsuz mukuru zegoen gela txiki hartan, noranahi begiratuta ere, airean *gutxi gorabehera* hitzak ikusten zituen, dantzan. Orduan ohartu zen neskamea,

bonet zimurtua zuen neska mulato bat, gelan sartua zela eta berari so zegoela. Begiak piztu zitzaizkion neskameak eskuetan zeukan kartoizko kutxa handia ikusita.

— Zer da hori?

— Zerbait andrearentzat, jauna.

— Ekarri hona... Hickson's... Eta esango didazu, mesedez, zergatik erosi nahi dituen soineko gehiago?... Hickson's... Ireki hori. Garestia bada, itzuli egingo dut.

Neskameak kontu handiz zetazko papera jaso eta gau-jantzi berde eta mertxika-kolorekoa atera zuen barrutik.

Mr. Densch zezelka altxatu zen.

— Seguru asko pentsatuko du gerra oraindik ez dela bukatu... Esaiezu ez dugula onartzen. Esaiezu pertsona hori ez dela hemen bizi.

Neskameak buruaz baietz eginez kutxa jaso zuen eta sudurra gorantz irten zen. Mr. Densch aulki txikian eseri zen eta telegramak berriro irakurtzeari ekin zion.

— Ann-ee, Ann-ee.

Ahots zorrotz bat etorri zen aldameneko gelatik; ahotsaren atzean buru bat ageri zen,

puri-purian zegoen farfailezko boneta jantzirik zuena. Halaber, buruari jarraiki, gorputz handi bat ere azaldu zen, txabusina itxuragabe eta zimurtu batean bildurik.

— Hara J. D.! Zertan ari zara hemen goizeko ordu hauetan? Ni ile-apaintzailearen zain nago.

— Oso garrantzitsua da... Heintz-en telegrama bat jaso dut oraintxe bertan. Serena maitea, Blackhead&Densch egoera txar-txarrean dago ozeanoaren bi aldeetan.

— Bai, andrea? —esan zuen neskameak haren atzetik.

Soina goratu eta leihorantz jo zuen. Nekaturik sentitzen zen, gaixorik, bere haragiaren pisuari ezin eutsirik. Mandatu-mutil bat bizikletaz igaro zen kolean zehar; masailak gorrixka, Densch barreka ari zen. Lipar batez, bere burua ikusi zuen eta, behinolako urteetan bezala, gartsu eta arin sentitu zen. Garai hartan, Pine Street-en behera jaisten zen, kapelarik gabe, nesken orkatilei zeharka so egiten zien bitartean. Gelara itzuli zenerako, neskamea joana zen.

— Serena —ekin zion—, ez al zara ohartzen kontu hau oso larria dela?... Egoera ekonomiko hau tamalgarria da. Eta, gauza guztien gainetik, babarrunen merkatuak behea jo du. Behea jota gaude, benetan diotsut.

— Tira, maitea, ez dakit zer nahi duzun nik egitea...

— Aurreztu... aurreztu... Begira zer prezio daukan kautxuak... Hickson's-en erositako jantzi hori...

— Ez duzu ba nahiko ni Blackhead-arren jaira joatea herri bateko eskolako andereñoa bezala jantzita, ezta?

Mr. Denschek purrust egin eta burua alde batetik bestera eramane zuen.

— O, ez duzu inoiz ulertuko... Seguru asko ez da jairik egingo... Begira, Serena, horiek ez dira lelokeriak. Ekipajea prestatuta eduki beharko zenuke, edozein egunetan itsasoratu nahi badugu ere... Atsedena hartu behar dut. Pentsatzen ari naiz Marienbad-era joango ote garen... Zuri ere on egingo dizu.

Halako batean, Serenak topo egin zuen gizonaren begiradarekin. Aurpegiko zimur guztiak

nabarmen egin zitzaizkion; begien azpiko azalak baloi despuztu bat zirudien. Gizona hurbildu egin zitzaion, eskua sorbalda gainean ezarri zion eta ezpainak aurreratu zituen musu emateko asmoz, baina emakumea bat-batean sumindu egin zen.

— Ez dut onartuko ni eta nire jostunen artean zu sartzerik... ez dut onartuko... ez dut onartuko...

— Egizu gogoak ematen dizuna.

Mr. Densch gelatik irten zen, burua sorbalda sendo erorien artean hondoraturik.

— Ann-ee!

— Bai andrea? —neskamea berriro azaldu zen.

Mrs. Densch astunki eseri zen sofa txiki hanka-okerraren erdian. Bisaia berdexka zuen.

— Annie, mesedez, ekarri gatz botila hori eta ur apur bat... Eta gainera, Hickson's-i deitu, soinekoa okerrean itzuli zela esateko... maiordomoak egindako hutsagatik, eta esan mesedez lehenbailehen bueltan ekartzeko, gaur gauean horren beharra izango dut eta.

Zoriontasunaren xerka, noraezeko xerka... bizitzeko eta askatasuna izateko eskubidea eta... Ilargirik gabeko gau beltza; Jimmy Herf bakarrik zihoan South Street-en gora. Gauaren belztasuna ontziralekuen atzean lekuko zela, ontzien eskeleto beltzak ageri ziren. «Jainko mai-tea, onartzen diat ez dakidala zer egin», esan zuen goraki. Apirileko gau hauetan, kaleetan zehar bakarrik zebilen bitartean, ezin zuen etxeorratz luze bat burutik kendu. Eraikin hura zut ageri zen ezin konta ahala leiho argitsuz horniturik, eta Jimmyri gainean erortzen zitzaion zeru irristakorretik. Haren belarrietan, idazmakin-
nei konfeti nikeleztatua zerien gupidarik gabe. Korista-aurpegiek, Ziegfeld-ek loriatuek, irribarre egiten zioten, leihoetatik keinuka. Ellieren irudi bizi-bizia etorri zitzaion gogora: urrezko soineko bat jantzirik, urrezko hosto meheez eginda zego-
ela iruditu zitzaion, eta keinuka ari zitzaion leiho guztietatik. Jimmy Herf jira eta bira zebilen kaleetan zehar oropelezko leihodun etxeorratz zaratatsuko atearen bila. Han eta hemen zebilen bila; aterik ez, ordea. Begiak ixten zituenero, ametsa nagusitzen zen haren baitan; esaldi

dotore eta arrazoizkoei buruz goraki hausnartzeari uzten zionero, ametsa nagusitzen zen haren baitan. «Aizu gazte, burua galdu nahi ez baduzu, bi gauza horietako bat egin behar duzu...». «Jauna, mesedez, non dago eraikin honetan atea? Eraikinaren atzealdean?». «Bai, eraikinaren atzealdean duzu... noraezeko bi aukeretako bat: alkandora bigun eta zikin bat jantzita alde egitea edo lepo gogor eta garbiarekin geratzea». «Baina zertarako eman bizitza osoa Suntsipenaren Hiritik ihesi? Eta, Hamahiru Probintzia horiek, non daude zuen eskubide besterenezinak?». Bere burmuinak esaldiak zabalitzen zituen. Nekaezin, Jimmy ibili eta ibili zebilen. Alderrai zihoan, norarik gabe. «Hitzetan sinetsiko banu bederen...»

— Zer moduz, Mr. Goldstein? —esan zuen biziro erreportariak, estankoko saltokian kapelaren hegala apur bat tolestuz diosal egiten zion bitartean—. Brewster dut izena... Krimenen boladari buruz idazten ari naiz *News*-erako.

Mr. Goldstein larba-itxurako gizona zen; sudur kaketua eta pitin bat okertua zuen bere aurpegi grisean; aurpegiaren atzean, belarri gorrixka zoliak nabarmentzen ziren ustekabeen. Erreportariari mesfidantzaz begiratu zion.

— Benetan eskertuko nizuke atzoko gertakari... nola esan?... zoritxarrekoa azalduko bazenit.

— Ez dizut ezertxo ere esango, gazte. Zer egingo zenuke nik esandakoa argitaratzea ez bada? Horrela, beste neska-mutil batzuei bururatuko zaie berdin egitea.

— Penagarria da zuk iritzi hori izatea, Mr. Goldstein... *Robert Burns* bat emango didazu?... Publizitatea aireztapena bezain garrantzitsua iruditzen zait... Airearen berriztatu egiten du.

Erreportariak puruaren muturra hortzez ebaki eta piztu egin zuen; geroago, Mr. Goldstein-i begira geratu zen, gogoetatsu, ke urdinezko eraztun baten beste aldetik.

— Ikusten duzunez, Mr. Goldstein —esan zuen handios—, kontua zera da: giza interesaren ikuspuntutik ari gara auzia lantzen... errukia eta negarrak... ulertzen duzu? Argazkilari bat honantz etortzekoa zen zuri argazkia ateratze-

ko... Ziur nago pare bat astetan honek zure negozioaren martxa bizkortu egingo lukeela... Orain telefonoz deitu beharko diot ez etortzeko.

— Tira, tipo hori —hasi zen Mr. Goldstein tarrapataka— ondo jantzirik ibiltzen da beti, beroki bikaina eta guzti... Eskuarki Camel pake-te bat erosi ohi du... «Gau ederra», esan zuen paketea irekitzen ari zen bitartean zigarro bat ateratzeko. Orduan konturatu nintzen berarekin zetorren neska beloa zeukala.

— Hortaz, neska hark ez zuen ile laburra?

— Nik halako dolu-belo bat besterik ez nuen ikusi. Ohartu nintzenerako, neska salmahaiaren atzealdean zegoen, errebolber bat nire saihe-tsen kontra ezarririk, eta hizketan hasi zen... txantxetan edo... Eta nik ezer ulertzeko astirik izan aurretik, gizonezkoak kutxa erregistratzai-lean zegoen guztia hartu eta esan zidan: «Diru xeherik ba al duzu poltsikoetan, lagun?». Eta nik izerdi patsetan nengoen, benetan diotsut.

— Hori al da dena?

— Bai, ez dago besterik. Polizia agertu zene-rako tokitan egongo ziren.

— Zenbat lortu zuten?

— O, berrogeita hamar dolar inguru kutxan eta sei poltsikotik.

— Neska polita zen?

— Ez dakit, baliteke. Burua txikitu nahi nioke. Umetxo horiek aulki elektrikora eraman beharko lituzkete... Gaur egun ez dago leku segururik. Zertarako lan egin, errebolber bat lortu eta aldamenekoari lapurtzea aski bada?

— Zuk diozu ondo jantzita zeudela... jende aberatsa bezala.

— Bai.

— Nire teoriaren arabera, mutila unibertsitateko ikaslea da eta neska familia onekoa eta hau guztia ondo pasatzearren egiten dute.

— Mutila astokilo-itxurako putakume bat zen.

— O, badira astokilo-itxurako unibertsitateko ikasleak... Irakurriko duzu «Lapur finak» izeneko artikulua igandeko egunkarian, Mr Goldstein... Zuk News egunkaria irakurtzen duzu, ezta?

Mr. Goldsteinek buruaz ezetz egin zuen.

— Nolanahi ere, ale bat bidaliko dizut.

— Nik txoritxo horiek kartzelan ikusi nahi ditut, ulertzen duzu? Prest nago behar den guztia egiteko. Dagoeneko ez dago segurtasunik...

Bost axola zait igandeko gehigarriko publizitatea.

— Ondo da, argazkilaria laster izango da hemen. Ziur nago posatzeko prest izango zarela, Mr. Goldstein... Eskerrik asko... Ikusi arte, Mr. Goldstein.

Halako batean, Mr. Goldsteinek errebolber berri eta distiratsu bat salmahai azpitik atera eta erreportariari destatu zion.

— Aizu, kontuz horrekin!

Mr. Goldsteinek irri maltzur bat egin zuen.

— Prest naukate hurrengorako! —oihu egin zuen erreportaria metrorantz zihoala.

— Gure negozioan, Mrs. Herf maitea —esan zuen Mr. Harpsicourt-ek, Cheshire katu grisaren modura irribarre eginez begietara eztiki so egiten ziola—, modaren uhinei utzi behar diegu gu urbazterrera eramaten, lehertu baino lehen, surf-taula batean bezala.

Koilara batez Ellen kontu handiz induskatzen ari zen aguakate erdia. Begiak platerean iltzatu-ta zeuzkan; ahoa erdi irekita. Freskoa eta liraina

sentitzen zen bere jantziurdin estuaren barruan. Adi zegoen, isilik, alboetatik zetozen begiradek osatutako amaraunaren barruan eta jatetxeko ohiko solasaldi gorabeherarik gabekoen erdian.

— Dohain hori zure baitan hobeto profetizatu dezaket beste edozein emakumerengan baino. Ez dut sekula zu baino emakume xarmangarriagorik ezagutu.

— Profetizatu? —galdetu zuen Ellenek, goratz begira eta irribarreka.

— Ez duzu kontuan hartu behar agure batek hitzez hitz esandako guztia... Orain ez dut ondo adierazi esan nahi nuena... Seinale txar-txarra beti. Ez, zuk ondo ulertu didazu, onartu nahi ez baduzu ere... esan egia... Zer behar dugu geure egunkarian? Ziur nago hori zeuk askoz hobeto azaldu diezadakezula.

— Jakina, zuek zera lortu nahi duzue: irakurle guztiak gauza guztien erdigunean sentiarazi.

— Hementxe bertan, Algonquin-en bazkal-tzen egongo balira bezala.

— Bihar bada, hobeto —gaineratu zuen Ellenek.

Mr. Harpsicourt-ek barre kirrinkaria egin zuen, Ellenen begi gris urrezko izpidunetan begirada finkatzen zuen bitartean. Lotsagorriturik, Ellenek beherantz begiratu zuen harik eta aguatearen erdi xehatuari so egin zion arte. Atzean ispilu bat baileukan, inguruko mahaietako gizon-emakumeen begiak sentitzen zituen.

Ginak laztutako mihiaz gustura ahogozatzen ari zen irinezko opilak. Jimmy Herf Child's-en eserita zegoen, mozkorti zaratatsuen artean. Begiak, ezpainak, gau-jantziak eta hirugiharra-
ren eta kafearen usaina lausoki taupadaka zituen inguruan. Opilak lan handia hartuta jan zituen eta beste kafe bat hartu zuen. Hobeto sentitzen zen. Izan ere, lehenago beldurrez egon zen ea oka egingo ote zuen. Egunkaria irakurtzeari ekin zion. Moldeko hitzek igeri egiten zuten sakabanaturik, lore japoniarren modura. Gero, hitzok berriro argi eta taxuzko bihurtu ziren eta halako ore leun zuri-beltz baten modura zabaldu ziren Jimmyren burmuin zuri-beltzean zehar.

«Gazteria alferrik galduak berriro ordaindu du bere zerga tragikoa, Coney Island-eko oropelezko dibertimenduen artean. Izan ere, Coney Island datorren denboraldirako margotu berria dutelarik, polizia sekretuak “Dutch” Robinson eta bere laguna atxilotu ditu, hain zuzen ere, «Flapper Bandid» ezizenez ezaguna den neska. Bikoteari Brooklyn eta Queens-en hainbat lapurreta egin izana leporatzen diote. Polizia zenbait egunetan atzetik ibili zaie. Seacroft Avenue-eko 7356.ean pisu txiki bat alokatua zuten. Lehenengo susmoa neska, laster ama izango dena, Canarsie-ko Ospitale Presbiterianora anbulantzian eraman zutenean piztu zen. Ospitaleko langileak harrituta gelditu ziren Robinsonen diruak agortezina zirudiela ikusita. Neskak gela bat zuen berarentzat; egunero lore garestiak eta fruta jasotzen zituen, eta gizonaren eskariz, sendagile ospetsu batek neskaren ardura hartu zuen. Jaio berriaren izena erregistratzeko garaia iritsita, gizonak sendagileari aitortu zion ez zuela ezkontuta. Ospitaleko laguntzaile bat ohar-tu zen ama berria Evening Times-en emandako

«Flapper Bandid» neskaren deskripzioarekin bat zetorrela, eta poliziari deitu zion. Polizia sekretu batzuk bikotearen atzetik ibili dira zenbait egu-netan, biak Seacroft Avenue-ra itzuli eta gero, eta gaur arratsaldean atxilotu dituzte.

“Flapper Bandid” neskaren atxiloketa...»

Gaileta bero bat lurreratu zen Herfen egunka-riaren gainean. Sustoa hartuta gorantz begiratu zuen. Ondoko mahaian, neska judu begi beltz batek keinu bat egin zion. Herfek diosal egin eta alegiazko kapela bat kendu zuen.

— Eskerrik asko, ninfa maitagarri hori! —lar-daskatu zuen eta gaileta jateari ekin zion.

— Txantxa gehiagorik ez, argi dago?

Neskaren ondoko mutil gazteak hitz haiek belarrira esan zizkion, garrasika. Boxeolarien entrenatzailea ematen zuen.

Herfen mahaian jende guztia barrez leher-tzen ari zen. Kontua hartu, gau on murruskatu eta irten egin zen handik. Kutxazainaren idazma-hai gaineko erlojuan hirurak ziren. Kanpoaldean, jendetza zalapartatsua artean pilatuta zegoen Columbus Circle-ren inguruan. Zoladura bustiak

isuritako usaina autoen ke-adarrarekin nahasten zen eta lantzean behin lur hezearen eta belar-erne berriaren bafada etortzen zen parketik. Luzaz geldirik geratu zen kale-kantoian, norantz jo jakin gabe. Bolada hartan ez zuen gauzez etxera joateko gogorik izaten. Pena apur bat ematen zion «Flapper Bandid» eta bere laguna atxilotu izanak. Nahiago zukeen ihes egitea lortu izan balute. Egunero miatzen zuen egunkaria, irrikatsu, euren balentriak irakurtzeko. «Gizajoak», pentsatu zuen Herfek, «gainera, ume jaioberri bat ditek».

Bien bitartean, Child's-en iskanbila sortu zen. Herfek atzerantz begiratu zuen leihoan zehar, sutegiaren gainetik, hor kiskaltzen ari baitziren ahaztutako hiru opil. Zerbitzariak ahaleginetan zebiltzan etiketaz jantzitako gizon garai bat kale-ra botatzeko. Herfi gaileta jaurtikia zion neska juduaren laguna helduta zeukaten bere lagunek. Segurtasunaz arduratzen zen gorilak ukondoka egin zuen aurrera, jendetzaren artean. Bizkar zabaleko gizon txikia zen eta tximino-begi nekatu hondoratuak zituen. Lasai-lasai eta grinarik gabe, gizon garaiari oratu eta di-da atetik bota

zuen. Espaloian gizonak durduzaturik begiratu zuen bere ingurura eta lehengo tankera berreskuratzen saiatu zen. Horretan ari zela, polizia-auto bat bertaratu zen, triki-traka. Barrutik bi polizia atera ziren eta segituan atxilotu zituzten kale-kantoian lasai hizketan ari ziren hiru italiar. Herfek eta etiketa-jantzia zuen gizon garaiak elkarri behatu zioten hitzik egin gabe eta zein bere bidetik joan zen, mozkor aztarnarik txikiena ere supitoki aienaturik.

Bosgarren atala

Ninive-ko zama

*Oskorriak Golkoko Korronteko lainoa
zulatzen zuen. Kobrezko eztarri dar-
daratia atzamar zurrunen kaleetan
zehar orroka. Etxeorratzen begi luze
lausoak. Miniozko zipriztinak bost
zubien burdinazko izterren gainera.
Portuan, atoiontzi isekariak uluka
eta aiko-maiko kezko zuhaitzen
azpian.*

*Udaberria adar-hotsen burrunbatik
erraldoi sortzen zen guri ezpainak
zimurtuz eta oilo-ipurdia sortaraziz;
udaberriak zalaparta ikaragarria ate-
raz auto geldien kontra jotzen zuen,
behatz-puntetan erne zeuden etxe-
bloke izoztuen artean.*

Artilezko jakaren lepoa belarrietaraino eta
bonet ingeles handia begietaraino, Mr. Densch
urduri zebilen gora eta behera, Volendam itsa-

sontziko bizkar hezean zehar. Zirimirian gaindi ontziraleku grisak eta urbazterreko eraikinak ikus zitzakeen, garraztasun pentsaezinezko zeruaren kontra. «Porrot eginda nagok, porrot eginda nagok», esaten zuen bere artean etengabe. Azkenean, itsasontziaren adarrak urruma egin zuen hirugarren aldiz. Atzamarrak belarrietan sartuta zeuzkala, Mr. Densch adi zegoen, salbamendu-txalupa batez babesturik, baporearen alde baten eta ontziralekuaren arteko ur zikinaren zerrenda nola zabaltzen zen begira. Beraren oinen azpian, bizkarrak dar-dar egin zuen, helizeek ur-korronteari haginka egiten ziotenean. Argazki batean bezain gris, Manhattango eraikinak desfilatzen hasi ziren. Beheko bizkarrean, banda *O Titin-e Titin-e* jotzen ari zen. Ferry gorriak, autoetarako ferryak, atoiontziak, hareaz eta egurrez beteriko gabarrak Mr. Densch-en eta hiri lurrintsuaren artetik igarotzen ziren handios. Hain justu ere, piramide baten antzera, han ageri zen hiria, zut eta lainotsu, badiako ur berde arreetan hondoratzen.

Mr. Densch bere gelara jaitsi zen. Belo horiko kapela kanpai-itxurako bat jantzirik, Mrs. Densch

isilik ari zen negarrez, burua fruta-saski baten gainean bermaturik.

— Ez, Serena —esan zuen lehor—. Ez egin negar... Marienbad zoragarria da... Atsedena behar dugu. Gure egoera ez da hain txarra. Telegrama bat bidaliko diot Blackhead-i... Azken batean, bere egoskorkeria eta ausarkeriagatik dago enpresa dagoen bezala. Gizon horrek uste du munduko erregea dela... Honek zera... min emango dio. Madarikazioek hiltzeko balio balute, ni bihar hilda egongo nintzateke.

Beraren harridurarako, bere aurpegiaren lerro grisak puskatu egin ziren irribarre bat osatuz. Mrs. Denschek burua jaso eta ahoa ireki zuen hitz egiteko, baina malkoek ez zioten utzi. Mr. Denschek bere buruari ispiluan begiratu, sorbaldak tentetu eta boneta doitu zuen.

— Bai, Serena —esan zuen halako bizitasunkutsu bat erakusten zuen ahotsaz—, hauxe da nire karreraren bukaera... Telegrama hori bidaltzera noa.

Amak bisaia beheratu eta Martini musu eman zion. Umearen eskuek soinekotik heldu zioten, baina amak alde egin zuen Martin ilunpean utzita, eta bere atzean ilunpean utzitako lurrin arinak Umeari negar eragin zion. Martin txikia bihurrika ari zen sehaskaren barren artean. Beste aldean iluntasuna, eta harantzago hormak, eta are harantzago helduen iluntasun ikaragarria, zalapartari eta dardarati, leihoetan gora eta atearen zirrikitueta hatzak sartuz. Goialdetik, gorpilen kalapita isilaraziz, zintzurra estutzen zion auhen lazgarri bat zetorren. Martinen gainean pilatutako iluntasunezko piramideak buru gainera erortzen hasi zitzaizkion. Umeak oihu egin zuen negar-zotinka. *Ezez* sehaskara hurbildu zen argizko salbamendu-txalupa batean. «Ez beldurtu... ez duk ezer». Amaren aurpegi beltzak irribarre egin zion, amaren esku beltzek tapakiak zabaldu zizkion. «Suhiltzaile-kamioi bat besterik ez duk izan... Ez haiz beldurtuko suhiltzaile-kamioi batengatik».

Ellen eroso eseri zen taxian eta lipar batez begiak itxi zituen. Bainuak eta ordu erdiko biaoak ezin zizkioten gogotik ezabatu bulegoaren oroitzapen etsigarria, haren usaina, idazmakinen hotsa, hamaika aldiz errepikatutako esaldiak, aurpegiak, orri mekanografiatuak. Unaturik sentitzen zen. «Seguru asko betazpiak izango diti-nat». Taxia gelditu egin zen. Aurreko semaforoan argi gorri bat zegoen. Bosgarren Etorbidea taxi, limusina eta autobusez beterik zegoen, espaloietaraino. Berandu zebilen; erlojua etxean utzia zuen. Minutuak lepotik dilindan zituen, astun-astunak, orduak bailiran. Jarlekuaren ertzean eserita, ukabilak hain gogor zituen her-tsitza ezen eskularruak zeuzkan arren azazkal zorrotzak bere ahurrean iltzaturik sentitzen bai-tzitzen. Azkenean, taxia abian jarri zen bat-batean. Gasolina-bafadak, motoreen zalaparta. Ibilgailu piloa Murray Hill-en gora igotzen hasi zen. Kale-kantoi batean Ellenek erloju bat begiz-tatu zuen. Zortziak laurden gutxi. Trafikoa berri-ro gelditu zen, taxiaren balaztek kurrinka egin zuten eta bat-batean Ellenek aurrerantzako bul-tzada bat sentitu zuen. Begiak itxita eta lokiak

taupadaka, berriro zuzen eseri zen. Bere nerbio guztiek haragia ebakitzen ziotela zirudien, altzairuzko alanbre mehearen mataza bailiran. «Zer axola du?», galdetu zuen berekiko. «Itxaron dezala. Ez dinat bera ikusteko presarik. Zenbat etxe-bloke falta dira?... Hogei baino gutxiago, hemezortzi. Ezbairik gabe, zenbakiak inor erotu ez zedin asmatu zitunan. Biderkatzeko taulak Coué-k baino hobeto sendatzen ditin nerbioak. Horixe pentsatuko bide zian Peter Stuyvesant-ek, edo hiri honetan zenbakiak ezarri zituenak». Ellenek irribarre egiten zion bere buruari. Taxia berriro abian jarri zen.

George Baldwin harat-honat zebilen hoteleko atariondoan zehar, zigarroari zupada laburrak jotzen zizkion bitartean. Noizbehinka erlojuari begiratzen zion. Gorputza teink zuen biolin-soka baten antzo. Goseturik zegoen eta gauza asko zituen esateko. Ezin zuen jasan inoren zain egoitea. Ellen fresko, lirain eta irribarretsu sartzeaz batera, Baldwini gogoia etorri zitzaion harengana oldartu eta matrailako bat emateko.

— George, ohartu zara ez gaudela zoraturik zenbakiak guztiz hotzak eta axolagabeak direla-

ko? —esan zuen zapladatxo bat besoan jotzen zion bitartean.

— Berrogeita bost minutu aski da inor erotzeko, hori da nik dakidana.

— Azaldu egingo dizut. Sistema ona da. Taxian nentorrela horretaz pentsatu dut... Sartu eta eskatu nahi duzuna. Bainugelara noa apur batean... eta eskatu Martini bat niretzat, mesedez. Gaur gauean porru eginda nago, porru egin da, benetan.

— Gajoa, oraintxe bertan eskatuko dizut... Eta etorri azkar, mesedez.

Ahuleziaren ahuleziaz, Baldwini belaunak okertu egiten zitzaizkion. Apaingarri urreztatuz gainezka zegoen jantoki hartan sartzean, urtzen ari zen izotza bezala sentitzen zen. «Jainko maita, hamazazpi urte bahitu bezala ari haiz jokatz... hainbeste urte pasata... Horrela ez hoa inora...»

— Tira, Joseph, zer duzu gaur afaltzeko? Gose naiz... Baina lehenengo esaiozu Fred-i inoiz egin duen Martinirik onena egiteko.

— *Très bien monsieur* —esan zuen errumaniar zerbitzari sudurluzeak, eta karta luzatu zion keinu nabarmen bat eginez.

Ellen luzaro geratu zen ispiluari begira. Aldi berean, aurpegi hautseztatuegia garbitzen ari zen, zer egin pentsatzen zuen bitartean. Giltza gogotik emanda, alegiazko panpina bat posizio desberdinetan paratu zuen. Kein u txiki batzuk eginarazi zizkion, eszenatoki txiki batean balego bezala. Ellen bera zen panpina. Halako batean, ispilutik aldendu egin zen, bere sorbalda zuriegia jasota, eta jantokira ziztuan abiatu zen.

— O, George, goseak akabatzen nago.

— Ni ere bai —esan zuen ahots lakarraz—. Eta Elaine, albisteak ekarri ditut zuretzat — jarraitu zuen tarrapataka, Ellenek etengo ote zion beldurrez edo—: Cecilyk dibortzioa onartu du. Uda honetan Parisen konponduko dugu auzi hau, zaratarik atera gabe. Orain zera jakin nahi dut ea...?

Ellen makurtu eta eskua ferekatu zion, mahai ertzari tinko heldurik baitzeukan.

— George, lehenengo eta behin, afaldu dezagun. Zentzuz jokatu behar dugu. Jainkoak daki

biok ere oker askotxo eginak ditugula iraganean... Topa dagigun krimen-boladaren alde!

Koktelaren apar infinitesimalak mihia eta eztarria leundu eta barnean dir-dir egiten zion Elleni, arian-arian, bere baitan halako bero gozobat sortaraziz. Begiak distiratsu, Ellenek irribarreka behatu zion. Georgek zurrutada batez edan zuen koktela.

— Jainko maitea, Elaine —esan zuen Baldwin-ek eutsi ezinezko grinaz—, zeu zara munduko gauzarik ederrena!

Ellenek afarian izugarrizko hotza sentitu zuen, bere baitan gero eta barrurago, nobokainak eragindakoa bailitzan. Erabaki bat hartu zuen. Bazirudien azkenean lortu zuela bere irudia bizitzaren argazkian behar bezala kokatzea; irudia han izozturik egongo zen, beti jarrera berean. Garraztasunak lepoa estutu eta pixkanaka-pixkanaka itolarria eragiten zion, zetazko zerrenda ikustezin baten iduri. Plateretatik, boli arrosazko lanparatik eta ogi-pusketetatik harantzago, Georgeren aurpegiak gora eta behera egiten zuen bere alkandoraren papar zuriaren gainetik. Abokatuari masailak gorriztatzen ari

zitzaizkion. Gelako argiasudurraren alde batean zein bestean paratzen zitzaion, txandaka. Bere hortz horien gainean, ezpain gogorrak zirtolari higitzen zituen. Eserita eta hankak gurutzaturik, Ellen bere gorputzaren zurruntasunaz jabetu zen, bere arroparen azpian portzelanazko irudi bat bailegoen. Bazirudien inguruan zuen guztia gogortzen eta esmalteztatzen ari zela. Giroa, zigarroen keak urdinez pitzaturik, beirazko bihurtzen ari zen. Ellenen aurrean, Georgek zurezko bere txontxongilo-aurpegia inarrosten zuen zentzurik gabe. Dardarati, Ellenek soinak goratu zituen.

— Zer duzu, Elaine? —galdetu zuen ozenki Baldwinek.

Ellenek gezurra esan zuen:

— Ezer ez, George... Norbaitek hilobia zapaldu dit, nik uste.

— Xalen bat-edo ekarriko dizut?

Ellenek ezetz egin zuen buruaz.

— Tira, orduan zer erantzuten didazu? —galdetu zuen Baldwinek mahaitik altxatzen ari zirela.

— Zer? —galdetu zuen Ellenek irribarreka—. Parisekoaren ondoren? George, zuk hori egitea baduzu, nik ere bai —erantzun zuen Ellenek lasai.

Taxiaren ate irekiaren aurrean, Baldwin zeukan itxaroten. Inguru ilun hartan, Ellenek abokatu gazterik ikusi zuen, bizi, feldrozko kapela nabarra eta beroki arin nabarra jantzirik eta irribarreka, igandeko egunkarietan ageri ohi diren gizon-emakume ospetsuak bezala. Mekanikoki, taxian sartzen laguntzen ari zitzaion eskuari oratu zion.

— Elaine —esan zuen hunkituta—, bizitzak nolabaiteko esanahia izango du hemendik aurrera. Bazeneki zeinen hutsa izan den nire bizitza urte askoan! Halako latorrizko jostailu mekaniko bat izan naiz, barnea guztiz hutsa duena.

— Ez dezagun hitzik egin jostailu mekanikoez —esan zuen Ellenek ahots itoaz.

— Ez, geure zoriontasunez hitz egin dezagun —erantzun zuen Baldwinek.

Halabeharrez, bien ezpainak elkarren kontra estutu ziren. Taxiaren beirazko leiho dardaratietatik harantzago, ito-hurren bailegoen, Ellenek

nahi gabe ikusi ahal izan zituen bisaia iheskor-
rak, farolak eta nikelezko gurpil zalapartariak.

Burua esku artean, laukiekiko bonetadun
agurea harrizko eskaileretan eserita zegoen.
Broadwayren isla distiratsuak bizkarrei itsatsita,
jende-errekasto etengabeak igarotzen ziren agu-
rearen aurretik. Denak antzokietarantz zihoazen.
Agurea negar-zotinka ari zen hatzen artetik, gin-
lurrin garratz batez inguraturik. Aldian behin
burua jaso eta ahots zakarrez oihu egiten zuen:
«Ezin diat, ez al duzue ikusten ezin dudala?». Ahotsa ez zen gizaki batena; arrailtzen ari den
ohol baten karraska zirudien. Oin-hotsak azkartu
egiten ziren. Adin ertaineko jendea beste aldera
begira. Agurea ikustean, bi neskak inozoki barre
egin zuten. Jendetza ilunaren baitan, mutil barra-
bas batzuk alde guztietara begira zebiltzan,
ukondoaz elkar jota. «Hootch arlotea». «Ederra
jasoko dik kale-kantoiko polizia hemendik pasa-
tzen denean». «Alkohola debekaturik». Agureak
bere aurpegi hezea altxatu eta begiratu egin
zuen, begiak gorri-gorri, soraio. Jendeak atze-

rantz jo zuen atzetik zetozenak zapalduz. Pitza-tzen ari den oholaren modura, ahotsak kraska egin zion: «Ez al duzue ikusten ezin dudala?... Ezin diat... Ezin diat».

Alice Sheffield-ek ehun-usaina sumatu zuen Lord&Taylor's-en ateak zeharkatzen ari zen emakume-andana batek berarekin eraman zue-nean. Halako batean, zerbaitek jauzi egin zion buruan. Lehenik, eskularruen salmahairantz jo zuen. Saltzailea oso neska gaztea zen eta betile beltz luzeak eta irribarre zoragarria zituen. Moda iraunkorrez mintzatu ziren; bitartean, Alice zerrenda txiki batekiko eskularruak probatzen ari zen, antxume-larru gris eta zurizko eskularruak. Probatu aurretik, neska saltzaileak eskularruen barrualdea biziki hautseztatu zuen lepo luzeko hautseztagailu batez. Alicek sei pare eskatu zituen.

— Bai, Mrs. Roy Sheffield... Bai, kontua ireki-ta daukat... Hemen duzu nire txartela... Gauza pilo bat bidali behar didate.

Alice Sheffieldek bere artean esan zuen: «Bai zentzugabea nik negu osoa halako zirtzilak jantzita eman izana!... Kontua datorrenean, Royk

nola edo hala ordaindu beharko din. Garaia din negar-zotinak alde batera uzteko. Jainkoak zakin nik zenbat kontu ordaindu dizkiodan». Gero, haragi-koloreko zetazko galtzerdiak aztertzeari ekin zion. Dendatik irtetean, burua bueltaka zerabilkion. Artean lausoturik ikusten zituen langar bioleta elektrikoan aienatutako salmahai luzeak, bordatu txirikordatuak, borlak, zeta tindatuak. Udako bi jantzi eta gaueko xal bat eskatuak zituen.

Maillard's-en, buru konikoa zuen gizon ingeles ilehori garai bat zeukan itxaroten. Sudur luzearen azpian, iztupa-koloreko bibote baten punta zorrotzak ageri ziren.

— O, Buck, izugarri ondo pasatzen ari naiz. Lord&Taylor's-en burua galdu dut. Ba al dakizu urte eta erdi zela soineko bat bera ere erosten ez nuela.

— Gajoa —esan zuen mahai batera zeraman bitartean—. Hitz egidazu horretaz.

Halako batean, Alice astunki eseri zen kexaka.

— O, Buck, asper-asper eginda nago hone-taz... Ez dakit noiz arte jasan ahal izango dudan.

— Zera... ba... nik ez dut ezeren errurik... Zuk ondotxo dakizu nik zer nahi dudana zuk egitea.

— Eta hori egingo banu?

— Primeran!... Zein zorientsu izango ginatkeen!... Baina zerbait hartu behar duzu, salda apur bat-edo. Indarberritu egin behar duzu.

Inozoki barre egin zuen emakumeak.

— Zeu zara nik behar dudana, maitea.

— Tira, zergatik ez goaz Calgary-ra? Hango ezagun batek lana emango didala uste dut.

— Goazen azkar. Berdin zait arropa eta hori guztia... Royk dena bueltan eraman dezake Lord&Taylor's-era... Ba al duzu dirurik, Buck?

Ahalkea masaileratu eta lokietan barna hedatu zen Buck-en belarri lau gorabeheratsuetaraino.

— Aitortzen dut, Al maitea, ez dudala sosik ere. Baina bazkaria bai ordain dezaket.

— Zer arraio! Txeke batekin ordainduko dut. Kontua bion izenean dago.

— Biltmore-n horrela ordain dezakegu. Han ezagutzen naute. Kanadara iristen garenean, dena ondo joango da, benetan diotsut. Erregea-

ren lurretan Buckminster abizenak pisu handia-
goa du Estatu Batuetan baino.

— Badakit, maitea; New Yorken dirua da dena.

Bosgarren Etorbidean gora zihoazela, ustekabea emakumeak besotik heldu zion.

— O, Buck, zerbait benetan ikaragarria kontatu behar dizut. Pot eginda utzi ninduen... Gogoan duzu zer esan nizun geure pisuan zegoen kiratsari buruz. Guk uste genuen arratoiak zirela. Gaur goizean hitz egin dut beheko pisuan bizi den emakumearekin... Horretaz pentsatze hutsak gaixorik jartzen nau. Aurpegi berdea zuen, autobus hori bezalakoa... Itxura denez, ikuskatzaile bat ekarri zuten hodieriak aztertze-ko... Goiko pisuko emakumea atxilotu dute... O, higuingarriegia da. Ezin dizut kontatu... Ez naiz sekula hara itzuliko. Hori eginez gero, bertan hilko nintzateke... Atzo egun osoan ez zen ur-tanta bat bera ere izan han.

— Zer gertatu zen ba?

— Guztiz nazkagarria da.

— Tira, hasi mihia astintzen.

— Baina, Buck, etxera itzulita ez zaituzte eza-gutuko, Orpen Manor-en.

— Baina zer gertatu zen?

— Goiko pisuko emakume batek ezlegezko ebakuntzak egiten zituen, abortuak... Horrexek buxatu zuen hodieria.

— Ene Jainkoa!

— Horixe izan zen azken tanta... Eta Roy leloturik bere egunkari madarikatua irakurtzen ari zen kiratsaren erdian, bere ergel-aurpegi horrekin.

— Neskato gajoa!

— Baina, Buck, nik ezin dizut berrehundik gorako txekerik eman... Hainbeste diru ez dago. Aski izango al da Calgary-ra iristeko?

— Hola-hola... Montrealean gizon bat ezagutzen dut eta horrek gizarte-albisteen kronikarilapostu bat lortuko dit... Lanbide nazkagarria, baina ezizena erabil dezaket... Gero, hanka egingo dugu zera dugunean, behar beste *lehengaia*, zuk diozun bezala... Txeke hau orain kobratuko al dugu? Zer deritzozu horri?

Emakumea zain geratu zen argibide-leihatilaren ondoan, Buck txartelak ateratzera joan zen

bitartean. Alice bakarrik sentitzen zen, txikia, geltokiaren ganga handi zuriaren azpian. Royrekin bizi izandako guztia bere begien aurretik igarotzen ari zen, alderantziz emandako pelikula baten modura, gero eta arinago. Buck zoriontsu eta larderiatsu zetorren, eskuak billetez eta tren-txartelez beterik zituela.

— Zazpiak eta hamar arte ez dago trenik, Al—esan zuen Buckek—. Palace zinemara joango bazina eta leihatilan sarrera bat utziko bazenit... Bitartean ni neure maletaren bila joango naiz lasterka. Segundo bat besterik ez da... Hemen dituzu bost dolar.

Buck joana zen eta Alice bakarrik zihoan Berrogeita Hirugarren Kalean zehar, maiatzeko arratsalde sargaritsu hartan. Arrazoiren bat zela medio negarrez hasi zen. Alicek ezin zion negarrari eutsi, jendearen begiak harengan finkatuta bazeuden ere. Temati segitu zuen bidean aurrera, begitartea malkotan blai zuela.

— Lurrikaren kontrako aseguruia. A zer izen modua ipini dioten! Zerbitzu ederra emango die

Jainkoaren amorrak, hiria liztotzar-habia bailitzan ketzen duenean, egun hartan hiria indarrez hartu eta katuak sagua bezala astintzen baitu... Lurrikaren kontrako aseguru!

Joek eta Skinnyk nahiago izango zuten gizon hark ospa egin izan balu. Belarri aldeko bizarrak botilak garbitzeko eskuilak bezalakoak zituen; euren suaren inguruan zegoen, zutik, purrustaka eta oihuka. Bietako batek ere ez zekien eurekin ala bere buruarekin ari ote zen hizketan. Bertan ez bailegoen jokatzeko zuten eta urdaiazpikopuskak bat prestatzeko lanetan jarraitu zuten aterki zahar baten hagatxo batzuk parrila gisa erabilia. Beherago, loratzen ari ziren zuhaitzen sare hori-berdexkatik harantzago, Hudson ibaia ikusten zen, arrastiriak zilarreztaturik, bai eta Manhattango etxeek eratzen zuten itsas-labar zuria ere.

— Ez esan ezer —xuxurlatu zuen Joek, lokian kolpetxo batzuk jotzen zituen bitartean—. Burutik eginda zagok.

Skinnyri hotzikara batek zeharkatu zion bizkarra. Ezpainak gero eta hotzago sumatzen zituen. Lasterka egiten hasi nahi zuen.

— Urdaiazpikoa da? —galdetu zuen bat-batean gizonak ahots onberaz.

— Bai jauna —erantzun zuen Joek dardaratsu isilune baten ondoren.

— Ba al dakizue Jainkoak bere seme-alabei debekatu ziela txerrikia jatea?

Haren ahotsa berriro garrasi eta deitore bilakatu zen.

— Gabriel, Gabriel anaia... Bidezkoa da ume horiek urdaiazpikoa jatea?... Bai, noski. Gabriel aingerua lagun handia diat... Berak dioenez, oraingo honetan ez duk ezer gertatuko, baina berriro egiten baduzue... Kontuz, motel, urdaiazpikoa erreko zaik eta —Skinny zutitua zen—. Eseri motel, ez diat ezer txarrik egingo. Ni ondo konpontzen nauk umeekin. Jainkoak eta biok oso gogoko ditiagu umeak... Nire beldur zarete arlotea naizelako, ez da egia? Tira ba, zerbait esango dizuet: ez zaitezte inoiz arloteen beldur izan. Arloteek ez dizuite inoiz gaiztakeriarik egingo, jende ona duk. Jainkoa arlotea zuan, Lurrean bizi zen bitartean. Nire lagun Gabriel aingeruak zioke behin baino gehiagotan arlotea izan dela... Begi-

ra, oilasko frijitu apur bat zaukaat, atso beltz batek eman zidana... Ene Jainkoa!

Marmarka, haitz baten gainean eseri zen bi mutilen ondoan.

— Bada, guk indiarretan jolasteko asmoa genuen, baina orain uste dut arloteetan jolastuko garela —esan zuen Joek bere burua pitin bat suspertuz.

Arloteak beroki berdexkaren poltsikotik egunkari-paperean bildutako fardel bat atera zuen eta kontu handiz zabaltzen hasi zen. Urdaiazpikoa oso usain gozoa isurtzen hasi zen. Skinny berriro eseri zen, albait urrunen, baina ezertxo ere ez galtzeko bezain hurbil. Arloteak bere oilaskoa zatikatu zuen eta denak elkarrekin hasi ziren jaten.

— Gabriel lagun maitea, begira honi.

Arloteak berriro garrasika abesteari ekin zion eta mutilak berriro beldurtu egin ziren. Ilunabarra hur zegoen. Ahoa beterik, arlotea garrasika ari zen, oilasko-hanka batez Riverside Drive-ren argizko ohol dirdaitsua seinalatzen zuen bitartean.

— Gelditu hemen unetxo batez eta begiraiok, Gabriel... Begiraiok mari purtzil horri eta barkatu hitz egiteko modu hau. Lurrikaren kontrako asegurua. Baditek horren premia, ezta? Ba al dakizue, lagunok, zenbat denbora behar izan zuen Jainkoak Babelgo dorrea suntsitzeko? Zazpi minutu. Ba al dakizue zenbat denbora behar izan zuen Jainkoak Babilonia eta Ninive suntsitzeko? Zazpi minutu. New Yorkeko etxe-bloke batean ustelkeria handiagoa zagok Niniveko milia karra-tu batean baino. Eta zenbat denbora uste duzue beharko duela New York, Brooklyn eta Bronx suntsitzeko? Zazpi segundo. Zazpi segundo... Aizak, motel... nola duk izena hik?

Ahotsa berriro behekitu eta oilasko-hanka Joerenganantz zuzendu zuen.

— Joseph Cameron Parker... Union-en bizi gara.

— Eta hik?

— Antonio Camerone... baina Skinny deitzen didate. Hau lehengusua dut. Bere familiak lehen abizena kendu eta Parker hartu zuen.

— Alferrik duk abizena aldatzea... ezizen guz-tiak idatzita zaudek epaiketaren liburuan... Eta

benetan diotsuet Jainkoaren eguna hurbil dagoe-
la... Atzo bertan Gabrieleke esan zidaan: «Tira
Jonah, suntsituko al dugu?». Eta nik erantzun:
«Gabriel lagun maitea, kontuan izan emaku-
meak, neska-mutilak eta ume gizajoak, horiek ez
baitute ezeren errurik. Lurrikara batez suntsitzen
baduk, zerutik sua eta sufrea bidaltzen badituk,
horiek guztiak hilko dituk, aberatsak eta bekata-
riak hilko diren bezalaxe». Orduan, berak esan
zidaan: «Ondo zagok, Jonah, lagun zahar hori,
nahi duan bezala... Astebete edo bi aste gehiago
emango zizkieagu...». Baina ikaragarria duk pen-
tsatzea, mutilok, nolakoak izango diren sua,
sufrea, lurrikara, uholdeak eta elkarren gainean
eroritako eraikin garaiak.

Halako batean, Joek zaplada bat jo zion
Skinnyri bizkarrean.

— Gero arte Bonaparte! —esan zuen eta ari-
neketan joan zen.

Skinnyk atzetik segitu zion, estropezuka,
bidezidor meharrean zehar, zuhaixken artetik.
Asfaltora iristean harrapatu zuen.

— Tipo hori burutik zagok —esan zuen.

— Isilduko al haiz? —eten zuen Joek zuhaix-
ken artetik atzera begira.

Artean euren suaren kea ikusten zuten zerua
atzean zuela. Handik ezin zezaketen arlotea
ikusi. Haren ahotsa ozta-ozta heltzen zitzaien,
deika: «Gabriel, Gabriel». Arnasestuka korrika
abiatu ziren bata bestetik distantzia berberera
zeuden kaleko arku boltaiko lasaigarrietarantz.

Jimmy Herf albo batera baztertu zen kamioi
bati pasatzen uzteko. Lohi-babesak pitin bat
ukitu zion kapusaiaren behealdea. Lipar batez,
tren jasoaren habe baten atzean gelditu zen,
sustoa pasatzen zitzaion bitartean. Limusina
baten atea ziplo ireki zen haren aurrean eta
ahots ezagun bat aditu zuen, tankerarik hartu
ezin bazion ere.

— Igo Mr. Erf... Nonbaitera eramango zaitut?
Autoan birritan pentsatu gabe sartu bazen
ere, Rolls-Royce baten barruan zegoela ohartu
zen.

Autoaren barruko ahotsa gizon sendo musu-
gorri batena zen, Congorena.

— Eseri, Mr. Erf... Oso pozik nago zu ikustean.

Nora zoaz ba?

— Inora ere ez.

— Etorri nire etxera, zerbait erakutsi nahi dizut. Zer moduz doa dena?

— Oso ongi. Ez... zera... egia esanda, gorriak pasatzen ari naiz, baina berdin da.

— Bihar agian kartzelara joango naiz... sei hilabete... baina agian ez.

Congo albara egin eta kontu handiz luzatu zuen ordezkari hanka.

— Hortaz, azkenean harrapatu zaituzte, Congo?

— Konspirazioa izan da... Baina orain izena aldatu dut, Mr. Erf. Hemendik aurrera Armand nauzu. Orain ezkondua nago. Armand Duval, Park Avenue.

— Eta Coulommiers-eko Markesa?

— Hori negozioetarako baino ez da.

— Hortaz, gauzak ondo doaz, ezta?

Congok baietz egin zuen buruaz.

— Atlantara joaten banaiz, eta ezetz espero dut, sei hilabetetan aberasturik irtengo naiz kartzelatik... Mr. Erf, dirua behar baduzu, aski da

hitz bat... Mila dolar utziko dizkizut. Bost urtetan ordainduko didazu eta kito. Ezagutzen zaitut.

— Eskerrik asko, baina ez dut dirurik behar, horixe da okerrena.

— Zer moduz zure emaztea?... Bai emakume ederra!

— Dibortziatu egin behar dugu... Gaur goizean bidali dizkit paperak... Ezin zitekeen besterik espero hiri madarikatu honetatik.

Congok haginka egin zien bere ezpainei. Gero, Jimmyri eztiki ukitu zion belauna atzamar erakusleaz.

— Minutu batean etxean gaude... Zerbait oso ona emango dizut edateko... Bai, itxaron! —oihu egin zion Congok txoferrari.

Urrezko heldulekua zuen makila batean bermaturik sartu zen, herrenka, etxearen marmol arrosazko hallean. Igogailuan gorantz zihoazela esan zuen:

— Afalduko duzu gurekin?

— Uste dut gaur gauean ezin izango dudala, Cong... Armand.

— Sukaldari bikaina dut... New Yorkera etorri nintzen lehenengo aldian, duela hogeit bat urte,

tipo bat zegoen itsasontzian. Hauxe da atea, begira: «A. D.», Armand Duval. Berak eta biok elkarrekin ihes egin genuen eta berak beti esaten zidan: «Armand, hik ez duk sekula arrakastarik izango, alferregia haiz, emakoiegia...». Orain nire sukaldaria da... lehen mailako chef bat, *cor-don bleu*, e? Bizitza oso gauza bitxia da, Mr. Erf.

— Hau bai ederra, arranopola! —esan zuen Jimmy Herfek edontzi bat Bourbon eskuetan zuela, aulki espainiar baten bizkar garaiaren gainean erdi etzanda, intxaurki beltzezko bibliotekan.

— Congo... zera... Armand, Jainkoa banintz eta erabaki beharko banu hiri honetako zeinek irabazi beharko lukeen milioi bat dolar, zin egiten dizut zeu aukeratuko zintuzkedala.

— Beharbada andrea orain etorriko da. Oso ederra, ikusiko duzu —atzamarrez buruaren inguruan mugimendu biribilak eginez emakumearen kizkurak irudikatu zituen—. Ile hori asko —bat-batean bekokia zimurtu zuen—. Baina Mr. Erf, ezin dizut ezertan ere lagundu? Diruz edo? Esaidazu zeuk, e? Hamar urte dira oso lagun onak garela... Gehiagorik edan nahi?

Hirugarren basokada Bourbon edanda, Herf hizketan hasi zen. Congok ezpainak erdi irekirik entzuten zion, burua lantzean behin higitzen zuela.

— Armand, zu eta bion arteko desberdintasuna zera da: zuk gero eta gizarte-maila hobea duzun bitartean, nik gero eta txarragoa dudala... Zu bapore bateko laguntzailea zinen garaian, ni aberaskumea nintzen, paper murtxikatuaren itxurako aurpegia nuen eta Ritz-en bizi nintzen. Gurasoek intxaurki ilunari eta Vermont-eko marmolari gustua hartua zieten; etxea Babilonia bezain handiosa zen... Gauzak horrela daude, nik ezin dut ezer egin... Emakumeak arratoiak bezalakoak dira, hondoratzen ari den ontzitik azkar alde egiten dutelako. Barrutiko fiskal izendatu berri duten Baldwin horrekin ezkontzeko asmoa du. Baldwin hori prestatzen ari omen dira hautagai-zerrenda erreformista batu bateko alkategaia izateko... Boterearen ilusioa, horixe du akuilutzat. Emakume guztiek horrekin egiten dute amets. Zerbaitetarako balio izango lidakeela uste izango banu, hitz ematen dizut milioi bat dolar irabazteko adina kemen badudala... Baina

orain diruan ez dut pizgarririk aurkitzen. Zerbait berria behar dut, desberdina... Zure semeak horrelakoak izango dira, Congo... Ganorazko heziketa jaso izan banu eta garaiz hasi izan banintz, gaur egun agian zientzialari handia izango nintzateke. Jarrera sexualagoa izan banu, artista edo agian erlijiosoa izango nintzateke... Baina hemen nago, Jainko maitea, ia hogeita hamar urterekin eta bizi izateko gogoz beterik... Behar bezain erromantikoa banintz, aspaldi neure buruaz beste egingo nukeen, jendeak nitaz hitz egin zezan besterik ez bada ere. Gaur egun moz korti arrakastatsua izateko itxaropena ere galdua dut.

— Nik uste dut, Mr. Erf —esan zuen Congok, irribarre txiki bat eginez, edontzi txikiak berriro betetzen zituen bitartean—, zuk gehiegi pentsatzen duzula.

— Bai noski, Congo, hala da, noski. Baina zer arraio egingo diogu ba?

— Tira, diru apurren bat behar duzunean, Armand Duval-ez gogoratu... Beste trago bat nahi?

Herfek ezetz egin zuen buruaz.

— Ez, alde egin beharra daukat... Laster arte, Armand.

Marmolezko zutabeekiko hallean Nevada Jonesekin topo egin zuen. Emakumea orkideoz apainduta zihoan.

— Kaixo Nevada, zertan ari zara hemen, bekatuaren jauregi honetan?

— Hemen bizi naiz... Zer uste zenuen zuk?... Lehengo egunean zure lagun batekin ezkondu nintzen, Armand Duvalekin. Nahi duzu berarekin hitz egin?

— Oraintxe egon naiz berarekin... Tipo jatorra da.

— Dudarik gabe.

— Zer egin zenuen zuk Tony Hunter txikiarekin?

Nevada hurbildu egin zitzaion eta ahapeka hitz egin zion.

— Ahaztu bera eta bion artekoa... Hori bai alkohol-kiratsa daukazuna!... Tony Jainkoaren akatsetako bat da, nik ez dut inolako zerikusirik berarekin... Egun batean, nire jantzi-gelan ezin urduriago aurkitu nuen: beldur zen akrobata batekin desleiala izango ote zitzaidan. Nik esan

nion hobe zuela berarekin joatea eta hortxe bukatu zen dena... Baina, benetan diotsut, orain ezkon bizitzako zorionaz hordituta nago. Hala da. Hortaz, kontuz ibili eta ez egin Tony eta Baldwin buruzko aipamenik Armanden aurrean... berak ondotxo badaki ere ni ez nintzela eskaio-lazko ama birjina... Zergatik ez zatoz gora gurekin bazkaltzera?

— Ezin dut... Zorte on, Nevada.

Whiskyaren beroa sabelean eta atzamarrak inurriturik, Jimmy Herf zazpietan iritsi zen Park Avenuera, non taxien burrunba eta gasolinak, jatetxeek eta arrastiriak isuritako usaina nahasten baitziren.

James Merivale Metropolitan Clubera zihoan lehenengo aldia zen, han bere aurkezpena egin zuenez geroztik. Lehenago beldur zen hori zaharren kontua zela, makila erabiltzea bezalaxe. Leiho ondoko larruzko besaulki batean eserita, hogeita hamabost zentaboko zigarro bat erretzen ari zen, *Wall Street Journal* egunkaria belaun gainean eta Cosmopolitan-en alde bat

eskuineko izterraren gainean ezarrita. Begiak argiz zipriztindutako gau gardenean noragabeturik, James Merivale bere ametsetan pulunpatu zen. Krisialdi ekonomikoa... Hamar milioi dolar... Gerraren krisiaren ondoren... A ze hondamena! BLACKHEAD&DENSCH-EK BEHEA JO DU 10.000.000 DOLAR GALDU ONDOREN... Duela zenbait egun Densch atzerrira joan zen... Blackhead bakarturik Great Neck-en duen etxean. New Yorkeko inportazio eta esportaziorako enpresarik zaharrenetako eta prestigiotsuenetako bat... 10.000.000 dolar. O, *it's always fair weather When good fellows get together*. Hauxe da bankuen abantaila. Defizita gertatu arren, dirua eskuragarri dago, bermeak direla eta. Merkataritza-proposamenetan arrisku-marjina egoten da beti. Batzuetan izaten dugu proposamenik eta besteetan ez, ezta Merivale?». Horixe esan zian Perkins zaharrak, Cunningham-ek Jack Rose koktel hura prestatzen zion bitartean... *With a stein on the tabul And a good song ri-i-inging clear*. Kontaktu ona duk mutil hori. Azken batean, Maisiek bazekian zertan ari zen. Horrelako egoera batean dagoen gizon bat txantajeatua izan daitekek. Bai leloa!

Salaketa ez jartzea ere!... «Neska hori burutik dago», esan zian Cunningham-ek, «izen bereko beste gizon batekin ezkontuta dago...». Horrelako emakume batek eroetxean egon behar likek. Eta ni Cunningham erruduna zelakoan... Inguaruabarrek guztiz argi utzi ditek errugabea dela, amak ere sinetsi zian hori. *O Simbad was in bad in Tokio and Rome* kantatu ohi zian Jerryk. Jerry gajoa, ez zuan sekula gustura sentitzen Metropolitan Clubeko beheko pisuan... Jakina, jatorri apalekoa... Jimmy bezala... berak aitzakia hori ere ez zaukak... porrotetik porrotera, hasieratik deskalabrua. Oker ez banago, Jimmyren aita apur bat ganorabakoa zuan, kirolaria zuan... Amak esaten zuenez, izeba Lilyk asko jasan behar izan zian. Alabaina, Jimmy norbait izatera irits zitekean bere ezaugarrien despit... ameslaria, abenturazalea... Greenwich Village-ko gauzak. Eta aitak Jimmyrengatik nirengatik beste egin zian. Eta orain dibortzio hori... Adulterioa... prostituta batekin seguru asko. Sifilia edo horrelako zerbait izango dik. Hamar milioi dolarreko porrota.

Porrota. Arrakasta.

Hamar milioi dolarreko arrakasta... Banku-negozioetan hamar urte arrakastatsu... Bart, Bankari Amerikarren Elkarteak antolatutako oturuntzean, James Merivalek, Bank&Trust Company-ko lehendakariak, «banku-negozioetan izandako hamar urte arrakastatsuen aldeko» brindisari erantzunez hitz egin zuen: «Horrek gogora dakarkit, jaunok, oilaskoa oso gogokoa zuen gizon zahar beltzari buruzko ipuina... Baina, ondo baderitzozue, jaigiro honetan hitz serio batzuk egin nahi nizkizueke (argazki baten flasha), oharren bat egin nahi nuke... Uste dut hiritar amerikarra eta nazio osoari lotutako erakunde handi bateko lehendakaria naizenez, edo hobeto esanda, nazioarteko erakunde batekoa, ez, erakunde unibertsal batekoa (flasha), nire betebeharra dela...». Azkenean, txalo-zaparrada zalapartatsuari gaina hartuta, James Merivalek bere hitzaldiari hunkiturik berrekin zion, bere buru gris handiosari eragiten ziola eskerrak eman nahirik. «Jaunok, ohore handia egiten didazue... Utzidazue gaineratzen proba eta atsekabe guztietan, arbuioaren ur beltzetan lasai eta jendearen iritzi aldakorraren aurrean axolagabe,

gaueko ordu txiki eta isiletan eta eguerdiko milioien kalapitaren erdian, nire makila, nire bizitzaren ogia eta nire etorria zor dizkiot emazte, ama eta banderarekiko leialtasunari».

Puruaren errauts luzea hautsi eta belaunetara erori zitzaion. James Merivale tentetu zen eta serio-serio kendu zuen errauts arina praketatik. Gero, berriro eseri zen eta bekokia zimurturik irakurtzen hasi zen *Wall Street Journal*-en atzerriko burtsari buruz argitaraturik zetorren artikulua.

Otordu-bagoiko bi aulkitan eserita zeuden.

— Aizak, motel, nolatan eman huen izena gabarra zahar horretan?

— Horixe duk Ekialdera doan bakarra.

— Tira motel, oraingoan ederrean sartu haiz... Kapitaina burutik zagok, lehenengo ofiziala Sing-Sing-etik atera den lapurrik handiena duk eta tripulaziokoak alproja galantak. Ontzi zaharra salbatua izatea ere ez dik merezi... Zein izan zen hire azken lana?

— Hotel batean egiten nian lan, gauez.

— Aizak motel... Kristoren izenean, New Yorkeko hotel bikain bateko lan on bat utzi duk, Davy Jones-en bailandrean laguntzaile hasteko. Sukaldari ederra egingo haiz hi!

Bestea lotsagorritzen hasi zen.

— Eta hanburgesa horiek? —galdetu zion ozenki tabernariari.

Jandakoan, kafea bukatzen zuten bitartean, laguna zegoen lekura biratu zen eta ahapeka galdetu zion:

— Aizak, Rooney, inoiz egon al haiz Europan... gerra garaian?

— Saint Nazaire-n egon nauk pare bat bider. Zer dela eta?

— Ez zakiat... Jakinmina baino ez... Nik bi urte eman nitian han. Gauzak aldatu egin dituk. Lehen gauza bakarra nahi nian: lanpostu ona lortu, ezkondu eta lasai bizi; orain dena bost axola zaidak... Esaterako, sei hilabete leku berean lanean eman ondoren egundoko ezine-gona sortzen duk nire baitan. Hortaz, nik pentsatu nian Ekialdia ikusi behar nuela apur bat...

— Lasai egon —esan zuen Rooneyk burua astintzen zuela—, ikusiko duk, ez kezkatu.

— Zenbat da? —galdetu zion gazteenak tabernariari—. Oso gazte harrapatuko hinduten.

— Hamasei urterekin armadan sartu ninduan.

Bueltak jaso eta Rooneyren sorbalda kulunkariei jarraiki kalera irten zen. Kalearen bukaeran, kamioien eta biltegien teilatuez haratago, mastak, baporeen kea eta eguzkirantz zihoan lurrin zuria begiztatu zituen.

— Jaitsi pertsiana —esan zuen gizonak ohetik.

— Ezin dut, hondatuta dago... Arraioa, tramankulua guztiz izorratu da! —Anna negarrez hasteko zorian zegoen, pertsianaren arrabolak haren aurpegiaren kontra jo zuenean—. Konpondu zeuk —esan zuen oherantz biratuta.

— Berdin dio, ezin gaituzte ikusi —esan zuen barreka, emakumeari heltzen zion bitartean.

— Bai argi gogaikarriak! —esan zuen adiaka gizonaren beso artera murgiltzen zela.

Gela txikia zen, zapata-kutxa bezalakoa; burdinazko ohe bat zuen, leihoaren aurreko hormaren zokoan. Eraikinen arteko V itxurako tartetik

kaleen marmarra iristen zitzaien. Sabaian Annak Broadwayko kartel argitsuen dirdir aldakorra ikusten zuen: lehenik zuri, gero gorri, eta azkenik berde. Orduan, kolore guztiek leher egiten zuten anpulu baten modura, eta berriro, zuri, gorri, berde.

— O, Dick, konpondu pertsiana, mesedez, argi horiek neure onetik ateratzen naute eta.

— Argiak ondo daude, Anna, antzokian egoitea bezala da... *The Gay White Way* haiek zioten bezala.

— Ondo dago hirikoak ez zaretenontzat, baina ni neure onetik ateratzen naute.

— Hortaz, orain Madame Soubrine-n lan egiten duzu, Anna?

— Eskirola naizela esan nahi duzu?... Badakit. Atsoak kalera bota ninduen eta bide bakarra zegoen: lana aurkitzea edo eztanda egitea.

— Zu bezalako neska jator batek, Anna, beti senargaia aurkitu dezake.

— Ene, zuek, gizonok, txerri batzuk besterik ez zarete... Uste duzu zurekin nabilenez, edozeinek ibiltzeko prest nagoela... Ez ba, ez duzu ulertzen?

— Ez nuen hori esan nahi, Anna... Gaur gauean bai zaudela suminkor!

— Nerbioak izango dira... Batetik, greba hau, bestetik, atso horrek kalera botatzen nau eta, azkenik, Soubrineko eskirol-lana... Edozein gogaitzeko modukoa da. Pikotara doazela! Niri bost. Nik ez diot inori sekula kalterik egin. Gauza bakarra eskatzen dut: bakean utz nazatela, nire soldata kobratzea eta noizean behin ondo pasatzea... Ikaragarria da, Dick... Ez naiz ausartzen kalean auzoko neskaren batekin topo egiteko beldurrez nagoelako.

— Tira, Anna, gauzak ez dira horren txarrak... Benetan diotsut, nik mendebaldeko kostaldera eramango zintuzket, emaztearengatik ez balitz.

Annaren ahotsak negar-zotinka jarraitu zuen, gorabeherarik gabe:

— Eta orain prostituta deitzen didazu, zurekin gustura nagoelako eta ez dakidalako ezetzik esaten.

— Nik ez dut horrelakorik esan. Ez zait burura etorri ere egin. Nik uste dut zu neska jatorra eta apala zarela, neska gehienak ez bezala...

Begira, zuri poza ematearren, pertsiana hau konpontzen saiatuko naiz.

Dickek leihoko argi zuriaren kontra bere gorputzarra mugitzen zuen bitartean, Anna begira geratu zitzaion, albo baten gainean etzanda. Azkenean, Dick Annarengana itzuli zen, hortz-karraskaka.

— Ezin dut traste madarikatu hori konpontu... A ze hotza, arraioa!

— Berdin dio, Dick, sartu ohean... Berandu izango da. Zortzietan han egon behar dut.

Dickek burukoaren azpitik erlojua atera zuen.

— Ordu bi eta erdiak dira... Gau on, laztana.

Sabaian Annak Broadwayko kartel argitsuen dirdir aldakorra ikusten zuen: lehenik zuri, gero gorri, eta azkenik berde. Orduan, kolore guztiek leher egiten zuten anpulu baten modura, eta berriro, zuri, gorri, berde.

— Eta ezkontzara ez ninduen gonbidatu ere egin... Benetan diotsut, Florence, barkatuko niokeen, ezkontzara gonbidatu banindu —esan zion

andreak neskame beltzari, hark kafea eramane zionean.

Igande goiza zen. Ohean eserita zegoen, egunkariak altzoan zabaldurik zituela. Fotogra-batuen saileko argazki bati beha zegoen; horren izenburua; *Mr.&Mrs. Jack Cunningham-ek euren ezkon bidaiaren lehenengo zatiari ekin diote Albatros VII. Hidrohegazkin bikainean.*

— Mutil ederra, benetan... Baina, andereño, ezin al zenuen ezer egin ezkontza bertan behera uzteko?

— Ezertxo ere ez... Nik edozein huskeria egi-nez gero, eroetxe batean sartuko ninduke... Berak ondotxo daki Yucatan-go dibortzioak legez kanpokoak direla.

Florencek hasperen egin zuen.

— Gizonak urde galantak dira neska gajoo-kin.

— O, hori laster amaituko da. Aurpegiari begiratuta, begien bistan geratzen da neskato mimatua, zaputza eta berekoia dela... Jainkoaren eta gizonen aurrean, neu naiz bere benetako emaztea. Jainkoak daki saiatu nintzaiola oharta-razten. Jainkoak batzen duena ez dezala gizonak

bereiz. Ez al du hori esaten Bibliak?... Florence, kafea txar-txarra dago gaur goizean. Ezin dut hartu. Tira, joan eta egidazu beste bat.

Bekokia zimurtuta eta sorbaldak goratuta, Florence atetik irten zen erretilua eskuetan zera-mala.

Mrs. Cunninghamek hasperen sakona egin zuen eta burukoen artean kokatu zen. Kanpaien danga entzuten zen. «O, Jack maitea, lehen bezalaxe maite zaitut», esan zion argazkiari. Gero, musu eman zion. «Aizu, maitea, kanpaiek horrela jotzen zuten eskolako dantzalditik ihes egin genuen egunean, Milwaukee-n ezkontzeko... Igandeko goiz eder bat zen». Gero, begiak bigarren Mrs. Cunninghamen aurpegian finkatu zituen. «O, zu!» esanda hatz batez zulatu zuen haren irudia.

Emakumea zutitu orduko ohartu zen auzitegi-ko aretoa astiro jira eta bira zebilkiola. Epailearen arrain-aurpegi zuria betaurrekoak sudur gainean zituela, aurpegiak, poliziak, laguntzaile uniformedunak, leiho grisak, idazmahai horiak;

dena jira-biraka zebilen gela itxiaren kirats okaztagarrian. Bere abokatu belatz-sudurdunak soilu-nea xukatu, bekokia zimurtu zuen eta jira eta bira hasi zen harik eta emakumeari oka egiteko gogoia etorri zitzaion arte. Han esaten ziren hitzetatik bat ere ezin zuen aditu emakumeak. Begiak itxi-irerika zerabiltzan, horrela belarrieta-ko burrunba aienatuko zitzaiolakoan. Bere atzean Dutchen presentzia nabaritzen zuen: hantxe zegoen, makur-makur eginda eta burua-ri eskuen artean eutsirik. Ez zen ausartzen atze-rantz begiratzen. Gero, zenbait orduren buruan, dena zorrotza, gardena eta oso urruna zen. Epai-leak inbutu baten muturretik oihu egiten zion eta haren ezpain kolorgeak kanporantz eta barru-rantz mugitzen ziren arrain-ahoak bailiran.

— ...Eta orain, hiri handi honetako hiritarra naizenez, hitz bakan batzuk egin nahi dizkiot defentsari. Laburbilduz, honelako gauzak bukatu egin behar dira. Bizitza eta jabetzarako eskubide besterenezinak, errepublika honen fundatzaileek Konstituzioan ezarritakoak, ondo babestu behar dira. Ahal duten neurrian, gizon-emakume guz-tiek, funtzionarioak izan ala ez, anarkia-bolada

honi aurre egin behar diote. Hori dela eta, nahiz eta kazetari sentimental horiek herri izpiritua usteltzen duten eta Jainkoaren eta gizonen legea eta jabetzaren legea urra daitezkeelako ideia jende ahul eta gaiztoaren buruan sartzen duten, nahiz eta kazetari horiek dioten hiritar bakeza-leek lan eta adimen bidez lortu dutena indarrez ostuta ere, lapurrak onik atera daitezkeela, nahiz eta kazetari kalakari horiek gertakari horiei lotu-tako inguruabarrak aringarritzat jo ditzaketen, legea zorroztasunik handienaz aplikatuko dut bi lapur hauen gainean. Garaia da eskarmentua emateko...

Epailleak trago bat ur edan zuen. Franciek azkar begiztatu zizkion sudur-poroetatik zeriz-kion izerdi-tanta txikiak.

— Garaia da eskarmentua emateko —oihu egin zuen epailleak—. Aita jator eta prestu gisa sentitzen ditut zoritxarra, heziketa eta ideal gabezia edota etxe gozorik eta amaren maitasu-nik eza: horiek guztiek neska hau eraman dute ezmoraltasunez eta miseriaz beteriko bizimodu batera eta neskak ezin izan die gizon bihozgabe eta suntsikorren tentazioei eutsi, ez eta «jazza-

ren garaia» izenez egokiro izendatutakoaren lilura zitalari ere. Hala ere, oldozpen horiek legearen zorroztasuna errukiz epeltzeko zorian daudelarik, beste neska batzuen irudi tamalgarria datorkigu, nahitaez. Hain zuzen ere, agian orain-txe bertan hiri honetako ehundaka neska Robertson hau bezalako tentalari bihozgabe eta maltzur baten atzaparretan erortzeko zorian daude... berarentzat eta bere modukoentzat ez dago behar bezain zigor gogorrik... Ez dezagun ahanztz gaizki aplikatutako errukia epe luzerako krudelkeria izaten dela sarritan. Zera egin deza-kegu soilik: emakume galduengatik malko bat isuri eta otoitz bat ahapeka egin neska dohakabe honek bere ahalkearen fruitu gisa mundura ekarri duen ume lañoaren alde.

Franciek halako azkura hotz bat sumatu zuen, hatz-mamietan hasi, besoetan gora egin eta botalarrien alde nahasira iristen zena. «Hogei urte», entzun zuen marmarka auzitegiko aretoan. Bazirudien jende guztia ezpainak milikatzen ari zela, «hogei urte» ahapeka esateaz batera.

«Konortea galtzear nago», esan zuen bere baitan, lagun batekin arituko balitz bezala. Dena ilunpetan murgildu zen.

Bost burukoren artean kokatuta, Phineas P. Blackhead madarikazioka ari zen kaobazko bere ohe kolonial zabalaren erdian eserita, aurpegia bere zetazko txabusina bezain more zuela; ohearen lau zutoinen goialdea pinaburuz ederturik zegoen. Gela handi hura hormetarako paperaz barik oihal javatar eta kaobazko moldurez apaindurik zegoen; jaka zuri eta durbantedun morroi hindu bat besterik ez zegoen bertan. Morroia ohearen oinean zutik zegoen, eskuak gerriaren alde banatan ezarrita, eta madarikaziorik handienak entzunik ere burua makurtu eta esaten zuen: «Bai, Sahib, bai, Sahib».

— Jainkoaren izenean, lelo madarikatu horrek, whisky hori ekartzen ez badidak, jaiki eta txiki-txiki eginda utziko haut, aditu? Jesukristoarren, neure etxean ere ez al didate obeditu behar? Whiskya esaten dudanean, zekalez egin-

dakoaz ari nauk eta ez laranja-uraz. Kondena-
zioa, horixe besterik ez duk merezi!

Gau-mahaitik beira landuzko pitxer bat hartu eta indiarrari bota zion; gero, burukoen gainean berriro etzan zen; ezpainetatik listua bits bihurturik zerion, borborka, arnasbidea buxatzen ziola. Isil-isilik, morroi hinduak Belutxistango alfonbra lodia garbitu eta gelatik ezarian alde egin zuen, kristal puska pilo bat eskuetan zera-mala. Blackheadek errazago hartzen zuen arnasa. Begiak betzulo sakonetan hondoratu eta betazal berde hanpatuen tolesetan galdu zitzaizkion.

Lo zegoela zirudien, Gladys barrura sartu zenean. Kapusaia jantzirik zuen eta esku batean aterki bustia zekarren. Emakumea behatz-puntetan leihora hurbildu eta zutik geratu zen kale gris euritsueta eta pareko harrizko etxe zahar eta ilunetara begira. Lipar batez, kamisoia jantzi-ta aitatxorekin ohe handian gosaltzen zuen igande goizeko neskatoa izan zen.

Blackhead beldurtuta esnatu zen eta, begiak gorri-gorri, bere ingurura begiratu zuen. Masaile-

zurraren gihar astunek teink egiten zuten azal more izugarriaren azpian.

— Tira, Gladys, non dago eskatu dudan whisky hori?

— O aitatxo, zuk badakizu zer esan duen Thom doktoreak?

— Esan du beste trago batek hil egingo nindukeela... Baina oraindik bizirik nago, ezta? Astakilo galanta da.

— Ez, baina zeure burua zaindu egin behar duzu, horrela haserretu gabe.

Gladysen musu eman eta bekokia ferekatu zion bere esku hotz meheaz.

— Ez al dut arrazoirik haserre egoteko? Sasi-kume horri lepotik helduko banio... Ikaratu ez balitz, kinka larri honetatik ateratzea izango genukeen. Merezita daukat horrelako oilo batekin bazkidetzeagatik... Hogeita bost, hogeita hamar urte lanean eta dena pikotara hamar minututan... Hogeita bost urtetan nire hitzak bankuko billete batek besteko balioa izan du. Negozioarekin infernuraino jarraitzea beste biderik ez dut. Deabruak naramala! Eta orain, Jainkoarren, zuk, nire odol eta haragi zaren horrek, ez

edateko esaten didazu... Jainko ahalguztiduna!
E... Bod... Bob... Nora joan da bulegoko arratoi
madarikatu hori? Aizue, etorri zuetakoren bat,
putakumeak halakoak! Zertarako uste duzue
ordaintzen dizuedala?

Erizain batek burua agertu zuen atetik.

— Utikan! —oihu egin zuen Blackheadek—.
Ez dut birjina handiputzik nahi neure inguruan.

Buru azpiko burukoa jaurti zion. Erizaina
desagertu egin zen. Burukoak ohearen zutoine-
tako baten kontra jo zuen eta ohazal gainera
erori zen.

Gladys negarrez hasi zen.

— O, aitatxo, ezin dut gehiago jasan... jende
guztiak betidanik errespetatu izan zaitu... Ez
ezazu burua gal, aitatxo maitea, mesedez.

— Eta zergatik, Jainkoarren, zergatik?... Ikus-
kizuna bukatu da. Zergatik ez duzu barre egiten?
Oihala dagoeneko jaitsi da. Dena txantxa da,
txantxa zikina.

Barreka hasi zen burugabeki. Itotzen ari zen;
ukabilak hertsirik borrokan ari zen arnasari buel-
ta eman ezinik. Azkenean, ahotsa pitzaturik zeu-
kala, esan zuen:

— Ez al zara ohartzen whiskya dela bizirik mantentzen nauen bakarra? Alde hemendik eta esaiozu hindu madarikatu horri etortzeko. Zeu zara inoiz gehien maite izan dudana. Hori bada-kizu zuk. Azkar, esaiozu eskatu diodana ekartze-ko.

Gladys negarrez irten zen gelatik. Kanpoaldean, bere senarra harat-honat zebilen hallean zehar.

— Erreportari madarikatu horiek dira... Ez dakit zer esan eurei. Diotenez, hartzekodunek auzitegira jotzeko asmoa dute.

— Mrs. Gaston —eten zuen erizainak—, uste dut gizonezko erizainak hartu beharko dituzula... Benetan diotsut, ezin dut ezer egin berarekin...

Beheko pisan, telefono bat jotzen ari zen, jotzen eta jotzen.

Morroi hinduak botila whisky eraman orduko, Blackheadek edontzi bat bete eta zurrutada luze bat edan zuen.

— Hau bai pizgarri ona, bai horixe! Achmet, zu tipo jatorra zara... Bai, ondorioei aurre egin beharko diegu eta saldu... Jainkoari esker, Gladys babestuta dago... Daukadan guztia sal-

duko dut. Nire suhi maitagarria horren leloa ez balitz... Betidanik nire patua ergelez inguratuta egotea izan da... Jainkoarren, ni gustura joango nintzateke kartzelara, horrek mesederik egingo balie. Zergatik ez? Bizitza osoa alferrik galduta. Eta gero, kartzelatik irtendakoan, gabarra-gidari edo portu-zaindari lanpostu bat emango didate. Ondo irudituko litzaidake. Zergatik ez hartu patxadaz, dena alferrik galdu eta gero, Achmet?

— Bai, Sahib —esan zuen hinduak burua makurtuta.

— Bai, Sahib... —Blackheadek hinduaren imintzioak eta keinuak errepikatu zituen—. Zuk beti baietz esaten duzu, Achmet, ez al da bitxia? —barreka hasi zen; barrea itoa eta kirrinkaria zen—. Uste dut horixe dela biderik errazena.

Barre eta barre egin zuen eta bat-batean ezin izan zuen barre gehiagorik egin. Espasmo azkar batek dardarizo batean jarri zizkion gorputz-atal guztiak. Hitz egiteko ahaleginetan, ahoa okertu zuen. Unetxo batez, begiak gelan zehar ibili zitzaizkion noraezean; begi haiek mina hartu ondoren negar egin-hurren zegoen umearenak ziruditen. Gero, atzerantz erori zen bere aho ire-

kiak sorbalda bati haginka egiten zion bitartean. Achmetek luzaz behatu zion, hotz; gero, haren-gana gerturatuta, aurpegiratu egin zion. Gero, ahoa itxi zion, soina burukoen artean paratu zuen eta hitzik egin gabe irten zen gelatik. Halle-ko besaulki batean eserita, Gladys aldizkari bat irakurtzen ari zen.

— Sahib askoz hobeto dago, agian apur bat egingo du lo.

— O, Achmet, izugarri pozten naiz —erantzun zuen Gladys-ek eta bere aldizkariari begira jarraitu zuen.

Ellen Bosgarren Etorbidearen eta Berrogeita Hamahirugarren Kalearen arteko kantoian jaitsi zen autobusetik. Sartalde argitsutik, arrastiriko oskorriak dirdira noranahi hedatzen zuen: letoira, nikelera, botoietara eta jendearen begietara. Etorbidearen sortaldeko leiho guztiak su eta garri zirela ematen zuen. Anartean, hortzak estuturik, espaloian kalea zeharkatzeko zain zegoela, lurrin-bafada hautemaezin batek ozta-ozta bisaia ukitu zion. Atzerritar-itxurako bonetaren

azpian ile-xerlo hori eta leun batzuk ageri zituen mutil ihar batek garangorriak eskaintzen zizkion saski batean. Ellenek sorta bat erosi eta sudurre-ra hurbildu zuen. Maiatzeko basoak ahoan urtu zitzaizkion azukrearen modura.

Txilibitu baten hotsa entzundakoan palankek kirrinka egin zuten, autoak abiatu eta kaleetan gaindi barreiatu ziren. Bidegurutzean jendetza ikaragarria metatu zen. Bere ondotik igarotzean, Ellenek mutilaren ukitze arina sumatu zuen. Albo batera baztertu zen. Lipar batez, garangorrien usainaren despit, mutilaren gorputz garbitu gabeari antzeman zion, hots, Ellis Island-eko emigratzaileek eta etxe jendetsuek isuritako usainari. Maiatzak esmalteztatu, urreztatu eta zilarreztatutako kaleetan zehar, Ellenek, egonezinik, gero eta hurbilago sumatzen zuen usain hura; bafada trinko geldietan zabaltzen zen kirats hura, zirimola uzkurtuetan, estoldek jariatzen duten hatsa iduri. Kale-burutik behera, ibile-ra bizkortu eta ate batetik sartu zen. Atearen alde batean, letoizko plaka txiki garbi-garbi batek ñir-ñir egiten zuen.

Jantziak

Mrs. Soubrine beraren katu-irribarrea bertatik bertara ikusi orduko den-dena ahaztu zuen. Emakume sendo ilebeltza zen, errusiarra apika. Besoak zabalik bidera irten zitzaion, gortina baten atzealdetik. Bien bitartean, Josefina enperatriz estiloko halako gela bateko jarlekuen gainean eserita zain zeuden beste bezero batzuek bekaizkeriaz begiratzen zioten.

— Mrs. Herf maitea, non ibili zara? Astebete da jantzia prest duzula —deiadar egin zuen ingeles perfektuegiz—. Itxaron eta ikusiko duzu, maitea... zoragarria da... Eta zer moduz Mr. Harpsicourt?

— Oso lanpeturik ibili naiz... Lana uzteko asmoa dut, bazenekien, ezta?

Mrs. Soubrinek baietz egin zuen buruaz, jakinaren gainean zegoela adierazteko keinu bat egin zion eta tapizetan barrena dendaren atzealdera eraman zuen.

— *Ah, ça se voit... Il ne faut pas travailler, ou peut voir déjà de toutes petites rides. Mais elles disparaîtront.* Barkatu, maitea.

Beso sendo batek gerria estutu zion. Ellen amini bat baztertu zen.

— *Vous la plus belle femme de New York...* Angelica, ekarri Mrs. Herfen gau-jantzia —oihu egin zuen Mrs. Soubrinek ahots karrankariz, oilo-aren kakara bezain ahots latzez.

Neska zurbil ilehori eta makillatu bat gelan sartu zen, esekigailu batetik soineko bat dilindan zuela. Ellenek neurrira egindako soineko grisa erantzi zuen. Mrs. Soubrinek bira egin zuen bere inguruan, urrumaka.

— Angelica, begira nolako sorbaldak, nolako ile-kolorea... *A! C'est le rêve.*

Gehiegitxo hurbildu zen, bizkarrean ferekak jaso nahi dituen katuaren antzo. Soinekoa berde argia zen eta marra gorrimin eta urdin ilunak zituen.

— Ez dut berriro honelako soinekorik erosiko, nekatuta nago beti urdinez eta berdez jantzita egoteaz...

Mrs. Soubrine oinetan zuen, ahoa orratzez beterik eta albainu txiki batez lan eta lan.

— Xalotasun helenikoa, Diana bezain liraina... Udaberriaren izpiritualtasuna... Annette Kellermann baten neurri betegina, askatasunaren lastargiari eutsiz... birjina zuhurra —xuxurlatu zuen orratzen artetik.

«Arrazoia din», pentsatu zuen Ellenek, «gogorregia naun neure buruarekin». Ellen bere buruari kornukopian beha geratu zitzaion. «Egunen batean itxura kaskartuko zaidan». Menopausia uxatzeko apaindegia. Aurpegiko larruazala gaztetzeko kremak.

— *Regardez-moi ça, chérie* —esan zuen jostunak, zutitu eta orratz batzuk ahotik kentzen zituen bitartean—. *C'est le chef d'oeuvre de la maison Soubrine.*

Bat-batean Ellenek sargoria sentitu zuen, sare likits batean harrapaturik bailegoen. Zetazko oihal tindatuek, kremek eta muselinak isuritako kirats ikaragarri batek buruko mina eragin zion. Irrikitan zegoen berriro kalera itzultzeko.

— Ke-usaina dago, zerbait ari da gertatzen! —oihu egin zuen supituki neska ilehoriak.

— Ixo, ixo, ixo —esan zuen Mrs. Soubrinek.

Bi-biak ispilu batez estalitako ate batetik desagertu ziren.

Argizulo baten azpian, Mrs. Soubrineren taile-
rraren atzeko gelan, Anna Cohen jantzi baten
orla puntada azkarrez josten ari zen. Aurrean,
mahai gainean, tul pilo handi argitsu bat zuen,
zuringo irabiatu bat zirudiena. *Charley my boy,*
oh Charley my boy leloa ahapeka zerabilen, etor-
kizuna puntada azkarrez ehuntzen zuen bitar-
tean. «Elmerrek nirekin ezkondu nahi badu, zer-
gatik ez gara ezkontzen? Elmer gizajoa, mutil
jatorra dun, baina beti ametsetan zagon... Bitxia
dun ni bezalako neska batez maitemindu izana.
Pasatu egingo zaion. Agian iraultza datorrenean
gizon handia izango dun... Parrandak ahaztu
beharko ditinat Elmerren emaztea naizenean...
Baina agian diru apurren bat aurreztu eta denda
txiki bat ireki ahal izango dinagu A Etorbidean,
leku onean, erdialdean baino diru gehiago ira-
bazteko. *La Parisienne, Modes*».

«Apustu egingo niken nik atso madarikatu
horrek bezain ondo antola nezakeela negozioa.
Nor bere buruaren jabe izanez gero, ez luken

hau bezalako istilurik egongo grebalariekin edo eskirolekin... Aukera-berdintasuna denontzat. Elmerrek zion hori dena gezurra dela. Iraultza beste itxaropenik ez zagon langileentzat. *Harry nitaz zeharo maiteminduta dago eta ni Harryz zeharo maiteminduta nago*». Elmer telefonogune batean dago, etiketaz jantzirik, belarri-tapagailuak dituela, Valentino bezain garaia, Doug bezain indartsu. Iraultza piztu da. Goardia Gorria Bosgarren Etorbidean gora doa. Urrezko kizkurrez apainduta eta katakume bat beso azpian duela, Anna goreneko leihora azaldu da. Beherago, usakume zuriak hegalka ari dira. Bandera gorriz zipriztinduta, Bosgarren Etorbidea odole-tan blai dago, distiratsu, bertan musika-bandak jotzen ari baitira. Ahots zakarrak «Die Rote Fahne» ari dira kantari, yiddish-ez. Urrun, Woolworth-en, pankarta bat haizearen altzoan ari da dantzan. «Begira, Elmer, UDAL HAUTESKUNDEAK, ELMER DUSKIN, ALKATEGAIA». Eta Charlestonea dantzatzen ari dira bulego guztietan... Tunp, tunp... Ai, Charlestonea! Tunp, tunp... «Agian Elmer maite dinat». «Elmer, har nazazu». «Valentino bezalako maitalea dun, nire soina berearen kon-

tra estutzen din Doug-enak bezalako bere beso indartsuez; Elmer sua bezain beroa dun».

Bilbatzen ari zen ametsean hatz zuri batzuk keinuka ari zitzaizkion. Tul zuriari erlantz distiratsuegia zerion. Halako batean, tuletik esku gorri batzuk ernatu ziren. Tul gorriak soina eta burua inguratzen zizkion, haginka egiten zion; ezin zuen, hala ere, gainerik kendu. Kezko kiribilek argizuloa belzten zuten. Gela kez eta garrasiz bete zen. Anna han-hemenka zebilen, eskuari biziro eraginez, tul kiskalgarri hura kosta ahala kosta gainerik kendu nahirik.

Zutik, Ellenek bere buruari behatu zion aldagelako kornukopian. Oihal erreskalduaren usaina areagotuz zihoan. Denbora-tarte batez alde batetik bestera artaga ibili ondoren, ispilu-atetik irten eta esekitako jantziz beteriko korridore batera heldu zen. Kezko hodei baten azpian makurtu eta, begiak negartsu zituela, tailer handi bat ikusi zuen non neska batzuk oihuka ari baitziren Mrs. Soubrineren atzean, elkar bultzatzen, hark itzalgailu kimiko bat mahai gaineko oihal ikaztu pilo baterantz destatzen zuen bitartean. Oihal ikaztu pilotik auhenka ari zen zerbait

atera zuen. Beso zirtzil bat, aurpegi erreskaldata gorri-beltz bat eta buru soildu ikaragarri bat ikusi ahal izan zituen zeharretara.

— O, Mrs. Herf, mesedez esaiezu dendakoei ez dela ezer, ezertxo ere. Segituan noa! —garra-si egin zion Mrs. Soubrinek arnasestuka.

Begiak itxita, Ellen korridore ketsutik korrika atera eta aldagelaren aire garbira iritsi zen eta negar egiteari utzi zionean, gortina jaso eta egongelan zain zeuden emakumeenganantz jo zuen.

— Madame Soubrinek eskatu dit zuei esateko ez dela ezer gertatu, ezertxo ere ez. Zabor-pilo batean piztu den sute ziztrin bat baino ez... Berak itzali du itzalgailu batez.

— Ezertxo ere ez —esaten zioten elkarri emakumeek, Josefina enperatriz estiloko jarlekuen gainean berriro esertzen ziren bitartean.

Ellen kalera irten zen. Suhiltzaileak iristen ari ziren. Poliziak jendetza atzerantz botatzen ari ziren. Alde egin nahi zuen, baina ezin. Zerbaiten zain zegoen. Azkenean, tintin bat entzun zuen kalean behera. Suhiltzaile-kamioiak urruntzen ari zirela, anbulantzia heldu zen. Laguntzaile

batzuek anda tolestu bat zeramaten. Ellenek nekez har zezakeen arnasa. Anbulantziaren ondoan geratu zen, polizia handi urdin baten atzean. Ezin ulertu zuen bera zergatik ote zegoen hain asaldatuta. Bazirudien bere gorputzaren zati bat hesgailuetan bildua izango zela, anda batean garraiatua. Neska garraiatzen zuen anda kalera irten zen, ohiko aurpegien artetik, laguntzaileen uniforme ilunen artetik.

— Larri al dago erre den neska? —kostata lortu zuen galdetzea poliziaren besoaren azpitik.

— Hil, ez da hilko... baina izugarria izango da neskarentzat.

Ellenek nekez egin zuen aurrera jendetzaren artean, Bosgarren Etorbiderantz presaka bazihoan ere. Kasik gaua zen. Gauaren kolorea itsasorearen sakonguneetako bezain urdina zen eta zeruan argiak igerian ari ziren.

«Zergatik hartu dut horrenbesteko zirrara?», galdetu zion bere buruari. «Zenbaitek ez ditene zorte onik izaten... Egunero gertatzen dituen horrelako gauzak». Kalapita, auhenak eta suhiltzaile-kamioien zalaparta tinko finkaturik zituen gogoan. Kale-kantoi batean aiko-maiko geratu

zen, bere aurrean autoak eta aurpegiak zarataka dirdaitzen ziren bitartean. Lastozko kapela berria zeukan gizon batek zeharka begiratu zion, Ellenekin ligatzeko itxaropentsu. Emakumeak begirada hotza eta lotsarik gabea luzatu zion. Gizon gazteak marra gorri, berde eta urdinekiko gorbata zuen. Ellen azkar igaro zen haren ondotik. Etorbidea zeharkatu eta aldirietarantz jo zuen. Zazpi eta erdiak. Norbaitekin biltzekoa zen nonbait, baina ezin zen gogoratu non. Hutsune ikaragarria sentitzen zuen bere baitan. «Ai ene! Zer egin dezaket?», xuxurlatu zuen bere artean. Hurrengo kale-kantoian taxi bat geldiarazi zuen. «Algonquin-era, mesedez».

Gero, dena ekarri zuen gogora. Zortzietan Shammeyer epailearekin eta honen andrearekin afaldu behar zuen. Etxera itzuli beharko zuen arropa aldatzeko. «George sutan jarriko dun, honela jantzita ikusten banau. Gogoko din ni Gabonetako arbola bezain apaindurik erakustea edo ibiltzen eta mintzatzen dakiten panpina horietako baten modura jantzirik. Pikotara joan dadila!»

Begiak itxita erdi etzan zen taxiaren zokoan. Lasaitu beharra zeukan. «Ez din zentzurik nerbioak airean bizitzeak, zeren eta azkenean iruditzen baitzain gauza guztiek kurrinka egiten dutela, klarionak arbela urratzen duen bezala. Eta ni erre izan banintz neska hori bezala... desitxuraturik bizitza osorako!... Seguru asko Soubrine zaharrari diru piloa atera ahal izango dio, karre-
ra bati ekiteko lain. Eta joan izan banintz nirekin ligatu nahi zuen gorbata zatarreko gizon gaztearekin...? Gozotegi batean txantxa batzuk platanozko izozki baten aurrean; gero, autobusean ibilalditxo bat, bere belauna nirearen kontra ezarrita eta beso bat nire gerriaren inguruan; apur bat musukatu ezkaratzean... Badun bestelako bizimodurik, bat ausartuz gero, behintzat. Eta zergatik ez ausartu? Hain garrantzitsuak al dira jendearen iritzia, dirua, arrakasta, hoteletako atondoak, osasuna, aterkiak edo Uneeda gailetak...? Buruak burrunba egiten zidan etengabe, hautsitako jostailu mekaniko batek bezala. Espero dinat eurek afaririk eskatu ez izana. Beste norabait joateko esango zienat, oraindik horrela-

korik egin ez badute». Hauts-kutxa ireki zuen eta sudurra hautseztatzen hasi zen.

Taxia gelditu eta atezainak atea ireki zuen. Ellen behatz-puntetan irten zen taxitik, neskato baten modura, zegokiona ordaindu eta ate birakariak atzean utzi zituen. Masailak pitin bat gorrixka zeuzkan eta begiak distiratsu, kale sakonetako gau itsas urdinaren erlantzaren eraginez.

Ate birakari isil eta distiratsutik igarotzerakoan, bere eskuak kristala ukitu gabe, ateak bira egin zuen. Halako batean, zerbait ahaztu zuela-ko usteak itolarria eragin zion. «Eskularruak, poltsa, hauts-kutxa, musuzapia: guzti-guztia zaukanat. Ez dinat aterkirik ekarri. Zer ahaztu ote dut taxian?». Hala ere, Ellen aurrera zihoan, irribarretsu, beltzez jantzitako bi gizon ilunenganantz: paparralde zuriak zituzten eta altxatu eta irribarre eginez, eskua luzatu zioten.

Txabusina eta pijama jantzita, Bob Hildebrand aurrera eta atzera zebilen leiho handien aurretik, pipa erretzen. Ate irristatzaileetatik,

edontzien tintina, oin dantzarien hotsa eta barreak iragazten ziren. Orobat, *Running Wild* kanta ere aditzen zen, lausoki, gramofonoaren orratz kamutsaren azpian karrankari.

— Zergatik ez duzu gaua hemen pasatzen? — galdetu zuen Hildebrandek bere ahots sakon serioaz—. Jende honek apurka-apurka alde egingo du... Sofa gainean jarriko zaitugu.

— Ez, eskerrik asko —esan zuen Jimmyk—. Berehala psikoanalisiak hasiko dira hizketan, eta ez dira hortik mugituko egunsentira arte.

— Baina hobe zenuke goizeko trena hartzea.

— Ez, ez dut inolako trenik hartuko.

— Aizu, Herf, Filadelfiako gizon horrena irakurri duzu? Itxuraz, maiatzaren 14an lastozko kapela jantzita zeukalako hil zuten.

— Jainko maitea, erlijioi berri bat sortuko banu, santu izendatuko nuke.

— Ez duzu irakurri? Barrez lehertzekoa da... Gizon horrek bere lastozko kapela defendatzeko ausarkeria izan zuen. Norbaitek mailatu zionez, borrokan hasi zen eta, iskanbilaren erdian, kaleko heroi horietako bat atzetik hurbildu eta kas-

koa hautsi zion berunezko tutu batez. Garezurra txikituta zeukan eta ospitalean hil zen.

— Nola zuen izena, Bob?

— Ez nuen arretarik jarri.

— Soldadu Ezezagunari buruz hitz egin deza-tela!... Hori bai benetako heroia! Sasoiz kanpo lastozko kapela jantzi zuen gizonaren urrezko kondaira.

Buru bat atearen bi orrien artean agertu zen. Ilea begien gainean zuen gizon musugorri batek barrurantz begiratu zuen.

— Trago bat gin nahi duzue?... Aizue, baina noren hileta egiten ari zarete hemen?

— Ni ohera noa, ez dut ginik nahi —esan zuen Hildebrandek aldarte txarrez.

— Filadelfiako San Aloisio birgina eta martiriaren hileta da, hain zuzen ere, lastozko kapela sasoiz kanpo janzten zuen gizonarena —esan zuen Herfek—. Nik agian gin apur bat edango dut. Segituan alde egin beharra daukat... Ikusi arte, Bob.

— Ikusi arte, bidaiari misteriotso hori... Bida-liguzu zeure helbidea, entzun duzu?

Kalera ematen zuen gela luzea bete-beterik zegoen gin botilaz, ginger alez, erdizka erretako zigarroz, dantzan ari ziren bikotez eta sofa gainean eserita zegoen jendez. Atergabe gramofonoak *Lady-lady be good* jotzen zuen. Herfi edontzi bat gin ipini zioten eskuan. Neska bat hurre-ratu zitzaion.

— Zutaz hitz egin dugu... Zu bai gizon misterio-sua, gero!

— Jimmy! —oihu egin zuen mozkor-ahots batek—. Badago ile laburreko lapurra zeu zarela-ko susmorik.

— Zuk kriminal gisa atera dezakezu bizibidea. Zergatik ez, Jimmy? —esan zuen neskak, besoa gerri inguruan ezartzen ziola—. Zure epai-ketara joango naiz, benetan diotsut.

— Nola dakizu ni ez naizela kriminala?

— Ikusten duzue? —esan zuen Frances Hildebrandek, sukaldetik izotz puskatuz beteriko ontzi bat eskuetan zekarrela—. Hemen zerbait misterio-sua dago.

Herfek ondoko neskari eskutik heldu zion eta elkarrekin egin zuten dantza. Neska balantzaka zebilen, oinak zapaltzen zizkiola. Jimmyk aterai-

no eraman zuen dantzan. Atea ireki eta dantza utzi gabe hallera atera zuen. Neskak mekanikoki ezpainak eskaini zizkion Jimmyk musua eman ziezaion. Neskari musu azkar bat emanda, kapela hartu eta «gau on» esan zuen Jimmyk. Neska negarrez hasi zen.

Jimmyk kolean arnasa sakonki hartu zuen. Zoriontsu sentitzen zen, txikitan baino askoz ere zoriontsuago. Erlojua atera nahi izan zuen, baina gogora etorri zitzaion bahian emana zuela.

Sasoiz kanpo lastozko kapela jantzi zuen gizonaren urrezko kondaira. Jimmy Herf Hogeita Hirugarren Kolean behera zebilen. Bere kasa barreka hasi zen. «Emaidazue askatasuna», esan zuen Patrick Henryk, lastozko kapela maia-tzaren batean jantzten zuen bitartean, «edo hil nazazue». Eta hil egin zuten. Ez zegoen tranbik. Lantzean behin esne-bagoiren bat igarotzen zen handik, triki-traka. Chelsea-ko adreiluzko etxe hitsak ilun zeuden... Taxi bat halako kantu-lorraz bat bidean utziz igaro zen. Bederatzigarren Etorbidean bi begiri antzeman zien: paper zurizko triangelu batean egindako bi zulo ziruditen. Ezkaratze batetik, kapusaia zeukan emaku-

me bat keinuka ari zitzaion. Harantzago, bi mari-
nel ingeles cockney-z ari ziren eztabaidan, moz-
kor-mozkor eginda. Jimmy Herf ibaira hurbildu
ahala, airea esnetsu bihurtzen zen, lainoarekin
nahasita. Urrutitik baporeen marru luze eta
samurra aditzen zen.

Itxarongela kalamastran argi gorri bat beste-
rik ez zegoen: hantxe eserita zegoen, erretzen,
ferryaren zain. Pozik sentitzen zen. Bazirudien
ezin zuela ezer gogoratu. Ez zuen etorkizunik,
ibai lurrintsutik erraldoi sortzen zen ferry hartan
ez bazen. Itsasontzi haren argiak ilaran kokatuta
eta piztuta zeuden, beltz baten irribarrea iduri.
Barandari oratuta eta kapela eskuan, ibaiaren
haizea sumatzen zuen ilean. Agian erotu egin
zen, agian amnesia zen edo izen greko luze-luze-
ko gaixotasunen bat, agian masustak biltzen
aurkituko zuten Hoboken-go metroan. Algara
egin zuen eta atea irekitzera joan zitzaion agu-
reak zeharka begiratu zion, luzaro. «Zorua, gan-
baran txoriak baizik ez ditik», ziotsan bere
buruari. «Agian arrazoia dik. Arraioia! Eta margo-
laria banintz, beharbada eroetxean margotzen
utziko zidatek. Filadelfiako San Aloisio margotu-

ko nitek lastozko kapela eta guzti, argi-koroarik gabe, eta eskuetan berunezko tutu bat duela, martiriorako tresna nagusia; eta ni, txiki-txikia, haren oinetan otoizka». Ferryko bidaiari bakarra zen, alderrai zebilen, batetik bestera, ontzia berea bailitzan. «Nire behin-behineko yatea... Dudarik gabe, hauek gaueko haluzinazioak dituk, arranopola!», murmurikatu zuen. Bere bozkarioaren arrazoiak argitzeko ahaleginetan ari zen oraindik. «Ez zagok mozkortuta, ez duk hori. Agian erotuta bai, baina ez diat uste...»

Ferryak alde egin aurretik, zaldi bat eta lorez zamatutako bagoi narrats bat igo zituzten ontzira. Bagoia masaila irtenekiko gizontxo beltzaran batek gidatzen zuen. Jimmy Herfek bira eman zuen inguruan. Zaldiaren aldaka eroriak esekitokia ematen zuen. Atzean, bagoi narratsak ezusteko alaitasuna pizten zuen garraiatzen zituen lorontziak zirela eta: han, besteak beste, geranio arrosak eta gorriminak, krabelinak, ahuntz-prakak, arrosa goiztiarrak eta lobelia urdinak ikus zitezkeen nahasirik. Maiatzeko lurrak isuritako usain sarkorra zerion bagoiari, lorontzi hezeek eta berotegiekin sortarazia. Gidaria eserita zego-

en, uzkur-uzkur eginda, kapela begietaraino sarturik. Nora zihoan hainbeste lorerekin galdetzeko bulkada etorri zitzaion Jimmyri, baina eutsi egin zion eta ferryaren brankarantz jo zuen.

Ibaiko langar huts eta ilunean, ontziralekuak bat-batean aharrausi egin zuen, argizko eztarriko aho beltz bat erakutsiz. Herfek ziztuan zeharkatu zuen halako belztasun trinko bat eta lainoak irentsitako kale batera iritsi zen. Gero, aldatz batean gora egin zuen. Beheragotik, trenbide bat iragaten zen. Merkantzi tren baten triki-traka geldia eta lokomotoraren txistua aditzen ziren. Muinoaren gailurrean gelditu eta atzerantz begiratu zuen. Argi errenkada batek zulatutako lainoa baizik ezin izan zuen ikusi. Gero, aurrera egin zuen beste mundu batekoak iritzi zien etxeilaren artetik, eta arnasa hartzean, odola taupadaka sentitzean eta bere oin-hotsak entzutean atsegin handia hartu zuen. Pixkanaka-pixkanaka lainoa desegin zen, goizeko argi perlazkoa non-baitetik iragazten zen.

Jimmy zementuzko bide batean eta zaramapilo ketsuz beteriko zabortegien artetik zebilela nagusitu zen egunsentia. Laino artean, eguzkia-

ren distira gorri ageri zen, motore laguntzaile herdoiltsu, kamioien eskeleto, Ford autoen egitura eta metal karraskatuzko multzo itxuraga-beetan zehar. Jimmyk ibilera bizkortu zuen, kiratsa lehenbailehen atzean uztearren. Goseak zegoen. Zapatak zirela eta, oinetako behatz lodietan babak ernatzen hasiak zitzaizkion. Bidegurutze batean, argizko seinale bat artean pilpiratzen ari zen arreta eskatuz. Han gasolindegia bat zegoen, Lightning Bug izeneko otordubagoia parez pare zuena. Arduratsu, bere azken quarterra gosaria ordaintzeko erabili zuen. Oraindik hiru zentabo zituen, zorte ona ala txarra ekarriko ziotenak, berdin zion. Altzariak garraiatzeko itzelezko kamioi distiratsu eta hori bat ate aurrean gelditu zen.

— Aizu, eramango nauzu? —galdetu zion bolanteari helduta zegoen gizon ilegorri bati.

— Nora zoaz?

— Ez dakit. Urrun xamar.